

KRISTAU FEDEA
(Teologi - saileko azalpena)

AURKIBIDEA

Orrialdea

Hitzaurre-gisa	7
Bibliografia	11
Maizenik erabiltzen diren laburdurak	13

I Parte

I Kapitulu. Fedearen Teologia, bihurtune batean	17
II. Kap. Fedea, Jainkoaren dohaina	36
III. Kap. Ezagupenaren alderdia fedean	50
IV. Kap. Fedezko baieztapenak zertan oinarritzen dira?	64
V. Kap. Fedearen zentrua edo muina	76
VI. Kap. Askatasuna eta Ziurtasuna fedean	82
VII. Kap. Ilun eta, halaz guztiz, sinesgarri	92
VIII. Kap. Fedea Elizaren galtzarrean	102
IX. Kap. Eskatologi oldarra kristau fedean	108
X. Kap. Fedearen analisisa ("Analysis fidei")	116
XI. Kap. Fedearen beharra salbaziorako	124
XII. Kap. Doniane Gurutzekoaren irakaspena fedeari buruz	134
XIII. Kap. Dogmak eta formula dogmatikoak fedean	142
XIV. Kap. Fedetik saihesten diren jarrerak	153

II. Parte

XV. Kap. Fedea Biblian	163
XVI. Kap. Fedea, Esperantza eta Karitatea: hiru izaki desberdin, ala jarrera bakar baten hiru aurpegi?	172
XVII. Kap. Hutsezintasuna fedean	178
XVIII. Kap. Teologiak gure egunotan ezagutu dituen osaketa eta gaurkotzeak	185
XIX. Kap. Agerkundera (Errebelazioa)	195
XX. Kap. Eskritura eta Tradizioa: bien arteko har emanak, edo Agerkundera nola gureganatzen den	213
XXI. Kap. Erlijio-askatasuna	227
XXII. Kap. Ebanjelizapena	240
XXIII. Kap. Gaur fedeari azpiak jaten dizkioten zenbait eslogan	256
XXIV. Kap. Jainko-herriaren Kredoa	273

III. Parte

XXV. Kap. Kristo ere fededun?	297
XXVI. Kap. Fedea bere begi-ninian	308
XXVII. Kap. Jainkoaren hitzak, gugaratzeko, gizakunde-bidea hartu du.	319

Elizaren baimenaz

Azaleko apaingarriaren egile: Aita Xabier A. Eulatekoa

ISBN: 84-7240-138-3

Depósito Legal: BU - 633. — 1986

Fr. Luis Villasante

KRISTAU FEDEA

(TEOLOGI-SAILEKO AZALPENA)

EDITORIAL FRANCISCANA ARANZAZU
OÑATE (Guipúzcoa)

HITZAURRE-GISA

Badira urte batzuk. Blaiberg-i bihotz berria landatu ziotenean mundu osoa dardara batean egon zen. Denon itxaropenak zintzilika bezala izan ziren. Zenbait hilabeteren buruan, ordea, arbuioak garaitu zuen eta Blaiberg hil egin zen. Hauxe harrigarria! Nahiz eta jakin, bizi ahal izateko, birlandaketa noraezekoa zela, organismoa, buru-fuinetatik hasi eta zelula xumeenetaraino, bere amarrukeria guztiekin bihotz berriari kontra egitera jarri zen.

Adibide hau agian ez da txarra fedearekin gertatzen dena adierazteko. San Paulo berak ez ote digu txertoarena erabili? (Ikus Rom 11,17-20).

Bai. Fedea zerutikako sorkaria da, gizonari goi biziaz bizi ahal dadin, eskainia. Baina gizona txerto honi amarrukeria guztiekin jarkitzera jartzen da. San Joani ebanjelioan zehar halako mingostasun bat antz ematen zaio judu herriko gehienek Jesusi egin zioten arbuioagatik. “Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu” (Jo 1,11).

Hala izan da lehen, eta, seguraski, izango da gero ere, giza kondairan barna. Sinestea eta Sinesteza, bi-biak azaltzen zaizkigu gizartean, bata bestearen ondoan, nahiz eta aldarte batzuetan bata bestek baino baliabide gehiago izan bere alde.

Teori-mailako lanak —eta gureak halakoa izan nahi luke— igarokor eta mementoko gora-beheren gainetik kokatzen dira; baina horrek ez du esan nahi ingurune hurbilaz ahazkor izan behar dugunik. Fedea izaki zerrutarra izanarren, giza itsasoan ari da murgil eta kulunka; horren ondorioz, moldaerak eta neurri bateko egokitzeak egin behar izaten ditu mendeen eta jendakien eta kulturen arabera. Bere izatasun eta funtsari uko egin gabe, ordea, beti ere.

Gure artean, agian lehenbiziko aldiz, sinestea eta sinesteza bekoz-beko eta lotsarik gabe elkarren ondoan ageri zaizkigu, eskubide berberekin airtortuak. Gehiago oraindik: bigarrenak —sinestezak— ez ote dituen bere alde oihulari ozenagoak nago. Hori bakarrik balitz, oraino gaitzerdi baizik ez litzateke. Izan ere, fededunak ikasi behar du fedegabea gizartean bi-

zikidetzat hartzen; baldintza batekin, ordea: bere fedea ahoz, besoz eta zangoz katigu ez bihurtzekotan.

Baina gaur tentaldirik larri eta labainena badirudi beste nonbaitetik heldu zaigula fededunoi, hots, etxetik, barnetik. Ezarian eta igarri gabe, modernotasunaren aitzakiaz, barneko muina ebatsi zaion sasi fede eta sasi kristautasunaz gelditzeko arriskua dugu, alegia. Eta hor ez, ez dugu sekulan amore eman behar. Fedeak egokitzeak eta bir-planteaketak egin beharko ditu mendeen eta kulturen arabera, baina beti ere bere muinari leial egonez.

Gaurko tentaldia, O. Gz. de Cardedal-ek esan duenez (1), honako hau litzateke: Jainkoa —edo Jesukristo, berdin da— baitako fedea beste zerbaitetarako tresnatzat hartu nahi izatea. Jainkoa zerbitzatu beharrean, Hartaz baliatzea. Ez Jesukristogan sinestu, bainan norbere burua Haren pareko egin eta Haren autoritatea bagenu bezala joka. Baina Jainkoa xede eta jomuga dugu, eta ez inolaz ere beste zerbaitetarako tresna. Ez gara joaten —ez dugu joan behar— federa hemengo zerbaiten bila, hau betiko, eta aparteko modu batean gaurko, tentaldia bada ere. Fedea ez da alkohola, ez da lo eragiteko edaria. Baina ezta ere ez da beste zerbitetarako tresna. Ez ote digu hori gogoratu Elizak Askapen-Teologiari buruzko gutunekin?

“Zaudete beti prest, zeuen itxaropenari buruz galdetzen dizuenari arrazoiak adierazteko” (1 Pt 3,15). Bai. Mundu honetan gauza guztien arrazoiak behar dira adierazi. Eta, zinez, Teologiak gure mendeen lan gaitza burutu du fedearen aztergai honi erantzun egoki bat bilatu nahirik.

Eta hauxe da, hain zuzen, saio honen helburua: Teologiak kristau fedeari buruz aztertu duenaren azalpen bat egin; dibulgazio mailatakoa, baina serioski egina, halere. Nahi genuen hori, noraino lortu ahal izan dugun ez dakigu. Ez dugu orijinal izateko burujoperik bat ere. Eta teori mailako gaia azaltzen arituagatik, gaur eta hemen gaudela ez dugu ahazten; inguru eta inguruko kezkak ere nolazpait begien aurrean eduki nahi izan ditugu. Gaur fedea gure artean jasaiten ari den borrokan ahal duguntxoa ipini nahi izan dugu.

Anitz urtez esplikatu behar izan dugu, bai Teologia Fundamentala eta bai fedeari buruzko teologi-traktatua ere, eta geure lepotik eta hausnarketa eta irakurketa luzeren ondorioz, behar diren bereizkuntza eta zehazpenak egiten ikasi behar ere bai. Nolanahi den, gaurko Teologiak egin dituen ahaleginen ondoren ez dago eskubide, deus egin ez balitz bezala, fedea zerbait zaharkitu, gainditu eta Zientziaren aurkakotzat jotzeko. Gaurkotzeok ere, jatorrak eta behar bezalakoak izan nahi baldin badute, federen izatasuna salborik utziz egin beharko dira; hori izan da gure arrangura.

(1) *La gloria del hombre*, Madrid 1985; p. 288.

Teologi sailekoa da gure lana. Hori diogunean, ordea, zer esan nahi ote dugu preseski? Fedea ari dela hemen bere buruari galdezka, bera zer den ulertu nahirik. Ezaguna da harako erasia hura: "Fides quaerens intellectum", hots, ulerkuntzaren bila dabilen fedea. Fedetik egina da, bada, lan hau. Fedea zer den, teologi mailan azaldu nahi da, bada.

Liburua luze xamarra atera zaigu: 27 kapitulu hiru zatitan banatuak. Lehen zatian nolazpait Eliz Irakasgoak fedeari buruz epaituak dituen alderdi edo ikusaldeak azaltzen dira. Bigarrenean, gaia pixka bat gehiago barnatu nahirik, sustraira hurbilagotzen ahalegindu gara. Hirugarrenean, azkenik, H. U. von Balthasar-en eskutik, zenbait puntu, gaiaren zolaraino heltzeko apartak diruditenak, azaltzen ditugu.

Euskaraz gaia izendatzeko erabili behar genuen izenaz ere izan dugu zalantza zerbait, nahiz eta ez luzea. Denok dakigu *fede* hitzak erro sakonak eginak dituela gure hizkuntzan; baina latinetik mailegatua delako, eta bestela ere euskaraz *sineste*, *sinesmen*, *sineskera* eta abar badi-tugulako, kanpora jaurti nahi izan da. Azkueren hiztegi handian alferrik bilatuko duzu *fede*. Bitxia hauxe! Euskarazko lehen esaldi inprimatuan ageri den hitza izan (1), gainera egunero euskaldunak aho-mihitan hartua, eta halaz guztiz jatortasun-agiria ukatu nahi izan zaio. Guk, ordea, beste horiei ere beren lekua gorderik, gehienetan edo maizenik *fede* hobetsi izan dugu. Arrazoiak? Erabileraren maiztasuna, noski; eta baita hitz horrek edukinaren aitzingibel jori-aberatsei ohartzeko duen egokitasun aparta ere.

Bai. *Fede* hitzak latinetik hartua delako seinalea kopetan darama. Eta hau da harrigarria: hiru hizkuntza klasikoetan erabiltzen diren izenak, hots, hebraieraz (*aemunah*), grekoz (*pistis*), eta latinez (*fides*), hiruek isladatzen dituzte ñabardura berdintsuak, hots: leialtasuna, fidantzia, sineskera sendo-hutsezina (2). Aditza, berriz, euskaraz, beste enborrekoa dugu; *sinetsi*. Beronen eraketak gardena dirudi: *zin etsi*. Guztiz adierazkorra, beraz, hau ere.

Esan dezagun, bukatzeko, San Joanentzat —eta berdin San Paulorentzat— fedean biltzen dela Jesusek ekarritako salbamenaren gora-behera guztia (3). Hori jakinik, ba ote da gai honen garrantziaz beste ezer gaineratu beharrik?

(1) LEGARDA (ANSELMO), "Primera frase vasca impresa conocida en Torres Naharro, 1513" *Boletín de Amigos del País* 7 (1951) 41-48.

(2) RODRÍGUEZ (ISIDORO) - ORTEGA (ALFONSO), *Los Escritos de San Francisco de Asís*, Murcia 1985; p. 58.

(3) SCHNACKENBURG (RUDOLF), *El Evangelio según San Juan*, Barcelona 1980; I, 543.

BIBLIOGRAFIA

- ALFARO (J.), *Fides Spes Caritas. Adnotationes in Tractatum De Virtutibus Theologicis* (ad usum privatum auditorum) Romae 1963
- ALFARO (J.), *Cristología y Antropología. Temas teológicos actuales*. Ed. Cristianidad, Madrid 1973
- ALSZEGHY (ZOLTAN) - FLICK (MAURIZIO), *Cómo se hace la teología*, Ediciones Paulinas
- AUBERT (ROGER), *Le problème de l'acte de foi. Données traditionnelles et résultats des controverses récentes*, Louvain 1958
- CONGAR (YVES), *La fe y la teología*, Barcelona 1970.
- CONGAR (YVES), *Tradición y Tradiciones*, Col. Prisma, 2 vols.
- GUARDINI (ROMANO), *Esencia del Cristianismo*, Guadarrama, Madrid 1959
- GUARDINI (ROMANO), *Religión y Revelación*, Guadarrama, Madrid 1960
- GUARDINI (ROMANO), *Sobre la vida de la fe*, Rialp, Madrid 1955
- LATOURELLE (RENÉ), *Théologie de la Révélation*, Desclée de Brouwer 1963
- LATOURELLE (RENÉE), *Cristo y la Iglesia, signos de salvación*, Ed. Sígueme, Salamanca
- LENGSFELD (PETER), "Tradición y Sagrada Escritura: su relación" in *Mysterium Salutis* I, 522-556
- LENGSFELD (PETER), *Tradición, Escritura e Iglesia en el diálogo ecuménico*, Ed. Fax, Madrid
- LOMBARDI (RICARDO), *La Salvación del que no tiene fe*, Herder, Barcelona 1953
- LUBAC (HENRI DE), *La Fe Cristiana*, Fax, Madrid 1970
- LUBAC (HENRI DE), *L'Ecriture dans la Tradition*, Aubier Montaigne, Paris 1966
- NEWMAN (JOHN HENRY), *El Asentimiento Religioso. Ensayo sobre los motivos racionales de la fe*, Herder, Barcelona 1960
- PIEPER (JOSEF), *La Fe*, Patmos, Madrid 1966
- PIEPER (JOSEF), *La fe ante el reto de la cultura contemporánea*, Rialp
- RAHNER (KARL), *Curso fundamental sobre la fe (Introducción al concepto de cristianismo)*, Herder, Barcelona 1979
- RAHNER (KARL), *Escritos de Teología*, 6 vols., Taurus, Madrid 1969
- RATZINGER (JOSEPH), *Teoría de los principios teológicos. Materiales para una teología fundamental*, Herder, Barcelona 1985
- RATZINGER (JOSEPH), *Palabra en la Iglesia*, Ed. Sígueme, Salamanca 1976
- SCHNACKENBURG (RUDOLF), *El Evangelio según San Juan. Versión y Comentario*, 3 vols., Herder, Barcelona 1980
- TRÜTSCH (J.) - PFAMMATER (J.), "Explicación teológica de la fe" in *Mysterium Salutis* I, 915-989

VON BALTHASAR (HANS URS), *La foi du Christ*, Aubier, Editions Montaigne 1968
 VON BALTHASAR (HANS URS), *Gloria. Una estética teológica. Vol. I La percepción de la forma*, Ediciones Encuentro, Madrid 1985
 VON BALTHASAR (HANS URS), *El corazón del mundo*, Barcelona 1968
 VON BALTHASAR (HANS URS), *Yo creo*, Madrid 1981
 VON BALTHASAR (HANS URS), *Sólo el amor es digno de fe*, Salamanca 1971
 VON BALTHASAR (HANS URS), *El cristianismo es un don*, Barcelona 1973
 VON BALTHASAR (HANS URS), *Ensayos Teológicos*, Ed. Cristiandad, Madrid 1965
 WOJTYLA (KAROL), *La fe según San Juan de la Cruz*, BAC, Madrid 1979

MAIZENIK ERABILTZEN DIREN LABURDURAK

Eskritura Sainduko liburuak aipatzeko, arruntki kurritzen duten latinezko laburdurak erabiltzen dira, adibidez: Rom (ad Romanos), Hebr (ad Hebraeos), Gn (Genesis), Act (Actus Apostolorum), Mt (evangelium secundum Matthaeum) etab.

AAS = *Acta Apostolicae Sedis*

DS = Denzinger-Schönmetzer. *Enchiridion Symbolorum et Declarationum de rebus fidei et morum*, Herder (Deiak bir-moldaketa berri honen arabera egiten dira)

RJ = Rouët de Journel. *Enchiridion Patristicum*

Batikano II.eko gutunak hasierako hitzen laburduraz aipatzen dira, hots:

AG = Ad Gentes

DH = Dignitatis humanae

DV = Dei Verbum

GS = Gaudium et Spes

LG = Lumen Gentium

Aquinoko San Tomasen Summa ezagun den modura aipatzen da. Adibidez: III, q. 7, a. 3 = hirugarren partea, 7. kuestioa, 3. artikulua.

Ax = Axular

ICI = Informations Catholiques Internationales

Cf = Confer (kontsulta dadila)

Ik = Ikus (ikus bedi)

I PARTEA

Lehen Kapitula

FEDEAREN TEOLOGIA, BIHURGUNE BATEAN

Trütsch jaunaren ustetan, honako hau izango litzateke teologia berriak ekarri duen ekarpenik funtsezkoenetako bat eta bai fruiturik umona ere, hots: fedea zer den azaltzerakoan, aurreko gizaldiak baino jatorkiago erantzuten asmatu duela. Kristau Dotrinak egiten duen galdera honi *Zer da kristau fedea?* erantzutean, egiatik hurbilago dabilen erara erantzuten jakin izan duela, alegia. Ez da guti (1).

Zer den fedea argitzea, beraz. Galde honi erantzun egokia ematea, horren zaila ote da, gero? Lehen kolpean ez dirudi. Haatik...

Aita M. Elizalde, etxalartarra

Joannes Etxeberri Sarakoak bere *Eskuararen Etorkia*-n (2), Euskal Herriak eman dituen gizon ospetsuen artean Aita Elizalde jesuista eta Etxalarko semea aipatzen du.

Bai. Etxalarko semea zen. Fedeari buruzko teologian aipatu beharrezkoa da, ezen ildo luzea utzi duen esplikazio-mota bati berak hasiera eman edo behintzat atea idiki zion.

Etxalarko elizaren ondo-ondoan dago haren sortetxea. Eta haren eskutitz-mordoa ere gordetzen dute oraindik etxean.

Aita honek 1662. urtean liburu bat argitara zuen: *Forma verae religionis quaerendae et inveniendae*. Hots, egiazko erlijioa bilatu eta aurkitzeko moldea. Eskutan erabiltzerik ez dudala izan aitortu behar dut, gaur aurkitzen zaila da eta (3).

(1) Ikus *Mysterium Salutis* 5, 915; Madrid 1969.

(2) Ikus *Lan Hautatuak*, Ed. Lur, 80. orrialdean.

(3) Ikus H. HURTER, *Nomenclator literarius Theologiae Catholicae*: Michael Elizalde S.J.; t. IV, 286. Ikus baita ere VACANT-MANGENOT, *Dictionnaire de Théologie Catholique*, sub verbo Elizalde.

Liburu honek, irtenberri hartan, eraso bortitzak jasan behar izan zituene orduko teologo zaharrengandik, baina handik laster haren ikusmoldeetara biltzen dira gehienak. Eta ia gure egunok arte nagusi izan den teologi eskola baten sortzaile dugu.

Orduko kultur giroaren eskakizunei erantzuteko egokia zirudien, non-bait, eta hortik arrakasta hori. Gaur, berriz, bazterrerat utzia da, ez bakarrik liburua, baita harengandik hasiera izan duen teologi eskola ere.

Beraz, garai hartan zabalduz zihoan kultur giroari ongi erantzuten ziolako, aginpidea hartu zuen fedeari buruzko teologi esplikazio honek. Guztiz azkar eta aguro hartu ere. Eta luzaz iraun du aginpide horretan. Baina egin zaizkion kritiken ondoren, zokoratua izan da.

Elizalderen lana bere balio eta mugekin neurtu nahi izanez gero, hara, itxuren arabera, zer behar den esan: Elizaldek eskaintzen duen Egiazko Erlijioa Bilatzeko eta Aurkitzeko Moldeak berez ez du deus txarrik, bide bat bezala —besteen artean— hartzen baldin bada. Baina kontua da kristau federa heltzeko bide bakar eta ezin utzizkotzat eman zela, eta orduan ez, ez da onartzekoa. Hertsikeria da hemen txarra.

Teologi bide honen goiti-beheitiak. Gaur egiten zaizkion kritikak

Gertaera honek —Elizalderen arrakastak— ez gaitu gehiegi harritu behar. Izan ere, teologoak maiz-sarri razionalista ttipi batzuk ditugu: beren ikuspuntu mugatutik heltzen diote Jainkoaren Agerkundeari. Egin ohi dituzten sistematizazioak, mende jakin bateko joerekin ados daudelarik, modako gerta daitezke; baina kuestioa da fedearen iturriei zor zaien leialtasuna ea zenbatetaraino gordetzen duten. Agerkundea edo Jainkoaren Hitza dago guztien gainetik. Teologoak, kristau errealtateen kontu ematerakoan, kristau iturrien datuak aintzat hartu behar ditu. Bestela, egiten dituen sistemak borobil, arranditsu, oso arrazoizko eta mende bateko izpirituaren gogokoak izango dira, beharbada, baina, azken finean, kristautasunaren barnetik begiraturik, hutsal eta alfer gerta daitezke.

Horrelako zerbait gertatu zitzaion fedearen teologia honi ere. Haatik, bizitze aski luzea izan du, zeren XX. mende hasieran berau baitzen oraino jaun eta nagusi. Blondel-en ikasle batek —B. de Saily— zioen naturalismo huts-soila zeriola teologo anitzek fedeari buruz ematen zuten esplikaziolari (1). Van Noort, Bainvel, Harent, Billot bera eta erronka luzea osatzen dute eskola hau segitu dutenek —bakoitzak bere ñabardurekin, jakina—.

(1) IKUS R. AUBERT, *Le problème de l'acte de foi*, Louvain 1958; p. 233.

Interesgarri izan ohi da beti ere sistema baten motibazio ezkutuari kasu ematea, ezen horrek ematen digu gakoa pentsalariaren hari gidaria ezagutzeko.

Teologi sistema honek, bada, kristau fedea arrazoiaren aitzinean zuritu —hots, justifikatu— nahi du. Eta justifikatu ere ez nolanahi, zientzia zehatzen legeen bidez baizik. Dudarik gabe, kezka nagusi hau datza azpian.

Xede hori lortzeko, federako bidea mailaz-maila honela mailakatzeko du:

1) Lehenik, giza arrazoiak bere argi soilaz eta froga errutsuen bidez Jainko bakar bat, Sortzaile, Sari-emaile eta abar badela frogatu behar du.

2) Bigarrenetik, giza arrazoiak berak frogatu behar du Jesukristo dela Jainkoak mundura bidali duen mandataria, eta, beraz, Hark irakatsitako guztia onartu beharrekoa dela.

Horiek guztiak egin eta, giza arrazoiak agintzen dio nahimenari Kristok irakatsitako dotrinari sineste eman diezaion. Orduan honek jakinaren gainean eta libreki fedeko aktoa egiten du. Horra zer den kristau fedea. Horra dena argitua. Horra dena esplikatua, arrazoiaren eskakizunei asebetea emateko moduan, gainera.

Hau izango litzateke, hezur hutsean, gizonak federa heltzeko duen ibilpide-legea.

Eta bide hori ibili ezik, fedea ez litzateke zuzena, bidezkoa, arrazoizkoa eta behar bezala oinarritua, hots, gizonari dagokion bezalakoa ez litzateke izango.

Egia da —gero ikusiko dugunez—, kristau fedean giza arrazoiaren eskubideak salborik gelditu behar dutela eta gelditzen direla, eta, beraz, kristau fedea ez dela fideismo itsua. Ez da, alegia, bat ere sendotasunik ez duen zer bait sinestea.

Baina teologo horiek dioten bezala gertatzen ote dira gauzak, gero? Jaun horiek, alde batetik, urrunegi dihoaz, eta, bestetik, motxegi gelditzen zaizkitzu. Bada hemen halako zurruntasun eta hertsikeria bat, eta laboratoriko sistema bat, egunoroko esperientzian ikusten eta gertatzen denaz bat ez datorrena. Eta zer esanik ez: kristau iturriek fedeari buruz diotena ez du esplikazio honek behar adina kontutan hartzen.

Ortodoxiaren barnean daudela erakusten jokalaria trebeak agertu dira beti, eta horri esker, Eliz Irakasgoak ez ditu sekulan jorratu.

Gaur, berriz, kritika gogorrek egiten zaizkio sistema honi.

Gure mendean Teologiaren berriztatze bat gertatu da, eta berriztatze honek fedearen alorrean eman ditu fruiturik umoenak. Kristau fedeari buruz ikusmolde zurrun horiek gainditu eta sintesi berri eta aberatsago batera iritsi ahal izan da. Nola gertatu da hori? Alde batetik, kristau iturrietan dauden datuetarik hurbilago egonez, eta, bestetik, giza eza-

gueraren legeak eta psikologia bera hobekiago barnatuz, eta xehetasun guzti horiek kontutan hartuz.

Gainerakoan, neurri handi batean, berriztatze hau lehengora, tradizioziora itzultzea izan da.

Ikus dezagun laburzki Elizaldegandik etorburua duen esplikazio-mota honi egozten zaizkion kritikak zein diren.

1) Kristau federa heltzeko, jaun horiek dioten arrazoiketa luzeak behar baldin badira, orduan kristau fedea jakintsu guti batzuen esparru itxia bihurtzen da. Eta jende xeheak —haurrek, ezjakinek etab.— ezingo lukete fede zuzen eta behar bezalakorik izan, zeren hortarako behar diren arrazoiketa eta frogantzak egiteko ez baitira gai. Gauza txokagarria benetan! Ebanjelioetan badirudi fedearen erresuman halako toki aparta dutela ttipiek, xumeek (Ikus Mt 11,25). Baina teologo hauek egiten duten sisteman beste aldera dira gauzak: hemen jakintsu eta eskolatuek dute sinestearen monopolioa; eta beste guztiek nola hel daitezkeen fede zuzen batera ez da garbi ikusten. “Pueri et Rudes” direlakoan sinestea justifikatzen izaten dituzte lanak. Izan ere, horien fedeak —eta parterik gehiena osatzen dute fededunen artean— nekez betetzen ditu teologo hauek jarritako baldinkizunak. Ez ote da esan behar orduan esplikazioa bera ez dela zuzena?

2) Beste hoben larri hau ere egozten zaio teologi bide honi: Naturalismoan erortzen dela, hots, graziari fedean aitortu behar zaion lekua ez dela han ageri. Hobeki esateko, hitzez bai, aitortzen dute segurki, zeren teologo horiek katoliko izan nahi baitute eta badakite kristau iturriek hori irakasten dutela eta Elizak ere hala definiturik duela; beraz, berek ere graziari toki bat uzten diote beren sisteman; baina grazia hor gaine-tiko eta ondoko estaldura bat bezala dator. Horien esplikazioari baga-gozkio, fedeko aktoa berdin-berdin egin daiteke graziarik gabe ere. Jaun horien ustetan kristau fedea, bere hezur hutsean, gizonaren indar soilaz egindako gauza izango litzateke, nahiz eta gero graziaz urrezaturik ageri. Orain bada, kristau iturriek ezagutzen duten fedea ez da eite horretakoa, ezta hurrik eman ere. Horregatik, halako Pelagiotar kutsua antz ematen zaio teologi eskola honi.

3) Beste behaztopa-harri bat: fedearen libertatea. Elizak definiturik du gizona bere eskuko dela fedearen *bai*-a ematerakoan. Eman lezake libreki, eta bai uka ere. Fedea, alde horretatik, zera da: gizonak egiten duen bere buruaren eta bere pertsonaren emaitza bat Jainkoari, eta hori libreki egiten du, eta, hain zuzen, horregatik da sarigarri. Baina guzti hori funtsezko esplikaziorik gabe gelditzen da sistema honetan. Hemen badi-rudi zientzia bezala, fedea ere adimenaren baitezpadako ondorioa dela.

4) Azken batean, eta itxuren arabera, makur horiek denak hara non-dik heldu diren: fedea eta zientzia gauza bera edo guztiz antzekoak di-

rela uste izatetik. Eta zinez, gizon horien ardura eta kezka horixe izan da: jakintzaren aurrean kristau fedea justifikatzea, eta hortarako jakintza bihurtu digute fedea. Baina fedea jakintzaren aurrean justifikatzeko, ez zegoen hortaraino joan beharrik.

5) Federa heltzeko ibili behar diren urrats edo etapak mailakatzean, beste makur hau ere egiten dutela dirudi, hots: urrats horiek denboraz bereziak eta hastanduak egon behar dutela uste baitute, orain bata eta gero bestea egin behar balira bezala. Batzutan hala izango da, agian, baina maizenik ez. Gehienetan aldi berean eta batera gertatzen dira gauzaok.

Esate baterako, teologi eskola honek arduraz bereizten du *sinesgarritasun-epaia* ("juicio de credibilidad") eta fedezko egintza bera ("acto de fe"). Banaketa hau berez zuzena da, noski. Nik fedezko aktoa egin dezadan, aitzinetik nahi-eta-ez behar dut fedeak dioena egia dela jakin edo konbentzimendu hori izan (hori da *sinesgarritasun-epaia*). Orduan, eta orduan bakarrik, egin nezake fedezko aktoa.

Gure teologoez arretarik handienaz mailakatzen dituzte *sinesgarritasun-epaia* heltzeko ibili behar diren urratsak: lehenik, Jainkoa badela frogatu behar da; ondoren, Jesus Jainkoak bidali digun Mandataria dela, eta, beraz, Honek irakatsia *sinesgarri* eta are sinets beharrekoa dela frogatu behar da. Eta ondoren, arrazoiketa errutsuez hori frogatu ondoren, orduan bakarrik egin daiteke fedezko aktoa.

Egia da, bai, fedezko aktoa egiten duen orok, nola edo hala, modu batera edo bestera, kristau fedeak dioena egia delako konbentzimendura heldu behar duela. Ez bakarrik fedeak dioena egia dela ikusi, baita hori onartzerara beharturik dela ere ikusi behar du. Baina hori denori askotan kolpe batez eta puntuan bezala gertatzen da. Eta hori ikusi eta fedezko aktoa egin, guztia izan ohi da orobat.

6) Jaun horiek, ordea, pentsatzen dute hortara heltzeko —*sinesgarritasun-epaia* heltzeko— ez dagoela bide bat baizik: jakintzaren bidea, hots, arrazoiketa abstraktoen bidez fedearen *aitzinekoak* —*preanbuloak*— frogatzea. Baina hori bide bat izan daitekeela bat ere ukatu gabe, esan behar da, haatik, badela beste biderik. Zuzen eta legezko den beste biderik, alegia.

Auzi guzti honen azpian oker-aditu bat datza. Teologiak badu sail edo adar bat, Apologetika deritzana. Kristau fedea giza arrazoiaren aitzinean justifikatzeko zeregina dagokio Apologetikari. Alde horretatik, Jakintza bat da Apologetika, eta jakintza den aldetik, argumentu orokor eta kanpokoak behar ditu erabili, edonork noiznahi azter ditzakeenak, noski. Hala behar du joka, bere xede eta helburuari erantzungo badio.

Baina makurra egiten da —eta makur handia— edozein fededunen aktoa jakintza horren neurriez neurtu nahi denean. Izan ere, jakintza

horrek ez du errealtate osoa hartzen. Eta ezin du hartu, gainera, bere metodoa den bezalakoa izanik.

Kasu honi, ordea: honekin ez dugu esan nahi kristauaren fedezko aktoa arrazoizkoa ez denik, arrazoiaren eskubideak salborik uzten ez dituenik. Bai. Arrazoizkoa izan behar du beti ere. Baina arrazoizkoa izateko ez du nahi-eta-ez Apologetika zientifiko horrek dakartzan argumentuekin bermatua egon behar. Indibiduo partikular batek izan ditzake arrazoi jatorrak eta errutsuak, Apologetikak azaltzen dituenek gainera eta kanpora.

7) Eta bihoa ikusmolde honi oraingoz egingo diogun azken kritika, baina kritika oinarritzkoa: giza ezaguerari buruz teoria bat guztiz motza eta amutsa duela, eta, beraz, ezin onartuzkoa. Eskola honek uste du egiara iristeko ez dela arrazoiaketa abstraktoa eta silogismoa baino beste biderik. Mozkeria horren erruz, ez da gai eta ez trebe egunoroko bizitzean gertatzen diren gertakariak esplikatzeko ere.

Gizonak baditu ziurtasun batzuk gauza askoren gainean, eta ziurtasun horietara heltzeko baditu bideak. Bide horiek jatorrak eta legezkoak dira, arrazoizkoak, baina hala ere ez datoz beti bat jakintza zientifiko baten legeekin. Beste hitzez esateko: giza arrazoiaren esparrua eta Jakintzarena ez dira erabat berdinak; hark beste honek baino hedadura zabalagoa du.

Nik badakit ziurtasun osoz urliak maite nauela; ziurtasun hori arrazoizkoa da, arrazoizko frogantza jatorretan oinarritua, baina Jakintzak nahi eta behar dituen argumentuekin frogatzeko moduzkoa ez da. Jakintzak errealtatearen zati bat ingura dezake, ez errealtate osoa. Giza bizitzean badira mila ziurtasun, behar-beharrezko ditugunak eta giza arrazoiak guztiz jatorki eskura dituenak inolazko Jakintzarik estudiatu gabe ere.

Teologi eskola horrek, aldiz, uste du, silogismo bidez lortzen den ezagupen abstrakto hortaz landara, ez dela beste ezagupen mota jatorrik. Hor du, segur aski, bere alderdi argal eta hutsunerik nabariena fedea esplikatzeko muntatu den sistema honek.

Gauzak hertsikiago mugatu nahiz, agian esan behar da guti batzuen fede-bidea esplikatzeko balio lezakeela sistema honek. Bide hau guztiontzat derrigorrezkotzat jartzean egiten da batez ere hoben. Gehienek bi-dea ere ez da, noski.

Teologi sistema honek bi mende eta gehiagor iraun duela ikusiz, zerbait onik ere baduela pentsatzekoa da, beste alde. Bai. Logika borobil eta trinkoz eratua da eta adimenduari halako asebetea emateko aukerakoa da. Hortik du bere lilura eta erakarpen-indarra. Baina, azken batean, "analysis fidei" deitzen den problema horri oldartzean, zeharo porrot egiten du.

Kartesianismoaren kultur giroko sorkaria

Elizalde eta haren ondokoek sistematizazio hau egin zuteneko garaiari ere so egin diezaiozun. Izan ere, sarritan horrek eman ohi du gaikoa sistema baten sorrera eta eitea ulertzeko.

XVII. mende hondarrean gaude. Europako kultura kenka larrian aurkitzen da. Ertaroko filosofiak erreka jo du, eszeptizismoan erori da, alegia (1). Irtenbide bat bilatu nahirik, Descartesek Matematikazko demostrazioa jarriko dizu eredu bezala eta bide horretatik sar arazi nahiko du teologia ere.

Filosofiak erreka jotzearekin batean, giza izpirituak beste bide berri batzuk hartuko ditu: zientzia positiboen bidea. Hortik ekoizpen miragarriak segituko dira: aurkikunde berriak etab., batez ere izadiko zientzietan.

Irabazpen horiekin liluraturik, gizonak usteko du hor bakarrik dela lur trinkoa, eta gainerako guztiari halako mesfidantza batez begiratzen hasiko da, hots, filosofiari, erlijioari, teologiari, etab.

Beraz, eta ondorio bezala, orduan sinesteza zabaltzen da, guztiz ere jende eskolatu eta gizarte goi mailakoen artean.

Hark horrelakorik nahi ez bazuen ere, Descartes bera izango da Materialismoari bidea idekiko diona. Ertaroko filosofiak erreka jo duela ikusirik, bide berriak urratzera jarriko da. Matematiketan usatzen diren bezalako demostrazioak —hots, baitezpadakoak— filosofian nahiko ditu, guztiz argi, garden, zehatz, distirant ez den oro baztertuz. Ideia klar eta ongi mugatuen erresuma nagusitzen eta orotara da zabaltzen.

Neurritzagaineko izpiritualismoa jarriko du Descartesek, gizona adimendu huts-soila balitz bezala, gorputza eta gorputzaren ingurumaritik heldu dena gutietsiz.

Lehenbizi hartan Descartesen bide berriak kausitze handia ezagutu zuen. Baina aurki gertatu zen biraketa ere, hots, beste muturrera, Materialismora jotzea (Locke, La Mettrie, etab.).

Descartesen metodoa tresnatzat hartuz, erlijioaren eta fedearen ukazioa egingo da, bada.

Aipa dezagun, adibidez, Jean Meslier-en kasua (1664-1729). Jaun hau apezka zen, laborari herri bateko erretorea. Hiltzerakoan obra gotor bat utzi zuen argitaragabe, baina geroago agertuko zena. Obra horretan Descartesen metodoaz ballatzen da, baina ez hark bezala izpiritualismoa defenditzeko, materialismoa eta ateismoa frogatzeko baizik, eta, iduriz, gizarte zuzenago baten oinarriak ezartzeko. Gauza guzti hauek Frantzian gertatzen ziren Luis XIV.aren denboran (2).

(1) Aski izan bedi izenak aipatzea: Okham, Autrecourt, Eckhart, Cusa, Montaigne...

(2) Ikus *Informations Catholiques Internationales* (1^{er} janvier 1972), 18.

Gure teologo hauek ere —Elizalde eta haren eskolakoek— neurri handi batean metodo berbera erabiliko dute, baina fedearen alde jokatzeko, noski, federako bidea zein den erakusteko.

Orduko gaitzari erremedio jarri nahiean ari dira, bistan da, baina hartzen duten bidea ez da alde guztiz onartzekoa, zeren eta kristau teologia ezin baita egin honen iturri propioei gibela emanik.

Hitz batean esateko, teologi eskola honek —orduko kultur giroari erantzun nahirik— fedezko aktoa jakintza-akto bat bihurtu nahi izan digu. Kristau fedearen eitea, ordea, guztiz bestelakoa izan.

Teologi sail honetan gerta daitezkeen tentazioak

Gertaera honetarik ikasbide bat jaso dezakegu. Eta da: Kristau fedearen muina azaltzerakoan egon daitezkeela, aldien eta kultur giroen arabera, tentazio berezi batzuk, hots: kultur giroari egokitu nahirik, kristau fedeari zor zaion leialtasuna ez gordetzeko tentazio eta arriskua. Iku-si dugu zein izan den tentazio nagusia XVII. eta ondoko mendeetan: kristau fedezko aktoa zientzi akto bati gehiegi egokitzea, zientzi akto baten antzeko bihurtzea.

Baina bestelako tentazioak ere izan dira eta badira gure egunotan. Ez da alferrik izango batzuk hemen aipatzea, beroietarik gorde gaitezten.

1. — Hona hemen bat: sinestea edo fedea, modu batean edo bestean, munduko erlijio guztietan aurkitzen da. Beraz, har dezagun, abiaburu bezala, kontzeptu bat orokorra, erlijio guztietarako balio lezakeena, eta horra gure lana erraztua. Kristau fedea zer izango litzateke orduan? Sines-te bat gehiago besteen artean, haien antzeko eite eta egitura duena, nahiz eta berezitasun batzuk ere berekin izan.

Baina bide honetarik joaz peril da kristau fedearen orijinaltasun eta apartekotasuna suntsi dadin. Sarri askotan gertatzen da engainu hau: kanpotik eta axaleko begirada batekin begiraturik antzeko eta paretsu diruditen gauzak, gero hurbilagoetik ikusten direnean, erabat bestelakoak direla ohartzen zara. Beraz, hasieran egin zenuen parekatze hura ustel ateratzen zaizu. Eta hori gerta daiteke hemen ere.

Eta zinez, kristau fedean bada zerbait berri, besteetan, edo behintzat gehienetan, ez dagoen zerbait. Txina, Japoi eta beste horrelako herrialdeetan egondako Mixiolariekin hitz egiteko aukera izan dudanean, galdera egin izan diet hango erlijioei buruz. Beti jaso dut erantzun bera: guk mendebalekook badugula joera beste erlijioak gureaz kidetzera, eta haietarik gurera dagoen lezeaz ez garela ohartzen ere. Hortaz ene herri-tar Aita Bengoak idatzi zuen, euskaraz eta Txinatik, hain zuzen (1).

(1) IKUS JON BILBAO, *Eusko Bibliographia*, sub verbo Akordagoitia.

Hau da kontua: Jainkoak bere buruaren agerpena egin digula, bere Hitzazuzendu diola gizonari. Hain zuzen, hitz horren hastea Testamentu Zaharrean dugu promesa eta prestaera bezala, eta gero Kristogan izan du promesa honek bere konplimendu betea. Kristogan agertu dizkigu Jainkoak gurekiko dituen amodiozko asmoak. Kristogan agertu digu salbazio-bidea.

Israelen, eta Jesukristoren bidez, egin du Jainkoak bere Agerkundera, gizon guztiei eskainia eta zuzendua.

Testamentu Zaharrean bada kontatera bat: Naaman siriar kapitainarena. Legenak hartua zen kapitain hura eta Israelgo herrira etorri zen osasun-bila (Ikus 2 Rg 5). Eliseo profetak Jordan ibaira bialtzen du, han mainua har dezan. Lehenbizian gizon hori muker jarri zen, profetaren agindua entzutean. “Zer? Siriako ibaiak ez ote dira Israelgo ur guztiak baino hobekak?”, zioen. Hala ere azkenean obeditzen du eta sendaturik gelditzen da. Orduan erabaki hau hartzen du: ez duela Israelgo Jainkoaz landara beste jainkorik gurtuko eta eraman behar dituela bi mandokada lur Israelgo herriitik Siriarara...

Zer esan nahi ote du guzti horrek? Israelgo erlijioan —eta haren segida eta loratze den kristau erlijioan— badela zerbait besteetan ez dena. Beste erlijioak gizonaren asmakuntza batzuk dira, lurretik zerura zubi bat egin nahiean asmatuak. Gizonak, bere barne-joerei erantzunez, eta aztamuka edo ahal izan duen moduan, erlijio-mota asko sortu ditu, eta horietan bada, noski, gauza estimagarri eta hunkigarriak. Baina azken batean zer egin zezakeen gizon huts-sollak arazo honetan? Deus guti edo hutsaren pare, Jainkoa bera etorri ez balitzaigu goitik.

Gure erlijioa Hitzaren erlijioa da. Jainkoak bere Hitzazuzendu digu. Besteetan ez da horrelakorik.

Honekin kristau fedea zer datekeen antzeman dezakegu: Jainkoak agertu duen Hitzari gizonak baiezkoa ematea: hori da fedea, kristau fedea, ez gehiago eta ez gutiago. Beste erlijioetan Hitzik ez denaz geroz, federik ere ezin izan, propioki eta zehazki mintzatuz behintzat. Horregatik nioen ez dela bide egokia erlijio guztietarik halako fede-kontzeptu orokor bat atera, eta horretan oinarriturik, kristau fedea zer den erabaki nahi izatea. Berdinketak eta konparaketak honetan ustel gerta daitezke.

Jainkoaren Hitzari ematen diogun baiezko erantzuna: hori da, bada, guretzat fedea. Baina nozio honek balio du Jainkoaren Hitzaz edo Agerkundera ezagutzen eta aitortzen dutenentzat bakarrik.

Kristau fedearen orijinaltasun horretaz ongi jabetu ziren greko-erromar munduko gizonak. Erlijio jentiletan murgildurik bizi ondoren, supituki fede berriaren etorrera ezagutu zutenak, alegia. Jainkoak bere Se-mearen bidez bere bisaia eta bere asmo amultsuak agertu dizkigula jakitea, hura bai izan zela egunsenti arraia! Hura izan zen benetan gizonari *berri ona* ekartzea (hau da Ebanjelio hitzaren esanahia). Eta agerpen ho-

nen argitan ez bakarrik Jainkoaren problema, baita gizonaren beraren problema ere argitzen zaigu.

Haatik, erlijioen historiatic jasotako albiste eta xehetasunek fedearen auzia —zeharka bederen— argitzeko lagun dezaketela, gogoz aitortzen dugu.

2. — Beste bide bat —ezin onartuzkoa hau ere— izango litzateke hizkuntza arruntean oinarria bilatu nahi duenarena. Hots, kristau fedea zer datekeen aztertzeko, iturri bezala hizkuntzara jotzen duena. Badirudi horrelako zerbait egiten duela Pieper jaunak (1).

Izan ere, giza hizketa arruntean gauza bat da *jakin* eta beste bat *sinetsi*. Sinestea edo fedea da zuzenean ikusi ez dugun eta ez dakigun gauza, lekuko baten lekukotasunari men eginez, egiaztat hartzea. Hori giza bizitzean egunoro gertatzen den gauza da. Giza bizitzean ditugun ziurtasun eta segurantzak aztertzen hasten baldin bagara, laster ohartuko gara gauza batez: jakintza soilaz erdiesten ditugun ziurtasunak oso guti direla; arras hedatuagoa dela sinestearen eremua, alegia. Beraz, fedea da jakite-modu bat gizonari dagokiona, guztiz bidezkoa eta legezkoa; lekuko baten lekukotasunean oinarritua.

Orain bada, gizon bati sineste eman baldin badakioke, berdin edo areago eman dakioke sineste Jainkoari. Eta hori da, hain zuzen, fedea: Jainkoak aitortu digunari sineste ematea. Beraz, Jainkoari sinestea.

Hau guztia neurri batean egia da. Ezin ukatua da, beraz, badela antz bat gizonaren esanean fidaturik egiten den sinestezko egintzaren eta Jainkoaren hitzean fidaturik egiten denaren artean.

Baina hertsia-hertsian konparazio hau hartzen baldin badugu, eta gizartean gertatzen den sinestea beti eta alde orotarik kristau fedea esplikatzeko eredu eta irudi bezala hartu nahi baldin badugu, laster egingo dugu berriz ere porrot. Konparaketa horiek on dira, baina neurri batean bakarrik; handik aitzina ez dute balio.

Hizkuntzaren usuarioak argi zerbait eman diezaguke eta gizartean gertatzen diren har-emanek ere bai, noski; baina kristau fedea den gauza bakan eta bakar hori argitzeko, berak bakarrik ez dira gai.

Gainera, hizkuntza guztietan hitz batek ez ditu adiera berberak izaten. Esate baterako, “creer” hitzak baditu gaztelaniaz —eta bai frantsesezko “croire”k ere— bi adiera guztiz desberdin eta hitz berberaz adierazten direnak, nahiz eta bata besteakin zer-ikusi guti izan. Bata da gure *sinetsi*-ren kideko jatorra. Bestea, berriz, *uste izan*-ek duen esanahia (2). Agi denez, guztiz desberdinak dira bi adierok. Latinak, euskarak bezala, ez ditu nahasten, eta hitz desberdina du bakoitzarentzat.

Gero hor da *sinetsi* aditzari dagokion izena, substantiboa: *sineste*, *sinemen*. Baina hor da *fede* hitza ere, euskaran aspalditik errotua. Az-

(1) PIEPER, *La Fe*; Patmos 124.

(2) Adibidez, “Creo que habrá venido” eta antzeko esaldietan ageri den esanahia.

kuek bere Hiztegitik kanpora utzi zuen hitz hau erdaratikoa zelako eta iduriz horren beharrik ez genuelako. Haatik, inprimaturik aurkitzen den lehen euskal esaldian *fedea* hitz hau ageri da: *Bai, fedea* (1). Eta arazoa hobeki aztertzen baldin badugu, aurki ikusiko dugu *sineste* eta *fedea*, nahiz eta sinonimoak izan, ez direla arras berdinak, bakoitzak badituela bere fiabardurak eta eremu bereziak. Euskara bien beharrean da, bada.

Dena dela, hizkuntzen usarioa ezin har daiteke oinarri bezala guk nahi dugun bezalako teologi azterketa batean. Horrek ere argi zerbait egotz dezakeela ez dugu ukatzen, haatik.

3.—Egiazko bideak nondik jo behar ote du, bada? Kristau fede jatorra zer den argitu, azaldu eta esplikatu nahi duen teologiak Jainkoaren Hitzera jo beharko du, Agerkundera. Agerkunde honetan bertan aurkitzen ditugun datuak aintzat hartu beharko ditu. Agerkunde horrek zer dioen jakiteko, hor ditugu Eskritura Saindua eta Tradizioa. Eta horietaz landara hor da, baita ere, Elizaren Irakasgoa. Hiru *leku* edo *toki* horiek beti kontutan hartu beharrekoak dira, eta are gehiago honelako gai premiatsu eta oinarritzko batetan.

Auziaren garrantzia

Antiokiako San Inaziok dioenez (2) *fedea* da hasiera, hastapena, oinarria, zimendua; helburua, berriz, edo azken xedea karitatea da. Bai: kristau bizitzearen etxe osoa zimendu honen gainean eraikia dago. Fedeari buruz ideia zuzena eta behar bezalakoa izatea ez da, bada, guti gora-beherako kontua, axolarik handienekoa baizik. Kristau fedeari buruz uste edo eritzi okerrak baldin baditugu, kristautasuna bera oso-osoan eta orokorrean kutsatzeko bidean jartzen dugu.

Gaurko eginbehar eta arriskuak

Ederki esana du H. Urs Von Balthasar-ek (3): Egungo teologia lan gaitza burutzen ari da, eta lan hori egin beharrezkoa zen. Behar zen, alegia, kristau fede eta mundu eta gizadiaren artean zubia jarri edo zubia badela erakutsi; kristau eta kristau ez denaren artean elkar hizketa posible eta are beharrezkoa dela agertzera eman, etab. Bai. Lan beharrezkoak eta estimatzekoak dira hauek. Erabat berriak ere ez dira, ezen Elizako Gurasoetan bada horrelakorik.

(1) Tomás Naharro, 1513; Ikus MICHELENA, *Textos Arcaicos Vascos*, p. 140.

(2) "Epistola ad Ephesios". Ikus *Oficio de Lecturas* (Urtean barnako II. asteko astelehenez).

(3) *Solo el amor es digno de fe* (Frantses ediziorako egin duen bukaeran).

Baina hau da kontua. Elizako Guraso haiek betiere zentruari, kristau erlijioaren zentruari gogotik lotzen ziren, horri sendo atxikiak ziren, eta hala zeudelarik, perilik gabe zabal zezaketen bista noranahi.

Orain, berri, arrisku larri batean gaude: zentruaz ahazturik, ingurumari-ko kuestio horietan galdurik gelditzeko perilean. Zentrutik, gure zentrutik heldu diren egiak behar dizkiogu munduari eskaini, besteen premia edo garrantzia gutietsi gabe.

Bertute teologalak (1)

Eta zentruari datxekona da gure arazo hau.

Testamentu Berriak anitz lekutan esaten digu Kristo, Jainkoaren Seme gizon eginak, bizitze berri bat ekarri diola gizonari, hots, jainko-ko bizitzea. Eta bizitze hori hartu dutenengan badirela hiru *zer*, ahal edo dohain, hots: fedea, esperantza eta karitatea. Hirukote hau usu aipatzen du San Paulok (2).

San Pauloren dotrinatik garbi ageri denez, bizitze berri hau Jainkoak doan emana da, kreazio berri bat da, alegia, gizon soilaren gainetik den ahaltasun berri bat, Jainkoarekiko har-emanetarako gai bihurtzen gaituena.

Eta hiru ahal horietarik lehena fedea da. Zer da orduan fedea? Gu baitan bizi den landarea, gu baitan hazitzen dena, baina haren erroa eta haziak goitik datoz, goitik emanak eta ixuriak dira. Hori beti kontuan eduki behar da. Fedeak badu eite bat teandrikoa —nolabait esan—, hots: jainkotiar eta gizatiarra.

Azken batean, bere maitasuna agertu digun Jainkoari balezko osoa eman, hori da gizonak hiru *zer* horien bidez egiten duena. Balezko horretan hiru gailur edo tontor bezala nabari dira, hots: a) Jainkoari sinetsi (fedea), b) Jainkoagan fidantzia ipini (esperantza), c) Jainkoa gauza guztien gainetik maitatu (karitatea), baina praktikan hiru horien arteko mugak ez dira bereizten errazak, zeren hiruek batean eta elkarturik bizitzeko eginak baitira.

Gaur maiz egiten diren oposaketa faltsoak

Testamentu Berrian *fede* hitz honekin nabardura bat baino gehiago agertzeraz ematen da. Batzutan hitz horrekin “fides qua creditur” adierazi

(1) *Bertute* hitza fede, esperantza eta karitatea izendatzeko hitz egokia ote den edo ez den, gaur eztabaidatu ohi da. Horretaz beherago (bigarren partean) esango dugu zerbait.

(2) Egia esan, beti ez da hirukotea ageri; batzutan bikotea ageri da. Ikus pasarte batzuk: 1 Cor 13,13; Gal 5,5-6; Ephes 3,16; 2 Cor 10,15; 2 Thes 1,3-5, etab.

nahi da, hots, fedearen alderdi sujetiboa: gizonaren planta, obedientziazko jarrera Jainkoaren aitzinean. Esate baterako, Hebr 11 pasarte ezagunean, fedean eredu edo ispilu izan direnen izen-lerrokada ematen zaigu, eta horietan denetan badirudi fedearen alderdi sujetibo honi ematen zaiola lehentasuna. Eta bai San Pauloren idazki nagusietan ere.

Baina Testamentu Berrian bertan —batez ere lehen mendearen azkenaldiko idazkietan— geroago eta garrantzi handiagoa hartuz doa beste alderdia: “fides quae creditur”, hots, sineskaiei bilduma edo ondarea. Ikus, adibidez, 2 Pt eta idazki pastoralak.

Gure egunotan oposaketa bortitzak egin izan dira bi alderdi horien artean, ezin elkartzekoak balira bezala. *Bat ala beste*, esaten dizute. Ez dute ikusi nahi alderdi hauek ez direla elkarren etsai, alderdi osagarriak baizik.

Dilema jartzen dizue era honetara: Fedea zer da: 1) ala Jainkoagan sinetsi, Hari obeditu, Hari neure bizi guztian leial egon —beraz, norbere burua Jainkoari osoki eman—; 2) ala esaldi batzuk egiazat eduki? Bistan da oposaketa horiek egitean, bigarren alderdi hau nahi izaten dela irrigarri bihurtu eta bazterrerat utzi, bestea goratzeko asmoaz.

Baina kristau fede jatorrean bai bata eta bai bestea ere behar dira elkartu. Bata gordetzeko ez zen bestea zapuztu beharrik.

Egin izan direla gehiegikeriak fedearen gora-behera guztia egia batzuk baieztatzean jarritz? Bai. Baina hori ez da arrazoin orain beste muturrera jotzeko.

Kristau fedeak ezin ahortzi dezake bi alderdi horietarik bat ere. Biez sintesia beharko egin.

Fede kontuan azaldu diren herejia eta zeihardurak

Auzi larria fedearen auzia. Fedea zer den argitu nahi izaterakoan, teologi saioak okerreko bidetik abiatzea edota herejian erortzea behin baino gehiagotan gertatu da.

Mendeetan barna azaldu diren herejia nagusi eta eritzi makurrak nahi ditugu hemen gogoratu.

Eliz Irakasgoak azken mendeok arte apenas eman du fedeari buruz irakaspen bat sistematikoki eratua. Baina, hori bai, zuzen ez den aburu edo asmaketarik azaltzen zeneko, arbuia egin izan du. Fedea ez da edozer gauza, kristau bizitzearen begininia baizik. Hartaz aburu makurrak edo faltsoak sostengatzea ez da ondorio gabe. Horregatik, eritzi makur horiek azaldu direnean, Eliz Irakasgoak bere hitza esan izan du.

Fede kontuan mendez-mende izan diren herejia eta desbiderapen guztietaz ez dago hemen hitzegiterik. Buruenak edo kontuzkoenak aipatuko ditugu soilki, eta horiek ere gaingiroki.

Herejia bere egitez eta izatez fedearen alorreko zerbait denez geroz, ez dago herejiarik fedear zer-ikusiren bat ez duenik. Ia hasieratik izan ziren Gnostikoak, Montanoren jarraitzaileak, etab. Baina horiek denak utzirik, hor ditugu *Erdi Pelagiotar* deitzen diren horiek, hots, Semipelagianak.

Hauen dotrina ulertzeko jakin behar da horien aurretik Pelagio eta San Agustinek polemika famatu hura izan zutela elkarren artean. San Agustinek graziaren beharra kristau bizitzean biziki azpimarratzen zuen; Pelagiok, aldiz, graziaren behar hori ez zuen inondik ere ikusten. Horretan zen polemikaren gora-behera guztia. Baina horra non sartzen diren tartean beste polemikari berri batzuk: Marsella aldeko monjeak —hobeki esan, Marsella itsasertzeko isla batean bizi ziren—.

Horiek halako erdibide bat bilatzen dute Pelagio eta Agustinen artean. Grazia onartzen dute: beraz, alde horretatik ez daude Pelagiorekin. Baina Agustinek ere ez ote du gehiegi abonatzeko grazia eta graziaren beharra? Hark esaten dituenak hitzez-hitz hartu behar badira, zertan gelditzen dira gizonaren ahala eta batez ere libertatea? Eztabaida hauek 418tik 531raino luzatu ziren.

Gizonaren salbamenduzko obran lehen abiadura gizonari berari zor zaiola: hori zioten Erdi Pelagiotar hauek. Gero ondotik grazia dator laguntzera, gizonaren ahulezia eta eskasiari indar ematera. Orain bada, salbamenduzko obran lehen urratsa sinestea da, eta hori gizonak bere indar soilez egingo luke. “Initium fidei”, “pius credulitatis affectus”: hau da Erdi Pelagiotarrek erabiltzen duten terminologia. “Initium fidei”, itxuren arabera, zera da: fedezko lehen aktoa egitea. Eta horretarako ez legoke graziaren beharrik.

Beraz, sinetsi: hau da salbaziorako lehen urratsa, eta berau osoki gizonarena izango litzateke. Gizonaren eskuan dago fedezko lehen aktoa egitea; beraz, horretarako ez dago graziaren beharrik.

Orduan sartu zen Eliz Irakasgoa, hori hala ez dela esatera. Salbamenduzko obra guztian, bai hasieran, bai erdian eta bai azkenean, han da beti Jainkoaren grazia. Orange-ko II. Kontzilioak irakatsiko du zein den Elizaren fede jatorra puntu honi buruz; eta hark irakatsia gero II. Bonifazio Aita Sainduak birretsi eta sendotuko du 532. urtean (1).

Beraz, puntu hau: sinetsi ahal izateko noraezekoa dela grazia, Elizak beti eduki du oinarritzko zerbait bezala.

Ohart gakizkion gauza bati, notatzekoa baita: monje edo padar batzuk izan ziren herejia honen sortzaileak, eta horrek badu bere esplikazioa. Monjeak, saindutasunerako lehia bere kezka nagusizat duelarik, as-

(1) DENZINGER-SCHÖNMEYER, *Enchiridion Symbolorum, Definitionum et Declarationum de rebus fidei et morum*, nn. 398-399 (hemendik aurrera DS siglekin aipatuko da obra hau); R. AUBERT, *Le problème de l'acte de foi*, p. 30ss.

zetikaren eta norbere ahaleginen balioa sobera esteko tentazioa izan lezake. Kristautasunak, ordea, bere iturriei begia edukirik, uste honen okerra salatu du.

Beste ikuskera bati —aro modernoan ildo nabaria utziko duenari— hasiera emango dio *M. Luterok* (1483-1546). Luterok bazuen problematika bat bere-berea, eta problematika horri erantzuna emateko egina da haren teologi sistema osoa. Gizonaren zintzokuntza —justifikazioa, alegia— Jainkoaren aitzinean nola gertatzen da? Eta erantzun hau ematen du: fedeez xoilki, eta ez gizonak egin ditzakeen obrez. Erantzun hau zuzena da, noski, eta San Pauloren idazkietan argi eta garbi irakasten da (haatik hor da Santiagoren eskutitza ere, obrarik gabeko fedea antzua, hila eta alferra dela dioena: Jac 2,20).

Nolanahi ere, Luterok bere-bereak zituen problemenezat soluzioa hor bilatu uste du. Beraz, fedea jarriko du kristautasunaren orotasuna bezala. Eta fedearen kontzeptuan alderdi bakar bati soilki emango dio garrantzi guztia, hots, fidantziari. Ipini dezagun geure fidantzia guztia Kristogan, Haren merezietan, sinets dezagun Haren merezien bidez gure bekatuak estaliak gelditzen direla: eta horra dena egina.

Oraingo ikusmolde hau eta arestian ikusi duguna —Erdipelagiotarrena— guztiz kontrarioak dira. Eta Elizak haien kontra graziaren alde aurpegia atera behar izan zuen bezala, orain gizonaren libertatea eta obrak beharko ditu zaindu eta salborik utzi.

Aitor dezagun gogotik Lutero zuzen dagoela honako hau dioenean: gizonak, alegia, ez duela bat ere obrarik Jainkoaren aurrean zerurako deretxo edo eskubide ematen dionik; zintzokuntza, beraz, doan ematen dio la Jainkoaren amodio errukitsuak. Gizonak egian bizi nahi baldin badu, bere ezereza eta bekatuzko izaera aitortu behar du Jainkoaren aurrean. Hortik, ordea, fedeez ez duela emankor izan beharrik pentsatzea, ondorio txarra ateratzea izango litzateke.

Gainera, fedearen auzian Luterok garrantzi guztia fidantziari ematen dio, eta zinez alderdi hau garrantzitsua dela ezin uka daiteke. Adimenduarekiko alderdia, berriz, gutietsi egiten du —nahiz eta ez duen ukatzen—. Eta hortik ondorio larriak segituko dira.

Eliza fede doktrinalaren alderdi hau bere indar guztiez defenditzera jarriko da, zeren arriskutan ikusten baitu.

Izan ere, fidantziaren alderdiaz landara, fedean bada besterik. Kristauak sinetsi behar du badela Jainko bat, Jesukristo Jainkoaren Seme gizon egina dela, badela geroko bizitze bat, badela Eliza bat Kristok sortua etab. etab. Gauza hauek egiazko eta zinezko errealitate trinko bat dutela, alegia.

Honelako sineskaiak egiatzat hartu eta eduki behar ditu fededunak. Beraz, adimenduaz eta ezagutzeaz zer-ikusi duten egiak onartzea: hori ere fedeari dagokion zerbait da. Egiaren auzia dago hemen tartean, fidantzia bera baino lehen. Ezen sineskai horiek trinkotasunik edo errealtaterik ez baldin badute, ez dago zer fidaturik.

Egia esan, fedearen alderdi hau Luterok ez zuen ukatzen, eta adimenduzko —nolabait esan— egiok berak sinesten eta onartzen zituen. Baina hau ere esan behar da: adimenduzko alderdi honi ez ziola garrantzirik eman. Fidantzia da Luteroren fedean balio, axola eta pisu guztia duena.

* * *

Hemendik hasten da aro modernoan erro sakonak egingo dituen joera bat: adimenduaz eta ezagueraz zer-ikusi duen oro fedetik kendu behar dela, fedetik atean egon behar duela uste duen joera. Eta gauza jakina da nolako herraz eta setaz sostengatzen den hori egungo kultur giroan.

XVIII. mende hondarrean eta XIX.aren hasieran hor da *F. Schleiermacher*. Luterok idikitako ildoan eta Filosofiak zabaldu duen eszeptizismoari men eginez, saiatuko da fedearentzat halako barruti bat bilatzen. Hots, gaztelu sendo bat, razionalismoak honda ez dezakeena, nahiko du fedearentzat eraiki. Barne-esperientzia jarriko dizu, hortaz, erlijioaren iturri eta muin bezala. Munduan diren erlijio guztiek barne-esperientzia hori formula batzuetan adierazi eta agertu digute, eta formula horien egia hortan datza, hots, barneko esperientziaz ados egotean. Beste baliorik ez lukete.

Zer esan? Horrela sujetibismorik beltzenean sartuak gelditzen garela. Kristau erlijioaren oinarri diren errealitate objetiboak suntsitzen direla. Edo behintzat, gorputzik ez duten iratxo, amets, ipuin bilakatzen direla.

Berdin egingo dizu Modernismoak, mende honen hasieran zenbait katolikoren artean azaldu zenak. Modernistentzat ere Errebelazioa edo Agerkundera zer zen? Barne esperientzia ezin esanezko eta kontzeptuekin ezin atzemaneko. Fedea, berriz, Jainkoaren atzemate bat, hor barnean, kontzeptuetarik eta jakite zientifikotik kanpora.

Gaur ere *esperientzia* maiztxo aipatzen da fede eta erlijio gauzetan, eta ez beti zuzen. Kristau fede jatorrean bada, bai, leku bat esperientziarentzat: hori ezin ukatua da. Baina ene esperientzia betiere enea izango da, nik neure neurriekin estimatzen dudana. Fedea, aldiz, zerbait baldin bada, ene buruaren gainditze bat da. Fededunak, bere fedeak eskatzen dionaren arabera bizi denean, badu, noski, esperientzia bat barnetik argi egiten diona, poz eta segurantzia ematen diona; eta horretaz behin baino gehiagotan mintzo da Eskritura (1). Baina horretarako, eta lehenda-

(1) Cf. Rom 8,16; 1 Jo 5,10.

nik, fedearen beraren *esperientzia* egin beharra dago, norbere neurri su-jetiboei uko eginez. Hori egin ondoren, eta ez lehenago, heldu da espe-rientzia hori (1).

Nolanahi ere, kristau Agerkundean dauden dotrinazko puntu eta ger-taerei sineste eman behar zaie, hau da, horiek egiazkotzat hartu behar dira, horien errealitatea aitortu behar da: hori gabe ez dago zinezko fede katolikorik.

* * *

Bada hirukote bat, teologi alorrean *Semirrazionalista* goitzenaz ba-taiatua: Hermes, Günther eta Froschammer. Alemanak hiruak, joan den mendetakoak. Fedearen barrutian bide berezi bat urratu nahi izan zuten.

G. Hermes (1775-1831) da horietarik ezagunena (2).

Zer da fedea Hermes-entzat? Erlijiozko egien gainean daukagun kon-bentzimendua. Axola guti du nola heldu den gizona konbentzimendu ho-rretara: ala arrazoin naturalaren frogantza baten bidez, ala Jainkoaren Agerkundea gertatu dela frogatu ondoan, ala sineste ematera eragiten gai-tuen obligazio bat somatu dugulako, etab.

Hermesen ustez fedezko aktoa egiteko, graziaren beharrik ez dago; eta gehienetan gizonari ez zaio libertaterik gelditzen akto hori egiteko edo ez egiteko: baitezpadako, hots, derrigorrezko arrazoi batzuek hartaraturik egin ohi du gizonak fedezko aktoa. Jakintza-akto bat bezala da, hortaz. Eta badakigu jakintzazko aktoa nezesarioki jartzen duela adimenduak. Beraz, hor ez dago ez meriturik eta ez askatasunik.

Teologi irakasle izan zen Hermes, Münster-en lehenik eta gero Bonn-en, eta, dirudienez, arrakasta handia zuen ikasleen artean. Baina nola irakaspen honek Elizaren fedea bere giharrean ukitzen baitzuen, Grego-rio XVI.ak "Breve" baten bidez jaun horren erroreak salatu zituen. Ge-roago, berriz, Batikano Lehenak, Hermesen kontra, fede kontuan salbo-rik utzi behar diren puntuak berriro erabaki zituen: grazia, libertatea, meritua.

Kontzilio horrek berorrek irakatsi zuen, baita ere, fedea ez dela na-hasi behar jakintzaz, fedea dela Jainkoak agertutakoei *bai* ematea, baina *bai* hori ematen dugunean gauzaren beraren barne agiritasuna, hots, ebi-dentzia, falta zaigula.

* * *

(1) Cf. H. U. VON BALTHASAR, *Le complexe antiromain*, 311 orr.

(2) Cf. R. AUBERT, *Le problème de l'acte de foi*, p. 102ss.

Eta nola izaten diren gauzak! Ia denbora beretsuan baziren Frantzian beste jaun batzuk beste muturretik zebiltzanak. Hermes razionalismora bezala, *Bautain* eta *Bonnety* fideismora lerratzen ziren (1).

Hauen ustetan, arrazoiak ez luke bat ere gaitasunik eta ez egitekorik fedearen auzi honetan. Arrazoiak nora eramane duen Europa frogatu ondoan —Frantziako Iraultza lekuko—, jaun horiek uste dute ez dugula horrik deus espero behar. Beraz, barneko esperientzia bat izango litzateke, azken batean, erizpide bakarra.

Baina hori ere ez izan hala. Giza arrazoiak, federako bidea prestatzerakoan, badezake zerbait, eta bai zerbait baino gehiago ere. Horregatik eritzi hauek ere Eliz Irakasgoak arbuia egin zituen.

Azpinarratzekoa da nola, ia denbora berean, mutur bateko eta besteko aburu okerrak baztertu zituen Eliz Irakasgoak: gehiegizko razionalismoa alde batetik, eta arrazoiaren desbaloratzea, bestetik. Izan ere fedean arrazoiak badu bere egitekoa, nahiz eta besterik ere baden.

Unamuno ere sarri mintzo da buruaren eta bihotzaren arteko ezin konponduaz: buruak, alegia, fedeak dioena ezinezkotzat joko luke; baina gizonagan ba omen da beste indar bat, hori onartzera eramaten gaituena. Locke, Hume, Kant eta bestek zabaldutako pentsakeraren ondorio dira joera hauek. Kristau fedeak, ordea, ezin onart dezake agnostizismo hori. Bai bihotzaren eta bai arrazoiaren eskubideak ere errespetatzen eta aintzat hartzen ditu fedeak —neurri batean behintzat— (2).

Eliz Irakasgoaren agiriak

Fedezko egia bat erabakitzen duen bakoitzean, fedez zer-ikusi duen zerbait erabakitzen du Elizak. Baina fedeari berari artez dagozkionak gogoratu nahi ditugu guk hemen. Mugarri antzo dira agiri horiek, eta Teologiak, bere azterketa egiterakoan, kontutan hartu behar ditu.

VI. mendean dugu Orangeko II. Kontzilioa, Erdi-Pelagiotarren aburuen kontra erabakia hartu zuena.

XVI. mendean hor dugu Trentoko Kontzilioa bere seigarren bilkuran (“sessio VI”). Gizonaren zintzokuntza edo justifikazioa nola gertatzen den eta horretan fedeak zer parte duen irakasten da bertan, Luterok zioena mugatuz, osatuz eta zenbait puntutan arbuia egin.

XIX. mendean hor da Batikano Lehena ere, fedeari buruz Konstituzio oso bat eman zuena (“Dei Filius”).

XX. mende hasieran, Modernismoaren ideologia azaldu zenean, Elizak zenbait agiri eta erabaki eman zituen, fedearen auzirako axola handiko direnak: “Pascendi” Entziklika, “Lamentabili” Dekretua, Modernismoaren aurkako zina, etab.

(1) R. AUBERT, o. cit., p. 114ss.

(2) MIGUEL OROMÍ, *Pensamiento filosófico de Miguel de Unamuno*; Espasa-Calpe.

Azkenik, Batikano Bigarrenak badu konstituzio berezi bat: "Dei Verbum", fedearen gai hau hurbildik ukitzen duena.

Izan dira, noski, mendeetan barna Eliz Irakasgoaren beste agiri batzuk ere, aipatu ditugun hauek baino monta tipiagokoak. Denetaz beharko dugu kontu izan.

Teologo katolikoak, fedezko gauzak aztertzerakoan, Eskritura eta Tradizioa hartzen ditu jakin-iturri bezala. Eta Eliz Irakasgoa noraezeko laguntza eta argi gidaritzat.

Gure egunotan, fedeari buruzko teologia bide-gurutze batean aurkitzen da. Alde batetik, Elizalderekin sorrera izan zuen eskolak erreka jo du. Bestetik, berriz, fideismo itsua gaingitu beharra dago.

Fedea zer deneko galderari erantzun berria eman behar izan zaio. Horretarako, ordea, anitz alderdi eta ikusalde behar dira berriz ikertu eta aintzat hartu.

Bai. Zerbait berezi, aparteko eta bakan da fedea. Zerutikako sorkaria, baina lurrera aldatua eta gure artean erne, bizi eta loratzeko gai dena. Zerbait miresgarri, benetan.

Bigarren Kapitula

FEDEA, JAINKOAREN DOHAINA (1)

—Kristau fedea, zer diozu zeure buruaz?

Horra zein den, kristau fedeaz ideia zuzena eta behar bezalakoa izan nahi baldin badu, Teologiak egin behar duen galdera. Fedeari berari galdetu eta erantzuna jaso. Hain zuzen, hori da guk egin nahi duguna.

Fedeak, berriz, bere iturrien bidez ematen digun lehen erantzuna, honako hau da: zerutikako sorkaria dela bera, Jainkoak guregan landatua, hots, izaki supernaturala, Jainkoaren graziak gu baitan sortarazia.

Gure azterketa hemendik hasi behar zen, bada.

Fedea aitzingibel askotako errealitatea da, ikusalde anizduna. Zatika joan behar, orain alderdi bat eta gero beste bat azalduz, baina bizitzean dena elkarturik eta bat eginik dagoela aiantzi gabe.

Jainkoak guregan obratzen duen egintza bat: horra zer den fedea, kristautasunaren iturriek diotenez —aurki ikusiko dugun bezala—. Datu hau axolarik handienetakoa da. Horrek, ordea, ez dio, den gutiena ere kentzen, beste alderdiari: fedea gizonaren obra ere badela dioenari. Gizonak sinesten duenean, gizona da, noski, bere egintza hau jartzen duena, eta gizonari dagokion eran jartzen du, gainera. Sinestean, beraz, gizatiar legeak oro errespetatzen dira. Giza psikologiak ezagutzen dituen mekanismo eta ibilpide-legeak gordez eta betez egiten da fedezko aktoa. Baina gizatiar alderdi hau geroago aztertuko dugu.

Fedeari buruz azalpen orokor eta erabatekoa izan dezagun, bi alderdiok, jainkotiarra eta gizatiarra, ezin utzizkoak dira. Eta bata ez du bestea kentzen.

(1) J. ALFARO, *Fides, Spes, Caritas*; Romae 1963.

Bizitze naturala eta supernaturala: bien arteko har-emanak

Mundu supernaturala —eta fedea mundu horren atea baizik ez da—, izenak berak dioen bezala, izadiz goitiko zerbait da, Jainkoak hutsean ematen digun zerbait, bere ahalaren podorioz baizik gerta ez daitekeen zerbait.

Baina, beste aldetik, gizakundezko, hots, enkarnaziozko egitura du bizitze horrek. Goitikako landare hau guregan landatua izan da eta gizatiar erara bizi da gu baitan. Zeruko txertoa da, beraz, gudan txertatua.

Bego garbi puntu hau, oinarritzkoa baita.

Eguberriko bezperetan, goratzarrean, bertso hau kantatzen zen:

*Zeru, itsaso ta lehor
badute gaur kanta berri,
zerutik bizi berri bat
diguzula Zuk ekarri.*

Izan ere, Testamentu Berrian zerbait baldin badago argi eta garbi adierazirik, haxe da, noski: Kristorekin eta Kristori esker, bizitze berri bat erregalatu digula Jainkoak, gizonari zor ez zaion bezalakoa, hots, jainkozkoa. Eta horixe da, hain zuzen, kristau bizitzea.

Bizitze naturala ere Jainkoagandik datorrela badakigu. Mundua krea-tzean, Berak eman zion hasiera izaki orori; eta gizaki berri bat amaren sabelean pizten den bakoitzean, era berezi batez bere irudi antzeko egi-ten gaituen bizitze izpirituala pizten du gudan Jainkoak. Baina hori guz-tiori oraindik maila natural bateko kontua da.

Orain, berriz, jainkozko mailatako zerbaitez dugu arazoa. Bere egitez eta izanez Jainkoari soilki dagokion bizitzea heldu da guregana. Eta haxe da kristauaren berariazko bizitzea.

Hau guztiau maiz entzuten dugu. Eta onartzen dugu. Baina gauza hauek beti dute arrisku bat: teoria hutsean gelditzeko arriskua. Eskritu-ra Sainduan datozen gauzak dira, eta horregatik errepikatzen ditugu, bai-na gainerakoan horrelakorik bat ere ez balitz bezala gobernatzen gara. Eta ez. Hori ez da teoria soil. Errealitatea da. Kristau bizitzea horixe da: kreazio berri bat, Jainko mailako bizitze bat.

Gizonak ezin egin dezake deusik maila horretan. Hemen dena da gra-zia hutsa.

Bizitze naturala eta supernaturala ez dira elkarren etsai, noski. Ba-koitza bere aldetik, elkarren berri ez balekite bezala ere ez dute bizi be-har. Bizitze supernaturalak bizitze naturala berekin hartu, eta ezertan urritu gabe, bere xedeetara buruz abiarazten du.

Teologian bada erasia bat guztiz arrunta eta ezaguna, hots, graziak ez duela naturaleza zapuzten, osatzen eta konplitzen baizik.

Nolanahi ere den, goitik datorkigun bizitze berri haxe da, azken batean, gure egiazko bizitzea.

Goi biziera horrek helburu berri bati buruz abiarazten gaitu, hots, Jainkoa bera beti iraungo duen zeruan seniparte bezala izatera. Hemen-txe datza, dirudienez, bizitze supernaturalaren gakoa (1). Gizona Jainkoa ikustera eta gozatzera destinatua izan da; Jainkoaren beraren zorionaz zoriontsu izatera, alegia. Hori berez Jainkoari berari bakarrik dagokio. Jainko-bizitzearen partaide izatea eman zaigu. Jainkoak bere etxeko egin gaitu.

Orain bada, han —zeruan— izango dugun bizitze horren hasiera eta ataurre bat oraidanik bertatik ematen zaigu hemen, lurgain honetan.

Fedea, berriz, goi bizitze horren argitan bakarrik ulertzen da.

Gure behaztopa-harri askoren sorburua honako honetan dela esango nuke, hots, bizitze naturala atsolutu bat bezala hartzen baitugu. Lurreko bizitze naturala jotzen dugu egiazko bizitze bakarra eta guztizkoa balitz bezala.

Eta hortik gero gerokoak. Fedearen aurka gudan altxatzen diren objektio asko nik esango nuke hortik heldu direla, hots, gure ikuspuntua zuzena ez izatetik.

Eta zinez, gizona helburu supernatural horretara ordenaturik baldin badago, orduan zeharo bestela dira gauzak. Helburu horrek ez du bizitze naturala suntsitzen, noski. Aitzitik, hori ere osatua eta distira berriz distirant ageri da, baina beti ere goi bizitzeari lotua. Honek du aginpidea.

Guzti hau, ordea, gehienetan ahortzi ohi dugu. Hemengo bizitze hustal hau atsolututzat jotzen dugu. Eta betoker izate horren erruz gertatzen dira gero desbideraketak.

Jainko errukiorrak, gure ona nahi duelako, gu zentzarazteko erremedioak bialtzen dizkigu. Erremedio saminak. Baina nork sinets araz guri horrelakorik? Eta dena, egiazko bizitzea zein den eta non den ikusi nahi ez dugulako.

Jainkoaren bideak eta ikusmoldeak guztiz dira gureak ez bezalakoak, guretarik aldenduak. Maiz gogoarazten digu hau Eskritura Sainduak: "Bai handi eta sakon Jainkoaren eskuzabala, jakinduria eta ezaguera! Bai ezin aztertuak haren erabakiak eta bai ezin ezagutuak haren bideak!" (Rom 11,33).

Badakigu Jainkoak ez duela abogadu beharrik. Baina gure katramila asko, Jainkoaren ontasunaren kontra altxatzen diren susmo txar askok hemen izan ohi dute azken erroa: gure egiazko bizitzea zein den eta non den jakin nahi ez izate honetan.

(1) Supernaturala edo naturaz goitikoa: gai guztiz garrantzitsua haxe Teologian, guk hemen barna ezin dezakeguna. Ripaldak badu obra klasiko bat gai honetzaz: *De ente supernaturali*. Gure egunotan De Lubac aitak egin du beste bat, guztiz ona: *El misterio de lo Sobrenatural*, Barcelona 1970.

Sainduak, berriz, begi ernea izaten dute gauza hauetan. Hara zer zioen, adibidez, Lisieux-ko Santa Teresak: Jainkoak bialtzen dizkigun sofrikarioak maitasunaren adierazgarri batzuk direla, gureganako duen begiramenaren seinaleak. Eta horiek bekosko ilunez hartzea, horiei muzin egitea, Jainkoarekin eragabeki eta jendetasunik gabe jokatzeari bezalaxe da. Berari ere min ematen dio guri min eman beharrak, baina Berak badaki horixe duela bide bakarra gu Beraren ezagutza zuzen egokira eramateko (1).

Bataioan ematen zaizkigun hiru zer horiek

Fedeari buruz ideia bat egokia eta behar bezalakoa izateko, fede hori gure azken helburuaren argitan ikusi eta hartu beharra dago.

Horregatik dio San Tomas Akinokoak: Fedea da gogoaren plegu bat, zeinen bidez guregan betiereko bizitzea hasten baita eta adimenduak ageriko ez diren gauzei sineste ematen baitie (2).

Beraz, betiereko bizitzearen hastapen bat, hemen lurgain honetan ematen zaiguna.

Eta betiereko bizitze hori, den guztia, Jainkoak emana da, Haren graziak gu baitan piztua.

Trentoko Kontzilioak ere hara zer irakasten duen: Zintzokuntza edo justifikazioa gertatzen den une horretan hiru gauza hauek ematen zaizkiola gizonari, hots, fedea, esperantza eta karitatea (3).

Hiru zer horiek Jainkoarekiko har-emanetarako gai bihurtzen gaituzte eta zuzen-zuzenean Jainkoa bera jo muga eta xede dute. Horieta-rik bat, eta lehenbizikoa, fedea da. Hiru gaitasun edo ahalmen hauek zerruan dute jatorria, eta goitikako indarraz baizik ez dira gudan pizten.

Beraz, horrek esan nahi du fedea zeruko izakia dela, eta zeruko graziaren laguntzaz izan ezik, ez dagoela federa etortzerik. Gizon soila, alegia, bere ahalegin hutsaz ez dela gai fedezko egintza bat egiteko.

Baina puntu hau xehekiago ikusi beharra dago.

Fede naturalaren auzia

Izan ere hemen, dagoeneko, auzi zahar batekin topo egiten dugu. Aspaldidanik teologoen artean eztabaidatua den auzi batekin. Ez ote da posible fede natural bat, gizonak huts-hutsik obratua, Jainkoaren graziaren esku sartzerik gabe? Fedea, azken batean, zer da? Jainkoak agertu duenari gizonak sineste ematea. Gizonak beste gizon bati sineste ematea

(1) Cf. H. U. V. BALTHASAR, *Teresa de Lisieux*, 1964; 296 orr.

(2) II-II q. 4, a. 1 c.

(3) DS 1530.

posible baldin bada, eta hori inongo graziarik gabe egin ahal badaiteke, zenbatenaz gehiago ez ote da posible izango Jainkoari sineste ematea? Graziarik gabe egiten baldin bada, fede hori naturala izango da. Graziaren laguntzaz egiten bada, supernaturala... Badirudi, beraz, fede natural horren posibilitatea ezin uka daitekeela.

Zer esan uste honi buruz?

Beharbada, teorikoki, fede natural baten posibilitatea ezingo da ukatu. Praktikoki, ordea, gizonak gizonaren esanari ematen dion sinestea eta Jainkoari eman dakiokiena berdinkatzea, oso diskutigarri da, zeren gauzak ez baitira berdin gertatzen kasu batean eta bestean, ezta hurrik eman ere.

Baina eman dezagun posiblea dela fede naturala —puntu hau ezta baidatua da teologoen artean—. Horrek, ordea, ez du deus ikustekorik hementxo gure auziaz.

Guk hemen behar duguna eta esan nahi duguna besterik da: bizitze supernaturalak graziaren ahalaz erretako fedea nahi eta behar duela. Izan ere, horixe da fedearen iturriek eta Eliz Irakasgoak aho batez diotena. “Credere sicut oportet”, hots; *behar den bezala sinesteko* —hau da, salbazio-mailatako sinestea edukitzeko—, noraezekoa dela grazia. Fede naturala posible den ez den kontu horiek gure barrutitik atean gelditzen dira, bada.

Jainkoari ezin sinets dakioke Berak sinetsia izatea nahi duen bezala, Beraren grazia dela medio baizik. Horretarako kidetasun bat behar da mintzatzailearen eta entzulearen artean, antolamendu edo egokitze bat, guk Jainkoaren hitza behar bezala har dezagun. Jainkozko mintzatzaileari entzulea ere halakoxea dagokio, eta orduan bakarrik —eta ez bestela— izan daiteke jainkozkoa gure fedea. Egokitze edo taxuketa hori, ordea, graziak egiten du.

Bestela, Jainkoa mintzo denean gizon huts-soila baldin bada mintzo horren hartzailea, zer gertatuko da? Edo ez duela tutik konprenituko edo hartzen duena fite urtu eta kutsatuko litzatekeela gizonaren beste ideiekin nahasiz. Beraz, gizonaren egokitze edo moldadura bat behar-beharrezkoa da, eta hori graziak egiten du.

Graziari esker, jainkozko mintzatzaileari erantzuteko bada beste muturrean hartzaile, entzule edo erantzule bat erabat jainkozkoa dena: gizona bai, baina, grazia dela bide, jainkozko mailatara altxatua eta erantzun jainkozko bat emateko gai bihurtua.

Fedearen karikatura bat

Inoiz egin da —teologo eskolastiko txar batzuen erruz— fedearen aurkezpen bat guztiz bitxi, urri eta kaxkarra. Azken finean, zer zen fedea jaun horientzat? Umiliazio huts bat, gizonaren harropuzkeria apalaraz-

teko Jainkoak propio eta berariaz eratua. Guk ulertzen eta konprenitzen ez ditugun perpaus batzuk proposatzen dizkigu Jainkoak eta gu behartuak gaude horiei baietz esatera. Eta zer bilatzen ote du Jainkoak gurekin horrela jokatzeari? Gure harrokeriari galga jartzea, besterik ez...

Baina hori fedearen karikatura egitea da. Labur esateko, hori da fedeak duen esanahiaz, tokiaz eta zereginaz tutik ez konprenitzea.

Gizona helburu supernatural batera deitua eta abiatua baldin bada-go, helburu horren eta bokazio horren argitan ikusi behar da fedearen nondik-norakoa ere.

Fedea guri agintzea ez da, bada, Jainkoaren apeta, kasketaldi bat esango bagenu bezala.

Jainkoak goibizitze bat erregalatu digu. Goibizitze horrek gizona Jainkoarekin har-emanetan jartzen du. Eta fedea dela medio, ematen zaio gizonari goimundu horretako gauzen berri, berak oraingo egoera edo estatuan albiste hori har lezakeen eran.

Fedea da Jainkoa atzemateko dugun modua, lurgain honetan erromes garen bitartean; Jainkoaz jabetzeko dugun bidea, baina gure oraingo egoerari egokitua. Bizitze honek bere azken fruitu bezala Jainkoaren ikuspena dakar —baina hori ez hemen, zeruan baizik—. Fedea, berriz, fruitu horren aurreko hazia eta lorea bezalaxe da. Horregatik zioen San Tomasek fedea betiereko bizitzearen hasiera dela.

Fedea, bideazkoen egoera

Gauza jakina da zein estimu handitan zuen Lisieuxko Teresa sainduak fedea, eta fede soil-iluna, hain zuzen. Berak ongi ikusi du haxe dela erromes eta bideazkoei dagokien bizimoldea; eta besterik ez du nahi, gainera. Harenak dira hitz harrigarri hauek: “Nik ez dut garbi ikusten zer gehiago izango dudana hil ondoan, orain dudana gainera. Gure Jau-na ikusi egingo dudala, hori bai; baina Berarekin egote aldetik, orain lurreon ere osoki Berarekin naiz” (1).

Honako beste hitz hauek Jainkoaren mirabe Mari-Aingeru Sorazurenak dira: “Ez zaitut ikusi nahi gorputzeko begiekin, ez eta arrazoi naturalaren argiaz ere, baina bai fedez; zeren fedea baita adimen huts, garbi, altxatu eta egiari egokitutakoan distiratzten duen errainu argitsu” (2).

Pasarte honetan gauza bat ikusten da argi: goitik ematen zaigun zer-bait dela fedea. Ahaltasun bat, alegia, Jainkoa —mundu honetan ezagut daitekeen eran— ezagutzeko gai bihurtzen gaituena. Bataioan ematen

(1) H. U. V. BALTHASAR, *Teresa de Lisieux*, 348 orr.

(2) SOR MARÍA DE LOS ANGELES SORAZU, *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*, 18. kapituluan, 197. orr.; bigarren edizioa.

zaizkigun hiru zer horiek dira Jainkoarekin elkartzeko dugun bide bakarra.

Jainkoaren begiekin ikustea, eta ilunetan ikustea: horixe da, azken batean, fedea. Argiak mundu fisiko hau ikusteko lagun egiten du; baina beste goimundu horretan alderantziz dira gauzak: hor traba egiten du, Doniane Gurutzekoak dioenez (1).

Konbertsioa eta fedea

Konbertsioaren bidez sartzen da gizona goibizitze horretan. Zer da baina konbertsioa? Jaio eta berehala bataiatuak izan ginenon kasua ez da egokiena horretaz jabetzeko. Har dezagun, bada, adibide edo paradigma bezala, pertsona heldu baten kasua: sinesterik ez duen baten konbertsioa, alegia.

Gizona da, noski, konbertitzen dena, eta libreki eta bere gogoz konbertitzen da: berak nahi duelako, alegia. Baina Jainkoa edo Jainkoaren grazia da obra honen eragile. Beraz, ez da konbertsiorik Jainkoa dela medio baizik.

Eta gizonagan zer gertatzen da une hartan, konbertsioa egiten den une hartan? Gizonaren bi ahalmen nagusiak —nahimena eta adimena— Jainkoari buruz jartzen direla.

Adimenaren aldetik, ezagutze mailan, bada argidura bat, eta nahimenaren aldetik bultzada bezalako bat. Eta horien ondorioz, Jainkoaren mugidari libreki erantzunez, gizona, den guztia, Jainkoagana bihurtzen da, Haren Agerkundera sinetsiz eta legea onartuz. Gehienetan, itxuren arabera, bai borondatearen eta bai adimenaren bihurketa edo bira ere denbora berean eta une berean gertatzen da, ixtant batez, laburzki. Hori ikusteko, konbertituen istorioak irakurri besterik ez dago.

Har dezagun Ebanjelioan bertan ageri den kasu bat: Zakeo (2).

Publikanoa zen, zerga-biltzailea. Jesus ikusi nahi zuela eta, arbola gainera igo zen handik hobekiago ikusteagatik. Eta Jesusek, haren parean pasatu zenean, berarengana begiak itzuli eta esaten dio: “Zakeo, jauts zaite, laster egizu, egun zure etxean egon behar dut”.

“Jautsi zen Zakeo lehiatuki eta hartu zuen bere etxean bozkariorekin”.

Graziaren ukaldi-unea izan zen hura. Zakeo baitan zer gertatu zen orduan? Bat-batean argitu zitzaizkion barne-begiak, ikusi zuen nor zen Jesus eta borondatea Haren segiziorako errendaturik jarri zen.

Konbertsio asko paradigma honen arabera edo antzera gertatzen dira; ez denak, ordea. Baina betiere Jainko-graziaren obra da konbertsioa.

(1) SAN JUAN DE LA CRUZ, Dichos, 130.

(2) Ikus Lc 19,1ss.

Orain bada, fedea salbazioaren hasiera eta oinarria da, bizitze supernatural horren atea. Goi bizitze honetan sartzeko ezinbestekoa eta noraezekoa. Fede hori gabe ezin daiteke inondik eta inola ere Jainko seemeen artaldera inor erantsia izan (1).

Behar bezalako fedea izateko, ordea —fedea salbagarria eta supernaturala—, Izpiritu Sainduaren argidura eta mugida ezin bestekoa dela irakatsi du beti Elizak (2). Beraz, graziak barnetik bere lana egin dezan beharrezkoa da.

Azken Kontzilioak berriro errepikatu du irakaspen hau. Ikus “Dei Verbum”, 5. Leku honetan esaten denez, sinetsi ahal izateko beharrezko dira bai Jainkoaren grazia eta bai Izpiritu Sainduaren barneko laguntzak, zeinek bihotza mugitzen eta Jainkoagana bihurtzen baitu, gogoaren begiak zabaltze eta egiari sineste ematerakoan biguntasuna emanez.

Eta graziaren behar hori, baita *fede hila* deitzen den horretarako ere noraezekoa dela aitortzen du Elizak (3). Gauza jakina da fededun bat, nahiz eta fededun izan, bekatu mortalaren azpian egon daitekeela. Halarik ere, haren fedea egiazkoa izan daiteke, hots, salbagarria eta supernaturala, eta, beraz, goiko graziaren indarraz sortarazia.

Gorago ere esan dugu eta berriz gogoratu nahi dugu: une honetan edo kapitulu honetan graziaren alderditik, hots, Jainkoaren alderditik fedea zer den arakatzen ari gara. Azterketa hau beharrezkoa da, eta alderdi hau, ezin utzizkoa. Baina, beste aldetik, ez da aherentzi behar Jainkoaren alderdiak ez duela gizonarena suntsiarazten. Fedea gizona baitan bizi eta loratzen da. Sinestea giza egintza bat ere bada.

Zenbaitek esan dezake: Sinesten dudanean ni naiz sinesten dudana, nik ez dut graziaren lan hori nabaitzen, nik neure ahalmenekin obratzen dut sineste aktoa.

Baina hemen axola guti du ene nabaitze edo ez nabaitzeak.

Ikusteko ere begiak ematen zaizkit. Begiei esker ikusten dut. Baina begiak ez du bere burua ikusten. Graziak ere ikusmena eman ohi dit, begiak alegia, goi mundu honetarako argitzen eta gaitzen nauten begiak. Baina begi hauek ez dira ikusiak diren horietakoak. Ikusten dute, baina ez dira ikusten.

Ba ote da graziaren beharrik sinesgarritasun-epaia egiteko?

Horra beste auzi bat teologoaren artean erabilia izan dena: fedezko egintza egiteko grazia behar den bezala, ea sinesgarritasun-epaia egiteko ere —hots, kredibilitate-judizioa— grazia behar denentz. Batzuek ezetz, beste batzuek baietz diote.

(1) DS 1532.

(2) DS 375, 1525-1526; 1553, 3010, 3035.

(3) DS 3035.

Fedezko aktoa eta sinesgarritasun-epaia ez dira gauza bat eta bera, noski. Baina sinesgarritasun-epaia egin gabe ez dago fedezko aktoa egiterik. Giza adimena fedeak dioena egia dela epaitzera heltzen denean, orduan dugu sinesgarritasun epaia edo juizioa. Eta hortaraino heltzea beharrezkoa da fedezko aktoa egin ahal izateko.

Hel ote daiteke giza adimena, bera bakarrik eta soilki, Jainkoaren grazia-rik gabe, puntu hau erabakitza? Teorikoki baietz esan behar dela dirudi (1). Kristau erlijioak Jainkoagandik duela etorkia etab, argumentu errutsuez frogatu daiteke eta giza adimen soilak berez gaitza hortaz ohar-
tze-ko eta jabetze-ko.

Baina teorikoki hala izanik ere, praktikan badira mila traba, bidea galera-
zten digutenak.

Gainera, —eta haxe da hemen kontuzko puntua— ez da ikusten zer-
gati-
k baztertu behar den grazia federa daraman lehen urrats honetatik.

Hala egiten dutenek —baztertzen dutenek, alegia— eritzi oker bat
dute graziari buruz, eta eritzi oker horrek hortaratzen ditu. Jaun horiek
uste dute sinesgarritasun-epaian grazia sartzearekin, epai horren arrazoit-
tasuna arriskutan jartzen dela. Graziak arrazoiari bortxa egingo balio be-
zala. Berez baliorik ez duten argudioak onartzera eramango balu bezala.

Baina gauzak ez dira bat ere hala. Graziak lagun dezake gizonak ar-
gumentu baten pisua ikus dezan, baina argumentu hark berez errutsua
eta arrazoizkoa izan beharko du beti ere. Adimenduaren aurrean sendo-
tasunik ez duen gauza bat onartzera eramango balu graziak gizona, hori,
bai, arrazoiaren legearen kontra joatea izango litzateke, baina ez da hori
kasua. Graziak argia eta begia eman diezaioke gizonari argumentu baten
sendoa ikus dezan, eta horrek arrazotasunari ez dio irainik bat ere egiten.

Beraz, lan honetan ere graziak parte hartzen eta laguntzen duela as-
ko-
z ere egiturakoago jotzen dugu.

* * *

Honenbestez, kapitulu honen muina honako perpaus honetan bil de-
zakegu:

**GIZONAK JAINKOARI SINETS DIEZAION,
BEHARREZKOA DA JAINKOAREN BERAREN GRAZIA**

Oharrak. — Perpaus hau zuzen aditzeko behar diren xehetasun eta
zertzeladak emanak ditugu jadanik. Ez goaz, bada, gauzaok bir-esatera.

Baita kontrako dotrina sostengatu dutenen izenak ere ezagutzen di-
tugu: Erdi Pelagiotar direlako horiek, Hermes etab. Aurreko kapitulan
mintzatu ginen horietaz.

(1) "Humani Generis", DS 3875.

Eliz Irakasgoak behin eta berriz eta mailarik goreneko epaiatz epaitu eta erabaki du dotrina hau (1). Fedezko dogma da, beraz.

Testamentu Berrian aurkitzen duguna. — Fedea Jainkoaren emaitza delako dotrina honek ba ote du Eskriturakin zer-ikusirik? Bai, noski. Guk ezin egin dezakegu hemen azterketa luze sakonik gai honi buruz. Xoilki Apostoluen Eginak, San Paulo eta San Joanengandik hartuko ditugu aitorrera batzuk.

Eta hasteko, Testamentu Berrian federa etorri direnei *deituak* deitzen zaie komunzki (2). Goitiko dei baten ondorioz eta eraginez federa ekarriak izan direla adierazten bide du mintzamolde honek.

1) *Apostoluen Eginak*

Ikus pasarte batzuk.

Jentilak ere Elizan sartzen zirela ohartzean harridurazko ateraldi hau dute judu-kristauak: “Jentilei ere eman die, beraz, Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea!” (Act 11,18).

Paulo eta Bernabek beren itzulian gertatutako uztaren berri ematen diete Antiokiako fededunei: “Iritsi zirenean, eliz elkartea bildu zuten eta Jainkoak haien bidez egindako guztia azaldu zieten, bai eta nola jentilei federako atea ireki zien ere” (Act 14,27).

Jainkoak judu-kristauen eta etniko-kristauen artean berezketarik ez duela egin adierazteko, Pedro honela mintzo da: “Haien eta gure artean inolako bereizkuntzarik egin gabe, fedearen bidez garbi egin ditu haien bihotzak” (Act 15,9).

Lidiaren konbertsioa kontatzean, hara nola mintzo den liburuaren egilea (S. Lukas bera): “Bazen entzuleen artean Lidia izeneko emakume bat, izatez Tiatirakoa, purpurazko oihalen saleroslea; Israelen Jainkoa gurtzen zuen. Jaunak bihotza ukitu zion, Pauloren esana gogoz onar zezan” (Act 16,14).

Garbi ikusten denez, federa etortzea Jainkoaren obra bezala ematen da testuotan.

2) *San Paulo.* — San Paulok bortizki azpimarratu du salbazioa, gizonaren zintzokuntza etab., Jainkoaren lana dela, Jainkoak hutsean eta atsegin-sari bezala erregalatu digun gauza; eta zintzokuntza —justifikazioa— fedeaz gertatzen dela. Hori horrela baldin bada, ordea, ondorioa bistan da: fedea Jainkoaren emaitza dela.

Fedez edo fedearen bitartez salbatzen dela gizona eta hori Jainkoaren emaitza dela, hori San Paulok makina bat aldiz esaten du. Toki bat edo beste aipatuko dugu:

(1) Ikus DS 398-400, 1525-1526, 1553, 3010, 3035; “Dei Verbum”, 5.

(2) Cf. Rom 8,28; 1 Cor 1,2; Rom 1,7 etab.

“Zeren Kristori esker emana izan baitzaitzue, ez ezik haren baithan sinhestea, bainan jasaitea ere haren gatik” (Phil 1,29; Duvoisinén itzulpena).

Beraz, Jainkoak emandako zerbait da sinestea.

“Alabainan fedeari esker graziak salbatu zaituzte; eta hori ez da zuen ganik heldu, ezen Jainkoaren dohain bat da. Ez dator eginkarietarik, nihork ez dezan bere buruaz espanturik izan” (Ephes 2,8-9).

Berri Ona horrexegatik da berri on, hain zuzen: Jainkoaren amodioaren albistea ekarri digulako. Amodio errukitsu honek hutsean ematen digu salbamina. Eta salbamen horretan fedea dela medio dugu sarrrera; baina fede hau bera ere Jainkoaren emari edo grazia da (Ikus Rom 4,4-5).

Horregatik zioen San Agustinek: Jainkoak zerua etab. ematen digunean, bere emanak saristatzen eta koroatzen dituela gu baitan.

San Paulo farisaitarra izana zen. Eta beharbada horrexegatik beste inork baino bizikiago sentitu du kristautasuna beste zerbait dela eta ez duela deus ikustekorik norbere obretan jartzen den fidantziatz. Salbamina, alegia, ez dela norberak norbere eginkarien podorioz irabazten duen zerbait —nahiz eta, bestalde, obrak beharrezkoak izan—.

Ikus, bukatzeko, beste hau ere: “Inork ezin dezake esan: Jesus da Jauna, Izpiritu Sainduaren indarrez baizik” (1 Cor 11,3).

3) *San Joan.* — San Joanen ebanjelioa, neurri handi batean, fedearen ebanjelioa da (1). Guk, ordea, pasarte bat bakarrik aipatuko dugu, auzi honetan ezin utzizkoa baita: “Nehor ezin datorke ni ganat, baldin ezpada ni egorri nauen Aitak erakar” (Haraneder-en itzulpena).

Jesusengana etorri eta Jesusengan sinetsi gauza bera dira San Joanen mintzairan. Orain bada, pasarte honetan esaten da behar-beharrezkoa dela Jainkoaren tirapena edo erakarmena, sinetsi ahal izateko. Eta hemen barneko erakarmenaz ari dela, bistan da. Barneko erakar-indar horrek ez dio, bestalde, gizonaren askatasunari bortxarik egiten (baina hau beste problema bat dugu, geroago ikusiko duguna).

Puntu eztabaidatua, baina hagitz garrantzitsua

Beraz, fedezko aktoa izaki edo sorkari supernaturala da, bere muinari bagagozkio. Hori katoliko den orok aitortzen du eta aitortu behar du. Hortik aurrera, ordea, badira mila puntu garrantzitsu, are katolikoek artean ere libreki eztabaidatuak direnak.

Hona hemen bat: Psikologi-aldeetik, bere orientazio aldeetik, abiaduraz, giza kontzientziari azaltzen zaion itxura aldeetik etab., fedezko akto

(1) Ikus X. LÉON-DUFOUR, *Vocabulario de Teología Bíblica*, s. v. Fe, p. 334.

supernaturala eta gizonak bere indar soilaz egiten dituen adimenezko aktoak igualtsuak ote dira? Iturri supernatural batetik sortu den aktoa eta sustrai naturaletik ernea, ikusalde honetatik ere —hots, psikologi aldetik— desberdin eta bestelakoak behar ote dute izan?

Honetan eritziak ez datoz bat. Batzuek baietz esango dizue, beste batzuek ezetz.

Baina gauza pixka bat sakonki miatuz gero, badirudi askoz egiturakoago dela baiezkorearen alde dagoen aburua. Izan ere, Jainkoaren hitza nola atzeman daiteke era berdinez giza indar soilaz ipinitako akto batekin eta goitiko ahalmenaz egindakoarekin? Beharbada, Jainkoaren hitzari sineste eman dakioke gizonaren ahalmen hutsaz ere; baina horrela egindako sineste-aktoa, psikologi aldetik, abiaduraz, bere helburu eta xedera destatze-moduaz etab., berdinak ezin izan daitezke. Eta fedezko aktoaz hemen jartzen den problema, berdin-berdin jar daiteke esperantza eta karitatezkoaz ere.

Kuestio hau luze eztabaidatua izan da teologoaren artean, eta lehen kolpean dirudien baino axola handiagoa du.

Itxuren arabera, fedezko akto supernaturalari aitortu behar zaio egitura psikiko bat guztiz berariazkoa eta bere gisakoa, fedezko akto naturalak izan ez lezakeen bezalakoa. Hauxe da behintzat San Tomasengandik heldu den eskolak sostengatzen duena, eta gure aroan badirudi hortik doazela gehienen aburuak (Newman, Scheeben, Gardeil, Stolz, Huby..., berriagorik ez aipatzeko).

Jainkoaren graziak halako moldez ukitzen ditu gizonaren erraiak, non honen fedezko aktoari Jainkoagana jotzean eta Jainkoa atzematean, halako tankera berezi bat ematen baitio.

Jakina, ez dugu pentsatu behar problema honentzat erantzun garbia Eskriturak emango digunik. Badira halere han aztarna eta zantzuak.

Adibidez, Testamentu Zaharrean Mesiaren aroa aipatzen denean, hara zer esaten den: barneko berriztatze bat egingo duela orduan Jainkoak, bihotz berri bat emango digula (Ez 36,26); Jainkoaren ezagutze berria (Jer 24,7), etab.

San Paulok, aldiz, esango du graziaz eraberritua izan ez den gizona itsu dagoela (Eph 4,17-19; 2 Cor 4,4).

Baina batez ere San Joanen lehen eskutitzak argi handia egotz lezaieke auzi hau argitzeko. Han behin eta berriz esaten zaigu justifikatua Jainkoagandik jaio dela, Jainkoarengan dagoela, Jainkoarekin har-emanetan dela, Jainkoa ezagutzen duela; Jainkoaren Semeak, Jainkoa ezagutzeko ezaguera-suerte bat berria eman digula, etab. (1).

Guzti honek esan nahi du, noski, Jainkoaren grazia dela medio, gizona baitan dinamismo berri bat jarria izan dela, eta horrek berari da-

(1) 1 Jo 5,20. — RUDOLF SCHNACKENBURG, *Cartas de San Juan*; Barcelona, Ed. Herder, 1980.

gozkion eginkariak eragiten dituela. Are psikologi aldetik ere dinamismo horrek sortarazten dituen aktoak bereziak izan behar, hots, naturaleza hutsak egin ez ditzakeen bezalakoak.

San Joanen lehen eskutitzean gehiago esaten da oraindik: Jainkoagandik jaioak ezin egin dezakeela bekaturik. Eta zinez, hala da: Jainkoagandik jaio denak, Haren biziaren partaide den aldetik, ezin egin dezake bekatu. Baina kontua da dinamismo honekin batean hor dela, gu baitan, bestea ere. Eta hortik dator bekatua (1).

Fede supernaturalaren jabe garela jakin ote dezakegu?

Gizonak ba ote daki —edo gogoeta eginez jakin ote dezake— segurki eta gertuki fede supernatural hori baduela? Horretan ere eritziak ez daitoz bat. Baina Trentoko Kontzilioak definitu zuena gogoan hartuz (2), badirudi egitzurakoago dela ezezko aburua: norberak, alegia, ezin erdiets dezakeela segurantza osorik eta gerturik puntu honi buruz.

Fede, Esperantza eta Karitatearen bidez topaketa egiten dugu betierekoaz, baina hau ez da psikologikoki neur daitekeen esperientzia (3).

Deabruen fedea

Santiagoren kartan esaten da (Jac 2,19) deabruak ere badutela sineste. Deabruak, ordea, ez dute graziarik. Orduan hortik har daiteke argumentu bat guk azaldu dugnaren kontra: graziarik izan gabe sinesten badute, seinale da sinesteko ez dela graziarik behar.

Baina erantzuna ez dut uste bat ere kordokagarria denik. Deabruak ez dute fede zin eta jatorrik. Fedeak dioena egia dela ikusten dutelako, bortxaturik daude hori aitortzera, eta hori da guztia. Konbentzimendu bat eta jakite bat da deabruak daukatena, baina horrek zer-ikusi guti du bideazkoen fedez: hau librea da; deabruen konbentzimendua, berriz, ezinbestekoa, noraezekoa; fededunak Jainkoari sinesten dio; deabruak, aldiz, Agerkundeak dioena egiatzat daukate gauzen agiritasunak hortaratzen dituelako.

Halako analogia bategatik bakarrik deitzen zaio fedea deabruen egoera honi.

* * *

(1) Ikus 1 Jo 3,9.

(2) DS 1533, 1566.

(3) Ikus ALFARO, *Fides Spes Caritas*; p. 331.

Kapitulu honen edukina ongi ulertzetik ez dira ondorio onak baizik segituko.

Haatik, har daiteke behar ez den bezala ere. Adibidez, zenbaitek esan lezake: Dena Jainkoaren eskuetan baldin bada, hor konpon, nik ez dut zer-ikusirik arazo honekin. Fedea Jainkoaren emaitza baldin bada, ematea dauka. Ematen ez badit, nik ez dut horren errurik bat ere.

Baina ondorio hau ez da zuzena. Jainkoak nahi du guztiok federa hel gaitezen (1 Tim 2,4). Beraz, Haren aldetik ezin egon daiteke hutsik. Eta guri geure ahalegina egitea dagokigu.

Beste hau, bai, ondorio zuzena da: auzi honetan ez dugula zer harroturik. Jainkoaren esku dago guri fedea kentzea edo ukatzea, gure portaera txarraren erruz.

Eta ez dezagula pentsa fedea inongo herri edo arrazari lotua dagoenik. Ez da herri baten ondare edo senipartea. Aski dugu kristautasunaren kondairari gain-begiratu bat botatzea honetzaz ohartzeko: fedea, alegia, argi-zuzia eskutik eskura bezala, zertan batetik bestera saltoka ibili dela. Lehenago argitan zegoen herria gero ilunetan utzi du; ilunetan zegoena berriz, argitu du, etab.

Guri zer dagokigu, bada? Umil izatea, erregu egitea, ernai egotea eta geure aldetik Jainkoaren emaitzari eskerronez eta zintzo erantzuten saiatzea.

Ez dago hemen gaizki Ars-ko Erretore sainduak zioena gogoratzea: "Alegiñak egin ditzagun fedea gugandik aldendu ez dedin, emendik iges egiñaz itxasoz beste aldera joan ez dedin. Eskatu dezaiogun Jaunari otoitx sutsu-bitartez begiratu dezaigula. Fedea galtzera etorriko bagiña, ondo zorigaiztokoak izango giñake-ta"(1).

Lasalletarren Jeneralak Arantzazun egindako hitzaldi batean (78-IV-14) esana datorkit gogora: Guk fedea daukagula baino hobe esana legoke hau: Fedeak gu gauzkala, alegia.

(1) *Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak*, Arantzazun 1955; 32 orr.

Hirugarren Kapitula

EZAGUPENAREN ALDERDIA FEDEAN (1)

Gaur ezagutze eta jakiteaz bat ere loturarik ez lukeen fedea nahi litzateke. Horregatik, agian, kapitulu honetan azalduko den gaia ez da zenbaiten gogoko izango.

Baina bai beharrezkoa. Ezen alderdi hau ezin utzizkoa da kristau fedean.

Ezagupena eta Fidantzia fedean

Fedeak ikusalde edo saihets bat baino gehiago du. Eta gizonen begiek orain batari eta gero besteari kasu ematea ez da harritzekoa. Horrelako zerbait nabari da fedea izendatzeko erabili diren hitzetan beretan.

X. Léon-Dufour jaunak dioenez (2), hebraieraz, fedea izendatzeko, bi errotako hitzak erabiltzen dira gehienik: “aman” (hortik *amen*), eta “batah”. Lehenbizikoak tinkotasuna eta segurantzia adierazten du; bigarrenak, berriz, fidantzia.

Eskritura Saindua grekora itzuli zenean, hebraieraz aurkitu dugun bikoiztasunak segitu zuen. Baina Testamentu Berrian “aman” erroari dagozkion ordainak nagusitzen dira.

Zernahi gisaz, fedean bi alderdi hauek daudela, ezin ukatua da. Jainkoaren hitzak dioena egiaztat hartu: horra adimenduaz, ezagutzeaz eta jakitearen munduaz zer-ikusi duen alderdia.

Jainkoagan Berarengan fidantzia ipintzea: horra fedearen beste alderdia.

Bi alderdi hauek ez daude bata bestetik horren urruti, gaur batzuek sinest arazi nahi liguketen bezala. Gainera, bi alderdiok bata bestearen

(1) ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 29.

(2) *Vocabulario de Teología Bíblica*, s. v. Fe.

kaltetan direla erakutsi nahi dute, oposaketa faltsoak jarritz. Eta ez. Gauzak ez dira horrela.

Gaur adimenarentzat argirik bat ere ez dakarren fedea goستن da, zeharo ilunetan uzten gaituen fedea, alegia. Fidantzia huts-soila azpimaratu nahi da fedean.

Zerbait berririk ezagut arazten digun fedea, aldiz, madarikatu ohi da. *Fede doktrinala, adimenduzkoa* etab. deitzen zaio, halako mezpreezio eta irriño batekin.

Baina alderdi hau ukatzeaz kristau fedea giharrean ukitua gelditzen da. Hara zer dioen Daniélou Kardenalak: "Gaurko zenbait kristautan doctrinazko fede jatorra txikizio bat jasaiteko zorian da, kristautasunetik moral suerte bat, pobretasun eta karitatezko izpiritu bat gordetzen dutelarik, eta deus ez gehiago... Horregatik, oinarritzko sendotasun doktrinala gaurko eginkizun nagusienetako bat da" (1).

Oposaketa faltsoak

Oposaketa edo etsaitasun faltsoak bilatu nahi dira Ezagutze eta Fidatzearen artean, bata bestearen kaltetan baleude bezala, eta bien artean bat —fidatzea, noski— aukeratu behar dela sinest arazteko. Baina gauzak ez dira horrela. Fedeak Jainkoaren eta gu-geuron ezagupen bat dakarrela berekin ez da dudarik. Ez, ordea, erabateko eta oso-osokoa, ezen Jainkoa baitan eta gu baitan bada gero ere misteriorik eta ilunik aski guretzat; eta beraz, bada tokirik franko fidantziarentzat.

Hain zuzen ere, fidantzia zer da? Gure buruaren emate bat osoki eza gutzen ez dugun Norbaiti, Haren amodioan eta boterean sinetsirik. Gure fidantzia irabazteko, anitz gauza egin eta agertu ditu Jainkoak. Beraz, badakigu maite gaituela, eta hori jakinik, Haren maitasunari erantzuten diogu.

Jakite bat dago, bada, oinarri-oinarrian, eta, hain zuzen, horretxek egiten du posible fidantzia.

Delako oposaketa hori beste era honetara ere egiten dizue maiz: fedean badela jakite edo ezagutze-suerte bat? Bego. Baina kuestioa hau da: Fedean zer baieztatzen duzu: Jainkoa bera, ala bestelako egia batzuk? Eta jakina, Jainkoa bera onartzen duen fedea hautatzen, eta esaldi batzuk egiazat hartzen dituen beste fede hori zapuzten dute. Baina hautamen horiekin berriz ere gauzak bidegabeki murrizten dira. *Bata ala bestea* esaten dute, *Bata eta bestea* behar den tokian.

Bai Jainkoa bera eta bai Hark agertu digun guztia, bi-biak onartzen dira kristau fedean. Oposaketa hori faltsoa da, bada.

(1) *La fe de siempre y el hombre de hoy*, Mensajero, Bilbao, 1969, cap. 4.º, p. 102-103.

Egia da Bainvel, Billot, Harent eta beste batzuen —askotxoren— teologi eskolan Jainkoaren beraren alderdi hau gutietsia izan dela, eta beste alderdia —Hark agertu dituen egiei sineste eman beharra— hartu izan dela batez ere kontuan fedea esplikatzekoan. Baina horregatik ez gaitzen orain beste muturrera joan. Fedean, bistan da, Jainkoa onartzearekin batean, Hark esandako guztiak ere onartzen ditut.

Bada gure hizkuntzetan esan-molde bat fededunaren planta edo jarrrera hori taxuz adierazten duena: *Sinesten dut Jainkoarengan* (edo *Jainkoa baitan*). Badirudi esan-molde hau bere joskera bitxi horrekin kristauak asmatu eta hizkuntzan sartua dela —lehenik greko eta latin hizkuntzan eta gero beste erdaretan, eta bai euskaran ere—.

Eta hemen hau da notatzekoa. Kristaua, esan molde hori asmatu beharrean gertatu baldin bazen, hori da kristau fedeak zerbait berri berekin zekarrelako, ordura arte ezagutzen ez zen zerbait. Eta zer zen *zerbait* hori? Gizonak bere burua edo pertsona osoa Jainkoari errendatzea, Harengan fidaturik. Eta hori da esan molde horrekin adierazten dena (1).

Kristau fedea, gertakari batzuei lotua

Kristau fedea Historiako zenbait gertakariri ezin hautsizko lokarritz loturik dago, hots, Jesukristoren bizitze, heriotze, berpizteari etab.

Hori hala izanik, noraezekoa da kristau fedean gertakari horien historitasuna baieztatzea. Badira zenbait gauza jakinbeharrekoak, Kondairan gertatuak, nahiz eta Kondaira huts-soila ez izan. Kondairazko alderdi hau mantendu ezik, kristau fedea mitologia edo ideologia huts bat bilakatzen da.

Eta Gnostizismoak aguro asko hartu zuen bide hori. Apostoluen idazkietan bada jadanik desbiderapen honen salakuntza (San Joanen lehen eskutitzean, etab.). Kristoren egiazko pertsonalitatea eta Hark egindako eta esandako gauzen historitasuna onartzen ez baldin bada, kristau fede zuzena ez dagoke zutik.

Kristau fedeak berekin darama, bada, honako hau: Agerkundeak irakasten duenaren errealitatea aitortzea, guzti horren egia baieztatzea. Horrekin ez dugu esan nahi fedea adimenaren baieztatzeko huts-soila dela; baina hori ere bada.

Kristau erlijioaren inguruko gauzetan erabat berri den gauzarik nekez sortzen da. Aintzin honetan aipatu dugu lehen mendeetako Gnostizismoa. Eta zer besterik dira gaur fedearen interpretazio berritzat jotzen diren joera batzuk?

(1) "Sinetsi aditzaren erabilkera batzuk aztertuz: Sinesten dut Jainkoa, ala Sinesten dut Jainkoagan?" *Euskera* (1975), 128.—Ikus "Los solecismos cristianos" in HENRI DE LUBAC, *La fe cristiana*, Ed. Fax, Madrid 1970; p. 275ss.

Fedeari buruzko auzian gauza jakina da ez datozela bat protestante eta katolikoak. Katolikoek beti garrantzi handia eman diote adimenaren alderdiari. Protestanteek, aldiz, adimenaren saihests hau gutiatsiz, fidantziarenari ematen diote axola guztia.

Fedean den ezagupenezko alderdia Luterok ez du sekulan ukatu; aitzitik, behin baino gehiagotan aipatzen du. Zernahi gisaz, hori gauza suposatua eta jakina da harentzat. Beraz, fedeak berekin dakarrela Jainkoaren hitzari baiezkoa ematea, berak ez du ukatzen.

Baina hau ere esan behar da. Agerkundearen elementu objetiboek —Jainkoak agertu dizkigun egiei— salbameneko obran ez die garrantzi edo pisurik aitortzen. Fidantziari ematen dio hark axola guztia. Jainkoak xoilki salbatzen du gizona; eta gizonaren partetik fidantziazko fedeak —norberak hor barnean frogatua— izan ohi da Jainko-egintza horren oihartzuna. Luterorentzat hemen ez dago besterik. Elementu objetibo guztiek jai daukate, bada —egia objetiboek, Elizak, sakramentuek, Kristoren gizatutasunak, etab—.

Era horretara, logikoki, elementu objetibo horien ukapenari atea zabaldu zion Luterok.

Fr. Schleiermacher (1768-1834) da, noski, protestanteek XIX. mendean izan duten teologorik handiena. Sujetibismoaren formarik erradikalenak dakusgu beronengan. Jaun honek Kant eta Hegel-en eragina jasan du. Alde batetik, berak nahi du Luterogandik heldu den ortodoxia Ratzionalismoaren erasoetarik begiratu, eta, bestetik, aro berriko mentalitatearentzat ulerterrez bihurtu. Orduan barneko esperientzia jartzen dizu erlijioaren muina bezala. Hor barneko kontzientzian norberak sentitzen duena ezin esanezkoa da, kontzeptu bidez ezin adierazizkoa. Munduan diren erlijio guztiek barne esperientzia hau formulatu nahi izan dute. Dogmek barne-esperientziaz dute zer-ikusi eta ez inola ere kontzeptu bidez adierazten diren gauzekin. Horiek hola, kristautasuna ez da egiazko erlijio bakarra, nahiz eta besteak baino bikainago den... Erlijio honek Kristoren barne esperientziatik du etorkia. Etab.

Bistan da: jaun honentzat Kristo gizon huts-soila besterik ez da. Fedeak, berriz, ez da Jainkoak agertutako egiari sineste ematea. *Jainkoaren hitza* deitzen den hori ez da hauxe besterik: gizonaren barne esperientzia bat. Era horretara, Luterok jarritako hasiera eta oinarriak azken helbururaino eramanez ditu (1).

Ia gure egunetakoa dugu *Harnack* jauna (1851-1930). Jaun honek ebanjelio huts-garbira itzuli nahi du. Horretarako, ordea, erlijioa dogma guztietarik garbitu behar omen da. Harnack-en ustez, dogma horiek Greziako filosoferien eraginez sartuak izango lirateke. Azken finean, zer da

(1) IKUS ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 35.

fedea jaun honentzat? Gure fidantzia Jainkoagan ipintzea: besterik ez. Beraz, kristau ekonomia osatzen duten errealtate guztiak suntsituak eta ezabatuak gelditzen dira.

Pixka bat lehenagokoa, baina izan duen eraginagatik aipagarri da, baita ere, S. *Kierkegaard* jauna (1813-1855). Jaun honek Luterorengana itzuli nahi du. Gizonak, alde batetik, bekatari ikusten du bere burua, eta bestetik, badaki Jainkoaren errukiak ongi hartzen duela, baldin eskaintzen zaion aukera hau libreki onartzen badu, behintzat. Justifikazioa ez da horixe besterik, eta hori da, hain zuzen, fedezko aktoa. Jainkoa amodioaz datorkit eta ni libreki ematen natzaio.

Gainerakoan ez dirudi Kierkegaard-ek Agerkundean alderdi objetiboa ukatzen duenik, baina fedezko aktoaren alderdi hori ez du kontutan hartzen. Elizak fedean eta salbazioko egintzan duen zeregina ere ez du aitortzen. Gizonaren egoera Jainkoaren aurrean indibidualismo hertsia baita bururatzen da.

Hor dago, azkenik, R. Bultmann (1884-1976). Gauza jakina da jaun honek izan duen eta oraindik duen oihartzuna, batez ere exegesiaren landan. Berak dioenez, Testamentu Berriak mito, azaleko jazkera eta eraskin guztietarik murriztu eta garbitu beharra dauka, bere sotiltasun gardenean geldi dadin eta gure aroko gizonek muin hori har dezaten.

Eta zer dira mitoak Bultmannentzat? Gizonak asmatutako jazkera batzuk, jainkozko interbentzioak mundu honen barnean gertatu eta nabarituak balira bezala. Jainkoaren interbentzioa bada, noski, baina ez da era horretara ikus eta frogatu daitekeena. Orduan Jainko-Semearen giza-kundea —San Joanen ebanjelioan datorren gisa—, Hirutasuna, jatorrizko bekata, Kristok bere Odolaz erosi gaituela, Kristoren mirakulua, Kristoren berpiztea, hitz batean, kristau dogmen edukin objetiboa oso-osorik mitoen artean sartu beharko litzateke.

Bultmannentzat kerigma huts-soila, elementu mitiko guztietarik garbitua, honako hau da: Jainkoak hutsean eta doan Jesukristoren gurutzean bere epaia agertu digula: kondenamen eta salbamen epaia, alegia. Epai hori Jainkoak Jesusen heriotzearekin lotu nahi izan du; lotura hori Berpizteaz adierazten da. Eta hauxe izango litzateke Berpiztearen esanahi guztia (gainerakoan, Berpizterik gertatu ez delarik!).

Beraz, fedez Jainkoaren epai hau bereganatzen du gizonak: bere ezereza, ezina eta gaiztakeria aitortzen ditu, eta oso-osoko fidantziaz bere burua Jainkoaren amodioari libratzen dio.

Gainerako guztiak azala eta oskola dira.

Arrazoiaren aldetik fedea frogatzerik ez dago. Bultmannek fedearen edukin objetiboa oso-osorik arbuiazen du. Adimenezko elementuak oro fedetik kentzen ditu. Zer gelditzen da orduan? Fidantzia huts-soila.

Jainkoaren egintza salbagarria eta gizonaren fidantzia: hori bakarrik gelditzen da zutik. Gainerako guztia arbuiazen da.

Ondorio hauek Luterok idikitako ildoan daude. Bultmann jauna Luteroren letrari baino areago, haren izpirituari guztiz leial eta atxikia dela esan behar da.

Gaur fedearen alorretik arrazoiak zer-ikusi duen guztia alienatu nahi denean —eta oso zabaldurik ikusten dugu grina hau—, Lutero eta Bultmannen eragina, zuzenean edo zeharka, ibili ohi da tartean. Baina Eliza Katolikoaren fedea ez da eite horretakoa. Egia da —gorago esan genuen bezala— toelogo katoliko batzuen artean behiala beste muturreko gehiegikeriak gertatu direla —fedea intelektualismo idor bat bihurtu nahia—; baina hertsikeria batek ez du beste hertsikeria batera aldatzeko eskubiderik ematen.

Bultmannen sistema edo kristau fedearen murrizketa, asmo honekin egina omen da, hots: gaurko munduak kristau berriona edo kerigma errazago onart dezan amoreagatik. Fedea gaurko munduarentzat egokiago bihurtzeagatik.

Zinez, egokitasun honen gakoa non den ez da ikusten. Gurutziltzatu baten heriotzean Jainkoak bere epai hori jakinarazi digula, nondik dakigu? Mitotzat baztertzen diren gertakariak kenduz gero, inondik ere ez. Jainkoak Kristoren bidez zerbait agertarazi nahi baldin badigu, badirudi hori jakiteko ezagubide batzuk eman behar dizkigula; baina ezagubide eta agerbide guztiak kenduz gero, nola eska diezaiokezu gizonari itsu-itsuan mezu hori onart dezan?

Bultmannek idatzia da pasarte hau: “Ez da posible tximist argia erabiltzea, irratia entzutea, midikuntza eta zirugi aurrerapenez baliatzea, eta denbora berean Testamentu Berriko munduan —zeinetan mirakuiluak baitaude— sinestea...” Horregatik, eta kristau mezua gaurko gizonari egokitu nahirik, egin du murrizketa hori. Baina lehen mendeko Gnostikoek ez zuten ez elektrizitate, ez irradi ez beste horietarik, eta bide beretsutik jo zuten. Ez ote dago, bada, hemen izpirituaren joera bat, mende hone-tako edo hartako aitzingibelekin zer-ikusi guti duena? Nik hala uste.

Joera honek kristau erlijioa egiak ipuinetako mundura bidali nahi lituzke. San Joanek, ordea, argi eta garbi abisatzen digu: “Jesus Krist haragitara etorri dela konfesatzen duen spiritu guzia, Jainkoaganik da. Eta zein ere spirituk ezpaitu konfesatzen Jesus Krist haragitara etorri izan dela, hura ezta Jainkoaganik: eta halako spiritua Antikristena da” (1 Jo 4,2-3; Leizarragak itzuli bezala).

Mende honen hasierako Modernistek ere bide beretsutik jo zuten; baina horiei buruz beherago mintzatuko gara (1).

(1) Ikus 19. Kapitula.

Fedean bi memento bereizi-beharra

Fedeari buruzko gauzak ez dira azaltzen errazak. Aitzingibel askotako auzia da. Alderdi bati kasu ematen diozunean, baduzu bestea itzalpean uzteko arriskua. Ezagupen eta Fidantziak fedean duten partea neurtzerakoan, horrelako zerbait gertatzen da: bata azpimarratu nahi duzunean, bestea erdi ahantzia uzten duzu. Halarik ere, biak behar dira kontutan hartu.

Bereizkuntza batek lagunduko digu korapilo hau askatzen. Izan ere, ezin ahantz daiteke fedezko egintza bi une edo mementotan banaturik dagoela.

Lehen mementoa da gizona Jainkoari buruz jartzen denean, *Harengan sinetsiz*. Hemen badirudi Fidantziak duela parte nagusia. (Utz dezagun alde batera fidantziatzko planta hori ez dela posible, gizonak aitzinetik Jainko-amodioaren seinaleak *ezagutu* dituelako baizik).

Baina kristau federeko gauzak ez dira horretan bukatzen. Ondoren dator bigarren mementoa: Gizon hura Elizan sartzen da, eta Elizaren eskutik Kredoa hartzen du, hots, sineskaiei bilduma. Orain erakusten zaio xeheki eta konkretuki zer sinetsi behar duen. Agi denez, bigarren memento honetan Ezagupenak du parte nagusia.

Bataioa hartzera dihoanari apaizak honela galdetzen dio: “Quid petis ab Ecclesia Dei?” Zer eskatzen diozu Elizari? Eta hark —edo aita-ponteak haren izenean— erantzuten: “Fidem”: *Fedea*. Eta gero, pontera hurbiltzean, apaizak bataio hartzailearekin batean, Kredoa klarki eta ozenki aldarrikatzen du. Kredoa, berriz, zera da: sineskaiei bilduma. Zeremoni honetatik garbi ageri da fedeak baduela zer-ikusi sinetsi behar diren egia batzuekin.

“Traditio symboli”, hots, Kredoarene ematea, deitzen zaio horri. Fededunak, bada, Elizagandik hartzen du Kredoa, sinetsi behar dituen egien bilduma.

Beraz, *fede* hitza aho-mihitan hartzean, batzutan fidantzi alderdia eta beste batzutan ezagupenarena egon daiteke lehen tokian. Baina azken finen bi alderdiok elkarrekin uztartzeak dira.

Gaiaren garrantzia

Ezagupenaren alderdia gaur bortizki eraso eta ukatua ikusten dugu. Arrazoi bat gehiago, alderdi hori sendo finkatua geldi dadin. Izan ere, auzi hau ez da norberak bere antzora edo nahierara hauta dezakeen horietakoa, kristau fedearen muinari dagokiona baizik. Jainkoak agertu dizkigun gauzen errealtatea aitortu, horien egia sinetsi: hori gabe ez dago kristau federik.

Eliz Irakasgoak dioena.

Ezagupenaren alderdi hau beti dator espresuki aipatua Eliz Irakasgoak fedeaz eman dituen gutunetan. Trentoko Kontzilioak honela dio: "Jainkoak agertu eta agindutako gauzak egiazkoak direla sinetsiz" (DS 1526). Batikano Lehenak fedeari buruz definizio moduko deskribapen bat egiten digu, era honetara: "Fedea da bertute bat supernaturala, zeinez, Jainkoaren graziak lagundurik, Hark agertutakoak egiazkoak direla sinesten baitugu", etab. (DS 3008). Ikus, baita ere, Modernisten aurkako zina (DS 3542).

Batikano Bigarrenak ere fedearen deskribapen bat utzi digu. Bertan espresuki fidantziaren alderdiari toki bat uzten zaio, baina adimenaren baieztokari den gutiena kendu gabe: "Jaunak bere Agerkundera egiten duenean, fedearen obediencia eman behar zaio. Fede horren bidez gizonak bere burua Jainkoari libreki eta osoki fidatzen dio, Jainko agertzaileari adimenaren eta nahimenaren goratzarre osoa eskainiz, eta Hark agertutakolari gogotik baieztokoa emanez" ("Dei Verbum", 5).

Teologi kalifikapena

Gure dotrina hau inplizitoki definitua dela esan daiteke, bada.

Beraz, hona ondoko perpaus honetan azaltzen dugunaren muina bildua.

FEDEZKO AKTOAREN BIDEZ JAINKOAK AGERTU DIGUNAREN EDUKINA EGIAZKOTZAT JOTZEN DUGU

Eskritura Sainduan hortaz ageri dena

Testamentu Zaharrean aurkitzen duguna.—Testamentu Zaharreko fedean fidantziaren alderdia espresuki ageri da, hots, Jainkoaren promesetan fidatu eta Jainkoaren aginduei obeditu; baina horrek berekin darama, baita ere, Jainkoak agertutako egintzak ezagutu, aitortu eta egiazkotzat hartzea.

Abrahamek Jainkoari sinetsi zion (Gn 15,6), hau da, Harengan ipini zuen bere fidantzia, baina era berean konbentzimendu osoz sinetsi zuen Jainkoak hitz emandako gauza gertatuko zela.

Jainkoak herria salbatzera bialtzen du Moises (Ex 3,1-22). Moisesek orduan erreparatu hau jartzen du: Herriak ez dit sinetsiko eta ez entzungo; aitzitik, zera esango du: Ez zaizu Jauna agertu. Eta objezio honi erantzuteko Jainkoak ezaugarri edo seinale miraritsuak ematen dizkio Moisesi: *Jauna agertu zaizula sinets dezaten amoreagatik* (Ex 4,1-9). Eta azkenean herriak sinetsi zuen (Ex 4,28).

Zer esan nahi ote du guzti honek? Bistan da: sinesteak berekin da-ramala zerbait egiazkotzat jotzea.

Salmoetatik gauza bera ikusten da. Ikus adibidez Ps 78,22.32; Ps 106, 12.24.

Testamentu Zaharrean badira formula jakin batzuk Israelgo herriaren fede-aitorpenak bezala direnak. Esate baterako Dt 26,5-9; Ps 106, 135, 136. Agerian dago, fidantziaz eta obedienez gainera, Jainkoaren hitza egiazkotzat hartzea suposatzen dutela fede-aitorpen horiek.

Testamentu Berrian

1) Apostoluen Eginak

Kristau fedearen lehen deskribapenak liburu honetan daude. Pedro eta Paulok Jesusi buruz egiten dituzten predikuetan, alegia. Jesus, Jainkoak berpiztua, Mesias dela eta Salbatzailea: horra prediku horien gaia. Sinestea, berriz, hori onartzea da. Ikus, esate baterako, Act 18,5.

Kristau mezua zer da, beraz? Jesus nor den eta zer den hots egitea, gaztiatzea. Hortik sortzen da esanmolde hau: *Jesusengan sinetsi, Jauna baitan sinetsi*. Ikus, adibidez, Act 19,4; 9,42.

Hemen nabari da *fede* hitzak, Testamentu Zaharretik Berrira igarotzean, halako eboluzio bat jasan duela: adiera sujetibotik —fededunaren aktoa— adiera objetibora (dotrina bat, gertakari bat, edukin bat esan nahi du orain hitzak: ikus adibidez Act 6,7).

Hori garbi ikusten da Felipe diakonoaren kontaeran ere. Han zer da sinestea? Hauxe: Jesus Jainkoaren Semea dela egiazkat hartzea (Act 8, 37). Adimenaz zer-ikusi duen egia bati sineste ematea, beraz. Act 6,7 ere aipa daiteke (beste pasarte askoren artean).

2) Ebanjelio Sinoptikoak

Apostoluek hots egiten duten kerigma onartzea: horixe da sinestea (Ikus Mc 16,15). Orain bada, Apostoluen Eginetarik ikusi dugu zer-nola-koa zen kerigma hori edo zein zen beronen edukina: Jesusen heriotze eta berpiztea, eta gertakari hauek duten salbaziozko esanahia.

Gainerakoan, maiz esaten da ebanjelio hauetan Jesusek, sendaketak egiteko, fedea eskatzen ziela eriei. Agi denez, fidantzia da fede horren elementuetarik bat, eta beharbada nagusia; baina konbentzimendua ere tartean dago, hots, Jesusek mirakulua egin dezakeela sinestea.

3) Jaun Done Paulo

San Paulorentzat fedeak baduela ezagupenezko alderdi bat ezin ukatua da, nahiz eta alderdi hori bakarra ez den.

Gauza jakina da zenbatetaraino, San Pauloren, fedea salbamenaz eta zintzokuntzaz lotua den.

Fedearen adimenezko saihesta hori era askotara da ageri.

Adibidez, esaldiaren joskeran: “oti” juntagailua erabiltzen denean (grekoz). (Leizarragak *ezen* erabiliko dizu “oti” hori euskeratzeko).

Rom 10,9: “Ezen baldin konfesa badezak eure ahoz Iesus Iauna, eta eure bihotzean sinhesta badezak *ezen* Jainkoak hura hiletarik resusztatut duela, salbaturen aiz”.

Zer da, beraz, *sinestea* hemen? Gertaera bat, Kristoren piztuera, egiaztat edukitzea.

Beste pasarte bat:

1 Cor 15,14: “Eta baldin Kristo resusztatut izan ezpada, beraz bano da gure predikationea, eta zuen fedea ere bano”.

Ur gardena baino gardenago da pasarte hau. Piztueraren errealitateak huts egingo balu, fedea ere orobat alferra izango litzateke. Eta Kristoren piztuera hori egiazkotzat edukitzea, horixe da fedea —zinez eta egiazki gertaera erreala izan zelako, noski—. Fedea ez da izango hori bakarrik, baina hori dago azpian eta ardatz-ardatzeko gauza bezala.

Gertaera hau —Kristoren piztuera— egiazkoa eta erreala ez baldin bada, salbazioaren errealitate guztia pikutara doa.

Ikus beste pasarte hauek ere:

“Ezen fedez gabiltza, ez ikustez” (2 Cor 5,7).

“Ezen partez ezagutzen dugu” (1 Cor 13,9).

“Ezen orain mirail batez ikusten dugu ilunki: baina orduan begitar-tez begitarte” (1 Cor 13,12).

Testu hauetan garbi aditzera ematen da fedean badela ezagupen bat. *Fedez gabiltza* eta *partez ezagutzen dugu* gauza bat eta bera dira, agi denez, San Paulorentzat. Beraz, fedeak baduela ikustekorik ezagupenaz, ageri-agerian dago.

“Lehenago jazartzen zarokunak, orain erantzuten du bertze orduz gu-dukutzen zuen fedea” (Gal 1,23; Duvoisinien itzulpenetik).

Pasarte hauetan —eta honelako beste asko eta askotan— zera ikus-ten da: *fede* hitzak esanahi objetiboa hartu duela. Beraz, eboluzio bat gertatu da adiera sujetibotik adiera objetibora. *Fede* izena ematen zaio, alegia, sinesten den gauzari berari, sinestezko eginkariari baino areago.

Orain bada, eboluzio horrek berorrek honako hau salatzen du: fedeak berekin dakarrela gertakari erreal bat, dotrina batean adierazia eta baieztatut beharrezkoa dena.

4) *Hebertarren epistola*. Epistola honetan, XI. kapituluan, luze egi-ten da fedeari buruzko deskribapen bat, eta, gainera, Testamentu Zaha-rreko ikusmoldeari jarraikiz. Beraz, fidantzia eta obedientziaren alderdiak lerro lodiz azpimarratuak ageri dira. Baina baita ezagupenarena ere hor da. Ikus bestela:

“Bada imposible da fede gabe Haren gogarako izatea: ezen Iainkoagana etortzen denak, behar da sinhets dezan ezen Iainkoa badela, eta Hura bilhatzen dutenen reconpensazale dela” (Hebr. 11,6).

Fedea zer den nolabait aditzera eman nahi duenean, intelektual kutsuko hitza erabiltzen du: “elenjos”, “argumentum” (Ikus Hebr 13,1).

5) *Santiagoren epistola*. Epistola honetan fede hila eta deabruen fedea aipatzen dira (Jac 2,18-19).

Orain bada —eta hau ere ageri-agerian dago— konparazio honek, edo ez du bat ere sentidurik, edo ezagupena fedearen izakerari dagokion zer-bait da.

6) *San Joan*.

San Joanen idazkietan San Paulorenetan baino bortizkiago azpimarratzen da ezagupenak fedean duen partea.

Hori *sinetsi* aditzaz (grekoz “pisteuein”) egiten duen enpleguan ere ezagun da.

Enplegu horietarik bat hau da: “oti” juntagailua eta gero objetua. Objetua Jesusen Jainko-Semetasuna, Mesiatasuna etab. da beti. (“Oti” horren itzulpena Leizarragak *ezen*-ekin egiten du). Adibidez:

“Bai, Iauna, nik diat sinhesten ezen hi aizela Krist Iainkoaren Seme mundura etortzeko zena” (Jo 11,27).

“Baina gauza hauk skribatu izan dirade sinhets dezazuentzat ezen Jesus dela Krist Iainkoaren Semea...” (Jo 20,31).

Beste enplegua da “credere in”, “pisteuein eis”, izena akusatibo kasuan ezarriz: “Credere in Filium” etab. Euskaraz *baithan* edo *-gan* atzizkiaz itzultzen da joskera hau. Hala Leizarragak:

“Sinhesten duenak Semea baithan, badu bizitze eternala” (Jo 3,36).

“Ni baithan sinhesten duena, baldin hil izan badere, biziko dun” (Jo 11,25).

Beste pasarte askotan halako ahaidetasun edo kideasun bat ikusten da —San Joanen usuarioan beti ere— *ezagutu* eta *sinetsi* aditzen artean. Ikus, esate baterako, bi pasarte hauek:

“*sinhets* dezanat munduak ezen Hik Ni igorri nauala” (Jo 17,21), eta

“*ezagut* dezan munduak ezen Hik Ni igorri nauala” (Jo 17,23).

Ezagutu behar den gauza eta *sinetsi* behar den gauza, guztia da orobat: Jesusen Jauntasuna. San Joanentzat ez da, bada, ezagupen gabeko federik, ez eta ezagupenik fede gabe.

Beste pasarte askotan kideasun bat nabari da *sinetsi* eta *lekukotasun hartzearen* artean. Hona adibide bat:

“Egiazki, egiazki erraten darotzut, dakigunaz garela mintzo, eta ikusi dugunaz egiten dugula lekukotasun, eta gure lekukotasuna ez duzue onesten” (Jo 3,11; Duvoisinien itzulpena).

Lekukotasuna onestea (testimoniajea rezebitzea dio Leizarragak) eta sinestea, gauza bera da, noski.

Beste leku batzuetan fedea zera da: *egia ezagutzea* (Ikus Jo 8,32), *egia onartzea* (Jo 8,40), etab.

Beraz, sinetsi da Jesus Jainkoaren Seme, Mesias eta Salbatzailatzat aitortzea, gauza hori egiaztat hartzea.

Ezagupenaren alderdia ez da bakarra, noski, baina bai ardatz ardatzekoa Testamentu Berriko fedean.

Tradizioan

Eskritura Sainduan ikusi duguna berdin edo argiago ageri da Tradizioan. Adibidez, bataioko liturgian, sinbolo edo sineskai sortetan, Elizako Gurasoen idazkietan, teologoetan, etab. Baina azalpen hau ez luzatzeagatik, ez gara horiez guziez arituko (1).

Adimen soilaren arrazoiketa

Kristoren misterioa —Jainko-Semearen etorrera, Heriotze eta Piztuera— Jainkoak agertarazi digu erreala eta egiazkoa bezala: Jainkoaren Semea zinez gizon egin dela, hil eta berpiztu dela, alegia. Eta sinetsi da misterio hori onartzea, hots, egiazkotzat edukitzea, horri sineste ematea.

Adimenezko baietza fedetik kentzen baldin bada, kristau ekonomiaren errealitate osoa funditzen da. Agerkundearen egia objetiboa eta fedearen adimenezko izakera elkarrekin loturik daude. Bata ez dagoke zutik beste gabe.

Gaur maiz botatzen dira zirtoak Eliza Katolikoaren *fede doktrinala* dela eta. Baina saiheuts intelektual hori gartsuki sostengatu beharrekoa da. Ezen Jainkoak gu salbatzeko egin duen interbentzioa erreala da, edo ez da deus. *Fede intelektualak* ez du hori besterik esan nahi. Fedearen intelektualtasuna salbatu ezik, ezin salba daiteke fedeak dioenaren errealitatea. Ezin hautsizko lotura dute elkarrekin bi gauzaok.

Horregatik, kapitulu honetan baieztatzen dena inplizitoki definiturik dagoela esan behar da.

San Paulok garbi ikusi zuen lotura hau, hots: fedearen eta egiaren artean den lotura. Eta hori, aipatu genuen pasartetik ageri da (Ikus 1 Cor 15,14). Fedeak jakinarazten duen gertaera egiazkoa ez baldin bada, fede hori hutsa da, alferria, fauna, edukin sendo-trinkorik ez duenez gero. Kristoren Piztuera gertakari erreala ez baldin bada, fedeak ez du nondik-norakorik, ez buru eta ez hankarik.

(1) IKUS ALFARO, *Fides Spes Caritas*, 53 orr.

San Pauloren eskutitz pastoraletan espresuki aipatzen da *gordairua*, hots, fedearen bidez onartzen den gordairu doktrinala edo egien bilduma (1).

Geroztik, Elizak, herejien kontra hartu dituen erabakietan, gauza bat salbatu nahi izan du beti: Jainko-Semearen gizakundearen errealitatea. Gure salbamenaren egia misterio horren egiatik zintzilika bezala dago. Fedeak ez du esanahirik, baldin Jainkoaren Semea benetan eta egiaz gizon egin, hil eta berpiztu ez bada.

Fedea, gizon osoaren oparia

Hain zuzen, adimenezko baiezkoa ere eskatzen duelako, da fedea opari osoa, gizonak Jainkoari egiten diona (2).

Adimenezko alderdia fedetik kanpoan utzi nahi duten horiek gizonaren adimena Jainkoari zor zaion menpetasunetik libre utzi nahi dute. Jainkoak agertutako misterioak onartuz, gizonak ohore egiten dio Jainkoari eta Haren Jauntasuna aitortzen du.

Beste aldetik, kristau dotrina onartzeaz baita nahimena ere Jainkoaren menpean jartzen duzu, zeren dotrina horren eskakizun moralak handiak baitira.

Gainera, fedea onartzean, Jainkoagan eta ez neure arrazoian fido naizela erakusten dut. Horra fedean den fidantziatzko alderdia ere.

Beraz, Jainkoa ohoratu, Haren Jauntasuna aitortu eta bere burua Haren eskuetan utzi, Haren hitzean fido delarik: horra zer egiten duen fededunak.

Bestela balitz, zer ondorioak.

Auzi honetan diren oker-adituak

Adimenezko baiezkoa fedetik kentzen baldin bada, gure salbamena osatzen duten errealitateak oro ukatu behar dira. Fedea bera funditu eta hutseratu ohi da.

Fedezko egintza ezin izan daiteke xoilki fededunaren planta edo jarrerara sujetibo hutsa. Sinesten den errealitateaz nahi-eta-ez behar du lotura bat izan. Fedea da Jainkoari sinestea, baina zerbait agertu digun Jainkoari. Orain bada, Jainkoak agertu diguna hau da: Kristoren bidez salbatzen gaituela. Beraz, fedeak berekin dakar Jainkoak agertu duen hori onartzea. Eta onartu egin ohi da egia horri sineste ematen zaionean, hots, adimenezko baiezkoaz sostengatzen denean.

(1) Ikus 1 Tim 4,16; 2 Tim 2,2; Tit 2,7.

(2) DS 3008.

Behin eta berriz errepikatzen da fede *doktrinalean* ez dela erlijiozko baliorik bat ere. Eta izenlagun hori sentsu txarrean harturik, Eliza Katolikoaren fede-mota gaitzetsi nahi da.

Baina azpian oker-aditu bat ere bada hemen: Eliza Katolikoak ez du irakasten fedea hori xoilki dela. Hori ere bada fedea, baina fedearekiko kontuak ez dira horretan bukatzen.

Dogmarik ez baldin badu, fedea barne esperientzia huts-soila besterik ez da. Eta orduan Kristoren misterioari errealitatea eta sendotasun guztia ebatsi diozu. Gainera, horrela badira gauzak, nola har nezake kristautasuna Jainkoaganako bide bakartzat? Zinez, dogmarik gabeko kristautasunak bere burua ukatzen eta urkatzen du.

Jainkoaren graziak sortzen duen bizi berri hori supernaturala da, eta gizona bera ordenatzen du Jainkoa ikusterat, bere jomugara bezala. Orain bada, gizonak jomuga ezagutzen ez baldin badu, ezin zuzen ditzake horri buruz bere eginkariak. Horretarako beharrezkoak dira Agerkundera eta Fedea, hots, adimenezko baiezkua eskatzen duen fedea.

Eliza, fededunen batzarrea, funditua

Eta hemen bada oraino beste zerbait, guztiz notatzekoa dena: adimenezko alderdi honek baduela zer-ikusi eta lotura Elizarekin. Eliza, ordea, ezin izan daiteke fededunen batzarrea, fededun guztiek gauza bat eta bera sinesten ez baldin badute. Eta sinesten den hori sozialki adierazi behar da, gainera; hots, kontzeptu bidez. Agerkundearen edukina gizaki erara mamitutako egia batzuez osaturik ez baldin badago, Eliza ez da gehiago fededunen sozietate ageria. Horretarako noraezekoa da dotrina jakin bati sineste ematea.

Beraz, fededunen komunitaterik ez dago, baldin kerigma jakin bati adimenezko baiezkua ematen ez bazaio.

Laugarren Kapitula

FEDEZKO BAIEZTAPENAK ZERTAN OINARRITZEN DIRA? (1)

Fedean badela adimenezko sineste bat: hori ikusi dugu aurreko kapituluan. Fedezko eginkariak —aktoak, alegia— berekin duela zenbait egiari sineste ematea, egia horiek aitortzea, etab.

Orain, urrats bat gehiago eginez, galdetzen dugu: fedezko eginkarian egiten den baieztapena zertan oinarritzen ote da? Beste hitzez esanik: fededunak, fedezko aktoa egiterakoan, egia batzuei sineste ematen die. Zer arrazoi edo motibotan oinarriturik egiten ote du hori? Eskolastikoen hizkeran esateko, zein da sineste emate horren motibo formala?

Jainkoari buruz, Kristori buruz etab. fedean aitortzen diren egia horiek non edo zertan dute beren oinarri edo zimendua?

Tituluan adierazten den gaiak ematen dio, beraz, batasuna kapitulu osoari; gaia bera bere lerro nagusitan azaldu ondoren, ordea, kapituluaren bigarren partean zenbait puntu eztabaidatuak baina garrantzitsuak eta gaiarekin lotuak daudenak, labur aipatuko ditugu.

Dagoeneko bil dezagun honako perpaus honetan azaldu nahi dugunaren muina:

FEDEZKO BAIETZAK JAINKOAREN AITORRERA DU OINARRI

Perpaus honetan adierazitakoa ez da guti gorabeherako ustea, Bati-kano Lehenak definiturik daukan irakaspena baizik. DS 3008, 3032.

Definizio honen arabera, fedezko eginkari bat egon dadin noraezekoa da Jainkoak agertu dituen gauzak Jainko agertzaille horren berorren autoritateagatik sinetsiak izatea.

(1) Ikus ALFARO, *Fides Spes Caritas*, Cap. Secundum, p. 79.

Hermes eta Deisten aburuak

Batikano Lehenaren agiriatarik garbi ikusten da zein ziren Kontzilio hark begien aurrean zeuzkan kontrako aburuak. Lehenik, noski, Razionalisten pentsakera, eta gero, nahiz eta egilea katolikoa izan, Erdi-razionalista izenaz ezaguna den G. Hermes-en teologi eskola.

Garai hartako Deismoa du, bada, gogoan Kontzilioak. XVIII eta XIX. mendeetako filosofo deista horientzat fedea zer den badakigu: Jakintza bat arrazoiaren argi soilaz Jainkoari buruz lortua. Adimenak gauza horiek onartzen ditu beroien barne-agiritasuna azaltzen zaiolako. Beraz, jaun horien iduriko, Jakintzan edo Zientzian den bezalako konbentzimendua dago, azken batean, fedean ere. Frogantzetan edo gauzaren beraren nabarian oinarrituko litzateke fedezko baiezkkoa.

Hermes jauna ere ez dabil urruti pentsamolde horretatik. Bera katolikoa zen, noski, eta orduan halako konponketa bat egin nahi du. Jainkoaren lekukotasunean oinarritutako fedea ez du arbuiazen, baina, beste aldetik, edozein konbentzimendu Jainkoaren existentzi, tasun eta jokaeren alde fedea dela esaten du. Esate baterako, norbaitek arrazoizko argudioen bidez Jainkoa badela baldin badaki, jakitate hori fedea da Hermes-entzat. Baina Batikano Lehenak ez du hori onartzen. Izan ere, kristau fedea, fede teologala, zeharo beste zerbait da. Puntu hau garbi uztea axolarik handieneko gauzatzat jotzen dugu. Fedea egon dadin Jainkoaren autoritatea-gatik behar da sinetsi.

Fede eta Jakintzaren arteko bereizketa

Hementxe datza Jakintza eta Fedearen arteko bereizketa eta aldea. Jainkoaren autoritatean oinarriturik gauza bat baleztatzen duzunean, orduan duzu fedea. Zeure arrazoiaren frogantzetan oinarriturik baleztatzen duzunean, hori da jakintza. (Cf. DS 3008, 3032).

Hortaz, fede eta jakintzaren artean bereizketa garbia dago. Fedearen baiezkoak ez du bere oinarria gauzaren beraren ageritasunean, Jainkoaren autoritatean baizik. Ez dugu gauza aitortzen, hori hala dela arrazoiak adierazten digulako. Jainkoaren hitzean oinarriturik sinesten dugu. Jainkoaren lekukotasuna edo autoritatea da, beraz, baiezkoaren motiboa. Eta puntu hau definiturik dago.

Eskritura Sainduan hortaz ageri dena

Testamentu Zaharrean. — *Jainkoari sinetsi*: esanmolde hau maiz aurkitzen dugu Testamentu Zaharreko liburuetan. (Cf. Gen 15,16; Ex 14,31; Num 14,11, etab.).

Jainkoak profeten bidez herriari hitz egiten dionean, herriak Jainkoari sinesten dio (Ikus Is 43,1; Jon 3,1). Profeten hitzak Jainkoaren hitzak dira.

Profetek darabilten esanmoldeek ere hori adierazten dute: *Hala dio Jaunak, Entzun Jaunaren hitza...* Jainkoaren izenean mintzo dira profetak (hain zuzen ere, *profeta* hitzak hori esan nahi du).

Profetaren esana onartzen denean, Jainkoari berari ematen zaio sineste. Pentsamolde hau salatzen duten pasarteak kontaezinak dira Testamentu Zaharrean.

Testamentu Berrian.—Jainkoa profeten bidez gizonei mintzo zaie: Testamentu Zaharreko ekonomia honek Testamentu Berrian ere segitzen du. Hona hemen pasarte bat (beste askoren artean): “Hargatik guk ere Jainkoari baratu gabe diozkagu eskerrak bihurtzen, zeren gure ahotik onhetsi zindutenean Jainkoaren aiphameneko hitza, hartu zinduten hura, ez gizonen salasa bezala, bainan (hala ere baita egiazki) sinhetsi duzuenen baitan eragiten duen Jainkoaren hitza bezala” (1 Thes 2,13; Duvoisinen itzulpena).

Hitza hartzeari hori zer da Paulorentzat? Garbi dago: berriona hartzea, eta hartzea ez gizonaren hitza bezala, Jainkoaren beraren hitza bezala baizik. Kristauek Jainkoari sinesten diote, bada (Ikus Tit 3,8). Fededunak horixe dira, hots: Jainkoari sinesten diotenak.

San Joanen idazkietan bada zerbait berezirik eta fedezko aktoaren muinaz ohartzeko berebiziko axola duenik: lekukotasun edo testigantza-ren kontzeptua bera. San Joanentzat sinestea *testigantza onartzea* da (Jo 3,11). San Joanentzat Kristo Jainkoaren agertzaile dugu; eta fedea ez da besterik Jainkoaren lekukotasuna Kristoren bidez onartzea baizik. Beraz, sinestea eta testigantza onartzea, guztia da orobat (Ikus Jo 3,11.32; 8,14; 12,49).

Testamentu Zaharreko *Jainkoari sinestea*, orain Kristori sinestea bihurtu da (Ikus Jo 14,11; 10,37 etab.).

Baina azken finean *Jainkoari sinestea* da orain ere fedea, zeren Jainkoa baita Jesusen bidez mintzo zaiguna (Cf. Jo 5,24).

Tradizioan aurkitzen duguna

Mintzatu zaigun Jainkoagan oinarria ipintzea: horra zer den fedea Elizako Gurasoentzat. Rouet de Journal-en bilduma ikusi besterik ez dago, *Enchiridion Patristicum*, alegia(1).

Latinezko hiru esanmolde hauek “Credere Deum”, “Credere Deo”, “Credere in Deum”, Ertaroko teologiak barnatu ditu, fedezko eginkariaren

(1) ROUET DE JOURNAL, *Enchiridion Patristicum*, n. 162, 173, 175, 417, 1179 etc.

hiru alderdi edo ikusalde hortik atera nahirik. a) “Credere Deum” = Jainkoa badela sinestea: horra sineskaia, sinesten den objektua; b) “Credere Deo” = Jainkoari sinetsi: horra nori, zeini sineste ematen zaion fedean; c) “Credere in Deum” = Jainkoagan sinetsi: horra zer jomuga, helburu edo xede duen fedeak, hots, Jainkoa bera.

Labur, Ertaroko teologoen eritziz, Jainkoari sinesteak haxe esan nahi du: gizonak Jainkoa hartzen duela lekuko egiatia bezala, eta, beraz, fedezko eginkaria egiterakoan, Harengan oinarritzen dela.

“Fedea da... ikusten eztiraden gauzak erakusten dituen”, dio Hebertarren epistolak (Hebr 11,1). Testu honetarik okasio hartuz, Ertaroko teologoek bereizketa garbia egiten dute jakintza eta fedearen artean. Jakintzan arrazoiak bere argi soilaz gauzaren barneko egia ikusi ohi du. Fedea, aldiz, Jainkoak esan duenetik heldu da, Jainkoaren Agerkunde hori kanpotik, belarri bidez, hartzen dugularik. Beraz, Jainko-lekukotasunaren autoritatea du fedeak oinarritzat.

Arrazoiak berak frogatzen duena

Fedean badira sineskaia. Fedean sinesten diren gauza hauek, neurri handi batean behintzat, arrazoiaren argi soilaz inolaz ere ezagut ezin daitezkeen misterioak dira: Hirutasuna, Gizakundea, etab. Horien berri jakiterik ez dago Agerkundearen bidez izan ezik. Eta horiek badirela Agerkunde bidez jakin ondoren ere, beroien funtsa edo barnea ez zaio giza adimenari azaltzen. Beraz, Jainkoaren lekukotasunean oinarriturik ematen diegu sineste misterio horiei. Baita gizonaren helburu supernaturala ere Agerkundearen bidez ezagutzen dugu.

Egia da, bestalde, fedean onartzen diren gauzen artean badirela beste batzuk gizonaren argi soilaz jakin daitezkeenak. Baina jakin ahal izatea bat da, eta gertatzez jakitera heltzea beste bat. Dena den, horiei buruz jakintza egon daitekeela ez da ukatzen. Baina are horietan ere, fedea egon dadin, noraezeko da gauza horiek Jainko-hitzaren autoritateagatik onartzea (1).

* * *

Fedearen motibo formalaz erlazionaturik dauden hiru auzi aipatuko eta aztertuko dira Kapituluaren bigarren parte honetan. Monta handiko gai hau —hots, fedearen motibo formala— hobeki ulertzeko asko lagun dezakete. Berez gai eztabaidagarri eta eztabaidatuak dira, eta guk egitxurakoen den bidea hartuko dugu.

(1) Ikus DS 3005.

Hona hemen zein diren auziok: 1) ea Agerkunde aktiboa ere motibo formalean sartzen den, 2) ea Agerkundera bere muinean ere supernaturala ote den ala tankeran bakarrik, 3) Kristau fedean zer-nolako tokia duen Kristok.

1) *Agerkunde aktiboaren auzia*

Auzia zertan den. — Fedean Jainkoaren autoritateagatik sineste ematen dela esan dugu. Orain bada, zilegi da galdetzea: zer gauzek osatzen dute Jainkoaren autoritate hori? “Nik hori Jainkoak esan duelako sinesten dut”: horra fedezko aktoa bere hezur hutsean. Beraz, Jainkoaren autoritatea da motiboa. Baina Jainko-autoritate horren elementu osagarriak zein dira?

Jainkoaren autoritatea diogunean, guttinaz, Jainkoaren jakitatea eta egiatasuna sartu behar direla ez da dudarik. Baina teologo askok diote hori ez dela aski. Badela, alegia, beste elementu bat ere sartu beharrekoa, hots “*Revelatio activa*”, Agerkunde aktiboa. Auzi hau libreki eztabaidatua da teologo katolikoen artean, baina ez da garrantzi edo ondorio gabekoa.

Hemen, jakina, lehenbiziko gauza da terminologia horrekin zer esan nahi den ongi ulertzea. Agerkundera aktiboki hartua diogunean, hauxe da esan nahi duguna: *hitz egiten duena Jainkoa bera dela sinestea*. Nik gauza bat sinesten dudanean, gauza hura Jainkoak esan duelako sinesten dut. Hori hala baldin bada, badirudi hemen hiru gauza hauek sartzen direla: 1) Jainkoak dioela hura, 2) Jainkoa gauza horren jakile dela, 3) Jainkoa egiatia dela.

Lehen puntua ere fedezko eginkariaren motibo formalean sartzen dela ez dute denek onartzen, ordea —beste biak bai—. Baina askoz gehiago dira lehenbizikoa ere sartu behar dela diotenak, eta, zinez, arrazoia horien alde dela dirudi.

Errepika dezagun berriz ere arazoaren funtsa: *Jauna, nik hau sinesten dut, Zuk esana delako*. Perpaus kausal horretan azaltzen da sinestearen motibo formala. Beraz, Jainkoaren autoritateagatik ematen dut sineste. Autoritate horretan sartzen dira Jainkoa jakile dela eta egiatia dela. Baina teologo askok, eta, iduriz, onenek, uste dute ez dela hori aski. Jainkoak hori dioela ere motibo formalean sartu behar omen da.

Zer arrazoitzuk atera daitezke, bada, Agerkunde aktiboa fedezko eginkariaren motibo formalean sartzen dela esateko? Bi, batez ere (zehazkiago esanik, arrazoi bakar baten bi ikusalde edo saihests dira).

1) Fedezko eginkaria egitean gauza sinesten da, hain zuzen, gauza hura Jainkoak esana delako, eta ez bestegatik. Jainkoaren autoritateak xoilki mugi dezake gizona gauza hura onartzera. Jainkoak esan duela gau-

za hura: horrek du pisu guztia fedean. Hori hala baldin bada, ordea, badirudi Agerkunde aktiboa —Jainkoak hura esan duela— fedezko motibo formalean sartu beharra dagoela.

2) Jainkoak esana delako bihurtzen da sinesgarri gauza hura. Hortik segitzen da *Jainkoak esana* izate hori fedezko eginkariaren motibo formalean sartu behar dela. Beste hitzekin: Jainkoaren autoritatean Agerkunde aktiboa ere sartu behar da.

Jainkoa jakile eta egiatia dela ere bai, noski, baina Jainkoa mintzatzzen zaigula ere sartu behar da fedezko motibo formalean. Bere burua agertzen digun Jainkoagan oinarritzen delako, hain zuzen, da fedezko eginkaria den bezalakoa, hots, gizonak Jainkoari ematen dion erantzuna. Baina horretaz beherago mintzatuko gara xehekiago (1).

* * *

2) *Agerkundera supernaturalak ote da muinean ere,
ala tankeran bakarrik?*

Horra beste kuestio bat, neurri batean berria dena, eta oraintsura arte ongi ikertu gabe egon dena: Agerkundera alde guztiz, osoki eta atso-lutuki supernaturalak ote da, ala aski ote dugu nolabaiteko supernatural-tasun urria hari aitortzeaz?

Agerkundera zerbait supernatural edo izadiz goitiko dela, denek aitortzen dute. Baina supernatural horren barnean bi mota, maila edo eremu bereizten dute teologoei, hots: 1) “supernaturale quoad substantiam” (hau da supernatural huts-garbia edo erabatekoa), eta 2) “supernaturale quoad modum” (erari edo prozedurari begiratu xoilki supernatural dena, baina ez gainerakoan, hau da, ez funtsean edo muinean).

Kuestioa da bi horietarik zein supernaturaltasun-mota aitortu behar zaion Agerkunderari.

Auziaren gakoa, itxuren arabera, honetan dago:

Gizona Jainkoa ikustera deitua eta destinatua dela badakigu. Orain bada, helburu edo xede hori —Jainkoaren ikuspena— zeharo eta osoki supernaturalak da. Beste hitzez esanik, gizonari bere egitez eta izanez zor ez zaiona, naturaz goitiko; Jainkoak urririk, doan eta hutsean eman diguna.

Fedeak, berriz, ikuspen horrekin du zer-ikusi. Beste munduan ikusiko duguna hemen sinesten dugu.

Fedea Agerkunderari sineste ematea da. Eta sineste ematera bultzatzen gaituen motiboan —ikusi dugun bezala— Agerkundera bera ere sartu behar da, hots, “Revelatio activa” delakoa.

(1) Ikus X. Kapitulua.

Hortik dator, hain zuzen, oraingo galdera: Jainkoaren ikuspena supernatural huts-garbia den bezala, Agerkundera ere ez ote da era berean supernatural huts-garbia izango? Badirudi bai bata eta bai bestea ere maila berean jartzekoak direla.

Jainkoak bere buruaren agerkundera guri egitea, nolabait supernatural dela bistan da, baina hemen kuestioa da ea supernatural huts-xoil eta atsolutua den ala ez. Kuestio hau teologian berria dela esan genezake.

Teologo askoren mintzamoldeari bagagozkio, badirudi Agerkundera ez dela supernaturala "quoad substantiam", "quoad modum" baizik. Zeharkako supernaturaltasun bat aitortzen diote xoilki. Hau da: beste bide edo era batez jakin araz lirakeen gauzak, Jainkoak era supernatural horretara jakin arazi dizkigu: horretan bukatuko litzateke dena. Baina ez da hori bakarrik, itxuren arabera.

Jainkoak bere buruaren agerketa egin digu, testigantza erataraz, bere barrenaldeko misterioak azalduz eta horien partaide izatera gu gomitatuz. Orain bada, hori guztiori supernatural huts-garbia da; ez tankerari edo moduari begiratzetik bakarrik, muinari edo funtsari begiratzetik ere bai. Jainkoak Berari bakarrik dagozkion gauzak guri jakin araztea, eta bere-bere dituen dohainen partaide gu egitea, hori da naturaleza huts-soilaren maila gainditzen duen zerbait. Hemen ez da bidea bakarrik supernatural dena, gauzaren funtsa edo muina ere bai.

Teologi arrazoiketa

1) Fedea da ezagupen-mota bat pertsonaren mailatakoa. Pertsonak pertsonari bere barrenaldea nola adierazten dio? Hitzaren bidez. Hitzaren hartzailleak, besteagan fidaturik, hark diotenari sineste ematen dio eta era horretara hark duen jakitatearen partaide edo jabe egiten da. Eta, hain zuzen, hori egin du Jainkoak gurekin.

Gizonen artean ezaguera-mota hau arrunta da oso. Baina Jainkoak gurekin hori egitea, guztiz da izatez goitiko, hutsezko edo debaldeko zerbait, zeren Berari bakarrik dagokion ezagupena gugana zabaltzen baitu.

Eta gizona, Jainkoari sineste ematean, Jainkoak duen ezagupenaren jabe gertatzen da. Jainko-ezagueraren partaide egiten gaitu fedeak. Jainkoaren egia bilakatzen da ene egiaren zimendu eta oinarri, eta hori kreature ororen mailaz gainetik dago. Beraz, Agerkundera eta fedea, Jainkoa ikustea bezala, guztiz dira kreaziozko mailatik gora diren gauzak.

2) Agerkundera eta fedean Jainko eta gizonak topo egiten dute elkarrekin. Norbere pertsonaren elkarri emate honek egoera berri bati hasiera ematen dio. Jainko eta gizonaren artean erlazio eta egoera berria hasten da, alegia. Jainkoaren grazia huts-soilean du sorrera egoera be-

rri honek, eta Jainkoaren ikuspena du azken helburutzat. Hori guztiori, ordea, supernatural huts-garbia da.

3) Hitza da pertsonak beste pertsona bati bere barrenaldea adierazteko duen bidea. Pertsonak bakarrik du dohain hau. Pertsonaren barrenaldea ezagutzeko ez dago beste biderik. Pertsonak hitz eginez eman diezaioke beste pertsona bati bere buruaren berri, ez bestela. Eta testigantza-gisako hizketan pertsonak bere egitasuna bakar-bakarrik jartzen du berme bezala, beste pertsonak berari sinets diezaion.

Agerkundean Jainkoa da bere buruaren berri gizonari ematen diona. Jainkoak gizonari hori egitea, ordea, supernatural huts-garbia dela ageri-agerian dago.

Jainkoak bere hitzaren bidez bere buruaren berri eman digu. Agerkundeari esker, gizonak Jainkoa ezagutzen du ez kanpotik, barnetik baizik. Beraz, Agerkundeaz erlazio pertsonala sortzen da. Kreatura bati era horretara Jainkoak bere burua agertzea, ordea, guztiz da onginahi hutszeko edo debaldeko zerbait.

Jainkoa, bere hitza guri zuzenduz, hurbildu egin zaigu, adiskide-gisa bidera irten zaigu. Agerkundearen bidez adiskidantzazko erlazio edo egoera berria sortu da Jainko eta gizonaren artean. *Jainkoa gurekin*: horra Agerkundeak berekin dakarren albiste. Jainkoak bere hitzean bere burua guri agertu eta eman digu, eta guri ere eskatzen digu fedean geure burua Berari eman diezaiogun. Beraz, Agerkundeak adiskidantzazko lokarria adierazten du Jainko eta gizonaren artean, naturaz goitiko lokarri bat...

Konfirmazio gisa

Jainkoa ikustea naturalki Kristori xoilki dagokio (Jo 1,18). Izan ere, kreatura, ikuste horren bidez, Jainkoari bakarrik dagokion ezagupenaren partaide bihurtzen da. Horregatik, Jainkoa ikustea supernatural huts-soila dela diote teologoek. Orain bada, Agerkunde eta Fedearen bidez halako hasiera edo partaidetasun bat ematen zaigu ezagupen horretan, zeren ikuspena eta fedea maila berean baitaude. Alde edo diferentzi batekin, haatik: bata hasiera eta bestea bukaera dela. Beraz, badirudi oso-osoko supernaturaltasuna aitortu behar zaiola Agerkundeari ere.

Korapiloa eta beronen askabidea

Halako objezio edo eragozpen bat atera daiteke dotrina honen kontra, Batikano Lehenak irakatsi zuenetik: gizonak, alegia, gaurko egoeran, Jainkoari buruz, are arrazoiaren argi soilaz jakin daitezkeen gauzak ja-

kiteko ere, moralki beharrezko duela Agerkundera, behintzat gauza horiek erraxki, neke gabe eta segurtapenez ezagutzeko (DS 3005).

Baina hortik sortzen den korapiloa ez da askatzen zaila. Gizonaren gaurko egoeraz mintzo da Kontzilioa eta Jainkoari buruz gizonak naturalki izan dezakeen ezagupenaz. Gaur gizonak duen ahuleziagatik, moral-ki beharrezko gertatzen zaio gauza horien gainean argia Agerkunde-bidez hartzea.

Agerkunderak, ordea, gauza horietaz landara, beste eremu bateko ja-ingarriak jakin arazten dizkio gizonari, ezaguera naturalaz inolaz ere ezin ezagut daitezkeenak; eta esparru honetako misterioak dira, hain zu-zen, gizonaren bizitze supernaturala osatzen dutenak. Hortaz gainera, Jainkoak Agerkunde bidez gure ahuleziari erremedio eman baldin badio, hori izan da bestela ere ekonomia supernatural bat gurekin jarri nahi izan duelako. Gainerakoan, beste bide batez ere eman ziezaiokeen erre-medio ahulezia horri.

Labur: Jainkoa ikustea bezala, Agerkundera ere bere egitez eta iza-nez zeharo eta atsolutuki supernaturala dela, esan behar.

* * *

3) *Kristoren tokia fedean*

Fedezko eginkariaren oinarri edo motibo formala hobeki mugatu na-hiz, ikus dezagun zein den Kristoren zeregina edo tokia gure fedean. Ea Kristoren lekukotasuna fedearen motibo formal horretan sartu behar den. Pertsona jainkozko baten lekukotasun gizatiarra, noski.

Gure erantzuna auzi honi haxe da: fedean ematen den baiezkoa Jainkoagan oinarritzen da, segur. Kristoren bitartez bere burua agertu di-gun Jainkoagan, alegia. Kristauak Kristori sinesten dio, eta, Kristo dela medio, azken finean, Jainkoari berari sinesten dio. Kristo dugu, beraz, geure fedearen Arartekoa.

Kristau fedea Kristorekin topo eginez sortzen da

Kristau fedeak badu alderdi bat edo berezitasun bat ezin utzizkoa: Jesukristorekin topo egitetik sortzen dela, alegia.

Jesukristo diogunean zera esan nahi dugu, hots: Nazareteko Jesus hura, behiala Kondairan zehar iragan zen Hura Bera. Harekin topo egi-tean gertatzen da fedea. Tomasek, federako irabazia izan zenean, hara zer esan zuen: *Ene Jaun eta Jainkoa!* (Jo 20,28). Paulok, berriz, fede-aitorpen hau utzi digu: *Jauna da Jesus* (1 Cor 12,3). *Jesusen fedea; Ha-*

ren izeneko fedea; Zintzokuntza Jesukristoren fedeagatik..., honelako eta antzeko esaldiak erruz datoz Testamentu Berrian.

Kristorekin topo egite bat dela fedea esan dugu. Kristoren pertsonarekin —zeinen amodioak dei egiten baitit— topaketa egitea. Beherago ikusiko dugu nola edo zer bidez gertatzen den komunzki topaketa hau (1).

Kristo, Jainkoaren berri ekarlea
Kristori sinetsi=Jainkoari sinetsi
Fedea San Joanen ebanjelioan

Fedezko eginkaria —hots, aktoa— Jainkoari sinestea bezala deskribatzen da maiz, bai Testamentu Zaharrean eta bai Berrian ere. Eta hain zuzen, San Joanen ebanjelioan beste esanmolde hau: Kristori sinestea, usu dator. Hau da: sinetsi aditzak Kristo du osagarritzat, datibo kasuan jarria. (Ikus pasarte batzuk: Jo 4,31; 5,38; 5,46; 6,30; 8,31; 8,45 etab.).

Beraz, zer da San Joanentzat fedezko aktoa? Kristori sineste ematea. Kristo da Jainkoaren berri ekarlea. Kristori sinestea eta Jainkoari sinestea guztia da orobat.

Kristo da Jainkoaren hitza, betidanik Aitaren galtzarrean dena eta egun batez haragitu zena. Jainkoarekin bat dena. Guretzat ikusezina den Jainkoa jakinarazi eta azaldu diguna. San Joanen ebanjelioari ideia hau izkina guztietarik dario, Hitzaurretik hasirik (Ikus Jo 1,18).

Kristo, Aitaren Seme bakarra izanik, Aita horren ikusle da eta Harekiko berriak geuri kontatu dizkigu. Aitaren ikuspena Seme bakarrari xoilki dagokio; Semeak, ordea, ikusten duena azaldu digu. Beraz, Jainkoaren adierazle izatea da Kristoren ofizioa. Hitzaren Gizakundeak berekin bezala dakar funtzio edo zeregin hau.

Ikus, adibidez, Jo 17 oso-osoa. Ebanjelioaren hitzaurrean esan dena, epilogo bezala den kapitulu honetan errepikatzen da.

Kristo da Aitaren agertzailea. Jesusen dotrina ez da Jesusena, Jesus bidali duenarena baizik. Kristok ez du besterik irakasten, Aita baitan ikusi eta entzun duena baizik. Etab.

Jesus testigu da, lekuiko. Aitarengan ikusi eta entzun duenaren aitor emale. Non edo zertan datzan aitor honen balioa, esan beharrik ez dago: Jesusek Jainkoari buruz duen ezagupenean, Jainkoarekin duen batasunean eta Aitaren mandatari izatean.

Aise ulertzen da, beraz, San Joanentzat fedezko aktoa zera izatea: Kristori sineste eman (Cf. Jo 5,37; 8,40).

San Joanek batzutan esango du *Kristogan sinetsi*, beste batzutan *Kristori sinetsi*. Nolanahi den, Kristori sinetsi eta Jainkoari sinetsi, guztia da orobat, Kristo Jainkoaren mandataria eta Jainkoaren Semea denez.

(1) Ikus TRÜTSCH, "Explicación teológica de la fe", in *Mysterium Salutis* I, 931.

San Joanez ez du sekula esaten Kristok sinestea duela. Kristok ikusi egiten du, entzun zuzenki Jainkoagandik. Gizonek, berriz, Kristori sine-tsiz, Aitarene ezagupen hori Kristorene eskutik hartzen dute. Kristori sinestea zera da: Jainkoari Kristo dela medio sinestea, eta horixe da, hain zuzen, fedea San Joanentzat. Jainkoaren Seme gizon eginaren aitorreran oinarritzen da gure fedea.

Hauxe da San Joanen pentsakera.

Mintzamolde honek teologia bat du golkoan, bistan da. Jesusengan jainkozko pertsona bat dago, Trinitatearen bigarren pertsona, Jainkoarekin izate berekoa dena, Aitagandik sortua. Aitarene Seme hori gizon egin zen. Jesusen gizatasuna Berboaren pertsonan bizi da. Bi izate edo naturaleza, baina pertsona bakarra dago Kristorengan —Berboaren pertsona, alegia—.

Gizakundea zera da: Trinitate barnean gertatzen den sorketaren hedamena bezala.

Jainkoaren Seme gizon egin bizitze supernaturalaren iturburu gertatzen da gizon guztiontzat. Aitak bere Seme gizon eginari eman diona gizadi osoari zabaltzen zaio.

“Unio hypostatica” deritza Kristo baitan Jainkoaren eta gizonaren artean gertatzen den batasun harrigarri horri. Kristo zinez eta egiazki gizona da, noski, baina Haren giza egoera eta gurea ez dira alde guztiz berdinak, Haren gizatasunak jainkozko Persona batean dirauenez gero.

Kristorene gizatasunak Hitzaren —hots, Berboaren— Persona ikusten du. Kristok badaki, beraz, Bera zein den. Eta Pertsona hori dela medio, Kristok Aita Jainkoa atzeman ohi du. Kristorene gizatasunari Jainkoaren ikuspena dagokio, bada.

Jainkoaren ikuspena Kristori bakarrik dagokionarren, Kristorene bidez besteoi ere zabaltzen zaigu. Kristok Aita Jainkoa gizonoi adierazi digu. Era berean, bere buruaren berri ere eman digu.

Hori guztiori egiteko mintzairaz baliatu da, hots, hizkeraz, eta dakigun bezala, giza hizkerak kontzeptuak erabiltzen ditu.

Horregatik, Kristok duen ezagupena guri pasa arazteko, beharrezkoa zen “scientia infusa” delakoa, kontzeptu gabeko ezagupen hura kontzeptuetara aldatzeko. Labur: Kristok bere buruaren misterioa eta Aita Jainkoa, bi-biak, agertu dizkigu.

Azken finean, Hitzaren Gizakundea izan da hori guztiori egiteko bide eta zubi. Kristorene lekukotasuna hizkeraren bidez egin zaigu. Jainkoak Kristorene gizatasuna hartu du tresna bezala.

Tresnaren lana egile printzipalari leporatu edo egotzi ohi zaio. Kristok gizon den aldetik egiten duen aitorra ere Berboaren jainkozko pertsonari egotzi behar zaio. Eta guk aitoren horri jainkozko fedez sineste ematen diogu.

Kristori ez zaio behar den bezalako sineste ematen Jainko bezala sinesten ez baldin bazaio. Kristo gizonaren aitorra egiazki Jainko-Semearen aitorra da, eta fedean halakotzat hartu behar da.

Jainkoaren Semea gizon egin zenez gero, Kristori sinestea eta Jainkoari sinestea gauza bat eta bera da. Jainkoa Kristoren bidez gizatiar modura mintzatu zaigu.

Eta era horretara, Jainkoaren Semeak, gizona dela medio, fedea jarri eta sortu du.

Gogoangarri da San Joanek dioena: "Jainkoa ez du nehork sekulan ikusi. Jainkoaren Seme Bakarrek, Aitaren galtzarrean bizi denak, kontatu digu" (Jo 1,18).

Kristori sinestea jainkozko Pertsona bati sinestea da, azken finean. Beraz, Kristoren aitorra fedearen motibo formalean sartu behar da.

Kristorengan elkarrekin topo egiten dute bai Jainkoak eta bai gizonak. Eta elkar topaketa hori Jainko eta gizonaren artean, fedean ere gertatzen da.

Boskarren Kapitula

FEDEAREN ZENTRUA EDO MUINA (1)

Fedearen edukinari begiratzen baldin badiogu, badirudi, lehen kolpean, ez duela batasunik. Bada, alegia, sineskai multzo bat. Sineskai horiek guztiak Jainkoak agertuak dira; hori dela eta, sinestu beharrekoak dira, noski, baina, gainerakoan sineskai guzti horien artean bere baitako batasunik edo hierarkiarik ote den, ez da garbi ikusten. Ez da beti ikusi izan, behintzat. Eta batasun horri ohartzen ez zaionean, fedea bera kaskartua eta mendratua gelditzen da. Horregatik, aztergai honek badu bere garrantzia.

Azaldu nahi dugunaren funtsa honako perpaus honetan adieraz dezakegu:

GURE OSASUNAREN MISTERIOA DA FEDEAREN MUINA.
ETA MISTERIO HORI JAINKOAK KRISTOREN BIDEZ OBRATU DU

Gainbegiratu bat Testamentu Zahar eta Berriari

Jainkoaren Agerkundera Historian zehar gertatu da. Agerkundera honek, ordea, badu xede bat eta helburu bat. Guk orain nahi dugu jakin zein den Agerkundera horren zentrua, ardatza, hots, Agerkunderari batasuna ematen dion gunea.

Hori jakiteko, noski, gainbegiratu bat egin beharra dago, bai Testamentu Zaharrari eta bai Berriari.

Testamentu Zaharreko Agerkunderaren zentrua. — Testamentu Zaharreko historiaren muina honako honetan datza: Jainkoak Elkartasun edo Akordio bat egiten du Israelgo herriarekin: Jainkoak herri hori hautatu

(1) Ikus ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 124.

eta salbatzen du (Ikus Gn 9,9; Ex 6,5; Ex 24). Elkarte da Jainkoaren eta herriaren arteko lokarria. Jainkoak berak ezarri du Elkarte, ez gizonak. Jainkoak hautatu du herria. Jainkoak eskaintzen dio herriari bere babes salbagarria; herriak, aldiz, obediencia eta leialtasuna zor dizkio Jainkoari. Jainkoaren jarrera herriaren alderakotzat Errukiaz eta Leialtasunaz da osatua (esan nahi baita, emandako hitza gordetzen leial egon).

Profeten idazkietan beste Elkarte bat, berria eta betirakoa agintzen da (Ikus Jer 31,31). Elkarte berri hori Mesiasen bitartez jarriko da. Elkarte salbagarria izango da. Gainera, salbazio hau guztientzat izango da, ez herri batentzat xoilki (Ikus Is 60,1ss; 65,1ss; 66,19ss).

Testamentu Berriko Agerkundearen zentrua.—Ebanjelio Sinoptikoek deskribatzen digute Jesusen etorrera agindutako osasun edo salbazioaren konplimendua bezala. Eta Jesusek bere predikuetan hots egiten duen erresumak gizonaren osasun edo salbazioaz du zer-ikusi. Are gehiago: Jesussek esango digu horretarako etorria dela Bera, hots: gizonen salbazioa egiteko (Mk 2,16; Lk 19,10).

Apostoluen predikazioa ere bi puntu hauetan biltzen dela esan genezake: 1) Kristoren piztuera hots egin, 2) Gizonaren salbazioa Kristoren bidez lortzen dela erakutsi (Ikus Apostoluen Eginetan datozen hitzaldi-laburpenak).

San Paulok, jakina denez, bere epistoletan puntu hauek sakondu eta barnatu ditu. Jainkoak —dio berak; ikus Ephes 3,9-11; Col 1,26-28— mendeetan barna izkutuan eduki du bere *misterioa* eta orain, azken egunotan desestali digu. Eta zer da San Paulorentzat delako *misterio* hori? Jainkoak gizona salbatzeko duen asmo edo burubidea. Kristo hil eta berpiztuaren bidez obratu du Jainkoak salbazio hori. Asmo hau lehen guretzat gordeaz. Orain, berriz, agertua, eta baita gertatua eta burutua ere.

San Joanek bere erara, baina muinean gauza bera esango digu, hots; Jesus dela Jainko Aitaren Semea; eta Jainko Aitak bere Semea bidali digula, gizonei bizitze eternala emateko (Cf. Jo 17,2).

Hortaz, kontu hau garbi dago: Biblia guztiari batasuna ematen dion zentrua hauxe da: Jainkoak Kristoren bidez egiten eta eskaintzen digula salbamena.

Elizako Gurasoen lekukotasuna

Elizako Gurasoek beren idazkietan beti azpimarratu dute Eskritura Sainduaren batasuna. Horien ustez Kristo da batasun honen gakoa. Testamentu Zaharra ez da ongi ulertzen bere konplimendua den Kristo go-goan eduki gabe. Testamentu Zaharraren esanahi barrenkorra Kristo da, dio San Jeronimok (1). Eta San Agustinek: Eskrituren misterio guztia ho-

(1) PL 24,20. "Tractatus De Ps 1".

netan biltzen da: Kristogan eta Elizan(1). Testamentu Zaharra estalki bezalako batez estalia dago, eta estalki hori Kristoren heriotzeak altxatu du(2).

Ertaroko teologiak

Gauza bera ikusten dugu Ertaroko teologian. San Buenaventurak esango digu, alegia, Kristo dela Eskritura guztiaren muina(3). San Tomasek ere berezkuntza argia egingo du Agerkundeko egien artean, denak ez daudela maila berean esanez. San Tomasen aburuz, bada, egia batzuk agertuak izan dira berenez duten pisu eta garrantziagatik, azken xede eta helburu direlako, alegia. Beste batzuk, berriz, horiek hobeki azaltzea-gatik. Jainkoaren Trinitatea, Enkarnazioko misterioa etab. izango lirateke fedearen muina. Gainerakoak, berriz, muin horren zerbitzutan daude(4).

Geroago, ordea, azken mendeotako teologian, dotrina hau pixka bat ahanztzia izan da. Agerkundeko egia guztiak maila berean baleude bezala azaldu izan dira. Baina orduan, jakina, Agerkundearen batasuna ez da behar bezala nabaitzen.

Eliz Irakasgoaren irakaspena

Elizaren Irakasgoak bere erara, baina aski garbi, adierazi du behin eta berriz kristau fedean badela zentru bat edo muin bat. Muin hori honako hau da: gizonaren salbamendua Jainkoak Jesukristoren bidez obratu duela, gizona xede supernatural batera deitua dagoela, Kristo dela bi Testamentuen ardatza edo gakoa, etab.(5).

Teologi kalifikapena

Delako perpausean dioguna zuzenki ez dago definiturik. Teologi arrazoiketa bidez frogatu daiteke, ordea.

Frogantza

a) Gauza Jainkoaren aldetik hartuz, hau aski garbi ageri da, zeren Jainkoaren Agerkundera, den guztia, honetara baitoa: Jainkoak gizonarekiko dituen asmo eta burubideak gizonari ezagut araztera, eta orobat gizonak Jainkoarekin nolako portaera izan behar duen erakustera. Orain

(1) PL 36, 1091.

(2) PL 35, 1459ss.

(3) Coll. in Hexaem. coll. 3, n. 11.

(4) II-II, q. 1, a. 6 ad 1.

(5) Ikus, esate baterako, Trentoko Kontzilioa DS 1526, Batikano Lehena DS 3005, etab.

bada, Jainkoarekiko gure har-emanak ekonomia supernatural bati dagozkionak dira. Eta ekonomia hori misterioez osatua dago: Trinitatea, Kristo Jainko-Seme gizon egina, gizonaren bokazioa Jainkoa ikustera. Azken finean, Kristoren misterioan biltzen dira horiek guztiak: hauxe da, beraz, Agerkundearen zentrua.

b) Auzia fededunaren aldetik ikusiz, gauza bera egiaztatzen da. Fedeak badu ezagupenezko alderdi bat. Fedea dela medio, gizona helburu edo xede supernatural bati buruz abiatzen da. Badaki xede hori zein den, hots, Jainkoa; badaki halaber bidea: Kristo; badaki xede horretara deitua dela. Eta azken finean horiek guztiak Kristorengan biltzen dira.

Kristo gizona izanik, bokazio supernatural hori Barerengan gauzatu da. Eta Kristo ez da *bide* bakarrik, *xedea* ere bada, azken muga, alegia, zeren Beraren bidez ematen baitzaigu Jainkoa. Beraz, gure salbazioaren misterioa, Jainkoak Kristoren bidez burutu duena: horra fedearen misterio printzipala.

Eztabaidak egon izan dira: ea fedea teozentrikoa ala kristozentrikoa den. Berdin onart daiteke eritzi bata zein bestea. Bien artean ez da oposaketarik, ezen Kristo da Jainkoaren agertzailea.

* * *

Kapitulu honen bigarren partean, aurrekoan frogatu denetik ateratzen diren zenbait ondorio ukitzen dira.

1) *Agerkunde eta Fedearen azken esanahia*

Azterketa honen axola.—Agerkunde eta Fedearen objektu printzipala zein den jakiteak asko laguntzen du beroien ulergarritasuna edo azken esanahia argitan jartzeko. Izan ere, hortik Jainkoaren asmoa bera ageri zaigu.

Jainkoaren asmoa da Jainkoari berari dagozkion bizitze eta zoriona guri gizonoi hedaraztea. Jainkoak, onginahi hutsez, nahi izan dio gizonari bere buruaren emaitza egin, eta ordainez guk geurearena Berari egitea eskatzen digu.

Bere buruaren emaitza hau ez du Jainkoak gu zerura joan arteino luzatzen. Adiskidantzak lurgain honetako bizialdian bertan du bere atari edo hasiera.

Orain bada, Jainkoak burubide eta nahi hori baldin bazuen, guri jakin arazi beharra zeukan. Bestela gizona, asmo horren berririk ez bada-ki, ezin has daiteke Jainkoarekin adiskide-gisako har-emanak izaten. Jainkoaren asmo hau misterio bat da, Agerkundearen bidez agertu ezik, ezin ezagut daitekeena.

Fedea ez da, bada, guk uler ezin ditzakegun gauzak Jainkoak guri kapritxo proposatzea, guk burua makurtu eta onartu beste biderik izan ez dezagun. Horrelako esplikazioak fedeari buruz eman izan dira inoiz, baina ez dira bat ere egokiak, hots, egiari adostuak. Ez. Jainkoak agertu digun guztia gurekiko duen adiskide-gogo edo asmo horretatik argitzen da. Jainkoak guri fedea eskatzen baldin badigu, hori da, noski, fedearen bidez izan ezik, guk Jainkoaren amodio hori jakiterik ez dugulako, ez eta Jainkoarekin har-emanetan sartzerik ere.

2) *Agerkundearen edukinak adierazten duena*

Agerkundearen edukinari kasu ematen badiogu, gauza bera dakusgu. Berboaren Enkarnazioak —Gizakundeak— gizonaren salbamena du xede edo helmuga. Kristo bizitze supernaturalaren iturri bihurtzen da giza-diarentzat. Jainko Aitak Kristo baitan eta Kristoren bitartez adiskide bezala hartzen gaitu.

Hirutasuneko misterioaren berri eman baldin bazaigu, hori ez da gure salbaziorako duen esanahiagatik bestegatik izan. Gure Salbatzaile izan dadin bidali du Aitak bere Semea mundura. Trinitatearen berri zerbait jakin gabe egia hori ez da ulergarri.

Jainkoaren Seme gizon eginak bere jainkozko semetasuna agertu digu. Baina agerpen hori ere gu salbatzeko duen zeregina adierazteko beharrezkoa zen. Eta berdin Izpiritu Saindua ere: Kristoren obra salbagarriaz duen zer-ikusiaगतिक azaldu zaigu.

Beste aldetik, Trinitatea da Jainkoak duen gauzarik barrenkorrena, Jainkoaren etxe barneko sekeretua, Agerkundearen bidez izan ezik inolaz ere ezin jakin daitekeena. Jainkoak, ordea, libreki, onginahi hutsez jakin arazi digu etxe-barneko bere sekeretu hau, adiskideak bere adiskideari barneko izkutuak agertzen dizkion bezala. Barnea besteri zabaltzea nork bere burua ematea bezala da. Personek barneko sekeretuak elkarri esaten dizkiote edo adiskide direlako edo adiskidantza-lokarriz elkar lotzeko asmoz. Eta hau da Jainkoaren kasua gurekiko.

Jainkoak Trinitate-misterioa agertu badigu, hori izan da, bada, gurekin adiskide-lokarriak jartzeagatik. Horretarako, ordea, gu hain maila eta eite desberdinekoak izanik, Jainkoari berari zegokion aurrea hartzea. Eta hala egin ere du, gizona nolazpait jainkoztatuz eta naturalezaz goragoko xedera destinatuz.

Beraz, lotura handia nabari da hiru misterio hauen artean: Jainko Bakar eta Hirukoitza, Kristo, Eliza. Eta horiek osatzen dute fedearen objektu printzipala. Hiruon erroan gauza bera aurkitzen dugu: Jainkoaren onginahizko amodioa gizonen alderakotzat. Eta esanahi berbera darie hiruei: Jainkoak nahi duela gurekin adiskide har-emanetan sartu, gu salbatu, gu bere ondasunen partaide egin.

3) *Agerkundera eta Fedea eremu supernaturalako izakiak dira*

Badirudi, bada, Agerkunderak eta Fedeak naturalezaz goitiko ekonomia batean xoilki dutela beren lekua. Bere izanez eta egitez Jainkoarekin adiskide-gisako har-emanak suposatzen dituzte.

Beste aldetik, ordea, eskas airea duen zerbait nabari da bai batean eta bai bestean. Agerkunderak Jainkoa agertzen du, baina bai estaltzen ere —lekukotasun baten ilunpean estaltzen, alegia—. Fedeak ez digu Jainkoa bekoz-beko erakusten, Beronen hitzean adierazten baizik. Guzti honek esan nahi du egoera hau ez dela helmuga. Bide bat dela, alegia, azken xedera buruz.

Agerkundera da, Jainkoaren aldetik, Honek onginahi hutsez guri bere bizitzea ematea, bere buruaren emaitza guri egitea. Emaitza horrek amodioa beste esplikaziorik ez du. Orain Agerkunderaren bidez erdizka, eta gero Ikuspenaren bidez osoki, Jainkoa agertzen eta ematen zaigu.

Fedea, berriz, gizonaren aldetik, zera da: Jainkozko bizitzean parte hartzen hastea. Baina haste honek hazkundera eskatzen du, haziak landarea eta fruitua eskatzen duen bezalaxe. Fedeak, alegia, eskatzen du gizonak bere burua Jainkoari eman diezaion, Agerkunderan Hark berea eman digun bezala. Gizonaren erantzun hau, ordea, ozta-ozta da posible amodio supernaturalak eragiten ez bagaitu.

Seigarren Kapitula

ASKATASUNA ETA ZIURTASUNA FEDEAN

Askatasuna eta Ziurtasuna: horra fedezko eginkariari dagozkion bi dohain edo bereizgarri. Lehen kolpean badirudi elkarren aurkakoak direla bi dohainok. Bata ezin dagokeela zutik, alegia, bestea aldamenean dularik. Haatik, kristau fedeak, bere buruaz mintzo denean, bi-biak aitortzen ditu. Biak beharko ditugu, bada, baieztatu, eta gero bata bestez nola elkarlotzen diren aztertu.

Axolarik handineko puntua da berau fedearen ulerpide zuzenerako. Esateko guztia hiru artikulutan banatua azaltzen dugu.

1 ARTIKULUA

ASKATASUNA FEDEAN (1)

Orain arte azaldu direnetarik zera segitzen da, alegia: fedeak badue-la ezagupenaz zer-ikus. Fedeak berekin dakarrela adimenezko baiezkoa, Jainkoaren esanean oinarritua. Orain, ordea, baiezko honen sorrera nola gertatzen den aztertu beharra dago: ea adimen soilaren prozesua dela medio, ala nahimenaren eraginez gertatzen den. Beste hitzez esanik: ea baiezko hori libreki jartzen ote duen gizonak.

Gauza jakina da azken Kontzilioak (Ikus "Dignitatis humanae" gutuna) erlijio-askatasuna aitortu zuela. Baina oraingo aztergaiak zer-ikusi guti du horrekin. Gizonari ez zaiola kanpotik bortxa egin behar fedearen onart dezan: hori da Kontzilioak gutun horretan irakatsi duena, eta zinez, irakaspen hori kristau fedearen iturrietan arras garbi dago (2). Oraingo gure ikerketa ez da hori, ordea. Guk galdetzen duguna beste zerbait

(1) IKUS ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 163.

(2) Erlijio-askatasuna ikus beherago 21. Kapituluan.

da: ea adimenduak, fedezko baiezkoa ematen duenean, derrigorrez ala libreki ematen ote duen. Barneko ezinbestez ari gara, ez konpokoaz. E-donork daki zientziaren esparruko baiezkoak derrigorrez eta noraezean emanak direla. Adimenduak, alegia, ez duela askatasunik baiezko horiek errefusatzeko. Baiezko horiek ez dira libreki emanak, beraz.

Horietakoa ote da, orduan, fedezko eginkarian ematen den baiezkoa? Ez. Ez da eite horretakoa.

Esan nahi duguna, hara honako perpausean bildua:

FEDEZKO EGINKARIA LIBREA DA.

Eliz Irakasgoaren irakaspena

Trentoko Kontzilioak eta batez ere Batikano Lehenak puntu hau irakatsia eta erabakia dute (1). Gizonak libreki egiten duela fedean egiten duen baiezkoa, bere baiezko horren jabe dela, alegia, graziari errefusa eman diezaiokeela, eta, beraz, Jainkoaren aurrean baduela gizonak erantzukizunik kontu honetan: horra Elizak irakatsi duena.

Baita bekatu larritan denak ere eduki dezake fedea (2).

Teologi kalifikapena

Beraz, perpaus nagusi horretan esan dena fedezko dogmatzat hartu behar da eta Eliz Irakasgo gorenak definiturik dauka.

Haatik, mugapen hau ere egin behar da, hots: Kontzilioak arruntki gertatzen denaz mintzatu direla. Salbuespenak egon daitezke. Sineste-egintza batzuk baitezpadako argumentuen ondoren emanak izan diren ala ez, kuestio hori ez dute ukitu nahi izan. Sinesgarritasun-seinaleek inoiz adimena behartzeko moduko indarra izan dezaketela, ez da bazter-tzen. Bakarrik haxe esan nahi da: fedearen baiezkoa ez dela seinaleen derrigorrezko indarraz kausatua. Arruntki behintzat.

G. Hermes-en aburuak

Batikano Lehenaren erabakiak zuzen-zuzenean G. Hermes-en (1775-1831) aburuen kontra hartuak izan ziren. Aurreko Kapituluetan mintzatu ginen jaun honi buruz. Beraz, hemen haxe bakarrik esango dugu: arrazoiaren aurrean zuritu edo justifikatu nahirik, Hermesek fedea jakin-

(1) Ikus DS 1525-1526, 1554, 3010, 3035.

(2) Ikus DS 1544, 1578, 3010.

tza bihurtu digu. Arrazoizko nabarbentzia edo ebidentzia hertsia baten indarrez nahi du erlijioa izpirituari inposa dakion. Baina kristau fedea Hermesek irudikatzen duen bezalakoa balitz, ez litzateke librea izango. Sinesteko ez litzateke graziaren beharrik izango, etab. Beraz, fedeari buruz Hermesek duen teoria edo sistema ez dator bat fedeak berak dioenaz.

Eskritura Sainduan ageri dena

Fedea gizonaren egintza librea dela: hori inplizitoki era askotara ematen da aditzera Eskritura Sainduan. Adibidez, han fedea gizonaren obedipen bat bezala azaltzen da. Obedipen horrengatik gizonak saria irabazten du. Sinesgogortasuna, berriz, errebolta bat bezala azaltzen da; beraz, zigorra merezi duen bekatu bat bezala.

Genesi liburutik hasi eta Eskriturako azken liburutaino deskribatzen zaigun fedea ez da besterik haxe baizik: gizonak Jainkoaren hitz salbagarriari ematen dion erantzun librea.

Hona hemen adibide bat edo beste: Abraham patriarkaren fedea go-raipatzen da sarigarri bezala: libreki eginga izan delako, noski (Gn 15,6). Gero San Paulok espresuki eta izendatuki aipatuko du pasarte hau (Rom 4,8).

Testamentu Zaharrean Israelgo herriaren fedea Jainkoari obeditzea bezala deskribatzen da, eta sinesgogortasuna errebolta bezala. Adibidez: Num 14,9-11; 20,10; Dt 1,26-32; 9,23; Ps 78; Ps 105, etab.

Beraz, fedea da Jainkoari obeditzea, eta sinesgogortasuna Hari ez obeditzea.

Testamentu Berrian gauza bera dakusgu. Adibidez, San Paulorentzat zer da fedea? Ebanjelioari obeditzea. Ikus Rom 10,16; 2 Cor 9,13.

Sinetsi-ren ordezkari *obeditu* hitza dakarten pasarteak erruz dira San Pauloren idazkietan. Esanmolde honek ez du esplikaziorik fedezko egingaria librea ez baldin bada.

Gauza bera ageri da ebanjelio sinoptikoetan: bai fedeak eta bai sinesgogortasunak erantzukizun bat dakar berekin. Ikus, adibidez, Mt 16, 15. Hori, ordea, ez da ulertzen fedea librea ez baldin bada.

San Joanen ebanjelioan juduen sinesgogortasuna bekatu bezala azaltzen da; beraz gatzigua merezi du. Konta ezinak dira hartako pasarteak: Jo 15,22; 3,18; 3,36 etab.

Horra testu bat, ura bezain gardena: "Aitak bidalitakoari zuek ez diozute sinesten... eta ez duzue enegana etorri nahi, bizitzea izan dezazuen" (Jo 5,38).

Laburbilduz, 4. ebanjelioan fedea da *Kristorengana joatea; Haren hitza entzutea; bai Hura Bera eta bai Haren Beraren aitorra hartzea; Hari jarraitzea*, etab. Ez goaz bana-banaka pasarteok —asko baitira— aipatzera.

Tradizioan ageri dena

Eliza zaharraren pentsakera orduko praktika batzuetarik ezagun da: Elizan sartzeko eta bataioa hartzeko gizonak behar zuen Jesukristogan sinetsi. Fedeari uko egitea bekatutzat jotzen zen. Kristauak gertu egon behar zuen bere fedea aitortzeko, baita aitor horrengatik heriotzea jasan behar bazuen ere. Martirioa hartzen zen fedezko aitorrerarik gorena bezala. Gauza guzti hauek, ordea, ez dira konprenitzen fedea ez baldin bada librea, hots, gizonak libreki ipintzen duen egintza.

Elizako Gurasoek eta teologoek gauza bera irakatsi dute beti. Tomas Akinoarrak esango digu fedezko eginkaria zera dela: adimenaren aktoa, bai, baina nahimenaren agindupean egina. Eta nahimenak hemen duen partea ez dela axalekoa edo guti gora-beherakoa, akto honen muinari dagokiona baizik. Nahimenak hemen duen partea, alegia, ez da zientzi gauzetan izan dezakeen bezalakoa. Askoz sakonagoa eta handiagoa da (1).

Geroago, teologoek artean auzi bat sortzen da, gaur arte dirauena: ea pertsona batengan elkarrekin egon daitezkeen honako bi gauza hauek: batetik fede librea, eta bestetik Agerkundeari buruz ebidentzia. Gauza eztabaidatua da gaur arte. Batzuek baietz diote, beste batzuek ezetz. Baina baietz diotenek ere beti esango dizue fedezko baietza ez dela ebidentzia horretatik heldu.

Aukera larria

Fedearen askatasuna, agian, beste alderdi batetik azaltzen zaigu ulergarriago, nahiz eta alderdi hau teologi liburuetan ez den kontutan hartzen. Fedea, azken batean, aukera bat da, gizonak libreki egiten duen aukera. Aukera horrek, ordea, ondorio larriak ditu. Ondorio horiek ikusiz, gizonak libreki hautatzen du sineste edo sinestezaren artean. Egian behar du bizi gizonak, eta fedeak dioena egia baldin bada, moralki hori hautatzera beharturik dago; baina gauza hauen gainean nola ez baita gehiengotan ebidentziarik egoten, erraza zaio gizonari luzabideak pilatzea *Nork daki?*... esanez. Hala gizonak libreki hartzen du, bai fedearen eta bai fede ezaren bidea ere (2).

(1) Ikus II-II, q.2, a. 9.

(2) ALFARO, *Cristologia y Antropologia*, IX; Ediciones Cristiandad, Madrid 1973, p. 367.

ZIURTASUNA FEDEAN (1)

Horra fedezko eginkariaren beste dohain bat. Aurreko artikuluan azaldu dugunaren beste muturrean dagoela ematen du, gainera, lehen kolpean behintzat. Baina kristau iturriek bai bata eta bai bestea ere aitortzen dituzte.

ZIURTASUN hitzaz zer esan nahi den

Ikus dezagun lehenik *ziurtasun* horrek zer esan nahi duen edo zer dakarren berekin.

Fedezko eginkariaren propietate bat ziurtasuna dela diogunean, bi gauza adierazi nahi ditugu: bata, irmotasun osoz lotzen zaiola fededunaren izpiritua fedearen edukinari; eta bestea, fedeak dioen horretan ezin egon daitekeela hutsik, gezurrik, faltseria edo errorerik. Hutsezina dela, beraz, fedeak.

Ziurtasun horren kontra honako hauek ditugu: duda, zalantza, ustea, badaezpadako opinioa; errorea, faltseria.

Gure inguruko erdaretan “creer” hitzak baditu bi esanahi guztiz desberdinak, batez ere ziurtasunari gagozkiola: bata da *uste izatearen* adiera: ustea, ordea, ez da ziurtasunaren mailara iristen. Bestea da Jainkoak agertutako gauzei sineste ematea: eta hitza adiera honetan hartzen denean ziurtasuna eskatzen du.

Euskaraz hitz bana dugu bi gauza horiek adierazteko, eta hala ez da nahasterako biderik. Gainera, bada esaera bat ere: *Ustea ez da jakitea*. Beraz, ustea ez da ziurtasunera heltzen. Sinestea, berriz, bai.

Giza-adimenak ebidentziaren indarraz baiezkoa ematen duenean, duda egitea ez da posible ere. Gure kasua ez da hori, ordea. Psikologikoki posible da duda, fedezko eginkaria —esan dugunez— librea denez gero. Baina norberaren nahiz eta jakinaren gainean jarritako dudak aienatu behar ditu fedeak.

Azaldu nahi dugunaren funtsa hona perpaus honetan adierazirik:

FEDEZKO EGINKARIA ALDE GUZTIZ TINKO ETA HUTSEZINA DA.

Esan bezala, bi gauza baieztatzen dira hemen: 1) sinestean atxikitasun osoa ematen diogula fedeak dioenari, eta 2) hutsezina dela fedeak dioena.

Nik Jainkoari sinesten diodanean, Hark esandakoari osoki lotzen naitzaio, esan hori egia huts-garbia dela epaituz, zeren berez hala behar baitu izan eta hala baita.

(1) ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 324.

Eliz Irakasgoaren irakaspena

Fedezko aitormen guztietan honelako edo antzeko erasiak irakurtzen dira: “*Firmiter credo*”, “*Firmissime credit*”, etab. Beraz, Elizak beti uste izan du tinkotasun hori gabe ez dela zinezko federik.

Fedean baieztatzen dena objetiboki egia dela, Batikano Lehenak emandako printzipio hartarik ondorio gisa segitzen da: Jainkoak, alegia, ezin uka dezake bere burua: arrazoiaren eta Agerkundearen egile izanik Jainkoa, Hark agertutakoa ezin dagoke arrazoiaren kontra, egia egiaren aurka ezin egon daitekeenez gero (1).

Teologi kalifikapena

Perpausean adierazten dena artez eta zuzenki definitua ez, baina definituetarik derrigorrezko lokarriz erakarria dela esan genezake. Beraz, “*theologice certa*” bezala jo daiteke.

Eskritura Sainduan ageri dena

Auzi honi buruz espresuki mintzo diren pasarteak ez dira. Baina bada, hor hemen, fedezko baiezekoak erabateko eta atsolutu izan behar duela adierazten duten pasarteak, eta hori mamiz gauza bera esatea da.

Testamentu Zaharrean, adibidez, noiz eta nork sinesten dio Jainkoari? Zalantza guztiak utzirik, dudatarik ilki eta irmotasun osoz Haren hitzari lotzen zaionak. (Ikus Ex 14,10ss.31).

Berdin Testamentu Berrian ere. San Paulok Abrahanen fedea xoil abonatzen du, eta fede horretan, besteak beste, hara zer azpimarratzen duen: Jainkoak hitz emana huts egin gabe beteko zela sinetsi zuela (Ikus Rom 4,3ss).

Fedearen ziurtasunaz zer-ikusi du San Pauloren erasia hark ere: “Baina baldin guk edo Aingeru batek zerutik ebanjelizatzen badizue ebanjelizatu dizuegunaz besterik, madarikatua biz”. (Gal 1,8).

Mariaren fedea eta Zakariasen zalantza buruz-buru ezartzen dira (Ikus Lc 1,45). Beraz, Mariak erabateko baietza eman zion Jainkoaren hitzari, eta horrela fedearen ispilu gertatu da guretzat.

Hebertarren epistola, 11. kapitulu, luze mintzo da fedeari. Eta zer da fedea epistola horren egilearentzat? Esan beharrik ez dago: Konbentzimendu ziur bat ikusten ez diren gauzen gainean. Beraz, ziurtasuna du berekin fedea.

(1) DS 3017.

San Joanen idazkietan, azkenik, sinonimo antzo erabili ohi dira bi aditz hauek: *jakin* eta *sinetsi*, trukagarri balira bezala. Ikus, adibidez, Jo 3,2; 4,32 etab. Zer esan nahi du horrek? Gutinaz, hau: Jainkoaren egiatasunean oinarritzen dela fedea, eta, beraz, ziurtasun oso eta erabatekoa duela berekin.

Tradizioan ageri dena

Elizaren Guraso Apostolikoetan garbi eta klarki ageri da fedearen ziurtasuna. Antiokiako Inaziok, esate baterako, hara zer dioen: “Jesukristok benetan eta egiazki obratutako jaiotza, nekaldi eta piztueraren gainean osoki segur gerta zaitezten” (1).

Alejandriako Klementek jakintzan usatzen den demostrazioarekin konparatzen du fedezko baietza. Gehiago oraindik: ziurtasun-aldeetik gorago dago fedea, Jainkoaren hitzean oinarritzen denez gero (2).

San Krisostomok esango digu fedeak zalantza guztiak haizatzen dituela eta Jainkoaren lekukotasuna duela bermetzat (3).

Ertaroko teologo eskolastikoek Jakintzari buruz Aristotelesen kategoriak onartzen dituzte. Ziurtasun-aldeetik fedeari mailarik gorena aitortzen diote, fedea Jainkoaren hitzean oinarritzen denez gero. Egiaren aldeetik, orobat, goren-goreneko maila dagokio fedearen edukinari. Beste aldeetik, berriz, fedezko baiezkoea ez da, Jakintzarena bezala, obedientziatik heldu; horregatik, dudak egotea posible da (Jakintzan gertatzen ez dena).

Ertarotik gure egunok arte fedezko eginkariari ziurtasuna dagokiola aho batez irakasten dute teologoei

Teologi arrazoiketa

Jainkoari ez zaio Jainko bezala sinesten, Haren esanari baiezkoea ematen ez zaion bitartean. Beste aldeetik, fedeak Jainkoa bera du bermetzat: beraz, faltseriarik ezin dagoke fedean. Eta bada oraindik beste zerbait: goitiko argi batek altxatzen du adimena fedezko baietza egiterakoan, eta argi horrek ezin sortaraz dezake horrelako baiezkoea gezurraren gainean.

(1) Ad Magn. XI,1.

(2) Strom. L. II, c. 4.

(3) PG 62,507.

3. ARTIKULUA

NOLA ELKARLOTU ASKATASUNA ETA ZIURTASUNA FEDEAN?(1)

Fedearen bi propietate hauek elkarlotzen nahikoa lan izan dute —eta dute— teologoek. Fedearen ziurtasuna aitortzen baldin baduzu, badirudi hori askatasunaren kaltetan dela, eta bai alderantziz ere. Fedeak, ordea, bere buruaz mintzo denean, biak aitortzen ditu. Hortaz, biak behar dira atxiki.

Fedearen ulerpiderako axolarik handiena du istilu honek. Fedearen irudia edo aurpegia bera dugu hemen tartean. Abiapuntu txar batetik abiatuz gero, problema honi ezin dakioke atarramendu onik eman.

Hutsaren erroa non datekeen

Non datza hutsaren erroa? Honetan, dirudienez: zientzia natural eta matematikoetan usatzen den ziurtasun-mota hartu da eredutzat. Eredu horietan badakigu zer gertatzen den: gauza bat ziur den ber, ez da jadanik libre, eta alderantziz.

Baina hori idealtzat hartzen baduzu, “robot” bati eman dakiokeen zeregina hartzen duzu idealtzat. Pertsonen arteko ezagupena, berriz, ez da gisa horretakoa. Pertsona ezin trata daiteke objektu huts-soila balitz bezala.

Zientzia natural eta matematikoetako neurriek pertsonen mundurako ez dute balio.

Arrazoi osoz esan du H. U. von Balthasar jaunak (2): “Anitz problema faltso trabatik kentzen dira pertsonen arteko topaketaren eredia abiapuntutzat hartzen denean”. Beste hitzez esanik: azter dezagun nola gertatzen den pertsonen arteko ezagutza, har dezagun hori eredutzat, eta ez zientzia natural eta matematikoetan usatzen den ezagupen-mota, zeren hau ez baita gure eremuari dagokiona, eta beste hura, aldiz, bai.

Soluzio zuzenak nondik jo behar duen

Pertsonen arteko ezagutza nola gertatzen den azter dezagun, bada. Horra adibide bat: haurrak berehala eta kolpe batez ulertzen du bere amaren irrifarrea. Analisiak, sailkapenak ondotik etor daitezke, baina pertsonaren atxemaitea kolpe batez eta analisi guzti horiek baino lehen egiten da. Ezagupen hau arteza da, bitartekorik gabe eskuratua.

(1) Cf. TRÜTSCH, in *Mysterium Fidei* I, p. 933ss.

(2) *El problema de Dios en el hombre actual*; Madrid 1960.

Pertsonaren eskuraketa hori esanahi zabal batean *fede* deitzen baldin bada, orduan fedea da pertsona ezagutzeko egoki den ezagupen-bide bakarra. Eremu honi dagokion ezagupen-modua.

Hori hala baldin bada, fedea ez da ebidentzia objetibo batetik sortzen den ezagupen soil, hotz eta ezpertsonala. Besterik da fedea. Badago, noski, fedean ezagupen bat, jakitate bat, baina zientzietan ematen den jakite-mota eta fedean gertatzen dena ez dira eite berekoak.

Jar itzatzu bi gauza hauek elkarren ondoan: adiskidezko irrifarre bat eta beronen esanahia, batetik; eta bestetik, $2 \times 2 = 4$. Bi jakite-mota dituzu hemen. Ezagupen aldetik, bietan zein da jatorrena? Zehatzagoa eta objetiboagoa izango da, nahi baduzu, $2 \times 2 = 4$. Baina fedetik heldu den ezagupen-mota hori, bestearen ondoan ez da ez handiago eta ez ttipiago: bestea ez bezalakoa da, kalitatez berezia, bere gisakoa.

Hona galdera bat bitxia: “Zer gustatzen zaizu gehiago: Usurbilgo sagardoa ala Gernikako Arbola himnoa?” “Galdera horrek ez du ez buru eta ez hanka, esango duzu. Bi sail desberdinetako gauzak nahasten dituzu hor”. Bada horixe bera gertatzen da bi ezagupen-mota horiek zaku berean sartzearekin. Gauza desberdinak dira. Kalitatez, ordea, maila altuagoan dago eta garrantzitsuagoa da fedetik heldu den ziurtasuna.

Fedezko ziurtasuna ulertzeko gehiago balio du, bada, pertsonen arteko topaketan gertatzen den ziurtasunaren ereduak, ezen ez zientziako ziurtasunaren ereduak. Han pertsonak badu ziurtasun bat bere gisakoa, eta erabakia libreki hartzen du. Zientziaren ereduak, aldiz, gaizki egokitzten zaio fedeari.

Eta horra beste ohar bat garrantzitsua: Fedean lehenbiziko gauza da mintzo zaigun pertsona bera onartzea, pertsona hura bera ulertzea, Hari baietza ematea.

Pertsonarekin bat etortzen garenean, hark berak dioenaz ere bat gatz, gehienetan. Beraz, fedean bi-biak baieztatzen dira: mintzo den Pertsona bera —Jainkoa—, eta Hark esandakoa. Baina azken finean guztia da orobat, zeren hiztunak bere esanetan bere buruaren emaitza egin baitigu.

Ziurtasun hau fedezkoa da, ez ikustezkoa. Sineste ematerakoan nori lotzen zaion fededuna, eta haren begiez ikusten ditu goi-munduko gauzak. Gauza horiek, ordea, ilunak dira beti ere fededunarentzat.

Zakeo, San Pedro, Bartimeo

Fedezko ezagupenaren nolakoa argitzeko, gertakari bat baino gehiago azaltzen zaigu Ebanjelioetan. Hots, federa etortze eta fedean iraute horren paradigma bezala har daitezkeen gertakariak.

Hor dugu, esate baterako, Zakeoren konbertsioa (Lk 19,1).

Nolabaiteko gizona zen Zakeo. Jesus ezagutzeko gogoz, arbola batera igotzen da. Jesusek, pasatzean, begirada eta hitza zuzentzen dizkio. Zer gertatu zen orduan? Ondo ez dakigu, baina une hartan, ixtant batez, Jesus ulertzen eta onartzen du. Eta horra hor gizon hura bestelakotua. Bestelakotze honetan eta Zakeoren ondoko egoera berrian ziurtasuna eta askatasuna salborik gelditzen dira, segurki. Zakeok Jesus nor zen ulertu zuen —handizka bederen—, Hark eskaintzen zion bere buruaren emaitza aintzat hartu, eta, pozik eta gogoz, baiezko borobil batekin erantzun zion. Gertaera honetan askatasuna eta ziurtasuna osoki errespetatzen dira, eta ez bata bestearen kaltetan baleude bezala.

Beste gertaera bat. Kafarnaungo sinagogan, onartzen eta ulertzen zailtxo diren gauzak esaten ditu Jesusek. Orduan ikasleatarik asko eta askok alde egiten dute. San Pedrok, aldiz, leialtasuna gordetzen dio Jesusi (Jo 6,61). Besteak baino hobekiago ulertu ote zituen Pedrok Jesusen hitzak? Ez, segurki. Baina Jesusen pertsona konprenitzen eta onartzen zuen Pedrok, eta oinarritzko ulerketa horretatik zetorren haren atxikidura.

Jai duzu, adimenak puntu guztietan argi ikusi arte itxaron behar baduzu.

Asteasuko Agirrek honela dio (1): “Ezin alabaña biotzak maite izan dezake nolerabait ezagutzen ez duen Ontasuna”.

Hala da. *Nolerabait* esatean, ordea, muga bat jartzen du. Oinarritzko ezagupen bat beharrezkoa da, baina puntu guztietan argi zehatz eta ugarria izatea, ez.

Hor da Bartimeo itsuaren gertaera ere (Mk 10,46-52). Bide bazterrean eseria limosna eske zegoen. Entzuten du Jesus datorrela jendez inguratutik, eta deiadarka hasten da: “Dabid-en Seme hori, erruki zahizkit!” Jesus gelditu egin zen gaiso haren aurrean: “Zer nahi duzu?” Eta hark: “Jauna, ikusi”. Bat-batean ikusmena lortzen du eta Jesusen ondoren zihotan bidean. Gorputzeko begien ikusmena baino gehiago dugu hemen, segurki.

Etab. Ebanjelioa honelakoz beterik da.

Ezagupen-eskema honekin badirudi hobekiago esplikatzen direla fedeari buruzko gauzak. Eskema honek, bai askatasuna eta bai ziurtasuna, salborik uzten ditu fedean.

Oraingoz honetan uzten dugu auzia. Ondoko kapituluetakoa azterketekin fedearen irudi eta hazbegiak geroago eta argiago ageriko direlakotan.

(1) *Erakusaldia*: I, orr. 5.

Zazpigarren Kapitula

ILUN, ETA, HALAZ GUZTIZ, SINESGARRI

Horra beste bikote bat, fedearen dohainen artean. Oraingoan ere bikotearen osagaiek elkarlotzen edo elkar adosten zailak dirudite; baina kristau fedean bai bata eta bai bestea ezin utzizkoak dira.

Ikus dezagun artikulua banatan nola fedea —eta fedea denez, hain zuzen— beti ere ilun den, eta, halaz guztiz, nola sinesgarri den. Hirugarrenean ahaleginduko gara bi dohainok nola elkarlotzen diren erakusten.

1 ARTIKULUA

ILUNTASUNA FEDEAN (1)

Hasteko, nork ez ditu ezagutzen Testamentu Berriko zenbait pasarte? “Orain ispiluan eta ilun ikusten dugu, orduan bekoz beko ikusiko dugu” (1 Cor 13,12). “Ezen fedez gabiltza, ez ikustez” (2 Cor 5,7). “Fedea itxoikizunen mamia” eta “ikusten ez diren gauzen oinarria da” (Hebr 11,1).

Hortaz, lurgain honetan gabiltzan bitartean fedez gabiltza, ez ikustez. Ikuspenaren aroa geroko bizitzean izanen da. Hemen fedearen ekonomian bizi gara. Eta fedeak ilun izate hori berekin du.

Iluntasun honen arrazoia honela ematen du Batikano Lehenak: “Iluna da fedea, zeren fedean misterioei ematen baitzaie sineste, hots, Jainkoagan gordeak diren eta Jainkoak agertu ezik guretzat ezezagun diren gauzei. Eta Jainkoak Agerkundearen bidez misterio horiek guri agertu ondoren ere, guretzat nolazpait lainoz inguraturik gelditzen dira. Izan ere, giza arrazoia, gauza horiek barnatzeko ez da gai, bere xede propioa diren gauzak barnatzeko gai den bezala” (2).

(1) IKUS ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 359.

(2) DS 3015-3016.

Fedearen iluntasuna aho batez aitortua eta are Elizak erabakia dago. Baina aurrera baino lehen eman ditzagun nozio batzuk.

Zer den ilun eta zer argi

Adimenaren baiezkoa iluna dela esan ohi da ageritasun edo ebidentzia falta zaionean.

Ebidentzia, berriz, bitarikoa izan ohi da: 1) Barrenkorra. Hau gertatzen da gauzaren egia zuzenean edo arrazoiketa baten bidez adimenari azaltzen zaionean. Orduan adimena derrigortua dago baietza ematera. 2) Kanpoaldekoa. Hemen egia testigantza baten bitartez azaltzen zaigu. Testigantzak gauza hala dela ezagut arazten digu, baina gauzaren beraren barneko egia ez zaigu azaltzen.

Halaz guztiz, testigantzatik heldu den ebidentzia ere izan daiteke zenbaitetan adimendua baiezkoa ematera behartzeko modukoa. Fedean den testigantza, ordea, ez da gisa horretakoa. Ez du adimendua derrigortzen.

Azaldu nahi duguna, horra honako perpaus honetan adierazia:

FEDEAN EMATEN DEN BAIEZKOA ILUNA DA HIRU BURUTARIK, HOTS: 1) JAINKOAREN HITZEAN OINARRITZEN BAITA, 2) OSASUN SUPERNATURALAREKIN BAITU ZER IKUSI, 3) AGERKUNDEA GERTATU DELAKO EBIDENTZIATIK EZ BAITA SORTZEN.

Beraz, perpausaren edukina hiru baieztapen hauetan mamitzen da: 1) Fedezko baiezkoa ez da gauzaren barneko ageritasunetik heldu, Jainkoaren esanetik baizik; 2) Fedearen objektu materiala —Jainkoak Kristoren bidez obratu duen osasun-misterioa—, iluna da, zeren sinesten duguna ez baitugu ikusten. Sinesten dugunean, alegia, sinesten dugun horren barne-ebidentziarik ez dugu; 3) ez eta ez dugu, gehienetan behintzat, kanpoko ebidentziarik ere, hots, agerkundea gertatu delako ebidentziarik. Eta inoiz horrelakorik gertatzen bada ere, fedezko baiezkoa ez da hortik heldu.

Fededunak, bada, lurgain honetako egoeran ez du ebidentziarik (komunzki bederen). Hala, sinisterakoan libertatea gordetzen du eta hala iluna gertatzen da haren fedea.

Ikus ditzagun bana-banaka eta xeheki hiru baieztapenok:

1) Fedearen oinarria —Jainkoaren hitza— ilun

Fedearen motibo formala —gorago ikusi zen bezala (1)— Jainkoaren esana edo autoritatea da. Batikano Lehenak hala definitu zuen (2). Hori hala baldin bada, agerian dago fedeak ilun behar duela izan. Adimen-

(1) Ikus laugarren kapitulua.

(2) DS 3008, 3032.

duak berez nahi du gauzaren bere baitako ulergarritasuna atzeman eta barnatu. Fedezko eginkarian joera hori ez da asetzen.

Teologi-kalifikapena: Motibo formalaren aldetik fedezko baiezkoa ilun izate hori "theologice certum" da, beraz. Hots, definiturik dagoen zerbaitetik baitezpadako ondorio bezala segitzen da.

2) Fedearen zentrua —gure goi-osasuna— ilun

Fedearen zentruaz goragoko Kapitulu batean mintzatu ginen (1). Gizonaren goi-osasuna, Jainkoak Kristoren bidez obratu duena: horra fede mezuaren ardatza, muina. Trinitatea, Gizakundea, gizonaren bokazio supernaturala. Horiek guztiak, ordea, misterioak dira. Agerkundea gertatu ondoan ere, gauza hauen barne-ageritasuna edo ulergarritasuna falta zai-gu. Fedezko eginkaria alde honetatik ere ilun da, hortaz.

Fedearen zentrua ilun baldin bada, iluntasun hori orotara zabaltzen da, zeren zentruak ematen baitio batasuna fedeari.

Teologi kalifikapena: ziur.

3) Agerkundearen gertakaria, ilun

Hau da hirugarren baieztapena.

Definiturik dago fedezko eginkaria librea dela. Eginkari hori ez dela, alegia, adimendua derrigortzen duten arrazoen fruitu (2). Orain bada, horrek esan nahi du fedezko eginkaria ez dela Agerkundea gertatu delako ebidentziatik ernetzen. Bestela, fedean ez legoke libertaterik. Ebidentzia horretatik sortua ez delako ere iluna da, beraz, fedezko eginkaria.

Teologi kalifikapena: "theologice certa".

Posible ote da psikologikoki Agerkundea gertatu delako ebidentzia-
ren jabe izatea gizona, eta halaz guztiz, fedezko aktoa libreki ipintzea? Eztabaidatua da puntu hau teologoen artean. Edozein modutan ere, gure konturako eztabaida honek ez du pisu handirik.

Laburzki: fedearen muina misterioz inguratua da. Gainera, Jainkoari sinestea eta gizonari sinestea ez da berdin. Gizonari sinesten diogunean, guk testiguaren esana kontrola dezakegu —haren jakitatea, egitasuna etab.—, zeren azken finean mundu honetako gauza baita. Hor ez dira gainditzen ezagupen naturalaren eremua eta ezagutzeko erak. Jainkozko fedean, ordea, bai.

(1) Ikus boskarren kapitulua.

(2) DS 3035.

Gainera, fedea aukera bat da, ondorio larriak dituen aukera. Giza-biziaren esanahia eta nondik-norakoa epaitzen du. Ez da soilki dotrina huts diren zenbait puntu aitortzea. Noraezeko gertatzen da akto hori ilunetan eta ausartki egin beharra.

2. ARTIKULUA

GIZA ARRAZOIAREN LEKUA FEDEAN (1)

Arrazoiaren eskubideak salborik gelditzen dira

Aurreko artikuluan ikusi dugu fedezko baiezkua ez dela gauzaren ageritasunetik sortzen. Ez da arrazoiaren fruitua, alegia. Baina, bestalde, eginkari hori ez da arrazoi gabe egiten ere (2).

Gizonak libreki hartzen dituen erabakietan arrazoiaren arabera egin ohi ditu bere aukerak. Hemen ere halaxe gertatzen da. Gizonak, alegia, ez du sineste-eginkaria itsu-itsuan egiten. Arrazoiaren eskubideak eta eskakizunak salborik ateratzen dira. Arrazoirik gabe sinestea gizonaren arrazoizko izaeraren kontra joatea izango litzateke, baina fedean ez da horrelakorik gertatzen.

Fedea *bitalki* ernetzen da eta bizi ohi da gizona baitan, eta giza izaeraren lege guztiak errespetatzen ditu. Lege horietako bat hauxe da: gizonak, bere aukerak egitean, arrazoiaren arabera jokatu behar duela.

Gizonak, alegia, nolazpait ezagutu behar ditu aukera horiek egiteko dituen arrazoiak. Gizonak, fedezko eginkaria egiterakoan, badaki arrazoiak ados edo konforme den eginkari bat egiten duela. Beste hitzez esanik: gizonak, fedezko aktoa egiten duenean, noraezeko eta ezinbesteko du sinesten duen dotrina hura sinesgarri eta are sinesbeharrekoa dela jakitea.

Beraz, *arrazoizko* diogunean, horixe da esan nahi duguna, hots, arrazoiaren aurrean *sinesgarri* —“credibilis”—.

Hauxe da, bada, gure aztergaia: sinestean, arrazoiaren arabera jokatzeko, gizonak zer mailatan eta neurritan ezagutu behar du kristau erlijioaren sinesgarritasuna? Eta ezagupen hori zer bidez eskura dezake? Fedezko eginkaria sinesgarri, zentzuzko edo arrazoizko izan dadin, zernolako baldinkizunak bete behar ditu? Zenbatetaraino dago fedea sinesgarritasun-seinaleei lotua?

(1) ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 378.

(2) DS 3009.

Protestanteen pentsakera

Protestanteek fedearen sinesgarritasun honi ez diote arreta edo kasurik ematen. Izpiritu Sainduak hor barnean sineste ematera bultzatzen zaitu, eta horra dena egina. Hau da protestanteen jarrera auzi honetan. Agerkundearen kanpotikako seinaleek ez dute hemen parterik. Fedea da bere buruarentzat frogantzarik asko. Gaur eguneon ere Bultmann-ek ez du uste fedea arrazoiaren aurrean justifika daitekeenik edo justifikatu behar denik.

Eliza Katolikoaren jarrera

Fedea eta grazia gizonagan txertatzen dira. Fedean gizonak erantzun librean ematen dio Jainkoari, eta erantzun hori ematerakoan gizonki jotzen du. Horrek esan nahi du gizonak ez dezakeela fedezko eginkaria egin, eginkari hori arrazoiaren aurrean sinesgarri eta nolazpait arrazoiak konforme azaltzen ez bazaio, hots, arrazoiaren eskakizunen aurrean onargarri ez bada.

Euskaraz bada esaera: *Zeruak ez du habe-beharrik*. Hala da, noski. Baina gizonak, berari dagokion gisa federa helduko bada, behar du jakin sinesten duena arrazoiaren aurrean onargarri dela. Eta Jainkoak gizonaren eskakizun hori errespetatzen du. Hau da auzi honetan Eliza Katolikoak duen jarrera.

Eliz Irakasgoaren irakaspena

Gai honi buruzko dotrina Batikano Lehenak erabaki zuen (1). Definiturik dago, bada, kanpotiko seinaleen bidez Agerkundera sinesgarri egin ohi dela. Horietaz landara, sinesgarritasun hau beste bide batzuez ere ager daitekeenik, Elizak ez du ukatzen. Arruntki, ordea, kanpoko seinaleen bidez ezagutzen du gizonak kristau erlijioa Jainkoagandikoa dela. Arrazoiaren zeregina da fedearen oinarriak frogatzea (2). Baina frogantza hau ez da demostrazio hertsia bat bezala hartu behar.

Teologi kalifikapena

Definiturik dago kanpotiko seinaleak Jainkoak emanak direla horretarako, hots, fedezko aktoa sinesgarri bihurtzeko. Beraz, kanpoko seinale horien balioa definiturik dago.

(1) DS 3009-3013, 3033-3034.

(2) DS 3019.

Horra perpaus honetan azaldu nahi dugunaren mamia:

FEDEZKO EGINKARIAK, ARRAZOIAKIN KONFORME DENEZ GERO, ESKATZEN DU GIZONA KRISTAU ERLIJIOAREN SINESGARRITASUNAZ ZIUR EGON DADIN, ETA HORI MAIZENIK KANPOKO SEINALEEN BIDEZ LORTZEN DA, ARRAZOIKETA DELA MEDIO.

Gure proposamen hau, den guztia eta dagoen bezala, teologi arrazoi-ketaren eremukoa da. Eskritura eta Tradiziotik haxe xoilki frogatzen da: kanpoko seinaleen balioa eta beharra. Jainkoak, Bera mintzatu dela ja-kin dezagun, seinale horietara jotzen duela.

Hitz bat oraindik *kanpoko seinaleak* zer diren adierazteko (“Signa ex-terna divinitus ortae christianae religionis”). Azken batean mirakuiluak dira. Mirakuilua, ordea, hirutarikoa izan daiteke, hots, fisikoa, intelektua-la eta morala.

Praktikan, ordea, gogoan eduki behar da gizonak, bere fedea sinesgarri bihurtzeko, bide eta ezaugarri-suerte asko izan ditzakeela.

Eskritura Sainduan ageri dena

Testamentu Zaharrean. — Ikus Ex 3ss Hau da leku honetan aurki-tzen duguna: Jainkoak esaten dio Moisesi: “Zoaz, bil itzazu israeldarrak, eta esaezu: Jainkoa agertu zait, eta hau eta hau esan dit”. Moisesek erantzuten dio Jainkoari: “Ez naute sinetsiko. Esango dute: Ez zaizu Jain-koa agertu”. Orduan Jainkoak seinale miragarriak ematen dizkio *Jainkoa agertu zaizula sinets dezaten*. Seinale miragarri horien bidez egin zen si-nesgarri Israelentzat Testamentu Zaharreko fedea. (Ikus oraindik Ex 14, 5; 19,9; 20,18).

Seinaleek egin zuten posible herriaren fedea. Hori adierazten duten pasarteak kontu ezinak dira: Ps 78, Ps 106, Ps 135, Num 14,11 etab. Jain-koari sinetsi eta seinaleei sinetsi, guztia da orobat.

Testamentu Berrian. — Jesusen predikuak eta mirakuiluak elkarlotu-rik ageri dira. Mirakuiluek agertzera ematen dute Jesus Mesias dela. Gainera dezagun Jesusen pertsona eta irudia bera, orotasunean harturik, seinale eta ezaugarriak handiena dela, Batikano II.ak aditzera eman duen bezala (1).

4. ebanjelioak besteak baino gehiago barnatu du seinaleen teologia. Seinaleen bidez idekitzen zaio gizonari fedearen atea. Horiek erakusten diote nor den Jesus, hots, Jainkoagandik heldu den Maisua dela. (Ikus, adibidez, Jo 2,23; 11,45; 20,30).

(1) “Dei Verbum”, 4. Azken Kontzilioak Agerkundearen seinale guztiak nolazpait pertsonalizatu egin ditu, denak Kristo baitan eta Elizan bilduz. Ikus R. LATOURELLE, *Cristo y la Iglesia, signos de salvación*; Salamanca, Ed. Sígueme.

Labur: Bai Testamentu Zaharrean eta bai Berrian ere gauza bera ageri da: seinaleak, graziaren barne-lanarekin batera, fedezko eginkaria posible bihurtzen dutela. Seinale horiek gizonagandik kanpoan aurkitzen dira. Horien zeregina hauxe da, hots: sinetsi behar den mezua Jainkoagandik heldu dela erakustea.

Tradizioan ageri dena

Kristautasuneko lehen denboretan Apologistak deitzen diren idazleak ditugu (Justino, Arnobio, Laktantzio etab.). Kristau erlijioa sinesgarri dela, bere etorburua Jainkoagandik duela, etab. frogatu nahi dute. Horretarako profeziak eta mirakuluaik aipatzen dituzte.

Gauza bera ikusten dugu Elizako Guresoengan ere, bai greziar eta bai latindarengan. Espresuki adierazten dute seinale hauek federako bidean duten zeregina. Ikus, adibidez, Origenes, Zesareako Eusebio, Krisostomo, Teodoreto, San Jeronimo, San Agustin, etab.

Fedeari buruzko teologia XIII. mendean sistematikoki tratatzen hasten da. Mende honetako teologoen garbi esaten dute fedezko eginkaria Jainkoaren lekukotasunean oinarritzen dela, eta lekukotasun hori fedearen argi supernaturalaz biltzen dugula. Giza-arrazoiak, ordea, kanpoko seinaleen bidez ezagutzen du Agerkundera gertatu dela, eta ezagupen hori fedezko eginkariaz batera doa; baina Agerkunderaren seinale horiek ez dira fedearen motibo formalean sartzen. Beraz, seinaleen balioa eta horien beharra aho batez aitortzen dute teologoen (1).

Teologi arrazoiketa

Sinesteko arrazoiak badirela jakingo ez balu, gizonak ez luke gizonki jokatzeko fedean. Gizonki jokatzeko behar du ziur jakin kristau dotrina sinesgarri dela eta Jainkoagandik ilkia dela. Ezagutza hori normalki kanpoko seinaleen bidez eta arrazoiketa-bidez eskuratzen da.

Sinesgarritasun-epaia —hots, “juicio de credibilidad”— deitzen zaio ezagupen honi. Bi puntu hauek besarkatzen ditu: 1) Kristau dotrina Jainkoak agertua dela, 2) Sinesteko obligazio moralak dagoela. Arrazoiaren eremukoa da epai hau.

Baina fedezko eginkariak arrazoiaren eskubideak salborik uzten baditu ere, arrazoiak bera gainditzen du.

(1) San Tomas-en dotrina, ikus ALFARO, *Fides Spes Caritas*, p. 398.

3. ARTIKULUA

ILUNA ETA ARGIA NOLA ELKARLOTZEN DIREN FEDEAN (1)

Berriz ere fedearen bi dohain ditugu aurrez-aurre, elkarren aurkako diruditen bi dohain, hots, *Ilun* eta, halaz guztiz, *Arrazoizko*. Nola lotzen dira elkarrekin? Horra problema.

Fedearen iluntasunaz lehen esandakoa gogora dezagun: fedea arrazoizko dela esatean, ez dugu esan nahi sinesten ditugun gauzak barnetik ikusten ditugula, ez. Hala balitz, fedea ez litzateke bat ere ilun izango. Sinesten dugun hori arrazoiaren aurrean sinesgarri dela: hori da xoilki aitortzen duguna, eta hori, artez eta zuzenki, ez doa iluntasunaren kontra.

Itsu-itsuan sinestea, arrazoiaren aurrean sendotasunik ez duenari sineste ematea, ez dagokio gizonari. Eta ez da hori Jainkoak gizonarekin darabilen jokabidea. Nehork ere ez du sinesten —dio San Tomasek— fedea sinesgarri eta sinesbarreko agertzen zaiolarik baizen (2).

Grazia ere tartean dago, noski, baina horrezaz landara, hor dira kanpoko seinaleak ere: horien bidez fedea sinesgarri azaltzen zaio giza-arrazoiari.

Nola ezagut dezake gizonak Kristoren mezuari sineste eman diezaiokeela; eta gehiago oraindik, sineste ematera beharturik dagoela?

Teologia Fundamentalaren ikuspuntua eta fedeari buruz ari denarena

“Zein dira kristau fedearen sinesgarritasun-motiboak?” Teologia Fundamentalean honela planteatu behar da auzia. Baina Teologia Fundamentalaren planteaketa eta gurea ez dira berdintsuak. “Federa datorren gizonari nondik eta nola azaltzen zaio fedea sinesgarri?” Hau da preseski guk hemen dugun azterkizuna.

Gizonen arteko topaketak nola gertatzen diren gogora dezagun. Begira diezaiogun eredu honi, zeren honek lagunduko baitigu gehiena puntu hau argitzeko. Hots, pertsonen artean ezagutza eta fidantzia nola errene eta indartzen den. Neure adiskideaz segur izatera nola heldu ohi naiz? Ezagubide eta aztarna-piloa aipa eta konta nezake: ene alderakotzat beti erakutsi duen borondate eta portaera, haren begirada lainoa, halako unetan agertu zidan leialtasuna, bere etekinari begiratu gabe nola atera zuen aurpegia ene alde, etab.

Aztarna horiek, bakanka eta berezian harturik, ba ote dute aski indar ene fidantzia irabazteko? Diskutigarriak izan daitezke, bederen. Ha-

(1) Cf. TRÜTSCH, in *Mysterium salutis* I, 940.

(2) II-II, q. 1, a. 4 ad 2.

laz guztiz, adiskidearen errealtate biziaz topo egin duenak gehiago daki. Hark ez ditu aztarna horiek bana-banaka eta berezian hartzen, orotasun baten barnean baizik. Egia da, bestalde, orotasunaren sorketa ez dela gertatzen arrasto edo aztarna horiek gabe, baina arrasto guztien kopurua baino zerbait gehiago da: pertsona bera harrapatzea eta eskuratzea, alegia.

Orotasunera heltzeko ezaugarri horien beharra izan dut, noski, baina ezaugarri horien azalpen soilaz eta teorikoaz ez dut orotasun hori lortzen. Orotasuna dudanean, berriz, aztarna bakoitzari pertsona bera eskuratzetik heldu zaio balioa eta indarra. Egia da atzemate horretara ezaugarrien bidez heldu naizela, baina gero horiek orotasunean integraturik gelditzen dira. Eta behin orotasun horretara helduz gero, aztarna bakoitza, nahiz eta xumea izan, baliotu gertatzen da orotasuna sumatu duenarentzat. Besteari, berriz, horrelakorik frogatu ez duenari, arrazoi hori ezteus eta hutsa irudituko zaio.

Gizonen arteko topaketak horrela jaio eta sendotzen dira. Jakina, fedean ez da zeharo berdin, baina neurri batean bai. Alde batetik, hor da Kristoren pertsona, eta Hark gure fedea eskatzen du. Seinaleak egiten ditu, horien bidez sinets dezagun (Jo 10,38). *Jonas-en seinalea* ere aipatzen du, esan nahi baita, Jesus beraren piztuera (Mt 12,38). Egia da ikusi gabe sinesten dutenak dohatsu jotzen dituela (Jo 20,29), baina horrek ez du esan nahi fedea itsu eta oinarri gabeko izan behar duenik. Amodioaren begi garbiek ez dute seinale bortitz eta ugarien beharrik. Deitzailea ezagutzeko gauzarik xumea dute seinalerik asko. Hortik doa azken pasarte horren nondik-norakoa.

Azken finean, Agerkundera Jesukristo berbera da. Berarekin topo egitean gertatzen da fedea. Jesus bera da sinesgarri-motiboa, Agerkunderaren edukina eta bai Agerkunderaren jakin arazlea ere. Mirakuiluak hor dira, baina ez dira Jesusen pertsonagandik atean eta berezian hartu behar. Pertsonaren ezagupen-girotik ez dira urrundu behar.

Maiz-sarri konbertsioetan ikusten dugu federako eragina edo bultzada, iduriz, deus guti balio duen seinale xume batetik heldu dela. Adibidez, gizon saindu bat ikustetik, otoitzean sentitu den esperientzia nabarmen batetik, etab. Baina gogoan eduki behar da arrazoi edo seinale hori, bakarrean eta berezian harturik, ez dela ezer. Seinale edo arrazoi horrek badu —edo izan dezake behintzat— zer-ikusi pertsonaren sumaketaz, eta orduan hortik heldu zaio indarra, nahiz eta gauza hau erdi ilunpean egon eta kontzientzia argiaren azalean ez azaldu.

Sinesteko errutsu edo sendo ez diren arrazoiak?

Sinesteko balio ez duten arrazoiak eta antzeko kontuak aurkitzen ditugu zenbait teologotan, konbertsiorako bide izan diren zenbait seinale

epaituz. Baina kasu!, epai hau agian ez da zuzena. Adibidez, Paul Claudel "Magnificat" kantika Nôtre-Dame-n entzutean konbertitu zen. Motibo horiek sujetiboak dei daitezke, beroien balioa sujetuak xoilki sumatzen duelako, baina errutsuak izan daitezke, bestalde. Esperientzia konkretu hartan pertsona batek suma dezake errealtate bat besteontzat gordea eta estalia dena. Errealtate hori egon han dago, noski, baina besteak hori nabaitzeko ez daude gerturik.

Nekazari batek, esate baterako, anitz urtez bere herriko eguraldiaren berri jakin ondoren, honako epai hau eman lezake: lainoek itxura hau edo hura dutenean, segur da bihar euria dugula. Alferrik esango diote hori ez dela arrazoaia, etab. Hark gehiago daki, eta ez da bere ziurtasunetik den gutiena ere kantituko. Batak eta besteak seinale berberak ikusten dituzte, baina hark gehiago atzematen du; bere hitzekin aditzera eman dezakeena baino ere gehiago.

Norbaiten fedea alde guztiz arrazoizkoa eta zentzuzkoa izan daiteke, norbait hori bere arrazoiketaz azaltzeko gai ez izanik ere. Ezjakinek arrazoi guztiz on eta errutsuak izan ditzakete sinesteko.

Kartesianismoaren ondorioz ideia argi eta ongi mugatuaren idolatria zabaldu zen teologoen artean, eta orduan arrazoiketa-suerte jakin bati bakarrik aitortzen zitzaion balioa. Horretaz gainerako guztia ez zen onartzen, ez zuen balio. Aurre eritzi horretatik sortu dira hainbeste sasi problema, "analysis fidei" delako katramila horretara eramán gaituztenak.

"Cognitio per naturalitatem"

Sinesgarritasunaren ezagutza nola gertatzen den argitzeko, asko baliu du "cognitio per connaturalitatem" deitzen den horri kasu emateak. Izan ere, zientzi-ezagupenean ez bezala, hemen asko esan nahi dute gizonaren ohizko joera eta disposapenak. Zerekin duen gizonak ahaidetasun, eta hura bilatzen du, hari buruz abiatzen da.

Nolakoa den bizitze moralá, halakoa izan ohi da izpirituaren joera eta ernetasuna. Bizkortasun bat sortzen da eremu horretako gauzak sumatu eta ulertzeko. San Joanen ebanjelioan behin eta berriz gogoratzen zaigu disposapen moralen garrantzia. Ongi disposaturik den gizona baitan plegu bat, ekarritasun edo sentikortasun bat pizten da kanpoko seinaleak adierazten dutena ulertzeko. Eta, aldiz, gaizki disposaturik ego-teak, itsu, sor eta gor bihurtzen du gizona goi errealtate horietarako. Laburzki: Egia egiten duena argira hurbiltzen da (Ikus Jo 3,19; 7,7 eta passim). Eta kontrara, alferrik dira seinaleak barnetik itxia dagoenarentzat (Ikus Jo 9,30-34; 11,45-50; 12,37).

Zortzigarren Kapitula

FEDEA ELIZAREN GALTZARREAN (1)

Gauza guztiz pertsonala da fedea: norberak Kristorekin egiten duen topo egite bat, alegia. Baina Elizaz ere badu zer-ikusi. Eta fedeari buruzko azalpena egiterakoan alderdi hau ezin utzizkoa da.

Fedea onartzen duenean gizona Elizaren galtzarrean hartua izan ohi da eta nolazpait Elizaren eskutik hartzen du fedea. Agerkundeak badu egitura bat soziala.

Honekin ez dugu esan nahi lege sozialen fruitua dela fedea: hori ez; Jainkoak sortarazten du libreki fedea —gizonari bortxa egin gabe, alegia—. Halaz guztiz, fedea komunitatean jaio eta hazi ohi da. Eliza da kristau fedearen etxea, hots, fedearen hazlekua.

Eliza eta fedea

Elizak, bada, zer-ikusi eta zer-egin apartekoa du fedearen arazo honetan.

Lehenengo eta behin, federako bidean —aurreko kapituluan ikusi genuen bezala— seinale edo ezaugarri batzuk egon ohi dira, arrazoiaren aitzinean fedea sinesgarri ager dadin. Baina seinale horietarik ateratzen diren ondorioak ez dira indibiduo soilaren kargura uzten. Komunitateak berak nolazpait kontrolatzen eta kritikatzten ditu ondorio horiek.

Gainera, Eliza bera ere, errealitate bizia den aldetik, federa erakartzeko seinale bihurtzen da, eta seinalerik eraginkorra (2). Komunitatezko jitea du, beraz, fedeak.

Ez gizonengandik heldu delako, noski. Jainkoak sortarazten du fedea, baina giza-naturelezan txertatua. Jainkoaganako bidean gizona gi-

(1) Ikus J. TRÜTSCH, "Explicación teológica de la fe" in *Mysterium Salutis* I, 948. orr.

(2) Ikus DS 3013.

zonarentzat bide gertatzen da. Banakoaren fedea orotasunaren fedean sortua eta txertatua bezala dago. Azken batean, Elizak sinesten du eta banakoak —indibiduok— Elizaren galtzarrean bizi du bere sinestea. Eta alderantziz: banakoak sinesten du eta Elizak haren bidez du sinesten. Eliza ez da aurkitzen moztua eta isolatua banakoaren aurrean, banakoagan bizi da.

Fededuna ez dago bakarrik. Fededun komunitate baten membro da. Komunitate horrek bere fedea komunitariozki aitortu behar du. Hori da sinboloaren zeregina eta esanahia. Elizan bada dotrinazko predikazio bat, badira arauak, epaiak eta anatemak. Guzti horri esker, fededunak bat datoz sinestean.

Fedezko komunitatean bakoitzak eman eta hartu ohi du. Bakoitzak hartzen du bere fedea *Fedearen egile* (cf. Hebr 12,2) den Jesusgandik, baina hartzen du besteekin lokarria duela.

Ezaguna da harako partiketa hura *Eliza irakasle* eta *Eliza ikaslearen* artean. Partiketa hau, ordea, ez da alde guztiz zehatz-zuzena. Elizan bada, hori bai, irakasteko kargua, eta besteei irakaspen hori Kristorena balitz bezala hartu behar dute (Lc 10,16). Baina, beste aldetik, irakasle horiek ez dira fedearen jaun eta jabe. Hitzaren entzule esaneko dira. Eta berroiei ere Elizaren komunitatean ematen zaie fedea.

Eliza ikaslea, aldiz, ez da xoilki ikasle. Jaunaren entzule eta jarraitzale den oro, bera ere aitortu bihurtzen da, eta neurri batean baita irakasle ere.

Elizan gertatzen den fede-batasuna

Fedea ba ote da guztiekiko edo taldeko sujetu bat, hots, sujetu kolektibo bat?

Bai, noski, baina puntu hau zuzen ulertu behar da. Indibiduo bakoitzaren fedeak aurretik fedezko komunitatea suposatzen du —*fede* hitza “fides qua creditur” esanahian hartuz—. Alde horretatik lehenago da Eliza, bere membroak baino —ez denboran—. Indibiduo soila komunitatearen fedetik bizi da.

Bataio-eske datorrenari galdetzen zaio: —Zer eskatzen diozu Elizari? Eta erantzuna: —Fedea. *Eliza* izenaz hemen adierazten dena zinetako errealitate bat da.

Zer motatakoa, ordea? Ez dezagun gorputzaren irudia urrunegi eraman. Azken finean, membro bakoitza pertsona da, bere eskuko da, etab.

Baina bada zinetako batasun bat, Agerkundera bukatua denez gero, eta fedearen altxorra ondare bezala Elizan gordetzen denez gero. Altxor horrek ondarea zaintzen duen sujetuaren batasunean bakarrik iraun dezake. Fedezko batasuna Irakasle den Elizan gertatzen da. Baina baita Ikasle den Elizan ere, zeren aihen-adarrek mahatsondoarekin bat egiten baitute.

Batasun honek iturburua du Kristo baitan, zeinengandik bizi baitira Elizako menbroak, fedeez Berari elkaturik (Eph 3,17).

Hebertarren epistolak dioenez (12,2), Kristo da fedearen egile edo sorburu. Kristori ere aitortu behar zaizkio, bai fedea eta bai esperantza; ez horiek gugan dituzten itzal eta mugekin, ordea. Beraz, Kristok fededunengan fedezko bizi bat landatzen du.

Kristo zinez dago presente fededunetan, eta presentzia horren indarrez denok gorputz bat osatzen dugu Kristo baitan (Rom 12,5). Kristok bere iduriko eta antzeko egiten du Eliza.

Fededunen batasuna ez da, bada, soilki eta bakarrik, pertsonen multzo edo bilduma bat, kanpoaldeko lokarri batzuen bidez bateratua.

Mendeen gaineratik bat

Komunitate hau ez da horizontalki bakarrik hartu behar —hots, geografik hedaduran soilki—. Badu beste alderdi bat ere, denborari dagokiona, esan nahi baita, alderdi bertikala. Elizan bada tradizio bat. Kristautasuna erlijio historikoa da. Behin eta betiko gertatu ziren gertaera batzuen inguruan errotua da. Gertaera horiek gure salbaziorako duten balioa ez da sekulan agortuko. Ez dago, bada, lehenaz lokarriak hausterik. Eta, hain zuzen, etorkizunari leial egon beharrek galerazten digu lokarri-mozte hau.

Progresismoa eta Tradizionalismoa, hein batean, bi-biak dira Elizan beharrezko. Behin eta betiko gertatu zenari leial egotea: horra Elizaren lege nagusi eta oinarri-oinarritzkoa. Hartutako ondarea etorkizunari pasa arazi behar dio.

Baina, beste aldetik, Elizak, egotzi zaion egitekoari leial egongo baldin bada, behar ditu, baita ere, denborei egokituak diren formak bilatu, ez moda segitzeagatik, bere zereginari hobekiago erantzuteagatik baizik. Historiaren une batzuetan egoki ziren gauza batzuk etorkizunerako desegoki direla erabakitzea berez ez da iragana gaitzestea. Bada erlatibismo zuzen bat, joan denboratako obra batzuk konprenitzen eta ontzat hartzen dakiena. obra horiek betiko erregelatzat hartu gabe.

Eliza, sakramentu-gisa egituratua

Azken Kontzilioak behin eta berriz errepikatzen du Eliza sakramentu-suerte bat dela, sakramentu-itxura edo egitura duela, alegia, eta oinarritzko sakramentu honetan dutela beren erroa Elizako zazpi sakramentuek (1).

(1) Ikus "Lumen Gentium" 1, 9, 48 etab. Ikus GÉRARD PHILIPS, *La Iglesia y su misterio en el Concilio Vaticano II*, Herder; I, p. 93. — DIONISIO LLAMAZARES, *Derecho Canónico Fundamental*, León 1980; p. 151ss.

Jakina denez, sakramentua bikoitza izan ohi da, bi parte edo osagaiz osatutako izakia, alegia. Parte bat du jainkozkoa, ezin ikusizkoa, izpirituala. Baina badu beste bat ageria, materialzkoa. Materialzko alderdi hau da nolerabait bestearen seinale eta sostengu, eta beronezaz baliatzen da Jainkoa bere grazia partitzeko. Beste hitzez esanik, parte material hori tresna bezala erabiltzen du Jainkoak gure salbazio-lanean.

Elizan ere gauza bera gertatzen dela ikusten dugu. Jainkoak munduan jarri duen seinale handia: hori da Eliza. Jainkoak gurekin duen Elkarte edo Akordioaren seinalea. Elizaren bidez Kristo presente egiten da munduan.

Eliza ere bi atalez da osatua. Eta alde honetatik badu antza Jesusen bi naturalezkin. Jesusek bazuen naturaleza bat gizatiarra eta beste bat jainkotiarra. Guretzat, ordea, lehenbizikoa besterako bide eta zubi bezala da. Gisa berean gertatzen da Elizarekin eta Elizako sakramentuekin ere (1).

Ikuskera hau urrunago eramanez, esan behar da Kristo bera dela lehen sakramentua, Jainkoak guri prantatu diguna. Jesukristogan gizonak topo egiten du Jainkoarekin. Jainkoak Jesukristo erabiltzen du bere burua eta asmoak guri agertzeko eta bere grazia gugana zabaltzeko. Kristo izango litzateke, bada, lehen sakramentua edo jatorrizko sakramentua. Eta Eliza, horren segida edo jarraipen bezala hartu eta ulertu behar da.

Gainerakoan, eztabaidak dira katoliko eta protestanteen artean sakramentuei buruz. Protestanteek diote sakramentua bere materialtasunean ez dela deus. Fedea xoilki dela salbagarri. Fededunak, alegia, sakramentua fedez hartzen duenean, fede horren indarrez hartzen duela grazia; beraz, sakramentu huts-soilak ez duela bat ere balio.

Katolikoarentzat, ordea, gauzak ez dira horrela. Definiturik dago sakramentuek "ex opere operato" ematen dutela grazia (2); sakramentua bera dela grazi emaile, alegia. Baina, jakina, fedez hartu behar da sakramentua, eta bitartean diren traba eta oztopoak kenduz. "Opus operatum" delakoak ez du esan nahi, bada, sakramentua hartu hutsez, eta beste gabe, grazia ematen zaigunik.

Sakramentua bera ez dela deus eta fedeak egiten duela guztia esateak, gehiegitxo esatea dirudi.

Jainkoak gure salbaziorako antolatu duen ekonomiak Gizakunde edo Enkarnaziozko egitura du. Bere Semea bidali zigun, baina gizon egina. Eta gizatasun hori da guretzat bide, zubi eta bitarteko; Jainkoak gurekiko erabili duen salbazio-tresna, alegia.

Antzera gertatzen da sakramentuekin ere. Materialtasun bat, gorpuztasun eta ageritasun bat duten obrak dira; obra horiek obratuz eta baldinkizun batzuk betez, Jainkoak bere grazia ematen digu.

(1) Ikus "Lumen Gentium", 8.

(2) DS 1608.

Eliza ere taxu horretara taxaturik dago. Elizak ere badu parte bat ageria, materiala; badu gorpuztasun bat, alegia. Eta gorputzezko alderdi hori da, hain zuzen, Jainkoak gure salbamenerako tresna bezala darabilena. Izan ere, azken finean, gizona ez da izpiritu hutsa.

Elizaren esparru ageritik kanpoan direnak

Kristo baldin bada Aitaganako bide bakarra, eta Elizatik kanpoan ez salbaziorik eta ez federik ez baldin bada (1), zer egoeratan dira Kristoren predikua entzun ez duten gizonak, Elizatik kanpoan bizi eta hiltzen direnak? Salbaziotik saihestuak gelditzen ote dira, federik gabe Jainkoaren gogarako izatea posible ez denaz geroztik? (Hebr 11,6).

Egoera horretan diren gizonak gizadiaren zatirik handiena osatzen dute. Hemen ez du balio ezin ikusizko Eliza batetara ihes egiteak. Ez dago Eliza bat baizik, sozialki taxutua, Apostoluen gain oinarritua eta Kristogandik guregana zuzen heldu dena. Elizan badaude, hori bai, ageri diren eta ageri ez diren gauzak; baina ez bi Eliza, bata ageria eta bestea ikusi ezina.

Gure mendeko gizonari arazo honek kezka larria sortzen dio, Ertarokoari ez bezala. Izan ere, Elizaren esparrutik kanpoan direnen kopuruaz hobekiago jabetzen gara gaur.

Fedea, Kristoren fedea, Elizaren galtzarrean bizi den fedea, salbaziorako ezinbestekoa baldin bada, badirudi kanpoan direnentzat ez dela salbaziorik.

Eta zinez, eta fedearen iturriei leialtasun gorde nahirik, joan mendeetako teologo eta idazle batzuek hala pentsatu dute: kristau ez diren guztiak kondenatzen direla, alegia. Gure Axularren liburuan, eta bai San Frantzisko Xabierrekoaren eskutitzetan ere, bada ustekizun horren aztararik (2).

Nola elkarrekin lotu egiazko Elizaren eta fedearen beharra eta gizon horien egoera? Hor zegoen koxka.

Beste aldetik, iturriek berek esaten dute Jainkoak zinez nahi duela gizon guztien salbamenena, eta esan hori ere aintzakotzat hartu behar da. (Ikus 1 Tim 2,4).

Teologia gutxika-gutxika eta ez atzera-aurrera eta itzulinguru asko egin gabe, baina badirudi arazo honen ulerketa hobe batetara heldu dela. Azken Konzilioa bera era ikuspegi zabalago batez mintzo zaigu puntu honi buruz (3).

Egia da munduan diren erlijio guztiak ez direla oin berean jarri behar. Azken finean, bat eta bakarra da Jainkoak agertutako erlijio eta fe-

(1) DS 870.

(2) Ikus Ax 93. — SAN FRANCISCO JAVIER, *Cartas y Escritos*, BAC, p. 148.

(3) Cf. "Lumen Gentium", 16; "Ad Gentes", 7.

dea. Baina gizonak, besterik ezagutzen ez duen bitartean, ez ote ditu beste erlijioetan egiazko erlijioaren ordezeko batzuk? Eta erlijio horiek, gizon horiekiko, ez ote dute nolazpait Elizaren ofizioa betetzen? Erlijio horiek ez ote dira nolerabait Elizaren itxura edo promes batzuk? Erlijio horietan badakigu badirela zuzen ez diren gauzak, baina badira balios direnak ere (1). Ikuskera honek ez du, den gutiena ere, Mixioen premia eta garrantzia menderatu behar.

Gizona Kristori buruz kreatua izan da. Hori hala delarik, uste izateko da beste erlijioek ere, berek ez jakinarren, Elizarekin lokarriren bat izan dezaketela. Beren huts eta akats guztiekin, kristautasunaren irudi eta ernamuin batzuk bezala dirateke. Lagundu beharko zaie barnean daramatena argi zabalera atera dezaten. Elizaren esparrutik kanpo ere bizi da Elizarako gogoia eta Kristoganako joera, erdi aztamuka ibili dabilena.

Elizatik kanpora ez da federik, zeren azken batean Eliza instituzionaletik lekora aurkitzen den fede orok Elizaren fedez baitu zer-ikusi.

(1) Ikus azken Kontzilioaren gutuna: "Nostra aetate". Ikus, baita ere, beherago, 22. Kapitulua, Kontzilioaren Adierazpen honen gainean.

Bederatzigarren Kapitula

ESKATOLOGI OLDARRA KRISTAU FEDEAN ⁽¹⁾

Sortaldeko kristauei buruz mintzaldi bat entzutea gertatu zitzaidan. Gogoan dut bertan entzundako zerbait: Fededuna, elizan sartzen dene-ko, geroke munduarekin har-emanean jartzen dela eta hartako sentipen bizi-zolia erakusten duela. Zerutarrekin, Jainkoarekin, Kristorekin, Ama Birjinarekin, Sainduekin, Aingeruekin har-emanean delako sentipena, alegia. Egia esan, bereizgarri hau ez dagokie sortaldeko kristauei bakarrik, nahiz eta haiengan aparteko modu batean nabarmen izan. Kristau fedearen muinari dagokion zerbait ukitzen dugu hemen.

Kristaua esperoan bizi da, geroke bizitzearen aiduru. Eskatologiari buruz —hots, etortzeko den munduari buruz— abiatu bezala dago. Berak badaki amets dituen goi-ondasunak ez direla lurgain honetan ematen, nahiz eta beroien berme bat eta halako zantzu eta hasiera bat hemen ere hartzen duen.

Eskatologi oldar hau ezin utzizkoa du kristau fedeak. Hebertarren epistola luze eta hedatuki mintzo da horretaz: nola, alegia, fededuna gero-ko hiri horren irrikan bizi den (Hebr 11,10-14 *et passim*).

Azken Kontzilioko “Lumen Gentium” gutunak kapitulu bat osoa du —VII.a— gai honi eskainia.

Bertan esaten zaigu baietz, bizitze berria Kristoren piztueraz eta Izpiritu Sainduaren etorreraz hasia dela, eta bizitze horrek Elizan dirauela. Aldien betea heldu da, bada. Jainko-semeen izena, eta bai izana ere, badugu (1 Jo 3,1); baina izango garena ez da oraino ageri. Erbestean bizi gara, Jaunarengandik urrun (2 Cor 5,6). Erne eta zain bizi behar dugu (Mt 25,31).

“Dadukat bada mende huntako jasankizunak, egun batez gure baitan agertu behar den ospearen bethe ez direla” (Rom 8,18; Duvoisin itzulpena).

(1) Ikus LG cap. 7; GS n.º 34, 37, 38, 39, 43, 57; TRUTSCH, o. cit., p. 958ss; DANIELOU, *El escándalo de la verdad*, XI.

Sainduen elkartasuna

Hiru Elizen kontua, edo hobeki esan, Eliza bakararren hiru egoeren kontua aipatzen du gero Kontzilioak: Batzuk erromes antzo lurgainean joan doaz, beste batzuk hil eta Garbitokian daude, besteok, azkenik, gloriaraz jantzirik, Jainkoa bera ikusten dute zeruan. Baina guztiek Eliza bakarra osatzen dute (Cf. Eph 4,16), ezen Kristorenak dira guztiak, eta Kristoren Izpiritua hartu dute, eta hala elkarturik daude (1).

Hil direnekin gure elkartasuna eten ez, baina sendotu egiten da goi ondasunen banatzea dela medio. Zerutarrek, Kristorekin elkartuago daudelako, lurreko Eliza saindutasunean gero eta gehiago finkatzen dute. Betiko herrira heldu direnez gero, han gure alde eskatzen dute Aitaren aitzinean.

Ibiltarien Eliza honek —dio oraindik Kontzilioak— hasieratik aitor-tu du sainduen elkartasuna, hots, hildakoengatik erregutu, sainduak benerratu eta horien bitartekotza bilatu egin izan du.

Kristori leialki jarraiki ziotenen biziari so eginez, guk ere saindutasun-bidea ikasten dugu. Gu bezalako gizon-emakume izan eta Kristoren ispilu bihurtu zirenen bizitzean, Jainkoak aparteko modu batez bere presentzia eta aurpegia ager arazten digu. Beroien bidez hitz egiten eta erreinuaren ezaugarri bat eskaintzen digu. Guztiz egoki eta bidezko da, beraz, Jesusen lagun eta adiskide horiek maita ditzagun.

Honeraino, Kontzilia.

Lehen kristauak eta “parusia”

Komunitate eskatologikoa da, bada, Eliza.

Dirudienez, hasiberri hartan, “parusia”, hots, Kristoren bir-etorrera hurbil zelako ustetan bizi ziren kristauak.

Kristok berriro etorriko zela esan zuen (Mt 25). Eta psikologi aldetik, lehen kristau haiek Kristoren esanari leial egoteko, beharbada hori zen bide bakarra, hots, etorrera hau hurbil eta berbertako gertakizuna zela pentsatzea. Baina Kristok ez zuen esan noiz gertatuko zen etorrera hori. Gainera, Ebanjelioan bertan esaten da ordua ez dela bat ere segurua, inork ere ez dakiela ez eguna eta ez ordua —Semeak berak ere ez, Aitak xoilki— (Mc 13,32).

Xehetasun hauek ebanjelioan egonarren, badirudi lehen kristauak ez zituztela berehalakoan asimilatu. Urteak beharko ziren horretarako. Denboraren buruan kristauak ikasi dute lurreko errealitateak ere behar direla aintzakotzat hartu.

(1) Ikus Eskatologiari buruz Fedearen Dotrinarako Kongregazioak atera zuen gutuna (1979-V-17). Ikus “Ecclesia” (28-VII-1979), 937.

Baina hori ikasiagatik, Eskatologiaren oldarra beti hor dago. Kristauak orain ere badaki bere egiazko herria zeruan dela. Orain ere Jauna noiz etorriko zain dago. Parusiaren aiduru egoteak guretzat ere balio du, hasierako Elizarentzat balio zuen bezala.

Itxaroteko jarrera hori ezin utzizkoa du kristau fedeak. Jainkoak agertzen digun salbazioa eskerronez onartzen dugu. Egia da salbazio hori ez dugula osoki gerorako utzi behar. Orain presentean ere gertatzen da. "Orain Jainkoaren haur gara, baina oraino ezta agertu izanen garena" (1 Jo 3,2; Leizarragak itzuli bezala). Esperantzazko jarrera da salbazio honen ezaugarria. "Ezen speranzaz salbatu izan gara" (Rom 8,23). "Baldin ikusten eztugunaz speranza badugu, pazientziaz igurikitzen dugu" (Rom 8,24).

Fededuna betiko bizitzearen jabe da jadanik (Ikus Jo 5,24). Baina azken eguneko piztuerara ez da oraino gertatu (Jo 6,40).

Dagoeneko, eta oraindik ez

San Joanengan batez ere ezagun da dialektika edo kulunka hori: *dagoeneko* alde batetik, eta *oraindik ez* bestetik. Igurikitzen dugun hori hemen eta orain ere ematen zaigu; halaz guztiz, zerbait uzten da gerorako.

Eskatologi oldar honen ondorioz lurreko gauzak hasieran ez dira aintzakotzat hartzen ere. Urteak joan eta urteak etorri, ordea, kasu ematen zaie. Eta gaur, azkenik, teologiak aztergai bezala hartzen ditu gauza horiek.

Ez dugu zer harriturik. Behin-behineko errealitateak izanarren, hemengo gauzek badute beren pisu eta garrantzia. Jainkoa, Kondairaz baliaturik, bere Eliza hezitzen ari da lurreko gauzak zinetan har ditzan; baina horrek ez du esan nahi eskatologi oldarra geldiarazi behar denik. Hori ere gerta daiteke, ordea, ezen desbiderapen baten arriskua beti hor dago.

Bai bada, gaur batez ere, trukapen baten arriskua. Zeruko parabisua lurreko parabisuaz trukatzearren arriskua. Hori munstrokeria litzateke, Kristori traiziorik beltzena gitea.

"Taunaganik absent den fededunarentzat" (Ikus 2 Cor 5,6) korapilo hau, hots, *Dagoeneko* alde batetik, eta *Oraindik ez* bestetik, ez da askatzen erraza. Saria ez zaio oraindik eman, baina hor du bermea, eta berme hori Izpiritu Saindua bera da (2 Cor 5,5). Fededunak betiko bizitzea du ondare, eta bizitze horren jabe da oraidanik, gal badezake ere. Se-mearen Izpiritua eman zaio, baina halaz guztiz beldur-ikaraz obratu behar du bere salbamen-lana (Phil 2,12).

Salbaturik gaudelako ziurtasuna atrebentzia kaltegarria litzateke; galdurik gaudelako ziurtasuna, aldiz, etsimendu guztiz hondatzailea. Ho-

rra bi jarrera, bata bestea bezain txar eta arbuiagarriak. Erdian koka-tzen da esperantzaren jarrera hori, eta hau da fede jatorraren bide-la-guna.

Sinestea eta ikustea

Fededuna oraidanik eta berbertatik betiko bizitzearen jabe dela, esan dugu. Bizitze horren alderdi bat, ezagueraz zer-ikusi duena, fedearen ize-naz izendatzen dugu; oldarra, berriz, esperantzarenaz erlazionatzen du-gularik.

Ikuspena izan ohi da ezagupenaren era edo tankera konplitu. Baina ikuspen hau goian ematen da, ez hemen. Hain zuzen, horretan jartzen da hango eta hemengoaren arteko aldearen gorabehera guztia. “Orduan be-gitartez-begitarte”, “orain mirail batez ikusten dugu ilunki” (1 Cor 13, 12). Haatik, bietan da ikuste-suerte bat. Egunen batean zerutar egingo gaituen ezaguera horren dastapen bat hemen ere alde zurretik ematen zaigu. Bada fedearen esperientzia bat, fedearen begiradari dagokiona.

Esperientzia hori gora-behera, ordea, fedean “propter auctoritatem” sinesten da, Jainkoaren esana lekukotzat hartuz, eta ez gauzaren barre-naldea arrazoiaren argi naturalaz barnatzen dugulako(1). Hala ere, fe-dearen deiari bere burua eman diona ezin dagoke bere sinestearen espe-rientzia zerbait gabe.

Fedea Kristorekin topo egite bat da; ez dugu, bada, ahantzi behar ze-ruan ikusiko dugun Jainko horrek ez duela alde batera uzten Kristo eta Kristoren gizatasuna. Kristoren bir-etorrera itxarotea: hori da fedearen bereizgarririk jatorrena. Jesus da fedearen kapitaina eta konplizalea (Hebr 12,2). Haren ezagupenaren partaide izanik, ikusiko dugu Jainkoa den be-zala (1 Jo 3,2). Gaurdanik ere fededuna Kristok biziarazten du. San Pau-lok esango du Kristorekin batean Jainkoak piztu eta zeruetan jar arazi gaituela (Eph 2,6).

Ama Sorazu zumaiarrak kristau mistikaren mailarik gorenak deskri-batu dizkigu, eta horietan, hain zuzen, Jainkoaren Seme gizon eгина age-ri da (2). Bere Autobiografian, berriz, hunkigarriro erakusten digu behin azaldu zitzaiona: Kristo dela Jainkotasunaren herrian aginpidea duen e-txeko jauna (3).

Fededuna, goi-ondasunen testigu

Fededuna beste munduko gizona da (Phil 3,20). Goi-aldean dauden gauzak bilatzeko agintzen dio Paulok (Col 3,1). San Pedrok, aldiz, arrotz eta bideazkoen antzera bizi gaitezela esango digu (1 Pt 2,11).

(1) DS 3008.

(2) *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*, cap. 21; 2.^a ed. p. 270.

(3) *Autobiografía*, l. 4.^o, c. 7.^o; p. 299ss.

Orduan, mundu honetako herritasunari uko egin behar ote dio fededunak? Zinez, kristauak ezin bota ditzake bere erroak hain barna eta sakonki munduan, nola esperantzarik ez duenak egin ohi baitu (Ikus 1 Thes 4,13). Kristauak ezin har dezake atsolututzat mundu igarokor honen itxura (1 Cor 7,31).

Baina, bestalde, mundu honetako gauzak ezteus eta guti baliokotzat jotzea ere ez da biderik onena betierekoaren garrantzia azpimarratzeko. Aitzitik, lurreko gauzen garrantziak zutik irauten duelako —eta are barnatuago dugulako—, horregatik eta horrela neur daiteke hobeki betierekoaren balioa.

Baina, hori bai, kristauak batez ere betiereko horren testigu eta aitorle izan behar du munduan. Jainkoarekin dugun erlazioaren aitorle. Eta Jainkoarekiko erlazio hori kristau fedean ez da preseski Kreazioaren eta Izadiaren ikuspegitik hartzen: beste maila batekoa da. Izan ere, Kristo dela bide, Jainkoak bere etxeko egin gaitu.

Zilegi izan bedi fedearen birjintasunaz ere hitz bat esatea (Ikus 2 Cor 11,2). Jainkoarekiko gure erlazioak hain dira bakarrik, non beste inor ez baitute tartean sartzen uzten. Eta horren seinale, hor da gorputzeko birjintasuna, zeini Elizak ez baitiezaioke uko egin.

Gauza bera esan behar da fedearen pobretasunaz. Lurreko ondasunen gainetik dago eta egon behar du Elizak. Fededun den inor ez dagoke pobreziaren lege honetatik aske; eta bokazio hori eman zaienak baita seinale ageriekin ere erakutsi eta agertu behar dute pobretasuna.

Enkarnaziozko kristautasuna

Gaur modan jarri da Gizakundezko edo Enkarnaziozko kristautasunaz hitz egitea. Ikusmolde honen arabera, kristauari lurreko arazoetan gehiago konprometa dadin eskatzen zaio. XIX. mendeko kristauei, berriz, hoben hau egozten zaie, hots: lurreko gauzak ez zituztela aintzakotzat hartzen; betierekoaz soilki arduratzen zirela.

Baina beste muturrera joaz, arriskua berehala duzu atetan: lurtar balioak atsolututzat hartzeko arriskua. Izan ere, eta ustekizun horren eredura, kristautasunak balioko luke lurreko hirigintzarako laguntzen duen neurrian, eta ez gehiago. Baina behin bide horretatik abiatuz gero, zer bilakatuko litzateke kristautasun-mota hau? Humanismo-suerte bat, kristau kutsu zerbaitez gantzutua; besterik ez.

Enkarnazio hitza halakoez aho-mihitan hartzen dutenean, zer adierazi nahi dute? Ez preseski kristau teologiak hitz honekin beti adierazi duena. Hitz honi gaur eman nahi zaion adiera pixka bat uherra da, hots: kristautasunak alde batera utzi behar duela jainkotiar alderdia eta osoki eta bete-betean gizatiar alderdiari lotu behar dela. Beste hitzez esan ki, humanismo-suerte bat bihurtu beste biderik ez duela.

Beraz, halako oposaketa bat jartzen dizue: Jainkoa ala gizona. Badirudi, bestela, bi jabetri gorde behar diozula leialtasuna, eta hori berez zailtxo izan. Kristauaren bizitzea urratua egongo litzateke: alde batetik Jainkoa duzu tiraka, eta bestetik, gizona. Alde batetik, otoitzaren erakarmena sentitzen duzu, eta horrek lurreko gauzak baztertu eta Jainkoagana joateko eskatzen dizu; eta, bestetik, gizarteko betebeharrekin lurreko gauzetan gure arreta osoa ipintzeko eskatzen digute...

Zinez, gauzak hala balira, ondo zorigaitzokoa izango litzateke gure bizitzea. Jainkoaz arduratzean, besteotaz ez arduratzearen damua izango genuke; eta besteotaz arduratzean, Jainkoa baztertu izanaren damua.

Baina planteaketa hau zuzena ote da gero?

Giza bizitzaren batasuna

Aski da, ordea, Bibliari so egitea, gizonak bi zentru ez dituela jakiteko. Bibliako giza irudiak erabateko batasun osoa du.

Errealitatearen aldetik, behintzat —gauzen aldetik, alegia—, oposaketarik ez dago; izatekotan, guk geure hobenez sartzen dugu banaketa eta zatiketa.

Oposaketa ez da, bada, Jainko eta gizonaren artean. Oposaketa dago egiazko Jainkoaren eta sasi-jainkoen artean. Egiazko Jainkoaren ordezkariak beste jainko gezurrezko bat sartzen dugunean, alegia. Bi atsoluturentzat ez dago tokirik, bistan da. Bi atsoluturen aurrean, orduan bai, bien artean hautaketa egin beharrean zara. Baina kristau erlijioak eskaintzen digun gizonaren irudian ez da horrelakorik.

Bibliako lehen kapituluei kasu ematen badiegu, gizonak han hiru izari edo dimentsio dituela ikusiko dugu:

Lehenik: Munduarekiko nagusitza. Jainkoak animalia guztiak gizonaren aurretik pasa arazten ditu. Gizonak izena ipintzen die eta era horretara animalien gaineko bere nagusigoa agertzen du. Gero baratzean jarria da, lant dezan eta dena bere zerbitzutan egon dadin. Hortik garbi ageri da lurtar ekintza gizonari dagokiola. Azterketak, ikerketak eta aurrerapenak ere ekintza honen barnean sartzen dira, eta kristauak ez du hargatik zer beldurrik izan.

Bigarrenik: besteekin lokarria. “Ez da on gizona bakarrik egotea”. Eba-ren sorketarako Bibliak ez du arrazoi bezala gizadiaren iraupena aipatzen, bakartasuna ez dela on baizik. Beraz, besteekin har-emanetan egotea dagokio gizonari. Gizarteko har-emanak giza izakeraren ondorio dira, bada.

Hirugarrenik: adorazioa. Gizona Jainkoaren irudira kreatua izan da. Alde batetik, bera baino beherago den munduaren jabe da. Beste alde ba-

tetik, bere kidekoekin har-emanen egon behar du. Baina, azkenik, bera baino gorago dagoenaren nagusitasuna ere aitortu behar du. Sei egun ditu munduarekiko bere nagusitasuna erakusteko, eta zazpigarrena Jainkoaren jauntasuna aitortzeko (eta atseden hartzeko ere bai, noski).

Azken dimentsio hau ere gizonaren muinari dagokiona da. Gizonak bere izakera Jainkoagandik du hartua. Bizitzeak berak Jainkoagana garamatza. Jainkoari geure menpetasuna aitortzen diogunean, orduan, eta orduan bakarrik, gaude egian.

Jainkoarekiko erlazioa ez da, bada, gainetiko zerbait, gizatasunaren gainetik erantsia. Gizatasunaren muinari dagokio. Adorazio gabeko gizona ez da alde guztiz gizon. Jainkogabeko humanismoa salatzen dugunean, ez dugu Jainkoa bakarrik defenditzen, baita gizona bera ere defenditzen ari gara.

Gaur kristau batzuek uste dute kristau eginbideak betetzeko aski dela gizarte-arazoetan murgildurik egotea. Hori, ordea, ez da aski. Jainkoarekiko erlazio eta amodioa ere hor dago. Gizonaren dimentsio hau ez da ixiltzekoa.

Premiarik premiatsuena, gaur

Aitzitik, gaur kristau eginbideetan premiatsuena haxe dela esango nuke: Jainkoa egungo mundu honetan presente egon dadin arduratzea.

Teknikari bagagozkio, kristaurik gabe ere eraiki daiteke mundu hau. Demokrazia popularretan injinieruak badira, eta, segur aski, bihar ere izanen dira. Gure zibilizazioan arriskutan dena beste zerbait da, hots: adorazioa.

Horregatik, honako galdera hau ez da bat ere alferra: Egungo gazte batek nola laguntzen dio gehiago zibilizazioari: komentu batean sartuz, ala lantegi batean egonez?

Adorazio gabeko gizartea mundu itoa eta itogarria bihurtzen da.

Guzti hori egia izanik ere, praktikan badira istiluak, ordea. Nola elkarrekin lotu eta uztartu erlijiozko bizitzea eta lurreko arazoak? Inolaz ere ezin onart daiteke —nahiz eta frankotan hori egiten den— Jainkoa alde batean eta lurreko arazoak bestean jartzea. Berez lurreko arazoak ez dira, ezin izan daitezke oztopo Jainkoarengana joateko.

Haatik, maiz egon ohi da ezin konpondu bat lurreko gure zereginen eta Jainkoarekin elkartasunezko bizitzearen artean.

Geure bizitzean behar dugu Jainkoa aurkitu. Nola, ordea?

Problema guztia eta bakarra haxe da: Jainkoagandik saihesten gaituzten gauzek Berarengana joateko bide bihurtu. Geu gara errudun. Izaikiak gaizki erabiltzen ditugulako, oztopo bihurtzen zaizkigu.

Bizitze izpiritualaren gorabehera guztia honetan datza, bada: bizitzeko gertaera eta arazoak oztopo izatetik bide izatera ekartzean. Hori lortzen denean, gure bizitzearen batasuna lorturik dago.

Izaki guztietan Jainkoa aurkitzen ikasi behar da. Eta hori gure eskuan dago(1).

Kontzilioaren irakaspena

Azken Kontzilioak lerro lodiz aspimarraturik utzi du irakaspen hau: fededunak, alegia, eta fededun delako, hain zuzen, zintzoki bete behar dituela lur honetako bere obligazio eta eginbideak.

Gauza hau ez da konprenitzen zaila. Lurreko hiriaren hiritar denez gero, fededunak behar ditu zintzoki bete hemengo eginbeharrak. Horrek, bestalde, ez du, den gutiena ere, beste alderdia ukatzen: goi-ondasunen gutizia ere behar duela beti piztu eta bizkortu.

Gainera, gogoan hartzekoa da beste ohar hau ere: “Izpiritu Sainduak —dio Kontzilioak— ez ditu berdin banatzen bere dohainak. Fededun batzuk bultzatzen ditu geroko bizitzearen eta geroko ondasunen testigu izatera. Beste batzuk, aldiz, deitzen ditu lur honetako arazoetan gizonen alde lan egitera” (2).

Laburzki: Kontzilioak gogoratu nahi izan du hemengo eginbeharren garrantzia, baina horrek ez du hil edo ahuldu behar kristau fedearen eskatologi oldarra.

(1) DANIELOU, *El escándalo de la verdad*, XI.

(2) Ikus “Gaudium et Spes” 34, 37, 38, 39, 43, 57.

Hamargarren Kapitula

FEDEAREN ANALISIA (“ANALYSIS FIDEI”) (1)

Auzia zertan den

“Crux theologorum”, hots, teologoen buru-hauskarria, deitua izan da hemen ukitzen dugun problema —gaingiroki bakarrik ukitzen duguna—. Teologoei buruko minik aski eman diena, alegia, irtenbidea bilatzeaz etsitzeraino.

Esan dezagun, dagoeneko, zertan den auzia, zer-nolako “impasse”ra heldu ziren gauzak, nola, planteaketa txar baten ondorioz, hartaratu ziren, eta, azkenik, zein den, itxuren arabera, planteaketa eta soluzio zuzena.

Hona hemen auziaren ardatza: nahi da fedea bere muinean analizatu, nahi da bere osagaietan deskonposatu. Bestela esan: nahi da jakin ea bakuna ala bikoitza den fedea, zati edo osagai ezberdinez osatua, ala erabatekoa eta zatiezina.

Zatiz konposatua baldin bada, nola elkartzen dira zatiok bata bestearekin?

Jesusen jantzia, Ebanjelioek diotenez, jostura gabekoa zen, zati ezina, erabatekoa (Jo 19,23). Horrelakoa ote da fedea? Azken finean, baietz esan behar dela dirudi.

Alde batetik, badakigu bertute teologala dela fedea, hots, Jainkoa artez eta zuzenki atzematen duen horietakoa. Eta hori, noski, Jainkoagandik beragandik heldu delako, zeruko sorkaria delako, graziaren fruitua delako. Alde honetatik begiraturaz, fedeak Jainkoa beste oinarriarik eta sustairirik ez du (2).

(1) J. TRÜTSCH, in *Mysterium Salutis*, I, 967ss. — J. ALFARO, *Fides Spes Caritas*, 424ss.

(2) Ikus supra Bigarren Kapitula.

Baina beste aldetik —hots, sinesgarritasun-aldetik begiratuz (1)—, badirudi lurrean duela bere zangoa eta motibo kreatuak direla fedearen sostengu eta zutabe.

Sinesgarritasun-motiboak hor dira, eta horien beharra ez du nehorik ere ukatzen. Baina fedea motibo hauen gainean eraikia dela esaten badugu, nola konpon daiteke hori lehen (2) esandakoaz, hots: Jainkoaren autoritatea dela fedezko baieztapenen oinarri bakarra?

Eta nola erdiets dezake fedeak ziurtasun mailarik gorena, azken finean argudio kreatu eta hutsezin ez direnen fruitua baldin bada?

Horra, hitz gutiz esanik, zertan den auzia.

“Peiorem sequitur conclusio partem”: honela dio silogismoaren erregela ezagun batek. Beraz, arrazoiketa mugatuetarik zintzilika dagoen ondorioa nola izan daiteke ziurtasun gorenaren duin edo hartzaile?

Behin eta berriz esana da aurreko kapituluetan zer-nolako hutsa egin den maiz azken mendeotan fedea esplikatzerakoan. Nola, alegia, Kartesianismoaren eraginez, teologian sartu zen razionalismo bista laburreko bat. Geometria edo Matematika itxurazko argudioekin behar zen dena frogatu, edo bestela ez zen onargarri.

Mentalitate horrek sudurra sartu zuen fedearen teologian beste inon baino gehiago.

Xede edo asmoa ez zen, berez, txarra: fedea arrazoiaren aurrean zuritu nahi zen, arrazoiaren auzitegian errugabe ager zedila, alegia. Baina horretarako baldintza zurrin eta hertsiegiak jartzen ziren.

Fedearen barnean zatiketa egiten zen era honetara: Gauza bat da sinesgarritasun-epaia, eta beste bat fedea bera edo fedezko eginkaria, hots, jauregiaren ataurrea eta jauregia bera, esango bagenu bezala.

Ataurreko gauzetan arrazoi soil-hutsak bere argudio eta ahalmen hutsez egin behar zuen lan guztia. Frogatu behar zen badela Jainko bat eta Jainko horrek kristau erlijioa agertu duela. Frogantza hori egin gabe ez zegoen fedearen santutegira sartzerik. Ziurtasun hauek eskuratu eta, egin behar zen gero beste urratsa, hots, jauregira sartu eta Jainkoak agertutako egiei sineste eman, eta hori Jainkoaren beraren autoritatean oinarriturik (bigarren parte hau bakarrik izango litzateke fedezko eginkari edo aktoa).

Baina gauzak horrela baldin badira —eta, egunoroko esperientzia lekuko, ez dira horrela—, nola uka azken finean fedea argudio mugadun batzuetarik zintzilika dagoela, eta “Peiorem sequitur conclusio partem” delako lege horren menpean erortzen dela?

(1) Ikus supra Zazpigarren Kapitulua.

(2) Ikus supra Laugarren Kapitulua.

Ez gara hemen hasiko teologo famatuek azken mendeotan korapilo hau askatzeko asmatu dituzten teoriak kontatzen.

Askiko dugu Billot-ena gogoratzeaz:

Billot jaunak honelatsu egiten du zatiketa: jauregi-ataurreko eremu horretan arrazoia da jaun eta nagusi, graziak ez du sarbiderik. Apologetikak bere argudioekin —filosofia eta historiatic hartutako frogantzez, alegia— frogatzen ditu fedearen aitzinekoak (“praeambula fidei”). Hori egin eta, sartzen zara jauregiaren barrenean: fedean, alegia. Eta orain jauregi-ataurreko argudioak alde batera utzi behar dituzu. Horiek ez dute gehiago eragite-indarrik. Fededunaren bailetza orain Jainkoaren autoritatean oinarritzen da soilki, eta, beraz, motibo honi zor zaion bezalako atxikitasun eta ziurtasunaz horniturik dago.

Baina esplikazio hau zuzena ote da, gero?

Gainera, gauzak horrela balira, gehienez ere Jainkoak agertutako gauzak bakarrik sartuko lirateke fedean (hots, “credenda”). Eta Jainkoa dela horien esale, hori ez: hori frogantza natural batzuen indarrez jakingo genuke. Beraz, hain garrantzitsua den puntu hau fedetik kanpora geldituko litzateke.

—“Nik fedezko egia hau —adibidez, Trinitate Saindua— sinesten dut, Jainkoak egia hori agertu duelako”. Beraz, sinestean motibo formala edo arrazoi nagusi, eta are bakarra, Jainkoaren autoritatea da (1).

Baina orain dator galdera: —“Jainkoak hori esan edo agertu duela nola dakizu, ordea?” Eta Billot-en erantzuna hauxe da: arrazoiaren frogantzen bidez.

Orduan, bistan da, dena dago arrazoiketa natural batzuetarik zintzilik (“Peiorem sequitur conclusio partem”).

Baina kristauak, sinesten duenean, ez ote du sinesten, bai Jainkoak esan duena, eta bai Jainkoa dela horien esalea ere? Hala dirudi.

Billot-ek honela defenditzen du bere teoria: —“Nik —hala dio berak— arrazoiaren arrazoiketen bidez dakit Jainkoa mintzatu dela. Beraz, hori ez da oraindik fede edo sinestea; jakite-suerte bat da, Filosofia eta Historiaren eremuko jakite-suerte bat. Gero, ordea, beste urratsa egiten da, urrats handia: Jainkoak esan duen hau eta hori eta beste hura Jainkoagatik beragatik soilki sinetsi”.

Eta aurreneko jakintza eskuratzeko balio izan duten argudioak, orain, bigarren une edo urratsean, bazterrerat uzten dira, kanpoan gelditzen dira.

Hori posible dela sinestarazteko, trenan ibilarazten duen lurruna dakar adibidetzat Billot jaunak. Lurrunak mugiarazten ditu gurpilak; lurruna zer moduz edo nola heldu den gurpil horietaraino, hori beste kontua da.

(1) Ikus gorago Laugarren Kapitulua.

Baina exenplu hau desegokia da oso. Lurrunaren prozesu mekanikoak zer-ikusi guti du ezagueraren munduko gauzekin.

Lurrunaren indarrez trena mugitzen da. Lurrun hori nola sortzen den etab., hori beste kuestio bat da. Bapo.

Baina ezagueraren munduan gauzak ez dira berdin, bereziki pertsona bat bera delarik bi ezaguera horien sujetu eta sostengu. Ni arrazoiketa mugadun eta natural batzuen indar hutsez heldu naiz Jainkoa mintzatu dela jakitera. Eta gero, Jainkoak agertutako gauzei sineste ematerakoan, motibo horiek alde batera utzi eta Jainkoaren autoritateagatik xoilki behar ditut egia horiek baieztatu. Abstrakzio hauek ba ote dute errealismo fitsik, gero? Ez dirudi.

Planteaketa txar baten ondorioak

Hemen planteaketa txarra dago hasieratik bertatik. Eta hala, irtenbide gabeko puntura heldu behar, nahi eta ez.

Zatitu ezina den gauzatan —fedean— zatiketa egin nahi izan da. Bi zati zeharo ezberdinez eta are denboraz ere bata bestetik aldenduak direnez osatua balego bezala hartu da fedea: lehen zatia, guztiz naturala; bigarrena, guztiz jainkozkoa.

Eta ez. Fedea zerbait jainkozko da, bakuna, ezin zatituzkoa, atalga-bea, sotila, erabatekoa.

Bestalde, egia da, baita ere, fedeak sinesgarri behar duela izan, eta hala agertu behar duela giza-arrazoiaren aurrean. Fedean, alegia, salborigelditzen direla giza-arrazoiaren eskubideak.

Ustez eta sinesgarritasuna salborigelditzea behar zela, egin izan da zatiketa hau.

Baina oker, ezen bakun dena ez da zatitu behar. Eta bestalde, sinesgarritasuna salborigelditzea, ez da horren beharrik.

Federa heltzeko nahi-eta-ez alde aurretik arrazoiak bi egia (Jainkoa badela eta mintzatu dela) naturalki frogatuak behar dituela izan, guztiz faltsoa da.

Gainera, arbitrarioki —teoriak hala eskaturik— uzten da fedetik kanpora Agerkundera aktiboki hartua (1). Jainkoa mintzo denean, hara zein den Hark adierazten digun lehen gauza: Bera dela mintzo dena, Jainkoa bera dela esalea. Eta fededunak hau sinetsi egiten du.

Beraz, fedean, bai Jainko esalea eta bai Hark esandakoa, bi-biak sartzen dira.

Teologiaren barrenean bada adar bat *Oinarrizko Teologia* edo *Teologia Fundamentala* deitzen dena. Teologiaren adar honek xede jakin bat du, hots: Kristau fedea arrazoiaren aurrean sinesgarri eta onargarri bi-

(1) Ikus supra Laugarren Kapitulua.

hurtzen duten frogantzak sistematikoki eta zientifikoki neurtzea. Baina jakintza bat denez, balio orokor eta objetiboa izan dezaketen argumentuak soilki kontutan hartzen ditu.

Guztiz bidezko da Teologian jakintza hau egotea. Baina honako hau ere esan behar da: gizon konkretu bat federa erakarria deneko maila eta Teologia-mota hau mugitzen deneko maila ez direla berdinak. Teologia mota honek, nahi eta ez, hartu duen metodoaren ondorioz, baztertzen ditu argumentu asko, orokorrak ez direlako, baina horietako batzuk, kasu jakin batean eta aitzingibel jakin batzuetan, guztiz errutsuak gerta daitezke.

Hau notatzekoa da, ezen fedearen esplikazioan sortu diren nahasteak, neurri handi batean, hementxe dute sorburua. Pentsatu da, alegia, jakintza horretan onartzen diren argumentuak bakarrik dutela balio sendoa, eta derrigorrez horien bidez heldu behar dela federa. Baina —berriro esango dugu— jakintza abstraktu baten maila eta gizon konkretuarena ez dira berberak.

Eta norbaiti kasu konkretu batean, eta berarengan gertatu diren zirkunstantziekin —norberak bakarrik dakizkienak, gehienetan—, gerta daikioke argumentu batzuk, besteontzat indarge direnak, berarentzat eragingarri eta sendoak izatea. Egon daitezke, hortaz, fede-motibo batzuk norbaitentzat guztiz errutsu direnak eta formulapen abstraktu batean jartzeko modukoak ez direnak.

Hori kontutan izan gabe, eta filosofia txar baten ondorioz, argumentu horiek izen desegoki batekin bataiatuak izan dira: “sucedáneos subjetivos”, hots, egiazko argumentuen ordeztar araziak. Ez da hori horrela, ordea. Horrela mintzo direnek mugaketa hertsiegia egin ohi dute, Teologia Fundamentalaren argumentuak soilki baliozkotzat joaz.

Jainkozko fedearen eta gizonek elkarri eman ohi dioten sinestearen artean konparaketa

Gizonen artean gertatu ohi den fede edo sinestea hartu izan da maiz eredu edo ispilutzat kristau fedearen eitea argitzeko.

Baina bion arteko konparaketa muga batetaraino bai, baina handik harat ez da baliagarri. Axaletik eta gaingiroki begiratu, badute elkarren artean antz handia, nahi baduzu, baina barneko muinean ez hainbeste.

Jar dezagun adibide bat a) fede gizatiarrarena, eta beste bat b) jainkozko fedearena; gero c) ikus dezagun zertan diren berdintsuak; eta azkenik d) zertan diren guztiz ezberdin eta arras bestelakoak.

a) Ni ez naiz sekulan izan Australian, baina urlia handik etorri da eta hango gauzen berri eman dit. Nik sineste ematen diot; ez, ordea, itsu-itsuan, berri emalea jakile eta egiatia dela ohartuz baizik. Eskema ho-

nen arabera izaten da gizonen arteko sinestea. Testiguaren autoritatea dakizularik, ematen diozu hari sineste, eta ez bestela. Hau ez da fede huts-soila, zeren testigua nolazpait kontrolatu egiten baituzu.

b) Jesukristo etorri zaigu zeru-herritik, eta testigu jakile eta egiatia dela frogatu ondoan, sineste ematen diogu. Ematen dizkigun berriak egiaztat hartzen ditugu. Beraz, bi fede-mota hauek badute elkarren idurika zerbait.

c) Halako antz bat badutela ezin uka. Gainera, konparaketa hau Testamentu Berrian bertan aurkitzen dugu. Jesus da goitik etorritako testigua, hango gauzen testigantza guri ematera etorria (Jo 3,32; 1 Jo 5, 9). Bietan aurkitzen ditugu elementu hauek: gizonak artez eta zuzenki ezin jakin ditzake zenbait gauza; orduan jakile den testigu baten bidez ikasten du horien berri, testiguaren autoritatean oinarritzen delarik.

d) Baina hurbilagoetik begiratur, leze handia nabari da batetik bestera. Gizarteko sineste-moduan, testiguari sineste ematen zaio haren autoritatean oinarriturik; autoritatea bera, ordean, ez da sinesten; seinale batzuen bidez frogatzen da. Seinale horiek frogatzen dute testiguaren autoritatea, eta nik eman diezaiokedan baiezkokoak ez du —ezin izan dezake— seinale horiek duten baino pisu handiagorik. Gizona ez da berez eta beste gabe sinesgarri; haren lekukotasunaren balioa, azken finean, seinaleetarik neurtzen da.

Jainkoaren lekukotasuna guztiz da beste eite batekoa. Jainkoak zerbait baieztatzen duenean, ez du bakarrik Berak dioenaren egia baieztatzen; baita bere autoritatea ere baieztatzen du. Jainkoaren hitza bere buruz da sinesgarri. Jainkoak zerbait testifikatzen baldin badu, hori Jainko denez bakarrik egin dezake; eta izaki kreatuak ez dira nor Jainkoaren sinesgarritasunaren berme izateko. Beraz, Jainkoak zerbait esaten baldin badu, Berak hori esaten duela ere esaten edo jakinarazten du. “Neu naiz mintzo naizena”: horra Jainkoak testifikatzen duen lehen gauza. Gainera, lekuko hau barnetik ari da lanean, argi eginez, erakarritz, Jainkoaren lekukotasuna onart dadin laguntzen.

Jainkozko fedean bi-biak onartzen dira, bada: Jainko esalea eta Jainkoak esandakoa. Fede huts-soil-garbia da, beraz. Honen antzeko den beste kasurik ez da ezagun.

Ezaguera-mota berria da, zientziarenaz zer-ikusi guti duena. Ezaguera honen orijinaltasuna honetan datza: Jainkoaren baieztapenean berean oinarritzen dela. Objeto formala bera berria da eta supernaturala, hots, lehen Egia, errebelatzaille den aldetik. Horretzaz gainera, bada lehen Egia honen erakarpen barnekorra. Eta azkenik, giza nahimenak libreki ematen du bere baiezkoa. Jainkoaren lekukotasuna, grazia eta gizonaren libertatea: horra fedearen muinean aurkitzen ditugun hiru elementuak.

Horiek hola, badirudi San Tomasen ikuspegi mistikora itzuli behar dela. Teoria honen arabera, fedearen ziurtasuna, azken buruan, fedearen beraren barneko argian oinarritzen da. "Per lumen fidei vident esse credenda" (1). Hots: Fedearen argia dela medio, ikusten dute sinetsi behar direla gauzaok.

Beraz:

1. Fededunak, graziaz argitua, sumatzen du praktikoki Jainkoaren hitza onartzera beharturik dagoela. Ezagutzen du, alegia, sinets daitekeela eta sinetsi behar dela Jainkoaren lekukotasuna. Bestela esan, fededunak badaki, esplizitoki ez bada ere, eta ziurtasun hutsezinez daki, gainera, bere baiezkoa eman behar duela. Fedearen argiari zor dio hori. Begiak eman ohi ditu fedeak, ikusi ahal izateko (2). Gizonaren ezagut-indarra azkartzen du. Eta hori denori gizonaren libertateari bidegabe egin gabe, deus bortxatu gabe.

2. Baina hau guztiau ez da gertatzen kanpoko hitza eta kanpoko seinaleak alde batera utzirik, horiekin har-emanen baizik. Normalki beharrezkoa da Elizak bere mandatarien bidez Jainkoaren hitza proposatzea eta hitz honen aldeko seinale ageriak edo sinestamenduak gizonari azaltzea. Berriz ere enkarnaziozko egitura du graziak, haragitu egiten da, alegia: gizatiar irudipean Jainkoa berbera ematen zaigu. Horregatik dio San Paulok: "Gugandik Jainkoaren hitza hartu zenutenean, ez zenuten hartu gizonen hitza bezala, baina (nola egiazki baita) Jainkoaren hitz bezala, zeinek obratzen ere baitu zuetan sinesten duzuenotan" (1 Thes 2,13).

3. Baina ikusten dena lekukotasuna da, ez Jainkoaren errealitatea: hau zerurako gelditzen da. Fedea eskatzen digun Jainkoa atzematen dugu, baina ez Jainkoa bere ospean eta dirdaian. Beraz, *ikuste* hau ez da fedearen alorretik kanpoan. Bestela esan: fedean, sinetsiz, mintzo den Jainkoa atzematen dugu.

Fedean eta fedea dela medio, hain zuzen, bai Jainko testifikatzailea eta bai Jainkoak esandako egiak ere, bi-biak batera atzematen dira. Beren teoriaren ondorioz fedearen muinean zatiketa egiten dutenek, ez dute hau onartzen; horientzat fedearen muinean sineskaiak bakarrik sartuko lirakeke, baina ez fedearen motibo formala. Gauzak hala baldin badira, ordea, dena dago arrazoiketa mugadun batzuetarik zintzilika, eta ez da ikusten nola fedea bertute teologala izan daitekeen, eta nola fedean Jainkoa bera atzematen den.

(1) II-II, q. 1, a. 5 ad 1.

(2) Cf. P. ROUSSELOT "Les yeux de la foi" *Recherches de science religieuse* (1910), 241-259; 444-475.

Azken batean, fedean Jainkoarekin topo egiten dela: horra zein den lehenbiziko gauza, kontuzkoena, testifikatzen duen Jainkoarekin berarekin topo egitea, alegia. Sineskaiei sineste ematea —baiezkoa ematea—, hori ere beharrezkoa da, noski, topaketa honen ondorio bezala. Sineskai horien formulapenak ere beharrezko dira. Bestela fedea ez litzateke gizatiar izango.

Beraz, fedea da ezaguera-motarik gorena (nahiz eta ezaguera huts-soila ez izan). Ez ditu bere erregelak Teologia Fundamentaletik hartzen. Fedea bera da bere buruarentzat oinarririk asko (Ikus 1 Cor 2,14ss). Jainkoaren Izpirituak sortarazten du fedea gizona baitan.

Goiko sorkaria da, bada, fedea. Sorkari eta izaki bakuna, zati ezina, atalgabea. Jesusen jantzia zati ezina zen bezala. Errealitate hau graziaz bakarrik gerta daiteke.

Hamaikagarren Kapitula

FEDEAREN BEHARRA SALBAZIORAKO

Kapitulu honetan fedearen beharra salbaziorako aztertu nahi dugu (1).

Behar-moten mailakatzea

Gauza bat beharrezkoa dela esatea ez da aski. Behar edo premian teologoei bi mota desberdinak bereizten dituzte eta beroiek izendatzeko honako esanmolde hauek erabili ohi dira, hots: 1) “Necessarium necessitate praecepti”, eta 2) “Necessarium necessitate medii”. Euskaraz, eta hitz arruntez, honelatsu edo, esango genuke: 1) Agindurik dagoelako beharrezko dena, eta 2) Jomugara heltzeko bide bakarra delako, beharrezko dena.

Agi denez, guztiz desberdin dira bi behar-mota hauek.

Gauza bat agindurik baldin badago, gauza hura egin behar da edo bete behar da, noski; baina salbuespenak egon daitezke eta egoten dira. Esan nahi da: agindua bete beharretik libratzen zaituzten arrazoiak egon daitezke; adibidez: ezintasuna (ezinak ez du legerik), jakineza (aginduaren berri ez jakiteak), baimena (legea jarri duenak legetik kanpoan uzten bazaitu).

Baina bigarren saileko beharra guztiz da bestelakoa. Adibidez: toki batera joateko bide bat baizik ez badago, bide hura hartzen ez duena ez da toki haretara helduko. Errudun izan ez izan, gauzaren berri jakin ez jakin, bedin du: bidea galtzen baldin baduzu, ez zara helmugara helduko.

(1) Berrikitan —8. kapitulu— Fedeak Elizarekin duen zer-ikusiaz mintzatu gara; orain, berriz, kapitulu honetan fedearen beraren behar edo premiaz ari gara. Nahiz eta gaia, han eta hemen, alde guztiz berbera ez izan, biok elkarrekin lotura handia dutela ezin uka, eta horregatik gauza bat baino gehiago errepikatzen da bi kapituluotan. Berriz ere beherago, 22. kapitulu, bir-agertuko dira hemengo zenbait puntu. Auziaren axolagatik barkakizun izango ahal dira errepika hauek!

Erljioan gauza asko daude agindurik daudelako beharrezko direnak. Behar-mota hau lasaiagoa da. Horietan salbuespen eta barkazioak egon daitezke.

Baina beste zenbait gauza beharrezko dira xedera heltzeko bide bakar direlako. Horien beharra askoz hertsia goa da, baitezpadakoa, noraezkoa. Eta hain zuzen, gisa horretakoa da fedaren beharra ere.

Salbazioa, bere muinean, gauza supernaturala da. Salbaziora bidean, berriz, lehen urratsa, hasiera edo oinarria fedea da. Horregatik, fedea, hots, fede supernaturala, baitezpadakoa da salbaziora heltzeko, esan nahi baita “necessarium necessitate medii”.

Hau da laburzki aztertu eta argitu nahi dugun puntua, egin daitekeen heinean.

Mugaketak eta zehaztasunak

Problema mugatu beharra dago lehenik, eta hitzak nola ulertu behar diren jakin beharra. Eta, hasteko, *fedea* diogunean, zer esan nahi dugu preseski?

Edozein konbentzimendu Jainkoari buruz edo beste munduko gauzei buruz fedea ote da, guk hemen esan nahi dugun fedea, alegia? Ez, noski.

Fedea salbatzeko noraezeko dela diogunean, delako fede hori zer moduzkoa den argitu beharra dago, bada.

Teologoen mintzairan “fides late dicta” —hots, fedea zabalki hartua— deitzen da Jainkoa existitzen delako konbentzimendua, Kreazioko zantzu, aztarna edo beste horrelako arrazoitan oinarritzen den konbentzimendua. Baina aski ote da salbaziorako honelako fede-mota? Ez, noski. Gainera, gauza hertsiki hartuz, hori, beste gabe, ez da oraindik fedea. Ezaguera-mota bat, jakite edo jakintza-mota bat izango da, nahi baduzu, baina ez inola ere *fede salbagarria*, salbaziorako behar dena.

Zer da, bada, fede salbagarria? Hauxe, ez gehiago eta ez gutiago: Jainkoak Jesukristoren bidez egin digun Agerkundera onartzea, Hari sineste ematea eta baiezkotz erantzutea. Kristau iturriek ez dute ezagutzen salbagarri datekeen beste federik.

Kristok zabaldu du zazpi zigiluz itxirik zegoen liburua (Ap 5,8), hots, gizonari buruzko misterioak gorderik zeuzkan liburua. Jainkoak gurekiko dituen xedeak, giza-bizitzearen nondik-norakoa, gure etorkizuna: dena argitu digu Jainkoaren aldetik etorri zaigun Kristok. Orain bada, Jainkoak agertu digun salbazio-bide hau onartzea, Hari gure baiezkotz ematea, hori da fedea, salbaziorako beharrezko den fedea.

Salbazioa edo salbamena, berriz, kristau fedeak hots egiten duen salbazioa, supernaturala da, izadi gainetikoz zerbait, haren funtsari baga-gozkio. Izan ere, kristau hizkeran *salbazioa* diogunean, zer esan nahi du-

gu? Jainkoak duen bere buruaren ikuspen eta gozamenen gu partedun izatera heltzea. Hori, noski, guk ezin lort dezakegu, Jainkoak bere graziaz ematen digulako baizik. Eta jomuga horretara heltzeko Jainkoak berak paratu digun bidea ere guztiz da supernaturala, hots, fedea, graziazko egoera, etab. Beraz, bai jomuga eta bai hara daraman bidea ere, bi-biak dira izate berekoak, hots, supernaturalak.

Azken batean, hiltzeko unean graziatan egotea: hori da baldintza edo kondizio nagusi bakarra salbaziorako, hots, heriotze-orduan justifikazio edo zuzentasunaren jabe izatea. Baina justifikazio hori lortzeko baitezpada behar diren gauzetarik bat hauxe da: fedea. “Sine qua nulli unquam contigit justificatio” (1). Federik gabe ez zaio inori sekulan zintzokuntza edo zuzentasun supernatural hori gertatzen.

Beraz, fededun izatea noraezeko da inor Jainkoaren grazian egon dadin, eta Jainkoaren grazian gertatzea noraezeko da inor zerura dadin. Dena dago kateaturik, elkarloturik.

Aipatu dugu arextian *zintzokuntza* edo *justifikazioa*. Zer da hori? Aldaketa bat. Adanen seme eta bekatari sortzen garelarik, graziazko egoerara pasa eta Jainko-semetzako izatera etortzea; eta aldaketa hau Jesukristo gure Salbatzailearen bitartez egiten da (2). Aldaketa hori gerta dadin, noraezeko baldinkizun bat da, bada, fedea.

Eta fedea diogunean, *fede* hitz hau hertsiki hartzen dugu, bistan da, ez nasaiki; hots, “fides stricte dicta”, ez “fides late dicta”. Jainkoa badela jakitea edo uste izatea ez da oraindik fedea, ez, behintzat, fede salbagarria, eta horretaz soilki mintzo gara hemen.

Gainera, aitzin honetan esan dugun bezala, fedearen beharra salbaziorako ez da nolanahikoa. Ez da beharrezkoa soilki *hala agindurik dagoelako*. Zerbait sakonagokoa da kontu hau. Gauzaren beraren izakeratik sortzen da behar hau. Salbazioa naturalezaz goragoko zerbait delarik, Jainkoarekiko gure har-emanak ere maila horretakoak behar dute izan; hots, Jainkoak berak egin digun Agerkundean oinarrituak. Horra zergatik, bere egitez eta izanez, fedea beharrezko den arazo honetan. Baina hortik, ageri denez, galdera larria hitzetik hortzera sortzen da: Gauzak hala baldin badira, ez ote zaio hainbeste gizakumeri salbatzeko ahalbidea ukatzen?

Beste aldetik, berriz, Bibliak hara zer aitortzen digun: “Jainkoak nahi du gizon guztiak salba daitezen” (1 Tim 2,4). Horra beste egia bat Jainkoaren Agerkundean argi eta garbi irakatsia.

Fedearen beharra salbaziorako eta Jainkoaren onginahia gizon guztien alderakotzat —hori esan nahi du aingeruen kantak ere, Jesusen jaioteguneakoak (Lc 2,14)—.

(1) DS 1528.

(2) DS 1524.

Nola elkarlotu bi gauza hauek? Hemen datza auziaren korapiloa.

Itzurpideak asmatu dira korapilo hau nolazpait gainditzeko. Adibidez, “fides late dicta” salbaziorako aski izan daitekeela esatea. Hots, adimenduaren argi soilaz Jainkoa badela dakienak beharrezko den fedea izango luke (besterik ez denean, behintzat, askiko luke horrekin). Baina gorago esan dugunez, kristau iturriek *fede* izenaz deitzen dutena ez da hori. Oso besterik da. Beste eite bateko zerbait, alegia.

Aro modernoak ekarri duen arrangura

XVI. mendeko aurkikundeak gertatu zirenean, teologoak, ordura arte ez bezala, problema honen larria sentitzen hasi ziren. Goizetik gauera, lurra, zirudien baino zabalagoa zela konturatu ziren; zertan berriak, lurralde alimaleak, gizajendez beteak, bazirela ohartu ziren: Indian indioak, Ameriketako amerindioak, Afrikan beltzak, Txina, Japoi eta Kanbodian horiak, Ozeanian oliba-kolorekoak...

Mundua uste zen baino askoz handiagoa zen, bada. Eta lurralde horiek gizajendez irakiten zeuden. Jende horiek Ebanjelioaren berririk ez zekiten. Bazirudien, beraz, federa heltzeko biderik edo modurik ez zutela; salbamenetik saihestuak zeudela, alegia.

Izan ere, Elizak beti uste izan du Ebanjelioaren berri jakitea beharrezkoa dela —normalki bederen— federa etortzeko. Hortik eta horregatik beti pentsatu du, halaber, Mixioak eta Mixiolariak beharrezkoak direla. Elizan beti irakurri eta entzun dira Jaun done Pauloren hitz ozen haiek: “Nolatan bada invocaturen dute hura baithan sinhetsi ukan eztutenec: eta nolatan sinhetsiren dute harçaz ençun ukan eztutenec? eta nolatan ençunen dute predicaçaleric gabe? Eta nolatan predicaturen dute, baldin igor ezpaditez?” (Rom 10,14-15; Leizarragak itzuli bezala).

Sinesteko, ebanjelioa jakin beharra dago. Ebanjelioa jakiteko, mezularia behar. Mezulari gabe, federik ez. Fede gabe, salbaziorik ez... Hemen ere dena ageri da kateaturik.

Orduan jentilak, ebanjelioaren berririk sekulan entzun ez dutenak, nahi-eta-ez ifernurako ote dira? Eta orduan non gelditzen da Jainkoaren gizonekiko onginahia hura?

Horra problema, bere gordinean adierazia.

Korapiloaren askabideak

Auzi honi irtenbide bat bilatu nahirik, teologoen zenbait hipotesi proposatu dituzte: Aita Vitoriak zioen agian zenbaitek Jainkoaren ezagupen naturalaz zintzokuntza —justifikazioa— lortu ahal izango zuela. Eta ge-

ro Soto, Vega, Ripalda, Marchant, Gutberlet etab. —bakoitza bere ñabar-durekin— bide beretsutik doaz: “fides late dicta” delakoa —hots, Jainkoa Kreazioko izakien bidez ezagutua— hartzen dute oinarritzat. Uste dute, alegia, Jainkoaren grazia lagun, ezagupen honek fedearen zeregina bete dezakeela zenbait kasutan gizona justifikaziora hel dadin.

Baina jakintza-gisako ezagupen huts-soila ez dirudi fedea dei daitekeenik. Ez ditu fedearen dohainak eta balioak. Naturalezaz goragoko den salbazio horrek bestelako har-emanak galdegiten ditu Jainkoarekin; egoera eta ezaguera natural huts batetik ulertzen ez diren bezalakoak, alegia.

Horregatik, gure mendean gehiago jo dute teologoek erlijio historiakoetara, ea hortik argi txintarik nabari ote den. Izan ere, erlijio huts-naturala abstrakzio huts bat baizik ez da, eta ez da lur gainean aurkitzen, filosofoen sistemetan edo, izan ezik. Gizonak, Kondaira lekuko, beti izan ditu erlijio batzuk maila natural hori nolazpait gainditu dutenak. Erlijio horien bidez beti bilatu izan du salbazioa, naturalezaz goragoko salbazio bat, alegia (1).

Egia da, bestalde, erlijio guztiak ezin jar daitezkeela maila berean. Egia da Kristo bakarrik dela Salbatzailea eta Eliza bat baizik ez dela.

Baina erlijio horiek ere hor daude. Zergatik ez pentsa, besterik ez duenarentzat, fede salbagarrira heltzeko okasio edo kinten izan daitezkeela? Gaur erlijioa giza-fenomeno bezala eta Historian eman den bezala, arretaz aztertua eta aintzat hartua izan da. Badakigu, gainera, Izpiritu Sainduak Elizaren muga agirietarik kanpora ere bere graziak banatzen dituela. Eta agian balia daiteke erlijio horietaz gizona fedezko akto salbagarrira egitera bultzatzeko. Ez da, noski, izango fedezko egin-kari hori Eliza Katolikoan aitortzen diren egia eta bestelako dohain guztiez osatua, baina bai funtsean salbatzeko behar diren elementuez hornitua. Nolanahi ere den, moduak eta bideak ez badakizkigu ere, fedezko aktoa egiteko ahala gizon orori aitortu behar zaio (2).

Eliz Irakasgoaren irakaspena

Fedea noraezekoa, baitezpadakoa dela salbaziorako irakasten eta le-
rro lodiz azpimarratzen da Eliz Irakasgoaren gutunetan. Hala Batikano

(1) Straub jaunak “fides stricte dicta virtualis” delakora jotzen du. Uste du, alegia, Jainkoaren ezaguera —ezaguera hori nunahitik hartua delarik— oinarri izan daitekeela gizonak, graziaren laguntzaz, fede salbagarriren dohainak dituen eginkari edo akto bat egin dezan. Cf. LERCHER (LUDOVICO), *Institutiones Theologiae Dogmaticae*, Barcelona 1945; I, n.º 684.

(2) AUGUST BRUNNER, *La Religión. Encuesta filosófica sobre bases históricas*; Barcelona, Herder, 1963. — PINARD DE LA BOULLAYE, *L'étude comparée des religions*; Paris, Beauchesne. — CUTTAT, *El encuentro de las religiones*. — KÖNIG, *Cristo y las religiones de la tierra*; Madrid, BAC. — CAPÉLAN (LOUIS), *Le problème du salut des infidèles*, 2 vols.; Toulouse 1934. — R. LOMBARDI, *La salvación del que no tiene fe*; Barcelona, Herder, 1953. — DOMBORIENA, *La Salvación en las religiones no cristianas*; Madrid, BAC. — A. SANTOS HERNÁNDEZ, *Salvación y Paganismo*.

Lehenak (1). “Fides late dicta” delakoa, hau da, Kreazioko izakiak oinarri hartuz eduki daitekeen sinestea justifikaziorako aski dela dioen teoria Inozenzio XI.ak arbuia zuen (2). Beraz, eta gorago esan dugun bezala, Jainkoa badelako ustea edo ziurtasuna, Kreazioko obretatik erakarrria, xoilki eta beste gabe, ezin har daiteke oraindik fede salbagarritzat. Beste mailatako zerbait da fede salbagarria.

Batikano II.ak badu gutun bat, “Ad Gentes” deritzana, Elizaren Mioxio-lanei buruz. Bertan uzkurutasun gabe esaten da Jainkoak, Berak bakarrik dakizkien bidez, eraman ditzakeela gizonak federa —Ebanjelioaren berri ez dakiten gizonez mintzo da pasartea—. Bestalde, Jainkoaren gogarako izateko fedea beharrezko dela azpimarratzen eta errepikatzen da Adierazpen honetan ere (3).

Teologi-kalifikapena

Fedea —fedea propioki eta hertsiki hartua— beharrezkoa dela, Elizak dogmatzat dauka. Eta behar hori ez dela agindutik xoilki heldu, baina gauzaren beraren izatetik erakarra dela: hori ere, iduriz, kristau fedearen dogma bat da (4). Gizon orori eman diezaiokeela Jainkoak —nahiz eta guk bideak ez jakin— fedezko aktoa egin ahal izateko behar duena: hori ere, guttinaz, “doctrina catholica” da.

Eskritura Sainduan ageri dena

Gai hau Eskrituran ez da axalekoa, bazterrekoa edo zeharkakoa, haren muinari bete-betean dagokiona baizik. Behar bezala azaltzeko, Eskritura guztia beharko genuke goitik behera aztertu, bere osoan eta giharrean hartuz. Ez dugu, ordea, gaia bere luze-zabalean ikusterik. Pasarte batzuk aipatuko ditugu; baina beren buruz aski argi eta garbi mintzo diren pasarteak.

1 Tim 2,5: “Ezen Jainko bakhar bat da, ararteko bakhar bat ere Jainkoaren eta gizonen artean, Jesu-Kristo gizona” (Duvoisinin itzulpena).

Act 4,12: “Eta bertze edozeintaz ez da salbamendurik. Alabainan ere zeruaren azpian ez da bertze izen bat gizonei emanik, zeinaren bidez salbatuak izan behar baikare”.

—or *Mc 16,16*: “Sinhetsiko duena eta bathayatua izanen dena, salbatua izanen da; aldiz, sinhetsiko ez duena, galdua”.

(1) DS 3012.

(2) DS 2123.

(3) Ikus “Ad Gentes”, 7. Ikus, baita ere, “Lumen Gentium”, 16 eta abar. (1)

(4) Ikus Arousicanum Concilium, DS 375.

(2)

Hebr 11,6: “Bada, Jainkoaren gogara egitea, fedea gabe ezin den gauza da. Alabainan Jainkoari hurbiltzen denak sinhetsi behar du, badela Jainkoa, eta bilhatzen dutenen sariztatzaile dela”.

Azken pasarte honetan bi egia xoilki aipatzen dira esplizitoki baitezpadako edo noraezeko bezala: Jainkoa badela eta sariztatzaile dela; baina, jakina, biak fedez onartuak behar dute izan, hots, Jainkoaren lekukotasuna oinarri hartuz. Teologo batzuen aburuz salbaziorako nahi-eta-nahi-ez behar den fedea bi artikuluko horietara bilduko litzateke.

Tradizioan ageri dena

Erraz litzateke Elizako Guraso, Irakasle eta teologoen pasarte-saila hemen aipatzea, baina ez da beharrezko. Puntu hau —fedearen beharra— Elizan beti irakatsi dela, hain dago argi!

Aski izan bedi San Fulgentzioren pasarte bat aldatzea (VI. mendekoa) (1). Hebertarren epistolako pasarte horri buruz ari da: “Fedea da, izan ere, on guztien oinarri, giza salbazioaren hasiera. Hori gabe ez dago Jainko-seeetakoa izaterik, zeren fede gabe ez baita mundu honetan zintzokuntza lortzerik, eta ez gerokoan betiereko bizitzea lortzerik ere. Hemen fedez ez dabilena ez da han ikuspenera helduko. Federik gabe gizonaren lan guztia hutsa da”.

Ezaguna da San Tomas Akinokoaren pasarte famatua ere: “Si aliquis taliter (scilicet in silvis) nutritus...”, hots, gerta baledi norbait oihanetan hazia, Ebanjelioaren berririk hartu gabea eta bere aldetik Jainkoaren legea gordetzen salatzen dena, halakoari Jainkoak sinetsi beharrekoak ager araziko dizkio modu batera edo bestera. Eta hau ez da nolabaiteko uste bat. “Certissime est tenendum” (2).

Praktikan hau nola gertatzen den ez dakigulako, printzipioa bera ukatu: hori da inolaz ere ezin egin daitekeena.

Teologi arrazoiketa

Salbamena —Agerkundeak jakin arazi digun salbamena— naturalezaz goitiko zerbait da. Helburu horri buruzko bidea ere, eta bideazko garen denborako gure har-emanak Jainkoarekin, helburu horri egokituak behar dute izan. Orain bada, fedeak xoilki paratzen dizkigu helburu horri dagozkion bezalako har-emanak Jainkoarekin. Horregatik, noraezeko da arazo honetan fedea.

(1) IKUS ROUET DE JOURNAL, *Enchiridion Patristicum*, n. 2260.

(2) Cf. CAPÉLAN, o. cit., I, p. 197.

Zeintzuk dira baitezpada beharrezko?

Klemente XI.aren denboran —XVIII. mende hasieran— izan zen teologo-en artean eztabaida bat: ea zein diren “necessitate medii” sinetsi beharrezko egiak. Hebertarren epistolan bi xoilki aipatzen dira: badela Jainkoa eta Jainko hori saristatzaile dela. Baina eta Hirutasuna eta Giza-kundea ez ote dira neurri berean baitezpadako edo beharrezko? Mixiolari batek, hiltzera doan gizona utz dezake bi misterio horien gainean eskolatu gabe, Hebertarren epistolan horien aipamenik egiten ez dela eta, beste gabe?

Aita Sainduaren erantzuna garbi da: Hirutasuna eta Gizakundea ere, ahal den heinean, irakatsi behar zaizkio (1). Erantzuna, ordea, praktikarako emana da, eta ez du kuestioa teorikoki trenkatzen. Bi horiek xoilki “necessitate medii” beharrezko direla sostengatzea, defendigarri dirudi, beraz.

Gal ote daiteke fedea errurik gabe?

Horra beste auzi bat Hermes-en teorien okasioz mahai gainera salto egin zuena. Beti irakatsi da fedea jakinaren gainean dudatan ipintzea, galtzea edo ukatzea bezalaxe dela. Orain bada, Hermes-ek hori eskatzen zuen: fededun eskolatuak, alegia, sinesten duen guztia dudatan ipini edo alde batera utzi behar duela, harik eta guztien egia frogatu arte.

Hori dela eta, Batikano Lehenak irakatsi zuen fededunak ezin eduki dezakeela taxuzko arrazoirik bere fedea aldatzeko edo dudatan jartzeko (2).

Taxuzko arrazoia: “iusta causa” dio latinezko testuak. Guk hemen darabilgun auzia eta Kontzilioak gutun hura ematean gogoan zeukana berdinak ez izanik ere, bata bestetik, ordea, ez dago urrun, eta laster planteatu zen.

Fededunak fedea galtzea gerta daitekeena da, eta gertatzen da, noski.

Baina gerta ote daiteke hori fededunaren beraren erru edo bekaturik gabe? Beste hitzez esanik: fedea galdu duten guztiak hobendun ote dira eta beren gain ezarri behar ote da gertakari horren erantzukizuna? Hau da galderra.

Gauza Psikologia huts-soilaren eremuan kontsideratuz, badirudi posible dela fedea errurik gabe galtzea. Gizona gerta daiteke halako giro batean, non bere fedea ez baitu gehiago atxikitzen ahal. Fedeak adimenduzko ziurtasun batzuk suposatzen ditu. Horiek kordokatzen baldin badira, fedea ezin dagoke zutik. Eta hori pertsonaren bat ere errurik gabe gerta daitekeela dirudi.

(1) DS 2380, 2381.

(2) DS 3014, 3036.

Zenbat eta zenbat ez ditugu ikusi, adibidez, Euskal Herriatik Ameriketara ogi-bila joanak. Hemen kristau giro batean bizi zirelako, fedeari eusten zioten. Baina tokiz eta giroz aldatu eta, pixkaka hoztu eta fedea galtzera ere etortzen ziren (1). Hori gertatzen zitzaielako hobendun ote ziren? Agian ez beti.

Kasuak eta kasuak bereizi behar dira hemen.

Demagun bataiatu eta doi-doi giristinoki hazia eta eskolatua izan denaren kasua. Horrelakoari, giroz aldatzean, fedea galtzea gerta dakioke, eta hori beharbada berak errurik ez duela. Fedeak ez zuen harengan egiazko sustrairik. Haren giristinotasuna soziologikoa zen xoilki.

Baina guztiz bestelakoa da zinez eta egiaz fededun denaren kasua. Hots, egiaz eta zinez Elizaren seme denarena, Elizan hazia izan denarena, kristau eskola —haziera eta heziera— hartu dituenarena.

Honek ere fedea gal lezake, noski. Baina hori gerta dakioke norbera, modu batera edo bestera, errudun ez dela? Badirudi ezetz esan behar dela oraingoan. Eta ezezko horren arrazoiak bilatzeko, Psikologiaz goragoko barruti batetara jo beharra dago, hots, Jainkoaren ardura edo probidentziara.

Fedea da, noski, Jainkoak gizonari egin diezaiokeen dohainik handiena. Orain bada, “dona Dei sunt sine poenitentia” (Cf. Rom 11,29). *Ezen dolu gabe dirade Iainkoaren dohainak* —itzultzen du Leizarragak—. Beste hitzez esanik: Behin emana Jainkoak ez du kentzen, baldin guk geure erantzun gaiztoaz hartara behartzen ez badugu. Axular-ek, San Agustingandik hartuz, honela dakar: *Ez du behin ere Iainkoak utzten gizona, baldin gizonak lehenik utz espadeza Iainkoa* (Ax 70).

Horrek esan nahi du, noski, baldin kristau fede eta bizierak eskatzen duenari gizona zintzoki erantzuten ahalegintzen bada, Jainkoak ere izango duela ardura eta kontu berezia gizon hura fedea galtzeko zorian gerta ez dadin.

Eta ez dugu ahaztu behar, gizonaren gauza guztiak bezala, fedea, eta bizitze izpiritual osoa, etengabe hazkunde beharrean daudela. Egun guztiez fedea zaindu eta azkartu behar dela, alegia. Ez dezagun pentsa, geure aldetik saiatzeko ez bagara, hazkurri eta mantenua ematen ez badiogu berez bezala iraungo duela. Fedeak hazi beharra du, argitu, findu, gaurkotu beharra etab., beti bat egonik, halere.

Izengabeko kristauak, hots, anonimoak (2)

Gaur teologo batzuek *kristau anonimoak* direlakoetara jotzen dute eta hor aurkitu uste dute irtenbide bat fedearen beharrak sortzen duen

(1) Behiala Ameriketara joandako batzuei gertatzen zitzaiena, orain, inora joar gabe ere, berton ikusten dugu.

(2) RAHNER (KARL), “Los cristianos anónimos” in *Escritos de Teología*, VI, 535. —

problemarentzat. Teoria honen arabera norbait izan daiteke kristau eta fededun, berak ez dakiela eta uste ez duela ere. Esate baterako, lagun hurkoaren aldeko lanetan bere bizia higitzen baldin badu, atsolutu batean sinesten duela erakusten du, eta fededun da, nahiz eta esplizitoki Jainkoagan ez sinetsi...

Baina hemen *fede* hitzak duen muin guztia ez ote da urtzeko arriskutan jartzten? Nora joango ote ginateke behin bide horretatik abiatuz gero?

Halere, apika esan behar da fedearen premia esplikatu beharrak sortarazi dituen teoria eta katramila gehienek azpian oker-aditu bat datzala, hots: uste baita giza ezagueraren landa ez dela hedatzen kontzientzia argiz ezagutzen denera baizik, kontzeptu bidez mamitutako ezagupen jakin horietara baizik. Graziak, ordea, beste erlijioetako gizonak ere bultzarazten ditu; baina predikurik ez delako, fede inplizitu edo isilbidezko horretan gelditzen da gauza (1).

Fedearen beharra eta Elizaren beharra

Fedearen beharra eta Elizaren beharra, bi-biak aitortzen ditu kristau irakaspenak. Eta biak dira beharrak, gainera, "necessitate medii". Neurri, maila eta molde berean beharrak ote dira biak, ordea? Ezetz dirudi. Eliza beharrezkoa da "vel in re vel in voto", bataioa den bezala (2). Hots, gauza bera, edo, bestela, gauzaren gogo behar da. Beraz, gogoak edo desirak gauzaren orde z balio lezake, gauza bera egiterik ez denean. Eta desira hau norberarentzat iluna, ezkutua eta ezezaguna ere izan daiteke (3).

Fedean, ordea, ez da horrelakorik. Salbamenaren naturalezaz goitiko zer-bait izanik, Jainkoarekin behar diren har-emanak ere halakoak behar dute izan. Eta har-eman horiek fedeak xoilki egiten ditu posible.

Bukatzeko: diskutigarri izan daiteke zenbat eta zer-nolako egiak ezagutu behar diren fede salbagarri hori egon dadin. Funtsean, ordea, fede, noraezekoa da salbaziorako. Baina era berean hau ere esan behar da: fede hori edukitzea posible zaiola gizon orori (Jainkoaren graziaz beti ere; bere ahala egiten duenari ukatzen ez zaion Jainkoaren graziaz).

Eta aurtemeen esana ez dezagula, otoi, ahantz: Jainkoaren bideak eta erak asmatzen ez ditugulako, printzipioa bera ukatzeko ez dago eskubiderik.

GÓMEZ CAFFARENA (JOSÉ), "La fe sin la incorporación visible a la Iglesia" in *La audacia de creer*, Razón y Fe, Madrid; p. 231.

(1) Cf. DHANIS, *Introductio in problema Christi*.

(2) DS 1524.

(3) Ikus "Mystici Corporis" Entziklika; DS 3821-3822.

Hamabigarren Kapitula

DONIANE GURUTZEKOAREN IRAKASPENA FEDEARI BURUZ

Aurreko kapituluetan —eta guztiz ere II. eta X.lean— ikusi dugunetik ateratzen da jadanik fedea, bere funtsean, izaki supernaturala dela, hots, zeru-herriko sorkaria. Oraingo honek alderdi hau ahalez pixka bat gehiago barnatu nahi luke, Doniane Gurutzekoaren oin-hatzei jarraikiz. Horretarako Aita Saindu Joan Paulo II.ak —Aita Saindu izan baino lehen, noski— egindako doktor-lana hartzen dugu gidari.

Joan Paulo II.ak gai honetzaz egin zuen Teologi saileko bere doktor-lana: “Doctrina de fide apud S. Joannem a Cruce”(1).

Fedearen giharreraino barnatu nahi duenak ez du denbora alferrik galduko lan hau irakurtzeaz. Fontiveros-ko Sainduarentzat izaki bat guztiz supernaturala eta jainkotiarra da fedea. Kapitulu honetan guk ezin dugu laburpen trinko bat baizik eskaini. Aipamenak Aita Sainduaren liburutik —gastelaniazko itzulpenaren arabera— eta Doniane beraren obretatik egingo dira.

Wojtyla jaunak esango digu (2) fedea dela gai bat ikuspuntu askotatik har daitekeena (eta zilegi izan bekit gure Aita Saindu maitea bere Aita Saindugoa hartu aurreko deituraz deitzea, zeren lana ere kargu hori hartu aurrekoa baita). Teologia Fundamentalak bere ikuspegitik helitzen dio, Teologia Dogmatikoak ere beretik, berdin Teologia Moralak, erlijioaren psikologiak, etab.

Mendi baten itxura ere ikuspuntua nondik hartzen duzun eta desberdin azaltzen zaizu. Hala ere, mendia beti da bat eta berbera. Fedeaz antzera gertatzen da.

Doniane Gurutzekoak ez zuen lan sistematikorik egin fedeari buruz. Akinoko San Tomasek egin zuen bezala. Puntu bat edo beste ukitzen du bakarrik, bere liburuen xedeari dagokion aldetik. Fedearen supernatural-

(1) KAROL WOJTYLA, *La Fe según S. Juan de la Cruz*, BAC, Madrid, 1979.

(2) O. cit., 245 orr.

tasun guztizkoa: horra berak azpimarratzen duena. Eta bai beste hau ere: Fedeaz landara gure adimenak mundu honetan Jainkoarekin elkartzeko ez duela beste biderik. Eta bide bakarra da, noski, zeren fedeaz landara, beste deusek ez baitu Jainkoarekin senidetasun, ahaidetasun edo kidetasunik. Fedeak, berriz, bai.

Donianeren liburu guztiek xede bat dute: gizona Jainkoarekin bat egite lanean gidatzea. Liburu horietan fedearen arazoari alde horretatik xoilki heltzen zaio. Baina, hori bai, nolatan dakien auziaren zolaraino heltzen!

Naturala eta supernaturala: leze bat ezin gaindituzkoa

Gure Sainduaren dotrina ongi ulertzeko, gogoan hartu behar da gauza bat, hots: naturala eta supernaturala bi eremu guztiz bestelakoak direla, eta ezin gaindituzko leze bat dagoela bien bitartean (1). Hori hala izanik, gizonak hemengo egoeran ez du berez Jainkoarekin batasun egiteko biderik. Baina batasun hori posible izan dadin, hiru bertute teologalak ematen zaizkio, gizonaren hiru ahalmenak gauza supernaturalei buruz gai bihur daitezen (2).

Adimena, Oroimena eta Nahimena, Fede, Esperantza eta Karitateaz gaitzen edo egokitzen dira eremu supernaturaleko gauzetara. Halako jazkera —jazkera baino gehiago da, noski— hartzen du arimak, eta jazkera hori hiru koloretakoa omen da: Zuri (Fede), Berde (Esperantza), eta Gorri (Karitatea) (3). Gainera, bertute horietako bakoitzak hutsartea sortu behar du berari dagokion ahalmenean, Jainkoak han sarbide izan dezan (4).

Giza-adimenak, bada, ezin egin dezake Jainkoarekin batasun bere indar soilaz (5). Adimen hau, hemengo egoeran, gai da hemengo gauzak ezagutzeko, baina guztiz desegoki Jainkoarekiko gauzetarako. Fedeak, ordea, gaitzen du adimena, ahal daitekeen neurrian, eta hemengo egoeran hori egitea posible den ber.

Klaroa baldin bada, “malo”

Hain da hori egia, non Sainduak esaten baitu: albiste supernaturalak adimenarentzat ulergarri baldin badira, hori bera da seinalerik asko albiste haiek batasunerako bide ez direla jakiteko (6).

(1) O. cit., 28 orr.

(2) O. cit., 47 orr.

(3) *Noche Oscura* II, 21,3; o. cit., 205 orr.

(4) O. cit., 108 orr.

(5) O. cit., 52 orr.

(6) *Subida del Monte Carmelo* II, 3 eta 8; O. cit., 53 orr.

Esan dugun bezala, gizonaren ezagumena mundu honetan gai da edo egoki da izaki kreatuak ezagutzeko, barnatzeko eta ulertzeko (1), baina naturalezaz goragoko direnak ulertzeko, ez.

Sainduak ez du ukatzen, bestalde, eta kasu honi!, giza adimenari, are mundu honetan ere, albisteak, bai bide naturalez eta bai supernaturalez etor dakizkiekeela (2).

Gizonaren hemengo ezagumoldea, zehatz, argi eta partikularra izan ohi da, hots, mugaduna. Orain bada, albiste supernatural bat gisa horretara egituratua heltzen bazaio adimenari, orduan Jainkoarekin batasun egiteko ez da egoki, ez da gai (horrekin ez da esaten Jainkoagandik ez datorrenik) (3).

Subida-ko II. liburuan barna izpirituaren gau aktiboaz mintzo da gu-re Saindua. Halako garbitzapen eta hutsartea egin behar da ariman, eta bereziki adimenean; eta hustutze eta garbitze horri deritza *gau*. Edozeinek daki *gau* hitza guztiz errotikoa dela Doniane Gurutzekoaren sisteman, nahiz eta beti esanahi berbera ez duen (4). Hemen, ordea, uko egite, gabe-tze eta garbitze bat adierazten du. Adimenak, alegia, irritsen gutiziari edo gustoari uko egin behar diola.

Subida-ko liburu horretan aspertzeke ari da jarrera berbera gomen-datzen: ezagugai guztiak, baldin zehatz, partikular eta klaroak badira, ukatu behar direla, baita bide supernaturalez heldu zaizkigunak ere. Eta arrazoia: Jainkoarekin bat egiteko balio ez dutelako. Goi ikuskari eta mintzoak, baldin klaro, zehatz, mugadun eta partikularrak badira, ukatu behar dira: adimenari klaro ageri zaiona, mugadun da; beraz, ez du Jainkoarekin kideatasunik (5).

Gehiago ere esango du Sainduak: ez dela on fedeari buruz gauza kla-roak ulertu nahi izatea (6). Zergatik? Fedearen meritua garbi eta osorik gordetzeagatik.

Klaro eta mugadun dena ados dago, hori bai, adimenaren hemengo egoeraz; baina Jainkoarekin bat egiteko ez du proportziorik. Bideazkoen egoeran giza-adimenak ezin *ikus* dezake Jainkoa. Beraz, itxura mugadun eta partikular horretan azaltzen den oro, guztiz da desegoki (7).

Ikusia den zerbaiti atxikia baldin bada adimena, ez da Jainkoari atxi-kia (8). Beraz, Jainko-batasunaren bidetik saihesten da.

(1) O. cit., 72 orr.

(2) *Subida* II, 10; o. cit., 110 orr.

(3) *Subida* II, 10; o. cit., 119 orr.

(4) O. cit., 96 orr.

(5) *Subida* II, 24,8; o. cit., 133 orr.

(6) *Subida* II, 27,5.

(7) *Subida* II,3; II,16,17; o. cit., 135 orr.

(8) O. cit., 136 orr.

Fedea da, hain zuzen, kidetasun edo proportzioa jartzen duena gure eta Jainkoaren artean.

Fedea, berriz, zerbait argitsu eta zerbait ilun da, biak batean.

Fedearen izakera nolazpait adierazteko, irudi batez baliatzen da Saindua; Gedeonen historiatik hartutako irudiaz. Gedeonen soldaduek pegar huts batzuk zeramatzaten, eta pegarren barnean argizuzi piztuak (Jud 7, 16). Etsaiarekin batzerakoan adarra jo, pegarrak hautsi, argizuziak altxa, eta horrela garaile atera ziren (1).

Hori da, bada, fedea: pegarraren barnean gorderik dagoen argia. Hemengo bizia bukatzen denean, orduan hausten da pegarra eta argia zabaltzen. Bitartean, pegar hutsen barnean gorderik dago argia. Iluna eta argia, bi-biak dira fedean (2).

Fedea zergatik den ilun esplikatzeko, arrazoi hau ematen du: Agerkondeak jakin arazten dizkigun egia alde orotatik direla naturalezaz goragokoak, gainditzen eta gainezkatzen gaituztenak; gure gainetik dagoen eremu batekoak, alegia (3).

Hala ere, fedeak berekin dakar argi bat, pegarren barnean gorderik badago ere. Goitik isuria du argi hori eta fedeakin batean ematen zaigu. Hain zuzen, argi honek adosten du adimendua Jainko-gauzetarako. Baina zer pasatzen da? Mundu honetako egoeran gaudeino, goi-argi horrek halako kontra egiten dio adimenari beronen ezagutze-molde propioan. Eta honen arrazoia lehen esandakoa da, hots, hemengo ezagu-moldea izakiak zehazki, partikularki eta mugatuki neurtzekoa dela. Fedezko gauzak, berriz, horrela ulertzerik ez dago. Horregatik, adimenaren joera horri uko egitea eskatzen du fedeak (4).

Agerkondearen bidez dakizkigun egiek zerbait jakinarazten digute, noski. Baina egia horiei buruz ahalmena galgaturik bezala gertatzen da, kidetasun edo proportzio faltaz (5).

Jainkotiar eta gizatiar: bietarik du fedeak. Jainkotiar argiak Agerkondez agertutako egien muinaz argitzen du adimena, baina adimenaren ezagumolde naturalaren gainetik (6).

Sinetsi eta Ikusi funtsean gauza bera dira (7). Sinestea da bideazkoei dagokien gisa edo manera. Objektua ilunki edo klarki erdiestean: horretan dago aldea; gainerakoan, gauza bera dira (8).

(1) *Subida* II,9,3.

(2) *Subida* II,9; o. cit., 57 orr.

(3) O. cit., 64 orr.

(4) O. cit., 67 orr.

(5) O. cit., 75 orr.

(6) O. cit., 85 orr.

(7) O. cit., 87 orr.

(8) O. cit., 87 orr.

Fedeak, jainkotiar argiaren laguntzaz, Jainkotasuna atzemateko aha-la ematen dio adimenari. Baina ihiziaz jabetzea eta gozatzea adimenak ez du lortzen (1).

Beraz, fedea da adimenak Jainkoarekin bat egiteko duen bidea, baina adimenarentzat gauaren pareko da; iluna, beraz (2). Hala ere, fedean bada argi bat. Eta argi horrek argi egiten du, baina argi hori bera da ilunaren sortzaile, ezen adimenak ez du bere izakerarentzat egoki den gauzarik hartzen (3).

Izan ere fedeak badu eragintza edo aktibitate bat, adimenak forma mugadunetarako duen joera galgatuz.

Gainera, esperientzia ororen gainetik dago fedea (Jainkoarekin batasun egitean datekeen esperientzia Sainduak arbuiatzen eta ukatzen ez badu ere). Esperientziaren nahikariari ez diezaio gula haizeman abisatzen digu berak. Eta hau da arrazoiak: zerbait naturalki gutiziatua tartean ez ote den sartuko.

Albiste orokorra eta iluna

Notizia jenerala, hots, albiste orokorra —nolazpait esan—: hauxe da fedearen joerari dagokion ezagumoldea, hots, kontenplazioan ematen dena. Fedeak badu zer-ikusi kontenplazioaren sorreraz, nahiz eta horretarako fede huts-soila baino zerbait gehiago behar den (4). Kontenplazioa denean, arimaren goi-ahalmenak albiste honen inguruan biltzen dira (5).

Dirudienez, fedearen eraginari esker gainditzen da meditazioa deritzan otoitz-mota ere. Meditazioa gizonaren ezagumolde naturalari egokitua dago. Sainduak eman dizkigu otoitz-mota batetik bestera pasatzeko seinaleak (6). Baina, jakina, pasatze hori ez dago gure eskuan. Horretarako Izpiritu Sainduaren dohainek albiste orokor eta iluna eman behar digute (7). Badirudi, bada, fedeak zer-ikusi handia duela otoitzaren munduaz, Mistikaren munduaz, etab.

Elizaren partea fedean

Kristoren gizatasuna dela medio, Jainkoak bere salbazio-bideak agertu dizkigu. Kristo da, bada, fedearen ararteko nagusia. Baina horretaz landara, bere bidean, Elizak ere badu arartekotasun bat fedean. Elizan

(1) O. cit., 91 orr.

(2) O. cit., 100 orr.

(3) O. cit., 107 orr.

(4) O. cit., 153 orr.

(5) O. cit., 158 orr.

(6) *Subida* II,13,9; II,13,1ss.

(7) O. cit., 163 eta 169 orr.

ministeritza duten gizonengandik hartzen du kristauak fedea, hots, sineskaiei (1). Elizaren parte fedean: horra Doniane Gurutzekoak marra lodiz azpimarratzen duen alderdi bat. Jainkoak nahi du Berak agertu digun guztia beste gizon batzuen bitartez har dezagun. Kristau fedearen egituran ezin utzizkoa da Eliza.

Zenbaitek halako etsaitasunak asmatu dituzte mistikoen fedea eta fede dogmatikoa aurrez-aurre eta elkarren aurka baleude bezala; haien fedea esperientzian oinarrituko litzateke, beste hori, berriz, autoritatean. Ez da horrelakorik. Kristau mistikoek ez dute ezagutzen beste federik Eliza dela medio heldu dena baizik (2). Eliza da Agerkundearen kokalekua eta banatzaila, eta banatze horrekin zerutarren ezagugaien partaide egiten gaitu.

Baina hau ere esan behar da: beste gizon batzuen eskutik sineskaia hartu behar horrekin adimenaren ukamen-suerte bat eskatzen digu fedeak.

Beste aldetik, fedea ikuspenera buruz abiaturik dago eta badu haratarik (3). Adimena egia goi-agertuen mamiraino heltzen da, mami hori atzemateraino, alegia (4). Halaz ere, ez dago alde guztizko kidetasunik adimenaren eta objektuaren artean. Atzestate edo eskuraketa iluna da, beraz.

Urrea zilarrez estalia

Jainkoak agertutako egiak, proposamen edo perpaus batzuetan adieraziak eskaintzen dizkigu Elizak. Doniane Gurutzekoak esango du proposamenok zilarrezkoak direla, mamia, aldiz, urrezkoa. Mamia sinesten dugu, baina fedezko zilarrez estalia (5). Beste hitzez esanik: Jainkoa berbera ematen digu fedeak, fedezko estalkiaz estalirik, ordea (6).

Adimena ez da gai proposamenok barnatu eta zulatzeko, mundu honetako gauzetan egin ohi duen erara. Halaz ere, goitik heldu den argiak bultzatzen dio horietara lot dadin, gisa ilun horretara izango bada ere (7).

Proposamenok gauzaren mamia daukate golkoan. Adimenak, horiek sinestean, mami hori eskuratzen du, baina ilunki. Gauzak ez dira gertatzen ezagumolde naturalean bezala. Fedeak egia hori ezin du osoki ikusi. Horra zergatik den ilun.

(1) O. cit., 183 orr.

(2) O. cit., 186 orr.

(3) O. cit., 197 orr.

(4) O. cit., 202 orr.

(5) *Cántico Espiritual* 12,4; o. cit., p. 210.

(6) O. cit., 211 orr.

(7) O. cit., 214 orr.

Doniane Gurutzekoak *leze* izenaz izendatzen ditu giza ahalmenak (1). Hain handiak dira leze horiek, non ez baitira betetzen neurrigabe eta azkengabea denaz baino guttiagorekin. Baina hau da kontua: leze horiek hutsik eta garbiturik ez dauden bitartean, ez dakite beren hutsaren berri. Eta hori da fedearen zereginetatik bat: ahalmenen, eta bereziki, adimenaren huskundera eta garbitzapen hau egitea.

* * *

Jainko eta kreaturaren artean ez dago kidetasun edo esentziazko antzik. Beraz, ez dago gu Jainkoarekin batzeko balio dezakeen kreaturarik; horretarako egoki denik, alegia. Fedea bakar-bakarrik da horretarako bide. Honek, bai, badu kidetasuna (2).

Baina Jainkoarekin bat egitea esaten dugunean, zer esan nahi dugu, preseski? Jainkoaren aldetik, Jainkoak jainkotasuna guri luzatzea. Gure aldetik, berriz, jainkotasun horren partaide gu izatea (3).

Adimena objektuarekin bat egiten da honen esentzia molde ulergarritz eskuratzen duenean. Hau zeruko ikuspenean gertatuko da. Eta zeregin hori berori betetzen du bizitze honetan fedeak, baina, jakina, hemen hemengo erara gertatzen dira gauzak. Han Jainko ikusia, hemen sinetsia: horretan da aldea.

Jainko sinetsia: eskuraketa klaroa falta da, baina eskuraketa dago, halere.

Elementu berberak aurkitzen dira, bai ikuspenean eta bai fedean: jainkotiar argi isuria eta jainkozko objektua. Argi horretan jainkozko objektua adimenari aurkeztatzen zaio eta adimena objektuarekin batzen da (hemen gerta daitekeen neurrian).

Fedean legokeen arriskua

Jainkotasunaren funtsa zenbait egiatan aurkeztatzen zaigu, eta egia horiek hitzen bidez adieraziak dira. Hemen bada arrisku bat: hitz horiek soinu huts-soila bihurtzeko arriskua; ezezagun den zerbaiten izenak, eta besterik ez, alegia. Hain zuzen, hori gerta ez dadin ematen zaigu fedea, goitik isuria, eta honekin batean goiko argia ere bai. Argi horrek egiten du adimenaren egokitzea. Hori gabe, fedea zer izango litzateke? Izen batzuen albistea, eta deus ez gehiago. Baina horri esker, askoz gehiago da. Hala ere, ez da eskuraketa osoa (4).

(1) *Llama de amor viva*, canción 3.^a; o. cit., 240 orr.

(2) O. cit., 246 orr.

(3) O. cit., 248 orr.

(4) O. cit., 254-257 orr.

Fedean adimenak Jainkoa bera eskuratzen du, bada (1). Forma mugadunak, partikularrak, zehatz-argiak, ukatu behar dira, ordea. Goitik agertuari atxikimendu eskaintzea, baina ulerpen zehatz-garbirik gabe: hori da fedezko baiezkorearen bide berezi eta manera propioa (2).

Fedeak ematen digun kidetasuna, hemengo egoeran, ez da sekula hel-tzen ikuspen argi-klaroa izateraino. Fedea uniorako bide da, haatik, ze-ren berak jartzen baitu Jainkoarekiko proportzioa adimenean.

Fedean adimena, alde orotarik gainez egiten dion objektuari lotzen zaio, eta hori egin dezake goitiko argiari esker, nahiz eta argi hori ere soberaniazkoa ("excesiva") den (3).

Gurutzeko Donianeren ustez fedeak eta kontenplazioak badute elkarrekin zer-ikus. Fedea da, nolazpait, kontenplazioaren sustraia, nahiz eta kontenplaziorako besterik ere behar den —Izpiritu Sainduaren do-hainen eragina, alegia—. Horrez gainera, egikizun garbitzaile bat ere ba-du fedeak adimenean (4).

Jainkoarekin elkartzeko duen indarraren iturria goitiko argitik hel-du zaio fedeari. Hortik dator, baita ere, atxikimendua, nahiz eta ikuspen klarorik ez izan (5).

Beraz, fedearen egikizun berezi-berezia eta nagusia hauxe da: adi-mena Jainkoarekin unitzea. Ahalmen isuria da fedea, propio eta berariaz horretarako ematen zaiguna, hots, arima Jainkoarekin unitzeko (6).

Fedea, izaki jainkotiarra

Bere muinean izaki jainkotiarra da fedea, goitik emana; eta bera-riaz horretarako emana, hots, Jainkoarekin bat egin ahal dezagun, *adi-menari dagokion aldetik* (Jainkoarekin bat egitea, bestenaz, karitatearen eta nahimenaren arazoa dela aherentzi gabe).

Doniane Gurutzekoaren dotrina fedeari buruz bat dator puntu nagu-sietan Akinoko San Tomasenarekin, eta, noski, Eliza Katolikoak irakas-ten duenarekin.

San Tomasen pasarte hura gogoratu besterik ez dugu: Fededunaren eginkaria ez da formulatu edo esapidetan bukatzen, errealitatean baizik. Izan ere, esaldiak horretarako moldatzen dira: gauzaren berri jakiteko. Hala gertatzen da jakintzan eta bai fedean ere (7).

(1) O. cit., 261 orr.

(2) O. cit., 264 orr.

(3) O. cit., 266 orr.

(4) O. cit., 269 orr.

(5) O. cit., 275 orr.

(6) O. cit., 277 orr.

(7) S. THOMAS, II-II, q. 1 a. 2.

Hamahirugarren Kapitula

DOGMAK ETA FORMULA DOGMATIKOAK FEDEAN

Fedeak ematen ote dio gizonari egiazko jakingarririk?

Aitzineko kapituluan ikusi dugu fedea ilun dela. Ikusi dugu ere zergatik halako den. Baina argitzaile ere bada fedea. Gizonari berri jakingarriak ematen dizkio, alegia. Jainkoaren ezagupenaren partaide bihurtzen gaitu.

Fedeaz argitua denak badu, fedeari esker, giza-bizitzeari dagozkion galdera larrienen erantzuna, eta erantzun horien ildotik zuzen ditzake hark bere urratsak. (Horrek ez du esan nahi, bestalde, fededunarentzat misterio eta ilunbe guztiak aienatzen direnik!).

Et. Lapeyre-k *Credo* liburuan (1) oso goian jartzen du fedearen alderdi hau, argi-emalle alderdi hau. Laket zaio fede katolikoaren saihets hori azpimarratzea.

Pasarte bat edo beste aipatuko dugu: “Ez othe da hori Fede gabeakoen itxura sobera egiazkoa? Izpirituko ilhunbeen eta bihotzeko pasioen tenpesten erdian hartua, ez argi bat, ez gidari bat; ezin jakin, norat dohan, zer egin behar duen, zer bilhakatuko den heriotzetik lekora. Oi! Zer bizitze trixte eta tormentatua!” (2).

“Bi hitzez erraiteko, Fedea da gure argia eta gure ona. Segurantz osoarekin erakusten dauku nondik heldu garen eta norat gohazin: Jainkoaz eginak gare, eta haren ganat behar dugu joan. Hortan da gure bizitzearen legea, hortan gure egintzen erregela. Nolakoa izanen baita zure bizia, dauku erakusten Fedeak, arabera aurkituko duzu Jainkoa, bizitze huntarik ilkiren zarenean: sariztatzaile on eta aberatsa, zerbitzari onarentzat; juie justu eta garratza, gaizki egilearentzat” (3).

(1) Baiona, 1891; “Lekukoak” bilduman bir-argitaratua; Bilbao 1982.

(2) LAPEYRE, o. cit., edizio berria, 57 orr.

(3) LAPEYRE, o. cit., 61 orr.

Lapeyrek horrenbeste prezatzen duen alderdi hau badakigu gaur auzipean jarria dela. Zenbaiten ustez, fedeak ez du ematen —eta ez du eman behar, gainera— argirik bat ere. Eta ematen baldin badu, fede jatorra ez delako seinale.

Aurki ote daiteke oposaketa handiagorik bi jarrera hauen artean? Beste muturrean den opinio honek hauxe dio, bada: fedeak ez dakar berekin argirik, ez dio ematen gizonari albisterik edo informaziorik bat ere. Eta orduan, eta orduan bakarrik, da fede huts-soila, biluzia. Fede horrek iluna besarkatzen du, ez du behar eta ez du nahi ere argi-izpirik. Kredorik gabeko fedeak nahi dute halakoek, hots, dogmarik ez duena. Fede *doktrinala* mezprezatzen eta irrigarri bihurtzen dute. Gizonaren galdera larrirentzat fedeak ez luke erantzunik, bada. Ez Jainkoari buruz, ez Jesukristori buruz, ez gizonaren zorteari buruz. Dogmarik gabeko fede huts-soila, horra egiazko fedeak.

Haatik... argiaren eta egiaren alderdi hau fedearen esplikazioan inoiz neurritz kanpo goretsi eta behar den marratik atera bada ere, eta zenbait zehaztapen egin behar badira ere, ez gaitezela, otoi, orain beste muturrera joan, dena ukatzeraino. Fedeak badakar berekin argi bat, badu zer-ikusi egiarekin eta gizonaren galde larri eta premiatsuenekin. Fedearen muin izkutuena eta sakratuena ez dago beharbada hor, baina alderdi hau ere ezin utzizkoa da fedean.

Eliz Irakasgoaren gutunek zer dioten

Azkenaldi honetan atera diren Eliz Irakasgoaren gutunek puntu hau azpimarratzen dute; eta arrazoiz, zeren ukatzaileak ateetan baitaude.

Aipa dezagun “Evangeli nuntianti” exortua (1).

Gutunaren VII. atalean hauxe irukartzen dugu: “Egiaren zerbitzari behar du izan mixiolariak, ebanjelioa hots egiten duenak. Egiaren kezka eta ardura, horra mezulariari galdegin behar zaizkion dohainetarik bat, eta ez azkenengoa. Amodioaren seinale da ziurtasun sendoak, eta ez zalantzak —gaizki asimilatutako erudizio baten ondorio diren zalantzak— besteri ematen saiatzea. Fededunek ziurtasun horien premia dute; premia, eta bai eskubidea ere”.

Pixka bat geroago, berriz, beste gutun bat irten zen, hots, “Catechesi tradendae” (2). Katekesia, jakina denez, kristau fedearen azalpen eta irakaspen sistematikoa izan ohi da, aski sakondua, hartzailearen ahalmenen arabera. Hara zer irakurtzen dugun gutun honetan: “Gaurko filosofik eskola batzuen eraginez, zenbaitek sostengatzen dute etengabe bila ibiltzea —sekula xedera heldu gabe—: horixe dela gizonaren oinarritzko

(1) Ikus *Ecclesia* (1976), Urtarrilean.

(2) Ikus *Ecclesia* (1979-XI-10).

jarrera. Pentsakera honen arauaz, fedea zer litzateke? Ez ziurtasun bat, galdera bat baizik. Ez argitasun bat, ilunera salto egitea baizik. — Pentsamolde hauek —dio gutunak— badute abantailik. Fedea oraindik ez ditugun gauzen gainean ari dela gogoratzen digute... Espero ditugun gauzen gainean, ispiluan eta ilunki baizik (1 Cor 13,12) ikusten ez diren gauzen gainean ari dela, alegia. Jainkoa ezin hurbilduzko argian bizi dela (1 Tim 6,16) oroitarazten digute. Fedea beti da ibilaldi bat, Abrahamena bezalaxe, eta ez instalaturik egotea. Are gutiago eman behar da ziurtzat, ziur ez dena.

Baina esanak esan eta, ez ditzagun gauzak bere errotik atera, gaur maizegi gertatzen den bezala. Hebertarren epistolan berean esaten zaigu fedea zera dela: Itxoikizunen mamia, ikusten ez direnen argibidea (Hebr 11,1). Jabetza osoa ez badugu ere, badugu bederen berme bat eta froga bat. Haur eta gazteak hezitzerakoan, ez diezaiegun eman fedearen kontzeptu bat guztiz negatiboa —jakinez huts-soila, itsumen-suerte bat, ilunbeen mundua—. Aitzitik, erakuts diezaiegun fededunaren bilakuntza umil eta azkarrak ez dituela abiapuntutzat hutsa eta irudipena, uste engankorrak eta duda-mudak, baina Jainkoaren hitzean oinarritzen dela, hots, enganatzen ez den eta ezin engana gaitzakeen hitzean. Ezin kordokatuzko Hitz horren gainean tinko oinarritua dela, alegia”(1).

Gutun honetan aitortzen den bezala, fedea ez da bake gozo eta zozo batean uzten gaituen argia. Ez du bilakuntza-gogoa itzali behar, ez ditu misterioak suntsitzen; baina, beste aldetik, argirik eta ziurtasun sendorik aski ere ematen digu, Jainkoaren hitzean oinarriturik.

Kristau fedea misterioz osatua baldin bada eta misterioak ezin konprenituzko gauzak baldin badira, bere baitarik doa fedeak ez duela iluna osoki aienatzen. Lehengo zenbait liburu irakurtzean, halako zantzu bat edo antz hartzen diezu, hots, zoko-moko guztiak beren arrazoibideekin zeharo argitu, zulatu eta plaundu nahi balituzkete bezala. Eta okerrago dena, oin berean jartzen dituzte misterioa bera eta misterio hori nolazpait argitzeko teologoen proposatu dituzten hipotesiak.

Misterioaren azken zola eta hondoa beti da ulertezina, eta ez dugu uste behar geure arrazoiketekin ingura dezakegunik. Misterioa beti da ilun. Baina bere ilunean ziurtasun sendo bat ematen digu, eta alde horretatik argi bat ere bada.

Gogora dezagun, azkenik, Hans Küng teologoaren kasua dela eta, Alemaniako Apezpikuen bilkurari Aita Sainduak egindako letra. Hara zer irakurtzen dugun bertan: “Bere zeregina bete ahal dezan, premiazko diren gauza oroz hornitu du Kristok Eliza. Utzi ote zezakeen, sinesten eta hots egiten duen egiaren ziurtasunaz gabetua?” (2).

(1) “Catechesi tradendae”, n.º 60.

(2) Ikus *Ecclesia* (1980-VI-7), 681.

Gaur modan den oposaketa: fede pertsonala eta fede doktrinala

Gaur askok ezagueraren alderdi honi dioten higuina, hara nondik heldu den: Israel eta Greziako pentsakeraren artean oposaketa jartzetik. Biak elkarren arteko guduan baleude bezala. Bai, mutilak gara gaur oposaketak nunahi bilatzen!

Biblian ageri den fedea —esaten dizute— pertsonala da oso, hots, pertsona batengan sinestea —Jainkoagan, noski—, Harengan fidantzia osoa jartzea. Fede-mota honek ez du deus ikustekorik adimenaz, ezagutzeaz eta jakitate objetiboaz.

Hala esaten dizue, nahiz eta hori hala ez den.

Baina gero zer pasatu zen? Kristautasunak topo egin zuen greziarren kulturaz. Kultura hau erabat Ontologiara buruz abiaturik zegoen, gauzak zer diren, nola diren etab. jakin nahi zuen. Eta joera honen ondorioz kristau fedearen kontzeptua bera neurri handi batean aldatu edo nahastu egiten da. Lehengo fede pertsonal jator hura bazterturik gelditzen da eta beste fede-mota bat asmatzen.

Zertan datza beste fede-mota honen gora-behera guztia? Dogma batzuk egiaztat edo ziurtzat edukitzean. Baina aldaketa hau ez genuke onartu behar. Fede pertsonalera itzuli eta ezagupenezko sasi-fede hori baztertu beharra dago, zeren ez baita jatorra, greziarren kulturatik aldatua baizik.

Zer esan? “Bat ala beste” esaten dela, “Bat eta beste” esan behar den lekuan.

Testamentu Berria pixka bat sakonki ezagutzen duenak badaki nola fedea muin eta edukin berri batez bete den Kristoren etorreraz eta Kristoren gertakariaz. Gaur batzuek meziprezioz *fede doktrinala* deitzen duten hori, argi eta garbi ageri da Testamentu Berrian. Hain da hori egia, non San Paulorentzat juduak *fedegabeak* baitira (Ikus 2 Cor 4,4). Zergatik? Kristo zer den, eta bereziki Haren piztuera, aitortzen ez dutelako. Alderdi doktrinal bat erantsi zaio fedeari, bistan da; lehen ere alderdi doktrinala neurri batean bazueta ukatu gabe; eta oraingo gehitze horrekin, lehengo alderdi pertsonala ez da bat ere galdu. Aitzitik, nik esango nuke alderdi pertsonal hau ere hazi eta azkartu egin dela.

Egia esan, alderdi doktrinala Testamentu Zaharreko fedean ere bazen, zeren Jainkoa badela aitortu gabe, nola izan dezakezu fidantzia Harengan? Baina orain Kristoren gertakaria gertatu da. Beraz, alderdi doktrinalaren pisua eta garrantzia handitu egin dela ezin uka daiteke; fidantziarena ere berebat handitu egin da. Oposaketa faltsoak dira, bada, hauek. Bi alderdiok —doktrinala eta pertsonala— elkarren osagarri dira fedean (1).

(1) Cf. MICHAEL SCHMAUS, *El credo de la Iglesia Católica. Orientación posconciiliar*, Madrid 1970; 233 orr.

Kristau fedearen alderdi pertsonala salatuko lukeen adigarri bat aipatu ohi da, hizkeratik hartua: “Credo in Deum”, “Pisteuo eis ton Theon” = *Sinesten dut Jainkoagan* (edo *Jainkoa baitan*). Esanmolde bitxi hau kristauen sorkuntza da, dirudienez. Erlijio jentiletan ez zen ezagutzen. Eta gramatikalariek txartzat jotzen zuten, hizkuntzaren legeen kontra zihoala eta. Izan ere, latin eta greko klasikoan sinetsi aditzak —horren ordainak esan nahi da, hots, “credere” eta “pisteuein”— ez du horrelako errejimenik.

Baina kristauak berez bezala eta ohartu ere gabe, barneko fedearen eraginez, sortu zuten *sinetsi* aditzaren errejimen berri hori. Zergatik edo zer adierazi nahiz? Beren fedea ez dela huts-hutsik sineskai batzuk egiaztat edukitzea; hori baino gehiago dela adierazi nahiz. Zer da, bada, bere muinean fedea? Pertsona batengan —Jainkoagan— fidantzia ipintzea, norbere izate osoa Hari buruz jartzea, Hari eskaintzea eta ematea. Fededunaren Jainkoaganako abiadura hau adierazteko, esapide hau oso egokia da (1).

Behin baino gehiagotan murriztu da fedea teologi eskoletako sistemetan, haren alderdi doktrinala bakarrik kontuan hartuz. Sistema horien arabera, fedea zera izango litzateke: sineskaien multzoa egiaztat edukitzea, besterik ez.

Hori ere bada, noski, baina alderdi pertsonala ez da baztertu behar. Giza-pertsona osoa Jainkoagana abiatzen da, Harengan kokatzen du bere zentrua, Harengan sinesten du, Harengan jartzen du bere itxaropen eta fidantzia guztia.

Jainkoak agertutako gauzak —sineskaiak— egiaztat dauzka, —nola ez?— fededunak. Baina era berean edo areago sinesten du Jainkoarengan Berarengan. “Zuregan sinetsi” eta “Zuk esanak sinetsi”: horra fedearen bi alderdiok bi esaldi hauetan adieraziak. Bistan da batak ez duela besteak kentzen, eta biak elkarren osagarri bezala direla.

Teologian badira hiru *bertute* —nahiz eta izen hau beharbada egokia ez izan (2)—, teologalak deitzen direnak. Gainerako beste bertuteek ez duten zerbait aitortzen zaie hauei. Hauek zuzenki eta artez atzematen dute Jainkoa, eta, hain zuzen, horregatik deitzen dira *teologalak*. Fedea, Esperantza eta Karitatea dira, jakina denez, hiru bertute teologalak.

Fedeak, bada, Jainkoa bera eskuratzen du. Aitzineko kapituluan esan direnetatik hori garbi ageri da.

Are ezagupenaren alderditik begiraturik ere, bertute teologala da fedea, zeren Jainkoagan eta ez kreatura batean bukatzen baita. Gogora dezagun San Tomasen pasarte hura, aurreko kapituluan aipatua: “Fededu-

(1) IKUS DE LUBAC (HENRI) “Los solecismos cristianos” in *La Fe Cristiana* liburua, Fax, Madrid, 275 orr. — VILLASANTE (L.) “Sinetsi aditzaren erabilkera batzuk aztertuz. Sinesten dut Jainkoa ala Sinesten dut Jainkoagan?”, *Euskera* (1976), 128.

(2) Horretaz ikus beherago 16. kapitulua.

naren aktoa ez da formularen edo esapidetan bukatzen, errealtatean baizik (1). Horrek esan nahi du Jainkoa bera atzematen duela fedeak.

Teoria bitxi bat: Jainkozko fedea eta Elizazko fedea ("Fides divina et fides ecclesiastica")

Teologiaren eremuan ezaguna da bi fede-mota —Jainkozko fedea eta Elizazko fedea— bereizi nahi dituen teoria hori. Horren arabera, fededuna, zenbait gauza sinesten dituenean, Jainkoaren hitzean oinarritzen da, eta orduan —eta orduan soilki— jainkozko fedean dago; beste zenbait gauza aitortzen dituenean, berriz, Elizaren esanean oinarritzen da, eta ez Jainkoarenean; beraz, honelakoentzat beste fede-mota bat jarri beharra legoke, eta hori da *Elizazko fedea* dei genezakeena.

Badirudi planteaketa txar baten ondorioz sortua dela bikoiztasun hau, eta, beraz, ez dela onartzekoa. Ez dago fede bat baizik, eta hura beti da jainkozkoa. Jainkoak esan digu: Entzun ezaiozue Elizari, zeren hark definitzen duen guztia egia baita. Hori hala baldin bada, Elizak definitzen duena aitortzean, nik Jainkoari berari egiten diot kasu, eta azken finean, Hari diot sinesten. Agerian dago, bada, Elizan aitortzen den fedea, Jainkozkoa dela beti. Bitaratze hori ez da zuzena.

Hau argiago ikus dadin, jar dezagun arrazoiketa silogismo erara. Nagusia: Jainkoak esan du: Elizak definitzen duen guztia egia da. Erdikoa: Elizak hau eta hori definitu ditu. Ondorioa: Hau eta hori egiak dira. Elizak banan-banan eta xeheki definituak oro silogismoaren Nagusi horretan sartuak daude; beraz, fededunak, horiek onartzean, Jainkoak esana sinesten du. Fededunaren fedea jainkozkoa da, bada. Beste fede-motarik ez dago, eta ez da behar, gainera (2).

Zer da dogma? Esnea eta esnekiak

Elizan badira dogma, hots, sineskaiak, beren formulapen trinko eta guzti, sinesteko proposatzen direnak.

Zer da, bada, dogma? Kontzilio Batikano Lehenak nozio hau eman zigun: Fede jainkozkoz eta katolikoz sinetsi beharrak honako hauek dira, hots: Jainkoaren hitz izkribatuan eta tradizioz hartutakoan daudenak, eta Elizak, nahiz epaiketa ospetsuz, nahiz Irakasgo arrunt eta orokorraren medioz, Jainkoak agertuak bezala sinesteko proposatzen dituen guztiak (3).

(1) II-II, q. 1, a. 2.

(2) Ikus TRÜTSCH, "Explicación teológica de la fe" in *Mysterium Salutis* I, 980.

(3) DS 3011.

Dogma zer den jakiteko, hemen ematen zaigu neurria edo erregela. Hemen aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten egiak, fedezko dogmak dira, bada, Elizan.

Horra zein diren baldintzok:

1) Egia horiek Jainkoak egindako Agerkundean egon behar dute. Beste hitzez esanik, Eskrituran edo Tradizioan egon behar dute (esplizitoki, inplizitoki, birtualki edo nola, hori beste kontu bat da; hemen ez gara horretan sartuko). Elizak defini dezake, noski, Agerkundean ez dagoen zerbait ere, fedearen gordairua babesteko beharrezkoa den aldetik. Horrelako gauzak, fedezko dogmak ez izanarren, Eliz Irakasgoak galdegiten duen atxikimendurik gorenaz sostengatu behar dira (1).

2) Elizak erabaki ospetsu baten bidez edo irakasgo arrunt eta orokorraren medioz egia hura Jainkoak agertua bezala sinesteko fededunei proposatu behar die.

Lehen baldintzaz gainera, bigarrena ere beharrezkoa da, noski.

Protestantismoan, jakina denez, ez da dogmarik. Eskritura Saindua, bai. Baina Eskrituraren interpretazioan obligaziozkotzat hartu behar diren baieztapenak, hori ez.

Galde lezake zenbaitek: Protestantismoak Eskritura onartzen baldin badu eta, dogmak Eskrituratik atereak baldin badira, nolatan daiteke hori? Eskritura onartzen duenak, handik heldu dena ere onartu behar lukeela dirudi. Bai, baina onartuko du bakoitzak pribatuki han baieztapen horiek aurkitzen dituen neurrian. Dogma asko ez dira Eskrituran aurkitzen hitzez-hitz eta Elizak eman dizkien formulapen horiekin. Gainera, eta "Dei Verbum" konstituzioak aitortzen duenez (2), Elizak ez du Eskrituratik soilki ateratzen bere ziurtasuna goi-agertuak diren egia guztiei buruz. Tradizioa ere hor da.

Konparazio batez baliaturik, esango genuke esnearen eta esnekien artean den aldea edo diferentzia dagoela Eskrituraren eta kristau fedezko dogmen artean.

Esnekiak —gaztaia, gaztanbera, gurina, gatzatua etab.— esnetik atereak dira, eta, nahi baduzu, esnea dira, baina beste moldaera batekin; orduan esnea ez, baina beste zerbait direla ere esan daiteke.

Biblian dagoen fedea —esnea— denborakin dogmetan mamitu da —esnekiak—. Urrats hau Elizan nola gertatu zen estudiatzea oso interesgarri izango litzateke, baina hemen ez dugu hori egiterik.

Hain zuzen ere, argitzapen eta zehaztapen asko Elizako Gurasoen aroan gertatu ziren. Ordura arte fedea dena osorik gordetzen zen Elizan, baina anitz gauza zehaztu gabe zeuden, ez argi bai argi. Horejiek behartu zuten Eliza zehaztapen horiek egitera. Alde honetatik begiraturik, Eli-

(1) VILLASANTE (L.), *Eliza*, 15. kapitulua, 235 orr.

(2) "Dei Verbum", n.º 8.

zako Gurasoen lana izugarri onuragarria izan zen. Orduan, gero eta argiago, eta formula zehatzagoetan finkaturik gelditu zen Elizaren fedea, betiko fedea (1).

Agerkundearen gordairua eta Tradizioaren hazkundera Elizan

Batikano Lehenean irakurtzen dugu: “Jainkoak egindako Agerkundera Elizari gordairu antzo utzi izan zaio, leialki gorde dezan eta gizonei irakats diezaien” (2).

Gordairua beterik eta itxirik dago; zeharo berri den gauzarik ezin har dezake. Agerkundera Apostoluen garaia batera bururatu eta bukatu zen (3).

Beraz, Elizaren zeregina hauxe da: Jainkoak behin betiko egindako Agerkundera gizonei hots egitea. Beste hitzez esanik: Ebanjelioa huts-hutsik irakatsi behar du, deus erantsi, aldatu, kendu edo kutsatu gabe.

Batikano II.ak gauza bera gogoratu digu (4): “Elizaren Irakasgoa —dio— ez dago Jainkoaren hitzaren gainetik, honen zerbitzutan baizik. Ez du irakasten emana izan zaiona besterik”. Beraz, Elizak gordairu bat du (Eskritura eta Tradizioaz osatua) eta handik ateratzen du sinesteko proposatzen duen guztia.

Batikano II.ak berak, ordea, beste zer bait gaineratu du, orain arte guti kontutan hartua, hots: Tradizioaren hazkunde bat gertatzen dela Elizan Izpiritu Sainduaren laguntzaren pean (5). Horrek esan nahi du fedearen ulerpidea gehituz doala, aberasketa bat gertatzen dela, nahiz eta fedea beti bat izan (6).

Jesusek berak azken afarian ez ote zuen esan: “Oraino gauza asko ditut zuei esateko, baina orain ez ditzakezue jasan”? (Jo 16,12).

Elizan menderen-mende argitzapen bat gertatzen da, bada; baina betiko emandako fedeari leial egonez. Eta azken finean, Elizak berak egiten du, goiko laguntzaz, gordairuaren interpretazioa.

Printzipio hauen argitan hartu behar dira dogmak.

Formulapen dogmatikoak eta fedea

Jainkoak bere Agerkundera egin dio gizonari, eta Elizak Agerkundera hori formulapen dogmatikoetan mamitua eta bildua ematen digu. Orain

(1) Ikus VILLASANTE, *Eliza*; 302 orr.

(2) DS 3020.

(3) DS 3421.

(4) “Dei Verbum”, n.º 10.

(5) “Dei Verbum”, n.º 8.

(6) Hau ongi ulertzeko badirudi Mendebaleko teologian oraintsura arte zabaldu-rik egon den Tradizioaren nozioa pixka bat aldatu behar dela; baina horretaz ikus beherago 20. kapitulua.

bada, gehienetan behintzat, Agerkundera bere sorburuan ageri zaigun eran eta gero formulapenetan ematen zaigun bezala ikusirik, halako moldaera, arrimu edo antolaketa nabari dela, ezin uka.

Hitz bat esan beharra dago, bada, dogmek eta formula dogmatikoek fedean daukaten tokiaz.

Elizak, dogmak definitzen dituenean, Jainkoaren Agerkundera argitu, zehaztu eta babestu nahi du, eta horretarako dogma horiek halako formulapen batzuetan ematen dizkigu. Baina gehienetan —esan dugu— dogma horiek, formulaturik dauden eran edo tankeran ez dira Agerkundera aurkitzen. Dogma horiek onartu behar dira kristau fedean? Eta onartu behar baldin badira, zer erlaziotan daude Agerkunderaz? Eta Elizak onarturik duen dogmaren formulari berari zenbatetarainoko balioa aitortu behar zaio?

Horra auzi honi buruz egin ohi den galdera-saila. Ikus dezagun laburzki zein den galdera horien ihardespena.

Dogmak fedezko egiak dira, noski. Baina horietako batzuk behintzat, ez dira beti espresuki eta esplizitoki Elizaren kontzientzian egon; esan nahi dut: jainkozko egiak zirela Elizak argi eta garbi beti ez du jakin. Mendeak joan eta mendeak etorri, hori gero eta argiago ikusi izan du, eta azkenean formula batean definiturik eman digu. Adibidez, Ama Birjina jatorrizko bekatugabe sortu zela. Dogma hau 1854. urtean definitua da, baina Jainkoaren Agerkundera aurkitzen dela esanez (1).

Beraz, Elizak ez du uste berak egia hori asmatu duenik. Behin egingdako Agrekundera aurkitzen delako, Elizak sinesteko proposatzen du eta definitzen du. Berdin edo antzera Ama Birjinaren Josakundera, 1950. urtean definitua (2).

Dogma guztiak ez daude kasu berean, eta ez dute historia berbera izan. Gehiago oraindik: Elizako dogmen artean agian ez daude bi Historian zehar berdintsuki azaltzen zaizkigunak. Bakoitzak bere bidea izan du. Baina ez da gure asmoa oihan horretan sartzea. Formulapenen balioaz eta dogmek gure fedean duten lekuaz hitz bat esan nahi dugu soilki (3).

Formulen balioaz

Federean Dotrinarako Kongregazioak “Mysterium Ecclesiae” izeneko Adierazpena agertu zuen (4). Gutun honen 5. puntua, hain zuzen, formulen balioaz eta interpretazioaz mintzo da. Mamiz hara zer dioten:

(1) DS 2803.

(2) DS 3903.

(3) KARL RAHNER y KARL LEHMANN “Historicidad de la transmisión [de la Revelación]” in *Mysterium Salutis* I, 812.

(4) Ikus AAS (1973), 396.

Agerkundera mendez-mende Elizan gorde da. Eta sineskaiak, gizalditik gizaldira, eskutik eskura bezala, pasatu dira. Sineskai horien adierazpide diren formulek, ordea, inoiz aldaketak ezagutu dituzte. Horrek ez gaitu gehiegi harrituko, baldin gogoan hartzen badugu, alde batetik, misterioen izakera, eta, bestetik, Agerkundera historikoki adierazirik eman zaigula. Hortik, noski, istilu batzuk sortzen dira.

Formula baten sentsua jakiteko, formula hura asmatu zen garaiko hizkeran hitzok zer esan nahi zuten eta gainerako xehetasun konkretuak jakin beharra dago.

Eta gerta daitekeena da formulak, hasiera batean, egia osoa hain egoki ez den molde batez azaltzea —faltsoki ez arren—, eta geroago beste formula batez osokiago agertzea. Geroagoko formula berriek lehenagoko formuletan zegoena argitu, zehaztu edo finkatu nahi izaten dute, eta sarri kuestio berri batzuei erantzun ere bai, edo oker-aditu batzuk baztertu, etab. Formulak ongi ulertzeko guzti hau kontuan eduki behar da. Formula horietan, gainera, maiz aurkitzen dira hitz edo esaldi batzuk garai hartako sistema iragankorren kutsua dutenak.

Baina formulok hasieratik egia adierazten dute, eta zuzen eta zintzoki adierazi ere, eta ongi interpretatzen dituztenentzat beti izango dira egiaren adierazpen zuzenak. Denboraz, ordea, batzuk hain egokiak ez izatea ere gerta daiteke. Baita ere gerta daiteke formula zaharrak eta geroagokoak elkarren ondoan irautea, azkenengo hauek besteen esanahi berbera dutelarik, nahiz eta zerbaitetan berria zehatzagoa izan. Beste zenbaitetan formula berriek zaharren tokia hartu dute, egia berbera argiago adierazten dutelako.

Formulen esanahia zuzena eta egiazkoa da, bada, eta beti bat mendez-mende. Formula horietan dagoen muina ziurra da, ezin alda daitekeena, beti gorde beharrezkoa. Berriztatze edo aldatzea adierazmoldean soilki gerta daiteke.

Formulen azpian datzan muina ez da, bada, aldatu. Lehen zuri zena ez da gero beltz bihurtu, alegia. Eliza bere fedea proposatzean hutsezin baldin bada, bistan da fedearen dogmak ezin alda daitezkeela sentsu batetik bestera.

Modernistek sostengatzen zuten erabateko eboluzio eta aldakuntzak gerta daitezkeela eta gertatu direla kristau fedeko dogmetan; baina hori ez da hala, eta Modernismoaren aurkako gutunetan aburu horiek arbuiatu egiten dira (1). Batikano Lehenak ere espresuki gaitzetsi zuen uste hau (2).

Joan 23.ak, Batikano II.a zabaltzerakoan egin zuen hitzaldian, puntu hau izendatuki ukitu zuen: "Kristau dotrina ziurra eta ezin aldatuzkoa gure denborek galdegiten duten gisan aztertu eta azaldu beharra dago.

(1) Ikus DS 3458, 3463, 3465, 3541.

(2) DS 3043, 3020.

Izan ere, gauza bat da fedearen gordairua —edo gordairu honetan diren egiak—, eta beste bat egia horien adierazmoldeak, esanahia edo adiera beti bat utzirik” (1).

Enkarnaziozko egitura du Fedeak

Gaur batzuek nahi lukete fede huts-soila, bat ere dogmarik ez duena. Baina hori ez da gizatiarra, hots, humanoa. Jainkoaren Agerkundeak, eta bai graziak ere, Enkarnaziozko —hots, gizakundezko— egitura du, hau da, haragitu egin da. Eta beharko, zeren gu ez baikara izpiritu hutsak, gorputz eta izpiritu baizik. Horregatik jainkotiar Agerkundera gizatiar erataraz emana izan zaigu eta giza hizkuntzan adierazia izan da.

Jainkoaaren misterioak giza formulatan adieraziak, bada. Badakigu giza-hizkuntza zein ezteus, arlote eta motz den gauza horien mintzabide izateko. Ezin sendatuzko gaitza eta ahulezia du. Alde horretatik zilegi da formulen erlatibitatea gogoratzea. Gure hizkeraren desgokitasun hau senda ezina da. Halarik ere, eta akats eta moztasun guztiekin, formula horiek egiazki, finki eta jatorki dakarkigute beste munduko misterioen berria. Hauxe da fedeak egiten digun mesede harrigarria: hemen lurrean sinesten duguna eta zeruan bekoz-beko ikusiko duguna, gauza bera baita! Han, berriz, hemengo ezaguerak tokia utziko dio hangoari, haurrarenak gizon helduarenari uzten dion bezala. Ikus 1 Cor 13,11.

(1) AAS (1962), 792.

Hamalagarren . Kapitulu

FEDETIK SAIHESTEN DIREN JARRERAK

San Mateoren ebanjelioan bada pasarte bat guztiz hunkigarria, Jesusen bihotza eta gizonenganako zituen urrikarizko sentimenduak zabal-zabalik salatzen dizkiguna. Jesusen joan-etorri, prediku eta mirakuiluak kontatu ondoan, hara bi lerrotan azaltzen digun zertzelada: "Eta ikusten zituela gizon oste hek, urrikaldu zitzaizkon, zeren nekatuak baitziren, eta etzanak hor-hemenka, nola artzainik ez duten ardi batzu" (Mt 9,36; Haraneder-en itzulpena).

Hogei mende igaroak dira kasik, Kristo lurlean agertu zenetik. Eta salbuespenak salbu, aitortu behar da egungo Elizari begien aurrean azaltzen zaion ikuspegia eta Jesusi behiala azaldua ez direla arras desberdin.

Elizak badu mundu osoan ebanjelizatzeko mandatua. Predikazioa onartzetik heldu da fedea. Eta fedea da salbamenaren ataria. Baina Elizak bere zeregin hori betetzeko zenbat oztupo, traba eta eragozpen ez ditu aurkitzen! Eta agian behar lukeen karra ere ez du beti erakutsi.

Aita Saindu Paulo VI.ak "Evangeli Nuntiandi" gutuna agertu zuen 1975eko Abenduaren 8an (1). Gutun honek badu atal bat, V.a, zeinetan ebanjelizazioaren destinatariak sailkatzen baitira. Bertan egungo egoeraren panorama bat bezala eskaintzen zaigu; hots, ebanjelizazio eta fede aldetik gaur nabari den egoeraren deskribapena.

Jesusen agindua Ebanjelioan garbi dago: "Zoazte mundu guztian barna, predika ezazue Ebanjelioa bizi diren guztiei" (Mc 16,15).

Mundu osoan ebanjelioa hots egin behar du, bada, Elizak, eta hori Kristoren aginduz. Ez dago jende-mota, gizarte-maila, kultura ez arrazarik Ebanjelioa hots egin behar ez zaionik.

Aipatu dugun gutunak gaurko munduaren arradiografi edo sailkapen bat egiten digu fedeari dagokion aldetik. Lau sail handi bereizten ditu:

(1) Ikus *Ecclesia* (1976ko Urtarrilean).

1 Deskristautuak

Geroago eta beharrago da horiekin lan egitea. Bataiatuak izan dira, baina zeharo aldenduak daude kristau bizieratik. Kristau fedearen oinarriak ez dituzte ezagutzen bat ere, edo oso guti.

2 Kristau ez diren erlijioetakoak

Elizak erlijio horiek errespetatzen eta estimatzen ditu, nola ez! Jainkoaganako bide izan dira eta dira askorentzat. Ebanjelioaren prestaera bat bezala ere har daitezke.

Horrek ez du esan nahi, ordea, herri horietan ebanjelioa predikatu behar ez denik. Jendetza horiek eskubidea dute Kristoren misterioaren ondasunak ezagutzeko. Jainkoari buruz, gizonari buruz eta gizonaren zorteari buruz gizadiak aztamuka bilatzen duen oro Ebanjelioan aurkitzen du.

Hortik, Mixioen xede eta premia. Mixioak ez dira, ez, behialako gauza, gaur gainditurik legokeen gauza.

3 Fededunak

Horra beste sail bat kontu handiz zaindu beharrekoa. Fededunen fede, gaur, maiz-sarri esetsia eta setiatua bezala dago. Hiltzeko zorian, gutiz-gehienetan. Fedezko biziak mantendu beharra du.

4 Elizarekin komunio osoan ez dauden kristauak

Hauek Joan XXIII.ak *anaia aldenduak* deitu zituenak dira; izen arruntez protestante, hereje, zismatiko etab. deitzen zirenak, alegia; baina gaur izen mingarri horiek ez dira erabili nahi.

Haatik, horien aurrean ere Elizak Agerkunde osoaren testigantza eman behar du.

* * *

Gaurko aje nagusiak

Gaur —gaineratzen du Aita Sainduaren gutunak— fedeak duen etsairik handienetako bat *Sekularismoa* da. Ikusmolde honen arabera, munda berez esplikatzen da, bere baitarik, alegia; beraz, ez

Beste etsaia, berriz —hots, Ateismoaren beste aurpegia— *kontsumo-gizarteak* eskaintzen digu. Gizarte honek badakigu zer jotzen duen babilio guztien gaineko balioetat: hedonismoa, atsegina. Hau hartu beharko luke gizonak jo-muga eta helburu nagusi bakartzat.

Kristauen artean asko dira gaur *praktikatzen* ez dutenak. Sinesgabeekin har-emanetan direlako, sinestezaaren eragina jasaten dute. Inoiz beren jarrera hori zuritu nahiz esango dizute, agian, barneko erlijioaren zale direla, benetakotasuna, jatoritasuna, *autentizitatea* maite dutela. Baina...

Jainkogabeko sekularismoa eta erlijioaren praktikarik eza, bai bata eta bai bestea, gaur orotara zabalduta dira, bereziki Etzinaldeko herrietan.

Elizak, bada, bideak eta hizkera-molde egokiak bilatu behar ditu egungo mundu honi Jainkoaren Agerkundera hots egiteko. Fedea proposatzeko.

Kristok bere egunetan bezala, Elizak ere jendetza ugaria du bere begien aurrean. On-behar eta aiduru den jendetza. Jendetza honek Ebanjelioaren beharra eta bai eskubidea ere badu. Berri onaren mezua ez da eskolatu guti batzuen artean edo talde ttipi batean soilki gordetzekoa. (Honeraino "Evangelii Nuntiandi" delakoak).

* * *

Fedean gizona artez eta zuzenki Jainkoarekin elkartzen da. Baina elkartze honek enkarnaziozko egitura du, esan nahi baita, giza hizkeran adierazitako dogmetan gauzatzen da. Guzti hau, gainera, komunitate batean gertatzen da, hots, Elizan. Fedearen sinboloak ez dira fededunaren eta Jainkoaren artean tartekatzen, traba edo oztopoak o

Sinestez negatiboa da honako beste egoera hau ere: fedea egon badago, baina ez daki bere buruaren berri, ez du kanpoalderako adierazpenik, ez du loturarik fededunen komunitateaz, ez du fede aitormen jakinik. Eta guzti hori gertatzen da fededunak errurik ez duelarik. Honelako kasutan gizonek, adierazpide-bila, nork bere tradizioko erlijio-formetara jotzen dute.

Kristau mezuari baiezkua ukatzen zaionean, orduan dugu *sinesgabetasun positiboa*. Ukatze hori, ordea, bitarikoa gerta daiteke: materiala eta formala. Materiala da nork bere errurik gabe fedearen obligazioa ezagutzen ez denean. Ez dezagun pentsa hori ez dela posible.

Eskritura Sainduan gogorki astintzen eta gaitzesten dena bestea da, hots, *sinesgabetasun positibo formala*. Ikus Mt 16,16; Mt 10,14; Lc 10, 10-16; Jo 15,22-24; Act 21,8.

Sinesgogortasun hau gertatzen da: 1) fedearen obligazioa argi eta garbi ikusi, eta hala ere uko egiten zaionean; 2) norberaren erruz obligazio horren berria agerriz azaltzera heltzen ez denean —eta hori ere gerta daiteke, zeren ezagutze-mota hau librea baita—. Bigarren kasu hau, dirudienez, bestea baino errealagoa da.

2 Herejia

Herejia bataiatuak direnengan soilki gerta daiteke.

Fede jainkozko eta katolikoz sinetsi behar den egia bat temaz eta setakeriaz ukatzen edo seriozki dudatan jartzen baldin badu bataiatua den eta kristau izaten segitu nahi duen batek: orduan dugu herejia (1).

Beraz, Kristoren Elizan onarturik den fede-aitormeneko egiaren bat edo batzuk ukatzen dituenari hereje

3 Arnegua (apostasia)

Arnegua gertatzen da fededun den batek fedea arnegatu edo uzten duenean. Hori gerta daitekeena da, zeren fedea librea baita. Baina, beste aldetik, fedea ziurra eta hutsezina ere bada, eta, beraz, fededunak fede osoan irauteko obligazioa du. Horregatik, arnegua beti da bekatu larria, objetiboki behintzat. Baina beti, nahi-t'ez, kasu denetan sujetiboki ere hala ote da, gero? Auzi honi buruz dagoen eztabaidaz, eta, itxuren arabera, eman behar zaion erantzunaz, gorago mintzatu ginen, eta ez goaz gauza berriz tratatzera (1).

4 Fedezko duda

Fedearen propietateak aztertzerakoan ikusi zenez, posible dira dudak fedean. Fedea iluna da eta galkorra, nahiz eta sinesgarri eta ziurra ere izan. Esetsiak eta erasoketak jasan ditzake fedeak. Baina fedeak, fede izatekotan, Jainkoaren autoritate hutsezinari erabateko eta oso-osoko baiezkua zor dio.

Horregatik, dudatzea sinesgabean edo herejian erortzea bezalaxe da.

Duda, ordea, tentazio bat ere izan daiteke, norberak nahi ez duelarik sortzen den tentazioa, eta, beraz, errugabea, leku ematen ez zaion bitartean.

Fededunak, fededun izanik ere, jasan ditzake neke eta zailtasunak fedearen zenbait puntu elkarlotzean edo adimenduaren eskakizunei erantzutean, baina hort

berean ere, adin batetik bestera. Hori dela eta, fedeak aldarte eta mugaldi guztietan zaindu beharra du, bere mantenua eta ardura zor zaio, alegia, tokian tokiko eta aldian aldiko beharren arabera.

5 Sineskeria (Superstizioa)

Superstizioa egiazko erlijioaren desbiderapena da.

Zertan datza desbiderapen honen funtsa? Itxuren arabera, honetan: Jainkoaren adoratzaille jatorra, otoitzean Jainkoari zenbait eskabide eginarren, beti dago gertu Haren borondate saildua onartzera, eta Jainkoaren nagusitasuna gogoz aitortzen du. Superstizioak, aldiz, nahi du Jainkoa bere nahierara erabili, hots, Jainkoari nahi dio gizonaren nahia inposatu; berari gogoak ematen diona nahi du Jainkoagandik baitezpada lortu, eta horretarako zenbait praktikaz, errituz eta baita gauzarik hoberenez ere baliatzen da. Superstizio-mota asko dago: sorginkeria, magia, aztikeria... Magia da, esate baterako, praktika batzuk egin hutsen bidez zerbait segurki eta gertuki lortu nahi izatea. Inoiz magia-kutsu zerbait nabari da egiazko erlijioa dutenetan ere. Jakinezak bere partea izan dezake horretan.

Beti kontu handia eduki behar dugu erlijiozko geure bizitzea desbiderapen horietarik gordetzeko.

Haatik, ondorio makurra izango litzateke, desbiderapen horiek direla eta, eskabidezko otoit

Jainkoaren dohaina dela, Jainkoak doarik ematen diguna, eta beti Haren eskuan dagoena. Beraz, emana izan zaigun bezala ken dakiguke ere. Ez arbitrarioki, noski, baina bai gure erantzun edo portaera txarraren ondorioz.

Beste aldetik, fedea salbazioaren atea da. Ondasunik handiena, beraz, gehienik preztatzekoa.

Fedea gal daitekeela jakiteak beronen arreta izatera eraman behar gaitu. Fedea zaintzeko neurriak hartzera, alegia. Batez ere gaur beronen aurka etsaiak pilatzen direla jakinik.

Zer-nolakoak dira hartu behar ditugun neurri horiek?

Lehenik, fedea Jainkoaren dohaina baldin bada, Harekiko gure portaera ere leial eta zintzoa izatea. Jainkoarekin zintzo jokatzeko arduratzeko ez dena, ez bedi gero mirets, baldin Jainkoak bere dohain paregabeko hau erretiratzeko badio. Baita otoitzak, eta Elizako sakramentuetan parte hartzeak ere, zer-ikusirik handia du fede-bizitzea azkartzearekin.

Fedearen auzi honetan pertsona osoa, eta ez adimendua bakarrik, dago jokoan sartua. San Joanen ebanjelioan anitzetan gogoratzen zaigu hori. Hara pasarte batzuk: "Jainkoaren nahia egin nahi duenak ikusiko du, Nik irakasten dudana Jainkoare

kizunez. Beste hitzez esanik: amodioak agintzen du hemen adimenak aiña, edo gehiago.

Baina guzti hau hala dela aitorturik ere, fedeak artez eta zuzenki zer-ikusi du adimenarekin, eta alderdi hau ere ezin utzizkoa da. Beraz, adimenari ematen zaion hazkurria ez da ondorio gabe.

Gaur kutsaduratik begira gaitezela eskatzen zaigu; inork ere, eroa ez baldin bada, ez du pozoirik irensten. Mundu izpiritualean, berriz, areago egin beharko genuke hori; baina zoritxarrez, ez da berdin jokatzeko. Irakurgaiek, ikuskariak, mundu-giroak gaur fedeari azpiak jan ditzaiokete. Ezin ibil gaitezke txantxetan hainbeste doakigun arazoan.

Gaur lau haizetara zabaltzen diren ideia, pentsamolde eta ideologia asko eta asko ez datoz fedeararekin bat. Bat ala beste egin beharra dago. Zenbat gauza ez dira gaur bat ere kritikarik gabe irensten, ondorioei begiratu gabe!

Guzti hau, auziaren alderdi negatiboa baizik ez da. Eta alderdi positiboa ere zaindu behar da. Mundu honetan erromes eta ibiltari garen bitartean, fedea positiboki ere mantendu eta hazi beharra dago. Fedeak behar du bere janari propioa, bere eskola, bere etxe-giroa. Nun aurkituko du? Fededunen komunitatean, Elizan. Irakurgai taxuzkoak ere behar dira, nork bere fedea argitzeko eta sendotzeko, bakoitzaren premia eta eskakizunen arabera. Gaur kanpoaldeko giroak ez dio, behiala bezala, fedeari laguntzen.

Ez dezagula behin ere

II PARTEA

Hamaboskarren Kapitulu

FEDEA BIBLIAN

Kristau fedeari buruz ikerketa egin nahi denean, ezinbestekoa da Bibliara jotzea, eta han *fede* hitzak eta *sinetsi* aditzak zer-nolako edukina, adiera, erabilera etab. duten aztertzea. Azterketa honetan hitz soila baino areago interesatzen zaigu hitzaren azpian datzan mami gordea, fedearen beraren nozio edo kontzeptua, alegia. Hortik aterako dugu Bibliaren usuarioan zer den fede, fede hori zer osagaiz den osatua, etab.

Esan beharrik ez dago fedeari buruzko teologian ezin utzizkoa dela azterketa hau. Aita Alfaro egindako bilketa eta azalpenari jarraituko gatzazkio orpoz-orpo, hark hedatuki dioena hitz gutitan laburtuz (1).

TESTAMENTU ZAHARREAN

“Heemin” hitza

Fedezko eginkari edo aktoa adierazteko Testamentu Zaharrean bada erasia edo formula jakin bat: “heemin be Yavéh”. Zer esan nahi ote du preseski eta zehazki formula honek? Hauxe: Norberak bere burua Jainkoarengan bermatzea, oinarritzea. Jainkoa oinarri eta bermetzat hartzea.

“Heemin” hori “aman” aditz-erroaren hiphil forma baizik ez da; eta “aman” horrek fermu, gotor eta tinko izatea esan nahi du (2).

(1) ALFARO (J.), “Fides in terminologia biblica”, *Gregorianum* (1961), 462-505. — Ib., “Actitudes Fundamentales de la existencia cristiana” in *Cristologia y Antropologia* liburuan, 1973; 413. eta honen ondoko orrialdeetan.

(2) Kristauetan ez da inor *Amen* hitza ezagutzen ez duenik. Heberkerazko hitza da, noski, eta “*Aman*” horren kidea. Beronen esanahia *Hala izan bedi* dela irakatsi ziguten, baina itxuren arabera, *Hala da* itzuli beharko litzateke. Irmotasuna, segurantzia adierazten du. Ikus X. LÉON-DUFOUR, *Vocabulario de Teología Bíblica*.

Hitza, Testamentu Zaharreko liburuetan, testiunguru desberdinetan azaltzen da, baina beti ere sustraizko adiera orokor bat du, hots, fermutasuna, egonkortasuna, finkotasuna.

Gizon bati buruz erabiltzen bada, esan nahiko du gizon hura fidagarri dela, sinets dakiokeela. Jainkoari buruz erabiltzen denean, berriz, esan nahi du Haren agintzek ez dutela huts egiten, Haren hitza beti betetzen dela. Beraz, gizonak segurki baino segurkiago har dezakeela Jainkoa euskarritzat.

Adibide batzuk

Hitz hori, bai testu-inguru profanoetan eta bai erlijiozkoetan ere erabilia ikusten dugu.

Erlijiozko enplegua ikusteko har dezagun, esate baterako, *Gn 15,6*. Nahiz eta itxura guztiak kontrakoak izan, Abraham Jainkoaren promesari lotzen zaio. Jainkoagan ipintzen du bere fidantzia: horra fede honen alderdirik nabariena. Beste alderdirik ere badu, noski: Jainkoak agintzen dion gertaera gertatuko dela sinesten du Abrahamek. Beraz, Abrahamen fedea bi osagaiz osaturik dela esan genezake: fidantziaz eta adimenezko konbentzimenduaz. Jainkoari sinetsi dio Abrahamek: Harengan jarri du bere fidantzia. Jainkoak bere Agerpena egiten duenean, gizonak erantzuten du Hari sinetsiaz, Harengan fidantzia ipiniaz. Hori eginez Jainkoaren zintzotasuna eta leialtasuna aitortzen da. Fede-mota honek, etorkizuneko zerbaiti buruz denaz geroz, itxaropenaz ere badu zer-ikusi.

Beste pasarte bat: *Ex 3,1-22; 4,1-31*. Jainkoak agintzen dio Moisesi: “Zoaz Ejipton gatibu diren israeldarrengana eta esaiezu Nik askatu nahi ditudala”. Moisesek erantzuten dio Jainkoari: Jendeak ez nau sinetsiko; “Jainkoa ez zaizu agertu”, esango dute. — Orduan Jainkoak ezaugarri edo mirari batzuk egiteko ahala ematen dio, jendeak sinets dezan amoreagatik. Eta hala gertatu zen. Sinestamendu horien aurrean, jendeak sinetsi egin zuen.

Beraz, herriak, ezaugarriak ikusi ondoren, Jainkoa Moisesi agertu zaiola eta herriaren askapena egingo duela, sinesten du. Hemen ere, sinestea zer da? Alde batetik, Jainkoa Moisesi agertu zaiola egiaztat edukitzea, eta, bestetik, Hark agindutako askapenean fido izatea.

⁸¹ Jainkoari ez sinestea, berriz, zer da? Haren hitzaren kontra asaldatzea, errebolta egitea. Haren promesez mesfidati izatea. Ikus *Num 14,11*.

Horra beste pasarte bat: *Is 7,9*. Akaz erregea, bere erresuma erasoa ikusirik, beldurrez da eta Asirioen erregeari laguntza eskatu nahi dio. Isaias profetak, ordea, Jainkoaren partez mezu hau jakin arazten dio: Beldurrik ez izateko, Jainkoagan soilki fidantzia jartzeko, eta hala —eta ez bestela— aterako dela garaile. Eta gaineratzen du: “Sinesten ez baduzue, ez duzue iraungo”.

Zer da hemen *sinestea*? Fidantzia Jainkoagan soilki jartzea. Baina horretarako Jainkoaren mezua egiaztat hartu ere egin behar da, noski. Asiriarekin akordioa ez egiteko aginduari ere obeditu behar zaio. Beraz, osagai guztiok ditu sineste-eginkariak, baina fidantziaren alderdia ageri da nagusi.

Is 43,10-12. Ezagueraren alderdia ageri da lehen tokian.

Is 53,1. Ezagueraren alderdia hemen ere.

Ps 77 (78). Jainkoaren egintza handiak —“magnalia Dei”—, Israelgo historian gertatuak, kontatzen dira, herriak sinets dezan. Salmo honen arabera, zer da, beraz, sinetsi? Jainkoaren esku boteretsua eta askatzaila aitortzea. Herriak ezagutu behar ditu egintza horiek, hortik fidantzia har eta Jainkoari obedi diezaion: horra zer den sinestea.

Gauza bera ageri da 105 (106). Salmoan ere.

Beraz, fedea da Yahveh-ren alderakotzat atxikitasun osoa izatea.

Labur bilduz

Testamentu Zaharreko sinesteak, bada, guzti hau du berekin: a) Yahveh-ren esku salbagarria ezagutu eta aitortzea, b) Haren agintza edo promesetan fidantzia jartzea, c) Yahveh-ren aginduei obeditzea.

Fidantziaren alderdia da gehienetan —ez beti— nabarienik agertzen dena.

Fedea dela bide, gizonak Jainkoa hartzen du euskarri eta Jainkoarekin har-emanetan sartzen da.

Baina fedea muin edo edukin baten inguruan da beti ere, eta muin hori egiazkotzat jo behar du fedea, bistan da.

Labur: Testamentu Zaharrean fedea da Jainkoaren hitz, promes eta aginduei *Amen* esatea, gizonak bere bizitza Jainkoagan oinarritzea.

2

TESTAMENTU BERRIAN

Gertakari berri, bakan eta bakarra: Kristo

Gertakari berri bat dugu hemen, hots, Kristo deitzen den gertakaria. Behin betiko eta erabateko den zerbait gertatu da Kristogan. Berau da Testamentu Zaharreko promes guztien bilduma eta konplimendua. Hori dela eta, orain kristau fedean lerro lodiz azpimarratzen da aitorreraren alderdia. Baina, beste aldetik, Kristoren piztuera promes bat ere bada

etorkizunari buruz. Gertatu dena eta gertakizun dagoenaren esperantza, bi-biak uztarturik daude kristau fedean. Fede hau, alde batetik, gertatu denari begira dago, eta, bestetik, oraindik gertatu gabe dagoenaren begira.

Hortik kolore berezia hartzen du Testamentu Berriko fedeak, Testamentu Zaharreko fedez konparaturik. Alde batetik, kristau fedea Testamentu Zaharrekoarekin segidan dago; baina bestetik bada halako eten bat eta berritasun handi bat ere. Kristoren etorreraz eta etorrera honek ixuri duen argiaz Testamentu Zaharra bera ere argi berritan ikusten dugu, antzaldaturik bezala, alegia (1).

Ebanjelio Sinoptikoetan

“Pisteuein” = *sinetsi* aditza 34 aldiz azaltzen da. Askotan ezein osagarri gabe, inoiz osagarria datibo kasuan duela. Inoiz “oti” partikula du ondotik; inoiz osagarria akusatibo kasuan dator; inoiz “eis” edo “epi” preposizioak datoz osagarriaren aitzinetik eta osagarria akusatiboz nahiz datiboz jartzen da.

“Pistis” = *fede*, *sineste* izena 24 aldiz azaltzen da. Gehienetan bakarrik, edota aldamenean genitibo bat duela: fede hori duen sujetua adierazten da genitibo horrekin. Ikus, adibidez, Mc 2,5; 4,40.

Fedearen aipua sendapen-pasarteetan gertatzen da batez ere. Jesusek eriei fedea eskatzen die. Aski da ikustea eriek berek nolako hitzekin adierazten duten beren fedea, fede horren elementu printzipala fidantzia dela esateko. Ikus Mc 5,28. Baina hitz horiek konbentzimendu bat ere salatzen dute, hots, Jesusek mirakuiluzko ahalmenak badituela. Ikus Mc 1,40; 8,8; Mt 9,28. Beraz, sendapenetan ageri den fede horrek bi osagai hauek ditu: a) fidantzia, b) Jesusek sendatzeko ahala duela aitortzea.

Otoitz egitean fedea behar dela esaten denean, badirudi fidantziatzat baitipat duela zer-ikusi fede horrek. Ikus Mt 17,20; 21,21.

Baina “pisteuein” aditzaren objetua zera bada, hots, Jesusen mesiatasuna edo piztuera, orduan, bistan da, gauza huek egiaztat edukitzea esan nahi du. Adibidez, Lc 23,35; Mc 16,11. Eta berdin Jesusek Pedrori esaten dionean: “Nik otoitz egin dut ez dezan hutsik egin zure sinesteak” (Lc 22,32). “Ebanjelioa sinets ezazue” dioenean (Mc 1,15), berriz, zer da hori Jesusen predikua onartzea baizik? Gauza bera Mc 16,16 pasartean ere.

Labur: Sinoptikoetan fidantziaren alderdia ageri da nagusi; baina beste alderdia ere —hots, Jesus dela profetek iragarritako Mesias egiaztat edukitzea—, hor dago.

(1) Ikus honetzaz DE LUBAC (HENRI), *L'Ecriture dans la Tradition*; Aubier, Paris.

Liburu honetan “pisteuein” aditza 19 aldiz dator. “Pistis” hitza, berriz, 15 aldiz.

Jakina denez, Apostoluen Eginetan Eliza jaioberriaren lehen urratsak kontatzen dira. Predikuaren muina badakigu zein den: Jesus dela Mesias. Hain zuzen, hori egiaztat hartzea, horra zer den fedea. Ikus Act 13,12; 14,1; 17,34; 19,2.

“Pistis” hitzak batzutan fedezko akto sujetiboa adierazten du, eta beste batzutan sinestearen objetua, hau da, Kristori buruzko dotrina. Ikus, adibidez, Act 6,7; 13,8; 13,12; 14,22.

Honen arauaz, zer da, bada, fedea? Kristau kerigmaren onarpena. Ez da, ordea, ezagupen huts-soila ere. Ezen Jesusen gertakaria onartzeak, inplizitoki bederen, berekin dakar fidantzia, salbamenaren fidantzia.

Labur: adimenduak kerigma onartzearekin batean, bada hemen gizonaren oso-osoko eta alde guztizko erantzun bat Jainkoak Kristogan egin digun Agerkundeari buruz. Eta Kristori osoki lotzen direnak, horiek dira fededun edo sinestun.

Jaun Done Paulo

Edonork daki San Pauloren teologian zer-nolako garrantzia duen fedeak. “Pisteuein” aditza 54 aldiz azaltzen da haren idazkietan: “pistis” izena, berriz, 142 aldiz. Maiztasun handieneko hitza da, beraz, haren idazkietan.

Baina zer da, hain zuzen, fedea San Paulorentzat? Rom 10,9 dugu pasarte bat guztiz salataria. Kristau predikua egiaztat hartzea: hori. Ikus, baita ere, 1 Thes 4,14. *Sinestea* da Apostoluek Kristori buruz egiten duten predikuari baiezkotz erantzutea: ikus 1 Cor 15,1.

“Fides Iesu Christi” esaten du maiz Paulok. Genitibo objetiboa dugu hau, hots, Jesusen heriotze eta piztuera objetutzat duen fedea. Jakina denez, San Paulok esango du Kristori buruzko fedeari esker salbatzen dela gizona. Ikus, adibidez, Gal 3,26 (1).

Anitzetan Paulok “pistis” hitzaz zera adierazten du: gizon fededunaren egoera. Ikus Rom 12,3; 14,1; 1 Cor 2,5, etab.

Askotan esanahi sujetibotik (“fides qua creditur”) objetibora (“fides quae creditur”) egiten du salto. Orduan fedea da predikatzen dena, edukina, alegia, kerigma bera. Anitz pasartetan nabari da salto hau: Rom 10,8; Gal 1,23; Eph 4,5, eta epistola pastoraletan arruntki. Esanahiaren

(1) Beherago ikusiko dugunez, agian esanmolde honek ez du beti genitibo objetiboa adierazten. Ikus 25. kapitulua.

eboluzio honek beronek salatzen du ederkienik zer den fedea Paulorentzat, hots, kristau kerigma egiaztat hartzea.

Beraz, justifikatzen gaituen fedean lehentasuna du Paulorentzat eza-gutzearen alderdiak. Fede salbagarriak berekin dakar Kristo-gertaeraren baieztapena.

Baina fede honek ez du ezagupen huts-soila osagaitzat. Fedea Ebanjelioari *obeditzea* ere bada (Rom 3,3).

Fidantziaren alderdia ere hagitz azpimarratzen da Paulok egiten dituen fede-aipamenetan. Batez ere gizona fedeaz, eta ez obrez, zuzen egiten dela dioeneko pasarteetan: Rom 3,21; Gal 3,6; Rom 4,18, etab.

Labur, Paulorentzat fedea ez da soilki adimenduaren baieztoko bat, nahiz eta hori ere izan. Hori baino gehiago da, hots: Gizonak Jainkoaren Agerkundeari ematen dion erantzun osoa. Lehenik, nahi baduzu, kristau predikua edo kerigma egiaztat hartzen da. Baina ez da ezagupen huts-soila, Kristori lotzea eta Harekin bat egitea berekin dakarrenaz geroz.

Hebertarren epistola

Epistola honek badu nortasun eta kolore berezi bat Testamentu Berrian. Kapitulu osoa eskaintzen dio fedeari: 11.a. "Pistis" hitza bat ere osagarri gabe erabiltzen du. Fedeari buruz egiten duen deskribapenerako adibideak Testamentu Zaharreko gizonengandik hartzen ditu. Fedearen alderdi sujetiboa bakarrik hartzen du kontutan, hots, gizonaren jarrera den aldetik ("fides qua creditur").

Jainkoak egindako Agerkundeari gizonak eman behar dion erantzuna: hori da epistola honentzat fedea. Erantzun hori orokorki eta osoki hartuz. Erantzun honetan honako hauek daude sarturik: ezagupena, fidantzia, obediencia. Fede eta itxaropenaren arteko mugak ez dira garbi ageri. Testamentu Zaharrean ikusten dugun fede-nozioaren ahaide hurbila da epistola honetan azaltzen dena.

Hebr 11,1: pasarte famatu hau fedearen definizio bezala hartua izan da. Definizio baino areago baieztapen bat da, gero ondoko adibideekin argitzen eta zehazten dena. Pasarteak mamiz hara zer dioen: "Fedea da itxoiten diren gauzetan irmoki egotea, ezin ikusizko diren errealitateen konbentzimendua". Kapituluaren barna esaten diren gauzek berdin balio dute itxaropenarentzat ere.

Azken finean, epistola honetan ageri den fedea eta San Paulogan eta Apostoluen Eginetan ageri dena, ez dira desberdinak. Testamentu Zaharretik hurbilago dela: hori da guztia. Fidantzia, ausartzia, iraupena..., dohain hauek azpimarratzen ditu.

Santiago epistola honetan ikusalde praktiko batetan kokatzen da, hots: obrak behar direla, fruituak, eta ez hitzaren onarpen soila; *fede hila* izango litzateke hori. Ikus *Jac 2,17*. Sinetsi, deabruak ere egiten dute: *Jac 2, 18*. Adimenduzko baiezkoko huts-soilak ez du balio eta ez da aski salbatzeko: *Jac 2,14-26*. Beste toki batean —*Jac 1,6*— “*pistis*” hitzak fidantzia esan nahi du.

San Paulo gizonaren justifikazioaz ari denean, espekulatiboki ari da; Santiagoren jarrera, aldiz, praktikoa da soilki. Fede-kontzeptu desberdina adierazten dute. Haatik, benetako oposaketa edo kontradiziorik ez dago bien artean.

Esan behar da, halere, Testamentu Berrian idazki hau bakarti ageri dela. Hemen izan ezik, fedea ez da beste inon adimenduzko onarpen huts-soiltzat hartzen.

San Joanen idazkietan

“*Pisteuein*” aditza, hots, *sinetsi*, 4. ebanjelioan 98 aldiz azaltzen da. Eta beronen ahaide hurbila den “*ginoskein*” (= *ezagutu*), 56 aldiz. Testamentu Berriko beste idazleetan baino maizago ageri da, beraz.

San Joanek badu teologia bat bere gisakoa eta propioa. Jesukristo bera da teologia honen zentru eta muina. Jesukristo da Jainkoaren Semea, Aitak guri, betiko bizitzea emateko, bidalia. Sinetsiz eskuratzen du gizonak Jesus, eta Hura hartzearekin hartzen du betiko bizia.

Zer da Joanentzat “*credere in Jesum*”, hots, *Jesusengan sinetsi*? Ez da dudarik: Jesus Mesias dela, Jainkoaren Semea dela, egiaztat hartzea. Ikus *Jo 20,31*.

Askotan “*pisteuein*” aditzaren osagarria datibo kasuan jartzen du: *Jo 4,21*; *5,38*; *6,30*; *8,31*; *10,37*. Izan ere, Jesus da lekuko bat, testigu bat. Berak ikusi duena eta dakiena kontatu egin digu guri. Ikus *Jo 3,10*.

Hau da notatzekoa San Joanengan: Jesus azaltzen dela, denbora berean, agertzaile eta Agerkundearen objektua bezala (errebelatzaile eta errebelatua). Beraz, Jesus sinesten dugu eta Jesusi sinesten diogu. Jesusek esaten digu Bera dela Jainkoaren Semea: beraz, Jesusi sinetsi behar zaio, eta denbora berean Jesusengan sinetsi behar da.

Pasarte askotan senidetasun bat nabari da “*pisteuein*” (*sinetsi*) eta “*ginoskein*” (*ezagutu*) aditzen artean. Ikus, adibidez: *Jo 17,21-23*; *14,12-20*; *Jo 20,31* eta *Jo 17,3*, etab. Horrek esan nahi du, noski, badela hurbiltasun bat Jesusengan sinestearen eta Jesus ezagutzearen artean; ez dagoela, alegia, ezaguera gabeko sinesterik (egon daiteke, haatik, sineste gabeko ezagupena!).

San Joanen mintzairan Kristogan bada Jainkoaren ezaguera bat, ez sinestea, baina *ikustea* dena. Ikustea Jesusi soilki dagokio: Hark ikusi duena guri jakin arazi digu, eta guk, Berari sinetsiz, jakintza hori eskuratzen digu: Jo 1,18; 6,46; 7,29 etab.

Sineste eta ezagutzearen arteko lokarri honek argi eta garbi adierazten du ezagupenaren alderdiak garrantzi handia duela San Joanentzat.

Baina hortik ez da segitzen Joanentzat fedea ezagupen huts-soila dela. *Obedentzia* ere bada: 1 Jo 3,23; Jo 10,16. Jesusengana *joatea* ere bada: Jo 5,39; 6,35. Ezagupen horrek berekin du elkartasunezko bizitzea Jesusekin: Jo 10,14; 1 Jo 2,23. Atxikimendu osoa Jesusekin: horra zer den fedea.

Fidantziaren alderdia adierazteko, osagarria datiboz jartzen da; izan ere *Jesusi sinetsiz*, Harengan geure fidantzia jartzen dugu. Bera da *Leku-ko fidagarria*: Jo 8,14; 2,24.

Beraz, honako berezitasun hauek ditu San Joanen fedeak: a) ezagupen-alderdiari ematen dio lehentasuna, b) Jesús beraren Jainko-Semetasuna du objetutzat, c) Kristo da, denbora berean, bai sinetsia eta bai sinesten zaiona ere, d) sinestea da Kristoren eta Jainkoaren lekukotasuna onartzea, e) sinetsiz orain beretik betiko biziaren jabe egiten gara.

Fedea, bai San Joanen, bai San Paulon eta bai Apostoluen Eginetan ere, Kristoren inguruan borobiltzen da.

Esperantza ez da espresuki aipatzen San Joanengan, baina fedearen barnean hori ere badela, ez da dudarik: ikus Jo 14,1-3; 16,33; 17,24. Baita amodioa ere presente dago. Adibidez, behin eta berriz esango dizu inork ere ez diola bere burua argiari zabaltzen amodiozko barne-disposapen bat ez badu: Jo 3,19. Gainera, San Joanek hain usu aipatzen duen *ezagutze* horrek elkarrekiko maitasuna suposatzen du Kristo eta fededunaren artean: Jo 10,14.

ONDORIOAK

Gain begiratu honen ondoren honako hau esan dezakegu: mamiz fede-nozio edo kontzeptu berbera ageri dela Testamentu Zahar eta Berrian. Baina kontzeptu horren osagai batzuk nabarmenago azaltzen dira Testamentu Zaharrean eta beste batzuk Berrian. Fidantzia, esate baterako, guztiz nabarmen ageri da Testamentu Zaharreko fedean, eta ezagupenaren alderdia, gutiago; Testamentu Berrian, aldiz, beste aldera dira gauzak. Fede-kontzeptua ez da desberdina, baina azentuaren azpimarratzea osagai batetik bestera aldatu da.

Aldaketa honen arrazoia ez da asmatzen zaila. Testamentu Berrian gertakari guztiz apartekoa dugu: *Kristoren gertakaria*, hots, Jainkoak gizonari paratu dion salbamen-misterioa. Hau onartzea, egiaztat hartzea: hori da fedea; beraz, ezagupenezko ikusaldeak lehen tokia hartzen du orain. Hau garbi asko nabari da Apostoluen Eginetan. Kristau kerigma edo predikua egiaztat hartzea, hori da han fedea: Act 4,4; 8,13; 11,21. Hots, Kristoren inguruan mamitzen den misterio salbagarria onartzea.

Hebertarren epistolan fidantziak du berriz ere lehen tokia, baina horrek badu esplikazio bat: bere deskribapena egiteko, Testamentu Zaharreko pertsonaiak hartzen dituela eredu.

Gainerakoan, Kristoren gertakariak badu zer-ikusi eskatologiaz ere. Hori dela eta, fidantzia eta esperantza Testamentu Berriko fedean bizi-bizirik daude.

Ezagupena eta aitorra azpimarratuago ageri dira Testamentu Berrian, baina fidantzia bere indarrean utzirik, halere. Fedeak, gainera, batasunezko biiztze bat Kristorekin eta Jainkoarekin izatea suposatzen du, eta amodiorik gabe, bistan da, ez da horrelakorik.

Seme-gisako jarrera Jainkoaren alderakotzat: horra Testamentu Berriko fedean dugun berritasun apartekoa. Jainkoak bere Semea eman digun puntutik, fidantziara eta amodiora deituak gara.

Hamaseigarren Kapitula

FEDEA, ESPERANTZA ETA KARITATEA: HIRU IZAKI DESBERDIN, ALA JARRERA BAKAR BATEN HIRU AURPEGI? (1)

Kristauarentzat Kristo baitan funtsatzen da dena. Kristoren gertakariak esanahi berria eman dio giza bizitzeari. Nahi-eta ez gizonak jarra jakin bat hartu beharra du Kristori buruz. Kristoren bidez datorkigun salbamena onartu ala arbuiatu: bat ala beste.

Testamentu hau, hots, Akordio edo Hitzarmen berri eta betiko hau, Jainkoak jarria da, ez gizonak.

Jainkoak aurea hartu du, bada.

Jainkoak ipinitako gertakariari gizonak alde guztizko eginkari batekin erantzun beharko dio, hots, fede, esperantza eta amodiozko bizitzeaz.

San Paulok dakarren hirukotea

San Paulok bere kartetan maiz aipatzen du hirukote hau: fede, esperantza, karitatea. Ikus 1 Cor 13,13; 1 Thess 1,3; 5,8; Gal 5,5-6; Col 1,4-5; Eph 1,15-18.

Kristauaren irudia bere lerro nagusitan marraztu nahirik, hiru hitz horiekin osatu digu marrazkia. Gizonaren erantzuna Jainkoaren Agerkundeari, hirukote horretan mamitu digu San Paulok (erantzun hau berrau ere Jainkoaren dohaina dela ahortzi gabe).

Ebanjelioan kontatzen zaigu zer-nolako har-emanak izan zituen Kristok Aita Jainkoarekin, hots, seme-gisako har-emanak; amodioz, fidantziak eta obedentziaz osaturiko erlazio bat, alegia. Eta ildo honetatik doa kristauaren erantzuna ere.

(1) Ikus J. ALFARO, "Actitudes fundamentales de la existencia cristiana", *Cristología y Antropología* liburuan, 413 orr.

Testamentu Berrian lehentasuna ematen zaio Jainkoarekiko maitasunari. Baina era berean lagun hurkoarekiko maitasunaren garrantzia ere lerro lodiz azpimarratzen da. Cf. Mt 22,34-40.

Akino-ko San Tomasen zehaztasunak

Ertaroan Akinoko San Tomasek sistema trinko bat eratu zuen fede, esperantza eta karitateari buruz. Sistema edo ikusmolde honek ildo luzea utzi du gaur arte.

Sistema honen arabera, zer dira fede, esperantza eta karitatea? *Bertuteak*, esan nahi baita, habitu batzuk goitik emanak, gure adimendu eta nahimena Jainko-mailatako eginkarietarako gai bihurtzen dituztenak. *Isuriak* (“infusae”) dira bertuteok, hots, Jainkoaren emaitza hutsa. *Teologalak*, zeren Jainkoa baitute objektu, oinarri, xede eta helburu.

Fede, Esperantza eta Karitatearen artean berezketa garbia egiten du San Tomasek. Jainkoa, *egia* den aldetik, horra fedearen oinarri eta helmuga. Jainkoa, *gure ona* den aldetik, esperantzarena; *berez onik gorena* den aldetik, karitatearena.

Fedea adimenduan txertatzen da. Esperantza, berriz, nahimenean “amor concupiscentiae” den aldetik; karitatea ere nahimenean, baina “amor benevolentiae” den aldetik. (Beraz, maitasun interesatua eta desinteresatua).

Jatorriz —eta beti San Tomasen arabera— fedeari dagokio lehentasuna; esperantzaren aurretik doa, bada, esperantza karitatearen aurretik doan bezala. Horrek esan nahi du esperantzak fedea suposatzen duela; karitateak, berriz, fedea eta esperantza. Karitatea ezin dagoke esperantza eta federik gabe; esperantza ere ez fede gabe. Fedea, bai, zutik egon daiteke, bi horiek gabe.

Fedezko aktoa edo eginkaria zer da San Tomasentzat? Adimenduzko baiezkoa Agerkundearen edukinari buruz. (Egia da, bestalde, nahimenak fedean duen eragina garbi aitortzen duela San Tomasek).

Baina gauzaok, praktikan, horrela ote dira, gero? Posible ote da fedezko akto bat esperantza-izpirik gabe? Ohartu balitz San Tomas Biblian, fedearen osagaien artean, fidantzia ere sartzen dela, ez zituen egingo, segur-aski, honelako zatiketa zurrun eta erabatekoak.

Harrigarri da fede eta esperantzak duten elkarren arteko inmanentzia hori San Tomasek ez ikusi izana. Fedeak berekin du oldar edo abiadura bat geroko salbamenari buruz, eta hori ere nahimenaren (esperantzaren) eraginetik heldu da.

Ikusmolde honen alderdi argalak

Hitz batez esateko, San Tomasen sintesian badira, noski alderdi positiboak eta balio iraunkorra dutenak. Fede, esperantza eta karitatearen arteko puntu bereizgarriak taxuz seinالاتu ditu. Lagun hurkoarenganako amodioa eta Jainkoarenganako ezin hautsizko lokarriz daudela elkartuak, hori ere argi eta garbi utzi du.

Baina badira alderdi negatiboak ere, eta ez hutsaren parekoak. Ez daki fedeak berekin duela fidantzia. Azken finean, ez daki esperantza eta amodiozko aukera bat dela fedea. Desira edo nahi bat ez balu geroko salbamenari buruz, fedeak ez luke deus ikustekorik salbamenaz.

Fede, esperantza eta karitatearen arteko berezketa hori berez jatorra eta bidezkoa da, baina agian, bizitzeak ezagutzen dituen inplikazioak kontutan hartu gabez, urrunegi eramana izan da.

Gainera, Kristok fede, esperantza eta karitatean duen tokia edo zeregina, isilik uzten da. Etab.

Dirudienez, filosofia esentzialista bat dago ikusmolde honen azpian, hots, salbamenduzko historiaren ikusbidea galerazten duen filosofia bat. Eta hortik akatsok.

San Tomasen sintesiak bizitze luzea izan du mendez-mende. Trentoko Kontzilioarentzat ere, ikuskera hori bera duelako, fedea ez da besterik adimenduzko baiezkotzat bat baizik. Adimenduzko baieztapen bat Jainkoak agertu dituen egien alderakotzat. Fidantzia esperantzarentzat uzten zen; beraz, fedean ez zuen sarbiderik izan behar.

Murritzte honen erruz, San Paulok fede justifikatzaileari buruz dioena, Trentok ezin konpreni zezakeen osoki. Fedeari buruz Trentok duen nozioa eta San Paulok duena ez dira alde guztiz berdinak.

Batikano Lehenak ere ez du tutik esaten fidantziak fedean izan dezakeen partear. Batikano II.ak, aldiz, bai. "Dei Verbum" konstituzioa honela mintzo da: fedeaz gizona osorik eta libreki Jainkoari errendaturik jartzen da (1).

Jarrera bakar baten hiru aurpegi

San Paulok fede, esperantza eta karitatean ikusten ditu kristau bizitzeari dagozkion osagai nagusi edo hazpegiak: hori hala da. Baina hortik ez da segitzen hiru izaki desberdin direla. Hiru izenok jarrera bakar baten ikusalde edo saiheski nagusien adierazgarri izan daitezke.

Izan ere, kristau bizitzea, mamiz, zer da? Gizonaren baiezkotzat hartzen Jainkoak Kristorengan egin eta agertu duenari. Jainkoak Kristoren bidez egin eta egingo duena: horrek du hemen lehentasuna. Orain bada, Jainkoaren Agerkundean hiru alderdi hauek bereizten dira, hots: Jain-

(1) "Dei Verbum", 5.

koaren hitza, promesa eta amodioa. Kristoren gertakaria, batean bildurik, guzti hau da: agerkunde edo errebelazioa, promesa, eta Jainkoak egiten digun bere buruaren emaitza.

Hiru alderdi hauek, ordea, elkarturik daude. Agerkundera promesa ere bada, baina grazia ere bai. Eta promesak, Jainkoaren geroko emaitza hots egiteaz gainera, emaitza hori orairatu ere egiten du. Bestela esan: emate hori orain berean ere gertatzen da. Jainkoa bera ematen zaigu geure salbaziotzat, eta hori da prometatzen zaiguna ere.

Beraz, errebelazio, promesa eta Jainkoaren amodioa, hiru mintzamolde dira; bakoitzak badu bere ñabardura, noski, baina hiruek, mamiz, gauza bera adierazten dute: Jainkoak gizonari bere buruaren emaitza egiten diola. Emaitza horri, adierazia den aldetik, errebelazio edo agerkundera deritza (baina adieraztea bera ere autoemaitza delarik!). Promesa deitzen zaio, geroaren bahi bat den aldetik (baina promesa bera ere autoemate delarik!). Beraz, Jainkoa bera da grazia huts eta amodio huts. Jainkoa oraidanik ematen zaigu eta etorkizunean osoki emanen zaigu.

Gizonak bere erantzunean errezibitzen du salbamenaren dohaina. Erantzun hori bere muinean ez da besterik haxe baizik: Jainko-amodio-denari baietz esatea. Edo, beste hitzez: Jainkoak Kristo baitan eskainitako graziaren onarpena.

Erantzun horrek berekin dakar, noski, Kristoren gertakaria egiaztat edukitzea, Jainkoak egin digun promesean fido izatea, Jainkoarekin bat egitearen nahi bizia izatea. Eta guzti honen azpian —ez da zer esanik—, amodioa dago.

Salbamenaren nahi hori gabe, fidantzia-izpirik gabe, esperantza eta maitasunik gabe, Jainkoaren hitza eta grazia onartzerik ez dago. Giza erantzunak ezin izan dezake, gainera, beste egitura edo estrukturarik. Erantzuna izan daiteke, nahi baduzu, osoagoa edo makalagoa, baina mailarik ahulenetan ere beti izango du joran hau, joera hau Jainkoarekin batasun egitera.

Jainkoarekin bat egiteko gogoia da, azken finean, giza erantzunaren oldarra eta arima.

Beraz, erantzunaren egitura hirukoitz —edo lauukoitz— dela esan genezake, hots, lau alderdi hauek dituela: 1) Jainkoak guregatik Kristogan egin duena ezagutzea, 2) Jainkoaren promesean fido izatea, 3) geroko salbamenaren desira edo joera hor barrenean bizirik edukitzea, 4) maitasuna den Jainkoa maitatzea (maitasun-hasiera bat behintzat). Eta alderdi edo saihesta hauek ezin hautsizko lokarritz elkarturik daude.

Giza erantzunari *fede* deritza, noiz eta Jainkoak egindakoa baieztatzen baitu; *itxaropena*, berriz, noiz eta etorkizunera joera adierazten baitu; *karitatea*, azkenik, noiz eta Jainkoarekin bat egitera gogoia agertzen baitu (1).

(1) DS 1526-1527.

Horiek hola, fedeak, nahi-eta-ez, berekin du bai itxaropena eta bai amodioa. Batasun bat osatzen dute hiruek. Horien artean zatiketa egiterik ez dago.

Azken finean, esperantza eta amodiozko aukera bat egitean dago gorra-behera guztia.

Fedean gauzak “in se” eta esperantzan “pro me” hartzen direla esatean —San Tomasen esana hau ere—, bide okerra hartu zen. Bereizkuntza honekin San Pauloren dotrina justifikazioari buruz ez dago ongi ulertzerik. Baina Jainkoak egin dituen gauzak —fedez sinesten eta aitortzen diren gauzak— ez ote dira guztiak *guretzat* eginak?

Kristoren amodioa (eta Jainkoarena Kristogan): horra zein den kristau bizitzearen dinamismoa. Bat ere desirarik gabe, amodio den Jainkoaganak jorarik gabe, ez dago ez federik, ez itxaropenik. Maitasuna da, beraz, gakoa.

Hori bai, gizonaren maitasun hau izan daiteke gehiago edo gutiago sendoa eta sakona. Maitasun honek sakontasun-maila desberdinak izan ditzake, alegia.

Labur: fede, esperantza eta karitatearen arteko bereizkuntza bidezkoa da. Baina hiruek dute dimentsio bat komuna edo guztiona dena, hots: fidantzia. Fedea iraganari begira dago (Kristogan konplitu denari). Esperantza, berriz, etorkizunari begira. Eta amodioa orainari: Jainkorekin batasunezko bizitza egiteari.

Distintzioa bidezkoa da; baina kristau bizitzearen errealtatean hirua elkarrekin lotuak daude. Lehentasuna, ordea, maitasunari zor zaio. Maitasunak gidatzen eta bultzatzen du kristau bizitza, eta, azken batean, bera da fede eta itxaropenaren habea.

Jarrera iraunkor eta egotezkoa

Orain artio fede, esperantza eta karitatearen akto edo eginkariari buruz mintzatu gara. Baina Testamentu Berria lekuko, kristau bizitza hori baino zerbait gehiago da: sineste, itxarote eta maitasunezko *egoera* edo *jarrera iraunkor* eta *egotezkoa*. Kristaua Jainkoagandik jaioa dela esango du San Joanek: Jo 1,12. Bai Paulok eta bai Joanek ere, bekatoriagan gertatzen den eraberritzea errealtate bat bezala azaltzen dute, Jainkoak sortutako errealtate bat bezala. Hor barnean iraunkor den zerbait sortzen da, alegia. *Justifikazio* edo zuzen egitea deitzen du San Paulok; San Joanek, aldiz, *betiko bizitza* (“vita aeterna”).

Kristoren Izpiritua gizonaren bihotzean errealtate iraunkor bat sortzen du, elkartasunezko bizitze berri bat Kristorekin, fede, esperantza eta karitatea direla medio.

Nola gertatzen da hau edo nola esplikatu behar da? Guzti hori esplikatzeko, Eskolastikak *isuria* (“infusum”) den zerbait onartu behar dela uste izan du. Gaur zenbaitek, gehiegizko erreakzioz beharbada, horren

beharrik ez dela pentsatzen du. Baina Biblian, Tradizioan, Kontzilioetan, kristau esperientzian (1) etab. aurkitzen duguna nekez uler daiteke pasibo edo isuria den zerbait ariman hartzen dela aitortu gabe (2).

Beste kontu bat da *isuria* datekeen hori zer den zuzen ez jakitea. "Opción fundamental" edo oinarritzko aukera baino gehiago, inolaz ere. Grazia saindutzaila edo graziazko egoera deitu izan zaio.

Bibliak dioena, mamiz, hau da: a) barneko aldakuntza bat gertatzen dela, hots, konbertsioa, b) aldakuntza hori iraunkorra dela, c) fede, esperantza eta karitateak eskatologiaruntz edo gerokora dutela joera, d) guzti hau Jainkoaren dohaina dela, doan edo atsegin-sari emana, alegia.

"Bertute" hitzaren egokitasun kaxkarra

Fede, esperantza eta karitateari *bertute* izena emateak badu agian alde txar bat, izan ere, horietako bakoitzak eta hiruek kristau bizitze osoa bere osotasunean hartzen dute. Ez dituzte, bada, muga garbiak, beste bertuteek bezala. *Bertute* izena ematen zaienean badirudi barruti batean sartzen direla, eta ez da hori hala, kristau bizitzearen osotasuna adierazten dutenez gero.

Askoz hobe da, hortaz, kristau bizitzearen oinarritzko jarrerak direla esatea. Jarrera, esan nahi baita, erantzuna, erlazio pertsonala Jainkoak Kristoren bidez egin digun delari buruz. *Oinarritzkoak* esatearekin, berriz, zera esan nahi da: horiek, eta horiek bakarrik, egiten dutela kristaua kristau. Etikako bertute guztiak, aldiz, ondorio partikular batzuk balizik ez dira.

Hiruen artean elkarrekiko inmanentzia dagoenez gero, jarrera bakar bat dela esan genezake. Sustraitiko jarrera hori hartzen dugunean, orduantxe dugu kristau bizitze jatorra. Jarrera honek berekin dakar Kristoren aitorrera, Haren geroko agertaldia fidatuki itxoitea eta norbere burua Kristo horri osoki ematea. Amodioak du aginpidea kristau bizitzean. Eta ohargarri dena: Jainkoaganako amodioarekin batean, lagun hurkaorenganako ere sartzen da.

Kristori hirukote honetan dagokion lekua

Esan dezagun, azkenik, teologi eskolastikoak alde batera utzi duela Kristok jokatzeko duen papera edo zeregina fede, esperantza eta karitatean. Huts larria da hau. Izan ere, Jainko eta gizonak elkarrekin topo egin badute, Kristo baitan gertatu da hori. Gainera, Kristoren zeregin hau guztiz azpimarraturik ageri da Testamentu Berrian.

(1) Ama Sorazuk maiz aipatzen ditu bataioan hartutako graziak. Ikus, adibidez, *La Vida Espiritual coronada por la triple manifestación de Jesucristo*, Valladolid 1924; capítulo 1.º.

(2) Ikus DS 1530.

Hamazazpigarren Kapitulua

HUTSEZINTASUNA FEDEAN (1)

Aurrekaldeko kapitulu batean —VI.lean— ikusi genuen ziurtasuna dela fedearen propietate bat; baina han fedezko eginkaria sujetuaren aldetik hartzen genuen baitipat, hots, psikologi aldetik; hemen, berriz, objektu aldetik, hau da, fedeak egiarekin lotura duen aldetik lotzen gatzaizkio auziari.

Efesoarren epistolan bada pasarte bat bere edukinaren joriagatik guztiz gogoangarria: Ephes 4,4-6. Elizaren hazpegiak eta ezaupideak deskribatzen dizkigu: Gorputz bakarra —hots, Eliza—, Izpiritu bakarra —Elizaren biziarazlea—, eta esperantza bat bera —kristau bokazioari dagokiona—. Jainko bakarra: Aita; Jaun bakarra: Kristo; Izpiritu bakarra —Aitaren dohaina, Kristoren bidez emana—; bataio bakarra, eta, azkenik, *fede bakarra* (2).

“Fede” hitzaren bi adiera nagusi

Fede hitza ageri da pasartean; *fede bakarra*, gainera. Zer esan nahi ote du hor *fede* hitz honek?

Teologian bi adiera nagusi bereizten dira hitz horren enpleguan. Eskolastikoen hizkeran “fides qua” eta “fides quae” izenekin izendatzen dira. Lehenbiziko adieran fedea hartzen da gizonaren jarrera denez, hots, sineste-aktoa sujetuaren eginkari bezala hartuz. Bigarrenean, berriz, fedearen edukinari begiratzen zaio, hots, sinesten denari edo sineskaiei (fedea objektiboki hartua, beraz).

Hemen, pasarte honetan, agerian da bigarren adiera duela *fede* hitzak. *Fede bat bakarra* esatean, kristau fedearen edukinaz mintzo da. Kristau guztiek fede bat bera sinesten eta aitortzen dutela esan nahi du. Eliz batasunaren osagaletan fedearena da bat, eta ez azkena.

(1) IKUS ALFARO, *Cristología y Antropología*, 399 orr.

(2) IKUS J. LEAL, “Carta a los Efesios” in *La Sagrada Escritura*, BAC 211, *in locum*.

Gauza jakina da, baita ere, San Pauloren usuarioan “pistis” (= *fede*) hitzaren esanahiak maiz egiten duela salto adiera sujetibotik objetibora, halako moldez, non, kristau kerigmari berari, hau da, fedearen objektuari, *fedea* huts-hutsik deitzen baitzaio. Ikus Rom 10,8-10; Gal 1,23; 1 Tim 4,1; 2 Tim 3,8; Tit 2,2.

Kristau fedearen sorreraz

Kristau fedea Kristoren gertakaritik sortu da, eta bereziki Kristoren piztueratik. Fede honen sorburuan muin hau aurkitzen dugu, hots, Kristoren piztuera. Ikus 1 Cor 15,3-8; Act 2,24; 3,15; 4,10; 5,31 etab. Kristo berpiztuari oso goiz aitortzen zaio jainkozko maila. Ikus, esate baterako, Phil 2,5-11 (itxuren arabera, lehen kristauen kantika bat da), etab.

Testamentu Berri osoa lekuko, Kristoren gertakari honekin Jainkoak konplimendu eman dio bere obra salbagarriari. Beste hitzez esanik, gizonaren salbazioa loturik dago Kristorekiko fede-aukerari.

Kristoganako atxikidura eta Kristoren aitorrera: horra fede berriaren muin eta ardatza. Bihotzezko fede hori ezpaineekin aitortu behar da, ordea. Aitorrera honi deitzen zaio Testamentu Berrian *sineste*: Rom 10,9; 1 Cor 15,1-11 etab.

Kristau fedeak Apostoluen kerigma —hots, predikazioa— Jainkoaren beraren hitza bezala hartzen du (1 Thes 2,13).

San Joanen idazkietan Kristo berbera da Jainkoaren autoerrebelazioa, hots, Kristo baitan Jainkoak bere buruaren agerpena egin digu. Hortaz, Kristo da, alde batetik, Jainkoaren berriak ekarri dizkiguna, Jainkoaren mandataria; eta, bestetik, Kristo bera da, bere pertsonan, berri hori, hots, fedearen edukina edo agerpenaren objektua. Jainkoaren berri ematera etorri da, baina bera da berri hori. Fedeak, bada, Kristo du aitortzen eta aitortza hori egiteko, Kristoren lekukotasunean da oinarritzen: Jo 5,38; 6,30-33; 10,37-38. Kristok jakinarazten dizkigunak Jainkoa bera dute fiadore eta berme: Jo 3,31; 8,26.40.

Sinesten dena esapidetan adierazi-beharra

Jainkoak agertu duena, ordea, giza esapidetan mamiturik ematen zaigu.

Kristau mezuak gizonagandik eskatzen duena, bestalde, ez da hutsaren pare. Bizitzean aukera oso eta erabatekoa egitea eskatzen du.

Kanpotik heldu den mezuaz gainera, behar-beharrezko eta noraezkoa da, sinesteko, Izpiritu Sainduak barnetik egiten duen deia, hots: dei egiten dio gizonari federa, kristau mezua Jainkoaren hitza bezala har dezan, alegia.

Jainkoaren dei honek erabateko *bai* osoa eskatzen du. Izan ere Jainkoari sinesten zaio osoki eta alde guztiz, hots, atsolutuki, Jainkoari dagokion gisa, edo ez zaio bat ere sinesten. Sustraitiko erabakia edo aukera da fedea, edo bestela ez da fedea. Baina honelako aukera ezin egin dezake gizonak, baldin ez badauki —inplizitoki bederen— Jainkoa badela. Bere bizitzerako ondorio larriak dituen aukera ezin egin dezake gizonak baldin errealtatearen ongi oinarritua ez badauki (aukera egiteko arrazioiak ziurtasunean oinarrituak ez badaude, alegia). Eta sinesten den hori esapidezko baieztapen batean, hots, esaldi batzuetan mamiturik azaltzen da. ~~eta~~ Fedearen hutsezinaz ari gara, bada. Giza ziurtasunetan fedearena guztiz da berezia eta bere gisakoa. Ez du bere kidekorik. Gainera, ezin hautsizko lokarritz daude elkarturik aukera eta aitorrera; eta biak dira erabatekoak.

Kristori nola atxikia egon, ordea, Hari buruz ezagupen zerbait izan gabe? Kristo aitortzerik ez dago, Kristori buruz esapidezko baieztapen batzuk gabe. Kristoren aitzinean aukera atsolutu bat hartu ahal izateko, beharrezko da Hura absolutoki aitortzea, Hura Jainkoaren *bai* salbagarritzat edukitzea. Kristoren alde aukera sustraitiko hori egiten dudan unean berean, ezagutzen eta aitortzen dut Kristok neure salbaziorako baliotria trinkoa duela.

Esapideen artean zein den zuzen eta zein makur bereizi beharra

Jainkoari eta Kristori buruz tankeratzen diren baieztapen edo esaldiak beti izango dira onbehar, eskas eta urri. Baina fedeak noraezeko du arrisku hori jasatea; giza-proposizioetan adierazia behar du. Bere burua ez badu ukatuko, ezin du honetan amore eman. Behar du ziurki baieztatatu, errotikan onbehar diren proposizioen bidez, badela Jainkoa eta Kristoren gertakariaren errealtatea.

Kristoren piztuera gertakari erreala izan baldin bada, fedeak ez du errealtate horretaz jabetzerik gizatiar egiturazko proposamenez hura baieztatuz baizik.

Beraz, beharrezko da gizatiar proposamen batzuk egotea, Kristoren gertakaria errealki eta jatorri adierazten dutenak; eta beste proposamen batzuk, hori hala adierazteko gai ez direnak. Paulok honako proposamen hau “Kristo piztu da” onartzen, eta beste hau “Kristo ez da piztu” baztertzen duenean, badauki, eta ziurki jakin ere, lehenbizikoak Kristogan gertatu den errealtatea adierazten duela, eta besteak errealtate hori ukatzen duela. Kristo ez baldin bada piztu, orduan predikazioa hutsa da, fedea ezer ere ez da, eta guretzat ez dago salbamenik. (Ikus 1 Cor 15, 12-20).

Fedearen egia onartzen baldin bada, onartu behar da era berean ba-direla proposamen batzuk funtsean egiazkoak direnak —beren eskastasuna aitorturik ere—, hau da, kanpoko errealitatea atzemateko eta adierazteko gai direnak.

Hala ez balitz, fedeak eta Agerkundeak ez lukete bat ere funtsik. Egia dena eta ez dena bereizterik ez badago, ez dago deus baieztatzerik Jainkoari edo Kristori buruz. Orduan fedea ez da posible, Agerkundera mito bat baizik ez da.

Gizonak ez balu proposamenen bidez Jainkoaren existentzia baieztatzen ahal, ez luke sekulan ziurki jakin ahalko Kristogan agertu zaigun Jainkoa zinez eta benetan Jainko dela eta ez irudipen bat.

Horra nola teologi gogoetak Antropologiazko ondoriotara garamatzan. Fedea, Jainkoak Kristogan egindako Agerkundearen onarpena baldin bada, orduan gai da gizona proposamen egiati eta jatorretan Agerkundearen errealitatea adierazteko.

Aipaturiko pasartean (Ephes 4,4-6) garrantzi handia ematen zaio guztiok elkarrekin egiten dugun fede-aitormenari. Aitormen hau Eliza osatzen duten osagaietarik —elementuetarik— bat da, eta ez nolanahikoa, funtsezko eta ezinbestekoa baizik. Izan ere, Elizaren sorreran zer ikusten dugu? Nola sortu edo bildu zen Eliza? Kristo aitortzen zutenen komunitate bezala. Guztion aitormen hau aurkitzen dugu sorburuan. Eta aitormen honetan zintzo iraun zuen. Ikus Act 2,42.

Guztionean fede-aitormena onartuz, eta ez bestela, egiten zen gizona fededunen multzokoa, hau da, eliztarra, Elizaren menbroa. (Ikus Act 4,2-4; 5,13-14; 6,7, etab.).

Formulapen berriak epaitzeko eskua

Hemen kateaturik bezala daude honako hiru puntu hauek: 1) Kristori buruzko fedea Elizak giza itxurazko proposamenetan aitortu behar du; 2) Elizak behar du, gainera, proposamen berrietara jo; 3) Guzti hau horrela baldin bada, behar du bide bat izan proposamen berri horiek fedearen erregelaz ados dauden ala ez jakiteko.

Hala ez balitz, guztionean fede-aitormen hori suntsitu eta fede-batasuna urtu egingo litzateke. Guztionean aitormena da fede-lokarria, eta hori galtzen den puntutik, ez dago Elizarik.

Egian tinko egote honen kontzientzia Elizak aparteko modu batez Liturgian azaltzen digu; eta bai dotrina batzuen aurrez-aurre jarrera hartzen duenean ere, dotrinok kristau mezuaz akort ez daudela esanez.

Elizak nahi-eta-ez bere fedea giza taxuzko proopsamenen bidez aitortu behar duela esan dugu. Proposamen horiek hitz desberdinez gauza be-

ra baieztatzen dute, hots, Kristoren gertakaria. Fededunaren aktoa, orde, esapidean ez, baina gauzan bururatzen da, San Tomasek dioenez (1).

Historian barna, Elizaren fedeak, era askotako formulapen desberdinez, gauza bera, hots, Ebanjelioaren egia, adierazi eta aitortu izan du. Eta hori egiteko, giza itxurazko formulapenetara jotzea beste biderik ez du.

Guzti honek honako beste ondorio hau dakar berekin: Elizak hutsezin behar duela izan. Ikus dezagun laburzki hitz honekin zer esan nahi den.

Eliza hutsezina

Kristo Jainkoaren promesen konplimendua dela sinesten duenak, sinesten du orobat ezin erorizkoa dela Eliza, hutsezina, alegia, Kristoren testigu bezala. Ezen Kristoren gertakaria betiko gertatua eta emana izan da. (Ikus Hebr 7,27; 9,12; 10,10).

Hain zuzen, horrek esan nahi du kristau mezuak beti iraun behar duela. Gizona, bestalde, izaki historikoa da. Guzti hori kontuan izanik, Elizak bere zeregina ezin bete dezake, fedeari buruzko proposamenetan hutsezin ez baldin bada.

Kristo aitortzen dutenen komunitatea: hori da Eliza. Eliza edo komunitate honi Izpiritua agindu zaio. Beraz, alde honetatik, hots, Kristoren fedeak aitortze-kontuan, ezin dezake Elizak huts egin.

Izan ere, hau honela ez balitz, ez legoke Elizarik. Elizaren iraupena eta Elizaren egian irautea, guztia da orobat. Orain bada, giza itxurazko proposamenik gabe fede-aitorrearik ez dago. Eliza kristau mezua aldarrikatzeko edo hots egiteko gai ez bada, orduan Elizarik ez dago.

Ondorioa agerian da: Elizak hutsezin behar du izan fedeari buruzko proposamenak onartze eta erabiltzerakoan.

Elizak ez balu ziurtasunik berak erabiltzen dituen fede-aitormenen egiari buruz —eta, beraz, bere fedearen edukinari buruz—, orduan ez litzateke gai bere egitekoa betetzeko.

Noizbehinkako hutsezintasuna?

Ez ote litzateke aski, bere zeregina betetzeko, Eliza ez beti, baina bai une nabarmen, desarrunt eta ez ohizko batzuetan hutsezin balitz? Ez, noski, zeren orduan ia beti ezmezean bailegoke sinesten duenari buruz. Gainera, galde hau egin daiteke: Zergaitk une batzuetan hutsezin eta beste batzuetan ez? Nondik eta nola jakingo luke Elizak oraingo fede-proposamenak egiarekin ados direla eta lehenagokoak makurrak zirela?

(1) II-II, q. 1, a. 2, ad 2.

Bietarik bat: edo Eliza etengabe da ziur bere fedeari buruz, edo ezein unetan ez du izango hartako ziurtasunik.

Elizari Izpirtua agindu zaio, eta Izpirtu honen egitez da hutsezin Kristo baitako fedea aitortzen duenean. Hori da *hutsezin* hitzaz hemien esan nahi duguna.

Badakigu hitz hau gaizki uler daitekeela, baina baita ongi ere. Behar-ko da hitzaren esanahia eta esanahiaren nondik-norakoa eta luze-laburra ongi mugatu.

Atsolutuki hutsezin Jainkoa da soilki; Jainkoa, eta Kristogan Jainkoak esan duen hitza; eta baita Jainkoak Elizari prometatu dion Izpirtua ere.

Promes honek hutsik ezin egin dezakeelako, ez da posible Elizan egiazko fede-aitormenak uko egitea. Elizak berak uko egitea bezala izango litzateke. Jainkoak Kristogan emandako hitzak, Izpirtua dela medio, mantentzen du Eliza egian. Jainkoaren, Kristoren eta Izpirtuaren batasunak sostengatzen du Eliz-batasuna.

Kristau bakoitzaren fedea eta Elizaren fedea

Kristau bakoitzaren fedea Kristogan soilki oinarritzen da. Sinesterrakoa kristauak aukera librean egiten du Kristori buruz. Kristauak sinesten dio Elizari, Kristogan sinesten duelako: Kristo baitako fedea berekin dakar Elizari ere sinestea (1).

Eliz komunitatearen kide izateko, ordea, noraezko da norberaren fede pertsonala Elizaren fede hutsezinaz bat etor dadin.

Fededunak sinesten baldin badu Izpirtuak Elizari egin dion promesean —kristau bakoitzaren fedea huts egin dezake, Elizarenak, ordea, ez—, orduan, bistan da, Elizaren fede-aitormena hartuko du bere fedearen zuzena neurtzeko; eta hori obligazioaren pean, Elizaren menbro izan nahi baldin badu, behintzat; Elizaren fede-batasunean parte hartu nahi baldin badu, alegia.

Elizaren fede hutsezina neurri eta lege da, bada, kristau bakoitzaren fedearentzat. Elizak zaindu behar du bere fede-batasuna eta bere fede-aitormenaren zuzena. Hain zuzen, horrexegatik du eskubide eta eginbide —aitormen-mailan, ez zintzotasun sujetiboaren mailan—, zein gizon konkretuki Elizaren barnean aurkitzen den epaitzeko. Eta hori egiteko eskubidea ez balu, Elizak ezingo luke bere fede-batasunean iraun. Ez litzateke Kristoren Eliza izango.

Kapitulu hau bukatzeko, zilegi izan bekit Newman Kardenalaren pasarte bat aipatzea, ezen bukaera hoberik nik ez dut aurkitzen:

(1) ALFARO, *Cristología y Antropología*, 411 orr.

“Jainkozko Asmoak egiazko hazkunde doktrinalak eta praktikoak hartzen dituenean, beharrezko da, halaber, kanpoaldeko autoritate bat egotea, hazkunde horiei buruz bere epaia emateko jarria, bere erabakiekin bereizkuntza egin dezan hazkunde hauen eta gizonen asmakeria, txorakeria eta faltsokerien artean. Hazkunde jator horien multzoa eta beste hauen multzoa bata bestetik bereizteko, alegia. Eta hain zuzen, hori da Elizaren hutsezintasunak esan nahi duena”(1).

(1) IKUS DILLENSCHNEIDER (CLEMENT), *El misterio de Nuestra Señora y nuestra devoción mariana*, Ediciones Sígueme, Salamanca, 1965; 55 orr.

Hamazortzigarren Kapitula

FEDEAREN TEOLOGIAK GURE EGUNOTAN EZAGUTU DITUEN OSAKETA ETA GAURKOTZEAK (1)

Azken mendeotan fedeari buruz ematen zen teologi esplikazioa eta fededunek berek duten esperientzia ez zeuden elkarrekin guztiz akort. Bazen halako ondoez edo tirabira bat bien artean.

Honek ez gaitu gehiegi harritu behar. Teologoez, maiz sarri, gauzak argitu nahirik, edo ingurumarian dabilen kezkekin ados egon nahirik, esplikabide batzuk proposatzen dituzte. Esplikabide horiek, esandako kezkei erantzuteko agian egokiak dira, baina kristau iturriek ez diote leialtasun osoa gordetzen. Alderdi batzuk marra lodiz azpimarratzen dituzte eta beste batzuk, berriz, isilik uzten edo gaingiroki ukitzen. Baieztatzen dutenetan arrazoi izan dezakete —neurri batean—, baina isiltzen dutenetan ez. Jakina, goizago edo beranduago azalpen aldebateko horiek zuzendu eta osatu beharra egoten da.

Fedeari buruzko teologian ere honelako osaketa eta zuzenketa egin beharra gertatu da.

Eta hau da notatzekoa: Teologia katolikoa eta protestantea fedearen esplikazioan bakoitza bere bidetik zebilen eta elkarrengandik urrun. Bakoitzak baieztatzen zuen alderdia jatorra zen. Isiltzen edo ukatzen zuenekoan zegoen hutsa.

Teologia katolikoak azken mendeotan bere indar guztiaz babestu eta zaindu du fedearen arrazoitasa, hots, kristau fedea ez dela fideismo-suerte bat, ez dela sentimendu huts-soila edo sujetibitatearen fruitua. Alegia, argi osotan jarri nahi izan du adimenduak fedean duen partea. Beste alderdi batzuei —honi mesede baino kalte gehiago egingo ote zioten beldurrez—, ez zitzaion hainbeste kasu ematen.

Era horretara, fedeari buruz ematen zen esplikabidea gehienetan oso intelektualista zen. Fedea, jakintza edo zientzia-suerte bat bezala azaltzen zen. Fedearen alderdi doktrinala guztiz nabarmen ageri zen.

(1) IKUS ALFARO, *Cristología y Antropología*, IX; 367 orr.

Esan dezagun berriro: guzti hori berez ez zen faltsoa, baina beste puntuak behar hainbat aipatzen ez zirelako, proportzioen neurriak ez ziren gordetzen.

Protestanteak, aldiz, beste muturrean egon dira (eta daude). Hauen aburuz, fedeak ez luke deus ikustekorik arrazoiarekin. Orduan normala da bien artean leze, eta are kontradizioa ere, egotea. Katolikoak ez du hori sekulan onartuko, zeren fedea, supernaturala izanagatik, giza naturalezan txertatzen baita, eta, beraz, giza psikismoaren legeak errespetatzen baititu. Zatiketa hori ez da humanoa.

Dena den, teologia katolikoan poliki-poliki sintesi berritu eta aberatsago bat egin ahal izan da.

Fedearen eta Agerkundearen kontzeptua bera

Lehenbiziko puntua, berritze edo berrikuste-beharrean zegoena, printzipiozkoa zen, hots, fedearen kontzeptua bera. Eta Fedearen kontzeptuarekin batean, Agerkundearena, noski.

Fedeari buruz kontzeptu bat pixka bat murriztua edukitze hori, urrun xamarretik zetorkion teologia katolikoari. Kontzeptu honen arabera Agerkundeko gauzak egiaztat eduki: hori zen fedea. Kontzeptu hau, faltsoa ez izanik ere, estuegia zen, eta buru-haustea sortzen zituen Bibliako zenbait pasarterekin topo egitean.

Izan ere, adimenduenaren baieztoko huts-soila baino zerbait gehiago da fedea Eskritura Sainduan. Esate baterako, nola konprenitu San Paulok dioena, hots, fedeaz edo fedea dela medio, zuzen egiten dela gizona, adimenduzko eginkari bat baizik ez bada?

Fedea, bai Testamentu Zaharrean eta bai Berrian, aitzingibel askoduna da. Jainkoak salbamen-historian egindako obren egia aitortzea edo sinestea, hori ere berekin du, noski, baina bai besterik ere: fidantzia, Jainkoa nor bere bizitzearen euskarri hartzea, Hari menpetasun osoa erakustea. Maitasun-hasiera bat gabe ez dago federik.

Jainkoari sinetsi: esaldi horrekin adierazten da Testamentu Zaharrean fedezko eginkaria, baina eginkari horrek osagai edo elementu asko ditu. Testamentu Berrian ere berdin. Egia da hemen —Testamentu Berrian— azpimarratuago ageri dela aitorreraren alderdia, hots, Jainkoak Kristo baitan egin duena egiaztat hartzea. Eta hau konprenitzekoa da, zeren Kristoren gertakarian konplitu baititu Jainkoak bere salbamen-agintzak.

Fedea da, beraz, Kristori atxikitasun osoa eta guztizkoa erakustea, hots, Kristo *ezagutzea*. Baina hor dago koska: *ezagutu* hitza ere Bibliaren erara hartu behar da. Hitz honek, Bibliako usuarioan, berekin du Harengana konbertitzea, Haren segizioan sartzeta eta Haren Izpiritutik bizitzea.

Ez da, bada, soilki eta bakarrik, egia batzuk egiazat edukitzea. Mezuaren onartzea eta aitortzea, bai, baina obratze zerbait ere berekin duela. Labur: gizonak bere burua Jainkoari errendatzea.

Agerkundera, berriz, zer da? Jainkoak bere Semea guri ematea —eta bere Semearengan Jainkoa bera—. Beraz, amodiozko gertakune bat, hitzez eta egintzez osatua. Jainkoaren interbentzio salbagarriek Jesukristoren gertakarian jo dute beren gailurra. Jesukristo da Jainkoaren azken hitza, hitz guztizko eta erabatekoa.

Edozein modutan ere, urrats handia izan da fedearen teologian *fede* hitz honen kontzeptu jorira itzultzea.

Graziaren partea fedean

Hona beste puntu bat, berreskuratu behar izan dena. Egia esan, graziaren partea fedean ez zegoen ukatzerik, zeren hori Elizaren Irakasgoak erabakirik baitu. Hala ere, graziaren partea fedean gutietsi ohi zen. Bibliako pasarteez kontu guti eginik, ahalik eta tarterik ttipiena aitortzen zitzaion graziari fedean.

Hori zergatik egiten zen, ez zen zail asmatzen. Graziari esku gehiegi ematen bazitzaion, beldur ziren teologoak fedea ez ote zen gauza subjektibotzat hartuko. Beren interesa zen fedea arrazoiak akort dela eta arrazoiaren aurrean ongi oinarritua dela erakustea. Zientifikoki ongi finkatua ager zedila, alegia. Grazia aho-mihitan gehiegi hartzeaz, berriz, bazirudien arrazoizko ez den zerbait tartean sartzen zela, fedea fideismotzat joa izateko bidean jartzen zela.

Honetan ere —hots, fedearen arrazoitasuna salborik utzi nahi izatean— ez zeuden teologoak oker. Baina graziaren alderdia fedean —Eskritura Sainduan hain azpimarratua den alderdia—, ez zen hargatik gutietsi behar. Zorionean, piskaka hemen ere sintesia egin ahal izan da.

Testamentu Zaharrean, adibidez, Jeremias eta Ezekiel profetak ditugu lekuko. Horiek abisatzen dute Jainkoak Hitzarmen edo Akordio berri bat egingo duela etorkizunean bere herriarekin. Lehengo Akordio Zahar hura hautsi egin du herriak. Baina Akordio Berri hau oso bestelakoa izanen da: “Bihotz bat emango diet ezagut dezaten ni naizela Yahveh: berak ene herria izango dira eta Ni beren Jainkoa, zeren bihotz osoz enegana bihurtuko baitira” (Jer 24,7).

Akordio berri honen muina hara zein den: “Ezarriko dut neure legea haien barnean, eta haien bihotzetan dut idatziko, eta ni izango naiz haien Jainkoa, eta haiek izango dira ene populua”. (Jer 31,31).

Pasarte hauen muina atzemateko giltza hitz hauetan datza: *bihotza* eta *Yahveh ezagutu*. *Bihotza* Eskritura Sainduan zera da: gizonaren barneko zentrua, haren gogo-xede-erabaki eta gogoeten sustraia edo sorbu-

rua. *Yahveh ezagutzea*, berriz, ez da bakarrik Hura Jainkotzat aitortzea. Haren promesetan fidantzia izatea, Haren aginduak gordetzea, hitz batez, Jainkoari guztizko erantzuna ematea: hori guzti hori da *Jainkoa ezagutzea*.

Beraz, Jainkoa ezagutzeko bihotza, Jainkoak emana: horra Hitzar-men Berriko dohaina. Horrek esan nahi du Jainkoak berak sortaraziko duela gizonagan zinezko ezagupenaren jarrera osoa, hau da, aitorrera, fidantzia eta leialtasuna. Jainkoak berak barnatzen du gizona baitan bere hitza, bere promesa, bere legea.

Antzera Ezekielek (Ez 11,19; 36,26).

Testamentu Berrian Izpiritu Sainduaren etorrera Kristoren piztuera-kin lotua azaltzen zaigu. Kristok, bere Izpiritua dela medio, egiten du lan fededunagan (Rom 8,9-10. Ikus, baita ere, Jo 7,39; 16,7).

Zer moduzko zeregina du Izpiritu Sainduak fedean? Konbertsioa, hau da, federa etortzea, itsumenditik irten eta *Jainkoa ezagutzea igarotzea*: hori denori Jainkoaren barne-argidurari zor zaio (2 Cor 4,6).

Jesusen heriotze eta piztueran Jainkoak agertu digun misterioa gizon naturalarentzat, hots, *psikikoarentzat*, ulerkaitz eta ezin onartuzkoa da (1 Cor 1,23; 2,2ss; 2 Cor 4,5-6). Gizon *pneumatikoak* bakarrik uler dezake, hots, Izpirituaz argitua denak bakarrik (1 Cor 2,14-15).

Barneko argidurari zor zaio, ez bakarrik federa etortzea, baita ezagupenean hazkunde egitea ere. Kristoren misterioaren barnatze hori "epignosis" hitzaz izendatzen du San Paulok (Ephes 1,17; Phil 1,9; Col 1, 9-10).

Kristoren misterioa gero eta gehiago sakontzea Izpiritu Sainduaren lana da, bada. Kristoren Izpirituak ematen die fededunei ezagupen bat gero eta sakonagoa.

San Paulok dioenaren arabera, Izpiritu Sainduari zor zaio gure iza-ki gizatiar hau errotikan aldatzea, hots, konbertsioa. Hari zor zaio, baita ere, kristauak seme-gisako fidantziatz Jainkoarengana jotzea (Gal 4,6). Izpiritu Sainduak sortarazten du fededunagan Jainkoaren seme garelako esperientzia (Ikus Rom 8,14-17; 8,33).

San Joanengan antzera dira gauzak. Jainkoak sortarazten du fedea gizonaren barnean, Izpiritua dela bide (Jo 6,44-46). Horretarako Aitaren *erakarpena* beharrezkoa da. Eta zer da erakarpen hori? Jainkoak barne-tik gudan bere lana egitea. Federa etortzeko beharrezko dira kanpoaldeko baldinkizun batzuk, baina horiek bakarrik, beste gabe, ez dira aski. El-karte Berrian Jainkoak berak barnatuko du Jainko-ezagueria gizonaren bihotzean, Jeremias eta Isaias-ek esan bezala (Jer 31,31; Is 54,13). Ez ba-karrik konbertsioa; ezagupenean hazkunde egitea ere Izpiritu Sainduaren barne-eraginari dagokio (Jo 14,26; 16,13). Beraz, Izpiritu Saindua barne-ko argidura bat da.

Fededunak Kristogandik hartzen du Jainkoaren seme izateko grazia (Jo 1,12).

San Joanen lehen eskutitzean oraindik gehiago azpimarratzen da kristauaren barne-esperientzia. Jainkoagandik jaio denak soilki ezagutzen du Jainkoa (1 Jo 3,6). “Badakigu ere ethorri dela Jainkoaren Semea, eta adimendua eman darokula, ezagut dezagun egiazko Jainkoa, eta bizi gaitezen haren egiazko Semearen baithan. Hura da egiazko Jainkoa eta bethiereko bizitzea”. (1 Jo 5,20; Duvoisinén itzulpena). Agi denez, barneko dohainaz mintzo da.

Beraz, grazia zer da? Besteak beste, barneko argi bat, zeinek gai bihurtzen baitu gizona Jainkoaren Agerkundera ezagutzeko eta oraidanik hasiz, Jainkoarekin batasunean bizitzeko(1).

Beraz, fedearen edukina, hartu, kanpotik hartzen da, baina barneko argidura ere behar da.

San Agustinek garbi ikusi zuen puntu hau. Erabaki ere egin zen Araucano deitu II. Kontzilioan. Haren hitzak dira hauek: Graziak gure barneko begiak zabaltzen ditu Agerkundera sinets eta gero eta sakonago uler dezagun(2).

Kristoren tokia fedean

Gezurra badirudi ere, azken mendeotako teologian ez da behar adina azpimarratu Kristo dela Agerkundera eta fedearen zentrua. Batikano II.ak, bai, ongi finkaturik utzi du puntu hau, eta hori kristautasunaren oinarri-
ra bihurtzea besterik ez da izan.

Kristorekin salbaziozko baietza esan du Jainkoak (2 Cor 1,20). Jesus gurutziltzatu eta berpiztua dela Jaun eta Jainkoa: horra kristau fedea. Kristo berpiztu zela eta Jainko dela: hori aitortu ezik, kristau fedea ez du funtsik. Sinestea horixe da: Jainkoak Kristogan zertu duen egintza salbagarria ezagutzea eta onartzea. Aitormenik gabeko kristautasuna kontraesan bat da. San Paulok garbi esan zuen: Kristo berpiztu ez baldin bada, zuen fedea alferrikakoa da (1 Cor 15,17).

Aitormenak berekin dakar fedea proposamenen bidez adierazi beharra. Ezagupena eta aitormena beharrezko dira gizonak bere burua Jainko-amodioaren eskuetan utz dezan.

Fedea, azken finean, gizonaren galdera nagusien erantzuna da. Eta erantzun hori ustegabeko hitz honen bidez —Kristoren gertakariaren bidez— eman digu Jainkoak.

Ezagupen-suerte bat guztiz berezia da, bada, fedea: sineste emate, onartze, aukera egite eta aitormen egitea: guzti horiek sartzen dira fedan. Ez da bakarrik zerbait gertatu dela egiztatzea; pertsonen arteko topo egite bat ere bada; Jainkoak eman digunaren aurrean gizonaren

(1) Ikus, gainera, zein hurbil diren bata bestetik Mt 11,25-27 pasarte famatua eta Jo 6,44, eta nola testu hauek barne-esperientzia bat suposatzen duten.

(2) DS 377. Ikus, baita ere, “Dei Verbum”, 5.

oso-osoko jarrera ere bai. Gertakari honek konbertsiozko aukera egitera deitzen gaitu (Mc 1,15).

Kristogan gertatu dena, bestalde, etorkizunera buruz abiaturik dago. Jainkoak etorkizunean emango diguna, aitzindurik bezala, ematen digu fedean. Beraz, *azken egunak* hasiak dira jadanik. Kristogan agertu zaigu zer den Jainkoa guretzat, hots, amodiozko Jainkoa (1 Jo 4,8; 3,1).

Eta Kristogan agertu zaigu, era berean, gizonaren egiazko bokazioa.

Eliza, aldiz, zera da: Kristoren testigua eta seinalea munduan.

Hortaz, Kristo da Agerkundearen zentrua. Berarengan biltzen dira gauza guztiak.

Batikano II.ak esan du fedearen ondarean mailakatze bat egin behar dela (1). Fedezko egiak zer lotura duten Kristoren misterioaz, eta hortik hartzten da mailakatzearen araua. Horrek ez du esan nahi, noski, egien murrizte bat egin behar dela, baina bai bakoitza bere tokian eta mailan jarri. Kristo da, bada, ardatza; eta beste egiak Kristorekin duten zer-ikusitik ulertu behar dira. Agerkundea, azken batean, salbaziozko egia da, salbaziozko mezua.

* * *

Kristori Agerkundean eta fedean toki printzipala zor zaiola esateaz ez dago, ordea, dena esana.

San Joanek esango digu Kristo Jainkoaren hitza dela. Eta Jainkoaren hitz hori gizon egin dela. Beraz, Kristo dela Jainkoaren agertzailea. Jainkoaren Seme bakarra denez, Berak bakarrik ezagutzen du artez Aita eta Berak bakarrik jakin araz diezaieke gizonei Jainkoaren misterioa.

Jainkoaren Semea, alde batetik; egiazko gizona, bestetik: hori da Kristo. Jainkoa ikustea Berari soilki dagokio. Jesusen hitzak hitz gizatiarrak dira, baina Jainko-Semearen hitzak, halere; beraz, Agerkundea dira.

Kristok dioena berez da sinesgarri. Laugarren ebanjelioan Kristok eskatzen du sinets dakiola Berari, zeren Berak Aita ezagutzen duen, eta Aitak, Berarekin batean, lekukotasun ematen duen. Bestela esan: sinetsi behar zaio Semea delako. Giza arrazoiarentzat ulerkaitz da mintzamolde hau. Baina bere burua Jainko-Semetzat duenaren mintzaira dela, ezin uka (Ikus Jo 3,33; 7,28; 8,16; 5,36; 1 Jo 5,10 etab.).

Zer da, beraz, fedea San Joanentzat? Jainko-Seme honi alde guztizko atxikimundu egitea.

Kristo ez da bakarrik fedearen zentrua; fedearen oinarria ere bada. Agertzaile eta Salbatzaile izatea errealitate baten bi alderdi baizik ez dira. Jainkoagandik duen bizia ematen die Kristok gizonei. Kristori sines-tea eta bizidun izatea, guztia da orobat.

(1) Ikus Ekumenismoari buruzko gutuna, n. 11.

Agerkundera zer den jakiteko argi berezia ematen digu Joanek. Salbamenaz du zer-ikusi Agerkunderak. Jainkoak gizonari bere burua agertzea eta ematea, horixe da Agerkundera. Supernaturala, hortaz, supernaturalik baldin bada.

Fedea, aldiz, zera da: gizonaren erantzuna Jainkoak Kristogan agertu digunari. Fedean gizonak Jainkoari sinesten dio. Baina Jainkoari, behar den bezala, ezin sinets diezaioke gizonak, Jainkoak Berak landatzen ez badu bere hitza gizonaren bihotzean. Eta hori Izpirituaren lana da.

Fedearen sorreran bi gauza hauek ditugu, bada: Bata, kristau mezuaren predikua, kanpotik heldu dena. Eta bestea: Barnetik ari den Kristoren Izpirituak egiten duen lana.

Kristau mezua ez da soilki dotrina bat

Kristau mezua, ordea, ez zaio gizonari azaltzen huts-hutsik dotrina bat bailitzan. Sineste eman behar zaion dotrina bat, eta deus ez gehiago: ez, ez da horrela. Gertakari handi bat da, eta gertakari honek errotikan argitzen du ene bizia, eta bizi honi esanahi erabatekoa ematen dio. Ene askatasuna ere tartean dago.

Sinetsi: bai ala ez? Gizonak behar du jakin, noski, zein diren aukera hori egiteko dauden motiboak. Aukera libre hori gizonak nolazpait kontrolatu behar du. Arrazoiak badu, bada, fedean bere unea, bere puntua edo mementoa.

Arrazoi nabarien eta guztiz argitsuen zain egoterik ez dago, ordea. Gizonak bere bizitzearen aukera erradikala egin behar izaten du, nahi-eta-ez, argi oso eta betearen jabe ez izanik ere.

Zenbait teologo katolikok uste izan du fedean badela une bat, zeinetan gizonak arrazoiaren argi soilaz sineste-motiboak aztertzen eta Agerkunderari baiezkua ematen baitio. Hots, arrazoiak berak bakar-bakarrik, inolazko laguntza gabe. Baina hori da kristau mezuaren aurrean gure jarrrera nolakoa den ez jakitea. Ez gaude problema teoriko huts-soil baten aitzinean. Gure bizitzearen geroa eta esanahia daude tartean, gure libertatea dago auzipean. Ezagutzea eta aukera egitea, dena dago hemen korapilatua. Eta Agerkundera salbaziozko gertakari bat delarik, ez dugu uste behar beronen aurrean gizona bakarrik eta graziaren laguntza gabe gertatzen dela.

Hain zuzen, barneko laguntza horrek egiten du gizonak kristau mezua Jainkoaren hitza bezala har dezan; bere bizitzearentzat mezu honek duen balioa ikus dezan. Honetan datza federako deiak duen apartekotasuna eta besteri ezin esanezkua. Gizonak barneko dei hori ezingo du osoki esplikat.

Fedezko eginkarian ematen den libertate-mota

Teologiak beti hartu izan du kontutan ezagupenaren alderdia fedean, eta, zinez, hartu behar da. Ikusalde honetatik soilki begiratzuz, ordea, zer izango litzateke fedea? Egia batzuei sineste ematea, eta deus ez gehiago.

Baina fedea librea dela ere onartu behar da. Eta hor dago koska. Ezagupenaren munduko gauza bat nola izan daiteke librea? Hori esplikatzeke, honako bi puntu hauetara jo izan da komunzki: 1) sinesgarritasun-motiboeke ebidentziaren maila ez dutela iristen, 2) Agerkundearen edukina bera misteriotsua dela.

Horiek horrela, fedearen aukera borondateak libreki egin behar du. Gauzak ez dira hemen gertatzen zientzietan bezala, zeren eta han adimenak, argumentuez beharturik, ematen baitu bere baietza.

Esplikazio hau, guztiz faltsoa ez izanik ere, ez da askiko. Fedearen aukera zergatik den librea konprenitzeko, zerbait gehiago esan behar dela dirudi. Fedea da Jainkoaren egintza salbagarriari erantzutea. San Paulok dioenez, sinestea ebanjelioari *obeditzea* da (Rom 16,26), gizonak bere autonomiari neurri batean uko egitea, eta Jainkoaren hitza norbere bizitzearen oinarritzat hartzea. Ondorio larriak ditu aukera honek. Gizonak bere eskuan du Jainkoaren eskaintza hartzea —baina bere ondorio horiekin, jakina—, edo bere barrenean kiribildurik segitzea. Horra zergatik den, baitipat, librea fedearen aukera. Ezagupenaren alderdiagatik baino areago, bizitzerako dituen ondorioengatik.

Kristok esan du: “Estua eta meharra da bizitzera daraman atea, lasaia, berriz, galdumendira daramana, eta gutiak dira ate estu horretarik sartzen direnak” (Mt 7,13). Hauxe da arrazoi nagusia zergatik gizonari zail egiten zaion fedezko aukera hartzea, eta zergatik, aukera hori egiteko, nahimenaren erabaki librea behar den. Egia da fedeari obedituz bihurtzen dela gizona benetan libre eta bere buruaren jabe, baina paradoxa hau gizonak nekez irensten du.

Bai. Fedearen aukerak uko bat dakar berekin. Gizonak bere bekatuzko osina eta bere hutsa aitortu behar du, Kristoren salbazioa ezagutzen duen puntutik. Norberagandik irten, haragiaren gatibutasunetik irten, eta hala Jainko-semeen gatibutasunean sartzen da. Baina gaitz eta gaitzi egiten zaio hori gizonari. Horregatik aukera hau libreki, guztiz libreki egiten da. Baietza adimenak ematen badu ere, nahimenaren aginduz ematen du. Nahimenak libreki eta bere nahiz hartzen du bere erabakia. Eta aukera hori egiten duenean, orduan, hain zuzen, eskuratzen du gizonak bere zinezko libertatea. Baina horretarako zintzotasun osoz jokatu behar du gizonak. Horrela, zintzoki jokatzuz, eta ez bestela, iraun dezake gizonagan fedea.

Jesusen esanetan bada bat jatorrenetakoa, hots, histori aldetik frogatuenetakotzat jotzen dena. Hara zein: “Bere bizia gorde nahi duenak gal-

du egingo du, eta Nigatik galtzen duenak gordeko du" (Mt 16,25. Ikus, gainera, Lc 17,33; Jo 12,25). Esan nahi duena garbi dago: fedea, edo Jesusen segizioak —guztia da orobat— galtze bat dakarrela berekin, baina galtze horrek irabaztea duela ondorio. Hasierako galtze horretara, ordea, nekez da gizona makurtzen. Hau da fedearen abentura. Horregatik da fedea libre, hots, gizonaren nahierara dagoen zerbait, ez moralki, baina bai fisikoki. Gizona ez dago fedea onartzera bortxatua, eta libreki egin behar du bere aukera.

Labur: gizonak behar du ezagutu kristautasuna sinesgarri dela. Hori gabe ez dago federik. Baina denbora berean honako beste hau ere esan behar da: fedeari gordetzen zaion leialtasuna bera bihurtzen dela argi-iturri kristau mezuaren egia ezagutzeko. Ez dago hemen kontraesanik, lehen kolpean hala badirudi ere.

Fedea bere muinean

Bere egitura jatorrean, bere muinean, zer da, beraz, fedea edo fedezko eginkaria? Zer da *Jainkoari sinetsi* delako hori? Nolatan, fedea, heldzen da gizona Jainkoarengana Berarengana? Hau ongi ulertzeko, bai fedezko eginkaria eta bai Agerkundearen kontzeptua bera ere, bi-biak hartu behar dira kontutan.

Fedea da Kristok gu harrapatzea, halako moldez, non, Bera bizi baita guregan. Kristoren pertsonari gu osoki atxikiak izatea. Kristorekin bizi-batasuna egitea. Erlazio pertsonal horrek du lehentasuna fedean.

IV. ebanjelioak besteak baino sakonkiago barnatu du fedearen alderdi hau. Orain bada, hara zer esaten zaigun ebanjelio honetan: Jesusek bere buruaz ematen duen lekukotasuna atsolutuki sinesgarri dela aitortzen dugunean, orduan Jesusen Jainko-semetza aitortzen dugula. (Ikus Jo 3,16; 5,24; 6,30ss; 10,10; 14,6; 17,3). Zer esan nahi du horrek? Jainkoaren hitza, Jainkoarena delako, hain zuzen, berez dela sinesgarri, bere baitan duela hitz horrek bere sinesgarritasuna. Fedea da, beste ezer baino lehen, *Jainkoari sinestea*, eta guztien gainetik eta aurretik sinetsi behar duguna hauxe da: Agerkundera bera, Errebelaziozko aktoa.

Fedea orduan, eta orduan bakarrik, da fedea, hots, Jainko-hitzaren onarpena. Jainkoa mintzo denean, Jainko bezala mintzo da, eta hala mintzo delako, hain zuzen, huts-hutsik eta beste gabe, sinets dakion eskatzen du.

Agerkundera eta Salbamena

Agerkundera eta Salbamena errealitate baten bi aurpegi baizik ez dira. Eta hori hala baldin bada, fedezko eginkaria hauxe besterik ez da: gizonak graziaren Jainkoari baieztoko erantzuna ematea. Fedean gizonak

Jainkoa bere Salbatzailatzat hartzen du. Fedean gizonak salbamena bilatzen eta aurkitzen du.

Agerkundearen transzendentziak —goitiko izateak— berekin dakar inmanentzia ere, hots, gizonak ezin sinetsi ahal izatea Jainkoak Berak bere hitza gizonaren bihotzean landatzen ez badu. Hori gabe, gizonak ezin egin dezake hitz salbagarri honen aukera zintzoki, zinez eta murrizterik gabe.

Bere azken muinean, bada, hiru zer hauez osatua da fedezko egin-karia: Jainkoaren hitzaz, Honen barne deiaz eta gizonaren erantzun librez. Eta gizonak bere burua salbaziozko egintzari ematen dionean, orduan ezagutzen du Jainko-amorio-dena.

Orain agertzen zaigu nola dauden elkaturik eta bat eginik Bibliaren azterketan ikusi genituen fedearen osagai askotarikoak. Orain ikusten da, alegia, gizonak bere baiezkua ematen duenean, ezagupena eta amodioa elkaturik daudela; eta gizon hori Kristo eta Jainkoarekin batasunezko bizitzean sartzen dela.

Fedezko eginkariaren joritasunean osagai asko bereizi behar dira; baina, azken finean, ezin hautsizko batasun batosatzen dute denek. Jainkoari sinestean, gizona Haren hitzean fido da, Haren menpean jartzen da eta Agerkundearen gertakaria egiazkoa dela aitortzen du.

Gainera, fedea eskatologiaruntz abiatua da. Jainkoaren ikuspena da fedearen azken helburua, baina ikuspen horrek hemen du nolabaiteko hasiera, Jainkoarekin bat egiteak ere bere hasiera hemen duen bezala.

Eta ez hemen bakarrik, baita zeruko egoitzan ere, Kristori esker eta Hura dela medio, izango gara ikuspen eta batasun horretan sartuak. Beraz, fedea Kristogan oinarritzen eta bururatzen da.

Ortodoxia eta Ortopraxia

Fedezko bizitzea zer da, bada, azken finean? Jainkoaren bilakuntza Kristoren bidez eta Izpiritua baitan. Bilaketa horretan gizonak bere izate guztia ipini behar du (ezagutzea, obratzea).

San Paulo, Santiago, San Mateo, San Joan, denok datoz bat honetan: garrantzi berbera dute Kristoren aitorrerak eta Jainkoaren aginduak gordetzeak, hots, ortodoxia eta ortopraxiak.

Fedearen alderdi doktrinala gorde behar da, noski. Baina ortodoxiarekin batean, aintzat hartu behar da ortopraxia ere.

Agian ez da hau beti behar adina azpimarratu. Ortodoxiari eman izan zaio axola guztia. Baina kristautasunak bizitzerako bide izan nahi du. Elizak eman behar duen lekukotasunak biez osatua egon behar du, hots, egiaz eta bizitzeaz. Behar du erakutsi, alegia, fedeak baduela indar gizona salbatzeko.

Hemeretzigarren Kapitula

AGERKUNDEA (ERREBELAZIOA) (1)

Agerkunde hitza erdarazko “Revelación”en baliokidetzat hartzen dugu.

Fedeaz ari den liburu batean badirudi Agerkundearen gaia ez dela bere lekutik kanpoan. Izan ere, Agerkunde eta Fedeak zer-ikusi estua dute elkarrekin. Galderak eta erantzunak zer-ikusi duten bezala. Edo eskaintzak eta onarpenak duten bezalaxe. Agerkundeak jakin arazi digunari baiezko oso batekin erantzutea: horra zer den fedea.

Horregatik, bi nozio hauek —Agerkunea, Fedea— elkar osatzen eta argitzen dute.

Eta horregatik, hain zuzen, uste dugu, Fedea zer den konprenitzeko, Agerkundeaz mintzatzeak asko lagun dezakeela. Agerkundearen hazpegiak marrazten ditugularik, Fedearenak era berean isladatuak agertzen dira.

Gaiaren garrantzia

Latourelle Aitak dioen bezala (2), kristautasunaren lehen errealitatea da Agerkunea. Teologiaren oinarri-oinarria eta erroa. Jainkoa mintzatu zaiola gizonari; isiltasuna hautsiz, bidera irten zaiola, gurekin El-karte egiteko asmoa agertu duela: horra Teologiaren postulatuak.

Baina oinarri-oinarrizko diren gauzei, sarri askotan, begien bistan di-relako edo, ez zaie hainbeste kasu ematen; zuzenean eta berariaz ez dira aztertuak izaten. Horrelako zerbait gertatu da gai honekin. Sistematikoki ez dela, gure egunok arte, aztertua eta barnatua izan.

Izena eta izana Biblian

Hitz abstraktu hau —Agerkunea— Biblia Sainduan ez dator, noski. Baina izena ez badator ere, izana, bai, alde guztietan eta nonahi ageri da. Nola ez!

(1) RENÉ LATOURELLE, *Théologie de la Révélation*, Desclée de Brouwer, 1963.

(2) R. LATOURELLE, o. cit., Introdut.

Biblian presente da, bada, Agerkundera. Eta bere gisako izenekin izen-datua, gainera, *Jainkoaren hitza* —edo *hitza* soilik— (1). Salmoen artean bada bat —118.a— oso luzea, eta bere bertso guztietan Jainkoaren hitzari buruz ari dena, hots, hitz horren bikaintasunak kantatzen dituen. Eta beti hitz bera esaten ez ibiltzeko, sinonimoetara jotzen du: *Jaunaren legea*, *arauak*, *aginduak*, *erabakiak*, *esanak*, etab.

Hitza, ezein emendailurik gabe ere, Biblian erabiltzen da Agerkundera adierazteko. (Heberkeraz “dabar”, grekoz “logos”, latinez “verbum” edo “sermo”). Adibidez, San Lukasek (Lc 1,2) Apostoluak “ministri sermonis” deitzen ditu —“hyperétai tou logou”— hots, *hitza*ren *zerbitzariak*.

Ebanjelio hitza esanahia (*berri ona*) ere, hortik doa, nahiz eta berriaz Agerkunderaren gailurra —hau da, Kristo— adierazten duen. Gauraz jakina da Testamentu Berrian *ebanjelio* hitza Kristo edo Kristoren bidez Jainkoak eman digun mezua adierazteko erabiltzen dela, eta ez preseski Jesusen bizitzea kontatzen duten lau liburuak izendatzeko. (Ikus, adibidez, Rom 1,16; 2 Cor 8,18). Egia esan, Jainkoaren Agerkunderak historia luzea izan du, eta *ebanjelio* hitzak beronen erpina edo gailurra den Jesukristo adierazten du bereziki.

Gure egunotan bada esatera bat arrakasta izan duena eta azken aldian zabaldua —katolikoen artean, ezen protestanteetan zaharragoa dela uste dut—, hots, *salbamenaren historia*, *salbamenduaren historia*. Izan ere, Jainkoaren Agerkundera historian gertatu da, gertaera batzuen bidez burutu da, alegia. Deitura hau ez da, beraz, bat ere desegokia. Baina esan behar da gertaera huts-soilek ez dutela egiten Agerkundera. Gertaerek hitzen osagarria behar dute. Bestela esan: gertaerez eta hitzez osatua da Agerkundera. Eta Agerkunde hori Historian gertatu da.

TIRABIRAK AGERKUNDEARI BURUZ

Teologi azalpenen murriztasuna

Oraindik urte asko ez dela, Teologi liburuetan Agerkunderaren definizio hau ematen zen: “Locutio Dei attestans”, hots, Jainkoaren irakaspena, baina testigantza sailekoa. Irakaspen honi sinestea zor zaio, huts-hutsik Jainkoaren lekukotasunean bermatua delako. Beraz, Agerkundera gertatu dela diogunean, zera esan nahi da: Jainkoa mintzatu zaigula, eta

(1) Ikus LÉON-DUFOUR, *Vocabulario de Teología Bíblica*; art. “Palabra de Dios”.

mintzaira hau dela lekukoak gauza bat baieztatzen duenean egin ohi duenaren parekoa (1).

Definizio hau ez da faltsoa, noski, baina bai murriztegia, ezen errealtate honen joritasuna ez dago hain hitz gutitan sartzerik.

Hemen gauza bat dago garbi: azken mendeotan Teologia Katolikoak alderdi bat lerro lodiz azpimarratu nahi izan duela, hots: Agerkundeak —eta Fedeak— ezagutzeaz dutela zer-ikus. Badirela, alegia, egia batzuk Jainkoaren lekukotasunaz bermatuak. Eta hori hala da, baina horrekin ez zaigu ematen errealtate honen muin osoa.

Definizio honen arabera, Agerkundera zera izango litzateke: egia bazuen zerrenda. Egia horiek Jainkoak jakin arazi dizkigu, guk ez ditugu ulertzen, baina Jainkoaren lekukotasun hutsean oinarriturik onartzen dira. Esan dezagun berriz ere: Agerkundera bada holakorik, baina aurkezpen aldebateko honekin errealtatea pobretu, desorekatu, desitxuratu eta zurrundu egiten da. Agerkunderaren xedea ikusiz, eta, batez ere, Agerkundera nola gertatu den ikusiz, beste ikuspegi batean azaltzen da arazoa.

Protestanteen artean, berriz, egiaren alderdi honi ez zaio kasu eman; protestanteek, alegia, alderdi hau gutietsi egin dute. Hauentzat Agerkundera besterik zen, hots, gertaera edo gertakari batzuk, Jainkoak obratu dituenak. Hori ere ez da faltsoa. Azken finean, Agerkundera biez osatua da: hitzez eta gertakariez. Gertakari huts-soilak ez dira aski. Interpretazio baten beharra dute, eta hori hitzak bakarrik eman diezaguke. Poliki-poliki Teologia Katolikoa ikusaldeok integratuz joan da, iturriekin adosago den sintesi bat moldatzeraino.

1962ko Azaro hura

Hasiberria zen artean Batikanoko II. Kontzilioa. Eta 1962ko Azaroaren 20an, hain zuzen, krisia lehertu zen. Batzarreari aurkeztu zitzaion eskema —“De fontibus Revelationis”, hots, Agerkunderaren iturriez—, oro har, eta xehetasunetan sartu gabe, ea eztabaidarako on eta egokia ote zen galdetu zitzaion batzarkideei. Erantzuna: 1368, ez; 822, bai. Bozketaren ondorioa jakinik, Joan XXIII.ak agindu zuen erretira zedila eskema hura, eta batzorde berritu batek berregin zezala beste bat. Eskema berria —“Dei Verbum”, hots, *Jainkoaren hitza* deritzana— 1965ean eztabaidatu eta onartuko zen.

Egun gogoangarri hartan —idatzi du Le Guillou jaunak—, korapilo hura desagitearekin, Joan XXIII.ak Kontzilioa salbatu zuen (1).

(1) Ikus *Sacrae Theologiae Summa. I Theologia Fundamentalis*, BAC, Matriti 1962; p. 85ss. — HERMANNUS DIECKMANN, *De Revelatione Christiana*, Friburgi Brisgoviae 1930, Herder et Co.; p. 134ss.

(2) LE GUILLOU, *Le Visage du Ressuscité*, Paris 1968; 59. orrialdean. — Kontzilioaren Erregelak zorrozki hartuz, eskemaren aurkako botuek behar zen gehiengoa ez zuten erdietsi (hirutatik bi). Baina nola segi aurrera desakordio horrekin?

Agerkundeari buruz, Eskritura eta Tradizioari buruz, eskema zaharrean ageri ziren eritzi eta ikuspuntuak zurruneziak ziruditen, ez zeuden akort, ez Teologiaren aurrerapenekin eta ez Kontzilioaren xedeekin ere.

Eskema berritua, aldiz —“Dei Verbum” deritzana—, arras bestelakoa da, eta sesio handi gabe onartua izan zen.

“Dei Verbum” konstituzioa, bada, Jainkoaren Agerkundeaz eta Agerkunde honek guregana heltzeko duen moldeaz ari da.

Nola deskribatzen da gutun honetan Agerkunea? (*Deskribatu* esan dugu, eta ez definitu, zeren gauza hauen funtsa hitz gutitako esaldi batean osoki eta taxuz adieraztea ez baita erraz).

Deskribapen hori era honetara egiten zaigu gutunean, esan nahi baita, obra handi honen hazpegiak lerro nagusi hauetan marrazten dizkigu:

1) Ontasun eta Jakinduriak eraginik, Jainkoak bere burua agertu eta bere asmo eta burubideen berri eman nahi izan digu. Jainkoaren asmoa da, bada, gizonak, Kristo gizon egin dela medio, eta Izpiritu Sainduagan, izan dezatela Aitarekin elkartzeko bide. Beraz, Jainkoak bere etxeko nahi gaitu, hots, nolazpait bere kideko eta adiskide. Bere adiskidantzan hartzen gaitu, Berarekin bat egitera deitzen gaitu (1).

2) Agerkundearen asmo hau nola burutu da? Gertakariak eta hitzak elkarrekin lotuz, era honetara: Jainkoak salbamenaren historian egindako obrek, hitzekin esandakoa finkatzen eta frogatzen dute; eta, alderantziz, hitzek obren esanahia eta muina salatzen dute. Gizonaren salbamenari buruz egia osoa, ordea, Kristorengan agertu zaigu, Agerkundearen konplimendua eta Arartekoa Bera denaz geroz (2).

Deskribapen honetatik honako puntu hauek segitzen dira: a) Agerkundeak gizonaren salbamenaz du zer-ikusi, eta ez preseski dotrina edo egia batzuk irakasteaz (zuzenean behintzat); b) Gizonak Jainkoarekin batasun eginez lortzen du bere salbamea, eta Kristo dugu horretarako bide; c) Jainkoa, Agerkunea egiteko, bai gertaerez eta bai hitzez baliatu da, bi-biak bata besteaz konbinatuz, alegia.

Salbamen-historia honen mugarri nagusiak badakigu zein diren: gure lehen gurasoei egindako Agerkunea, Abrahami egindako deia, Moises eta Profeten bidez egindakoa, eta, azkenik, Jainkoak bere Seme bakarraren bidez egin diguna (3).

Kontzilioko gutunak, Agerkunea zer den deskribatu ondoan, gauza bera egiten du Fedear, ezen Agerkunea eta Fedea elkarrentzat eginak dira; lerro edo maila berean daude biak, galdea eta erantzuna dauden bezalaxe. Biek elkar osatzen eta argitzen dute. Fedea zer den ulertzeko, Agerkundearen deskribapenak argi handia egozten digu.

(1) “Dei Verbum”, 2.

(2) “Dei Verbum”, 2.

(3) “Dei Verbum”, 3-4. Ikus, baita ere, “Ad gentes”, 2.

Ikus dezagun orain "Dei Verbum" delakoak nola deskribatzen duen Fedea:

"Jainkoak Agerkundera egiten duenean, fedearen menpekotasuna zor zaio (Rom 16,26). Fedeaz gizonak libreki, fidatuki eta osoki Jainkoari bere burua errendatzen dio, adimenduaren eta nahimenaren omaia osoa bihurtzen diolarik, eta Hark agertutakoei sineste emanek. Fedea aitortzeko beharrezkoak dira Jainkoaren grazia eta Izpiritu Sainduaren barneko laguntzak, bihotza mugi eta Jainkoagana konberti dezan, adimenaren begiak zabal ditzan eta egiaren onartze eta sinestean orori eztitasuna eman diezaion" (1).

Deskribapen honetan puntu hauek azpimarratu behar dira: 1) Agerkundera nolako, Fedea halako. Agerkundera Jainkoak gizonari salbazio-bidea eta salbazio honen funtsa zertan den adierazi dio: Fedea ez da besterik, asmo hori eta bide hori onartzea baizik; 2) Lehen kolpean behintzat Agerkundera ez da dotrinazko puntu batzuk gizonari jakin araztea, nahiz eta ezagueraren munduaz ere zer-ikusirik baduen. Hori bera esan behar da fedeari buruz ere. 3) Agerkunderak gizon osoaz du zer-ikusi, gizonaren autonomia konprometitzen duenaz geroz. Gauza bera esan behar da fedeaz. 4) Agerkundera supernatural mailako zerbait da, eta bai fedea ere.

Gizonaren paradoxa

Gizona bere egituran edo estrukturan, izaki bezala, alegia, paradoxa bat dela esan izan da, eta hala aitortu behar. Alde batetik, izpiritu bat da, baina, bestetik, izpiritu mugatua. Alde batetik, Jainkoaren desira edo jorana sentitzen du bere baitan, eta Jainkoak bakarrik ase dezake egarri hori; baina xede eta helburu hau berau iristeko ez da berez gauza, nahiz eta nolazpait horretara abiatua egon. Eskolastikoei, beren hizkeran, zera esan ohi dute, hots, gizonagan "potentia oboedientialis" delakoa aurkitzen dela: gaitasun soil bat, alegia, joera edo adi egote bat, baldin Jainkoa eskaintzen bazaio, Hura hartzeko. Baina bitartean...

Eta hala gertatu da. Jainkoa bidera irten zaio. Agerkundera deitzen duguna ez da horixe besterik. Jainkoa bera azaldu eta eskaini zaio gizonari. Agerkundera gertatu denaz geroz, eta gertatu ondoan, orain badakigu ziurtasunez Jainkoarekin bat egitean dagoela gizonaren zoriona eta jomuga.

Agerkundera alde batera utzirik ere, gizonak badu naturalki Jainkoa ezagutzeko gaitasuna. Munduan somatzen diren Jainkoaren zantzu eta arrastoetarik, noski. Bai. Jainkoak nolazpaiteko ezaupideak utzi dizkigu munduan. Horri ere inoiz Agerkundera deitu izan zaio. Baina mundutik

(1) "Dei Verbum", 5.

jaso daitekeen Jainko-ezagutza aski urria da. Zernahi gisaz, Jainkoaren barnea eta gurekiko dituen amodiozko burubideak ezin hortik jakin.

Teologian, bada, *Agerkundera* esaten denean, beste maila bateko Jainkoaren agerpena esan nahi da, hots, Jainkoak Kondairaren bidez egin diguna. Hortik dakigu ziurki gizona Jainkoarekin elkartzera deitua dagoela (1).

Kristau fede eta bizitzean pasibotasunak garrantzi handia du, inondik ere. Bai. Jainkoak aurrea hartu digu. Gure Kondairan sarrera egin du. Jainkoa mintzatu zaigu, bere amodiozko xedeak agertu dizkigu. Gizonak, mintzo hori entzun eta, baiezkotasun batekin erantzuten dio: hori da fede. Baiezkotasun hori ez da adimen soil-hutsaz ematen, gizonaren izate osoaz baizik.

Eman dezagun gizon bat umezurtz eta bakarti, itsas erdiko isla txaxar batean galduta, lagunik gabe eta noragabe. Dagoeneko, mintzoa aditzen du, berari zuzendutako deia, norbaitek berarentzat duen amodioa eta ardura jakin arazten diona. Hori da, hain zuzen, Jainkoak gizonari egin dion *Agerkundera*.

Gizonaren historian Jainkoak bere sarrera egin du, bere hitz eta egintzen bidez gure salbazioa egin nahi duela jakin arazi digu. Fedearen agerpen horri baietz erantzutea besterik ez da.

Alfarok idatzi du: *Agerkundera* da, propioki eta bereziki, Jainkoaren jarrera pertsonal bat, hots: Jainkoa mintzatu zaigula. Jainkoa gizonari hurbiltzen zaio, hitzaren bidez gurekin har-emanen sartzen dela. *Agerkundera* ikaragarri murriztu eta urritu egin ohi da proposamen doktrinaren zerrenda huts bat bezala aurkezten denean. Hori alderdirik jatorrena ahaztutzea da; Jainkoa bera bere hitzean hurbildu zaigula ahaztutzea. Jainkoak bere barne-biziaren misterioa salatu digu. Bera bere pertsonan eman zaigu. Bere hitzean egiaren eta salbazioaren bermea eman digu. Bere burua gizonari agertu eta eman egin dio (2).

Le Guillou jaunak, aldiz: “*Agerkundera* da Jainkoaren aurre hartze bat, zeinen bidez sortzen baititu Eliza, Biblia, tradizioa, sakramentuak, eta guzti hori bere burua guri emateagatik. Jainkoaren etorrera gure historiara, noizbait erresuman konplimendu osoa izango duen etorrera. *Agerkundera* ez da, bada, besterik, Jainkoak bere bizian parte hartzeko egiten digun gomita baizik. bere asmo edo burubidea egia bihurtzea baizik (3).

“*Agerkundera* dugu iturburu nagusia, zeren Eliza, Biblia eta honen inspirazioa, tradizioa, dogma, teologia etab., hortik sortzen baitira” (4).

(1) IKUS ALFARO, “El problema teológico de la trascendencia y de la immanencia de la gracia” in *Cristología y Antropología*, Madrid 1973.

(2) ALFARO, o. cit., 350 orr.

(3) LE GUILLOU, *Le Visage du Ressuscité*, 60. orr.

(4) LE GUILLOU, o. cit., 61. orr.

Epifaniako jaiari ere Agerkundera deitzen zaio, eta arrazoiz, zeren jai honek ere agerpen den aldetik hartzen baitu Kristoren misterioa. Eta Errebelazioa ere hori da, Agerpena, estalirik zegoenari estalkia kentzea. Le Guillou jaunak berriz ere: "Agerkundera da Jainko biziak gizadiaren historian egin duen agerpen errukitsua, hor barnean duen gaitz jale horretatik gizona sendatzeko, eta gizonaren izate guztia —gorputz, arima, adimen, amodio, sentimendu— bere bake eta ospearen distiran sartzeko, eta era horretara gizona bere irudi-antzerara moldatzeko. Jainkoaren *guztia* gizonaren *guztiari* adierazia: horra" (1).

"Den guztia agertu digun Jainko horri gizonak fedez erantzuten dio. Eta erantzun honek era berean gizon osoa berekin hartzen du. Fedearen kontzeptzio bat soilki eta huts-hutsik intelektualista litzatekeena, gainditua gelditu da, bada. Baina era berean esan behar da, halaber, fedearen kontzeptzio anti-intelektualista ere, hots, ezagupen-alderdia aintzat hartzen ez duena, berdin eta bortizki behar dela arbuiatu" (2).

Modernismoaren kenka larria (3)

Mende honen hasieran Modernismoaren krisiak leher egin zuen; Eliza Katolikoaren barnean orduan supituki azaltzen da. Eliz Irakasgoaren debekuez aldi hartakotz garaitua eta baztertua galditu bazen ere, badi-rudi problema ez zela guztiz eta zeharo konpondu, azken urteotan azaldu diren ajeek erakustera eman duten bezala. Auziaren funtsak guk hemen darabilgun galarekin du zer-ikusi, hots, zer den Agerkundera. Horregatik Modernistek galdera honi ematen zioten erantzuna behar da gogoratu.

Azken finean, Modernisten garaiko krisia beste problema zabalago baten atal bat besterik ez zen: kristau fedeak dioena nola adostu, nola elkartu Filosofia eta Zientziek diotenekin?

Protestanteen artean lehenagotik zabaldu eta onartu ohi ziren uste-kizunak, goizago edo beranduago, katolikoen artean ere sarrera egitea, ez zen harritzekoa, eta hala gertatu zen.

Modernistek zioten, bada, Agerkundera ez dela *aerolito* bat, zerutik lurrera eroria, eta bai gizonak hor bere barneko ganbaran asmatu eta egosi duen zerbait. Baina, jakina, Jesukristo Jainkoaren Seme gizon egina baldin bada, eta Hark bere ezpainez Jainkoarekiko gauzak agertu badizkigu, zeinek du hemen arrazoa?

Arestian esan dugun bezala, Modernismoak Protestanteen artean ditu sustraiak; zehazkiago, Protestantismo liberala deitzen den horretan.

(1) LE GUILLOU, o. cit., 62. orr.

(2) LE GUILLOU, o. cit., 71. orr.

(3) R. LATOURELLE, *Théologie de la Révélation*, p. 285ss.; RIVIÈRE (J.), *Le Modernisme dans l'Eglise* (Etude d'histoire religieuse contemporaine), Paris 1929; R. MARLÉ, *Au coeur de la crise moderniste*; Paris 1960.

Kant-ek arrazoiaren kritika egin zuenetik, bazirudien giza-arrazoiak ez zuela gehiago ahalmenik goi munduko gauzen gainean deus jakiteko. Eta arrazoiaren bideak erlijioarentzat itxiak zeudenaz geroz, beste ate edo bide batzuk zabaldu behar ziren, hots, sentimenduarena eta esperientziarena. Hortik jo zuen Schleiermacher pietista eta erromantikoak (1768-1834). Bide beretik joko du gero Ritschl jaunak (1822-1889). Jaun honek Metafisikan agnostizismoa aitortzen du. Beraz, erlijioaren arloan filosofiak ez luke deus egitekorik. Hala eta guztiz ere, ez doa Schleiermacher bezain urrun. Ebanjelioan eta Historian oinarritzea onartzen du, behintzat.

Idea horiek Frantzian A. Sabatier jaunak zabalduko ditu(1). Jaun honen eritzitan, Agerkundera gizonari otoitzean gertatzen zaio. Agerkundera hori, ordea, ez da Jainkoak behin betiko egindako eta emandako zer-bait. Kristautasunaren funtsa esperientzia batean datza, hots, Jesusen esperientzian; baina era berean badira beste esperientzia batzuk ere. Barneko esperientzia hori gero irudi eta kontzeptuen mailara aldatzen da, eta, azkenik, dogmak sortzen dira; baina hemen jator den gauza bakarra esperientzia bera da. Zer esanik ez alde guztiz arbuatzen duela jaun honek Eliza Katolikoak aitortzen duen *Agerkunde publikoa*.

Katolikoan artean bi izen nabarmendu ziren: A. Loisy, exegesi eta historiaren alorrean, eta G. Tyrrell, filosofi eta teologiarenean. Bietan erlatibismoak du aginpidea. Jaun horientzat Errebelazioa norberaren gauza da, noski; besteri ezin pasatuzkoa, beraz. Han ematen zaiguna esperientzia bat da, eta ez besterik. Formula dogmatikoak esperientziaren interpretazioa baizik ez dira. Interpretazio hori hala-holakoa izan ohi da, gainera. Hasierako esperientzia hura gogoarazteko eta beste batengan antzeko esperientzia bat sortarazteko balio lezakete agian interpretazio hauek. Tyrrell jaunak, bestalde, esperientzia hura goitik emana dela onartzen du.

Arriskuaren larriari ohartuz, Eliz Irakasgoa ez zen isilik egon. Lehenik "Lamentabili" Dekretua agertu zen (1907. urtean). Bertan 65 proposamen arbuatzen dira(2). Gero, baina urte berean, Aita Saindu San Pio X.ak "Pascendi" izeneko Entziklika oparo-trinkoa agertzen du(3). Eta azkenik, 1910. urtean, Modernismoaren desbiderapenen aurkako zina(4).

"Pascendi" delakoan Modernismo sistemaren azalpen luze-samarra egiten da. Sistema honek oinarrian Agnostizismoa du, hots, fenomeno huts-soilak baino urrunago den gauzarik ezin ezagut daitekeela. Beraz, erlijioaren esplikazioa gizonaren barnean aurkitu behar da. Barneko esperientzia batetik letorke fedea, eta baita agerkundera deitzen dugun hori

(1) *Esquisse d'une philosophie de la religion d'après la psychologie et l'histoire*, 1897; *Les religions de l'autorité et la religion de l'Esprit*, 1904.

(2) Ikus DS 3401-3466.

(3) DS 3475-3500.

(4) DS 3537-3550.

ere. Erlijio guztiak barneko behar horretatik sortuak lirateke. Denak lirateke barne-sentimendu horren loratze bat.

Modernisten ustekizunen kontrako dokumentuetan Elizaren betiko ikuskera mantentzen dela esan beharrik ez dago. “Fedearen dotrina, Jainkoak goi-agertua... Kristoren esposari gomendiotan eman izan zaio jainkozko gordairu gisa, honek leial gorde eta hutsik egin gabe azal dezan” (1).

Kristau dotrina ez da, bada, gizonek moldatutako zerbait, eta bai jainkozko gordairu bat, Apostolu eta Eliz Gurasoen bitartez heldu zaiguna.

2

ANITZ IKUSALDE DITUEN GAIA

Agerkundearen errealitate hau azaltzerakoan alderdi asko hartu behar dira kontutan.

Hitza, Testigantza, Topaketa

Hortik doa teologiazko gogoeta Agerkundeari buruz. Jakina, horiek denak *analogiak* dira, zeren misterio honetara hurbiltzeko ez baitugu beste biderik. Analogia horiek barnatu eta garbitu, hots, findu beharra dute, gainera.

1) Agerkundera, *hitz* edo *hitzaren mailakoa* dela esan dugu. Hitzaren bidez pertsona bat bestearekin har-emanen sartzeko da. Horretarako *ni* bat eta *zu* bat behar dira. Hitzaren bidez pertsona batek beste pertsona bati bere barnea agertzen dio. Nolazpait bere burua hitzean sartu eta bestearen erantzuna galdegiten du.

Jainkoarena izatea: horra hitz honen berezitasuna. Jainkoa bera da hemen gizonari bere asmoa agertzen diona. Gizonarekin duen elkartzetahia agertzen dio. Adiskidantzazko eta amodiozko asmoa agertzen dio: bere jainkozko bizitzean hartu nahi gaituela, alegia. Eta hitzez esan dигuna, Kristok egitez —bere Nekaldiaren bidez— burutu eta konplitu du.

2) *Testigantza*.—Hitzak sail edo mota askotakoak izan ohi dira. Mota horietako bat da testigantza. Testigantzari zor zaion erantzuna, fedea da.

Eite honetakoa da Eskritura Sainduan ageri den Agerkundera. Testamentu Zaharrean Jainkoak mandatari batzuk bilatzen ditu, hots, profe-

(1) Vat I. DS 3020.

tak. "Hau agintzen dit Jainkoak zuei esateko": era honetara mintzo ziren profetak. Testamentu Berrian Kristo lekuko edo testigu handia bezala ageri da (Ap 1,5; Jo 3,11). Eta zer dira Apostoluak, testigu-talde bat baizik? (Lc 24,48).

Bere muinean testigantza zer da, ordea? Pertsona batek beste pertsona bati zuzentzen dion hitza, honek, harengan fidaturik, zerbait egiaztat har dezan. Beraz, sineste ematea eskatzen du. "Neronek ikusia dut neure begiokin, sinest nazazu, otoi!" Fedean egiazkotzat hartzen da zerbait, testigantza bera bermetzat harturik. Lekukoak fidantzia eskatzen du, eta, bere aldetik, egia esatera eta leial izatera konprometitzen da. Testigantzan oinarritzen den fedeak berekin du, bada, arrazoiaren uzte bat. Uzte hori, bestalde, arrazoizkoa eta bidezkoa da, zeren testiguaren dohainak baititu bermetzat.

Gizonen artean usatzen den fedeak ezaugarritz eta seinalez inguratuturik egon behar du, eta hala ere, engainuak maiz gertatzen dira. Jainkoak soil-soilik eman diezaioke bere hitzari balio atsolutua.

Testigantzaren bidea, alde batetik, ebidentziarena baino maila apalagoan dago. Baina, bestetik, dituen dohainengatik, bestea baino gorago jarri behar da. Ez adimendua bakarrik, baita nahimena eta amodioa ere konprometitzen ditu.

Hau da pertsonen mailari dagokion hitz-mota. Pertsona baten barnea jakiteko ez dugu beste biderik: pertsonak berak, testigantza bidez, bere barneko misterioa beste pertsona bati agertzea. Amodioak eraginik egin ohi da agerpen hori.

Jainkoak amodioz bere misterioa agertu digu. Jainkoa bera dugu bere hitzaren berme eta bahi. Ezaugarriek Testigua bera seinalatzeke balio dute soilki.

3) *Elkar aurkitze edo Topaketa.* — Hitza egon dadin, *ni* bat eta *zu* bat egotea noraezekoa da. Entzungo duenik ez baldin bada, ez dago hitzik. Hitzegiten duena, bestearen bila dabil. Erantzuna nahi du.

Fedean elkar aurkitze hori gertatzen da. Adiskidantzazko har-emanak Berarekin izatera deitzen gaitu Jainkoak. Gizonaren erantzuna fedea da. Zer den irriparrea adiskideen artean, hori da fedea Jainko eta gizonaren arteko topo egite honetan. Beraz, Agerkundera eta Fedea, bi-biak dira pertsonen arteko gauza. Pertsonari ematen zaio atxikimendua fedean. Era berean Jainkoaren hitza hartzen dugu egiaztat eta geure bihotz osoa ematen diogu Jainkoari.

Beste alderdi bat, ezin utzizkoa dena: aukera larria egitea eskatzen digu fedeak. Gure biziaren esanahi guztia dago hemen tartean. Biziaren signifikantza eta nondik-norakoa, alegia. Kristo Jainkoa baldin bada, Haren hitza ororen neurri eta lege da enetzat. Maitemindurik egon ezik, ene buruaren errendatze hori onartzea, ezina da, ordea.

Labur: Jainkoak guganako dituen amodiozko burubideak agertzea: horixe da Agerkundera (1).

Gertaera eta hitzen konbinaketa

Protestanteek badute joera Agerkundera soil-soilik gertaera bezala hartzeko, eta gertaera eta dotrinaren artean halako oposaketa bat jar-tzeko.

Agerkundera Historiaren alderdia ez dago ukatzerik. Izan ere, Testamentu Zaharrean kontatzen dena, zer da? Jainkoaren egintza eta obra miragarriak, Jainkoak bere herriaren alde burutu zituenak. Eta berriona ere zer da? Jesukristorengan gertatu dena. Baina egiazko oposaketa ote dago dotrina eta historiaren artean? Ez, noski.

Agerkundera Historian gertatu da. Erlijio jentiletan Izadiari begira-tzen zaio soilki; Persia eta Indiako erlijioen funtsa jakinduria izan ohi da. Israelgo erlijioan, aldiz, Historiari kontu egiten zaio. Historiak badu xede bat eta plan bat. Xede hori edo helburu hori Jesukristogan azaldu zaigu. Israelek Historian aurkitu du, bada, Jainkoa. Moisesek toki eta ur-te-muga jakin batean hartu du legea Jainkoagandik. Abrahamengandik hasi eta Jesukristorengana heldu arte, mendeetan zehar, Jainkoaren egin-tzak —egintza salbagarriak— mailakatuak bezala ageri dira.

Historia honen puntu nagusiak hara zein diren: Jainkoak Egiptoko morrontzatik askatzen du herria. Gero Elkartea edo Akordioa egiten du he-rriarekin. Gero lur prometatuan sar arazten du. Ondoren erregetza dator. Gero erbesteratzea, eta, azkenik, lur saildura berriz itzultzea. Zer zen Testamentu Zaharreko Kredoa? Jainkoaren egintza salbagarri hauek kon-tatzea. Historia horren hausnarrean egiten du Israelek bere otoitza.

Baina historia huts-soila izan ote daiteke Agerkunde? Ez dirudi. Ho-rretarako bi elementuren konbinaketa behar da, hots: gertaera eta hitza elkarri lotuak egotea. Gertaeren esanahia eta sentsua hitzak behar du esplikatu. Eta hori da Israelen ikusten duguna. Historiaren interpreta-zioa egiteko, hori dira profetak. Testamentu Berrian berdin: lehenbiziko Kredok gertaera batzuk kontatzen dituzte. Ikus Act 2,23-36; 3,12-26; 10, 34-43; 1 Cor 15,3-4. Baina gertaera huts-soila, beste gabe, ez da ezer; be-ronen esanahia, esanahi salbagarria edo interpretazioa ere behar da. Eta hala, Kredo horietan gertaeren esanahi hori ere ematen zaigu.

Agerkunde, bada, Historiari lotua eman zaigu. Horrek ondorio la-rriak ditu. Aipa ditzagun ondorio horiek: 1) Agerkunde ez da proposa-men abstraktu batzuen bilduma, 2) Badago, bai, dotrina bat, baina bere esanahia duten gertaera batzuekin lotua, 3) Kredoa ez da besterik, Jain-koak gizona salbatzeko egin duena aitortzea baizik.

(1) R. LATOURELLE, o. cit., 5. partea, 1 kapitulua.

Agerkundearen barnatzea eta hazkundera, orobat, Historiari loturik egon da.

Egia da, bestalde, Eskritura Sainduan dena ez dela historia. Trinitatearen agerkundera, esate baterako, hitzaren bidez gertatu da, historia-bidez baino gehiago.

Zergatik herri bakar bati?

Agerkundearen kontu honetan bada objektio bat zaharra —Zelsogan ageri da jadanik (1)—, gaur ere zenbait izpirituri huntzadarra bezala itsas-ten zaiona. Hona hemen: Jainkoak nola hauta dezake herri bat Agerkundera hari bakarrik egiteko? Eta beste herriak, zer? Bide honek ez dirudi zuzena.

Baina, Historia lekuko, gauzak hala gertatu badira, guk hori onartzea beste biderik ez dugu. Guri ez dagokigu Jainkoak zer egin behar duen edo ez duen, aldez aurretik erabakitzea.

Gainera, Agerkundera Historian gertatzen baldin bada, nahi-eta-nahiez leku jakin batean eta garai jakin batean gertatu behar. Zergatik Israelen preseski? Hori misterio bat da, noski. Baina, bestalde, Israel zerbitzu bat egiteko izan da hautatua, ez bestetarako. Zerbitzu bat mundu osoaren faboretan. Eta hautapen honek ez dizkio Israeli abantail material handiak ekarri.

Nola balio lezake herri eta mende guztientzat?

Eta horra beste objektio larri bat: Historiaren bidez heldu zaigun Agerkunderak, nola balio lezake gizon ororentzat eta aro guztientzat? Er-latibismoa ez ote da Historiaren baitezpadako legea? Historian loratzen den oro, ez ote da denborakin zimeltzen? Nahiz eta Jainkoagandik etorri, Jainkoaren hitz hura mende jakin baten kategoriekin hartzen da, mentalitate mugatu baten neurriekin. Orduan nahi-eta-nahiez aldakor eta suntsikor izan behar.

Gaur kristauari maiz zirto hau batatzen zaio aurpegira: ezin aldatuzko egiaren ideia duelako, erreaktzionario eta atzera-zale izan ohi dela, hots, aurrerapenaren etsala.

Aitor dezagun lainoki: Objektio honentzat ez legoke erantzunik, irakaspén horiek gizonarenak soil-soilik izango balira. Baina ez dira hala: Jainkoarenak dira.

Jainkoarenak izanik ere, ordea, Kondairaz baldintzaturik —kondizionaturik— daude.

(1) ORIGENES, *Contra Celsum*, IV, 23; ikus LATOURELLE, o. cit., 378 orr.

Esan behar da Jainkoak kontutan hartu duela korapilo hau. Lehenik, prestaera luze baten bidez prestatu eta egokitu du gizonaren izpiritua (Testamentu Zaharra). Gero Jainko-gizona, hots, Jesukristo, eman zaigu. Eta gero, Jainkoak berak, bere babes eta laguntzaz, Agerkundearen iraupena Elizan desbiderapenatarik begiratzeko du. Hain zuzen, hauxe da Elizaren zeregina, hots: Agerkundearen muina, eta honi itsasten zaizkion elementu aldakorrak, elkarrengandik bereiztea.

Kristo, Jainko eta gizonen arteko zubia

Kristok, alde batetik, Agerkundera ekarri digu. Bestetik, ordea, Kristo Agerkundera bera da. San Tomasek badu horretaz pasarte bat guztiz ederra: Gizonak —dio— bere gogoetak besteri adierazteko, letrez eta hotssez jantzi behar ditu; era berean Jainkoak, bere burua guri agertzeko, bere Hitza haragiz jantzi behar izan du (1).

Jainko-Hitzaren gizakundera izan da bidea; Jainkoak bere burua guri agertzeko hautatu duen bidea. Jesusek ematen digu Aitaren berri, eta berri hori ematen digu bai hitzekin eta bai bere egiteekin.

Gizakundearen bide hau nolazpait profetekin estreinatua izan zen, baina Jesukristorekin jo du bere gallurra.

Kristogan eta Kristoren bidez Jainkoak bere buruaren agerpena egin digu. Jainkoaren amodioa Kristorengan azaldu zaigu. Agerkundera egiteko Jainkoak hautatu duen bidea Gizakundera izan da. Horrek esan nahi du gizatasunaren baliakizunak —hitzak eta egintzak— kontutan hartu direla.

Beraz, hitzak eta egintzak, bi-biak elkarrekin loturik daude. Lehen-tasuna hitzari eman behar zaio, noski. Hauxe da gizonak, barneko gogoak adierazteko, duen errepidea. Gertaerak ere hor dira, baina gertaerek hitzaren premia dute, beren esanahia ulert dadin.

Beraz, Kristoren hitza da elementu formala eta baitezpadakoa. Ez dezagun ahantzi, gainera, Agerkundera ez dela osoki Kondairako gertaeretan biltzen. Adibidez, Trinitatearen misterioak zer-ikusit guti du Historiaz. Eta Kristoren bizitzeko gertaerak, jainkozko fedez sinetsiak izateko, behar dute Jainkoaren testigantzaz proposatuak izan. Eta proopsatzeko hori Kristok bere hitzaren bidez egiten du.

Gizakundeak askatzen du Agerkundera berekin dekarren korapilorik larriena, alegia: nola Jainkoak, zinez eta egiazki, bere asmo edo burubidea gizonari adieraz diezaiokeen.

Kristo Jainko eta gizona dugu, biak batean. Etxeko du, bai Jainkoaren mundua eta bai gizonarena. Bi naturalezak eta pertsona bakarra di-tuelarik, Jainko-girotik giza-girora iragaitza egitea posible zaio. Eta ira-

(1) In Jo, c. 14, lect. 2; cf. LATOURELLE, o. cit., 384 orr.

gaitza hori jatorri eta leialki egin ahal izatea ere bai. Kristo da, bada, zubia.

Proposamen gizatiar batek nola ekar dezake golkoan jainkozko egia bat? Analogian datza korapilo honen askabidea. Jainkoaren hitza eta gizonaren hitza ez dira, ez, eite berekoak, baina badute ikustekorik aski elkarrekin. Jainkoak ez ote du gizona bere irudi-antzeria egin? (Gn 1,26). Kristo gure kontzeptuez baliatu baldin bada, horrek esan nahi du horiek badutela Jainkoarekin zer-ikusi.

Aita eta semearen arteko loturan Kristok halako irudi bat ikusten du, hots, Jainkoarengan gertatzen denaren irudia. Jakina, analogia horiek ezin dakizkioke Jainkoari ezar beste gabe, esan nahi baita, behar diren zehaztapen eta garbitzapenak egin gabe; baina Jainkoaren etxe-barneko zerbait guri jakin arazteko neurri batean egokiak dira.

Kristo, Ebanjelioan ikusten dugunez, gizonen arteko nozioez baliatzen da goi munduko errealitateak adierazteko. Beraz, motzak eta amutsak izanik ere, badute funtsezko egokitasun bat. Hala ez balitz, Jainko eta gizonaren artean elkar hizketa ez litzateke posible izango. Goi munduko gauzen berri emateko, behe honetako gauzez baliatu bada Kristo, hori izan da hitz errebelatzailearen aurretik hitz kreatzailea gertatu delako.

Ez dira analogiak bakarrik. Agerkundean epaiak ere badaude. Adibidez: "Aita eta Semea bat dira". Gauza hauek testigu baten esana hartzen den gisa har daitezke soilki.

Kristo, denbora berean, bai Jainkoaren berri emalle eta bai Jainkoa bera guri agertua ere bada. Agerkundearen bide eta seinale. Ezagut bide, eta, era berean, ezagutu behar dena. Eta, beste aldetik, gizadiaren erantzuna Jainkoaren amodioari. Aitaren alderakotzat gizonak hartu behar duen seme-gisako planta edo jarreraren ispilua.

Agerkundean dotrina bat dela, salbaziozko dotrina bat, ezin ukatua da. Hori arbuiaetzea —egungo Protestante batzuek egiten duten bezala—, Gizakundea bera arbuiaetzea da (1).

3

AGERKUNDEAREN ZERTARAKOA ETA EDUKINA

Zertarakoa

Auzi honi bi aldetatik hel dakioke, hots, 1) gizonaren aldetik, eta 2) Jainkoaren aldetik.

1) *Gizonaren aldetik* begiratzuz, Agerkundeak gizonaren salbamen-dua du xede. Agerkundea fedeari buruz da eta fedeak salbamenaz du zer-

(1) R. LATOURELLE, o. cit., 402 orr.

-ikus. Beste hitzez esanik: Jainkoaren ikuspena du jomuga, hau da, Jainkoaren bizitzean parte izatera heltzea.

Obra salbagarria da, beraz.

¶ Jainkoak zerbait jakin arazi badigu, ez du hori egin gure jakin-nahia asetzeko edo gure ezagupenak gehitzeko, gizona bekatuaren heriotzetik atera eta betiko biziaz bizi arazteko baizik. Fedear hartzan den hitzak bizidunak sortarazten ditu, hots, Jainkoaren semeak.

Salbamera: ideia hau Testamentu Zaharrean puntatik puntara, noiz-nahi eta nonahi ageri da. Jainkoak Israelgo herria hartzen, Egipteko morrontzatik libratzen, basamortuan barna gidatzen eta lur prometatuan sartzen du. Jainko salbatzailea, horra Yahvehren izena. Kastigatu ere egiten du, noski, baina azken finean, salbatzeko asmoz. Bazkoa, salbazioaren oroi-garria zen. Mesias baten esperantzak ere hor ditu sustraiak.

Testamentu Zaharrean barna salbazioaren kontzeptua finduz joango da. Hasieran salbazio materiala zen; gero, Profeten eraginez, Israelek ikasiko du non den egiazko salbamera, hots, bekatutik eta gaitz-mota guztietatik libratzean. Eta Jainkoaren salbazio honetara herri guztiak daude deituak.

Salbazio hori Historiako gertaera bat izango da, gainera. Jainkoaren Gantzutuak salbatuko du Israel, eta berau dela medio, baita gizadi osoa ere.

Gertaera hau Kristogan burutu da. *Jesus* izenak hori esan nahi du, hots, *Jainko Salbatzaile* edo *Jainkoaren salbamera*. Jesusen predikuen gaia, Sinoptikoek diotenez, hauxe zen: erreinua heldu dela (Mt 4,17). Erreinua berri onaz eta bekatutik askatzeaz hasten da eta bere konplimentua zeruan izango du (Mt 6,20). Kristo bekatoriak deitzera, galdua zegoena salbatzera etorri zen (Lc 19,10). Sinesten duen eta bataiatzen den oro salbatuko da (Mc 16,16).

Kristautasuna ez da Metafisika abstraktu bat, salbamenaren historia bat baizik.

Dotrina bat, bai; baina salbaziozko dotrina.

Agerkundearen xedetik beste zerbait segitzen da, hots, beronen baitezpadako premia. Jainkoak gizona maila supernaturalera jasotzea erabakitzen badu, noraezekoa gertatzen da Agerkundera, hori jakiteko eta horretara heltzeko beste biderik ez denaz geroz.

Jainkoa gizonari bidera irteten bazaio, amodioz eta onginahiaren eraginez egiten du hori. Egin duen guztia Jainko-bizia guri emateko egin du. Bere Semea gudan bir-sortzen eta bere Izpiritua gugana isurtzen du.

2) *Jainkoaren aldetik* begiratzuz, ordea, Agerkundera Jainkoaren aintzarako da. Horretarako etorri da Jesus: Aitaren izena gizonei jakin arazteko, alegia (Jo 17,4); Aitaren obra egiteko; gizonek Aitari loria eman diezaioten amoreakgatik. Nola ematen zaio loria hori? Jainkoaren salbazio-asmoa onartuz eta asmo honen arabera geure bizia eginez. Zer da,

beraz, fedea? Gizonaren izpiritua Jainkoaren pentsamenduarekin bat egitea.

Misterioak Agerkundean

Misterioak ere badaude, noski, Agerkundean. Nola ez? Jainkoa Jainko denez agertzen bazaigu —eta hala agertu da Agerkundean—, misterioak derrigor egon behar. Guk asma dezakegun baino handiagoa denarekin topo egin dugu. Jainkoa hurbildu zaigu, eta benetan *jainko*zko dela ohar-tzen gara. Ezin esanezkoa eta baztergabea dena azaldu zaigu, eta hala-koxea —hots, baztergabea eta ezin esanezko bezala— azaldu ere. Eta horrelakoa ez balitz, ez litzateke Jainkoa.

Doniane Gurutzekoak dio(1) —eta egia— misterioa ilun egiten zai-gula, ez argi faltaz, argi sobraz baizik. Ilunetatik eguzkitara irtetea ez ote zaigu gertatzen argiak iluntzen gaituela? Jainkoaren argiak ere ha-la itsutzen gaitu. Eta normala da hala izatea, gu hain mugatu eta bista laburreko garenaz geroz.

“Eta jakingo dute Ni Yahveh naizela mintzatu dena” (Ezech 5,13). Hala esaten du Jaunak berak Testamentu Zaharrean. Horrekin aditzera ematen da Agerkundean badirela zantzuak mintzo dena nor den antz emateko. Beste kontu bat da Agerkundeari baietz esateko, kulturaz lan-dara, beste dohain batzuk ere —moralak baitipat— behar izaten direla.

Paradoxak

Agerkundearen auzian paradoxa askorekin topo egiten dugu. Gaia be-ra alderdi askodun izatetik heldu dira. Zazpi gutinaz aipa daitezke:

1) *Transzendente* eta, era berean *inmanente* izatea. —Alde batetik, Jainko biziaren hitza da; bestetik, berriz, giza historian sartua eta hiz-keraren adierazpideez adierazia. Jainkoagandik du etorburua, baina gi-zonak hartzen eta hots egiten du. Hemen bi gehiegikeria egiteko arriskua egon ohi da. Bata: Transzendentziari soilki begiratzea, eta orduan Jainkoaren hitza lainoetan gelditzen zaizu, gizonarentzat eskuragaitz (hala K. Barth). Bestea: mundu honetako fenomeno huts-soila bihurtzea (hala Modernistak), Jainko eta gizonaren artean zubirik ez balego bezala. Bai-na ez da hala. Analogiari esker, elkar hizketa edo dialogoa posible da. Gizona Jainkoaren hitza hartzeko gai da. Ez dator hemen gaizki Salmo-aren pasarte hura: “Beharria bere lekhuari ezarri duenak, ez ote du adi-tuko, edo begia egin duenak ez othe du ikhusiko?” (Ps 93,9; Duvoisinek itzuli bezala).

(1) *Noche Oscura*, libro II, Cap. V, n.º 3.

2) *Batasuna eta aniztasuna*. — Agerkundera, berez eta Jainkoarengan, batasunezko misterioa da. Baina gizonaren izakerara egokitzen da. Gizonak, alegia, era askotara hartzen du Jainkoagan bat den hori.

3) *Egia*, eta era berean, *salbazioa*. — Jainkoaren hitza (heberkeraz “dabar”) indarrez hornitua da, hots, indardun da. Ez da berri ekarle huts-soila. Hori ere bai, baina salbamenduaren obratzaile ere bada. Jainko biziaren hitza, alegia.

4) *Dotrinazko lekukotasuna eta adierazpen pertsonala*. — Dotrinarik gabe Agerkunderik ez dago, bistan da. Jainkoaren misterioari buruz nekez jakin dezakegu deusik, Berak jakitun jartzen ez bagaitu. Eta gertatzez Agerkundera hala agertu zaigu, Jainkoari eta haren salbamen-asmoari buruz dotrina bat eskainiz. Eta ezin daiteke bestela izan. Baina, beste aldetik, Jainkozko errealitatea bera desestaltzen digu Agerkunderak. Eta Fedeak —Agerkunderari ematen zaion erantzunak— Jainkoa bera ukitzen eta atzematen du.

5) *Historia*, eta, era berean, *betirako egia*. — Alde batetik, epeka eta zatika gertatu da Agerkundera, Historian zehar, alegia; erpina, zentrua edo gailurra Kristo baitan duenari. Beste aldetik, osatu den puntutik, zerbait erabatekoa eta betikoa da. Ezin aldatuzkoa. Gizaki eta mende guztientzat balio duena. Elizak egia hori irakatsi behar du, eta ez du aldatzeko eskubiderik.

6) *Lehengoa eta oraingoa*. — Gertaerak aspaldi gertatu ziren. Baina oraingoak ere badira. Elizak orain proposatzen ditu, eta prediku horren bidez Jainkoa geuri mintzo zaigu, geure erantzuna eskatuz. Liturgiak misterioak orairatu egiten ditu. Hitzak dioena enetzat gaur betetzen da.

7) *Egina* eta, era berean, *egiteko dena*. — Hauxe da beste paradoxa bat. Alde batetik, Agerkundera konplitu da, osatu da, Jauna etorri da. Baina, beste aldetik, Eliza beti ari da esaten Jauna badatorrela, etortzeko dela, alegia. Izan ere, azken-azkena ez da oraindik heldu, hots, Jesusen agertaldia (“parusia”). Hobeki esan, bai eta ez, baina osoki behintzat ez. Orain fedearen estalkian duguna, gero bekoz-beko azalduko zaigu.

Hirutasunaren obra

Bukatzeko, Trinitate osoaren lana da Agerkundera. Aitak hartu du aurrea. Semea, berriz —Trinitatearen galtzarrean *Hitza* dena—, gizonoi Aitaren agerpena egiteko hautatua izan da. Semea dela bide, Aitak semetzat hartzen gaitu gu. Izpiritu Sainduak, aldiz, Kristok proposatutako hitza errepikatzen eta gudan sar arazten du. Agerkunderaren gaurkotzea

ere Berari dagokio. Deus berririk agertu gabe dena konplimendura eram-
man ohi du. Behialako Agerkundearen sakontzea, Berari esker egiten da.
Agerkundearen gaurkotze-lanean Elizari laguntzen dio.

Semea eta Izpiritua: horra amodiozko bi besoak, zeinekin Aitak gi-
zadia besarkatzen baitu. Eta behe honetan hasia, goian, zeruko ikuspe-
nean, konplimendura eramana izanen da.

Hogeigarren Kapitula

ESKRITURA ETA TRADIZIOA: BIEN ARTEKO HAR-EMANAK EDO AGERKUNDEA NOLA GUREGANATZEN DEN (1)

Agerkundera gertatu dela eta fedea Agerkunde horri baietz esatea dela, ikusi dugu.

Baita ere ikusi dugu Agerkundera Historian gertatu dela. Ia bi mila urte da, ordea, gertakari honek Kristorekin bere betea lortu zuela.

Orain, berriz, aztertu behar dugun auzia beste hau da, hots: Jarri ote du Jainkoak antolaketaren bat mende eta toki guztietako gizonei Agerkunde hori helarazteko? Eta jarri baldin badu, zer moduzkoa da antolamendu hori? Ikusi behar dugu, alegia, nola Agerkundera pasatzen den, eskuz-esku bezala, gizaldiz-gizaldi, asmo salbagarriaren berri gizonek jakin dezaten.

Baina ohart honi: Agerkundera mendez-mende eta tokiz-toki pasatzea ez da, gero, adreiluak eskutik eskura pasatzea bezala! Kontu hauetaz mintzo garenean, badugu arriskua errealitateok gauza materialak balira bezala idurikatzeko. Eta orduan, jakina, gure arrazoiketak, maiz sarri, airean egindako gazteluen pare izaten dira. Zertaz ari garen ere ez dugu jakiten.

Elizaren zereginak Agerkunderari buruz

Eliza da, hain zuzen, Jainkoak horretarako paratu duen antolakuntza. Har-eman eta zer-ikusi handi-estuak dituzte elkarrekin Agerkundeak eta Elizak.

(1) Y. CONGAR, *La Tradición y las tradiciones*, 2 vols., San Sebastián, 1964.—P. LENGSELD, “Tradición y Sagrada Escritura: su relación”, in *Mysterium Salutis*, I, 522.—LATOURELLE, *Théologie de la Révélation*, batez ere 5. parteko VII. kapitula “Eglise et Révélation”.—FEINER, LÖHRER, etc., “Revelación e Iglesia. Sujetos de la transmisión. Las maneras de transmitir la Revelación”, in *Mysterium Salutis*, I, 577ss.—PONTIFICIA ACADEMIA MARIANA INTERNATIONALIS, *De Scriptura et Traditione*, Romae 1963.—RAHNER-RATZINGER, *Revelación y Tradición*, Barcelona 1971.—HENRI DE LUBAC, *L'Écriture dans la Tradition*, Aubier, Paris 1966.—L. BOUYER, *La Biblia y el Evangelio*, Patmos 1971.

1)) Hitzetik, hots, Agerkundetik sortua da Eliza. Kristok —eta Be-
rau da Agerkundera— Apostoluak biltzen ditu, mandatu batzuk ematen
dizkie, eta horien predikuez biltzen dira fededunak.

2) Elizak Hitza —hots, Agerkundera— orairatzen du. Gizaldi bakoit-
tzeko gizonei hitza helarazteko, Elizaz baliatzen da Kristo. Elizak bere
Ezkontidearen hitza hausnartzen du, eta era horretara bizi-bizia eta le-
hen eguneko berri-aire horrekin errepika dezake. Ebanjelizatzea, hots, pre-
dikatzeta, noraezekoa da, zeren fedeak predikazioa baitu oinarritzat. Eli-
za isilduko balitz, mundua eskaini zaion salbamena jakin gabe, hil egin-
go litzateke. Eliza da Kristoren ahoa.

Agerkundera orairatzeko, ahozko predikazio bizia noraezekoa da. Li-
buru idatzi bat ez da aski. Izan ere, hemen pertsonak bere partea du.
Prediku egileak ez du norberarekin zer-ikusirik ez duen irakaspena hots
egiten. Salbamenezko mezua da, gertakari bati lotua, giza-bizitzearen esa-
nahia eta nondik-norakoa goitik behera aldatzen duena, eta hori, lehe-
nik, predikariaren beraren bizitzean ikusi behar da.

Kristau mezuak Jainkoaren amodioa jakin arazten digu batez ere.
Nola, ordea, gizonak amodiora erakarri, norbera maitemindurik ez ba-
dago?

3) Eliza, bestalde, Hitzaren —hots, Agerkunderaren— zaintzaile eta
interpretatzaile ere bada. Apostoluak hil zirenean, Agerkundera bukaturik
eta hertsirik gelditu zen (1). Baina, hori gora-behera, bizi-bizirik ere iraun
behar du, I mendeko gizonarentzat izan zuen berri-aire hura XX.ekoaren-
tzat ere berdin-berdin duelarik.

Hori nola lortu, ordea? Historitasunaren auzia dugu berriz ere. Nola
egokitu Hitz hori bata bestearen segidan heldu diren gizaldiei, kutsatu
eta lardaskatu gabe? Nola izan beti bat eta denbora berean beti berri?
Hori ulertzeko, kontutan hartu behar da Elizak fedearen gordairuareki-
ko duen egitekoa.

Elizaren egitekoa da, bada, bai ebanjelioa hots egitea, eta bai auten-
tikoki interpretatzea ere. Dohaina eman izan zaio, alegia, mezu hori era
berri batean beti ulertzeko, gizaldi bakoitzeko beharrei erantzun deza-
keen moduan, eta mezuaren funtsari leial egonez.

Zehazkiago esanez: Elizak ez du bere burua iturri bihurtzen, iturria
bera saihestuz edo alde batera utzirik. Ez. Eliza gordairuaren zaintzaile da
huts-hutsik, hari leialtasun osoa gorde behar dio, eta hara jo behar du
beti bere irakaspenak handik hartzeko.

Elizan bada, noski, Irakasgo bat, baina honek, azken finean, gordai-
ruan edo iturrian dagoena soilki irakats dezake. Beste hitzez esanik, Ira-
kasgoak badu bere gainetik dagoen arau edo erregela bat. Erregela ho-
nek erregelatzen du beti ere Eliz Irakasgoa. Beraz, Irakasgoaren zeregi-

(1) DS 3421.

na da gordairu edo iturburu honetan dagoena atxikitzea, babestea eta interpretatzea.

Atxiki, hau da, leialki gorde. Babestu, hau da, oztopo eta korapiloei aurpegi eman eta erantzun, desbiderapenak salatu eta gaitzetsi. Azaldu, hau da, deklaratu, interpretatu. Guzti hori egiteko, Elizak behar du Jainkoaren hitza gero eta gehiago asimilatu.

Elizak Hitza gordetzen du, baina ez kutxatila batean urrezko pitxia gorde ohi den moduan. Bizidun antzo egiten du bere lana. Asimilatze-lana, alegia. Horretarako Izpiritu Sainduaren laguntza du. Andre Mariak egin ohi zuen bezala (Lc 2,19; 2,51), Elizak etengabe eta mendez-mende egin behar du hitzaren hausnartze-lan hori. Eta azterketa etengabekoa izanarren, harrobiak ez du azkenik eta iturria ez da agortzen.

Asimilatze-lan hori nolazpait adierazteko, mintzatze-molde hauek erabiltzen dira: inplizitotik esplizitora edo ilunetik argira pasatzea. Behar bada, mintzatze-molde hauek ez dira guztiz egokiak. Izan ere, Elizan egiazko hazkunde bat gertatzen da, aurrerapen bat, alegia, hausnartze-lanaren ondorioz. Horrek ez du fedea aldatzen, baina bai hazitzen eta argitzen; betiko ildotik saihestu gabe, ordea. Hazitze hau nola gertatzen den esplikatzea ez da gauza erreza. Izpiritu Sainduak bere bideak ditu, guretzat misterioitsu direnak.

Newman Kardenalak badu saio gogoangarri bat gai honetzaz: *Desenvolvimiento del dogma* (1). Geroztik gai honi buruzko bibliografia izugarri ugaritu da. Baina guk ez dugu hondogabeko osin honetan sartzeko asmorik (2).

Guri ardura diguna hau da: Elizak baduela karisma bat Agerkundera autentikoki —hau da, jatorri eta legezki— gordetzeko eta deklaratzeko. Eta bere zeregin hori bete dezan, Izpiritu Sainduaren babes berezi batez horniturik dela.

Asimilatze-lanak ez dakar berekin Agerkunde berririk (3). Agerkundera behin betiko gertatu zen eta bukatu dago (4). Ez dago mezu berririk. Interpretatze-lana bai, baina esanahiaren aldaketa gabe. Bisaia ilungunetik argitara ateratze bat, hori bai.

4) Eliza, azkenik, Agerkunderaren sinestamendua ere bada. Jainkoak ez digu ematen bere hitza soil-soilik, ezaugarritz lagundua baizik. Ezaugarri horien bidez Hitz hori jainkozkoa dela ezagut genezake. Eta normalki gaurko gizonen fedea Eliza bera hartzen du seinaleztat (5).

(1) Gaztelaniazko argitalpena 1909. urtean egin zen (Barcelona, Luis Gili).

(2) IKUS KARL RAHNER y KARL LEHMANN, "El problema de la evolución de los dogmas", in *Mysterium Salutis*, I, 812ss.

(3) DS 3070.

(4) DS 3421.

(5) DS 3013. IKUS LATOURELLE, o. cit., 448 orr.

Eliza ez dago Agerkudetik kanpora

Eliza ez da Agerkudetik kanpo dagoen zerbait. Zerbait gainetiko, axaleko edo ondoko; Agerkundeari erantsiriko zerbait, alegia. Ez. Agerkundera osatzen duten elementuetarik bat da Eliza. Agerkundera ez litzateke munduarentzat Agerkunde izango, munduan ez balitz fededunen komunitate bat. Komunitate honek Jainkoaren hitza fedez onartzen duenean, orduan, eta orduan bakarrik, errealitate hau presente egiten da munduan. Agerkunderaren presentzia munduan Elizaren bitartez gauzatzen da.

Elizaren egitekoa honako hau da, beraz: Kristo zerura igo zenetik eta parusiara arte, bai salbamenezko grazia eta bai salbamenezko egia ere, bi-biak mendez-mende gizonei helaraztea. Grazia eta egia, biak daude elkarturik, baina hemen Agerkundera egia den aldetik hartzen dugu. Horretaz zerbait esan genuen aurreko liburuan (1).

Eliza, herri bat denez, Agerkunderaren ekarle eta garraiatzaile da Historian barna. Eta horixe da, hain zuzen, Elizaren xedea: hemen *bideazko* den Elizak zeru herriko Elizaren iduri behar du izan; Historiaz beste aldean zer dagoen ezagutzera eman behar du, alegia. Agerkunderaren helburua horixe dela esan genezake, hots, komunitate bat sortu, fedetik bizi dena eta fede hori aitortzen duena. Elizari esker, dago Agerkundera munduan presente.

Testigu hitzaz adierazten du hau Testamentu Berriak (Lc 24,28). Edo *Jainkoaren-egintza-harrigarriak-hots-egiteko-aukeraturik-den-herria* deituraz (1 Pet 2,9). Edo *Jainkoari ospea emateko jarria dela* esanez (Ephes 3,21).

Eskritura Saindua eta Agerkundera

Bego, bada, hau: Eliza da Agerkunderaren *lekua*. Elizan, ordea, gauza asko dago. Eta horietako bat, eta gure kontuko garrantzirik handienetakoa duena, Eskritura Saindua. Jainkoaren inspirazioz idatzitako liburua edo, hobeki esan, liburu-bilduma. Horregatik, hain zuzen, *Jainkoaren hitza* deitzen zaio honi ere.

Bai. Eskritura Saindua Jainkoaren hitza da arrazoi askogatik: Jainkoak esana eta Jainkoak gizon hautatu batzuen bitartez idatzia izan delako, eta Jainkoaren Agerkundera bertan aparteko modu batez adierazia eta mamitua gelditu delako. Beraz, Agerkundera Elizan gordetzeko eta ondoko gizaldiei pasa arazteko, guztiz da aukerakoa eta are beharrezkoa ere. Baina Eskritura Sainduak, berak bakarrik, eta Elizan dauden asko gauzakin lokarriak mozturik, betebeharrak hori ezingo luke bete. Eskritura bai, bada; baina *Elizan*.

(1) Ikus *Eliza*, 247 orr.

Zehazki eta preseski mintzatzeraz, ordea, Agerkundera ez da Eskritura Saindua —eta ez Tradizioa eta ez Eliz Irakasgoa ere—. Agerkundera, gora-go esan genuenez, Jainkoak Historian egin duen sarrera izan da. Bere asmo salbagarria guri agertzeko egin duen sarrera. Gertaldi eta hitzen bidez, eta batez ere Jesukristoren bidez, burutu du Jainkoak bere Agerkundera. Baina honako hau ere esan behar da: Agerkunde hori, gero, aparteko modu batez eta jainkozko inspirazioz Eskritura Sainduan idatzirik gelditu dela. Horregatik, Agerkundera ezagutzeko eta barnatzeko, balio guztiz apartekoa du Eskritura Sainduak.

Ertaro osoan, eta bai lehenago ere, esan edo erasia arrunta da honako hau: kristau fedearen egiak jakiteko, finkatzeko etab., aski dugula Eskritura Sainduaz. Teologo eta Eliz Irakasleen artean komunzki onartua da esaldi hau (1).

Badirudi, lehen kolpean, gauza bera dela hau eta gero Protestanteek aho batez esango dutena. Materialki, nahi baduzu, gauza bera da. Baina hau da kontua: hitz berberekin zeharo bestelako diren gauzak adieraz daitezkeela.

Eliz guraso eta irakasle, eskolastikoek etab., Eskritura fedea oinarritzeko aski zela ziotenean, Eskritura hori Elizaren barnean hartzen zuten. Luterok, berriz, Eskritura huts-soila nahiko du, Elizatik aparte eta Elizatik kanpoan balitz bezala, Eskritura eta Elizaren artean lokarri denak mozturik eta bata bestearen aurrez-aurre jarriarik. Eta orduan, jakina, erasia hori, era horretara hartua, ez da gehiago onartzekoa.

Eliza, Agerkundera mendez-mende gorde eta pasa arazteko jarriarik dago. Egiteko honetan berebiziko garrantzia du Eskriturak; baina Elizan bada besterik ere. Eta gainerako guztia baztertuz eta arbuiauz, Eskritura soila abstrakzio bat bezala eraiki nahi denean, orduan okerreko bidean sartzen gara.

“Sola Scriptura”, Luteroren bandera (2)

Ertarako herejietan Elizaganako higuintza somatzen da jadanik. Segur aski, Elizak orduko gizartean zuen itxurak eta hartzen zituen konpromisoek sortarazten zuten errefus hau. Erreforma nahi zen: Ebanjelio huts-garbira itzuli, alegia.

Gure auziari gagozkiola, Luterok baino lehentxeago I. Wicleff-ek esana zuen: “Veritas quae in Scriptura non est, nusquam est” (3).

(1) Ikus “De sufficientia Sacrae Scripturae”, *Ioannis Duns Scoti Opera Omnia*, I, 59; Civitas Vaticana, 1950.

(2) R. GARCÍA VILLOSLADA, *Martín Lutero*, 2 vols. BAC, Madrid 1973. —HUBERT JEDIN (eta beste asko), *Manual de Historia de la Iglesia*, Herder, Barcelona, 8 vols., 1980. Luterori buruz 5.ean.

(3) *De civili dominio* I,44.

Hala ere, Luterok Elizarekin izango duen gataskan, hasieran behintzat, ez da problema hau azaltzen.

Gizonaren zuzen egitea, hots, *zintzokuntza* edo justifikazioa Jainkoaren aurrean nola gertatzen den (obren bitartez ala fedearen bitartez), horixe zen, itxuren arabera, Luteroren problema larria. Problema hau dela eta, altxatuko da bera Elizaren aurka. San Paulori jarraikiz —hala uste du behintzat berak—, hautaketa egiten du fedearen alde, obrak baztertuz. Eta Aita Sainduak eta Elizak tesi hori gaitzesten dutela esaten zaionean, berak ihardetsiko du Eliza ez dela nor Eskritura Sainduaren kontra deus erabakitzeke. Eta pixkaka Eskritura Saindua baizik ez aitortzeraino lerratuko da. Protestanteek, azkenik, oinarri-oinarrizko puntu bezala joko dute hau: Eskritura Saindua dela fedearen erregelak bakarra. Eskritura hori, jakina, norberak aditzen eta ulertzen duen gisa. Ez dago, beraz, beste autoritaterik ez dogmarik.

Hautaketa egin beharrean jartzen zaituzte Protestanteek era honetara: Eskritura ala Eliza. Alde betetik, hor dago Eskritura, Jainkoaren hitza; beraz, jainkozko den zerbait. Bestetik, berriz, Eliza, gizaki bekatari batzuen bilkura. Gauzak horrela baldin badira, zeinen alde egin behar den hautaketa, ez da erabakitzen zaila. Baina gauzak hain sinpleak ote dira, gero?

Zernahi gisaz, Protestanteek liburu bat, Eskritura Saindua, jainkoto dute, eta beste guztia baztertuko. Ez da ahortzi behar garai hartan asmatu zela inprimaria. Tresna berri honi esker, lehen aldiz gizonen historian, liburuak erdietsiko du zabalkunde eta eragin bat sekula ordura arte izan ez duen bezalakoa.

Baina Protestanteen planteaketa honetan murrizte ikaragarriak egiten dira. Egia da, bai, Eskritura Saindua Jainkoaren hitza dela, baina Eskrituran badira elementu gizatiarrak ere. Eta, beste aldetik, egia da, halaber, Eliza gizonen bilkura dela, baina Elizan badira jainkotiar diren elementuak ere.

Beraz, Jainkoaren eta gizonaren artean hauta dezazula eskatzen zaiunean, gauzak oker planteatzen dira.

Eliza Katolikoaren jarrera

Dena den, Protestantismoak kristau erlijioa *Liburuaren erlijio* bihurtu du. Eliza Katolikoarentzat ez da sekula halakoa izan. Eliza Katolikoak onartzen du —nola ez— Eskritura Saindua, baina Elizaren barneko zerbait bezala, eta badaki Elizan, Eskrituraz gainera, badela besterik ere.

Protestanteek maiz-sarri Eliza Katolikoari salakuntza hau egiten diote, hots: Eliz Irakasgoa jartzen duela Jainko-hitza gain, eta hori ezin onartuzko dela. Gizonaren hitza —Elizarena— Jainkoaren hitza gaine-

tik jartzea dela hori, eta gauzek bestela behar dutela izan: Jainkoaren hitzak behar gaituela gu guztiok neurtu eta epaitu, alegia.

Katolikoek erantzuten dute baietz, printzipio horiek zuzenak direla; eta Eliz Irakasgoa ez dagoela Jainko hitzaren gainetik, haren zerbitzutan baizik. Elizak behar duela Jainkoaren hitza gorde, entzun, babestu, hausnartu, oker-aditu eta desbiderapenatarik begiratu, autentikoki deklaratu etab., baina beti da hitz horren entzule, ikasle, mirabe eta zerbitzari, sekula ere ez jaun eta jabe.

Eskrituraz gainera Elizan den beste hori, Tradizioaren izenaz izendatzen da maizenik. Protestanteek asmazio nazkagarritzat jo izan dute Tradizioa. Katolikoek itzulpide bat balitz bezala, Eskrituran ez dauden dogmak era horretara legeztatzeko asmatua. Pixkaka, ordea, konturatu dira Tradizioa ez dela ipuin bat.

Izan ere, Eskriturako liburuak, nahiz eta jainkozkoak izan, ez dira zuzenean zerutik jetxi; aurre-historia bat dute. Idatzizko liburuen aurretik tradizio bat egon da, eta tradizio horren fruitua dira liburuok. Eta liburuok idatzi diren puntutik, beste tradizio bat sortu da Elizan, liburuen fruitu eta ondorio dena. Gauzak horrela baldin badira, aise konprenitzen da tradizioak asko lagun dezakeela Eskritura bera behar bezala ulertzeko.

Tradizioaz deus jakin nahi ez izatea, zozokeria da. Arbolari “bai” eta haren fruituari “ez” esatea bezala. Eskritura eta Tradizioaren arteko lotakaria ez dago ukatzerik. Guztiarekin ere, Luterok eta Protestanteek Tradizioa ez dute aintzat hartzen. Eskritura huts-soila, eta kito.

Luteroren jarrera hau, arretaz begiratzen bada, kontraesanek bete delako ohartuko gara. Izan ere, Eskrituraren balioa, puntu nagusi hau berrau, nondik ikasi edo hartu du Luterok? Elizatik, bistan da, edo, beste hitzez esanik, Tradiziotik, hots, Eskritura ez den leku batetik. Orduan, Eskrituraz landara beste zerbaite ere badela suposatzen edo baieztatzen ari da. Eta xehekiago eta preseskaigo, zein liburuk osatzen duten Eskritura, nondik daki Luterok? Berriz ere, Elizagandik (edo Tradiziotik). Beraz ezarri nahi duen zutabe hori ez da zutik gelditzen, Eskrituratik kanpoan beste zerbaite ere badela aitortu ezik.

Trentoko Kontzilioa

Trentoko Kontzilioa bildu zenean (1545. urtean), haste-hastetik problema honi heldu behar izan zion. Arazoa ez zen erraza. Ordura arte espresuki galbahatu gabeko auzia zen, ba, eta azterketa eta eztabaida luzeak izan ziren.

Hau zen galdera: Ebanjelioa edo Kristoren berri ona —Elizak kutsatu gabe gorde behar duena—, non aurkitzen da? Eta erantzuna: Eskritura Sainduko liburuetan —eta horien zerrenda ematen da— eta fede eta ohiturei buruzko tradizioetan. Bi-bien autoreak Jainkoa denaz geroz, itzal

eta amodio berberaz hartu eta beneratu behar dira bai bata eta bai beste ere (1). Gero Batikano Lehenak gauza bera errepikatuko du (2).

Trentoko Dekretuaren mintzairan *Ebanjelio* edo berri ona aipatzean, guk *Agerkunde* hitzaz esan nahi dugun gauza bera esan nahi da. Agerkunde hori non bilatu behar du Elizak? Eta erantzuten du: Eskritura Sainduan eta tradizioetan (pluralean). Ez, noski, edozein tradizioetan; baina Eskrituraz kanpo, badela beste zerbait ere, definitzen du. Eta biak begirune, autoritate eta errespetu berberaz hartu behar direla dio, zeren eta bai bata eta bai bestea Jainkoagandik heldu baitira.

Definizio honek —beti edo ia beti gertatu ohi den bezala— tarte lasai askoa uzten du oraindik eztabaidarako: Eskritura eta Tradizioa zer erlaziotan diren elkarrekiko, etab. Azkenaldian sesioak lehertu dira horretaz; baina diskutigarri denaz gercago esango dugu zerbait.

Trento ondoko mendeetan, Teologiazko esku-liburuetan bederen, formulapen hauek ikusten dira: “Agerkundearen iturriak bi dira, hots, Eskritura eta Tradizioa”. Eta sarri askotan bi bide paralelo bezala hartu izan dira. Beraz, sinetsi behar diren gauzak iturri batetik nahiz bestetik (edo eta inoiz bietarik) heldu zaizkigu (3).

Zer da Tradizioa?

Eskritura Saindua zer den erraz ulertzen da: liburu jakin batzuen bilduma. Baina eta Tradizioa, hots, Elizan eskuz-esku Apostoluengandik hasi eta gure egunak arte heldu den hori, zer da, preseski? Ba ote da horrelako dotrina exoterikorik edo ezkuturik Elizan? Eta nola ezagut daiteke? Hitzak ote dira soilki horrela heldu direnak, ala gauzak ere bai?

Trentoko Dekretuaren arabera, badirudi, lehen kolpean behintzat, tradizioa zera dela: irakaspen bat Kristok Apostoluei argi eta garbi irakatsia eta Elizan gordea, nahiz eta Eskritura Sainduan idatzirik ez egon. Agian horrelakorik ere egon daitekeela ukatu gabe, gauza berez ez da hain sinplea, ordea. Tradizioa era hertsi horretara maiz ulertu edo har-

(1) DS 1501-1502.

(2) DS 3006.

(3) Beste problema bat da —guk hemen azaltzerik ez duguna— nola ulertu behar diren Testamentu Zahar eta Berriaren arteko erlazioak, eta nolakoa izan den eta izan behar duen Eskrituraren beraren exegesiak Elizan. Ikus horretaz Henri De Lubac-en liburu ederra: *L'Écriture dans la Tradition*. Liburu honetatik ondorio hau ateratzen bide da: Kristo etorri den puntutik, Honek ekarri duen argiaz dena antzaldatu da. Lehengoa ez da ukatzen, baina bai begi berri batzuekin ikusten. Origenes eta Eliz Gurasoek bazuten exegesi egiteko modu bat —eta Testamentu Berrian ageri da jadanik—, gero behin baino gehiagotan maiseatua izan dena, baina —gehiagikeriak aparte— kristau fede jatorraren fruitua dena. Kristok egozten duen argiak dena argi berriaz argitzen du, bai aurreko garaia eta bai gerokoa.

tu dela, aitortu behar da. Lavieuxville-ren katiximan ere halatsu azaltzen da (1).

Aspaldiko eliz idazle batzuengan ere ikuskera hori nabari da. Adibidez, Lerinsko Vicenteren "Commonitorium" delakoan (V. mendekoa da) esaten da Eliza Katoliko osoan, hots, alde eta aldi orotan irakatsi dena, hori eta hori bakarrik, dela fede katoliko huts-garbia. Baina, jakina, beti, toki denetan esplizitoki eta hitz agerriz sinetsi eta aitortu dena besterik ez bada sinetsi eta aitortu behar, non da orduan fedean gertatzen den aitzinamendu edo hazkundera? (2).

Tertulianok ere II. mende hondarrean erizpide edo erregela bat ematen du gauza bat jainkozko Tradizioaren altxorrekoea den ez den jakiteko: "Quod apud multos unum invenitur non est erratum, sed traditum" (3). Baina hemen ere Elizan gerta daitekeen hazkunderari ez zaio kasu ematen.

Tradizioa, ordea, zerbait biziago eta izpiritualago da.

Congar-ek honela dio: "Tradizio bizia, zeinen bidez Elizak gero eta hobekiago ezagutzen baitu ideia eta errealitateen gordairuko edukina. Hausnar eginez, meditazioz, barrenaldean dagoenaz ohartzen da" (4).

Eta Le Guillou-k:

Tradizioa da ez bakarrik hitz eta irakaspenen pasatzea, baina *errealitateena* ere bai (adibidez, sakramentuetako seinaleak, eta, bereziki, Eukaristia). Tradizio horretan aurrerapena gerta daiteke, ez haren edukin objektiboan, baina bai kristau komunitateak duen ulerkuntzan" (5).

"Kristo berpiztua presente eta langile ari da bere Elizan; eta hau —hots, Eliza— da gizonentzat, munduko aro eta aurkientza guztietan, Kristogan diren ondasun paregabeak orairatzen eta gaurkotzen diren lekua. Hau da Elizak hartu duen gordairua, "tradizio bizia": ez bakarrik egia batzuen bilduma, baizik eta Jainko-asmoaren errealitate osoa, Kristogan konplitu dena eta Elizaren bidez munduan burutuz doana, Kristoren ondasun osoa, gaur-egun gizonen salbamenerako lanean ari dena" (6).

Badirudi hori bera adierazten digula Ebanjelioak, bere erara eta bere mintzairan, honako hau dioenean: "Baina Aitak ene izenean bidaliko dizuen laguntzaileak, Izpiritu Sainduak, Hark erakutsiko dizue dena, eta oroitaraziko, Nik esan dizuedan guztia" (Jo 14,26; ikus, baita ere, Jo 16, 13-15).

(1) IKUS LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY, *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima*, "Le-kukoak" bilduma, 11; Bilbao 1985; 143 orr.

(2) "Commonitorium" hori semipelagiano batek egina dirudi San Agustinen dotri-naren aurka joateko. Ikus *Commonitorio*, traducción, prólogo y notas del P. José Ma-doz, Ed. Aspas, Madrid 1943.

(3) *De praescriptione haereticorum*, n. 28.

(4) IKUS LÓPEZ-MELÚS, *Las bienaventuranzas*, Zaragoza 1982; p. 29.

(5) *Le visage du Ressuscité*, 74 orr.

(6) Id. *ibid.*

Gainerakoan, Elizan bada eboluzio bat, badira aldakuntzak. Ibai baten uretan bezalaxe, gauza asko eta asko garraiatzen dira mendeetan barna (sineste, ohitura etab.). Zer den jainkozko tradizioetik heldu dena, eta nahiz eta geroagoko izan, zer den handik deribatutako ondorio jatorra, zer den desbiderapena eta zer izan daitekeen beharbada jatorra, bai, baina ez jainkozko tradizioetik hartua..., guzti hori argitzea zaila da, noski. Irakasgo hutsezin bat Elizan ez balego, ezina litzateke askotan segurtamenez guzti hori bereiztea.

“Dei Verbum” konstituzioa

1962. urtean Batikano II.a zabaltzen da. Hain zuzen, aurreko kapitulu-
luan esan genuenez, gai honi buruz eskema bat aurkezten da, baina ez da batzarrearen gogokoa, eta komisiara bueltatzen dute, berregina izan dadin. Dirudienez, Kontzilio aurreko urteetan azaldutako eztabaida eta planteaketa berriak eskema horretan ez ziren aintzat hartzen. Bigarren-
nean, “Dei Verbum” delakoan, berriz, bai. Horrek ez du esan nahi katolikoen artean libreki eztabaidatzen diren puntuetan konstituzio honek bi alderdietarik bati arrazoi eman dionik. Hori ere ez. Baina ikuskera zabalago batekin heldu dio auziari.

“Dei Verbum” horretan zer irakasten den, azalduko dugu laburzki.

Horra pasarte gihartsu bat:

“Apostoluen irakaspena —Eskriturako liburuetan aparteko modu batez azaltzen dena— etengabeko segidan gorde behar da azkenera arte. Hori dela eta, Apostoluek, berberak hartu zutena besteri pasa araziz, fededunei eskatzen diete gordetzeko hitzez nahiz izkribuz ikasi dituzten tradizioak (2 Thes 2,15), eta gudukatzeko behin betiko emana izan zaien fedearen alde (Jud 3). Orain, bada, Apostoluek pasa arazitako irakaspen horretan dugu herriak sailduki bizitzeko eta bere fedean hazitzeko behar duen guztia. Era horretara, Elizak, bere dotrian, bere bizitzean eta elizkizunetan, bera den guztia eta berak sinesten duen guztia iraun arazten du eta gizaldi guztiei pasa arazten” (1).

Pasarte trinko honetan gauza asko dago. Lehenik: Apostoluen dotrian dagoela Agerkunde osoa. Bigarrenik: Agerkunde hori liburu sailduetan era berezi batean dagoela azaldua (dena hor dagoela, ordea, ez da esaten). Hirugarrenik: Apostoluek irakaspen hori, bai hitzez eta bai idazkiz, irakatsi zutela. Horregatik gomendatzen dute hitzez zein idazkiz ikasitako tradizioak gordetzeko. Laugarrenik: Apostoluen irakaspen horretan dago kristau herria hezitzeko behar den guztia. Boskarrenik: Irakaspen hori Elizak iraun arazten eta pasa arazten du gizaldietan barna. Beraz, Eskritura saildua, bai, baina bada besterik ere.

(1) “Dei Verbum”, 8.

“Dei Verbum” gutunak, gero (1) bi zer horien artean batasuna azpimarratzen du, hots, Tradizioa eta Eskritura elkarrekin hertsiki daudela lotuak. Eta arrazoia: biak iturri batetik jaio, eta, neurri handi batean, elkarturik bizi dira, eta, gainera, xede bat bera dute helburutzat. Izan ere, Eskritura Saindua, Izpiritu Sainduaren inspiraziopean idatzia delako, Jainkoaren hitza da. Eta Jainkoaren hitza, Kristok eta Izpiritu Sainduak Apostoluen gomendioan emana, Tradizioak osoki pasa arazten die bere ondokoei egiaren Izpirituaren argi eta babesaz.

Deskribapen honen arabera, nik esango nuke bi errealitate hauen arteko muga edo har-emanak honelatsu edo, direla: Eskritura zati bat da; Tradizioa, berriz, osotasun guztia, Eskritura bera barnean duenari. Beraz, *Tradizio* hitz honek, esanahi zabalean hartzen denean, zera esan nahi du: Elizak Agerkundera mendez-mende eta herriz-herri pasa arazteko duen antolamendua. Antolamendu hau ez da berak asmatua, noski, Jainkoak paratua baizik. Antolamendu horren barnean Eskritura ere sartzen da, baina ez da Eskritura bakarrik, nahiz eta honek aparteko garrantzia izan zeregin honetan.

Eta ondoren abisu moduko ohar hau egiten digu Kontzilioko gutunak: Elizak, alegia, ez duela bere segurtamena Eskritura Saindutik soilki ateratzen Agerkundera egia guztiei buruz (2).

Beraz, Eskritura eta Tradizioaren arteko erlazioak esplikatzerakoan, ikusmolde bat baino gehiago egon daiteke, noski, baina, zernahi gisaz, beti ere aitortu beharko da Elizan badela beste zerbait ere, Eskrituraz gainera. Eta zinez, Eskritura huts-soilaz, Eskritura ez den zerbaiten argia gabe, nekez eman daiteke Elizak sinesten duen ororen kontu.

Kontzilioko gutun berean ematen zaizkigu adibide batzuk:

“Elizako Aiten irakaspenek frogatzen dute Tradizio honen presentzia bizia, Tradizioaren ondasunak fededun eta otoitz egileen praktika eta bizitzera pasatzen direlarik. Tradizio honi beroni esker, ezagutzen du Elizak liburu sainduen zerrenda osoa, eta Tradizio honetan Eskritura Saindua bera barnetikago ezagutzen eta etengabe eragile bihurtzen da. Era horretara, behiala mintzatu zen Jainkoa, etengabe mintzatzen ari zaigu bere Seme maitearen ezkontidearekin; eta Izpiritu Sainduak, zeinen bidez Ebanjelioaren ahots bizia Elizan entzuten baita —eta Elizaren bidez munduan—, fededunak egia osora gidatzen ditu, eta Kristoren hitza berengan naharoki bizi dadin lortzen du (cf. Col 3,16)” (3).

Gainerakoan, Kontzilioko gutunak aparteko modu batean azpimarratzen du Tradizio eta Eskrituraren arteko batasuna: biek, alegia, Jainko-hitzaren gordairu bakar bat osatzen dutela. Era berean, garbi uzten du honako puntu hau, hots, Eliz Irakasgoa Jainko-hitzaren gainetik ez da-

(1) “Dei Verbum”, 9.

(2) “Dei Verbum”, 9.

(3) “Dei Verbum”, 9.

goela. Jakina denez, hau da Protestanteek Eliza Katolikoari egozten dioten hobena. Horra Kontzilioaren hitzak:

“Jainkoaren hitza, nahiz Eskriturazkoa nahiz Tradiziozkoa, autentikoki interpretatzeko kargua, ordea, soilki emana izan zaio Elizaren Irakasgo biziari, zeinen autoritatea Jesukristoren izenean erabiltzen baita. Irakasgo hau, segurki, ez dago Jainko-hitza gainetik, haren zerbiltzutan baizik, emana izan zaiona soilki irakasten duelarik; eta horretarako, Jainkoaren aginduz eta Izpiritu Sainduaren babesaz, hitz hori debotki entzuten, artoski zaintzen eta leialki azaltzen du, eta jainkozko fedez sinesteko proposatzen dituen guztiak gordairu bakar horretarik hartzen ditu” (1).

Eta azkenik:

“Begien bistan dago, beraz, Tradizioa, Eskritura eta Eliz Irakasgoa Jainko-asmo zuhur baten egitez, elkar loturik eta estekaturik daudela, halako molde, non, batek ez baitezake zutik iraun besteak gabe, eta guztiak elkarrekin, eta bakoitzak bere erara, Izpiritu Sainduaren indarrez, arimen salbamenerako hagitz laguntzen dute” (2).

Ondoren, lau kapitulu osoak eskaintzen dizkio Kontzilioko gutunak Eskritura Sainduari, Elizan Eskriturak duen zeregina eta garrantzi handia azalduz. Baina Tradizioari buruz irakatsi diguna ere ez da hutsaren parekoa, ikusi dugunez.

Auzipean diren puntuak

Eskritura eta Tradizioaren arteko lokarriak gehixeago argitu nahi baditugu, gai eztabaidatuen barrutian sartzen gara. Giza izpirituak nahi ditu gauzak bata bestetik bereizi, zer dagokion honi eta zer hari garbi zedarriztatu eta mugatu, alegia; baina hori hemen eskatzea ezina da agian, zeren gauza hauek ez baitira materialak, guztiz izpiritualak baizik; eta Kontzilioak berak esan digunez, Tradizioa eta Eskritura hain daude elkarrekin loturik eta nahasirik, non bien artean ez baita berezketa garbia egiterik, eta gutiago zatiketa egiterik. Ez da, bada, harritzekoa anitz puntutan ikusmolde guztiz desberdinak baldin badaude, are katolikoen artean ere.

Hiru ikusmolde edo aburu nagusi aipa daitezke hemen:

1) Lennerz-ek defenditzen zuen jarrera (3). Ikusmolde honen arabera, Eskritura eta Tradizioa bi iturri edo bide paralelo izango lirateke, elkarrekin zer-ikusi guti luketeenak. Eta Agerkundera, alde, batetik, eta,

(1) “Dei Verbum”, 10.

(2) “Dei Verbum”, 10.

(3) LENNERZ (H.), “Scriptura sola?”, *Gregorianum* (1959), 38-53. — “Sine scripto traditiones” id. ibid., 624-635.

alde, bestetik helduko litzaiguke. — Badirudi ikusmolde honek gehiegi materializatzen dituela gauza hauek. Ez da ongi adosten Kontzilioak esan digunaz, hots, har-eman estu eta barrenkorrak dituztela elkarrekin Eskritura eta Tradizioak. Zernahi gisaz, eta ikusmolde honen arabera, dogma batzuek Eskrituran dute iturria eta beste batzuek Tradizioan. Bi iturri horiek bata bestea bezain nagusi eta bere eskuko izango lirateke, gainera; bata ez dio besteari ezer zor, etab. Labur: Agerkundera aurkitzen da “Pars in Scriptura, Pars in Traditione”.

2) Salaverri-ren planta (1). Honentzat, berriz, iturri nagusia Tradizioa izango litzateke. Hortik heldu zaio Elizari Agerkunde osoa; Agerkunde horren zati bat, ordea, Eskrituran ere bada. Agerkunde garraiatzen duen ibaia Tradizioa da, hots, Elizaren predikazioa eta fedea; predikazio eta fede horren zati bat Eskrituran ere aurkitzen da, noski, baina zati bat bakarrik, eta zati hori berori ongi ulertzeko ere, Tradiziora jo beharra dago, zeren handik hartua baita, eta handik baitu bere ulergarritasuna. Beraz: “Totum in Traditione, pars in Scriptura”.

3) Geiselmann-en pentsamoldea (2). Honentzat Eskritura da iturri nagusi eta printzipala. Agerkunde osoa hor dago, nahiz eta ez beti esplicitoki. Tradizioa gainetiko zerbait da, eranskin bat, Eskrituratik eratorria eta beti Eskrituraren meneko dena. Bere aburua defenditzeko, autore honek argudio hau ateratzen du —besteak beste—: teologoez, nahiz eta onartutzat eman bi iturri daudela, gero, praktikan, zernahi frogatzeko argumentu-eske Eskriturara jotzen dute beti. Zer esan nahi du horrek? Badakitela —teoriak aparte—, Eskritura Saindua dela Agerkunderaren kutxatila edo egoitza. Esan nahi du, halaber, Elizak sinesten duen oro, nola edo hala, Eskrituran egon behar duela. Tradizioak, berak bakarrik, ez luke gizentasunik edo pisurik aski dogma bati sortzea emateko. “Totum in Scriptura, pars in Traditione”. Ikusmolde honen arabera, bi iturrietarik bati eman behar zaio aginpidea, eta hori Eskriturari zor zaio.

Opinio honek halako hurbiltze bat egin nahi du Protestanteen ikusmoldera, baina nahi duen hori lortzen ote du? Zer irabazten dugu dena Eskrituran dagoela esatearekin, gero dogmak banan-banan hartzen ditugunean, zenbaitentzat han froga garbirik ez badago? Ez ote digu Kontzilioak esan Elizak ez duela Eskrituratik soilki ateratzen sinesten duen orori buruzko bere ziurtasuna? Eta ez ote digu esan, baita ere, Tradizioraren hazkunde edo hazitze bat gertatzen dela Elizan mendeetan barna?

Hiru jarrera hauek, ikusten denez, hiru ertzetan daude. Ez dakizu zeini arrazoiak eman. Giza adimenaren jokoak dirudite. Bakoitzak, noski, frogak aipatzen ditu bere alde, baina ez auzia garbitzeko bezain bestekoak.

(1) PATRES SOCIETATIS IESU, *Sacrae Theologiae Summa*, I, n. 789; BAC, Matriti, 1962.

(2) GEISELMANN (J. R.), *Die Heilige Schrift und die Tradition* (Quaest. Disp., 18), Friburgo, 1962.

Bego, bada, hor kontu hau. Eta bukatzeko, ohar batzuk oraindik Tradizio eta Eskrituraren arteko har-emanek.

Denborari begiratzuz, badirudi zaharragoa dela Tradizioa Eskritura baino, azkeneko hau handik hartua denaz geroz. Lehenago ahozko tradizioa egon zen, eta gero tradizio hori izkribuz jarri zen. Hori, bai Testamentu Zaharrean eta bai Berrian ere gertatu da.

Baina Eskritura idatzi zen puntutik, bestela dira gauzak. Eskritura hor dago, behin betiko emana, eta Eskritura honek beronek sortarazten du Elizan beste tradizio bat, nolazpait Eskrituratik eratorria. (Baina Elizan tradizio orok etorki hori ote du? Hori ez dago garbi).

Zernahi gisaz, biek —Eskritura eta Tradizioak— elkarren beharra dute. Izan ere, Tradizioa Eskriturarik gabe itoa geldituko litzateke giza asmazioen uholdean. Eta, bestalde, Eskritura huts-soila, Tradizioa gabe, Museoko pitxia bihurtuko litzateke.

Biek elkar argitzen etaosatzen eta laguntzen dute, bada. Tradizioari esker dakigu zein liburuk osatzen duten Eskritura Saindua. Tradizioari esker ezagutzen dugu anitzetan zein den Eskriturako pasarte askoren esanahi jator-egiazkoa. Beste aldetik, Eskriturak tradizio bat jainkozkodena ez den jakiteko hagitz laguntzen digu.

Azkenik, desberdinak dira Eskritura eta Tradizioa (1):

a) *formaz*, zeren bata idatzia baita, eta bestea ez. Hura ezin aldatuzkoa, bestea aldakorra. Hura estatikoa eta hau dinamikoa.

b) *egituraz*. Bata formalki Jainkoaren hitza da. Bestea, berriz, gizonaren hitza, baina gizonaren hitz honek Jainkoaren hitza garraiatzen du. Batak goi-inspirazioa du, besteak goi-babesa.

c) *mailaz*. Bata iturburukoa da, bestea, itxuren arabera, geroago sortua eta hura azaltzeko eta xehatzeko sortua. (Baina, jakina, beti eite horretakoa den, ez dago garbi).

Dena den, eta gauzak horrela baldin badira, badirudi azken finean Eskrituraren nagusitasuna aitortu behar dela.

Denek ez dituzte gauza hauek horrela ikusten, ordea. Eta hau ere gaineratu behar da, hots: Dogmen eboluzioari buruz nork zer ikuskera duen, eta ikuskera horrek hartzen duela aginpidea esplikazio bata zein bestea hautatzerakoan. Baina guk ez dugu osin horretan sartzeko asmorik.

(1) IKUS PETER LENGSELD *in* *Mysterium Salutis*, I, 551.

Hogeitabatgarren Kapitula

ERLIJIO - ASKATASUNA

Zergatik gai hau hemen?

Azken Kontzilioak Eliza eta fedeari buruzko gauzetan halako iraultza bat egin duelako famak bazterrak kurritu ditu. Zinez, munduari buruzko jarreran, liturgian, kolejialtasunaren dotrinan etab. berriztapen nabariak egin dituela, ezin uka.

Eta horien artean erlijio-askatasunaren Adierazpena ez da ttipiena izan. Zenbaitek traizio bat ikusi du Adierazpen horretan, ukamenerako atea zabalik uzte bat, alegia. Baina aski da dokumentu famatu hau —“Dignitatis humanae” deritzana— irakurtzea, uste horren funsgabea ikusteko.

Beronen onartzea —Kontzilioaren galtzarrean— ez zen erraza izan. Batzarkide askok, hasieran behinik behin, halako susmo txar batekin begiratzen zioten gai honi. Izenak berak —erlijio-askatasuna— kristau belarrientzat ozentasun badaezpadakoa zuen —eta oker uler daitekeela bistan da—. Tradizio luzea zegoen, gainera, iduriz behintzat, horren alde ez zena. Kontzilioaren azken egunetan onartu zen (Abenduak 7,1965).

Kristau fedea zer den aztertu nahi duen liburu batean badirudi ezin utzizkoa dela puntu hau. Horregatik, eta inoiz entzun ohi diren oker-adituak argitzen laguntzeko, laburzki baino izango ez bada ere, ukitu nahi dugu.

1

GAIA ONGI ULERTZEKO ZERTZUK BEHAR DIREN KONTUTAN HARTU

Iragan-denboretan erlijioa nola hartzen zen

Gaian sartu aurretik, eta Kondairan zehar gertatu diren jokaera desberdinak etab. ulertzen laguntzeko, iragan-denborei gain begiratu bat ematea behar-beharrezko da.

Aintzinatean —Antikitatea deitzen dugun aro horretan, alegia— ez da problema honen arrastorik nabari. Herri bakoitzak badu bere erlijioa, baditu bere jainkoak, bere usuarioak, bere sineskerak. Banakoa —hots, indibiduoa—, bere leinuan txertatua bizi da eta hango sineskera eta ohiturak ditu. Herri batetik bestera aldatzen denak, lehengo jainkoak utzi eta beste herri horrenak hartzen ditu. (Ikus Ruth 1,15).

Auzia historikoki aztertuz, ez dago zalantzarik: Agerkundera izan da —hots, Errebelazioa— giza pertsonaren balioa eta balio horren kontzientzia gizonagan landatu duena.

Israel izan da gizona moldatzeko haroztegia; baina harotza ez da izan Israel, Jainko berbera baizik (1).

Jainkoak gizon bat hautatu zuen: Abraham (cf. Gn 12,3). Amodio hutsezko hautamena izan zen hura, amodioa beste esplikaziorik ez duena. Hautamen hura gizadi osoaren onetan egin zen.

Israelgo herria, herri hautatua izanen da. Badakigu hori gaizki har daitekeela, eta inoiz hala hartu da. Horrela hautatua izan ez denak bidegabekeria egin zaiola pentsa dezake; hautatua izan denak, aldiz, besteak mezpreza ditzake, pribilejio hori beretzat bekarrik hartuz eta erabiliz.

Sinesgogortasunezko jarrera ere har dezake. Abrahamek berak ez ote zuen irri egin? “Nor naiz ni Jainkoak horrela har nazan?” 8. Salmoak harridura agertzen du Jainkoa gizonaz oroitzen delako:

Zer da gizona,
Zu hartaz oroi zaitezen?
Edota gizasemea
Zuk haren ardura izan dezazun?”

Baina Jainkoaren gizonaganako amodio honek gailurra jo du Jesukristorengan, hots, Jainkoaren Semea gizon egin denean. Eta Jainkoaren Seme gizon egin honek gizon guztiak bere odolaz erosi dituenen.

“Redemptor hominis” delakoan Aita Sainduak hara zer dioen: “Jainkoaren Semea gizon egin denean, nolazpait gizon ororekin bat egin da” (2). Entziklika honetan beronetan beste hitzok ere irakurtzen ditugu: “Gizonaren balioari buruzko harridurak izen bat du, hots, Ebanjelioa, Berri Ona” (3).

Gorago esan dugun bezala, aintzinatean erlijioa ezin hautsizko lokarritz erresumari loturik zegoen. Juduak ziren salbuespen bat, baina ez salbuespen osoa horiek ere. Judu herritik kanpoan egonarren, beren erlijioa segitzeko eskubidea aitortzen zitzaien, baina hori zen, nonahi egonik ere, beti beren herriko sineste, lege eta ohiturei atxikiak zirelako. Gainerakoan, judu erlijioa herri eta arraza jakin bati loturik zegoen.

(1) Cf. SICARI, “La revelación de la persona humana” in *Revista Católica Internacional* (1982, Marzo-Abril), 7.

(2) “Redemptor hominis”, 8.

(3) “Redemptor hominis”, 10.

Kristorekin zerbait berri jaiotzen da

Baina, horra, kristautasunak bere sarrera egiten du munduan. Kristoren erasia famatuenetarik bat badakigu zein den: “Eman iezaiozue Zesar-i Zesar-ena eta Jainkoari Jainkoarena” (Mt 22,21).

Hemen zerbait berri jaiotzen da. Gizonagan badago ganbara, egoitza edo leku bat erresuma eta sozietatearen aginpidetik kanpoan gelditzen dena. Beste hitzez esanik: gizonak Estatua bera eta gizartea gainditzen ditu. Ez dago, behintzat, alde guztietarik hauei azpiratua.

Hala ere, hazi honen ondorioak eta fruituak ez dira berehalakoan azalduko. Legami berriak, ordea, bere lana eginen du.

Martiriak eta erlijio-askatasuna

Erromatar Inperioa erlijio berria odoletan itotzen saiatuko da. Odo-la ibaika isuriko da. Zenbat martiri! Eta horiek izango dira, hain zuzen, erlijio-askatasunaren printzipioa finkatuko dutenak.

Bai. Berei zor diegu garaipen hau. Horien odolaren truke ikasi du munduak badela gizonagan esparru edo barruti bat, zeinetan Estatuak ez baitu agintzeko eskubiderik.

Esparru honi kontzientzia deritza. Hor sartzen dira Jainko eta Moralarekiko eginbideak. Bere kontzientziaren argia du, bada, gidari gizonak erlijio-gauzetan, eta kontzientziaren lege hori errespetatu behar du Estatuak.

Horrek esan nahi du Estatua bera baino gorago dagoela gizona. Gizartean bizi izateko egina da gizona, eta alde honetatik agintarien menean egon behar du, baina ez osoki eta alde guztiz, zeren zenbaitetan horien gainetik baita.

Fedea, Kristiandade-egoeran

Baina arestian esan dugunez, hazi honen fruituak ez dira berehala agertuko. Erromatar Inperioak kristau erlijioa onartu zuenean, eta gero Ertaroan —eta bai Aro Modernoan ere oraindik—, erresumek erlijioa —hots, erlijio jakin bat— beren konstituzioaren gunean jartzen zuten. Orduan, eta horregatik, berriz ere behaztopa-harri berean jo izan du gizonak. Hortik erlijio-gerrak, pertsekuzioak, etab.

Aitortu behar da Eliza bera ere, luzaroan, erresumaren eta erlijioaren arteko akordioagatik, ez dela erlijio-askatasunaren alde egon, nahiz eta puntu hau, esan den bezala, kristautasunaren lorpen bat izan den.

Baina horretaz aurreko liburuan mintzatu ginen (1).

(1) *Eliza*, 171 orr.

Indibidua eta pertsona

Gure kontuko, axola handiko bereizkuntza da hau. Indibidua da gizakia bakarrik eta berezian hartua; pertsona, berriz, gizona, bai, baina bere erlazio eta har-eman guztiekin, Jainkoarekiko erlazioa ere barne dela.

Pertsonak balio atsolutua ote du? Galdera honi baieztapen borobil batekin erantzutea gaur gauza arrunta bilakatu da. Baina erlijiotik heldu diren arrazoiak alde batera utzirik, nola finka daiteke baieztapen hau? (1).

Gaur ia aho batez— nahiz eta ukatzaileak ere badiren— pertsonaren balio atsolutua onartzen da (2).

Horrek ez du esan nahi pertsonalismoaren kritika ere egiten ez denik (3). Gizonaren heriotzeaz mintzo zaizkigu gaur zenbait. Ideologiaren munduko sorkari edo asmakizuna izango litzateke gizonaren apoteosi hori. Beraz —eta kritikari horien ustetan— humanismoan edo pertsonalismoan oinarritzen diren moral-sistemak baztertu egin beharko lirateke. Existenzialismoa modatan egon zen garaietan, gizona neurritz kanpo goratua izan zen, eta geroztik beste muturrera jotzeko arriskua egon da.

Haatik, gizonaren balio atsolutua Mendebaleko mundu-ikuskera nagusien begi-ninian dago, eta hori, Historia eskuan dugula, erakuts daiteke. Hor dira estoikoak —Seneka, Epikteto etab.—, Kant, Marx bera. Kant-entzat gizona berez da helburu edo xede, eta hala hartu behar da. Gizonari errespetua zor zaio, bere baitako duintasuna duelako.

Marx-ek ere gizonaren balioan oinarritzen du bere pentsakera.

Gure mendean, berriz, esan daiteke pertsona dela egungo gogoeten ardatz nagusia.

Hizkuntzak berak ere, bere aldetik, ikuspegi hau abonatzeko du. Hizkuntzak, alegia, badaki bereizten *zer* eta *nor*, *zerbait* eta *norbait*, *ezer* ez eta *inor* ez. Bestela esan, gauzak eta pertsonak bikotearen bi osagai dira. Beraz, historiaren sorburuan bada errealitate orijinal bat,hots, gizona. Personaren kontzeptuak asko lagundu du gizonaren alderdi baliotsuak argitan jartzeko: askatasuna, duintasuna, errespetua, eskubidea, berdintasuna, etab.

Egia da, gaur —esan dugunez— gizonaren heriotzeaz mintzo zaizkigula zenbait, eta gizonaren baloratze honi bere kritika egiten zaiola. Gehiegikeriei kritika egitea ez dago gaizki, baina kritika honek izaki pertsonalaren balio trinkoa ez du koloka araziko.

(1) Azken batean, giza pertsonak balio atsolutua baldin badu, gizakia gizartearen gainetik baldin badago, hori da, noski, hilezko delako, betiko bizitze baten jabe delako, alegia. IUS DANIELOU, *Escándalo de la verdad*, p. 199.

(2) Ikus "Gaudium et Spes", 12.

(3) Ikus MARCIANO VIDAL, "Valor absoluto de la persona", *Revista Católica Internacional* (Marzo-Abril 1982), 152.

Gizona, bera da xede, eta ez bide. Eta abiaturik dago beste pertsonengana, ez gauzetara. Hortik du bere balio eta duintasuna (1).

Gizona da Elizaren bidea, esan digu Joan Paulo II.ak (2).

Moralaren mailan gauza bera esan daiteke. Elizak gizarte-auziaz duen dotrina giza-duintasunean oinarritzen da (3).

Moralista katolikoek Kontzilio-ondoko garai honetan giza pertsona hartzen dute oinarri, eta hori egitean tradizio jatorrenari segitu besterik ez dute egiten.

Giza-duintasuna

Baina pertsonaren balio atsolutua diogunean, zer esan nahi dugu, preseski? Edo zertan mamitzen eta gorpuzten da delako duintasun hori?

Giza-duintasuna oinarritzko kategoria da gaur Etikan. Baina, jakina, hitz eta esaldietan, lakioak egon daitezke gordeak.

Giza-duintasuna ez da ulertu behar kantitatezko zerbait bezala, hots, beste izakiak baino zerbait gorago balego bezala; zerbait gorago, bai, baina lerro berean. Ez. Kalitatezko zerbait da. Gizona, gainerako izakien artean, zerbait berezi eta aparteko da.

Giza-duintasunaz mintzatzean bada erretorika antzu batean erortzeko perilik; eta giza-kondairaren ilunguneak ahaztutzeko arriskurik. Ez dugu optimismo zozo batean erori behar. Fededunak erlijioari lotua ikusten du duintasun hau, baina berez errealitate autonomoa da. Erlijioak horretzaz jabetzeko lagundu duela, hori bai.

Kreazioaren barnean pertsona zerbait berezi eta aparteko da. Iza-kien artean kalitate berriez hornitua. Eta pertsonak bi ixurkietan du balio etikoa, hots, pribatuan eta publikoan. Ixurki horietarik bata zein bestea ukatzen denean, hor da totalitarismoa eta bidegabekeria.

Pertsonaren balio atsolutuaz mintzo garenean, izaki konkretuez ari gara, ez izaera abstraktuaz. Eta duintasun edo balio hori gizaki guztietara zabaltzen da, salbuespenik gabe. Praktikan, ordea, era berezi batez kontutatu hartu behar dira pobre, zokoratu eta zapalduak, hots, duintasun hori desitxuraturik dutenak.

Gizaki bakoitzak balio du berez; bakarra da, bere eskuko da. Baina *bestea* ere hor da. Eta hor daude egiturak —hots, estrukturak— eta bitartekoak —mediazioak—.

Gizona xede da beretzat. Ez da zilegi bide-tzat hartzea. Erabateko errespetua zor zaio.

(1) Ikus KARL RAHNER, "Dignidad y libertad del hombre" in *Escritos teológicos* II, Madrid 1962; 256 orr.

(2) "Redemptor hominis", 14.

(3) Ikus "Laborem exercens", Aita Saindu Joan Paulo II.aren Entziklika.

Gainera, gizonak behar du besteekin har-emanetan egon, eta bai barnetasun bat eduki ere. Egiazko gizon jatorra ez da artaldean pilaturik dena, eta ez publizitate hutsean bizi dena ere.

Gaur egun bat datoz honetan Morala Jainkoagan oinarritzen dutenak eta bai besteak ere.

Jainkoak gizona mendratzen ote?

Jainkoak ez ote duen gizonaren balio hau gutitzen, mendratzen: horra gaurko susmoa, gaur eztabaidagarri bihurtu den puntua.

Eta aitortu behar da lainoki Historian behin baino gehiagotan erabili dela Jainkoa gizonaren kaltetan. Baina erlijioaren planteaketa jator batean gauzak ez dira hala.

Gizona goragora idikirik dagoenean, ez da horregatik haren balio absolutua ukatzen. Hain zuzen, idikitasun horrek egiten du gizona xede —eta ez bide— izan dadin, hots, pertsona izan dadin. Jainko eta gizonaren arteko erlazioa ez da nagusi eta jopuaren artekoa bezala.

Kristau ikuspegia gizonari buruz

Historia lekuko, kristautasuna izan da eragilerik bortitzena gizona pertsona bezala baloratua izan dadin.

Fededunarentzat gizona Jainkoaren irudi da, Kristoren anaia, Izpiritu Sainduaren bizileku. Gizona Jainkoarekin elkartzera deitua da. Jainkoarekin batasun egitera, alegia, eta hauxe da, hain zuzen, giza-duintasunaren arrazoirik gorena(1).

Eta gero, kristau fedeak lagun hurkoa maitatzera bultzatzen gaitu, lagun hurkoagan Kristo bera ikustera.

Gogoeta hauek egin beharrezkoak ziren gure auzia girotzeko eta behar den lekuan kokatzeko. Erlijio-askatasunaren auzia esan nahi dugu.

* * *

Erljio-askatasunari ikusten zitzaizkion arriskuak

Kontzilio-garaian batzarkideen artean ez ziren guti Erljio-askatasuneko Deklarazioaren aurrean susmoti agertzen zirenak. Arazoa arriskuz bete ikusten zuten. Eta aitortu behar da arrisku horietako zenbait ez zirela ipuinen mundukoak edo amets hutsa.

(1) "Gaudium et Spes", 19.

Zein zen arrisku nagusia? Hitz batean esateko, erlijio-gauzetarako axolagabekeria; erlijio-gauzek ez dutela funtsik pentsatzea, eta, beraz, kontu honetan gogoak ematen diona gizonak egin dezakeela uste izatea.

Beldur ziren erlijioako egiak ez zirela gehiago aintzat hartzekoak izango, sujetibotzat joak izango zirela, alegia, bakoitzak bere erara eta bere kontsolagarritzat asmatuak balira bezala. Gizonak pentsatuko zuela eremu honetako egearik bilatzera ez zela gehiago obligatua. Gehiago oraindik: eremu honetan egiaren izena merezi duen gauzarik ez dela, eta, beraz, erlatibismo soil-garbian erortzeko perila zegoela.

Horiek ziren arriskuak. Eta arrisku horiek ez zirela ametsetakoak airtortu behar da. Baina, beste aldetik, Kontzilioak Deklarazioa egin ez egin, arriskuak hor daude, guti gora-behera, Deklarazioa egin aurretik zeuden bezala.

Obligazio morala eta bortxa

Beste aldetik, berriz, bistan da pertsonaren duintasunak berekin darrakrela erlijio-askatasuna. Baina askatasun horrek ez du esan nahi gogoak ematen diona egin dezakeela gizonak erlijio-kontuan. Ez. Gizona moralki beharturik dago bere kontzientzia gidaritzat hartzera eta hark agintzen diona egitera. Erlijio-askatasunak hauxe soilki esan nahi du, hots: gizonari ezin dakiokela bortxa egin erlijio bat onart ala arbuia dezan-tzat. Beraz, gauza bat da obligazio morala —eta gizona moralki obligaturik dago egia bilatzera eta segitzera—, eta beste bat, kanpotik egiten zaion bortxa. Kanpoaldeko bortxa hau da giza duintasunaren kontra doana.

Beraz, erresumak, Estatuak eta gizarteak ezin inposa diezaioke gizonari erlijio jakin bat edo fede jakin bat (1).

Liburu honetan kristau fedea zer den eta nolakoa den aztertzen ari gara. Orain bada, fedea zer den dakienak badaki erlijio-askatasuna fedearen baldinkizun bat dela. Fedezko eginkariaren propietate bat libertatea dela ikusi genuen (2). Gizonak bere burua bere eskuko duelarik, eta ez bestela, egiten du fedearen aukera.

(1) Segitzen ote da hortik erlijio jakin bat Estatuak aitortzea Kontzilioaren agiri honen aurka dela? Hori ere ez, noski, Estatuak erlijio-askatasuna errepetatzen badu behintzat. Are gutiago segitzen da hortik gizonaren heziketan erlijioak ez duela sarbiderik izan behar.

(2) Ikus supra 6. kapitulua.

KONTZILIOAREN GUTUNA, MAMIZ

“Dignitatis humanae” hitzekin hasten —eta izendatzen— da Erlijio-askatasunari buruzko Adierazpena. Guk ez dugu hemen laburpen bat baizik eskainiko, irazkin bat edo besterekin. Sarrera, bi parte eta bukaera ditu.

Sarrera

Gure garaiko gizonengan giza pertsonaren duintasunari buruz geroago eta kontzientzia zoliagoa nabari dela, dio Sarrerak. Hortik heldu da botere publikoen aginteari zedarriak jartzea, askatasunaren mugak gehiegi estu ez daitezen, guztiz ere izpirituzko ondasunetan, hala nola erlijioan. Elizak, bere aldetik, nahikari horiek aintzat hartuz, bere tradizioa eta irakaspenera aztertzen ditu, handik gauza berriak ateratzeko. Berriak, baina zaharrekin akort daudenak.

(Irazkina. — Ikusten denez, erlijio-kontuan botere publikoek izan dezaketen eskua mugatzera doa Adierazpena. Eta horren arrazoiak: gizonari zor zaion errespetua. Gutunak aitortzen du gaurko giroak eman diola Elizari okasio puntu hau hobeki aztertzeko, baina hemen ematen den irakaspenera Elizaren beraren iturrietarik aterea da, ez Elizarentzat arrotz eta estrainio diren iturrietarik).

Eta ondoren aitormen hau egiten du: Jainkoak Kristoren bidez salbazio-bidea agertu dio gizonari. Egiazko erlijio bakarra Eliza Katolikoan dirau. Eliza honek gizon guztien artean zabaldua izateko mandatua hartu du. Gizonek, beren aldetik, Jainkoarekiko eta Elizarekiko gauzetan egia bilatzeko eginbide hertsia dute; eta egia ezagututakoan, onartu eta segitu behar dute. Baina egia ez da inposatzen egiaren beraren indarraz baizik.

Zutik gelditzen da, bada, gizonek eta gizarteek erlijioarekiko eta Elizarekiko duten eginbide moralak. “Immunitas a coactione”, hots, gizarteak egin dezakeen bortxatik gizona begiratzeko: horra gutunaren helburua.

Honeraino, Sarrera.

(Irazkina. — Garbi dago hemen gizonak erlijio-kontuan obligazio moralak duela. Erlijio-askatasuna ez da, bada, zernahi gauza pentsatzeko eta egiteko txartela ematea).

Lehen partea: erlijio-askatasunaren jitea

Kontzilioak argi eta garbi aitortzen du giza pertsonak eskubide duela erlijio-askatasunera. Eta segituan esplikatzen du zer den hori: “immunitas a coactione”, hots, gizonari ez zaiola bortxa egin behar arazo honetan.

Gizonak, alegia, bere kontzientziak agintzen dionaren arabera jokatu behar du. Eskubide hau giza personaren duintasunean oinarritzen da, bai Jainkoaren hitzetik eta bai arrazoi naturaletik beretik ere ageri den bezala.

Gizonak, bestalde, obligazio morala du egia bilatzeko eta hari bere atxikimendua emateko. Baina, hain zuzen, eginbide hori bete dezan, beharrezko da bortxarik egin ez dakion (Ikus n. 2).

Egiaren bilakuntza giza pertsonaren duintasunari dagokion erara egin behar da, eta ez bestela. Beraz, ikerketa, elkar hizketa, heziera eta irakaskuntzaren bidez. Urliak aurkitu duena edo aurkitu uste duena azaltzen du, etab. Gizonak bere kontzientziaren bidez ezagutzen du Jainkoaren legea, eta hari jarraitzeko obligazioa du. Baina erlijiozko zereginak gogoz, borondatez eta libreki bete behar dira, eta taxu horretako egin-tzak gizarte-agintariek ezin ditzakete ez inposa eta ez debeka. Beste aldetik, giza naturalezak berak berekin dakar barneko egintza horiek kanpora adieraztea eta erlijioari buruzko gaietan gizonak beste gizonekin har-emanak izatea.

Giza pertsonari bidegabe egiten zaio, bada, gizartean erlijioa libreki praktikatzea, debekatzen zaionean. Muga edo salbuespen bat dago beti, ordea: ordenamendu ageriko eta legezkoari zor zaion errespetua.

Erlijiozko eginkizunak, bere izatez eta egitez, mundu honetako agintarien aginte-eremutik kanpoan daude. Agintariek, guztion on tenporala bilatu behar dutenez gero, herritarren erlijiozko bizitzea ezagutu eta lagundu behar dute, hori bai, baina jakinik beti ere, erlijio-eginkizunok gidadzea berei ez dagokiela (Ikus n. 3).

Erlijio-askatasunak berekin dakar, gainera, erlijio-taldeak eratzeo eskubidea, erlijio edo sineste bereko lagunak elkarrekin bildu ahal izatea, tenpluak eta kargudunak izatea, bere fedearen aitormen publikoa egitea, etab. (Ikus n. 4).

Gurasoei dagokie seme-alaben erlijio-heziera erabakitzea. Estatuak aitortu behar du gurasoen eskubide hau, eta libreki hautatzeko bideak edo baldintzak jarri behar ditu. Ez da bidezko, beraz, umeak gurasoen sinestearen kontrako ikasgaietara derrigorrez bialtzea, ez eta erlijio-heziera zapuzten duen sistema bakarra denentzat jartzea (Ikus n. 5).

Herri baten aitzingibel bereziak eskaturik, gizarteko ordenamenduan erlijio jakin bati berariazko ezagutza egin behar bazaio, beharrezko da denbora berean herritar guztien eta beste erlijio-talderien askatasuna babestea.

Agintariek oker egiten dute, bada, herritarrei bortizkeriaz, beldurrez etab. erlijio baten onartzea edo arbuizatzea inposatzen dietenean; eta oraindik okerrago bortizkeriaz baliatzen direnean erlijioa kentzeko edo gale-razteko (Ikus n. 6).

Erlijio-askatasunak baditu bere mugak, ordea. Eskubide guztiek bezala, honek ere besterenak errespetatu behar ditu. Herritar guztien eskubi-deak zaintzeko, agintariek arau batzuk beharko dituzte ipini, gizarte-bizitzerako behar diren erregelak ezarritik. Baina askatasuna ez da moztu behar, behar denean eta behar den neurrian baizik (Ikus n. 7).

Gaur gizona bortxa-mota askoren azpian dago; aukera librea egiteko askatasuna galtzeko zorian, alegia. Anitzek, berriz, askatasunaren aitzakiaz, menpetasun guztiak astindu nahi dituzte eta obediencia pikutara bota. Horregatik, beharrezko da gizonak behar bezala gizontasunean hezitzea, hots: autoritate legezkoa obeditzen dakiten eta askatasun jatorraren maitale diren gizonak behar ditugu. Gauzak epaitzeko erizpide propioaren jabe direnak, beren egintzak erantzukizun-sentsu batekin hartzen dituztenak, egiazko, bidezko eta zuzen den oro bultzatzeko pronto direnak, beren lana besteenakin bateratzeko prest daudenak. Era horretara erlijio-askatasuna lagungarri izan daiteke, gizonek, gizarteko beste eginkizunak ere hobekiago bete ditzaten. (Ikus n. 8).

Bigarren parteak: Erlijio-askatasuna Agerkundearen argitan

Erlijio-askatasunari buruz Kontzilioak irakasten duena pertsonaren duintasunean oinarritzen da. Orain bada, mendeak joan eta mendeak etorri, duintasun honen eskakizunak geroago eta argiago azaldu zaizkio giza-arrazoiari. Gehiago oraindik: esan behar da dotrina honek Agerkundean dituela bere sustraiak, eta orduan eta horregatik, kristauak zintzokiago gorde behar dutela.

Egia da hitz agerriz Agerkundeak ez duela fisik esaten bortxatik libre egotearen gainean; baina egia da, halaber, Agerkundeak giza pertsonaren duintasuna argi osotan azaldu duela, sinesteari buruz Kristok erabilitako jokaera kontatzen digula, etab. Berezik, erlijio-askatasuna guztiz ados dago fedezko eginkariari dagokion askatasunarekin. (Ikus n. 9).

Elizak beti irakatsi du gizonak, sinesterakoan, gogozko eta borondatezko erantzun librea eman behar diola Jainkoari; eta gizonari ez zaiola bortxa egin behar fedea bere borondatearen kontra onartu dezan (1).

Izan ere, noraezekoa da fedezko eginkaria gizonak borondatez egin dezan. Gizona ezin elkar daiteke Jainkoarekin, fedearen opari arazoizko eta librea eskainiz baizik. Beraz, inposaketa guztiak baztertzeara fedearen izaerari zeharo eta atsolutuki ongi dagokio (Ikus n. 10) .

Jainkoak gizonak bere zerbitzura deitzen ditu, eta hauek kontzientzian behartuak daude, baina ez bortxatuak. Horrek esan nahi du Jain-

(1) Hemen, orrialde azpiko oharrean, Adierazpenak aipamen pila galanta dakar, hau frogatzeko.

koak giza-pertsonaren duintasuna aintzakotzat hartzen duela. Jainkoak, alegia, nahi du gizona bere nahiz eta libreki goberna dadin.

Kristo Jesusen jokaeran hala ageri da. Jesusek pazientki erakarri eta gomitatu zituen ikasleak. Entzuleen fedea iratzartzeko eta bizkortzeko mirakuiluez sendotzen zuen bere irakaspena, baina bortxa egin gabe. Sinesgogortasuna gaitzesten zuen, baina zigorra Jainkoaren eskuetan utzirik. Bazekien gariaren aldamenean iraka ereina zegoela, eta uzta-garaira arte biak elkarren ondoan egoteko agindu zuen (Mt 13,24-30).

Ez zuen Mesias indartsu eta boteretsu izan nahi, zerbitzatzera eta bizia ematera heldu zen gizasemea baizik. Agintarien autoritate eta eskubideak aitortu zituen, baina gorago dauden Jainkoaren eskubideak gordezko aginduz. Egiaren lekukotasuna eman zuen, baina indarrez inposatu gabe.

Apostoluek berdin jokatu zuten. Gizonak federa eraman nahiko dituzte, baina ez bortxaz, Jainko-hitzaren indarraz baizik. Jainkoaren asmo salbagarria hots egiten zuten, baina bakoitzaren kontzientzia errespetatuz. Bazekiten Ebanjelioa bera dela Jainkoaren indarra sinesten duen ororen salbamenerako. Jainko-hitzaren indarra sinesten duen ororen salbamenerako. Jainko-hitzaren indarrean fido ziren, bada. Agintarien autoritate legezkoa aitortzen eta onartzen zuten, noski, baina hauek Jainkoaren nahiari gogor egiten ziotenean, "Jainkoari obeditu behar zaiola gizonei baino lehen" esanez, ebanjelizatze-lanari ez zioten uko egingo (Ikus Act 5,25). Hauxe izan da Elizaren bidea, hainbeste martiri eta fededunena, alegia (Ikus n. 11).

Eliza, bada, erlijio-askatasuna aitortzean, leial dago Kristori eta Apostoluei. Inoiz, Kondairan zehar, egon dira, bai, portaera batzuk Ebanjelioaren izpirituaz akort ez daudenak, baina Elizak beti irakatsi du inor ez dela bortxaz federa ekarri behar.

Era horretara, Ebanjelioaren legamiak mendeetan barna pere lana egin eta asko lagundu du, gizonek pertsonaren duintasuna sakonkiago ikus dezaten, gizonari gizartean erlijio-arazotan bortxarik egin behar ez zaio-lako konbentzimendura heltzeraino (Ikus n. 12).

Elizak nahi du eta eskatzen du utz dakiola askatasuna bere zeregina betetzeko. Askatasun hau Jainkoaren Semeak eman zion. Kristok emanik, eskubidea eta mandatua du Elizak Ebanjelioa mundu guztian hots egiteko. Gizonez osatutako talderia bat den aldetik ere —gizartean kristau fedearen araura bizi nahi dutenen talderia—, Elizak askatasun hori galdegiten du beretzat.

Erlijio-askatasuna zintzoki gorde ohi den lekuetan, Elizak, bere zeregina betetzerakoan, badu behar duen burujabetza. Eta kristau fededunek, beste gizonek bezalaxe, eskubidea dute, bistan da, beren kontzientziaren araura bizitzeko. Badago, beraz, halako kidetasun eta senidetasun bat erlijio-askatasunaren eta Elizaren askatasunaren artean (Ikus n. 13).

Elizak lan egin behar du Jainkoaren hitza zabal dadin. Ikasleek beren Maisuagandik hartutako hitza gero eta hobekiago ezagutu eta hots egin behar dute. Beste aldetik, amodioz, zuhurtziaz eta pazientziaz hartu behar dituzte ezjakintasunean edo okerreko bidean dabiltzanak. Kontuan har bitez beti, bai Kristoganako eginbideak eta bai giza pertsonaren eskubideak ere (Ikus n. 14).

Bukaera

Agerian da gaur gizonak erlijio-askatasuna nahi eta eskatzen duela. Baina badira erresumak, beren Arautegietan askatasun hori aitortuagatik, gero praktikan trabak jartzen dituztenak. Gaur gero eta lokarri es-tuagoak daude kultura eta erlijio desberdinetako gizonen artean, eta gero eta garbiago ikusten du bat bederak kontzientziaren aurrean duen erantzukizuna. Bakezko eta batasunezko har-emanak gizonen artean indar daitezen, beharrezko da erlijio-askatasuna mundu osoan gorde dadin (Ikus n. 15).

3

ONDORIOAK

Eliza eta Estatuak, bakoitza bere aldetik?

Hori ere ez, noski. Hori, azken finean, bientzat da kaltegarri. Elizak duen xedea eta Estatuak duena ez dira berdinak. Baina bien arteko lokarri eta har-emanak beharrezkoak dira. Ezen Elizak gauza askotan, nahi-eta-ez, Estatuaren beharra du; Estatuak, aldiz, Elizarekin deusik nahi ez badu, balio handiko den elementu izpirituala galtzen du. Oso komenigarri da, beraz, bien artean elkar hizketa egon dadin (1).

Eliza, elkar hizketaren etsai?

Esan izan da Elizak elkar hizketa aipatzen duela, baina berarekin egiazko elkar hizketa egiterik ez dagoela, zeren egiaren jabe dela uste baitu. Egiaren bila dabiltzanen artean, bai, elkar hizketa egon daiteke, denak egoera berean daudelako; baina hemen batek badaki —edo uste du badakiela— berak daukala egia. Orduan hizketan parte hartzen duten guztiak ez daude maila berean...

(1) Ikus DANIELOU, *¿Para qué la Iglesia?*, p. 180.

Bai, aitor dezagun lainoki: Eliza ez dago maila berean, eta jarrera hori nekez onartzen dute beste taldeek, baina hala da, eta horretan ezin amore eman dezake (1). Elkar hizketaren legeak, orde, gorde eta errespeta ditzake, eta hori da elkar hizketan eskatzen dena. Ez doa elkar hizketaren kontra mintzatzaile batek besteek ez dutena edukitzea (2).

Zinez, Eliza, goitik eman zaion zerbaiten ekarle eta zaindari da munduan. Gomendioan eman izan zaion ondasunari ezin diezaioke uko egin: hori da guztia.

Zer den eta zer ez den erlijio-askatasuna

Erlijio-askatasunak ez du esan nahi, bada, erlijio-kontuan gogoak ematen diona egin dezakeela gizonak. Aitzitik, gizonaren eginbidea eta obligazioa lehen baino azpimarratuago gelditzen da. Hain zuzen, eginbide hori gizonak behar bezala bete dezan, askatasuna eskatzen da, hots, ez dakiola kanpoko bortxarik egin. Estatuak eta gizarteak ez dezatela erlijiorik inposa. Baina horrek, bestalde, ez du esan nahi Estatuak eta sozietateak ez dutela bat ere zer-ikusirik erlijioaz. Gutiago oraindik esan nahi du Elizak goitiko egiari uko egin diezaiokeela, berri ona hots egi-teari utzirik.

Joan Paulo II.ak berriz ere seinalatu du erlijio-askataunari buruzko Adierazpenak duen garrantzia (3). Bertan dioenez, horrek ez du gizonak egiaren alderakotzat duen obligazioa kentzen, eta bai premiatsuagoa bihurtzen; gainera, gizonaren duintasuna argi osoagotan jartzen du.

Elizak berri ona hots egiteko duen obligazioa ere —dio Aita Sainduak— erlijio-askatasunak ez du ezertan gutitzen. Goitik hartu duen ondarea Elizak ezagutzera eman behar du.

Elizak —mintzo da oraino Aita Saindua— errespetu guztiarekin hartzen ditu beste erlijioak eta horietan diren ondasunak. “Lehenagotik gizonagan zena aintzat hartzen du”, alegia. Mixioa ez da lehendik dagoena hondatzea, osatze, argitze eta aberaste bat baizik.

Guzti honek premia-premiazko den zerbait gogoarazten digu, hots: egiaren aurrean gizonak leialki jokatu behar duela.

(1) Hemen ere argitzapenak egin behar dira, haatik. Elizak besteengandik zer-ikasirik baduela gauza askotan, bistan da, eta berak ere badaki hori. Zerbait gauzatan, orde, egiaren jabe dela eta ezin dezakeela amore eman, hori ere bai. Baina su-jetiboki planta hau bera beste askok ere erakusten du gaur. alajaina!

(2) Ikus DANIELOV, o. cit., p. 187.

(3) Ikus “Redemptor hominis” entziklika, 12. atala.

Hogeitabigarren Kapitulua

EBANJELIZAPENA

Ebanjelizapena, auzi-bide?

Azken Kontzilioak erlijio-askatasunaz bere Agiria eman duela eta, hortik aitzakia hartuz, ondorio bitxia atera nahi izan da, hots: Mixioak eta ebanjelizapen-lana bertan behera utzi behar direla. Eta arrazoia: egia ez zaiola inori inposatu behar. Ebanjelizapenaren muina trukatu nahi izan da. Betiko eta ezin utzizko edukinen ordeaz, beste xede edo helburu batzuk harrarazi nahi izan zaizkio: herri atzeratuen eta zapalduen aurre-rapen edo askapena lortzea, etab.

Gezurra dirudi, baina hala izan da, eta nahaste hauetarik ez gara oraindik atera. Elizan, ordeaz, beti gertatu izan da lege hau, hots: ukatzeak berekin dakarrela ezagupenaren hazitze bat, eta hemen ere halaxe izan da. Zalantza eta desbiderapen hauek okasioa eskaini dute auzia hobekiago barnatzeko, ebanjelizapena zer den, horren beharra etab., argitzeko.

Apezpikuen Sinodoak 1974ean ebanjelizapenaren gaia aztertu zuen, eta hango lehen ondorio izan zen "Evangelii Nuntiandi" gutun mardula, Aita Saindu Paulo VI.ak hurrengo urtean emana.

Gaiak, bestalde, zer-ikusi estua du fedearen auziaz. Izan ere, Elizak berri ona hots egin behar du: horixe da berari dagokiona, eta horretarako dago munduan. Berri on horrek bere baitan du indarrik aski, Jainkoaren grazia lagun, fedea sortarazteko(1); baina mezuaren proposatzea edo hotsegitea noraezekoa da. Beste hitzez esanik: ebanjelizapenik gabe ez dago federik.

Egia ez zaio inori inposatu behar: horretan ez da dudarik. Baina kristau mezua hots egitea, alde eta aldi orotara helaraztea, hori ez da inposatzea. Gehiago oraindik: gizonak eskubidea du mezu horren berri eman

(1) Ikus "Evangelii Nuntiandi", 5.

dakion, eta Elizak obligazioa du, bere ahalen arabera, mezua mundu guztian zabaltzeko.

Egon daitezke, bai, eta egon dira inoiz, ebanjelizapen-modu batzuk behar ez bezalakoak, gizonaren duintasuna aintzat hartu ez dutenak edo gizonaren askatasuna aski errespetatu ez dutenak. Baztertu beharko dira jokabide txarrak, bistan da. Baina ebanjelizapen-lana ezin utzizkoa da.

“Evangelii Nuntianti” delakoaren azken aldean (1) ukitzen du Aita Sainduak gaur jasaten dugun gaitz edo eritasun bat, hots: garra ahuldu zaigula, etsipena sartu zaigula, ziurtasunen beldurrak hartu gaituela. Badakigu *dogmatismo* hitzaz gaitzesten direla gaur ziurtasunak —behintzat sail honetako ziurtasunak—. “Erljio jakin bat besteen gainetik ipintze hori ez ote da besteoi irain egitea?”, galdetzen da. Horiek hola, ez ote da hobe ebanjelizapenaren edukinak eta helburuak aldatzea? Ikusten denez, bada hemen mataza bat aski nahasia, askatu eta desarildu beharko dena.

“Evangelii Nuntianti” baino lehen, Kontzilioak toki askotan ukitu zituen puntu hauek. Adibidez, beste erlijioei buruz Elizak duen jarrera, errespetuzko jarrera. Jakina denez, berariazko gutun bat du Kontzilioak gai honetzaz: “Nostra aetate” deritzan Adierazpena. Mixoen premiaz, al-diz, hor dira “Ad Gentes” dekretua, “Lumen Gentium” konstituzioa, eta beste.

Baina ebanjelizapenaren beharra garbi uzteko, behar da lehenik puntu nagusi bat argitu, hots, zein den kristau erlijioaren izatasuna eta estatua munduko beste erlijioen aurrean.

Kristautasuna eta beste erlijioak

Arazoa kanpotik begiratzen dutenentzat, zer da kristautasuna? Erlijio bat gehiago, beste erlijioen artean. Errespetagarria, nahi baduzu, besteak diren bezala. Gaingiroki so egiten dutenentzat, azken finean, izate berekoak dira denak.

Kristautasuna —esango dizute—, Mendebaleko erlijioa bihurtu da, eta ez da bidezko Mendebal honek munduko beste zatiei bere erlijioa jarri nahi izatea. Gainera, galera bat izango litzateke beste erlijio horiek galduko balira. Erlijio bakoitzak baditu bere ondasun eta dohainak. Herri eta jendaki bakoitzak badu, edo izan du, nork bere erlijioa, eta berea duen zerbait bertan behera uzten eta galtzen du arbasoen erlijioa utzi eta kanpotik ekarritakoa hartzen duenean.

(1) Ikus “Evangelii Nuntianti”, 80.

Hala mintzo direnei, bestalde, bost inporta zaie gero erlijioagatik... Eta gizon batek, tximist-indarra ezagutzen duenean, ez ote du, azkar gainera, berau hartzen eta petrolioeko kriseilu zaharrak lagatzen? (1).

Gure Euskal Herrian ere entzuten dira gaur ahapaldiak kristautasunaren eta Elizaren aurka. Esango dizute Ekialdetik etorria dela, eta gu Mendebalekoak izan (hala Mirandek). Lehen esan dugu beste batzuentzat alderantziz direla gauzak, hots, kristautasuna, Mendebalekoa izanik, ez dugula eskubiderik Ekialdekoei berena ez den gauza harrarazteko. Zertan gara? Nongoa da kristautasuna? Hor dago koska. Mendeetan barna tokiz-toki dabil bazterrak kurritzen, orain hemen kokatzen da, gero han, baina bera ez da ez hangoa eta ez hemengoa; sustraiak ez ditu lurrian, zeruan baizik. "Nongotarra zara zu?", galdetu zion Polatok Jessui (Jo 19,9). Galdera berbera egin beharra dago kristautasunari.

Harira joanez, hemen ez dago inposaketarik. Lehen ere esan dugu inposaketa ez dela onartzen; baina ebanjelioaren berri ematea besterik da.

Zenbaitek, kristautasunaren berezitasuna aintzat hartuz, esango dizute hau ez dela erlijio bat, beste zerbait dela, eta hortik ondorio bitxiak atera nahiko dituzte. Ikusten denez, problema asko metatzen dira hemen, bana-banaka kontsideratu beharko direnak.

Begirada bat itzul diezaiegun beste erlijioei eta Elizak horien alde-rakotzat duen jarrerari. Ondoren aztertuko dugu zer ahaidetasun eta zer diferentzia duen kristautasunak horiekin.

"Nostra aetate" Kontzilioaren gutuna

Azken Kontzilioak Adierazpen berariazko bat agertu zuen gai hone-tzaz —lehen aldikotz gertatzen da hau Elizaren historian: kristau ez di-ren erlijioei buruz ageri ofizial bat Elizak ematea, alegia—. Gutun honen izena: "Nostra aetate". Oso laburra da, eta, gure kontuko, hasierako pa-sarteak dira gehienik interesatzen zaizkigunak. Hona hemen, mamiz, ber-tan esaten dena:

Gure aroan gizadia gero eta batuago aurkitzen da, gizonen arteko lo-karri eta har-emanak gehitu direlarik. Elizak ere gizonen eta herrien ar-teko batasuna kontutan hartu eta bultzatu nahi du. Herri guztiek komu-nitate bat osatzen dute, etorburu bat bera dutenez gero —Jainkoa—, eta xede eta helburu bat bera —Jainkoa berriz ere—. Jainkoaren salbamen-asmoak guztiengana hedatzen dira (2).

Eta segituan dator guri axola digun baieztapena. Honela dio (mamiz, berriz ere): Gizonek erlijioetarik zera itxaroten dute: giza-egoeraren mis-

(1) Badakigu, hertsiki hartuz, konparazio hauek ez dutela gehiegi balio, baina adierazi nahi dena ulertzen laguntzeko, argigarri izan daitezke.

(2) Ikus "Nostra aetate", 1.

terio izkutuen argitzapen zerbait lortzea. Izan ere, bai atzo eta bai gaur, gizonak galdera premiatsu hauek egin ohi dizkio bere buruari: “Zer naiz? Zer xede eta esanahi du ene bizitzeak? Zer da ona eta zer bekatua? Zergatik eta zertarako oinazea? Egiazko zorionera daraman bidea zein da? Zer da heriotzea, zer juizioa eta heriotze ondoko ordaina? Azkenik, zer misterioz inguraturik dago gure bizitzea, beronen abiaburutik eta helbururaino?” (1).

Aintzinatetik eta gure egunok arte nabari da herrietan jainkozko poderioaren zantzu edo somaketa bat giza bizitzeko gora-beheretan presentena, eta baita ere inoiz Jainkoaren, eta are Aitaren, aitortza. Soma-keta eta zantzu horiek bizitze osoa erlijiozko sentimendu batez gantzutzen dute. Esan ditugun galdera horiei erlijioak erantzun ematen salatu dira.

(Ondoren, Hinduismo, Budismo eta beste erlijio batzuen bidea nondik nora doan deskribatzen du. Eta gero):

“Orain, bada, erlijio horietan saindu eta egiazko den gauzarik Elizak ez du arbuiatzen. Eta errespetu handiz kontsideratzen ditu horien egin-kari eta bizimoldeak, aginduak eta dotrinak, berak irakasten duenetik urrun badira ere. Aitortzen du, gainera, gizonak oro argitzen dituen Ar-gi horren distira bat isladatzen dela, ez gutitan, erlijio hauetan”.

“Berak —Elizak—, ordea, eginbidea hartu du Kristo jakin arazteko, Zeinengan aurkitzen baita erlijiozko bizitzearen betea, eta Zeinen bitartez Jainkoak gauza guztiak adiskidetu baititu” (2).

Hurrengo zenbakietan Musulmanei eta Juduei buruz mintzo da, eta, azkenik, erlijioagatik nahiz arrazagatik bereizkeriarik egitea gaitzesten du.

Beraz, beste erlijioei buruz errespetua, estimua agertu eta eskatu du Kontzilioak, erlijio horietan dohain baliotsuak daudela aitortuz. Hori gora-behera, ordea, Elizak Kristo hots egin behar du. Elizak Kristoren berri ona mundu osoari hots egiteko duen eginbideaz mintzo dira Kontzilioko beste gutunak ere: “Lumen Gentium”, “Ad gentes”, etab.

Zertan datza kristautasunaren eta beste erlijioen arteko aldea?

Esanak esan eta, hauxe gaineratu behar da: fededunarentzat kristau erlijioa eta beste horiek ez daudela maila berean eta ez direla izate berekok.

Zertan dago aldea edo diferentzia?

(1) “Nostra aetate”, 1.

(2) “Nostra aetate”, 2.

Hitz gutiz eta laburzki honela azalduko genuke. Beste erlijio horiek nolazpait gizonagan den zantzu edo somaketa horren fruitu dira, Jainkoak bere argi eta indarraz lagundu diela ukatu gabe. Gizona aztamuka bezala saiatu da Jainkoagana bidea bilatzen, lurretik zerura zubia egiten, baina erdia alferrik, ezen ez da horretarako gai eta ez aski trebe; eta zubi-gintza horretan itzalez inguratutako leizetan aurkitu da, maiz okerreko bideak hartu ditu, etab.

Orduan Jainkoa bera jetxi da guregana, eta gizonak ezin egin zeza-keena Berak egin digu. Horixe da Agerkundera eta Gizakundera deitzen dugun misterioa. Jainkoak bere burua agertu digu, nolako asmoak dituen guretzat adierazi digu, eta, hori guti balitz, bere Semea bidali digu gizon egina eta gu salbatzera.

Ez dugu pentsatu behar, halere, horrekin itzal eta ilun guztiak aienatu direla. Ez. Misterioak hor dira orain ere. Baina Agerkunderak ibaika isuri du argia gizonaren nondik-norakoa argitzeko. Erlijioaren mundua ez da geroztik ilunbe soil-hutsetan pulunpaturik dabilen itsuarena.

Beraz, eta labur, kristau erlijioak ez du bere jatorria eta etorkia gizona baitan; goitikoa da, besteak ez bezala.

Teologoez erlijio goi-agertua —errebelatua— deitzen diote. Badakigu non, noiz eta norekin izan zuen hasiera, hots: Abrahamekin (Gen 12). Eta bere gailurra Jesukristorekin jo du.

Testamentu Zaharreko garaian Jainkoaren hitza Israelgo herrian kokatzen da. Jesukristo etortzean, berriz, hitz hori mundu zabalera abiatzen da. Gizon guztienganako duen gaitasuna eta xedea erakusten du.

Benetan salatariak dira San Paulo Apostoluak jentilen egoera deskribatuz erabiltzen dituen hitzak: “Oroi zaitezte... aspaldiko denboretan, zuek, haragi aldetik jentil zinetenok... sortzez Kristo gabeak izan zinetela, Israelgo ondarean parterik gabeak, agintzarien elkertasunetik arrotz, esperantzarik eta Jainkorik gabe mundu honetan” (Ephes 2,11-12).

Jainkorik gabe, esperantzarik gabe. Haatik, jentil haiek ez ziren erlijio gabeak. Baina erlijio goi-agertuaz konparaturik, egunaren eta gauaren arteko aldea zegoen bien bitartean.

San Paulok beste pasarte batzuetan ere ukitzen du puntu hau —eta gutik bezala ezagutu zuela erlijio jentilen eta gurearen artean dagoen kalitatezko diferentzia aitortu behar—. Horra beste adibide bat: “Baina zuk, judutar izena daramazun eta Legea zeure atsedean duzun horrek; Jainkoarengan harrotzen zarena, eta Haren nahia ezagutzen duzun horrek; Legeak argitua, hoberena zer den badakizun horrek; itsuen gidari, ilunbetan daudenen argi, zentzugabeen hezitzaile, hizketan ez dakitenen irakasle zarela sinetsirik zauden horrek...” (Rom 2,17s).

Erretolika luzea. Juduei zuzentzen dizkie hitz hauek San Paulok. Berak bazekien juduak harroxko zirela jentil gaixoen aurrean, eta hori ondasun askoren jabe izatetik zetorkiela. Nolako ondasunak, ordea? San Pau-

lok hemen hauxe aipatzen du, ez besterik: argia, egia, gizonak bere bizitzea gidatzeko behar duen argia. Eta argi hori Jainkoaren hitzetik zetorkion Israeli.

Erljio goi-agertu hori Israeli zuzendu zitzaion, bada. Jainkoaren testigu eta berri emaile zen Israel munduan. Baina Jesukristo etor dadinean, Jainkoaren hitza, salbamena eta promesa ez dira jadanik Israelentzat soilki izango, guztiontzat baizik. Hau da San Paulok behin eta berriz errepikatzen duen *misterioa*, mendeetan zehar gordea egon dena eta gure egunotan desestalia: jentilak ere partaide direla Jainkoaren salbamen horretan, Israelen senipartean (Ikus Ephes 3,6).

Bai. Kristorekin Jainkoak sarrera egin du giza Historian.

Beraz, kristautasunaren eta beste erlijioen artean dagoen aldea kalitatezkoa da. Erljio berriak badakar berekin besteek ez duten zerbait; eta zerbait hori *fedea* deitzen dugu, hain zuzen. Zer da, orduan, fedea? Jainkoaren hitzari ematen zaion baiezkkoa. Orain bada, hitzik ez dagoen lekuan, ez dago federik. Abrahani deitzen zaio fededunen aita, eta arrazoiz, zeren bera izan baitzen hitzaren lehen entzule edo hartzaile.

Eta horregatik berri ona mundu guztian zabaldu beharra dago: fedea pitz dadin, alegia.

Kristautasuna, erlijioa ote da gero?

Fedea baldin bada kristautasunaren berezitasuna, beste galdera hau ere egin beharko da agian: Kristautasuna erlijioa ote da, ala beste zerbait da?

Eta gaur zenbaitek kristautasuna erlijioa dela ukatuko dizu (Altizer). Erljio-eranskinak erantsi zaizkiola, baina kendu egin behar zaizkiola, esango dizu.

Lehengo batean, Mondragoeko kaleak igarotzean, denda baten ataburuan idazkune bitxi hau irakurri nuen: "Cristo era ateo". Neure kolporako esan nuen: Hori jarri duenak, Aitagurea ba ote daki, gero? Kristoren bizitzea ez ote zaigu ageri Jainko Aitarengana xoil abiatua, beti Haren nahia egitera zuzendua?

Dena dela, egia da, bai, erlijio huts-soila eta fedea ez direla gauza bera edo sail berekoak. Notatzekoak dira Daniélou Aitaren hitzok:

"Erljioak zera direla esan daiteke: Jainko-bilakuntzaren agerbide bat. Alde horretatik begiratzuz, erljio guztiek dute beren egia eta aintzat hartzekoak dira, zeren gizonek Jainkoa nola bilatu izan duten adierazten baitigute. Gizonak beti ibili dira Jainkoaren bila. Eta erljio bakoitzak agertzeraz ematen digu nolakoa izan den bilaketa hori garai batean edo herri batean... Horixe da nik erljio-mundua deituko nukeena; baina hori ez da oraindik fedearen mundua... Fedeak guztiz bestelako den sail batean sartzen gaitu. Fedea ez da Jainko bat badela sinestea, baizik eta Jainkoak giza bizitzean sarrera duela sinestea. Fedearen edukinean gertaera bat edo gertaera-andana bat sartzen da, hots, Jainkoa Abrahani mintzatu zitzaiola, Jainkoak herria Egiptotik askatu zuela, Andre Maria-

ren sabelean gizon egin zela, hilen artetik piztu zela, Eukaristian bizi dela. Eta haxe da paradoxarik handiena. Ezen gizonak gure gainetik datekeen jainkotasunen bat aitortze hori onartzen dute oraindik. Baina Jainkoak giza bizitzean sar-atera duela, jainkozko gertaerak gure artean gertatzen direla etab., horixe da guztiz asaldatzeko gaituena. Eta horixe da gizonen gehienek arbuiautzen dutena, hots: *supernaturala*" (1).

Erligioa eta fedea ez dira, bada, gauza bera.

Eta gaur zenbaitek oposaketa jartzen dizue erlijioaren eta fedearen artean. Lehenbizikoa arbuiautu eta gaitzetsi egin beharko litzateke eta bigarrena bakarrik gorde (2).

Uste horren sostengatzaileek erlijioari kritika egiten diote, baina kritika hori sofisma batean datza, itxuren arabera. Jaun horientzat erlijioa eta idolatria gauza bera dira. Idolatria badakigu bekatu dela; orduan —bistan da— erlijioa ere bai (!).

Baina, baina... gauzak ez izan hola. Egia da, bai, erlijioak maiz lerratu direla idolatriara, baina bere egitez eta izatez ez dira idolatria.

Azken Kontzilioak garbi aitortu ditu erlijioetan dauden ondasun edo balioak. Mircea Eliadek erakutsi du erlijio-senaren muina ez dela idolatria, hierofania baizik, hots, Jainkoaren somaketa (3).

Bitxia badirudi ere, erlijioa madarikatzen dituzten horietarik batzuek esango dizute gero hor dutela gizonen beren salbamen-bide arrunta, eta ea zertarako joaten diren kristau mixiolariak beste erlijioetakoekin ebanjelioa hots egitera? Zertan gara? Kontraesan nabarmenagorik asma daiteke?

Erligioak berekin du *sakratua*-ren someketa. Eta hau giza errealitate bat da, gizonaren dimentsio bat, gainditurik ez dagoena, bestelakorik gaur esaten bada ere.

Egia da, bestalde, joan-mendeetako gizonak, ezjakintasunagatik etab., zenbait gertakari sakralizatzen zituztela. Horrek esan nahi du sakratuaren zenbait forma gaur gaindituak daudela, baina ez sakratua bera; hau gizonaren izatasunari dagokion zerbait da. Zibilizazio-molde batetik bestera aldatzean sakratuaren forma edo itxura batzuk kraskatzen dira. Zibilizazio berriak beste forma berri batzuk bilatu behar izaten ditu.

Alde batetik, bada, kristautasunak beste erlijioekin senidetasun edo ahaidetasuna du; bestetik, berriz, horiek ez duten zerbait dakar, hots, fedea.

Labur: fedea eta erlijioak ez daude maila berean. Baina fedeak ez du erlijioa ukatzen, beste aldera baizik. Erlijioetan den somaketa jator

(1) DANÉLOU, *Escándalo de la verdad*, p. 116-117.

(2) Hala Altizer jaunak, *The Gospel of Christian Atheism*, Filadelfia 1966. — Eta antzera ROBINSON, *Honest to God*, London 1963.

(3) M. ELIADE, *Lo sagrado y lo profano*, Madrid 1967. — *Santuarios del País Vasco y religiosidad popular*, II Semana de estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco, Vitoria 1982.

hori aintzat hartzen, garbitzen, fintzen eta desbiderapenetatik begiratzen du; eta gizona erlijio-maila horretatik hartu eta goragoko maila batera altxatzen du, hots, fedearen mailara (1).

Fedea goitiko sorkaria da, bada, eta zerutik etorri zaigun erlijioak bakarrik sortzen ahal du. Baina horrek ez du esan nahi erlijioen balio jatorrak ukatu behar ditugula. Eta gutiago esan daiteke *sakratua* delako hori mundutik aienatu behar dela, eta hori kristautasunaren izenean, gainera! Hamaika gauza entzuteko jaio ginen!

Gaur dena eztabaidatzen da edo dudatan jartzen, eta Ebanjelioak argi eta garbi esan digun hori ere, hots, Kristo birjina batengandik jaio zela, historitasunez gabetutako kontaeratzat hartu nahi izan da. Sinbolo huts-soila izango litzateke, zenbaiten eritziz. Baina sinbolo bezala ere gainditutzat legoke gaur, zeren sexualitatea eta ezkontza-bizitzea nolazpait mendratuak gelditzen baitira istorio horrekin...

Baina ez bat eta ez beste. Kristo, eta Hark dakarren salbamena, goitik heldu zaigula, eta ez lurretik: horra zer esan nahi digun gertakizun honek. Gizonagandiko gauzak ez dira ez gutiesten eta ez sobera esten. Baina hemen goragoko barruti baten aintzinean gaude: kristau fedea ez ditu sustraiak lurrean. Beste erlijioak gizonak sortuak dira, Jainkoagana joan nahirik; kristau erlijioa, aldiz, Jainkoak, gizonagana hurbiltzean, paratu digu.

Gizonarekikoak, berriz, kristau erlijioak onartzen ditu, oker dena zuzenduz, noski, baina, gainerakoan, dauden-daudenean uzten ditu. Hartzen eta sagaratzen, hobetzen eta antz aldatzen ditu, deus galdu gabe.

Kristoren sortzea esanahi handiko seinalea da, bada. Esan nahi du, mundua kreatorreko Jainkoak gizonaren beharrik izan ez zuen bezala, bigarren kreatorreko hau egiterakoan ere ez duela gizonaren beharrik izan. Jainkoa bera, bere gogoz eta libreki, hurbildu zaigula Gizakundearen bidez.

Horrek erakusten digu, azkenik, kristau erlijioa eta beste erlijioak ez daudela oin berean. Hura Jainkoagandik heldu zaigu eta gizon orori eskaintzen zaio; baina, jakina, gizonak libreki onartu behar du, eta onartze hori posible gerta dadin, ebanjelizapen-lana egin beharra dago.

Badakigu honi *dogmatismo* deitzen zaiola gaur, hitz hau sentsu uher batean hartuz. Baina Jainkoagandik etorri zaigun egia ez ote du gizonak aintzat hartu behar? Hemen kontua da sinestun izan edo ez izan. Beste guztia bere baitarik dator.

Ebanjelizapenaren funtsa zertan den

Azken urteotan, askapenaren teologia delako horrekin, badirudi batzuek ebanjelizapenaren betiko helburuak eta edukinak aldatu nahi izan dituztela. Gizarte-zuzentasuna, burujabetza, iraultza, aurrerapena, onda-

(1) DANIELOU, *¿Desacralización o Evangelización?*, p. 70ss.

sun materialen ugaritzea etab.: horiek lortzea izango lirateke mixiolari berrien asmoak. Hori predikatu, aitzinatu eta bultzatu, horren alde lan egin.

Ez dira ttipiak izan teoria berriok apaizengan sortarazi dituzten kezka eta nahaspilak. Batez ere Hegoameriketan, baina baita hemen ere. Ebanjelioa gizona askatzera datorrela, ez da dudarik. Kuestioa da ebanjelioak berak nola ulertzen duen askapen edo libramendu hori (1).

Gizona morrontza orotarik ateratzea, bekatuaren zapalketatik askatzea, fedearen argiaz haren itsutasuna suntsitzea (ikus Lk 4,18), hori izan da Kristok ekarri duen egitekoa, eta hori da, era berean, Elizarena. Baina gizonaren bokazioa alde batera utziz gauzak bere onetik ateratzen direnean, dena okertzen da.

Esan dugunez, Hegoameriketan batez ere izan du arrakasta askapenaren teologia honek. Eta hain zuzen, auzi honekin zer-ikusi du Puebla de los Angeles (Mexico) 1979. urtean bildu zen latin-amerikar Apezpikuen Konferentziak. Lau urte lehenago aterea zen "Evangeli Nuntianti", Paulo VI.aren gutuna (1975). Gutun hau oinarri hartuz eta Ameriketako egoera bereziaren eskakizunak begien aurrean izanik, Pueblako bilkura horietan finkatu ziren lur haietako ebanjelizapenerako lerro nagusiak (2).

Aita Saindu Joan Paulo II.ak egin zuen hasierako hitzaldia (3). Ebanjelizapena da beronen gaia: zein den ebanjelizapenaren muina, ebanjelizapen jatorra egiteko behar diren noraezeko baldintzat, etab.

Hitzaldi honetan puntatik puntara printzipio hau ageri da nagusi: "Ez dago ebanjelizapenik egia oinarri hartuz baizik".

Eta Apezpikuei beren eginbidea gogoratzen die: "Zuek Eliz-artzainak zarete, egiaren Maisuak. Jainkoagandik heldu den egiaren Maisuak. Egia horrek berekin dakar gizonaren askapena (Jo 8,32). Egia horrek bakarrik eskaintzen du oinarri sendoa praktikarako. Kontu eduki behar duzue irakasten den dotrinaz: hauxe da Artzainaren lehen eginbidea, eginbide ezin utzizkoa".

Egia hori hiru puntutan batez ere zaindu beharra dagoela abisatzen die:

1) *Egia Jesukristori buruz.* — "Zu zara Mesias, Jainko biziaren Semea" (Mt 16,16). Horra berri on guztia, eta, esango nuke, bakarra. Beste ebanjeliorik inork balekar, madarikatua izan bedi! (Gal 1,8). Zoritxarrez, gaur badira bazterretan Ebanjelioaren *ber-irakurpenak*, hausnartze jator batetik eta berri on honi leial egotetik jaio ez direnak. Nahaspila sortzen dute. Kristau herriari, are katekesian ere, irakasten zaizkio teoria bitxi horiek. Kristoren jainkotasuna isilik uzten da, edo Elizaren fedear

(1) Ordu onean Fedearen Dotrinarako dagoen Kongregazioak bere gutunak atera ditu: lehenbizikoa 1984-VIII-6an eta bigarrena 1986-III-22an.

(1) *Ikus III Conferencia general del Episcopado latino americano. Puebla. Comunicación y participación.* BAC 431; Madrid 1982.

(2) *Ikus o. cit.*, 385-402 orr.

ezin konpon daitekeen erara ulertzen. Kristo *profeta* bat izango litzateke soilki, erresuma eta Jainko-amodioa hots egin zuena, baina ez Jainkoaren Semea. Orduan —bistan da— ez da gehiago berri onaren ez zentru eta ez ardatz.

Beste zenbaitetan Jesus iraultzailatzat hartu ohi da, politika eta gizarte-klaseen borrokan sartua egon balitz bezala. Baina guzti hori ez dator bat, ez Elizaren fedeak irakasten duenaz, eta ez historiaz ere. Jesus-ek ez zuen bere burua politika-arazoetan sartu nahi izan, eta bortizkeriara jotzea ez zuen onartu (Mt 22,21; Jn 18,36).

Ebanjelizapen jatorrak fede zuzen-garbia irakatsi behar du Jesusi buruz. Fede honetatik bakarrik lagun diezaiokegu gizonari.

2) *Egia Elizari eta Elizaren zereginari buruz.*— Horra ebanjelizapenaren beste zimentarri bat, baitezpadakoa berau ere. Eklesiologia zuzena behar-beharrezkoa da, Kristologia zuzen bat beharrezko den bezalaxe. Elizaren Irakasgoa onartzen ez duenak ebanjelizapen-lan jatorrik ezin du egin.

Gaur batzuek banaketa eta zatiketa bitxiak egiten dituzte *Eliza* eta *Erreinuaren* artean, gisa honetara: lehenik Erreinuak jarri behar omen da, hots, justizia soziala eta politikoa, estrukturak aldatuz, etab.; eta ondoren etorriko omen da Eliza, eta hor, bai, fedearen bidez sartzen da gizona. Guzti horrek, ordea, funtsik ez du bat ere, ez oinarriarik kristau iturrietan.

Beste batzuek, aldiz, beste banaketa edo zatiketa bat egiten dute era honetara: alde batetik, hor da Eliza ofiziala, Aita Saindu, Apezpiku eta horiez osatua; eta bestetik, populuaren Eliza, hots, pobre eta behartsuena. Baina txorakeriak eta engainuak dira zatiketa hauek. Ez dago Eliza bat baizik: Kristok sortu zuena eta Kristok sortu zuen bezala egituratua dena.

3) *Egia gizonari buruz.*— Horra gure zibilizazioaren ahuleziarik nabarmenetako bat: ez baitu gizonari buruz ikuspen zuzen-egokia. Asko hitzegin eta idatzi, bai, gizonaz, humanismoaz. Baina gero zer-nolako zailantzak eta ilunbeak gizonaren geroari buruz, identitateari buruz! Giza eskubideak zenbatetaraino ez diren zapalduak eta gizona bera noraino ez den mendratua! Nola uler daiteke hori?

Guzti hauek ondorioak baino ez dira, giza izakerari atsolutua moztu izanaren ondorioak. Bai, gizonari Atsolutua ebatsi nahi zaio. Eliza, berriz, Ebanjelioari eskerrak, gizonari buruzko egiaren jabe da. Elizak badaki Jainkoaren irudi dela gizona; ez dela, alegia, izadiko zati huts-soila edo hirriaren osagai izengabeko bat. Eguberria gizonaren jaia da.

Bere iturrietan du Elizak gizonari buruz egia ikasteko lekua, eta egia hori murrizterik gabe irakatsi behar du. Eta hori egiten duenean zerbitzurik onena egiten dio gizonari.

Giza duintasuna Ebanjelioaren altxorretik heldu da, bada. Gauza jakina da nola denbora guztietan egon diren duintasun horren alde aurpe-

gia atera duten Apezpikuak. Ebanjelizapenak eta giza askapenak badute, bai, elkarrekin zer-ikus.

Baina gizonaren alde lan egiteko, Elizak ez du ideologietara jo beharrik. Bere mezuaren muinean du horretarako sorburua. Eliza ez zaio inongo sistemari lotzen, gizonaren alde soilki aukera egiten du, gizonari buruz egia irakasten duelarik.

Eliza ezin izan daiteke axolakabe giza duintasunari hurbildik ukitzen dizkioten arazoetan. Gizona Jainkoaren irudi da. Errespetua zor zaio.

Elizak giza askapen-lana egin behar du, bai, baina bere osotasunean, Kristok hotsegin eta obratu zuen bezala. Behar du gizona etsaiagandik eta bekatutik askatu. Horretarako behar dio Jainkoaren berri eman eta gizona Jainko- seme izatera altxatu.

Gizonak moldatu ohi dituen sasi-jainkoetarik askatzen gaitu kristau askapenak. Elizak hots egiten duen askapena ezin murriz daiteke ekonomi, politika edo kultura-mailara. Beste zerbait da.

Fededun sotil-xaloeak aurki usnatzen dute mezularia noiz dabilen Eliza eta Ebanjelioaren alde, eta noiz beste zerbaiten zerbitzutan.

Gizarte-auziari buruz Elizak badu dotrina bat, berea duena, gaur ere leialki ikasi eta irakatsi behar dena.

(Honerainokoak Aita Sainduak Puebla-n egindako hitzalditik).

Labur: ebanjelizapenak giza-askapena dakar berekin. Baina askapen hau eta iraultzaileek aldarrikatzen dutena ez dira gauza bera.

Ezin ukatua da, haatik, giza-askapenak eta ebanjelizapenak zer-ikusiren bat badutela elkarrekin.

Ebanjelizapenak, Kondaira lekuko, berekin dakar giza-askapena, are mundu honetako gauzetan ere. Baina hori ondorioa da batez ere. Gizona bekatutik askatzea eta Jainkoaren seme egitea: haxe da, muinean, kristau askapenaren zentrua; besteak gehigarri bezala datoz (Mt 6,33).

Testamentu Zaharreko profeten eta Jesusen portaera

Marx-ek dio Testamentu Zaharrean profetak izan zirela gizarte-mailen arteko borrokaren bozeramalle edo aitzindariak. Horregatik ikusten dugu etengabe dabiltzala politika eta ekonomi arazoetan sartuak. Kristo, aldiz, ez da horrelako gauzetan bat ere sartzen. Komunistek nahi lukete —hala komeni zaienean, noski— Eliza Testamentu Zaharreko ildora bihur dadin.

Zer esan horri buruz? Lehen kolpean hala dirudi, hots, Testamentu Zaharreko profetak mundu honetako arazoetan buru-belarri sarturik zebiltzala. Baina agian geure egungo betaurrekoekin haien jokamoldea ez dugu ongi ulertzen. Gure egunetan judu batek, A. Neher-ek, hain zuzen, argitu du puntu hau. Egia da —dio berak— Testamentu Zaharreko pro-

fetak etengabe nahasten direla politika-arazoetan; baina horren arrazoia ez da Marx-ek eta Renan-ek eman dutena (gizarte-maila zapalduen bozermaille zirela). Preseski eta zehazki gauzak ez dira hala.

Israelgo herriak hitzarmena edo akordioa zuen egina Jainkoarekin, eta hitzarmen horri leialtasuna gorde behar zitzaion. Orain bada, hitzarmenaren puntuetarik bat zen pobre eta behartsuei laguntzea; baina gero askotan hori ez zen betetzen. Eta hori gogoaraztera zetozen profetak. Horra profeten ikuspuntua, eta ikuspuntu honetatik argitzen dira haien jokamolde eta esanak (1).

Dena den, Testamentu Berrian Kristok berariaz eta jakinaren gainean alde batera uzten ditu politika-arazoak. Badakigu Mesiari buruz nolako ametsak ziren juduen artean: errege indartsu izango zela, erreinu ospetsua eraikiko zuela, ondasunen ugaritasuna ekarriko zuela, etab. Eta Jesus Mesias da, bai, baina ez ezpal horretakoa. Bera ez da saihestuko Aitak markatuko dion bidetik.

Judurik gehienek Jesus onartu ez bazuten, haxe izan zen —besteak beste— arrazoia, hots, Mesiari buruz zabaldurik zeuden aurre-eritziak ez zirela adosten Jesusek agertutako dotrina, asmo eta portaerakin. Konkretuki, arazo politikoak eta ekonomikoak konpontzea ez dagokio Berari, zuzenean behintzat. Badu beste lanik.

Lurreko parabisua: horra gizonaren ametsa. Eta, azken finean, Jesusek ez dio amets honi uko egingo, baina hor da kontua: parabisu hori lortzeko Jesusek proposatzen duen bidea ez dela gure gogokoa izaten.

Jesusek hots egiten duen erreinua mundu honetako mugetara ez dela murritzutu behar jakiteko, aski da Ebanjelioa eskutan hartzea: “Ez izan beldurrik gorputza hil dezakeenari, gorputza eta arima ifernura egotz dezakeenari baizik” (Mt 10,28). “Haundia izango da zuen saria zeruetan” (Mt 5,12). “Anaiak anaia heriotzera bidaliko du eta aitak semea: eta altxatuko dira semeak gurasoen aurka eta hilaraziko dituzte, eta gorrotatuak izanen zarete ene izenarengatik” (Mt 10,22; Lc 21,12-19).

Jendetaldeko batek esan zion behin Jesusi: “Maisua, esaiozu ene anaiari senipartea erdibana dezala enekin”. Eta Hark erantzun: “Gizona, nork jarri nau epaile edo banatzaile zuen gain?” (Lc 12,13-14).

Ez. Jesusek bere jarraitzaileei ez die halako gauza handirik agindu; ez, behintzat, zoriona munduko ustera ulertua. Hori Axular-ek ere bazezien: “Zeren eztugu ikhusten ezen Iainkoak bere zerbitzariei, presuna ius-tuei, mundu hunetan horrela gauza handirik emaiten derauela...” (2).

Jesus iraultzaile politiko bezala pasa araztea, gizonak engainatzea da, munstrokeria galanta, alegia. Historiak eta fedeak, bakoitzak bere alde-tik, gezurtatzen eta arbuiatzen duten ipuin nazkagarria.

(1) Ikus DANIELOU, *Escándalo de la verdad*, 212-213 orr.

(2) Ax 327.

Horrek, ordea, ez du esan nahi Elizari bost inporta zaiola gizonaren miseria korporalagatik. Baina gizonaren lehen miseria, miseria izpirituala da, eta haxe erremediatzeko jarria da batez ere Eliza. Bestea erremediatzeko ere lan egin behar du, noski, baina beti bere mailatik.

Zeren testigu izan behar du gaur kristauak?

Galdera hau egin beharrekoa da, ezen gaur bada halako joera bat Jainkoarekiko gauzak bazterrarat uzteko eta mundu honetako arazoei bakarrik garrantzi emateko. Zenbaiten ustez, horixe egin beharko lukete kristauak, eta bai Elizak ere: mundu honetako kontuak hobetzen besteekin parte hartu, eta kitto. Horretan ere lan egin behar dugula ukatu gabe, esan dezagun garbiki: kristauen lehenbiziko zeregina ez da hori, Jainkoa besteri ematen saiatzea baizik. Miseria izpirituala gorputzekoa baino askoz larriagoa da. Izan ere, sofri daiteke gorputzez eta zoriontsu izan, baina ez alderantziz. Izugarri handia da izpiritualki sofritzen dutenen kontua. Kristoren salbamena maila honetan kokaten da. Kristok egiten ditu, bai, gorputzeko mesedeak ere, baina nekez eta kostata bezala, eta arazo horiek konpontzera ez datorrela esanez. Sinesgabeak berak ere beste zer-bait espero du kristauagandik, hots, Jainkoarekiko gauzen gainean argi pixka bat eman diezaiola (1).

“Evangelii Nuntiandi”, edo ebanjelizapenaren ‘carta magna’

Gorago adierazi denez, gutun hau izan da, gaurko kezkak eta zalantzak kontutan harturik, ebanjelizapenaren auzia aztertu duena. Puntu nagusi batzuk emango ditugu labur bildurik, kapitulu hau bukatzeko.

Ebanjelizapena zer den esango ligukeen definizio motx eta laburra nahi genuke. Esaldi trinko batean dena ematen diguna, alegia. Ezina da, ordea. Honelako definizioek errealitatea kaxkartu egiten dute. Ikusalde askotako errealitatea da ebanjelizapena, osagai asko dituen. Dena esaldi motx batean sartzerik ez dago (2).

Haatik, hau ere esan behar da: ebanjelizapenak nahi-eta-ez edo noraezean berekin dakartza honako gauza guzti hauek: badela beste mundu bat, gizonak harako deia eta bokazioa duela; beraz, gizonaren nondik norakoa ez dela hemengo bizitzean bukatzen. Ebanjelizapenak eskatzen du, baita ere, Jainkoak Jesukristogan egin dizkigun agintzariak hots egitea, Jainkoak gurekiko duen amodioa eta guk Hari zor dioguna gaztigatzea. Gizon guztiekiko maitasuna irakastea. Gaizkia badela eta ongia bi-

(1) DANIELOU, *Contemplación. Crecimiento de la Iglesia*, 113-114 orr.

(2) “Evangelii Nuntiandi”, 17.

latu behar dela predikatzea. Era berean —eta hau gero eta premiatsuago bihurtu da— irakatsi behar zaio gizonari Jainkoa bera bilatu behar dela otoitzaren bidez eta baita Jainkoaren ageriko seinalea den Elizarekin har-eman izatearen bidez ere. Ebanjelizapenaren gora-behera guztia Eliza landatzeaz osatzen da (1).

Hirugarren munduko apezpikuek 1974eko Sinodoan ozenki mintzatu ziren hainbeste herriren egoera larriaz: goseaz, eritasunaz, eskolarik ezaz, nazioarteko merkatalgoetan egiten zaizkien bidegabekeriez, etab. Elizak —zioten— jende hauen libramendua hots egin behar du. Baina berek eskaini zuten erantzuna ere (2).

Ebanjelizapenaren eta aitzinamenduaren artean badira, bai, lokarriak. Ebanjelizatu behar den gizona izaki konkretu bat da. Eta nola hots egin lezake Elizak amodioa eta justizia, zinezko aurrerapenaren alde lan egin gabe? Hori izango litzateke beharretan den lagun hurkoaren amodioa alde batera uztea (3).

Hori guzti hori egia izanik ere, ezin isil daiteke gauza bat, eta da: Gaur zenbaitek Elizaren zeregina mundu honetako arazoetara —ekintza politiko eta sozialera— murriztu nahi dutela. Hori da kristau mezuari bere jatortasun guztia ebastea, Eliza ideologien eta alderdien morroi bihurtzea. Ebanjelizapenaren ardatza erlijio-mailatakoa da (4).

Egia da, ordea, Elizak ez duela mugatzen bere zeregina erlijio-eremura soil-soilki. Ez da axolakabe mundu honetako arazoen aurrean. Lehentasuna ematen dio gizonaren bokazio izpiritualari eta Jesukristoren baitako salbamenduari, baina beste premiez ere ardura izanik (5).

Elizarentzat ez dira gauza berdinak honako bi hauek: Jesukristoren baitako salbamena eta giza libramendua. Elizak badaki, gainera, askapen-mota batzuk ez daudela kristau ikuskeraz ados; eta komenentziek, aurrerapenek, askatasunak etab. ez dutela, berez eta beste gabe, bat ere gaitasunik Jainkoaren erreinua ekar arazteko. Edozein askapen politikok, bere azken xedetzat Jainkoa baitako salbamena eta zoriona ez duen puntutik, barnean bere hondamenaren hazia darama, ezen bere motibazio sakonak ez dira karitatean obratu behar duen justiziarenak; eta alferrik aipatuko du bere alde Bibliako pasarteren bat edo egungo omen den teologia hori.

Elizak bortizkeria —batez ere armena—, hilkintzak etab. ezin onart ditzake askapen edo libramendurako bide bezala, zeren ongi baitaki bortizkeriak derrigorrez zapalketa eta morrontza-mota berriak sortarazten dituela; kendu nahi direnak baino txarragoak, frankotan. Bortizkeria ez da kristau eta ez dago ados ebanjelioarekin (6).

(1) "Evangelii Nuntiandi", 28.

(2) "Evangelii Nuntiandi", 30.

(3) "Evangelii Nuntiandi", 31.

(4) "Evangelii Nuntiandi", 32.

(5) "Evangelii Nuntiandi", 34.

(6) "Evangelii Nuntiandi", 37.

Elizak nola edo zer bidez lagundu behar dio gizonen askapenari? Askapen-lan honi lotuko diren kristauak haziz, heziz eta eskolatuz, noski. Kristau askatzaile horiei fedezko motibapenak —elkar maitasunezko motibapenak— eskaintzen dizkie, dotrina soziala —gero praktikara eraman beharko dena— irakasten die, etab.

Gizonaren askapen-aldeko gataska ere, Elizak hots egiten duen salbamenean nolazpait sarturik dago. Baina ideologietan *askapen* hitz honek badu halako uhertasun bat. Ebanjelizapenak ere askapena dakar berekin, baina bere gisakoa, Kristok hotsegin eta bere opariarekin lortu ziguna, eta ez bestelakoa (1).

Kristau ez diren erlijioekin topo egitean, zer egin behar du Elizak? Mututu, ala Ebanjelioa hots egin horiei ere? Elizak estimutan ditu erlijio horiek. Mendez-mendeko Jainko-bilakuntzaren oihartzuna dakarkigute. Gizaldi askotako jendeari otoitz egiten erakutsi diote. Testu-bilduma beneragarriak gorde dizkigute. Horiek hola, mixiolariari irakatsi beharko zaio nola behar duen joka.

Edozein modutan ere, arrazoi horiek ez dira askiko; Elizak, alegia, ez du isildu behar Jesukristoren berri ona zabaltze-lanean. Aitzitik, Elizak uste du gizatalde horiek eskubidea dutela Kristoren misterioaren ondatsunak ezagutzeko. Izan ere, aztamuka bilatu duten hori, ustegabeko osotasunean hor eskaintzen zaie.

Gure erlijioak Jainkoarekin erlazio jator eta bizia jartzen du, beste erlijioek ezin egin dutena, nahiz eta besoak zerurantz jasoak izan. Horregatik, Elizak mixio-oldarra ez du moteldu nahi, gero eta gehiago indartu baizik. Herri guztien aurrean erantzukizun bat duela badaki. Ez da geldituko bere aldetik egin dezakeen guztia egin arte, Jesus Salbatzailearen berri ona aldarrikatzeko (2).

Predikariari, berriz, beti, baina guztiz ere gaur, jatortasuna eta garrantasuna eskatzen zaizkio. Hauxe da egiten zaion galdera: “Sinesten ote duzue benetan hots egiten duzuen?” Hots egiten denaren eta bizitzearen artean kideetasun, ahaidetasun eta adostasun bat egon dadila eskatzen zaie gaur.

Bestela badirudi ere, gaur munduak Jainkoaren beharra somatzen du eta nahi du berri onaren ekarleek Jainkoaz hitz egin diezaioten, baina berek familiarki ezagutzen eta tratatzen duten Jainkoaz. Bestela esan: munduak ikusi nahi du Jainkoaren mandatariarengan xalotasuna, otoitz-izpiritua, maitasuna guztientzat eta batez ere ttipi eta behartsuentzat, obediencia, umiltasuna, norberekoikeriaren gainditzea. Saindutasun-mar-ka hau gabe gaur gure hitzek nekez ukitzen dituzte bihotzak (3).

Azkenik, ebanjelizapenaren lanak gaur aurkizen duen oztopo berezi bat ukitzen du Aita Sainduak, hots, barneko oztopoa: izpirituzko garra-

(1) “Evangelii Nuntiandi”, 38.

(2) “Evangelii Nuntiandi”, 53.

(3) “Evangelii Nuntiandi”, 76.

ren moteltzea. Badirudi nekadura, etsipena, zabarkeria sartzen ari zaigula. Eta aitzakiak bilatzen dira, Kontziliora joaz, etab. Esango da, adibidez, Ebanjelioaren egia inposatzea erlijio-askatasunari bortxa egitea dela. Gainera, zertarako Ebanjelioa zabaldu, bihotz zuzen batekin dabilen oro salbatzen baldin bada? Eta ez ote da egia *Hitzaren haziak* —“semina verbi”— mundu guztian barreiatu daudela? Zertarako eraman Ebanjelioa inora, lehendik han baldin badago?

Arrazoiketa hauek ez dute fitsik balio, ordea. Ebanjelioa ez zaio inori inposatu behar, nahi dut; baina gauza bat da inposatzea eta beste bat proposatzea. Jesusek eskaini duen salbamina errespetu guztiarekin proposatzea ez da erlijio-askatasunari irain egitea, omaia egitea baizik. Edota gezurrak eta lizunkeriak bakarrik dute eskubide zabalduak izateko, eta egiak ez?

Predikariak proposatzeko eskubidea ezezik, baita obligazioa ere badu. Zertarako etorri da Jainkoaren Semea mundura salbamenaren bide arruntak guri jakin araztera ez bada? Eta Berak agindu digu agerpen hau besteiei jakin araz diezaiégula.

Eta kasu! azken ohar honi: Gizonak salbatuko dira, agian, beste bide batzuez, guk ebanjelizapen-lana ez eginagatik, Jainkoaren errukia handia denez gero; baina salbatuko ote gara gu, zabarkeriaz, beldurrez, lotsaz etab. ebanjelizapen-lana bertan behera uzten badugu? Atxiki dezagun, bada, izpirituzko garra (1).

(1) “*Evangelii Nuntiandi*”, 80.

Hogeitahirugarren Kapitula

GAUR FEDEARI AZPIAK JATEN DIZKIOTEN ZENBAIT ESLOGAN (1)

Krisialdia

Alde batetik bitxia ere bada gure egunetan gertatua. Krisialdi larria azaldu dela Elizan ez dago ukatzerik. Eta hori gertatu da, hain zuzen, Elizak Kontzilio Ekumeniko bat eginberri duenean eta Kontzilio horrek Eliza gaurkotzeko eta sendotzeko bere neurriak hartu dituenean. Egunen batean gertakari honen sustraiak edo sorburuak aztertu beharko dira.

Kontzilioaren XX. urtea ospatuz egin den Sinodoak bere Adierazpena atera du (2). Bertan hara zer irakurtzen den: "Kontzilio ondoko gauza guztiak haren erruz gertatu direla ezin esan daiteke". Eta hau da galdera, hitzetik hortzera sortzen zaiguna: "Denak ez, baina bai batzuk orduan?" Bai, segur. Kontzilioak aldakuntza handi samarrak egin ditu —egin beharrekoak zirenak, bestalde—; hortik tirabirak sortzea kasik noraezekoa zen. Berez ere *gaurkotze* delako horri buruz —beronen luze-laburraz, eiteaz, mailaz etab.— eritzietan denak bat ez etortzea, neurri batean normala zen. Gero gertatu da lehengo Eliz legedia praktikan indarge gelditu zela, eta bitartean ordezeko berririk ez. Eta honako beste hau ere bai: Kontzilioaren aitzakiaz norberari gogoak ematen diona sarrarazi nahi izan dela. Eta ez da aipatzeke uztekoa Daniélou Kardenalaren oraigarrietan irakurtzen den zerbait, hots: Kontzilioa egiten zen garaian I.D.O.C. delakoak bere ideien zabalkunde handia egin zuela, hots, Kontzilioarekin

(1) DANIELLOU-Pozo, *Iglesia y Secularización*, BAC, Madrid 1971. — BOUYER (LOUIS), *Religieux et Clercs contre Dieu*, Aubier Montaigne, Paris 1975. — Ikus *Communio* aldizkariaren zenbakia, krisiari zuzendua (Novbre.-Dibre. 1983). — EDITORIALE "Chiesa e mondo: un rapporto di tipo nuovo", *La Civiltà Cattolica* (1985), 417-430. — CHRISTIAN DUQUOY, *Ambigüedad de las teologías de la secularización*, Desclee de Brouwer, Bilbao.

(2) Ikus *Ecclesia* (1985), 1554ss.

bat ere zer ikusirik ez zuten ideiena; eta hala, hazi onarekin nahasian txarra zabaldu zela (1).

Gainera dezagun Kontzilio ondoko urteetan *lehen mundua* deitzen dugun hau *kontsumo-gizartera* lerratu dela, eta horrek ekarri du Materialismoa eta Sekularismoa, praktikan bederen, onartzea. Kontzilioak Eliza eta munduaren arteko elkar hizketaren beharra irakatsi du; eta hori ere hartu da sarritan —Kontzilioa gaizki ulertuz— fededunak munduaren plegetara bereizketarik gabe makurtu behar balu bezala (2).

Baina guzti hori egia izanik ere, badirudi gertatu dena esplikatzeko oraindik ez dela aski. Hemen badela beste zerbait, alegia. Azken urteotan erruz zabaldu dira bazterretan ikuskera edo ideologia berri batzuk, Kontzilioarekin zer-ikusirik bat ere ez dutenak. Gehiago oraindik: Kontzilioarekin haustura edo etena dakartenak.

-XI- Izen batzuk aipatuko ditugu: Altizer, Bonhoefer, Robinson, Harvey Cox, Moltmann, Metz... Gehienak Protestanteen artetik ilkiak. Horien obrek arrakasta handia izan dute eta —besteak beste direla— hortik sortu da Eliz barnean nabari den ondoeza. Eta ez du balio esatea: Asko eta askok ez du jaun horien izenik ezagutzen ere, eta beroien libururik ez dute sekulan agurtu. Baina ez du axola. Hori hala izanik ere, sistema eta pentsakera baten oihartzuna irakurle ez direnetara ere heltzen da *eslogan* batzuen bidez, gizarte-giroaren bidez, etab.

Aipatu ditugun autoreetan badakigu desberdintasun ugariak daudela eta ezin daitezkeela denak zaku berean sar. Bonhoefer, esate baterako, protestantea bai, baina kristau zintzoa bide zen; Hitler-ek hilarazia, gainera, eta hark kartzelan idatzietarik, gaur, zuzen ala oker, ateratzen diren ondorioak, ez dakigu berak zenbatetaraino onartuko lituzkeen. Baina bego.

Lerro nagusi batzuk (3)

Nabarduren gainetik, ordea, ildo edo lerro nagusi batzuk aurkitzen dira denetan, eta, guti gora-behera, horietan bat datoz guztiak. Hona hemen lerro nagusi horiek:

1. Erlijioaren ilunabarrean aurkitzen garela. Beraz, erlijioa zerbait gaingitua dela, etorkizunik ez duen zerbait, alegia.

2. Mundu berri bat erdi minetan dela. Eta biharko mundu edo zibilizazio horretan erlijioarentzat ez dela lekurik izango.

(1) DANIELOU "La lucha en la Iglesia" *Memorias* liburuan, Mensajero, Bilbao 1975; 145 orr.

(2) Kontzilio ondoren Elizan azaldu diren desbiderapenez ikus CARDENAL JOSEPH RATZINGER - VITTORIO MESSORI, *Informe sobre la fe*, BAC, Madrid 1985.

(3) *Eslogan* hitza erabili dugu kapitulu honen tituluan. Izan ere, ustekizunok, gure aburuz, zientzi edo filosofi mailara heltzeko ez dute behar den besteko pisurik.

3. Hiltzear dauden kultura eta zibilizazioen arazoa dela erlijioa. Horiek hil eta, erlijioa ere hil egingo dela. Eta gaur jadanik azkenetan dela.

4. Jainkoa guztiz bestelakoa dela, erabat gu ez bezalakoa. Eta Hura nolakoa den jakiteko, guk ez dugula biderik. Orduan, nahi eta ez, Hari buruz pentsatzen hasten garenean, *idolo* bat moldatzen dugula, sasi Jainko bat, alegia. Eta horixe dela, hain zuzen, erlijioek egiten dutena: Jainkoaren gezurrezko irudiak moldatu eta adoratu. Beraz, erlijioak idolatria bat besterik ez direla.

5. Kristautasunari bere aurpegi jatorra bihurtu behar zaiola. Orain bada, kristautasun jatorrak, jaun hauen aburuz, ez luke zer-ikusirik erlijioarekin. Hark *gizakundea* irakatsi digu, hots, Jainkoa gizon egin dela. Eta horrek, zerbait esan nahi baldin badu, hauxe esan nahi duela: gizona maitatzen eta zerbitzatzen dugunean, orduan —eta orduan bakarrik— maitatzen eta zerbitzatzen dela Jainkoa. Beraz, Jainkoarekiko kontu guztiak bazterrerat utzi eta lot gaitezen mundu honetako gauzetara.

6. Jaun horien aburuz, kristautasuna, jaioberri hartan, Helenismotik hartutako gaiez kutsatu zen. Batez ere, egiari eta iraganari buruzko kezka hortik sartu omen zaio, hots, dogmak, liturgia, sakramentuak. Aurpegia garbitu behar zaio, bada, lehenera bihur dadin. Egia, dotrina edo ezagupen-saileko gauzarik ez omen dugu behar; apaizgoa, liturgia, kultu edo horrelakorik ere ez. Jainkoari buruzko gauzarik ez. Zer gelditzen da orduan? Lagun hurkoa maitatu, mundugintzari lotu, esperantza ilun eta itsua hor geure barnean dugularik.

7. *Jainkoa hil dela* ere esaten dizute jaun horiek. Horrekin ez dute esan nahi Jainkorik ez dela. Soil-soilik hauxe esan nahi dute: kontzeptu horrek ez duela gehiago guretzat balio. Behiala, bai, balio zuen. Gaur ez.

8. Gauza horiek horrela badira, bekatua ere ez da zutik gelditzen, jakina; Jainkoaren ofentsa den aldetik ez, behintzat. Lagun hurkoari kalte egitea izango litzateke, soilki, bekatu. Etab.

* * *

Baieztapen borobilak, ahoa betekoak. Frogantzak, ordea, zer moduzkoak? Hutsaren parekoak, fitsik balio ez dutenak.

Eta hori da benetan harrigarria. Eta negargarria. Ikustea, alegia, zeinen arinki eta kritika izpirik gabe irensten diren gauza hauek eta zer-nolako arrakasta izan ohi duten.

Gizonak Jainkoa ezagut dezakeela, Bibliak espresuki esaten du eta Elizak definiturik dauka (1). Ezagupen hau ez da, noski, erabatekoa eta konplutua; bere muga eta eskastasunak ditu; baina muga eta ilunguneak izanarren, ez da faltsoa. Erlijioa idolatriatzat hartzea, sofisma bat beste-

(1) DS 3004, 3026.

rik ez da. Elizak beti jakin du bata bestetik bereizten. Eta azken Kontzilioak erlijioetan diren ondasunak espresuki aitortu ditu.

Kristau fedearen aldetik pentsamolde hauek epaitu nahi baditugu, zera esan beharrean gara: Elizak ezagutzen eta aitortzen duen kristau fedear ezin uztartuzkoak direla. Pentsakera horien bultzatzaileek esango dute bi mila urteren buruan kristau fede jatorra bir-aurkitu dutela. Baina, zinez, fedearen ukoa baizik ez da proposatzen digutena.

Argi gidaririk gabe, inongo lagungarri gabe, fede itsua omen den horrek iraun lezakeela eta gizonagan eraginik izan lezakeela pentsatzea, txorakeria da. Aita Sainduak Compostela-n itsas gizonari egindako hitzalditakoak dira honako hitz hauek: "Jainkoaz ahaztutzea, gaur joera materialistek eskatzen duten bezala, zer izango litzateke? Bakartadean eta ilunbean murgiltzea, norabiderik eta gidaririk gabe gelditzea" (1).

Esan bezate argi eta garbi jaun hauek ateismora lerratu direla, eta kito. Izan ere, hori da txarrena: kristau izena ez dutela utzi nahi, eta kristautasun jatorraren izenean nahi dute guk bitxikeria horiek hartzea. Bat ere frogarik gabe, gainera. Hori gehiegi da.

Sekularismoa

Sekularismoa da, zalantzarik gabe, joera guzti hauen oinarri-oinarrian dena (2).

Badakigu *sekularizazio*, *sekularismo*, *sekularitasun*... hitzen artean adiera bereziak eta propioak direla, baina gero mugak ez daude garbi eta praktikan dena nahastutzen da. Danneels Kardenalak Europako Apezpikuen Sinposioan esan zuenez, hitz hauek, hots, *sekularizazio*, *sekularizatu* etab. gaur soziologoek baztertu egiten dituzte eta berak ere bertan behera uzten ditu, zehaztasun gabekoak direlako eta nahastetarako bide direlako (3).

Guk izen-kontuak alde batera utzirik, hiru sekularismo-mota, molde edo maila deskribatuko ditugu:

1) Lehen motatako sekularismoak sostengatzen du gaurko gizadiaren aroan —zientziaren aroan, alegia—, erlijioak baliorik ez duela. Behialako gizonarentzat, bai, bazuen. Gaurkoarentzat, ez.

Lehen gizona erlijioaz baliatzen zen mundua esplikatzeko. Zientzia dugun puntutik, esplikazio horiek jai dute. Berdin gertatzen da kultuaz; magiarekin omen du zer-ikusi; eta teknika dugun puntutik, ez dugu magiaren beharrik. Eta ez mistika edo barne esperientziaren beharrik ere, humanismo huts-soila dugunaz geroztik.

(1) *Palabras de Juan Pablo II en España*, PPC, Madrid 1982; p. 228.

(2) J. J. Altizer-en liburua *The Gospel of Christian Atheism* (Filadelfia 1966) ageri da pentsakera honen bozeramaile nagusi bezala.

(3) Ikus *Ecclesia* (1986), 28.

Altizer-ek sostengatzen du, gainera, kristautasuna, bere eitez eta izatez, erlijio ororen etsaia dela, mundua eta gizartea sagaratzearen etsaia. Jentilentzat dena zen jainko: eguzkia, izarrak, Enperadoreak. Kristautasunak ez du hori onartzen. Halere, erlijio jentiletarik zenbait gauza maillegatu zituen, eta horregatik, Historian zehar ezagutu dugun moldean, likisturik ageri zaigu. Marxismoa izango litzateke, hain zuzen, kristautasuna bere azken ondorioetara eramana. Guzti honek esan nahi du kristautasunak erlijio izateari uko egin behar diola. Beraz, erlijio gabeko kristautasuna bilatu behar omen da.

Eta zer moduzkoa genuke kristautasun hori? Jainkorik gabekoa, noski. Lagun hurkoaren amodioaz huts-hutsik arduratzen dena. Horizontalismo huts-soila, beraz.

Jaun hauen ustez, kristautasun-mota honek soilki izan dezake etorkizunik; kristautasun bat, alegia, zeini erlijio-muina hustu baitzaio. Jainko gabeko kristautasuna. Humanismo edo Sozialismo-suerte bat bilakatu den kristautasuna.

2) Bigarren motatakoak uste du aurrekoa hezur hutsean, gordinegia izanik, askok ez dutela onartuko; bai, ordea, era ematuago batean aurkezten bezaie. Era biguntxoago horretan kristautasunak, kanpoaldera behintzat, aurpegi profanoa hartu behar du, seinale sakratu guztiak alde bat utzirik. Ez kulturik, ez apaizgorik. Zer da, orduan, hauentzat, kristautasuna? Giza bizitze arrunta egiteko molde berezi bat, baina kanpoaldera seinale edo ezaugarri jakinik ez duena. Beraz, kultua, sakramentuak, apaizgoa: guzti hori behin betiko gainditua legoke. Haatik, —eta beti jaun hauen arabera—, gizonak gorde behar du hor barnean Jainkoarekin harremanean egon behar duelako kontzientzia. Baina zinezko kristautasuna lagun hurkoarekiko erlazioan soilki gorpuzten da.

Beraz, elizak alferrik daude; erlijio-jaiak orobat. Apaizik ez da gehiago behar; edo behar izatekotan, beste zeregin batzuetara zuzendua egon beharko luke, hots, zeregin profanoen erdian ebanjelioaren eta karitatearen testigantza ematera. Teologiarentzat ere ez legoke jadanik lekurik; otoitzarentzat ere ez. Bizitzeko zereginak Jainkoagana zuzentzea izango litzateke, beste gabe, otoitza. Bizitze profanoa bera, bere muinean, sakratua da, eta aski dugu horrekin.

3) Bada oraindik beste mota bat, hots, hirugarrena. “Gaurko munduan, Elizaren eta gizartearen artean, lokarririk behar ote da? Ez ote da hobe bakoitza bere aldetik ibil dadin?” Hala galdetzen dute hauek.

Eliza eta gizarte politikoaren artean bereizketa egin behar zela, gero eta garbiago ikusi da: hau ez dago ukatzerik. Ikusi da, alegia, sail honetan nahasteak ez direla onak.

Haatik, azken Kontzilioak zinki eta finki irakatsi du Estatuek errespetuzko jokaera izan behar dutela Elizarekiko. Beste aldetik, Estatu kon-

fesionalak, gaur ere, uste den baino ugariagoak dira munduan —musulmanen artean, esate baterako—. Komunistek agintzen duten lekuetan Ateismoa da ofiziala, eta zer da hori konfesionalismo-suerte bat besterik?

Baina sekularismo-molde honek —hirugarrenak—, azken muturreraino eramanez nahi ditu gauzak. Zeharo bereizi eta urrundu nahi ditu elkarrengandik zibilizazioaren eremua eta erlijioarena.

Eta, hasteko, kulturaren sailean. Erabateko autonomia osoa aitortu beharko litzaioke kulturari. Kontzilioak berak aitortu du, zientzia, bere metodo propioak erabiltzerakoan, autonomia baten jabe dela (1). Baina kulturaren barnean, zientzia positiboez landara, bada besterik ere: literatura, filosofia, gizonari buruzko zientziak. Eta gero hor da ekonomia, politika... Elizak ez ote du deus esatekorik sail guzti hauetan? Ezetz diote gaur batzuek.

Hor da, esate baterako, Moralaren esparrua. Guztion gogoan daude oraindik "Humanae vitae" Entziklikari egin zitzaizkion erasoak. Ezkontza eta sexuari buruzko mundu guzti hau Elizaren mendetik atera nahi da.

Beraz, zibilizazioaren eta erlijioaren artean lokarriak oro moztu nahi dira. Alde honetatik, sekularismo-mota hau eta lehen aipatutakoak guztiz desberdinak dira.

* * *

Beraz, hiru sekularismo-suerte kontatu ditugu. Erantzuna ere bakoitzari berea beharko eman.

1) Lehenbizikoa ukamen hutsa da, erlijioaren ukamen huts-soila, bat ere frogantzarik gabe. Altizer-ek erlijioari egiten dion kritika guztia sofisma baten gainean datza. Idolatriaren kontra doa, eta berak idolatria eta erlijioa nahasten ditu. Hori, ordea, onart ezina da.

Gainerakoan, gizatasunaren muinari dagokion zerbait da erlijioa. Nola-baiteko erlijio-esperientziarik ez duen gizona, ez da gizon osoa. Gaur kristautasunaren alderdi bertikala —hots, Jainkoarenganako— azpimarratu beharra dago eta Jainkoaren adoratzaille guztien artean lokarriak estutu beharra.

2) Giza bizitzean *profanoa* eta *sakratua* bi sail edo eremu dira, Max Weber eta Emile Durkheimen aspaldi esan ziguten bezala. Bereizgarria dena, bidegabeki sakralizatu baldin bada, desakralizatu nahi izatea, ulertzekoa da. Baina bere baitarik sakratu dena, desakralizatu? Horrek ez du ez buru eta ez hankarik. Gezurra badirudi ere, Eliz barneko batzuek eskatzen dute hori gaur. Zerbait baldin bada bere eitez eta izatez sakratua denik, erlijioa da, noski.

(1) "Gaudium et Spes", n. 59.

Gainera, sakramentuak eta apaizgoa ez dira jentiltasunaren honda-
rrak; hori esatea txorakeria bat esatea da. Kristautasunaren muinaz dute
zer-ikusi. Izan ere, kristautasuna ez da soilki lagun hurkoa maitatzeko
moral bat. Eta kristautasunak esaten digu Jainkoaren grazia errezibituz
bakarrik maita daitekeela behar bezala lagun hurkoa. Kristau bizitzea
bera Jainkoaren grazia da, eta grazia hartzeko bide arrunta sakramen-
tuak dira. Karitaterik gabe ez dago kristautasun jatorrik, baina sakra-
menturik gabe normalki ez dago karitaterik ere.

3) Hirugarren formari buruz, azkenik, hauxe esan behar da: behia-
lako kristau zibilizazioak gaurkotu beharra daukala? Bai, noski. Baina
gaurkotzea ez da deuseztatzea. Konstatino gaixoari egozten dizkiogu gaur
geure zorigaitzen erru guztiak. Baina hark bere garaian behar zena egin
zuen; egin dezagun guk geurean behar dena. Giza bizitzearen barnean
leize horiek jartzea, hots, bizitze profanoaren eremua eta erlijioarena ba-
ta bestetik hastantzea eta inolako lotura gabe uztea, ezin onart daiteke,
zeren bat bera baita bizitze profanoaren eta etorkizun supernaturalaren
sujetua dena.

Eta, hain zuzen, horregatik, Eliza ezin izan daiteke neutral edo axo-
lakabe giza kulturaren aurrean. Eta gaur inoiz baino gutiago, giza balioak
urtzen dituen kulturaren aurrean gaudelarik. Agian gizarte-auzia bera
baino garrantzitsuagoa bihurtu da gaur kulturaren auzia. Eliza ezin da-
goke gizartearekin har-emanetan sartu gabe. Erlazio horientzat bide edo
molde berriak bilatu behar direla? Bai. Gauzak ez dira izango lehen be-
zala, baina har-emanak behar dira.

Gaur batzuek diote sekularismoa aurrerapen bat dela, eta, beste ga-
be, gogoz onartzekoa. Gauzak, ordea, ez dira hain sinpleak.

Bat —1)— zenbakiaren azpian deskribatu dugun formari beti behar-
ko diogu gogor egin, Jainkoaren ukamena denez geroz. Beste bi formak
zera dira: egiazko problemenezat erantzun faltsoak eskaintzea. Bilatu be-
harko dira gaurko gizona ukituko duten erlijio-formak, bilatu beharko
dira Elizaren eta gizartearen artean har-eman-suerte berriak. Ezin daite-
keena da, dena ken eta uka, eta hor konpon.

Aita Sainduak Madrilen kultur munduko jaunen aurrean egin zuen
hitzaldian, argi eta garbi esan zuen: Kultura eta fedearen arteko sintesia
bi-bien eskakizuna dela, bai kulturarena eta bai fedearena (1). Hitzaldi
berean oraino: Heziketak eta Irakaskuntzak gizonaren eta munduaren
irudi taxuzko batean oinarrituak egon behar dute eta transzendentziara
idekiak (2).

(1) *Palabras de Juan Pablo II en España*, PPC, 87-88 orr.

(2) O. cit., 94 orr.

Kristau populurik behar ote?

Aita Sainduak, Erdiko Ameriketara eta beste leku batzuetara egin dituen bidaien okasioz, behin eta berriz esan du zein ondasun handia den populua, hau da, gizarteko parterik gehiena, kristau izatea, muga eta akats guztiak gora-behera. Ez da hori, ordea, gaur zenbaitek sinestarazi nahi ligukeena.

Batzuek uste dute etorkizunean herri kristaurik ez dela egongo; kristauak, alegia, talde nimiño bat baizik ez direla izango.

Hau, gertatzez, hala izango dela uste izatea, gauza bat da, baina ez da hori bakarrik. Hori desiragarri dela, dio gainera zenbaitek; kristauak guti, baina bikainak izatea komeni dela. Beraz, gizarteko gehienak deskristautzen badira, hobe...

Gai honek zer-ikusi du aurreko orrietan esan dugunaz, zeren sekularizazioaren auzian onartzen den opinioak agintzen baitu hemen ere. Zibilizazio eta erlijioaren artean bat ere har-emanik ez egote hori gogoz onartzen duenak, hortik segitzen den ondorioa ere onartuko dizu, hots, herri kristaurik ez egotea.

Zer arrazoitan oinarritzen da uste hau?

1) Herriak kristau dira, zibilizazioak kristau dirauen bitartean. Zibilizazio kristauak etorkizunik ez baldin badu, ondorioa agerian da: kristauak taldetxo batzuk izango dira, baina herria ez da gehiago kristau izango.

Zer esan nahi dugu herri edo populu kristaua esaten dugunean? Nazio edo erresuma bateko jenderik gehiena bataiatua egotea; kristautasuna herri horren erakunde, ohitura, kulturen sartua egotea. Gauzak horrela diren bitartean, herri hartakoentzat normala gertatzen da kristau izatea.

Baina horrela izango ote dira gauzak bihar-etzi? Ez jakin. Kristautasuna ez baldin badago presente herri baten erakunde, izpiritu eta ohituretan, zaila gertatuko zaio jendetzari kristau izatea. Bizi zaren gizartearekin kontrakarrean egon behar duzu. Hala, esate baterako, musulman diren herrietan edo Komunismoak agintea duen aldeetan, bere burua kristau aitortzen duena oso kinka larrian dago beti. Eta heroismoa ezin eska dakioke jendetza ugariari.

Egia da, bada, jendetzari, kristautasunera sarbide izan dezan, ingurumariak lagundu behar diola. Hori ukatzen duenak gizona zer den ez daki.

Kuestioa da ea guk gogo onez onartu behar dugun egoera hori, daktularik zer dakarren horrek berekin, hots, herriaren deskristautzea.

2) Egoera hori deitoragarri ez dela diotenek, arrazoi batzuk alpatzen dituzte. *Kristautasun soziologikoa*, tradizioz heldu dena, ez dela gehienez

tan egiazkoa eta jatorra izaten. Benetako atxikimendu pertsonalaren falta nabari zaiola, alegia.

Eta horrek mesede baino kalte gehiago egin ohi diola kristautasunari, zeren hortik hartzen den kristauaren irudia behaztopa-harri baita kanpoan direnak erakartzeko. Beraz, hobe baino ez da kristauak guti, baina guti horiek zintzo eta bikain-bikainak izatea.

Gero ikusiko dugu ea arrazoi hau, egi puska duela aitorturik ere, hainbesterainokoa ote den. Gizarte baten deskristautzea desiatzeko eta gogoz onartzeko bezain bestekoa, alegia.

3) Beste arrazoi bat, azkenik, teologiatik hartu nahi da. Gaur zenbaitek esango dizu —orain arte teologian beti irakatsi denaren kontra—, zer erlijio edo jarrera duen norbaitek, eta hura dela harentzat salbazio-bide normala. Eliza ere hor dago, noski, baina salbazio-bide hau berezia dela eta zenbaitzurentzat bakarrik. Hori hala baldin bada, bistan da, ez da ikusten beste erlijioetakoak konbertitu-beharrik.

Badakigu, noski, Eliza agerian egon gabe ere, borondate oneko jentilentzat salbazio-aukerak egon daitezkeela, Jainkoak dakizkien bideak direla medio(1). Baina kuestioa da zer ondorio atera nahi den hortik. Izan ere, auzi honetan sostengatzen den eritzia loturik dago beste puntuarekin, hots, ea Elizak herri ugari ala artalde ttipi izan behar ote duen.

* * *

Ikusmolde hauek kritikatzera koan, aitortu beharra dago lehenik berrietan datzan egi puska.

Herri kristau bat egon dadin, ingurunearen sostengua beharrezkoa da. Esperientziak frogatzen du zer gertatzen den: herriz aldatzen diren gizonak, maiz sarri, ez dute handik harat praktikatzen lehen praktikatzen zuten erlijioa. Gertaera hau ezin ukatuzkoa da. Baina hortik atera nahi den ondorioa, —hots, horrelakoen erlijioa ez zela zintzo-jatorra—, zuzena ote da, gero? Agian ez. Frangotan gizon horiek zintzoak ziren beren fedean, baina aitzingibel berrietan ez zuten adorerik edo ausardiarik izan beren fede hori aitortzeko. Eta hori beste zerbait da.

Edozein modutan ere, inguruneak asko esan nahi du gizonarentzat. Gizonaren askatasuna baldinkizun batzuen barnean bizi da.

Beraz, biharko zibilizazioa erabat sekularizatua, hots, Jainkoagandik aldendua izango bada, teologo edo pentsalari horiek dioten ondorioa guztiz zuzena da.

1. Kuestioa da, bada, ea biharko zibilizazio teknikoan lekuri izanen den herri kristautentzat.

(1) Ikus "Ad gentes", 7 eta "Lumen Gentium", 14.

Segur aski, zibilizazio berriak berekin ekarriko ditu zenbait traba eta eragozpen. Kristaua lotua egon ohi da zenbait usariotara, eta, egoera aldatzean, nahietaez, gauza asko kordokatzen eta erortzen dira.

Baina horrelakorik lehen ere pasatu da. Adibidez, nekazari giro batetik hiri-giro batetara aldatzean. Eta kristautasunak beti aurkitu du, gaur arte, egoera berrira egokitzeko modua.

Nahietaez, biharko zibilizazioak Jainkogabeko izan behar ote du? Nork segurta dezake horrelakorik?

Utziera eta koldarkeria aparte, ez da bat ere arraozirik ikusten hori aldeaz aurretik noraezekotzat jotzeko.

Herri bat katoliko izan dadin, ez da derrigorrezko Estatua eta kultura konfesionalak izatea. Badakigu gaurko gizartearen pluralismoan hori zaila bihurtu dela. Baina erlijiozko balioei nolazpait idekia egotea zibilizazioa, hori, behintzat, bai, beharrezkoa da.

Kristautasuna beti izango da arrotz gizarte batean, gizarte hartako egiturek erlijio honen eraginik ez duten bitartean.

Kristau ez den herri batean kristautze-lana mailaka joan ohi da, hots, honako hiru maila hauen arabera: 1) indibiduok konbertitu, 2) Eliza erakunde bezala herri hartan landatu, 3) hango zibilizazio eta kulturaren gain eragina izan. Lan hori oraindik burutua ez dagoelako, Ekialde Urruneko herrietan, adibidez, kristautasuna ez da bertako bihurtu. Sortalde Hurbilekoetan, aldiz, nahiz eta Komunismoaren erasoak jasan, herriek kristau diraute. Nondik datorkie iraupen-indarra? Herriko zibilizazioaren azpian datzan kulturatik.

Fedeak ingurune baten sostengua behar du, bada.

Galde lezake zenbaitek: "Ez ote da aski eliz talde bat, fededun komunitate bat aldamenean edukitzea?"

Erantzuna: "Taldetxoak egoteko, bai, baina herri kristau ugaria egon dadin, ez".

Eta bihar-etzi, taldetxo horiez gainera eta landara, ez ote da posible izango herri kristau bat egotea? Hori da problema. Maiz entzun ohi da gaurko gizona adin nagusira heldu dela, eta ez duela ingurumariaren beharrik. Hori gezurra da, ordea. Gaurko gizonak, betikoak bezala —edo agian gehiago—, gizarte-giroaren eragina jasaten du.

2. Beste kuestioa da soziologi-eraginetik heldu den kristautasunak zenbatetaraino balio duen.

Bistan da kristautasunak, jatorra izateko, pertsonala izan behar duela. Baina egia da, baita ere, alderdi soziala edo besteeikiko zer-ikusia kristautasunaren muinean aurkitzen dugula.

Kristautasun bat, soilki eta huts-hutsik pertsonala, kanpoaldeko baldinkizunik gabekoa, ipuinetakoa izango litzateke. Ameskeria bat.

Historia lekuko, kristautasuna, ahalez, beti mamitu da gizarte-egitura batzuetan. Familiaren bidez gurasoetarik semeetara pasatu da, etab.

Gaur batzuek ez dute horrelakorik nahi. Fedea izan dadila atxikimendu bat guztiz pertsonala, eta horretan, ez gizarteak eta ez familiak ez dezala eraginik bat ere izan.

Baina ikusmolde honetan desbiderapen larria gordea egon daiteke. Kristautasunean abiapuntua ez da gizonaren erabakia, Jainkoaren grazia baizik. Bataioa haurrei, hori merezitzeko ezertxo egin baino lehen ematen zaielarik, hor ikusten dugu garbi Jainkoaren grazia dela lehen. Grazia horrek, hain zuzen, pizten du gizona baitan bizitze supernatural pertsonala hazitzeko behar den oldarra.

Halako pelagianismo-puntta nabari da gaur dena konpromezu pertsonalean bildu nahi duten joeretan. Kristau tradizio jatorra ez doa hortik.

3. Eklesiologia-aldetik auzia aztertuz, Elizak talde ttipiez osatua egon behar ote du soilki, hots, *elite*-z osatua bakarrik? Ez, noski. Eliza Katolikoan guztiek dute beren tokia. Mendez-mende Elizak ez du bere burua bat egin nahi izan talde hertsiekin.

Aitzitik, Elizak uste du bera Ama dela, guztiak beregana deitzen dituen Ama. Gizonen jendetza ugaria Elizatik uxatu nahi izatea, guztiz da Ebanjelioaren aurka. Barnean egon nahi duten horiek Elizak ez du esku-biderik kanpora egozteko, nahiz eta kristau bikain, fin eta gartsu horietakoak ez izan. Egin ditzagun ahaleginak horiek ere gorantza bultzatzeko. Baina kanpora jaurti, ez.

Gaur agian asko arduratzen gara kanpoan daudenez, eta gutiegi etxe barnekoek. Aita Daniélou mintzatu da horretaz. Berak dio kristau arruntak, *behartsuak* gutiesten eta mezpreatzen ditugula; herri horretan dugun ondarea ez dugula kontutan hartzen (1). Pentsatzekoa da gaurko krisia ez ote datorren barnetik, kanpotik baino areago, eta jokabide batzuekin ez ote garen populu horren hiltzaile gertatzen (*asesinoak*, dio berak).

Eliteak bihar ere egongo dira. Baina kuestioa da populua, herri kristaua salbatzea, behar diren gaurkotzeak eginik ere.

Aurrerazale eta atzerazaleen tirabira soilki?

Gaur krisi bat nabari dela Elizan, ez da dudarik. Aurrerazale eta atzerazaleen tirabira dela esan ohi da frangotan. Hori soilki balitz, gauzak ez luke munta handirik. Baina sakonagoa da auziaren gakoa. Bi ideologia daude aurrez-aurre. Batak, *Gizakundearen* izenean, nahi du teologia bat arras gizatiarra eta lurkoia, kristautsunaren alderdi bertikala baztertuz; besteak, aldiz, Jainkoarekikoak mantendu nahi ditu, gizonarekikoak aherentzi gabe.

(1) *Iglesia y secularización*, 38 orr.

Izan ere, kristautasuna gurutze baten pare da; eta gurutzea bi besok osatzen dute: zutak (bertikalak) eta horizontalak. Bertikalak gorantza esan nahi du, hots, Jainkoarengana abiadura adierazten du; horizontalak, aldiz, gizonarekin eta munduarekin duen zer-ikusia. Bi alderdi hauek ezin utzizkoak dira, bai bata eta bai bestea ere. Gaur, ordea, kristautasunari alderdi bertikala moztu nahi zaio; horizontalaren faboretan, esan ohi denez; baina biak elkaturik daude eta ezin daiteke bata ken, bes-teari ere kalte egin gabe.

Jainkoaren asmoa da —dio Aita Saindu Joan Paulo II.ak— gizona gauzen morrontzatik askatzea eta pertsonen —hots, Jainko eta senideen— amodiora itzularaztea, garbitasun, pobretasun eta xalotasuneko izpirituaz (1).

Jainkoa guztiz bestelako omen. Erlijioa idolatria omen

Teologia bat erabat gizatiarra, soil-soilik mundu honetako gauzetaz arduratzen dena: horra zer zabaldu nahi den. Robinsonen liburua (2) da ikuskera berri honen aitzindaria. Jaun honentzat Jainkoa guztiz da *bestelakoa*. Alferrik da gu Hartzaz arduratzea, Hari buruz gogoeta egitea, ezen guk molda dezakeguna ez da Jainkoa, Haren idolo bat baizik; beraz, Hura adoratzen dugunean, idolatria egiten ari gara.

Orduan zer egin? Jainkoa zuzen-zuzenean maitatu nahi dugunean sasi-jainko bat maitatzen baldin badugu, zer bide gelditzen zaigu? Robinsonek erantzuten du: Hor dago *Gizakundea*. Jainkoak, gizon egitean, hauxe erakutsi nahi izan digu, hots: maita dezagula gizona eta hor, gizonagana, aurkitzen dugula Jainkoa. Horra hor ebanjelioaren mezua.

Ez dator hemen gaizki Lafitte jaunaren esana aipatzea: “Jesu-Kristo ez da mundurat etorri gizon bilakatzeko; bainan egin da gizon munduaren salbatzeko” (3). Gaur Enkarnazioari (Gizakundeari) eman nahi zaio esanahi bat arras bitxia: Jainko eta lurraz handiko kontuak utzirik, mundugintzari lot gakizkiola. Baina ez da hori —bistan da— Enkarnazioak dakarren mezua. Kristauak aintzat hartu behar ditu, noski, hemen go eginbideak. Kristauaren egitekoak, ordea, ez dira mundu honetako gauzetan bukatzen. Eta Jainkoa gizon egin baldin bada, ez da izan gu gizatasun huts-soilean uzteko, gu Jainko-mailara jasotzeko baizik. Guzti hori betidanik irakatsi du kristau fedea.

Dena dela, jaun horren aburuz gizonen arteko elkar maitasuna sustatzea izango litzateke kristautasunaren helburu eta xede bakarra. Bes-te guztiari gibela emanik, horretan ipini behar omen da axola guztia.

(1) *Juan Pablo II habla de la Virgen*; 90 orr.

(2) *Honest to God*, London 1963.

(3) *Idek eta zabal gogo-bihotzak*, “Herria” liburu-sailetik, 1974; 26 orr.

Beraz, artez Jainkoari zuzendutako erlijio-eginkariak (otoitza, kultura) bertan behera utzi behar dira. Lagun hurkoaren alde lan egitea: horra kristautasunaren muin bakarra. Hala dio jaun horrek.

Horiek hala, sakratuaren sail edo eremu horrek ez luke gehiago esanahirik. Liturgia bera ezabatu behar da, edo, mantentzekotan, beste orientazio bat ematen zaiolarik mantendu beharko litzateke, hots, gizona eta ez Jainkoa, zentruzat harturik.

Gure ikuspegitik Jainkoa aienatzen delarik, jakina, kristautasuna zer bilakatzen da? Sozio-politikaz arduratzea. Mundu honetako hirigintzan lan egitea. Eta esango dizute, gainera, hemengo hirigintzan lan egiten duzanean, geroko erreinua prestatzen ari zarela. Ez dago hori, ordea, oso ados Eskritura Sainduarekin, zeinetan leize bat baita hemengoaren eta gerokoaren artean (Ikus Ap 21,1).

Munduko hirigintzari axola guztia ematen baldin bazaio, esan beharrik ez da: apaizak signifikantza guztia galtzen du. Apaiza zertarako? Gurutzearen taket bertikala kenduz gero, apaizak jai du.

Jainkoa *guztiz bestelakoa* baldin bada, Elizaren sineskaiak ere —hots, dogmak— balio gabe gelditzen dira. Ekumenismoa era berri batean uler-tzen eta hartzen da, hots: “Elkar gaitezen amodioan eta arazo doktrinalak oro pikutara bidal ditzagun”.

Mixioak zertarako? Lagun hurkoa maitatzen duen jentila kristau da jadanik, izen hori ez badu ere...

Ikusten denez, itzelezko ondorio larriak segitzen dira printzipio haue-tarik...

Bekatua bera zer bilakatzen da? Jainkoaren ofentsa ezin izan daite-ke. Besteri kalte egitea izango litzateke soilki bekatu.

Ezin uka daiteke guzti hau gaurko giroan guti asko barreiatu-rik aurkitzen dela. Aipatu ditugun autore eta liburuak irakurri ez dituztenak ere esloganen bidez giro hori zurrupatzen dute.

* * *

Kritika egin beharrik ba ote da? Jainkoa guztiz bestelakoa omen da, eta, beraz, guretzat zeharo ezezaguna eta ezin ezagutuzkoa. Hori esan eta, gero segituan *Gizakundea* aipatzen dizute jaun horiek, Jainkoa gizon egin dela, alegia, eta horrekin zera irakatsi digula, hots: gizona maitatzea dela Jainkoa maitatzeko dugun era bakarra. Nondik dakite hori, ordea, Jainkoa ezagutzeko eta Haren berri jakiteko bat ere biderik ez baldin badugu? Hori bai dela desdogmatizazioaren izenean dogma berriak sarraraztea!

Kristau fede jatorraren utziera guztizkoa berekin dakarrela pentsa-kerak honek, esan beharrik ote da? Ezin baztertuzkoa du kristau fedeak Jainkoaganako erreferentzia.

Fede horrek baditu Jainkoari buruzko sineskai batzuk, ezagupen batzuk, Jainkoaren hitzetik heldu zaizkigunak, eta hemengo erromesaldian guretzat argi gidari direnak. Fedetik heldu zaigun Jainkoaren ezagupen hori ez da faltscoa, zuzena eta egiazkoa baizik, nahiz eta hemengo gure egoerari dagokion bezalakoa izan. Horrek esan nahi du ez dela erabateko eta konplutua, badituela ilungune eta eskastasun batzuk; baina egiazkoa dela, halere.

Itxaropenaren teologia

Itxaropenaren Teologia, J. Moltmann-en obra (1): horra azkenaldi honetan berebiziko sona lortu duen liburua.

.sc Moltmann-ek dio gauza batek kezkatzen duela gizona, hots, etorkizunak. Eta itxaropena da etorkizunarekin zer-ikusi duen bertutea. Beraz, bertute honen inguruan bildu eta kokatu behar dela kristau erlijio osoa.

Moltmann-ek badaki, gainera, itxaropenak, amets hutsa izan ez dadin, fedea behar duela aurrelari. Eta kristau fedeak badu edukin bat, hots: Kristoren piztuera. Piztuera hau ez da ipuina edo ametsa. Aitzitik, zerbait erreala da.

Baina jaun horren ustetan, hor bukatzen da gauza horri buruz dakigun guztia. Ez dakigu gehiago, eta ez behar ere. Kristoren piztuera ez dugu xeheki aztertzerik eta adimenaz ulertzerik; ez dugu, alegia, zer moduzkoa den etab. jakiterik; baina hor dago. Eta etorkizun zoriotsu baten bahia da guretzat. Etorkizun zoriotsu hori zer moduzkoa izan den ere zehazki ez dakigu, baina ez du axola.

.sb Moltmann-ek oinarri objetibo bat prantatzen du, bada, abiaburu. Moltmann-entzat ziurtasun sujetiboa ez da aski, Bultmann-entzat den bezala. Kristo egiazki eta zinez berpiztu da. Gertaera honen historitasuna defenditzen du. Gertaera hura gertatutzat jotzen du, alegia, eta noiz eta non gertatu zen gutigora-behera badakigula dio. Pannenberg-ek ere halatsu uste du.

.Baina Kristoren piztuera mundu-barneko gertaera ez da. Eta hemen —mundu barnean— erabiltzen diren neurriekin ezin neurtuzkoa da. Beraz, gertaera erreala, bai, baina guztiz *opakua* omen da.

Gizonak bere ahalbideez horretzaz deusik jakin ez badezake, dena ilun gelditzen da. Kristoren piztuerak guztioi gertatuko zaigunaz du zer-ikusi. Baina gehiago ez dakigu. Kristoren piztuera ulertzeko gakoa, etorkizunak emango digu; baina bitartean, gertaera huts-soilaz kanpo, beste deusik ez dakigu.

(1) *Theologie der Hoffnung*, München 1966.

Beste puntu bat dago Moltmann-en sisteman, oinarri-oinarrizkoa dena. Erlijioak bi motatakoak omen dira. Lehen motatakoak promes huts dira. Bigarren motatakoak, epifaniazko erlijioak deitzen ditu berak. Erabateko oposaketa eta konpon ezina jartzen du bien artean.

Bibliako erlijioa, Moltmann-en aburuz, promes hutsa da. Kanaango eta Greziako erlijioak, aldiz, epifaniazkoak dira. Beraz, Bibliako erlijioak ez du zer-ikusirik agerpenekin, ospaketekin, eta ez “logos” delakoakin ere, hots, ezagupenekin. Baina gero zer gertatu zen? Bibliako erlijioa Greziako erlijioen elementuekin nahasi zela, eta hala kutsaturik iritsi zaigula guri. Orain bere aurpegi jatorra berreskuratu du. Horretarako behialako gertaerak gogoratzea eta ospatzea (= liturgia), sineskai trinkoak aitoratzea (dogmak): guzti hori kristautasunetik kendu eta ezabatu behar da.

Jaun hauek —Moltmann eta beste— beti mintzo dira semitarren eta grezitarren kategoriez. Lehenbizikoez —semitarrenak— bakarrik balioko lukete. Baina ez da ikusten zergatik Jainkoa ezin balia daitekeen besteez ere guri mintzatzeko, hala nahi baldin badu, behintzat. Eta Bibliako erlijioan, promesaz kanpo, besterik ez dela esatea ere, gehiegitxo dirudi.

“Logos” elementua kenduz gero, doktrinal den oro kristautasunetik kentzen da. Moltmann-en iduriko, grezitar izpirituaren eragina jasan du kristautasunak. Horren ondorioz, Jesusen gertaera berrerospen gisa interpretatu da, sakramentuek berrerospen horren partaide egiten gaituztelarik, etab. Guzti hau, Moltmann-i kasu eman behar badiogu, kristautasunetik ezabatu behar da.

Etorkizunerako promes bat dugula: horra gelditzen den gauza baka-rra. Ez dugu, halere, pasibitatean egon behar. Kristauari esperantzaren izenean gaitzaren kontra gudukatzea dagokio. Mundua aldatu behar da, hobetu behar da. *Ortodoxia* guztiak alde batera utzirik, *ortopraxia* interesatzen zaigu. Munduaren hobetze-lanean zergatik ez Marxismoarekin elkartu, nahiz eta ideologia horren ikuspenaz beti akort ez egon?...

* * *

Kritika. Moltmann-ek nahi du kristautasuna salbatu eta sinpletu, gaurko gizonak haren aurrean izan ditzakeen oztopoak trabatik kenduz. Zer preziotan, ordea, egiten du hori? Dogmatika guztia pikutara boteaz. Mundugintzaren aldeko lana sustatu nahi du, eta hori ongi dago, noski, baina horretarako ez dago txikizio hori egin beharrik.

Protestanteen artean maiz ageri da *albobateko* joera hori, hots, “unilateral” izatea, alderdi bati bakarrik begiratzea, gainerako guztia zapuztuz. “Scriptura sola”, “gratia sola”, “fides sola”, “Christus solus”... Nondik ateratzen dute, ordea, *bakarrik* hori? Beren besape edo maukatik.

Horrelako zerbait ikusten da hemen ere: bi motatako erlijioak omen dira, bata ona, bestea txarra, eta ez omen dute deus ikustekorik elkarrekin.

Eta Moltmann-ek salatzen duen helenizazio hori, noiz eta non hasten da? Testamentu Berrian bertan hautaketak egin beharrean gertatzen da: hau bai, eta hori ez... Helenismoaren eragina Testamentu Zaharrean ere nabari da, eta zer? Ez ote dio Jaun done Paulok Jainkoaren aurrean ez dela diferentziarik Juduaren eta Grezitarraren artean? (Rom 10,12). Eta nondik daki Moltmann-ek promesak ezin ekar dezakeela berekin dotrinazko elementurik?

Kristautasunaren desdogmatizatze bat egin nahi du. Eta hau larria da. Eta alferrik da esatea badugula etorkizun bat, fedean oinarritua; ezen horretaz tutik ez badakigu, ez da ikusten zer balio lezakeen horrek gizonarentzat.

Eliza Marxistekin elkartzen baldin bada, ez ote da azkenean gertatuko horiek bezala bihurtzea? Begitarte jakin bat ez duen esperantza honi gibela emanik, ez ote da lerratuko mundu honetako gauzez soilki axolatzera? Zeharo ezezagun den beste *lur* horrek izan ote lezake tirapenik gizonarentzat?

Giza adimenaren eskakizunak

Giza adimenaren eskakizunak hor dira, eta aintzat hartu behar dira. Gizonak bere bidearen berri jakin nahi du. Gizonak baditu azken galdera oinarritzko batzuk, eta ez zaio berdin horiei erantzun ematen dion sistema eta ematen ez diona.

Jainkogabeko Humanismoak gizona desgizundu ohi du, eta horrelako langintzan nola lagun dezake kristauak? Lankide izatea eskatzen baldin bazaio, lankidetza hori zertarako den ere jakin beharko du.

Kultua erabat baztertzen du Moltmann-ek. Epifaniazko erlijioetarik hartua omen da, eta, behialako gertaerak gogoratuz, etorkizun-oldarra itzaltzen edo moteltzen omen da. Baina hori ere ez izan hala. Kristau kultuak bai lehengoa gogoratu, bai oraingoa aintzat hartu eta bai etorkizunaren begira ere jartzen gaitu (Ikus 1 Cor 11,26).

Iragana, oraina eta geroa: hiruak aintzat hartzen ditu fedeak. Egia da formula batzuetan iragana bereziki azpimarratzen dela, baina beste batzuetan oraina eta beste zenbaitetan geroa; azken batean hiruak sartzen dira kristau fedean. Testamentu Berritik epifani-kutsua duen oro kendu nahi izatea, ezinezko da. Ikus Jo 1,14.

Mundugintza eta Jainkoaren erresuma

Moltmann-ek uste du mundugintza-lanean ari garenean, beste gabe, Jainkoaren erresuma prestatzen ari garela. Baina hori horrela ote da,

gero? Testamentu Berritik ez da halakorik segitzen. Kontzilioak esan digu geroko ondasunen esperantza akuilu berri bat izan behar dugula lur-reko hirigintzan aritzeko; hori bai, baina ez besterik. Ez ditzagun zerukoak lurrekoekin truka.

Kultu eta dotrinazko alderdia kenduz gero, zer bilakatzen da kristautasuna? Etorkizun hobe baten alde lan egin, baina mundu honetako mugen barnean. Eta zer da hori sekularismoan erortzea baizik?

Hogeitalaugarren Kapitulu

JAINKO-HERRIAREN KREDOA (1)

“Fides quae creditur”, hots, ‘Sinesten den fedea’, deitzen zaio fedeari buruz ari den toelogi-traktatuaren barruti jakin bati. Barruti honetan fedez sinesten ditugun egiak, hots, sineskalak aztertzen edo azaltzen dira.

Kapitulu hau aparteko modu batean fedearen alderdi honi eskaini nahi diogu, horretaz liburuan barna, han eta hemen, jadanik anitz gauza esanak direla ahantzi gabe.

I

FEDEAREN URTEKO OROIGARRIA

Fedearen urtea

Paulo VI.ak 1967. urtea —San Pedro eta San Pauloren XX. mende-muga—, Fedeari eskaini zion, urte hori *Fedearen urtea* izendatuz. Eta mendeurrenaren bukaera ospatzean (1968, Ekainak 30), propio eta bera-riaz egindako Fede-Aitormena agertu zuen. Jakina denez, *Jainko-herri-aren Kredo*a deitzen zaio Fede-Aitormen honi.

Ez da hau egunero gertatzen den gauza. Arrazoi sakon eta larriak zitu-
tuen, noski, Aita Sainduak Fedearen Urte hori jartzeko eta Fede-Aitor-
men hori, gure garaiko premiei egokitua, Elizari uzteko. Eta arrazoi ho-
riek Aita Saindu hark berak adierazi zizkigun.

1968ko Urriaren 30eko hitzaldian bi arrazoi hauek aipatzen ditu:
1) Fedea dela salbamenduaren hasiera, zintzokuntzaren oinarri eta sus-
traia (Trentoko Kontzilioak dioenez), eta, beraz, gure berrerospen eta sal-
bamenduaren noraezeko atea; 2) Fedea gaur zailagoa bihurtu zaigula.

(1) IKUS CÁNDIDO POZO, *El Credo del Pueblo de Dios*, BAC, Madrid, 1968.

Bai. Bazterretan duda, agnostizismoa, sofismak, logikaren eta metafisikaren arbuioa zabaldu dira, gaurko gizonen buruak nahastutzeraino.

Fedea arrazoiaren gainetik da, noski, baina, bestalde, fedea arrazoiaren beharra ere badu. Fedea ez da fideismo huts-soila. Ez da esperientzia baten bilakuntza. Aitzitik, fedea ziurtasuna du berekin, egiarekin du zer-ikusi, alegia.

Psikologiaren aldetik ere eragozpenak gehitu egin dira. Gaur gizona ohiturik dago dena sentsuen bidez neurtzera; fedea, aldiz, hortik kanpora dauden errealtateez ari da.

Eskritura Sainduaren azterketa bera, Tradizioari eta Eliz Irakasgoari kasu eman gabe egiten denean, nahastetarako bide bihur daiteke. Etab.

Gaitzari ez dagozkion erremedioak

Gaurko eragozpenak gainditu nahiz, on ez diren erremediotara jo nahi da zenbaitetan. Batzuek fedezko egien artean hautapen bat egin nahiko lukete gogozko ditugunak bakarrik atxikiz. Edo beste hitzez esanik, fedea gaurko mentalitateari egokitzeko, sinesten zail diren dogma batzuk aldatu edo isilik utzi. Baina Jesusek —gogoratzen digu Aita Sainduak— hara zer esan zigun: “Zuen hizketa izan bedi: Bai, bai; ez, ez, uhertasunak alde batera utzirik” (Mt 5,37).

Zeozergatik esan zuen azken Kontzilioak: Tradizioa, Eskritura eta Irakasgoa, Jainkoak zuhurki hala nahirik, halako moduz daudela elkarrekin lotuak, non batark bestea gabe ezin iraun baitezakete (1).

(Honeraino Aita Sainduaren hitzalditik) (2).

Jainko-herriaren Kredoaren izen, hau Aita Sainduak berak jarria izan da, ezen Aita Sainduak uste du Kredo hau guztiz aukerakoa eta egokia dela Jainko-herriaren fedea segurtamenez gidatzeko egungo aitzingibelelan. Fede-aitormen honen bidez erremedio bat eskaini nahi izan du, bada, gaur hainbat puntutan zabaltzen diren zalantza eta uherdurak argitzeko.

Kredo honen sarreran espresuki aipatzen dira gaur fede-kontuan batzuek jasaten dituzten kezkaldiak (3). Are katolikoen artean ere, batzuk alda-nahiaren katigu bezala daude.

Elizak —esaten du Aita Sainduak— Jainkoaren misterioak gero eta gehiago barnatzeko egiten diren ahaleginak ez ditu galerazi behar, eta misterio horiek mende bakoitzeko pertsonen proposatu behar dizkie, hartarako biderik egokienak bilatuz. Baina kasu!, azterketa hori egitean kontu handia eduki behar da kristau fedearen egiak suntsi ez daitezen. Eta zoritxarrez gaur hori da inoiz gertatzen dena.

(1) “Dei Verbum”, 10.

(2) Ikus *Ecclesia* (1968), 1953

(3) Ikus n. 4.

Aita Sainduak garbi aitortzen du, bada, gaur arriskutan daudela fedezko egia batzuk. Eta horiek finkatzera dator, hain zuzen, Kredo hau.

Beherago esango du (1) gaur argi-goseak dauden askori laguntzeagatik egin duela Fede-Aitormen hau.

Izan ere, Elizan bertan, Elizaren barnean, alegia, halako giro bitxi eta ohi ez bezalakoa zabaldu da azkenaldi honetan, Kontzilioaren aitzakiaz, gaurkotzearen aitzakiaz, etab. Fedezko egia askoren gainean zalantzak eta lainoak zabaldu dira.

Eta txarrago dena, Teologiaren izenean, Bibliaren izenean, Zientziaren eta Aurrerapenaren izenean, fede-murritzte eta kimatzeak egiten dira.

Baina hitzek ez gaitzatela nahas, kasu! Badakigu *Teologia* hitza erabili ohi dela askotan seriotasun-fitsik ez duen edozein saiakera izendatzeko. Eliz Irakasgoa bazterrerat uzten da. Pluralismoaren izenean edozer gauza sostengatzea zilegitzat jotzen da.

Teologia beharrezkoa da Elizan. Baina seriotasunez eta fedearen legeak errespetatuz egin ohi den Teologia.

Fedearen datuak barnatu behar ditu Teologiak. Baina emanak dauden datuak —eta datu emate hori ez dago Teologiaren eskuan—, barnatu ordez deuseztatu egiten baditu, orduan ez da zinezko Teologia.

Zer da Teologia?

Egungo nahaskeria asko zuritzeko *Teologia* aipatzen denez gero, zer den eta zer ez den Teologia laburzki azaltzea ez da alferrik izango.

Joan Paulo II.ak, Espainiara egin zuen bidaiari, eta Salamanca-n, hain zuzen, hitzaldi bat egin zien teologi ikasle eta irakasleei.

Teologiak —dio bertan— garrantzi handia du Elizan. Eta Salamanca cako errektore aroan gailurtu ziren teologoak gogoratu zituen, beroiengan bi ezaugarriok azpimarratuz, hots: Elizaganako leialtasuna eta sorkuntza-indarra. Ezagun da haiengan —zioen Aita Sainduak—, alde batetik iturrietara itzultze-gogoa —hots, Eskritura eta Tradiziara—, eta, bestetik, mende hartako problema berrietara idikiak egotea.

Zein den Teologiaren zeregina aspaldi gatzaturik utzi zigun San Anselmok bere esaldi famatuan: “*Fides quaerens intellectum*” = ulerpidearen bila dabilen fedea. Fedea ez da hemen noraezeko presupostu bat bakarrik. Fedea teologiaren egilea ere bada. Fededunak soilki egin dezake Teologia. Fedeak, alegia, bere baitan sentitzen du bultzada bat, bera zer den ulertu nahizko bultzada. Sinestetik ulertzera: horra Teologiaren nondik-norakoa. Fededunak fededun denez egin dezakeen lana da, beraz.

Gogoeta hau zientifikoki eta kritikoki egin behar da, noski, eta xedetik beretik heldu diren arauak gordez. Orain arteko altxorra leialki gor-

(1) Ikus n. 7.

detzea, ez da aski; horretzaz gainera, beharko da gaurko pentsakera eta hizkera kontutan hartu, fedearen ulerkuntza mende bakoitzari erreztu, etab.

Gaurko kultura natur-zientzietako metodoetara ohiturik dago eta goren-goreneko auzi horiek isilik utzi edo ukatzera du joera. Horregatik, Teologiak gaur bildu behar du bere gogoeta puntu nagusien inguruan: *Jainkoa, Kristo, gizona*. Teologiak, gainera, Filosofiaren laguntza behar du. Filosofia horrek, gaur, inoiz baino gehiago, gizonaren esentziazko estrukturei buruzkoa izan behar du.

Ez Filosofiarena bakarrik; gizatiar zientzien laguntza ere behar du gaur Teologiak. Denek beharko dute lagundu '*Zer da gizona?*' galderari erantzuteko.

Teologiak, fedeak bezala, badu zer-ikusi Elizarekin. Eliz barneko zeregina da, Elizaren zerbitzutan egiten den zeregina.

Hortik ulertzen da teologoaren erantzukizun larria. Teologoak kontuan eduki behar du apaiz eta apaizgaiek —zeinek gero Jainko-herria fedean hezi behar baitute— eskubidea dutela fedezko egiak murrizterik gabe azal dakizkien. Gure garaiko gizon eta emakumeei erabateko egien egarrian lagundu egin behar zaie.

Teologiak fedeaz duen zer-ikusiak argitzen du, baita ere, Elizarekin eta honen Irakasgoarekin duen lokarria. Ezin sinets daiteke Kristogan, Eliza sinetsi gabe; eta Eliza ezin sinets daiteke, honen Irakasgoa onartu gabe. Kristori zor diogun leialtasunak berekin dakar Elizari ere leial egotea, eta Elizari leial egoteak berekin dakar Irakasgoa onartzea. Teologo katolikoa libreki lotzen zaio Kristori, eta, era berean, libreki Elizari eta honen Irakasgoari.

Irakasgoa ez da, bada, Teologiari kanpotik ezartzen zaion traba; barnetiko zerbait da, eta Teologiaren muinari dagokiona, gainera. Teologoa oroz gain fededun bat baldin bada, eta haren fedea Eliza eta honen Irakasgoaren baitako fedea baldin bada, haren lanak orobat Eliz-fedeari eta honen oihartzuna den Irakasgoari loturik egon behar du.

"Izan zaitezte —gaineratu zuen Aita Sainduak— fedeari leialak Kristo Elizatik, eta Eliza Irakasgoatik bereizi gabe. Irakasgoa eta Teologia ez dira gauza bera eta ez dute zeregin berbera; baina ez dira bata bestearen etsai, elkarren osagarri baizik. Biek dute lotura Jainkoaren hitzarekin, fedearen sentsuarekin eta Tradizioaren ezaugarriekin. Beharrezko da Irakasgoa eta Teologiaren arteko elkar hizketa, biontzat eta Eliz komunitatearentzat emankor den elkar hizketa"(1).

Inoiz entzun ohi da, objekzio gisa, zientziak askatasuna nahi eta behar duela, eta orobat Teologiak, zientzia denez geroz. Hori hala da, nahi baduzu, baina arazo hau ongi konprenitu behar da. Zilegi izan bedi H.

(1) Ikus bidaia hartako hitzaldiak, *Acta Apostolicae Sedis* agerkarian, 11 Martii 1983.

U. von Balthasar jaunaren pasarte bat aipatzea: "Ez dago munduan bere objektuaren aldetik libre den zientziarik. Objektuak moldatzen eta egituratzen du zientzia bakoitza eta hark ematen dio izakera beste zientzien ondoan. Eta zientifikoa izan dadin, haren azterketa-metodoak ere objektuari dagokiona beharko du izan. Orain bada, Teologiaren objektua, zientzia den aldetik, kristau fedea da, fede honi dagozkion dohain eta berezitasun guztiekin" (1).

Lan-metodoa errespetatzen ez duen langilea ez da inon ere onartua; eta ez dago arrazoirik hemen gauzak beste era batera izan daitezen.

Egungo arriskua: Fideismoa

Giza arrazoiaren aurrean sostengu edo zutaberik ez duen fedeari deitzen zaio Fideismoa.

Eta aitortu behar da hau dela gaurko tentazioa. Hor azpian bada mesfidantza bat giza arrazoiari buruz, hau egia ezagutzeko gai ez balitz bezala. Gaur idazle katoliko batzuegan ere mesfidantza hori nabari da. Filosofiak porrot egin du —esaten dizute—. Eta hortik ondorioa ateratzen dute: giza arrazoa ez dela gai, ez dela gauza egia ezagutzeko.

Halakoek uste dute, gainera, ohore egiten zaiola fedeari, honek arrazoiaren beharrik ez duela esateaz. Fedeak, alegia, ez duela zutaberik behar, berez mantentzen dela zutik. Azken finean hala mintzo direnak Luteroren teologiara lerratu dira. Fede katolikoak, aldiz, beti irakatsi du giza arrazoiaren balioa; beti sostengatu du giza arrazoa gai dela egia ezagutzeko. Bai Batikano Lehenak eta bai II.ak arrazoi naturalari buruz fidantzia hori agertu dute.

Eta zinez, Fideismoaren jarrerak ez du irtenbiderik Razionalismoarekin aurrez-aurre jartzen denean. Razionalismoari bere eremuan erantzun behar zaio, hots, ziurtasun naturalen eremuan. Fedea abonatzeko ez dugu beste guztia ukatu beharrik.

Filosofian badira lehen printzipioak eta beste zenbait gauza, zeinetan bat etor baikaitezke gizon guztiak, baita kristau fedea ez dutenak ere.

Badakigu hitzetik hortzera gaur edozeini jaulkitzen zaion objektzioa zein den: Filosofiaren porrota. Baina Filosofiak porrot egin baldin badu, horrek ez du esan nahi arrazoa ez dela gai. Horrek esan nahi du erabilpen txar baten ondorioz gertatu zaiola porrot hori, eta ez besterik. Beti du aukera bide zuzenera bihurtzeko (2).

(1) "La libertad de la teología" *A los creyentes desconcertados* liburuan; Narcea, Madrid 1980, 38 orr.

(2) IKUS ETIENNE GILSON, *La Unidad de la experiencia filosófica*, Ed. Rialp, Madrid. — HENRI DE LUBAC, *Por los caminos de Dios*, Ed. C. Lohlé, Buenos Aires.

Egia da, bestalde, ziurtasun naturalei buruz Elizak mantentzen duen irakaspena fiabardurez zehaztua dela bera ere. Elizak sostengatzen du ziurtasun horiek *eskubidez* arrazoiaren eremukoak direla; baina *gerta-tzez*, Agerkundeak lagundu ezik, arrazoi soila ez dela izaten —gehiene-tan behintzat— horiek fermuki atxikitzeke gai. Jatorrizko bekatuaren on-dorioz, oztopo eta lauso gehiegi pilatzen dira; baina hori esatea ez da Fideismoa. Ziurtasun horiek berez arrazoizkoak dira, arrazoiak frogatzen eta defendi daitezkeenak.

Bai. Fideismoa da gaurko arriskua. Arrazoiaren argia, mugatua, bai, baina aski boteretsua da, hala ere, fedearen goi-argia onartzeko. Gizona bere bidearen bilakuntzan ez dago ahalmenez gabetua.

Paulo VI.a “Gaudete in Domino” Exortuan honela mintzo zaie gaurko gazteei: “Gauza bat segurtatu nahi dizuegu: Giza izpirituek egia irau-nkor eta bizigarria atxeman ez dezakeelako uste hori mendratzaile den be-zala —eta gaur arras hedatua dago hori—, era berean barrenkor eta as-katzaile da Elizan aurkitzen dugun jainkoen Egiak ematen duen arrai-tasuna” (1).

Katekesia dela eta

Sail honetan ere on-eza azaldu da. Katekesia ematerakoan, alegia, fedezko ziurtasunen ordez, hipotesi-piloa eskaintzen dela. Eta lehengo kristau dotrinen egiturara itzultzea eskatzen da: Kredoa, Sakramentuak, Aginduak, Jaunaren otoitza. Testua, muina, ez dadila urtua gelditu irazki-nen multzoan (2).

Hans Urs von Balthasar jaunak galdera hau egiten du: “Katekesia fedean ala teologian oinarritzen ote da?” (3).

Problema hau Argidura edo Ilustrazioaren garaia baino lehen ez zen. Fedearen artikulatuak fededunarentzat argiak ziren, fedearen argiak fede-duna barnetik argitzen zuelako. Hau zen teologo guztiek ematen zuten esplikazioa. Baina Ilustrazioaren garaian, Reimarusgandik hasiz, saiok egiten dira kristau fedearen sorrera naturalki esplikatzeko. Eta, jakina, jarrerara berri honen txipristinak pixka bat orotara zabaltzen dira. Gero exegesiak berak Jesusen hitz eta eginen tradizioari buruz mila problema metatu ditu.

Eta hau da auzia: Fededun xaloak parentesi tartean jarri behar ote du bere fedea, harik eta exegesi-korapilo guztiak aska daitezen arte?

Ondorio larriak heldu dira katekesiarentzat galdera honi ematen zaion erantzunaren arabera.

Beste hitzez esanik: Fedea gazteei azaldu behar ote zaie, ez paren-tesi tartean, baizik eta Elizak Kredoa eta Liturgian aitortzen duen era-

(1) Ikus *Ecclesia* (1975), 676.

(2) Ikus ICI n.º 583, 15-II-1983, 51 orr.

(3) *Revista Católica Internacional* (Marzo-Abril 1983), 102 orr.

ra? Baina hala egiten baldin bada, gazte horiek aurki jakingo dute kritika biblikoaren berri, eta orduan haien fedea ez ote du lur joko? Ez ote da hobe exegesiaren problematarik hasi, eta, horietan oinarriturik, salba daitekeena salba?

Gaur batzuek, Bultmann-en bidea hartuz, Pazko ondoko fedetik hasten dira, lehenagoko guztia ilunbetan utzirik. Zer gertatzen da orduan? Historiako Jesus, Aitak bidalitako Jainko-gizon hori eta fedezko proposamen asko eta asko, lainotan galduak gelditzen direla.

Aitor dezagun xaloki: Hau ez da Jaun done Pauloren fedea. "Kristok maitatu egin nau eta nigatik hil da" (Gal 2,20). Ziurtasun horrek bakarrik pizt dezake pertsonaren emaitza osoa dakarren erantzuna. Baina nork nahiko du bizi eta hil zein zen garbi ez dakigun beste Jesus horrengatik?

* * *

Hau ere esan behar da, bestalde: Exegesiaren metodo eta ondorioak hurbildik ezagutzen dituztenentzat, tirabira hauek ez dira gehienetan hain larriak izaten.

Exegetek moldatzen dituzten teoriak gehienetan hipotesiak besterik ez dira. Eta sarritan hipotesi berriak sortzen dira lehengoan ordeztu. Exegeten literatura honelako mintzamoldez josirik dago: *apika, agian, itxuren arabera, menturaz...* Hipotesi txalogarriago bat azaltzen den orduko, lehen aski finkatua zegoela zirudiena hankaz gora doa.

Eta ohar beste honi. Lehen kolpean fedearen oinarriak kordokatzerak datorrela dirudien teoria, gero fedearekin ados daitekeela ikusten duzu, eta gehiago oraindik: fedearen ikusalde baliotsuak eta ustegabeko bar-netasun guti ezagunak argitara atera arazten dituela. Adibide batzuk:

1. *Hipotesia*. Jesusek ez zuela handitasun-titulurik bere pertsonarentzat aitortu nahi izan. — *Erantzuna*: Hala balitz ere, horrek ez du Haren handitasunaren kontra deusik esan nahi, alderantziz baizik. Jokaera horren arrazoiak hau izan zitekeen: Jendeak gaizki ulertuko zuen titulurik ez zuela erabili nahi.

2. *Hipotesia*. Jesusek agian bere pasio eta heriotzeak gure salbaziorako duen zer-ikusiaz ez zuen aldeztu aurretik deus esan. — *Erantzuna*. Baina hala balitz ere, horrek Jesusen zuhurtzia salatuko luke soilki.

3. *Hipotesia*. Apokalipsi-kutsua darion hizkeraz adierazi zuela Jesusek bere piztuera eta ospea. — *Erantzuna*. Eta zer? Horrek ez du esan nahi oker egon zenik edo munduaren bukaera hurbil zela pentsatzen zuenik. Munduaren azken aroa bere piztuera horrekin hasten zela, hori bai.

4. *Hipotesia*. Jesusek erreinua hots egiten zuen, eta gero zer da eta, erreinu horren zentruan Jesus beraren pertsona jarri da. — *Erantzuna*.

Eta zer? Bere izatez eta eitez Jainkoaren erresuma Jesusen pertsonari lotua dagoela nork uka dezake?

5. *Hipotesia*. Jesusek agian ez zuen sortu Eliza, sozietate bat bere arautegi eta karguekin sortzen den erara. — *Erantzuna*. Hala balitz ere, hortik ez da segitzen Berak ez zuela nahi bere jarraitzaileen komunitate iraunkor bat, edo ez zuela komunitate horren lehen prestaera egin, bere obra horren hazkundera, bestalde, Izpiritu Sainduari utziz.

6. *Hipotesia*. Jesusen Amaren birjintasunari buruz zalantzak sortzen dira eta ebanjelioetan beretan daude agian horretarako aitzakiak. — *Erantzuna*. Baina Jose baldin bada Jesusen aita, dena dator lurrera: Jesusen jainkotasuna, Trinitatea, Jesusek gure alde burutu zuen erospen-lana...

7. *Hipotesia*. Azken afarian, Eukaristia sortzean, esandako hitzak geroagoko gogoeta baten fruitua omen dira. — *Erantzuna*. Baina eta nork asma zitzakeen hitz horiek? Edo ez ote dakigu Jesusen hitzen indarrez bildu ohi zirela lehen kristauak Eukaristia ospatzerara? Eta San Paulok ez ote digu esan tradizioz hartu dituela hitzok? (1 Cor 11,23).

8. *Hipotesia*. Ebanjelioetan piztuerari buruz dauden pasarteak ez datozela beti bat xehetasunetan. — *Erantzuna*. Baina honelako gertaera nola sarrarazi mundu honetako hitzetan? Handiegia izan gertaldi hura, eta kontaera bakoitzak beronen ikusalde edo alderdi bana ematen digu.

Eta zertara dator, Jesusen mirakuiluak direla eta, hainbeste espantu egitea, gero Apostoluen Eginetan eta San Pauloren gutunetan berriz ere eta naturaltasun osoz eta xaloki Apostoluen eta predikarien mirakuiluak agertzen direlarik?

Uka ezina da Testamentu Berriko testiguen Jesusen pertsonari eta egitekoari buruz lekukotasun eman nahi dutela. Ez dute testigu horiek azentua beren fedean jartzen. Informazioa eman nahi digute. Testu bat, ordea, ezin uler daiteke, testu egilearen intentzioan norbera sartzen delarik baizik. Testuok Jesukristorengan gertatu denaren berri eman nahi digute, entzuleak mezu horren arabera bere bizitzea konprometi dezan.

Ez dago, bada, fedea parentesi-tartean jarri beharrik. Testua bera interpretatzeko gakoa galduko genuke eta geure bizitzearen xedea jakiteko gakoa ere bai; eta bistan da xede horren begira dagoela testua.

Katekesiak ondoriorik izan dezan, behar du informazioa eta aitormena elkartu. Jesus nigatik hil da; nik ere amodiozko erantzuna eman behar diot: horra guztia. Aitormenak ez du informazioaren objetibitatea galarazten. Objetiboki beharko da azaldu kristau Agerkunderak ez duela beste ezein erlijioarekin konparaketarik.

“Jainkoa Amodio da”, hauxe da funtsezko irakaspena, eta berau ez da zutik gelditzen kristau egiaren alderdi guztiak batasun baten barnean hartzen direnean baizik. Aski da harri bat bakarra hormatik kentzea, e-

txe osoa arriskutan jartzeko. Agerkundera bere osotasunean hartu behar da. Orduan bakarrik dugu erantzuna galdera zahar eta berrientzat: Non-dik? Nora?

(Honera arte H. U. von Balthasar-en lanetik).

Gaurkotu, baina leial egonez

Joan XXIII.ak, Kontzilioa zabaltzean, hitz gogoangarri hauek esan zituen (1962-X-11): “Elizaren irakaspenak, berez alda ezina izanik, gure aroak eskatzen duen erara aztertu eta azaldu beharra dauka. Izan ere, gauza bat da fedearen ondarea —hau da, fede-gordailuko egiak—, eta beste bat egia horiek adierazteko moldea, baina adiera edo esanahia beti bat mantentzen delarik. Eta azken honi garrantzirik handiena eman behar zaio”.

Fedezko egien alda ezina garbi aitortzen da hemen. Fedea modu ego-kiago batez gure mendeko gizakumeei adieraztean ipini behar dira lanak, baina edukinari leialtasun osoa gordez.

Gaur badirudi arau honetatik saihesteak maiz gertatzen direla.

Hona saiheste-modu bat: fedea mendeetan barna ezagutu duen hazkundera isilik utzi. Biblia huts-hutsik hartu eta han datozen datuak bakarrik hartzen dira kontutan. Baina ez ote dago Izpiritu Saindua Elizan? Ez ote dira Kontzilioak bildu? Ez ote dira mila argitzapen, zehaztasun eta gehitze gertatu? Ez ote zuen Kristok esan Izpiritu Sainduak eraman-go zuela Eliza egia osora?

Zenbaitek nahi luke Biblian aurkitzen den muinaz kanpo, gainerako guztia baztertu. Hori ezina da. Eta hain zuzen, horrexegatik da hain garrantzi handikoa Paulo VI.aren Fede-Aitormen hau. Gaur isiltzen edo zokoratzen diren fedezko egia asko eta asko espresuki aitortzen baititu.

Beste saiheste-modu bat ere izan ohi da: ustez hain garrantzi handiko ez diren egiak, isilik utzi.

Badakigu, noski, fedezko dogma guztiek ez dutela garrantzi berbera. Adibidez, garrantzi handiagoa du Kristoren piztuerak, Andre Mariaren sortze garbiak baino. Baina dogmak diren aldetik, biak sinetsi eta sostengatu behar dira. Ezin zokora daitezke dogma batzuk, garrantzi ttipikoak direla eta. Hori fedezko ondarea murriztea izango litzateke: neuri begitantzen zaidana hartu eta bestea baztertu. Fedeari uko egin gabe ezin egin daiteke horrelakorik. Garrantziaren mailakatzea askotan sujetiboa izan daitekeela ahan-tzi gabe.

Bide zuzenetik beste saiheste bat gertatzen da gaur, eta da: Eliz Irakasgoaren aurrean inoiz gorde ohi den jokabide uherra. Agian esango zaizu baietz, onartzen dela Irakasgo hori, baina Irakasgoak dioena fedezko iturriekin neurtu behar dela, eta Irakasgoak dioena iturri hauekin

ados badago, onartuko dela, eta bestela ez. Eta nor da epaikari auzi honetan? Norbera. Baina hau ez ote da berriz ere Sujetibismora eta Protestantismora lerratzea? Hala dirudi.

Moral edo etikan gauza bera egingo dizute. Elizak agintzen duena Jainkoak *neuri* agintzen didanakin neurtu behar omen da; biak ados badaude, ongi, eta bestela Elizari gibela ematen zaio. Eta nor da auzi honetan epaikari? Norbera, berriz ere. Baina Jainkoak Eliza bere izenean eta lekuan egoteko jarri duela dakienarentzat, jokaera hori ez da onartzekoa.

Hau garbi frogatzen da mistiko katolikoen portaeran. Ez dira joango Jainkoaren ordezekoak esandakoaren aurka, Jainkoak besterik nahi duela jakinik ere. Hots, Jainkoak ipinitako ordezekoari obedituko diote, baita Jainkoaren borondatea bestelakoa dela dakitenean ere. Ikus, esate baterako, Santa Teresa, Ama Sorazu, etab. (1).

Egungo egoera hau ikusi eta, Jainko-herriaren Kredoa gaurkotasan handikoa dela esan behar.

Paulo VI.ak utzi digun Fede-Aitormena Nizea-Konstantinoplako Kredoa oinarritzen da, baina honen barnean zati berriak tartekatzen ditu, oraingo zalantza edo auzi berriei erantzun nahirik. Espresuki aitortzen du Paulo VI.ak fededunen argi-premiari erantzuteko paratu duela Kredo hau.

Beronen atarian bertan baieztatzen du giza adimena gai dela, ez bakarrik ageri dena, baina *dena* bera ere ezagutzeko (2). Izan ere, giza adimenaren objetibismoa salbatzen ez bada, Kredo honek ez du sentsurik.

Eta nola interpretatu edo ulertu behar ote dira testu hauek? Hori ere agerian da. Testu-egileak zer esan nahi izan duen kontutan hartuz, eta ez bestela. Ezin alda edo truka daiteke testuaren esanahia norberari gogoak ematen dionaren arabera (3).

Fede-Aitormen honen Teologi-balioaz

Eliz Irakasgoaren irakaspena den aldetik, zer autoritate-maila aitortu behar ote zaio Kredo honi? Irakasgo hutsezinaren mailara iristen ote da? Berez ez. Hala aitortzen du argi eta garbi Aita Sainduak berak, ezen esaten du propioki hau ez dela definizio bat, Aita Saindua "ex cathedra" mintzo denean bezala (4). Beraz, gutun hau agertzean Aita Sainduak bere autoritatearen goreneko maila ez du erabili nahi izan. Bego hau garbi.

(1) Jakina, jokabide honek salbuespen bat du: Eliz gizonak Jainko-legearen kontrako zerbait agintzen duenean.

(2) Ikus n. 2.

(3) Ikus n. 5.

(4) Ikus n. 3.

Baina, beste aldetik, Aita Sainduaren irakaspen hau Eliza orokor osoari zuzendua da. Eta berez hutsezin izan ezta ere, hutsezintasuna beste nonbaitetik etor dakioke.

Izan ere, kontutan eduki behar da Aita Sainduak tartekatu dituen pasarteak, zenbaitetan, lehenago emandako definizioen errepika besterik ez direla; beraz, zati batzuei behintzat, hutsezintasuna hortik datorkie.

Eta bada besterik ere. Fede-Aitormen honi Jainko-herriaren Kredoa deritza. Aita Sainduak berak aitortzen du Jainko-herri osoaren izenean mintzo dela bertan (1). Artzain eta fededun guztien izenean, alegia. Beraz, Elizaren fedea da hemen daukaguna, Aita Sainduaren eritzitan. Eta badakigu Eliza osoak —moralki osoa—, hau da, artzain eta fededunek aho batez gauza bat fedezkotzat aitortzen dutenean, hori bera dela seinalerik aski puntu hura egia dela jakiteko (2).

Beste ohar bat oraino: Aita Sainduak Jainko-herriari fede-aitormen hau utzi dio. Kredo honek, kristau herriak errepikatzen eta onartzen duen puntutik, titulu berri batez hutsezintasuna beregana dezake. Aintzinako Fede-sinbolo batzuei —sortzez pribatuak izanarren—, kristau herriaren onartze honen ondorioz, hutsezin-maila aitortu zaie; adibidez, San Atanasioaren sinboloa deritzanari. Egilea ezezaguna da, baina Eliza orokorrak onartu zuelako, fede-arau bilakatu da eta hortik dakigu beronen irakaspena hutsezin dela. Hemen hori bera gertatuko denz ez jakin. Geroak esan beharko du.

II

KREDO HONEN ATALAK BANAN-BANAN

1. Jainko bakarra eta hirukoitza (3) (n. 8-10)

Atal honetan bi baieztapen handi daude, hots, Jainko bat bakarra dagoela eta Jainko bakar horrengan hiru pertsona jainkozko direla: Aita, Semea eta Izpiritu Saindua. Trinitate edo Hirutasuna azpimarratzera doa testua, segur-aski azkenaldi honetan misterio hau zokoratzeko aieruak azaldu baitira. Hirutasunaren misterioa Agerkundetik eta Agerkundeari esker ezagutzen dugula, esan beharrik ote da?

Gainera, Jainkoaren *tasunak* —hots, atributuak— aipatzen dira testuan. Bibliak Jainko honen bi izen edo deitura jakin arazi dizkigu: *Iza-ki* (Ex 3,14) eta *Amodio* (1 Jo 4,8).

(1) Ikus n. 7.

(2) Ikus "Irakasgo arrunt eta orokorra" *Eliza* liburuan 206 orr.

(3) Ikus n. 8-10.

Jainko hau dugu diren guztien Egile, hots, ikusten diren eta ez direnena. Azkenengo hauen artean sartzen dira, adibidez, aingeruak eta bai gizon bakoitzarengan den arima izpiritual eta hilezkorra ere.

Jainko honen betiereko bizitzearen partaide izatera deitua da gizona: orain, hemen, fedearen iluntasunean, eta gero betiereko argian.

Jainko honek kreatu edo ezerezetik sortu du mundua. Jainkoak bereziki gizon bakoitzagan sortzen du arima, berez hilezkorra dena. Horrek esan nahi du, gurasoek umea sortzen dutenean, arima Jainkoak jartzen duela, ezerezetik kreatuz.

Aingeruen existentzia ere zalantzan ipini nahi izan da, eta Jainko-herriaren Kredoak existentzia hori espresuki baieztatzen du.

Atal honen 10. zenbakia Hirutasuneko hiru pertsonen arteko harremanetaz ari da.

Gizona, materiakzko gorputz eta izpirituzko arimaz osatutako izakia dela: horra lorpen bat Agerkundearen eraginez eta ondorioz lortua. Arimaren errealtate hau ere zalantzan jarri edo ukatu nahi izan da, baina gure Fede-Aitormenak guztiz finkaturik uzten du.

2. Kristologia (n. 11-12)

Bigarren atal honetan Kristori buruzko irakaspen edo sinets beharrekoak aitortzen dira.

Kristo dugu Jainkoaren Semea, betiereko Hitza, Aitaren izate berekoa, Izpiritu Sainduaren egitez Ama Birjinagandik gizon egin zena. Jainko eta Gizon da, beraz, nahasterik gabe, bi izateok Pertsona bakarrean daudenez geroz.

Andre Mariaren birjintasuna Jesus sortzean: horra auzipean jarri nahi izan den zerbait, eta Aita Sainduak espresuki azpimarratu nahi izan duena. Beste aldetik, eta Dozetismoari atea hersteke, Jesusen gizatasuna egiazkoa eta ez itxurazkoa dela, baieztatu behar da. Efeso eta Kalzedoniako Kontzilioetan definitu ziren Kristologiari buruzko egia nagusiak. Kalzedoniako Kontzilioa 451. urtean ospatu zen (1). Jaun berbera da Aitaren Seme betikoa eta Birjina Mariaren semea, noizbait gizon eginik jaioa.

Hemen ere esan behar da gure egunotan saioak egin direla Kristologia berriak asmatzeko, definiturik dagoen guztia saihestuz eta aspaldi Nestoriok proposatu zituen bideetara itzuliz. Esan beharrik ez dago: Kristoren jainkotasuna ukatzen da Kristologia berri horietan. Gure Fede-Aitormenak Elizak Jesusi buruz definiturik duen betiko dotrina zuzena errepikatzen du. Izan ere, Jesusen jainkotasuna eta gizatasuna aitortu ezik, kristau fedea ez dagoke zutik.

(1) Ikus DS 301.

Jainko-Semearen gizakundea da kristau fedearen ardatza. Kredo honetan, gizakunde hori baieztatu ondoren, Jainko-Seme gizon eginaren lurreko bizitzea kontatzen zaigu laburzki. Gure artean bizitu zen, Jainkoaren erresuma landatu zuen, Aitaren berri eman zigun, elkar maitasunaren *bere* agindu berria jarri zuen (“maite ezazue elkar, *Neronek maite izan zaituztedan bezala*”: honetan datza berritasuna). Zoriontasunen bidea erakutsi zigun. Pontzio Pilatoren menpean Pasio latza pairatu zuen, gugatik hilez eta salbamena guretzat ekarriz. Hirugarren egunean piztu zen eta bere jainkozko bizitzearen partaide egin gaitu. Zerura igo zen eta berriz etorriko da guztiak epaitzera. Jainkoaren maitasunari erantzun diotenek betiko bizitzea izango dute; eta maitasun hori azkenera arte arbuiautu dutenak betiko sutara jaurtiak izango dira.

Jesusek bere Aitari Aita deitzeko eskubidea eman zigun, gu ere Semearengan seme garenez geroz.

Kristoren obrak erospeneke misterioan bere gailurra jo zuen. Erospen-balio eta xedea aitortzen zaio Kredo honetan Kristoren Pasioari. Eta ez Pasioari bakarrik, baizik Piztuerari ere bai.

Jesusen bigarren etorreraz —Parusia— eta azken Juizioaz eta Juizio horren ondorioaz —betiko salbamena eta kondenamena—, bukatzen da atal hau. Kristoren erresumak ez du azkenik izango.

3. Izpiritu Saindua (n. 13)

Hirugarren atal hau Izpiritu Sainduari eskainia da. Izpiritu Sainduaren izatea eta Elizan duen zeregina deskribatzen du.

Izpiritu Saindua Jainko da, noski, Aita eta Semea Jainko diren bezala, eta jainkozko adorazioa zor zaio. “Bizi-emaile” deitzen zaio: horrek esan nahi du bizitze supernaturalaren arloan Bera dela bizi-iturri eta sortzaile (saindutasunaren munduan, beraz). Bizitze supernaturalak Jainko-iduriko egiten bagaitu, Jainko izan behar bizitze horren emailea. “Nola ez izan Jainko, besteak jainkotzen dituen?” (1).

Bera da *profeten bidez hitzegin zuena* ere. Marzionek zioenaren kontra, Nizea eta Konstantinoplako Kontzilioek formula horrekin garbi utzi nahi izan zuten gauza bat, eta da: bai Testamentu Zahar eta bai Berriak Jainko bat bera dutela egile.

Jesusen Igokunde ondoko Izpiritu Sainduaren etorrera aitortzen da gero. Jesusek Izpiritu Saindua igorri zigula, alegia. Izpiritu Saindu honen egitekoa da Eliza saindutzea eta fededunen Aitaganako sarrera prestatzea. Eliza argitzen, bizi arazten eta gobernatzen du Izpiritu Sainduak. Hutsezin eta hilezkor baldin bada Eliza, guzti hori Izpiritu Sainduari zor dio.

(1) S. BASILIO, *Adversus Eunomium* 3,5.

Izpiritu Sainduaren lan hau fededun bakoitzarengana iristen da. Be-
katuzko egoeratik graziazko egoerara aldatzea eta saindutasunaren gai-
lurreraino heltzea, Berari esker gertatzen da. Grazia, zerbait barnekor
da, arimaren barnea ukitzen duena. Eta graziaren fruitua da, orobat, sain-
dutasunaren aginduari erantzuteko gaitasuna ere.

Izpiritu Sainduaren eraginari —hau da, grazia aktualari— gizonak
uko egin diezaioke, ordea. Eta esan behar da, gainera, gizonak mundu
honetan lor dezakeen saindutasuna, beti ere, agerpen edo irudi zurbil
bat dela, Jainkoarenaz konparatua.

4. Mariologia (n. 14-15)

Laugarren atala Andre Mariari buruz da. Lehenbiziko aldiz gertatzen
da Kredo batean Ama Birjinari atal berezia eskaintzea.

Ama Birjina Jainkoaren Ama dela: horra Efesoko Kontzilioak 431.
urtean definitu zuena. Beti birjina izan zela, berriz, 649.ean definitzen da,
Martin Aita Sainduaren denboran. Jatorrizko bekatu gabe sortua zela,
Pio IX.ak definitu zuen 1854. urtean (1).

Baina Jainkoak Ama Birjina jatorrizko bekatuan erortzetik begira-
tu bazuen, hori izan zen Kristoren heriotzetik zetorren graziari esker edo
grazia hori aldeztu aurretik kontutuan hartuz. Beraz, Erospenaren beharra
Andre Mariak ere izan zuen; Kristoren erospena, ordea, gudan ez bezala
konplitu da Harengan. Azkenik, Pio XII.ak 1950. urtean definitu zuen
Andre Maria gorputz-arimaz zeruratua izan zela (2). Salbatzen direnek
noizbait izango duten egoera, jadanik eskuratua du, bada, Hark.

Ez da aski, ordea, Andre Maria bekatu gabea izan zela aitortzea. Ho-
ri txanponaren bi aurpegietarik bata baizik ez da. Beste aldeari ere kasu
eman behar zaio, hots, Mariak izan zuen graziaren multzutasunari. Izan
ere, graziaren aldetik beste izaki guztiak erabat gainditzen ditu Andre
Mariak.

Horra Ama Birjinaren pertsonaz Elizak finkaturik utzi dituen pun-
tu nagusiak. Eta pertsonarekikoa tratatu ondoren, Jainko-herriaren Kre-
doa beste sailera itzultzen da, hots: Ama Birjinak gure salbameneko
obran duen partea aitortzera.

Jainko-herriaren Kredo honek baieztatzen du, bada, Andre Maria ezin
hautsizko lokarritz loturik dela Gizakunde eta Erospenaren misterioari.
Eba berri eta *Elizaren Ama*-ren izenak aitortzen dizkio. Amazko lan hori
egiten du orain ere zerutik Kristoren anaien alde, horiengan Jainko-bi-
zitzea sortuz eta sustatuz.

(1) DS 2803.

(2) DS 3903.

Hemen, bistan da, Andre Mariaren arartekotasuna dago aitortua. Gure salbaziozko obran Andre Mariak izan du, eta badu orain ere, zer ikusirik. Hain zuzen, horixe da Protestanteek inondik inora onartu nahi ez duten gauza; Eliza Katolikoak, ordea, bai Eskrituratik eta bai Tradiziotik, hartua du fedezko puntu hau —nahiz eta xehetasunetan, are katoliken artean ere, eritzi bat baino gehiago egon—.

Andre Maria kreaturea hutsa da; baina, Jainkoak hala nahirik, eta Maria berak nahi honi libreki baiezkoa emanik, Kristoren obran lankide izateko hautatua izan da, beti ere Kristoren menean eta Hari elkar-turik. Ez dio horrek Kristoren arartekotasunari den gutiena ere kentzen; ez du Haren arartekotasun bakarra ukatzen, zeren eta azken finean Andre Mariaren ofizioa gizonak Kristorengana hurbiltzea baita.

Andre Mariari *Eba Berri* edo *gure Ama* eta beste holako deiturak emanez, kristau fedea aintzina-aintzinatik adierazi du gure salbazio-egintzan aitortzen dion parte; Lc 1,38 da Eskritura Sainduko pasarterik printzipalena Andre Mariaren lankidetzan hau frogatzeko —nahiz eta bakarra ez den— (1).

5. Jatorrizko bekatua (n. 16-18)

Jatorrizko bekatua Adanengandik heldu zaigula eta guztiongana zabaldu dela, hori kristau fedea beti sostengatu du, eta definiturik dago, gainera. Beste kontu bat da bekatu honen eiteaz eta xehetasunetaz eritziak ez datozela beti bat. Trentoko Kontzilioak definitu zuen Rom 5,12 pasartean jatorrizko bekatuaren dogma irakatsia dagoela, nahiz eta pasarte honen exegesian ere eritzi bat baino gehiago egon —xehetasunetan, jakina—.

Adanen bekatuagatik nola denok bihurtu garen bekatari, ez da ulertzen erraza, eta ematen diren adibideak diskutigarri izan daitezke. Nolanahi ere den, gauza bat dago garbi: jatorrizko bekatua eta bekatu pertsonala, nahiz eta biak bekatu deitzen diren, ez direla izate berekoak.

Honako puntu hauek salborik gelditu behar dutela dirudi: 1) Gure lehen gurasoak hasieran egoera guztiz abantailatuan egon ziren, grazia-aren jabe, gaitzetik eta heriotzetik libre; 2) Adanek egindako bekatu bat gertatu zen; 3) Horren ondorioz gizadiak grazia galdu zuen, zauritua eta heriotzearen pean gelditu zen.

Gaur jatorrizko bekatuaren dogma ere urtu eta hutseratu nahi izan da. Lehen esan dugu jatorrizko bekatua eta bekatu pertsonalak ez direla izate berekoak; haatik, egiazko bekatua da jatorrizko bekatu hori, eta Kristok gurutzeko sakrifizioaren bidez bekatu horretatik —eta bai bes-teetarik ere— libratu gaitu.

(1) CÁNIDIDO POZO, *Maria en la obra de la salvación*, BAC 360, Madrid. — SANTIAGO ALAMEDA, *Maria segunda Eva*, Ediciones Estibaliz.

Izan ere, Kristo gure Salbatzaile dela, eta Kristo honek gure bekatuetarik salbatzen gaituela: hori Ebanjelioek puntatik puntara irakasten digute. Bai jatorrizko bekatua eta bai bekatu pertsonalak ere, bi-biak daude hor. Bekatu pertsonalak, neurri batean, jatorrizko bekatuaren ondorio dira, ezen gizonaren grina eta irritsak, lehen meneratuak zeudenak, orain meneragaitz bihurtu zaizkigu. “Natura filii irae”, dio San Paulok (Ephes 2,3), hots, izatez haserrearen ume garena. Beraz, sortzez bekatari.

Adanen bekatu pertsonalaren ondorio izan zen, bada, jatorrizko bekatua. Eta jatorrizko bekatuaz hiltzen dena, nahiz eta bekatu pertsonalik ez izan, Jainkoaren ikuspena galtzen du. Ifernura ez, baina linbora doa halakoa.

Gizona orain grazia supernaturalaz gabetua jaiotzen da. Hain zuzen, gabezia horretan dago bekatu honen funtsa. Gizonak grazia hori eduki behar zuen, eta ez du. Baina hor dago bataioa, jainkozko bizitzea guri emateko jarria.

6. Elizaz (n. 19-23)

Elizaz diharduen atala luzea da, hots, bost zenbakiz hornitua.

Kristok eraiki zuen Eliza, eta Pedroren gainean eraiki ere. Eliza honen *tasunak* lau dira: 1) bakarra —eta batua—, 2) saildua, 3) Apostoluengandikoa, eta 4) katoliko izatea.

Eliza *bakarra* egin du Kristok; beraz, Eliza bakar honetatik kanpoan direnak, nahiz eta eliza izena erabili, ez dira Kristoren Eliza. Eliza bakar honek *batua* egon behar du barnean. Bi batasun-mota dira Elizak ezin gal ditzakeenak: fede-batasuna eta gobernu-batasuna. Lehenbizikoa heretiz hausten da, eta bigarrena zismaz. Bai batak eta bai besteak Elizatik apartatzen dute.

Eliza, bere izatez —hots, ontologikoki— *saildua* da, Jainkoak guri saildutasuna emateko paratu duen erakundea denez gero. Baita moralki ere saildua da, saildutasunez distiratzten duten seme-alaba ugari ditueenez gero.

Katolikoa deitzen zaio, alde batetik, Eliza honetara gizon guztiak deituak daudelako, eta, bestetik, gertatzez ere, herri eta arraza guztietakoak barnean dituelako.

Apostoluengandikoa: horrek esan nahi du Elizan agintea dutenak Apostoluen ondorengoak direla, hots, Apezpikuak.

Harri-gainean eraikia da Eliza, eta harri hori Pedro da (Mt 16,18). Aita Sailduak Elizan duen aginpideaz batasuna, eta bai Elizaren beste dohainak ere, zaintzen ditu.

Joan Paulo II.a Nicaraguara joan zenean (1983. urtean) sandinistak oihuka ari omen ziren: “Gora Eliza popularra, herriaren Eliza!” Eta Aita Sailduak erantzun zien: “Ez dago Eliza bat baizik: Kristok Apostolu eta

beroien buru den Pedroren gain jarri duena baizik". Hala da. Kristok jarritako egituratik kanpo kokatzen dena ez dago Kristoren Elizan.

Gainera, Jainko-herriaren Kredoak berariaz eta espresuki azpimarrazten du gauza bat bera dela Eliza eta Kristoren Gorputz mistikoa, hots, ez direla bi izaki desberdin, maiz sinestarazi nahi izan den bezala. Ez daude, alegia, bi Eliza-suerte: bata, ageriko organizazio batekin eratua, eta bestea, izpirituzko eta ezin ikusizko dohainez hornitua. Bat bera da bi alderdi horiez osatua dagoena.

Ezin esan daiteke, bada: Nik bigarrena onartzen dut, eta ez lehenbizikoa. Eliza den bezalakoa da, egitura bikoitz horretaz taxutua, eta den bezalakoxea eta Kristok eratu zuen bezala onartu edo utzi beharra dago. Ez dago, alegia, "hau bai eta hori ez" esaterik.

Beste puntu larri bat ukitzen du gero atal honek: Nola esan daiteke Eliza *saindua* dela, haren galtzarrean bekatariak daudelarik? Sainduetz soilki osatua dela Eliza, zioten kataroek, baina Eliza Katolikoak ez du sekulan hori onartu. Edozein bekatu-motak ez du Elizatik apartatzen. Eliza, saindua da eta saindutailea; haatik, eliztar guztiek ez dute saindutasunezko bizitze hori bizitzen. Hala gertatzen da Eliza, berez, saindu izanik, bekatariak ere badituela bere barnean.

Eta Elizak badu, gainera, bekatuak barkatzeko ahala (Jo 20,22).

Testamentu Zaharrean aurre-historia moduko bat izan du Elizak. Handik hartu ditu Testamentu Zaharreko liburu sainduak. Baina sortu, Apostoluen gainean eta Pedroren gainean eraikia izan zenean sortu zen. Eliza honi dagokio Agerkundearen ondarea kutsatu gabe begiratzea eta irakastea.

Izendatuki, zer sinetsi behar den jakiteko, Batikano Lehenak emandako erregela aipatzen du Kredo honek: "Jainkoaren hitz idatzian edo tradiziozkoan dagoena eta Elizak bere epai ospetsuaz nahiz Irakasgo arrunt eta orokorraren bidez goi-agertutzat eta sinesteko proposatzen dituen gauza guztiak" (1). Erregela honen baldintzak betetzen dituzten egiak oro kristau fedearen dogmak dira, bada.

Elizaren hutsezintasuna baita fede-gordairuan direnak zintzoki gorde eta azaltzeko behar direnetara ere hedatzen da.

Eta nortzuk dira Elizan Irakasgo hutsezinaren sujetu edo kargudun? Bi: Aita Saindua "ex cathedra" mintzo denean, eta Apezpikuen Kolejioa goren mailako irakaspena ematen duenean. Baina bi kargudun horiek ez dira zeharo eta alde guztiz bi, zeren eta bietan sartzen baita Aita Saindua —edo bakarrik, edo Kolejioko buru den aldetik—.

Batasuna Elizaren *tasun*-etarik bat da, gorago esan dugun bezala, hots: Kristoren Eliza bat eta bakarra da, eta bere baitan batua, gainera. Kristau asko daude gaur, ordea, Elizaren egituratik kanpoan. *Anaia aldendu* horiek Elizara etor daitezen eta kristau guztion batasuna lort

(1) DS 3011.

dadin gaur lehiak egiten dira eta denok behar ditugu helburu honen aldeko ekintzak bultzatu.

Baitezpadakoa, hots, beharrezkoa, ote da Eliza salbaziorako? Baietz erantzuten du Jainko-herriaren Kredoak (1). Eta hau da arrazoia: Kristo dugu salbaziorako bide eta ararteko bakarra, eta Kristo Elizan egiten zaigu presente. Beraz, salbatzen den oro, Kristo dela bide eta medio, salbatzen da. Eta Kristori txerta ahal gaitezen, beharrezko da Elizan egotea.

Baina kasu! Jainkoak gizon guztien salbazioa nahi du (1 Tim 2,3); orduan ezin utz dezake inor gal dadin, ageriko Elizatik kanpoan egonarren, hori bere errurik gabe gertatzen bazaio, eta, beste aldetik, kontzientziak agintzen diona betetzen badu. Salbatuko da, beraz, baina ez nolazpait Elizan egon gabe.

Hau ulertzeko, "Mystici Corporis" Entziklikak esango digu Elizaren menbro izan daitekeela gizona gertatzez ala desiraz, eta desira hori norberak ez dakiela ere gerta daitekeela (2).

7. Eukaristia (n. 24-26)

Atal hau hiru zenbakiz da osatua.

Irakasten da, hasteko, Meza Kalbarioko sakrifizio berbera dela. Apai-zak eskeintzen du meza Kristoren izenean eta fededunen izenean. Apai-zak bakarrik eman dezake meza, eta hori egin dezake Kristoren ordezkari den aldetik eta apaizgintzako sakramentuan hartutako ahalmenen indarrez. Meza sainduan, azken afarikoan bezala, ogia eta ardoa Kristoren gorputz bihurtzen dira, eta Kristo zinez eta egiazki presente gertatzen da, ogi eta ardoaren itxurapean.

Hurrengo numeroan —25.ean, alegia— zehaztasun batzuk ematen dira Eukaristian gertatzen dena zuzen eta katolikoki ulertzeko. Badaki eta, Aita Sainduak, ezin onartuzkoak diren teoriak kurritzen dutela hortik zehar. Esaten du, bada, ez dagoela beste esplikazio zuzenik honako hau baizik; ogiaren sustantzia Kristoren gorputz, eta ardoarena Haren odol bihurtzen direla. Hori Trentoko Kontzilioan definiturik dago, gainera (3).

Aldakuntza honen ondorioz Kristo egiazki presente egiten da Eukaristian. Aldakuntza honi guztiz egoki *transustantziazio* izena eman izan zaio. Teologoen esplikazioek, fede katolikoaz ados egon nahi badute, salborik utzi behar dute puntu hau: behin konsagrazioa gertatuz gero, han ez dagoela ez ogirik eta ez ardorik, eta Kristoren Gorputz-Odolak han presente egiten direla.

Gaur batzuek esaten dute ogiari eta ardoari xedea edo esanahia aldatu zaiola eta hori dela Eukaristian gertatzen den guztia, baina hori

(1) Ikus n. 23.

(2) DS 3802, 3821 eta 3871.

(3) DS 1642.

ez da aski; hori baino gehiago da fedea aitortzen duena. Ontologikoki, hau da, bere izanez, eta gure gogamenak pentsa dezakeena alde bat utzirik, aldakuntza bat gertatu da han. Ez dago han gehiago ez ogirik eta ez ardorik, baina bai ogi eta ardoaren propietateak.

Hortik segitzen da Eukaristiari adorazioa zor zaiola. Eta Kristoren presentzia hau ez da Mezarekin bukatzen. Horregatik Sagrarioa da gure elizen bihotza. Eta gure artean presente dagoen Kristo hori adoratu eta gurtu egin behar dugu.

8. Eliza eta munduko arazoak (n. 27)

Jainko-herriaren Kredoak numero berezi batean ukitzen du puntu hau. Eta beharrezkoa zen ukitzea, ezen gure egunotan Eliza zeharo mundutar bihur dadila nahi lukete batzuek. Behar zen, bada, garbi utzi zein den Elizaren jarrera auzi honetan.

Eliza da —dio Fede-Aitormen honek— Jainko-erresumaren hastapena mundu honetan, baina berez erresuma hori ez da mundu honetakoa (Jo 18,36). Horrek esan nahi du gauza bat dela erresuma honen hazkundera, eta beste bat jakintzen, tekniken eta munduko aurrerapenen hazkundera. Ez da uste behar aurrerapenen hazkundera, beste gabe, erresumaren hazkundera berekin dakarrela. Beste maila batean kokatzen da Jainkoaren erresuma. Kristoren ondasunak gero eta sakonkiago ezagutu, betiko ondasunetan esperantza jarri, Jainkoaren amodioari gartsuki erantzun, grazia eta saindutasuna gizonen artean zabaltu: horra zertan den Jainko-erresuma honen hazkundera.

Horrek, ordea, ez du esan nahi Eliza hemengo on tenporalaz axolatzen ez denik. Axolatzen da, noski, baina bere maila eta berari dago-kion era eta angelutik. Elizak bere semeoi etengabe abisatzen digu ez dugula hemen egotezko bizilekurik. Hori gora-behera, ordea, zirikatzen eta bultzatzen gaitu, bakoitza bere ahalen neurrian eta bere lanpostuan, hemengo hirigintza-lanean saia dadin; justizia eta anai-arteko bakea biltzen, pobre eta on-beharren alde lan egiten ardura dadin.

Elizak hurbildik segitzen ditu gizonen arrangurak, nahigabeak eta pozak, Adanen seme-alabak Kristoren argiaz argitu nahirik, eta guztiak Salbatzaile bakarraren inguruan bildu nahirik. Baina horrek ez du esan nahi mundutartzen denik edo bere Jaunaren esperoan jartzen duen garrara itzaltzera utzi behar duenik.

Kristauak beste bizitze baten esperantza du. Hortik ez da segitzen, ordea, hemengo eginbideak betetzeko zabarra denik. Aitzitik, pizgarri berria aurkitzen du bere fedean zintzoago izateko. Baina ez dakiola eska, otoi, geroko bizitzearen esperantza alde batera utzi eta zeruko erreinua mundu honetakoaz truka dezan.

Azkeneko atal honek hiru zenbaki hartzen ditu. Geroko bizitzea du gai. *Eskatologia* hitzak hori esan nahi du, hots, azkena, etorkizun dena. Etorkizun den hori, ordea, hasia da jadanik. Ernamuin edo kimu-itxuran hemen hasten da existitzen, baina beste munduan izango du konplimendu oso eta betea.

Graziatzko egoeran hiltzen diren arimak —bai Purgatoriotik pasa-beharra dutenak, eta bai gorputzetik ilki bezain laster zeruratzen direnak—, horiek osatzen dute heriotzeaz handiko aldeko Jainko-herria. Herica, berriz, zeharo bentzutua izango da piztuera-egunean, noiz eta arima horiek beren gorputzekin bilduko baitira.

Bistan da Aita Sainduak hemen sendotu eta finkatu nahi izan duela Elizaren fedea arima berezituak —hots, separatuek— duten egoerari buruz. Badaki eta, horretaz ere ilunbeak zabaldu nahi izan direla gure egunotan.

Piztuera gertatuko den egunera arte, hildakoen arimak, graziazko egoeran hil badira —eta garbi-beharra dutenak garbitu hori jasan ondoren—, zeruko lorian hartuak eta Jainkoaren ikuspena lortzen dute.

Beste opinio bat ere baztertzen da pasarte honetan: piztuera norbera hiltzeaz batera gertatzen dela dioena. Izan ere, zer da hori, piztuera garbiki ukatzea baizik?

Zeruko Jainkoaren ikuspena ez da hartu behar kontenplatze hotz balitz bezala. Jainkoaren adiskide mami izatea eta Haren adiskidantza eta zorionean parte Hartzea: horixe da.

Zeruko Eliza osatzen duten hauek, gainera, aingeruekin batean, ararteko eta laguntzaile ditugu. Hori da, hain zuzen, Sainduen Elkartasuna deitzen dena. Izen honek esan nahi du badirela har-emanak zeruan eta lurrean bizi direnen artean. On-beharrenak gerok gara, bidetan gabiltzanak, eta helmugara heldu direnek lagun egin diezagukete, eta guk ere berengana jo dezakegu eta jo behar dugu laguntza-eske.

Atal honetan ifernuaren aipurik ez da egiten, baina hori da gorago (ikus n. 12; bigarren atalean) eginik dagoelako.

III

ZENBAIT ONDORIO

Kredo honi buruz argibideak

Paulo VI.ak, Jainko-herriaren Kredoa eman ondoren, behin eta berriz ukitu zuen gai hau bere hitzaldietan. Kredo honen nondik-norakoa hobeki ulertzeko argibideak aurkitzen dira hitzaldi horietan.

Hala, 1968ko Uztailaren 3an egindako hitzaldian. “Fedezko egien laburpen bat izan ohi da —dio— beti ere Kredoa edo Fede-Aitormena. Egia horiek barnatu eta sakondu behar dira, noski. Hori da fededunen, teologoen, predikarien egikizuna. Fedezko adierazpenak esanmolde berrietan adieraztea etab., zilegi da, baina kontu!, barneko muina aldatu gabe, edukina zintzoki gordez (Vat I, DS 3020)”.

Eta urte berean, Uztailaren 10eko hitzaldian, gaur inoiz aipatzen den oker-aditua ukitzen du. Gaur esango dizu zenbaitek: “Enetzat fedea bilakuntza bat da, eta ez besterik. Ez da jabetza bat, ez da ondasun bat”. Aita Sainduak, berriz, hau dio: “Batak ez du bestea kentzen; bi osagaioz osatua da fedea. Fedeak baditu edukin batzuk, eta alderdi hau ezin baztertuzkoa da. Fededunaren barnean argi bat piztu da. Argi honi esker, bai Jainkoarekiko eta bai munduarekiko eta bai norbere buruarekikoak ere argitu zaizkio. Dena argi berritan azaltzen zaio, nahiz eta misterioaren leizea guztiz ez den ezabatzen. Beste aldetik, ordea, azterketa eta bilakuntzarako akuilu eta pizgarri ere bada fedea. Argi handiagoaren tirria sortzen digu”.

Hitzaldi berean oraino beste puntu bat ukitzen du. Aipa ditzagun hango hitzak berak: “Gaur gizona bihurtu nahi digute erlijioaren zentru eta ardatz, baina hori ezina da. Jainkoa da, nahi eta ez, zentrua; gizonaganako maitasunak Jainkoaren maitasunean du sustraia eta hasiera; hau kenduz gero, bestea ezin dagoke zutik”.

Eta Urriaren 30eko hitzaldian (1968) fedearen osotasuna mantentzeaz mintzatu zen. “Gaur —esaten du— fedea gaurkotu behar delako aitzakiaz, maiz-sarri isildu egiten dira egia batzuk, beste batzuei barneko muina ebatsi edo aldatu nahi zaie. Baitan da ez bata eta ez bestea ez dela zilegi”.

Hainbeste arriskuren artean nola babestu eta segurtatuko dugu gaur fedea? Aita Sainduak hara zer abisatzen digun: “Ohar honi: fedea dohain bat da, Jainkoaren emari bat, alegia. Horrek esan nahi du gure aldetik ere zerbait eskatzen duela. Ondare bat gordetzen den bezala gorde behar dugula geure aldetik. Ez gorde bakarrik, gozatu ere bai, bizitu eta hazi ere bai. Eta maiz erregu egin beharra daukagu, Jainkaok bere laguntzaz lagun diezagun”.

Gaur arruntki ikusten den axolagabetasun eta arduragabeakin fedea sarri galtzen bada, ez da milagro. Errua, ordea, zeinek du? Jainkoaren dohainari geure aldetik estimua eta erantzuna zor diogu.

Pluralismoaz

Azken urteotan asmatutako hitza da berau. Eta arrakasta izan du. Haatik, batzuek susmoz hartzen dute. Hans Urs von Baltasar-ek uste du hitz hau apropos asmatua dela ikusmolde desberdinak eta erabat elka-

rren aurkakoak fedearen zakuan egon daitezkeela adierazteko (1). Baina hemen zehaztasunak egin behar dira.

Beharrezko puntuetan batasuna izanik, gainerakoetan aniztasuna egotea, posible da eta beti gertatu da Elizan. Jainkoak agertu digun misterioa gizonen hitzek ezingo dute sekulan osoki azaldu eta agortu. Normala da, beraz, misterio horren azalpenetan ikusalde ezberdinak aurkitzea. Horrelako pluralismoa betor ordu onean.

Baina beharrezko gauzetan batasuna hausten duen pluralismoa ez da onargarri. Pentsamolde hori baztertu behar dela jakiteko, aski da hiru puntu hauei ohartzea: 1) Haragi egin zaiguna Jainkoaren Hitz da, eta ez besterik; 2) Jainkoaren Hitz hori Izpiritu Sainduak inspiratutako idazleek letretan ezarri edo idatzi dute, eta azkenik 3) Kristok sortu eta Izpiritu Sainduak gidatzen duen Irakasgo batek zaintzen du Elizan fedezko dotrina.

(1) *A los creyentes desconcertados*, Narcea, Madrid 1980; 30 orr.

III PARTEA

Hogeitaboskarren Kapitulua

KRISTO ERE FEDEDUN? (1)

Teologiak, ia aho batez, dioena

Teologiak, ia aho batez, irakatsi du, Kristok, lur honetan zebilenean, ez zuela federik —eta ez itxaropen edo esperantzarik ere—; eta hori arrazoi sinple bategatik: Kristok, Jainko-Gizon izanik, Jainkoaren ikuspena zuen. Ez zen, bada, gaietan fededun izateko. Izan ere, fedea, usai-ako definizio baten arabera, *ikusten ez dena sinestea* omen da. Eta Kristok *ikusi* egiten zuen. Ezin, bada, *sinetsi*.

Lehen kolpean, behintzat, badirudi gauza epaitua dagoela eta ez dela ondorio hau koloka arazteko zirrikiturik gelditzen.

Bitxi, halere

Haatik, harrigarria eta halako susmoz hartzekoa da ondorio hau.

Harrigarri, Kristok, egiazko gizon eta bertute guztietan gure eredu izanik, honetan huts egitea. “Gauza guztietan gure antzeko, bekatuan izan ezik”, dio Eskritura Sainduak (Hebr 4,15). Nola uka dakioko Kristori nolazpait bertute guztietan buruzagi eta gidari dena?

Gainera, Testamentu edo Hitzarmen Berria Zaharraren konplimendu eta betekundea baldin bada, nola daiteke funtsezko puntu honetan hala ez izatea? Kristo baldin bada Testamentu Zaharreko sinestedun guztien koroia eta erpina, nola egongo da fedeaz gabetua, fedea betekundera eramatea Berari dagokiolarik? Hala aitortzen du Hebertarrekiko epistolak: Jesus dela —dio— “archegos kai teleiotes tes pisteos” “auctorem fidei et consummatorem Iesum” (Hebr 12,2), hots, sinesmenaren iturri eta helburua.

(1) HANS URS VON BALTHASAR, *La foi du Christ*, Aubier, Ed. Montaigne, 1968; lehen kapitulua.

Auziaren garrantzia

Kuestio hau ez da garrantzi ttipikoa edo huskeria bat, gauzak azaletik begiratzuz hala badirudi ere. Ezen Kristo, Mesias izanik, Testamentu Zaharreko promes eta joran guztien konplimendua dugu. Bestalde, fedea ekonomia zahar harek berekin zekarren ondasun nagusia izanik, nola onart daiteke Hitzarmen berri eta betikoaren sortzaileak federik ez izatea? Hala balitz, Hitzarmen Berria ez litzateke gehiago Zaharraren segida eta osaketa; aitzitik, haustura bat dagoela batetik bestera aitortu beharko genuke.

Testamentu Zaharreko fedea

Zer moduzkoa zen Testamentu Zaharreko fededunen fedea? Kristau herrian badugu hitz bat: *Amen*, heberkeratik heldu dena, noski, eta kristau ororentzat arrunt bilakatua. Hitz honetan aurkitzen dugu nolazpait bildua —eta bai adierazia ere— Israelgo fedearen funtsa. Hitz honek zera esan nahi du, hots, *sendoa dena, fidagarri dena*. Jainkoari buruz mintzo garelarik, horrek esan nahi du Bera dela harkaitz sendoa, huts egiten ez duena, leiala, fidatzekoa. Beraz, hitz horrek nolazpait Jainkoa zer den esaten digu.

Fededunari gagozkiola, aldiz, *Amen* hitzak hara zer esan nahi duen: Jainko horri gizonak ematen dion baietza eta agertzen dion atxikimendu guztizkoa. Gauza bati *Amen* esatea, gauza hori egiazkotzat hartzea da. Pertsona bati *Amen* esatea, aldiz —eta kasu honetan pertsona hori Jainkoa da, zeinek Hitzarmen bat egin baitu Israelekin— zera da, hots: gizon oso-osoa hartzen duen erlazio bat Jainkoarekin edukitzea.

Gizonak ez du sendotasunik, ez trinkotasunik, ez funtsik, Jainkoari oso atxikia denean baizik. Hau da Testamentu Zaharreko fedea. Leiala da Jainkoa bere herriarekin; eta leialtasun paretsuaz erantzun behar dio gizonak Berari, Haren hitzak sinetsiz, Haren aginduei obedituz, etab.

Kristo, kentzera ez, baina konplitzera etorria

Baina Testamentu Berrian sartzen garenean badirudi, lehen kolpean behintzat, halako eten edo haustura bat gertatzen dela, beste eite bateko fedear topo egiten dugula, alegia.

Testamentu Zaharreko fedea da —esan dugu— leial den Jainkoari gizonak leialtasun osoaz erantzutea. Eta Testamentu Zaharra Berrira buruz eta Mesiari buruz abiatua denaz geroz, badirudi fede hori mailarik gorenean Jesus horrek eduki beharko lukeela; baina, harrigarri bada ere, teologia kristauak esaten digu ezetz, Kristok ez zuela federik. Nola dai-

teke hori? Ez ote digu Kristo berak esan Bera ez dela etorri Legea eta Profetak kentzera, osatzera baizik? (Mt 5,17). Hain funtsezko eta oinarrizko den puntu honetan nola konpreni daiteke Mesias Testamentu Zaharreko fededunen erpin eta koroia ez izatea?

Zer gertatu da hemen? Martin Buber-ek bere liburu famatuan bi fede-kontzeptu bereizten zituen, bata bestearen aurrez-aurre leudekeenak —haren ustez—, hots, Testamentu Zaharreko fedea eta Testamentu Berrikoa (*Zwei Glaubensweisen*). Testamentu Zaharreko fedea badakigu zer zen, hots:jarrera orokor bat Jainkoaren aurrean, norbere buruaren lagatze bat, Harengan fidantzia osoa ipiniz, eta, gertatzen dena gertatzen dela, Hari leial egonik. Jarrera horrek berekin dakar, noski, Jainkoak bere buruaz dioena egiatzat hartzea, Haren egintzak eta agintzak sines-tea, etab.

Testamentu Berriko fedea, aldiz, guztiz bestelakoa da —Buber-en ustez—, hots, gertaera historiko bat onartzea; Nazareteko Jesus, Mesias, Munduaren Salbatzaile eta Jainkoaren Semea dela sinestea. Gertaera hori gizon batzuen lekukotasunean oinarrituz onartzen da. Fede bat guztiz dogmatikoa, beraz.

Erabateko oposaketa jartzen du jaun horrek bi fede horien artean. Eta, zinez, aitortu behar da, gauzak horrela baldin badira, Testamentu Berriko fedea ez dela Zaharrekoaren segida eta osaketa, Beste zerbait, erabat berri, sartu zaigula haren ordeiz.

Baina Testamentu Berria Zaharraren konplimendua baldin bada, hori fede-kontuan ere hala izango da. Hau “a priori” esaten dugu; baina “a posteriori” ere hala dela frogatu daiteke.

Izan ere, Testamentu Zaharreko fededunak zer egiten du? Bere hitzaren indarra historian zehar —mirakuiluez, legeaz, agintzez etab.— agertu duen Jainko horri bizitze osoa eskaintzen dio. Fededunari Jainkoa leial, hurbil eta presenteko azaldu zaio. Testamentu Zaharreko gizonarentzat berdin da Jainkoagan sinesten duela eta Jainkoaren hitzari sinesten diola esatea: guztia da orobat.

Eta Jainkoaren Hitz hori gizon egiten baldin bada, fededunak, Jainkoaren agertze-modu berri honi atxikidura ematean, ez du bere fedea trukatzeko edo aldatzeko. Aitzitik, lehen eta orain gauza bera egiten du.

Muina trukatu zaigulako irudipena nondik sortzen den

Fedearen muina trukatu izan delako begitazioa nondik etor daiteke? Bi burutarik. Lehena: Gizon batzuen testigantzez dakigu Jainkoaren Hitz Jesusgan haragi egin dela; Kristoren piztueraren testiguen bidez, alegia. Entzuleek behar dute, bada, horien mezua sinetsi; eta orduan dator bigarren urratsa —nolazpait lehenbizikoan ere sartu dena—, hots, Eliza

baitako fedean Jainkoa baitako fedea atxematea. Orduan fededunak mezulariaren hitza Jainkoaren hitza bezala, eta ez gizonena bezala, hartzen du (1 Thes 2,13).

Baina bitartekotasun hau ez da, inolaz ere, berria. Testamentu Zaharrean ere halatsu gertatzen zen. Moisesek, profetek eta apaizek jakin arazten zioten herriari, eta Jainkoak ararteko horiek Berbera bezala hartuak, entzunak eta obedituak izan zitezela agintzen zuen.

Testamentu Berrian Kristok bere burua Jainko-Hitzaren mailan jar-tzen du. Mezulariak, berriz, Testamentu Zaharreko profeten mailan dau-de. Mezulariek mezua hots egin behar dute, baina denbora berean beren burua eta bizitze osoa ere mezu horren esanera jarri behar dute.

Bigarren arrazoia —bestea baino garrantzitsuagoa—, Bultmannek azpimarratu izan du: Testamentu Zaharrean fededunak Jainkoagan si-nesten du, Hari obeditzen dio, eta hori Hark egindako obregatik; baina obrak berak ez dira sinesten, zeren eta herriaren historian bertan bai-taude.

Testamentu Berrian, aldiz, obrak berak sinetsi egin behar dira, ze-ren eta Jesusen bizitze ageria gurutzean bukatzen baita. Piztu zela, lo-ria eta boterez jantzia dela, hori ez da ageri. Mezuan esaten zaizu soilki.

Baina honetan ere aldea edo desberdintasuna ez da urrunegi eraman behar. Ikus dezagun. Testamentu Zaharrean bada gertaera bat agerikoa eta publikoa: herria Egiptotik libratua. Jainkoagan sinesteko hori da abiaburua. Testamentu Berrian, aldiz, gurutzea eta piztuera ditugu. Ba-ta gertaldi agerikoa eta begien bistakoa omen da, eta bestea ez. Baina diferentzia ez da horren handia. Izan ere, Testamentu Zaharrean Israel-go herriak gertaldi haien ezagutza nondik hartzen zuen? Komunitate-tik. Testamentu Berrian ere antzera dira gauzak: Elizaren fedetik har-tzen da. Eta Elizaren fede honek non du bere sorburua? Lekuko batzuen ezagupenean.

Egia da Israel berrian gauzak ez direla gertatzen Israel zaharrean bezala. Hemen gizona ez da jaiotzen Elizako menbro izanik; Israel be-rrriaren menbro izateko, bakoitzak bere gogoz eta bere nahitara egin be-har du aukera hori; baina horrelako zerbait, are juduen artean ere, ger-tatzen zen; han ere bakoitzak pertsonalki hautatu behar izaten zuen fe-dedunen familiako izatea. Eskritura Sainduak, jakina denez, bereizi egi-ten ditu, Abrahamen semeen artean, haragiz soilki halakoak direnak eta egiazko seme direnak. Eta Jainkoak Israelgo historian obratzen zuene-tik ez zen dena jendearen begietara azaltzen; bazen zerbait ezkutua ze-nik eta etorkizunari lotua zegoenik.

Testamentu Zaharrean fedea Jainkoari eman behar zitzaion, eta ez mandatariei —profetei, etab—. Testamentu Berrian ere gauza bera ger-tatzen da. Ebanjelioaren predikuak atxikimendua eskatzen du, eta atxi-kimendu honi *fede* deitzen zaio; baina fede hori ematen zaio prediku

horren edukina jainkozkoa delako; arrazoi beragatik autoritatea ere jainkozkoa du. Beraz, elementu berberak edo bertsuak aurkitzen ditugu Testamentu Zaharreko eta Berriko fedearen artean.

Testamentu Zaharreko fedea, hausnartze luze eta sakon baten ondorioz, jarrera edo planta orokor batean mamituko da. Jainkoaren portaerak sortarazten du gizonaren erantzun orokor hori: hor sartzen dira sinestea, leial egotea, fidantzia, itxaropena, maitasuna, eramapena... Latinezko hitzak, "fides" —eta hortik gure *fede*—, Jainkoa leiala dela eta bere hitza betetzen dakiela gogoarazten du; eta gizonak ere, bere alde-tik, Jainkoaren leialtasunari erantzun behar diola, bere burua Jainkoaren eskuetan utziz.

Kristo eta fedea

Gizonaren jarrera hau Jainkoaren aurrean, —Testamentu Zaharra-ren hazkundeak berekin ekarri duen ondasun hau, alegia—, nola ez da Jesukristogan aurkituko? Fedea, eta ez nolanahi, mailarik gorenean baizik, inork izatekotan, Hark izan behar zuen.

Hemen, itxuren arabera, neurri batean terminologi-kontua ere badago. Aitor dezagun lainoki: Testamentu Berriko fedea badu bereizgarri den zerbait, hots: sinetsi behar diren zenbait gauza proposatzen zaizkigu Jesusi buruz. Bistan da: egia horiei sineste ematea baldin bada fedea, Kristok ez du hor egitekorik; fedea baino gorago dago Bera; Berak ez du *sinesten*.

Baina horrekin ez dago dena esana; garrantzirik gehiena duena ere ez. Fede berriak ez du zaharra baztertu behar, konplitu baizik (Mt 5, 17). Eta horretarako beharrezko da Kristo bera fededun izan dadin; eta gure fedea Kristoren fedean bere eredua izan dezan.

Testamentu Berrian azaltzen zaiguna

Testamentu Berria, egia esan, Jesusen fedea ez da argiegi mintzo. Badirudi Jesusek Jainkoaren aurrean duen jarrerari eta guk dugunari izen bat bera ematera ez dela ausartzen. Izan ere, lekutan gaude gu Harengandik! Hitz bakar batean jarrera horren dohain eta kalitate guztiak ezin sar.

Orduan, analisiaren bidez errealitate bakar hori deskonposatu egiten da bere osagaietan, eta hain zuzen, hortik frogatzen da Jesusen fedea, Testamentu Zaharreko fedearen osagai berberek dela osatua, hots: Semeak leialtasunik bikainena gordetzen dio bere Aitari; Semeak Aitararen Nahia hobesten du beste gauza guztien gainetik; gertatzen dena ger-

tatzen dela, Nahi horri da atxikia. Eta oroz gain, Aitaren eskuetan beti pronto dago.

Jesusek badaki *Ordua* gertatuko dela; ez daki, ordea, noiz, eta ez du ordu hori aurreratu nahi. Datorrenean, gogoz onartuko du. Aitaren eskuetan uzten du bere burua. Fidantziarik oso eta beroena agertzen du bere Aitaren alderakotzat.

Planta hau bera ikusi nahi du Jesusek bere ikasleengan. Baina gizonak, Jainkoarengana salto hori egiteko, Jesusen eskuari heldu behar dio. Eta salto honek gizona bere osoan hartzen du: zalantzarik gabe Jainkoari toki guztia uztea eskatzen du. Dena Jainkoari uzten diona, segur da Harengandik dena hartuko duela.

Jakina da zenbat aldiz Jesusek ebanjelioan eskatzen duen fedea —fedea Jainkoaren alderakotzat, noski—, eta zenbat aldiz kritikatzten duen bere ikasleen fede-eskasia (1). Pasarte guzti horietan Jesusek berak zeukan fedea edo Jainkoaganako planta agertzera ematen zaigu. Azken finean, amodioa da jarrera honen sustraia.

Eite honetakoa da Testamentu Zaharreko fedea ere, hots, amodioz eta leialtasunez ernari den fedea. Hala ulertu behar da Hebertarrei egindako epistola, zeinetan fedea Testamentu Zaharreko esanahi horretan hartzen baita (ikus 11 eta 12. kapituluak).

Jesusek izan du, bai, fedea, eta goreneko mailan izan ere. Fedearen buruzagia dugu Bera. Bai kristau fedea eta bai Biblia osoan ageri dena, azken finean Kristorenaren antzirudi bat besterik ez dira.

San Pauloren idazkietan badira genitibo bitxi batzuk, zer esana eta zer pentsatua sortarazten dutenak: “fides Christi”, “fides filii Dei”, etab. Ikus pasarte batzuk: Gal 2,16.20; 3,22.26; Rom 3,22; Phil 3,9; Col 2,5; Eph 3,12 etab. Hona hemen, adibidez, testu hau: “Jainko Semearen fedetik bizi naiz” (Gal 2,20). Pasarte horietan denetan genitibo objetibo bat besterik ikusi nahi ez izatea, ez dirudi bidezko. Agian genitibo sujetiboa huts-hutsik ikustea ere ez. Deismann-en ustez (2), San Paulogan aurkitzen diren beste esaldi batzuk ahaide hurbil izango lirateke hauekin, hots: *Kristoren indarra; Kristoren ondasuna; Kristoren betea...*

Deismann, bada, genitibo mistikoaz mintzo da. Paulok gogoan du —horrela mintzo denean— Kristoren barnean bizi den fedea, eta honen partaide egiten da Kristori elkarturik dagoena.

Dakigunez, Paulorentzat fedeak zuzen egiten du gizona, fedea zinezko biziaren iturburu da, Jainkoaren aurrean balio duen biziarena. Kristogan bizi den fedeak biziarazten gaitu gu ere. Beraz, fedearen iturburu metafisikoa da Bera. Fedeak justifikatzeko duen ahala Kristogandik heldu da. Jakina, guzti hori ez da posible azken finean Kristo bera Jainkoa ez baldin bada.

(1) Hona hemen leku batzuk: Mt 6,30; 8,26; 14,31; 16,8; 17,19; 21,21. Lc 8,25; 12,28; 17,8; 18,2. Etab.

(2) A. DEISMANN, *Paulus*, 1911, p. 94; U. von Balthasar-ek aipatua, op. cit., p. 39.

Jainkoagandik heldu zaigunaren ekarle eta banatzaile da Jesus. Horra esaldi bitxi honen —*Kristoren fedea*— edukina. Ez da bakarrik Kristok daukan fedea edo banatzen duen fedea, baizik eta Kristo bera *fedea* dela, eta ez besterik. Horretarako Jainko izan behar, noski; baina baita gizon izatea ere beharrezko da, gure artean fedea deitzen den hori Berak frogatzen eta bizi ahal dezan.

Teologiaren mailan

Jakina denez, geroztiko teologian, Kristok fedea izan duelako eritziari eza eman zaio. San Tomasen arrazoia oso sinplea da: “Kristok, sortu zen puntutik, Jainkoa ikusten zuen; ez dago, bada, lekuri fedearentzat” (1). Izan ere, ikusten duenak nola sinets dezake? San Agustinek berak ere jadanik esana zuen hori.

Fedearen nozio hau hartzen bada oinarri, ondorioa uka ezina da. Ez ikustearen alderdia —hots, alderdi negatiboa eta behin-behinekoa— azpimarratzen da hemen.

Badirudi, ordea, bertuteen teoria moldatzerakoan Eskolastikak kategoria grekoei garrantzi gehiegi eman izan diela, eta gutiegi elkar hizketazko kategoriei; eta hauek dira, hain zuzen, Jainko eta gizonaren arteko Hitzarmenean ageri direnak. Jainkoak, alegia, dei egiten dit eta nik erantzun egiten diot. Badirudi kristau teologiak, honetan, Jainko-hitze-tik heldu zaizkigun kategoriak hartu behar dituela oinarri.

San Tomasek esaten du, bada: “Ezin daiteke denbora berean ikus eta sinets. Sinestea da ikusten ez den zerbait egiazat edukitzea, autoritate bati men eginez”. Baina definizio honekin ez da Testamentu Zaharreko fedearen osotasuna eta ez beronen muin edo zentrua ere ongi adierazten.

San Tomasen ikusmolde hau sendotu nahirik, beste arrazoi bat ere atera izan da, hots: Testamentu Zaharreko gizonaren jarrera hemengo bizitze hilkor honen mugetan kokatua ageri da; ez zaio berari eskaini —edo ez behintzat klarki— hilobiaz handiko aldean Jainkoaren ikuspena emango zaiola. Testamentu Berriak, aldiz, geroko bizitzearen albistea ekarri digun puntutik, fedezko jarreraren probisionaltasuna berez bezala azaldu da.

Aitortu behar da arrazoi honek baduela bere pisua. Hangoa ikustea da, hemengoa sinestea; hemen esperantza dugu, han errealitatea.

Kristok, lur honetan bizi zenean, ba ote zituen fedea eta esperantza? Auzi hau, San Agustinen jarrera hertsia baten ondorioz gelditurik egon da. “Nehork —dio Agustinek— ezin itxaron dezake etorkizun den ongia baizik” (2).

(1) III, q. 7, a. 3.

(2) *Enchiridion* 8,3.

Fedea Ertaroan, San Agustini jarraikiz, honela definitzen zen: “Cognitio obscura”, hots, *ezagupen iluna*. Bi gauza daude hemen: ezagupena, alde batetik, eta iluna, bestetik. Kuestioa da bi horietarik zeini ematen zaion lehentasuna.

Ilunari lehentasuna emateak badu abantail bat: fedearen libertatea hobeki salbatzen dela. Gizonak libreki hautatzen du. Fedearen meritua ere, libertatearen ondorioz, hobeki ikusten da.

Ezagupenaren alderdia azpimarratzen denean, aldiz, fedea zeruko eza-gutzaren lehen distira edo hastapen bezala azaltzen zaizu. Fedea egun-sentia da, argiaren hastea; gero zeruan bere betea ezagutuko duen argiaren hastea.

Bi hitz hauek —*ezagupena* eta *iluna*— errealitate beraren alderdi bana salatzen digute. Ez dira elkarren etsai, elkarren lagungarri baizik. Fedeak beti dakartza berekin bi gauza hauek, bai lurrian eta bai zeruan ere, nahiz eta ez neurri edo tamaina berean. Hori kontuan izanik, lurrera erortzen dira Kristoren eta zerutarren fedearen aurkako arrazoiak. Izan ere, Kristoren arimak Jainkoa ikusten bazuen ere, ez zuen Jainkotasun hori bere luze, zabal eta sakon guztian barnatzen. Eta gauza bera gertatzen zaie zerutarrei.

Aquasparta, Ertaroko frantziskotar teologoak, oharpen hau egiten du: are zeruan ere kreaturak ez duela Jainkoa osoki eta alde guztiz inguratzen, eta orduan lekua egon behar duela han, ez fedearentzat presis-ki —hala dio berak—, baina bai “credulitas” deitzen den horrentzat. Eta gaineratzen du: “Orduan ez da desegoki zerutarrek zer bait sinesten du-tela esatea” (1).

Eta Doniane Gurutzekoak esango du zeruan fedearen mamiak badi-rauela (2).

Esan behar da, bada, fedearen definizio horrek muga estuegiak di-tuela, eta hortik gero mota askotako korapiloak metatu direla.

Adibidez, San Tomasek, Eskriturako pasarteek beharturik, onartzen du Kristok —lurrian bizi zenean— bazuela obedientzia, baina federik ez (!). Galdetu behar da orduan nola izan daitekeen Kristo gauza guz-tietan gure antzeko, salbu bekatuan, fedearen osagai diren esperantza, eramapena, leialtasuna etab. ukatzen bazaizkio.

Bukatzeko: Badirudi fede eta esperantzaren alderdi positiboak —eta ez negatiboak— hartu behar direla oinarritzat.

(1) *Quaestiones disputatae de fide*, 161 ad 12, Quaracchi, 1957.

(2) *Cántico* XII.4.

Korintoarren lehen epistolako pasarte batez (1 Cor 13,13)

Dirudienez, pasarte hau ere ber-ikusi beharra dago. Arakatu behar-ko lirатеke Itala deritzan itzulpena baino lehenagoko interpretazioak.

Horra testuingurua: Hizkuntzetan mintzatzea, gnosia eta profezia bukatuko dira; baina amodioa, zeinek dena sinesten eta itxaroten baitu (1 Cor 13,7), ez da sekula igaroko; *halarik ere*, fedeak, esperantzak eta karitateak, hiru hauek diraute (1).

Beraz, hiruek diraute zeruan.

Geroago, berriz, grekozko testuan ageri den “Nuni dè” hori denborazko balioa balu bezala hartua izan da, beronen esanahia logikoa dela ohartu gabe. San Paulok juntagailu honi beti balio adbersatiboa ematen dio, ez denborazkoa. Horiek hala, San Pauloren pentsakera garbi dago: 1) Karismak igarokorrak dira; 2) Hiru horiek, aldiz, iraunkorrak; 3) Denetan handiena karitatea da, zeinek bizia ematen baitie beste biei. Beraz, karitatea da erpina, gailurra; baina hau beti-betiko elkaturik dago fede eta esperantzarekin, ezen hiruek osatzen dute kristau bizitzearen bizkar-hezurra.

Hirukote hau —fede, esperantza eta karitatea— Testamentu Zaharreko jarrerara bakar eta orokorraren banaketa bat besterik ez da. Testamentu Zaharreko jarrerara bakarrean, ordea, hiru horiek presente daude jadanik.

Amodioak berekin du fede eta esperantza. Hori da Jainkoak ematen eta eskatzen diguna. Hitzarmenari leial egote horretan guztiak biltzen eta barnean hartzen dira.

Egia da, bestalde, fedeak baduela zerbait behin-behineko dena eta lurgainean gaudenerako soilki balio duena. Eta berdin gertatzen da esperantzarekin ere. Segur, San Paulok badaki hori.

Betiko bizitzearen kontzeptu dinamiko hau, mistikoen artean batez ere, ez da sekulan ahantzi.

Eskatologia

Testamentu Zaharreko fede, jarrerara bezala, ezin gaindituzkoa da. Jainkoaren ikuspenaz egon daiteke, gainera. Eta eskatologiaz ari garenez gero, Testamentu Berriko eskatologia Zaharrekoaren konplimendua baizik ez da.

Haragiaren piztuera Ezekielengan argi eta garbi gaztiazten da; eta Kristo piztu zen puntutik, piztuera Testamentu Berriko eskatologiaren muina bihurtu zen. Bere Mesianismoarekin judutar fedeak gizonak egin eta lor dezakeenaren gainetiko zerbait itxaroten du, hots, Jainkoaren eto-

(1) Ikus Ireneo, Origenes eta abar “in locum”.

rrera. San Pauloren fedea ez da, batzuek uste izan duten bezala (Martin Buber) judu fede jatorraren saiheste bat. Bai zera.

Eskatologia “eskaton”etik dator, eta hitz horrek *azkena* esan nahi du. Orain, bada, judu batentzat Mesias zen *azken* hori; Mesias zen haren itxoikizunen mamia. Mesiarekin Jainkoa etorri da eta Jainko horren justizia azaldu da.

Gu kristauok eskatologiaren barnean bi aurpegi, bi alde/aldi edo urrats distingutzen ditugu: bata da orain mundu honetan gertatzen dena, eta bestea heriotzeaz handiko aldean gertatuko dena. San Paulo ere mintzo zaigu hemengo egoitza lurtarraz eta zeruko egoitza zerutarraz (2 Cor 5,1-7). Baina zer da zeruko egoitza, Kristoren lorian parte izatea baizik?

Kristo, gizon den aldetik, Jainkoaren aitzinean lorifikaturik dago, eta bere loria horren partaide egiten ditu zerutarraz. Baina Jesusen arimarentzat ere Jainkoa agort ezina da, ezin konprenituzkoa.

Kapadoziako Eliz Irakasleek badute hitz bat Jainkoa izendatzeko erabilia, hots: “Akatalêptos” = *eskura ezina*. Jesusek, gizon den aldetik, jakite bat du, noski, Jainkoari buruz, ikuspen bat, baina jakite eta ikuste horrek bere mugak edo bazterrak ditu. Eta hori Kristo berari gertatzen baldin bazaio, zenbat areago ez ote zaio gertatuko, Kristo dela bide, Jainkoa *ikusten* duenari?

Jainkoaren ezin konprenitua erlijio-filosofi guztiek irakatsi dute, eta irakaspen hori bat dator, gainera, Bibliak dioenaz. Eta Doniane Gurutze-koak, Dionisio Areopagitaren eskola segituz, *gau iluna* jartzen du Jainkoaganako bide bezala (“Noche Oscura”). Donianek darabilen hiztegia eta agertzen duen ikusmoldea urrun daude kristau teologia arruntean nagusitu den ikusmoldeetik; baina kristau teologia arrunt horrek ere beti irakatsi du Jainkoaren ezagupen jatorrak, bere helduerara iristean, berekin duela ez-jakite bat, norbere buruaren uko egite bat, hots, fedea. Eta Donianek fede bezala deskribatzen duena, zer da, azken finean? Gau-ean diraugarik, betiko bizitzearen oldarrean hartuak izatea.

Kristoren eta Elizaren lekua gure fedean

Bukatzeko. Kristoren fedea Jainkoak gizonekin egindako Hitzarmen horren bihurgunean kokatzen da. Jainkoaren Semea gizon egin da. Harengan gauzatu da *Jainkoaren fedea*, hots, Jainkoaren leialtasuna gizonekiko. Jainkoaren agintzari guztiek Jesus baitan beren baiezkua aurkitu dute (2 Cor 1,18). Gizon den aldetik, berriz, Berak, eta Berak baka-rrik, erantzun diezaioke Jainkoari gizadiaren fede guztia biltzen eta osatzen duen fedearekin.

Eta Hark ez ditu bi bide horiek bata bestearen ondoan kurritu, bi-biak batera baizik. Bera da, bere eitez eta izatez, Jainkoaren eta munduaren arteko lokarria. Eta hori baldin bada, hain zuzen, Jesus, esanahirik zabalenean *fedea* delako da. Bai. Kristoren izena eta izana hitz batean adierazi nahi baldin bada, *Fedea* dugu hitz hori.

Ararteko hau, Jainko-gizon hau, ez da pertsona pribatu bat. Moral-ki, eta bai ontologikoki ere, esanahi eta zeregin orokorra duena da. Jesusen aurreko itxura bat aurkitzen dugu Moisesen pertsonan. Kristo etorri zenean, Honek Moisesen egitekoa hartu eta bere betera eraman zuen. Izan ere, Jainkoa bera etortzearekin, bitartekoak alferrik daude (Gal 3,19).

Horra zergatik ez Kristo, ez Eliza eta ez Hierarkia bera ere ez diren oztopo edo traba gizonaren eta Jainkoaren artean. Fededunak artez eta zuzenki Elizaren eta Kristoren fedea eskuratzen du. Fede hori Kristorengan Jainkoaren beraren fedea da.

Jainkoaren eta kreaturaren arteko ezkontza hau egin ahal izan da, hain zuzen, Kalzedoniak erabaki zuenez, bi izateok Kristo baitan, nahasi gabe, osoak eta bereziak daudelako.

Hogeitaseigarren Kapitula

FEDEA BERE BEGI-NINIAN (1)

Testamentu Zaharra ez da preseski irakaspen edo dotrina batzuen piloa. Han aurkitzen duguna besterik da, hots, gertakari batzuen sail edo kondaira. Orduko fededunen fede-aitormena nolakoa zen jakiteko, ikusi besterik ez dago, adibidez, Deuteronomioko pasarte hura: Dt 26,5-9. Jainkoaren ekintza salbagarria hartzen da han oinarritzat. Jainkoak, alegia, Egiptoko gatibutasunetik askatu du herria eta agindutako lurrera eraman du.

Hauxe da israeldarren Kredo, eta Kredo honekin dute zer-ikus Testamentu Zaharreko lege eta agindu guztiek. Israeldarrak Jainko bakar honi atxikia izan behar du, Hark emandako legeak leialki gorde behar ditu, Jainko errukiorraren alderakotzat bere esker ona agertu behar du. Ikus Testamentu Zaharreko fedearen edukina beste pasarte honetan: Dt 6,20-25.

Beraz, lege eta eginbehar guztiak Kondairako gertaera bakar batetik dira argitzen: Jainkoak, alegia, herria salbatu zuela. Hortik iragana argitzen, etorkizunaren atea zabaltzen, eta fede, esperantza, karitate eta otoitz-suerte guztietarako arrazoiak dira ematen.

Israelgo erlijioan ezagutzen den misterio bakarra: hautapena

Erlijio honetan ez dago beste misteriorik hau baizik: Jainkoa, guztien jaun eta jabe izanik, zergatik beheratu da herri hau beretzat hartzeraino? Amodiozko hautapen bat izan da, noski. Benetan ulerkaitza. Baina hor dago. Amodioa holako jokoak egiten zalea da. Ez maitalea eta ez maitatua ere, maitasun horren arrazoiak emateko ez dira gai izaten.

(1) H. URS VON BALTHASAR, *La foi du Christ*; bigarren kapitula.

Arrazoizko ez dela dirudien amodio horrek Jainkoagan kokalekurik izan ote dezake? Aldez aurretik ez jakin. Baina gertatzez hala gertatzen bada, maitatuari, gainera datorkion misterio honi aurpegi ematea beste biderik ez zaio gelditzen.

Agian, eta denboraren buruan, hautatua izan dena gauza batez kon-turatuko da, hots: Jainkoak norbait hautatzen duenean, besteenganako betebeharren bat bete dezan hautatzen duela. Hala Abraham hautatua izan zen, hura dela medio, herrialde guztiak bedeinkatuak izan zitezen (Gn 12,3).

Bata hautatua izan ohi da bestearen probetxua kontutan hartuz. Bai-na hori hala izanik ere, ikuspuntu honek ez du dena argitzen. Beti da egia batzuk besteen artetik hautatuak izan direla.

Jainkoaren amodio jeloskorrak gizaki batzuk hautatzen baditu, hori ez da soilki horien bidez besteak faboratzeko. Jainkoaren amodio horrek nahiko du, bai, horiek besteen bekatuak ordain eta garbi ditzaten. Moisesek, adibidez, klarki agertzen du esperientzia hori; hark beregain har-tzen du Jainkoaren haserre, herriaren aurkako haserre (Dt 1,37; 3,26; 4,21). Eta zeregin handi hau, dakigun bezala, bete-betea Yahvehren Mo-rroiaren zeregina izango da (Is 53). Baina guzti hori aitorturik ere, mis-terio honen azken zola oraindik ez dugu jo.

Hautatua beti ere beste maila batean dago. Jainkoak osasuna, sal-bazioa obratzen du hautatua izan denaren baitan. Israelek beti galdetu beharko dio bere buruari: Zer dela eta hau neri? Harridura hau, alde ba-tetik poz-iturri baldin bada ere, noiztenka sofrimen-iturri gerta daiteke, bereziki hautapenetik heldu diren eramankizunen zama astun egiten de-nean. Azken finean, galde horrentzat ez dago esplikaziorik. Hau da Israel-go herriaren fedeak duen misterio bakarra.

Misterio honek Jainkoa ezin ulertuzkoa delako sentimendua pizten du. Baina ez dezagun sentimendu hori *teologia negatiboa*z nahas, hots, filo-sofoek asmatu duten filosofi-sistema horrekin. Ez dute elkarrekin zer-ikusirik. Hark ez du, honek bezala, Jainkoa urruntasun batean bazter-turik uzten; aitzitik, mundua eta giza-bizitze osoa Jainkoaren erakarme-naz gantzutzen du.

Testamentu Berria

Testamentu Zaharrean gauzak horrela baldin badira, Berriaz zer esango? Testamentu Zaharra irakaspenen zerrenda bat ez baldin bada, are gutiago esan daiteke hori Testamentu Berriaz. Zer da, izan ere, Tes-tamentu Berria? Jainkoaren keinua, Jainko eta gizonaren arteko topa-keta, Jainkoak behin betiko agertu duen burubide salbagarria. Hor dugu Jainkoaren hitza, ez soilki ezpaineekin adierazia, mezu baten bidez, bai-nan haragitua. Eta Jainkoaren hitz horrek gurutzean jo du bere erpina. Hantxe esan du esateko zuena.

Testamentu Zaharreko gertakariak Testamentu Berriaren esanahia argitzen dute. Berrian gertatuko denaren puskak aurkitzen dira han aurrez adieraziak. Adibidez —profetetan— gizon bat Jainkoak egotzi dion egitekoaz zamatua. Horrelako gizona ez da gehiago bere buruaren jabe. Haren bizitzean Jainkoak agintzen du. Den guztia menpeko eta esaneko bihurtzen da, Jainkoaren hitzak aginte osoa izan dezan. Adibiderik argiena Jainkoaren Morroiarena duzu (Is 50ss). Hor duzu izaki osoa Jainkoari obeditzeko belarri egina.

Obedientzia honetan bi bidek elkarrekin topo egiten dute: Jainkoagandik gizon bekatiarengana datorrenak, eta honengandik Harengana doanak. Bi bideok bata bestearen etsai dira, eta etsai amorratuak, eta adiskide daitezen behar da burruka-leku bat, zeinetan gudua arma-bidez garbituko baita. Egia da Jainkoak salbamena digula eskaintzen; baina egia da, baita ere, gizonak eskaintza hori arbuio borobil batekin errefusatzeko duela. Bekatuaren errealitatea ukatu ezina da. Gertaera honek —bekatuak —pisu ikaragarria du. Jainkoaren hitza eta Jainkoaren aurkako hitzak burrukan, beraz.

Testamentu Zaharreko profetetan bitxikeriak ikusten ditugu, hots: Jainkoari obeditzeagatik bizimolde batzuk hartzen dituzte gizon arruntak ohiturekin ados ez daudenak. Haien bizitzea ez da neurtzen giza-bizitze normalaren lege eta arauekin. Gizonaren atsegin-atsekabezko sentipen pertsonaletarik kanporatuak izan dira eta Jainkoaren sentipenetara erakarriak. Pertsona hautatu horien bizitzea haserrearen erasopean dagoenaren bizitzea da.

Moises, alde batetik, herri bekatiaren mandataria da Jainkoaren aurrean, eta, bestetik, Jainkoaren mandataria herri bekatiaren aurrean (Ex 32). Halako bizitzea heriotzezko bizitzea da.

Testamentu Zaharreko profetetan ikusten ditugunak itxurak eta irudiak besterik ez dira, ordea. Kristogan gertatuko denaren itxurak eta siluetak.

Elizako Sainduengan gauza bera gertatzen da. Gurutzean dute beren sorburua, eta gurutzearen argitan soilki argitzen dira. Hitzarmenaren su-tegitik heldu den suak hartu ditu. Oso-osoko obedientzia horrek Eliz kondairan izen bat baino gehiago hartu izan du: *apatia*, *indiferentzia*, *abandonoa*..., baina, azken finean, beti da gauza bera: Norbere gorputzean Jainkoaren Nahia gorpuz dadin onartzea. Eta hori hiltze bat da. Jainkoaren eskuetan horrela uzten den bizitzea nola munduarentzat eman-kor izango den, hori ere Jainkoak erabakiko du. Hori ere Jainkoaren eskuetan uzten da.

Beraz, Testamentu Zaharreko bideak gurutzera buruz daude abiatuak, eta Berrikoek hor dute hasiera. Hortxe dago, bada, kokatua betiereko

Hitzarmen eternala. Hortxe daude bilduak alde bateko eta besteko argiune eta ilunguneak. Hortxe Jainkoaren amodioari ematen zaizkion baiezkioak eta ezezkoak.

Jainkoaren hitza haragi egina

Mundua salbatzea erabaki duen Jainkoaren Nahia *bai* esatea eta Jainkoak munduari *bai* esan diola onartzea, guztia da orobat.

Aitaren aginduz paregabeko obediencia batekin eginbide hori bete-ko duena, nahi eta ez, Jainkoa bera izan behar, hots, Semea.

Semeak gurutzean burutuko du bere egitekoa. Gurutzearen ondoren, berriz, Kristoren Piztuera dago. Gaurik beltzenaren osinetik etorriz, Kristo berriro entzun, ikusi eta ukitua izan zen. Horrek esan nahi du heriotzearen gertaerari Jainkoak lekukotasuna eman diola. Piztuerari esker, gertaera bakan eta bakar hura jainkozko argian argiturik dago.

Kristoren fedeari buruz esan genuena hemen sendoturik ageri zaigu. Kristok oso-osoko obediencia erakutsi dio bere Aitari: horra fedearen itxura jatorra. Kristok, bestalde, halako gizatiar gorputz bat ematen dio Jainkoaren fedeari, hots, Jainkoaren leialtasunari, Jainkoak gizadiarekin egiten duen akordio edo hitzarmenari.

Fede jainkotiar eta gizatiar hori dela medio, Kristo bera dugu Hitzarmen eta lokarri Jainko eta munduaren artean. Jainko eta munduaren arteko erlazioak hementxe du ezin gaindituzko konplimendua.

Hori gurutzeko gauean gertatuko zela, nork pentsa zezakeen, ordea? Grazia eta bekatuaren arteko etsaigoatik obediencia oso-osokoa irtengo zela, alegia? Obediencia hau dugu Kristologiaren oinarritzko datua. Berak bihurtzen du posible, bai Haragikundea, bai Kristoren lur gaineko bizitzea, bai Honen egiteko nagusia ere.

Mezua eta mezularia

Gurutzean eta Piztueran konplitu den obra hau, Jainkoaren obra hau, hots egin behar diote munduari Apostoluek eta gainerako dizipuluek. Mezu hau hots egiteko eginbidea hartu dute.

Baina mezu honek ikasi behar diren irakaspenen multzo edo zerrenda batekin ez du itxura handirik. Besterik da, alegia. Gertatu den gertakari bat hots egin. Eta hauxe da notatzekoa: mezu edo hots egite honen lekukotasun, hots, testigantza, baten itxura duela. Izan ere, eite honetako gertakaria, hura bizi izan dutenek eta hartan beren bizia konprometatzen dutenek soilki hots egin dezakete.

Konpromezu horrek, bestalde, gertakariaren pisuari ez dio ezer gehitzen. Balantzaren platertxoan apostoluaren lekukotasunak duen pisua

ezer guti da, gertakariaren pisuaz konparaturik. Beste hitzez esanik: lekukoen sinesgarritasunaren balioa maila beheragoan dago gertakariak berak duen sinesgarritasunaz alderaturik. Mezulariaren lekukotasuna beti ere Elizaren hitz bat da, hitz bat Hitzari buruz, alegia; gertakaria, al-diz, Jainkoaren Hitza da.

Horrek ez du, den gutiena ere, beste hau ukatzen, hots, Apostoluak eta hauen ondorengoak Kristo berak igorriak direla, Kristoren autoritateaz ebanjelioa hots egitera bidaliak. Paulok behin eta berriz azaldu du zer-nolako dohainez jantzirik egon behar duen mezulariaren lekukotasunak. Esango du, adibidez, beraren —Pauloren— mezua ez dela hitzetan gelditu, bainan boterean eta Izpirituan zabaldu dela (1 Thes 1,5), halako moldez, non Apostoluaren hitza hartu baita, ez gizonen hitza bezala, baizik eta Jainkoaren hitza bezala; izan ere, halaxe da eta (1 Thes 2,13).

Eta hain zuzen, horretxegatik hitz hori emankor eta eragile bihurtu da fededunengan. Paulok badaki ez duela bere burua hots egin behar. Berak egin behar duena besterik da, hots, Ebanjelioaren argia distirarazi (Ikus 2 Cor 4,4).

Gertakaria bera bere buruz mintzo da

Baina Paulok hemen dioena gerta dadin, behar-beharrezko da, dizipuluena hitz eta lekukotasunetik okasio hartuz, Jainkoaren Hitz horrek berorrek distira dezan, hots, bere lekukotasun propioa emateko bere baitako gaitasuna edo indarra izan dezan. Bere misteriozko izatasuna galdu gabe, noski.

Gertakarira garamatzan bidean, Kristok bere bizitze agerian egin eta esan duena dugu zatirik garrantzitsuena. Gurutzearen aurretiko hitz hau dizipuluek ez dute osoki eta behar bezala ulertu gurutzearen gertaera gertatu ondoan baizik, eta ulerkuntza horren arabera egin izan dituzte beren prediku eta azalpenak. Gurutzea eta Piztuera gertatu arte, urrun zeuden Jesusen mezua behar bezala ulertzetik. Gurutze eta Piztueratik jaio den ulerkuntzak emango du gakoa Jesusen egin-esanak ulertzeko.

Gurutzearen aurretik eta gurutzera begira esan eta egin direnak, eta gurutzearen ondotik egingo diren gogoeta eta adierazpen guztiak, denak daude, bada, gertakari horretatik zintzilika. Gertakariaren zentru honetatik ez dugu alde egin behar, beraz.

Egia da, batetik, gizonak ezin dezakeela gertakariaren berri jakin eliz mezulariaren hitzaren bidez ez bada (Rom 10,14). Baina gertakaria, berez, mezulariaren hots egitea baino lehenago emana eta gertatua da. Predikua entzuten duenak, dagoeneko, ukitua, hartua eta atzemana gelditzen da. Aldez aurretik, bera bekatarari zenean eta jakingabeen zegoenean, Kristok jadanik eramana zuen bere bekaturia gurutzera (Rom 5,8-9).

Bestela esan: Prediku-entzuleari eskatzen zaion fedea ez da, bada, mezulariaren hitzari sinestea, Jainkoaren-Hitz-haragi-eginari sinestea. baizik; gurutzean josi eta berpiztuari sinestea, alegia. Gizonaren hitzak gertakaria hots egiten du, baina gertakariak gizonen hitz guztiak gainditzen ditu.

Kristau fedea ez da, lehenik eta printzipalki, formula batzuk egiaztat edukitzea —hori ere badela ukatu gabe—. Fedea da, oroz gain, gertakaria atzematea, hartaz atzemanak izan garen ondoan; eta gero, geure buruak gertakariaren tankeraz tankeratuak edo itxuratuak izatea. Kristo beraren fedezko obedientzia eskuratzeko. Eta zer da hori? Jainkoaren nahiari geure burua ematea, inolazko muga edo salbuespenik gabe, zeren eta mugak jartzen dituen ez baita kristaua.

Orain bada, norbere buruaren emate oso-osoko eta orokor hori, baztergabeko eta mugagabeko hori, Jainkoak bakarrik eska dezake; fedemotibo atsolutu batek bakarrik galdegin dezake hori. Eta hau gerta dadin, beharrezko da mezuak adierazten duen gertakarian Jainkoak berak bere jainkozko atsolutu horretan distira dezan. Orduan, eta orduan bakarrik, alde guztizko atxikimendua eman dakioke gertakariari.

Gertakariari darion lekukotasun propioa.

Nola gerta daiteke hori, ordea? Gertakari honek jainkozkoa delako markak edo hazpegiak nola ager ditzake? Gurutze eta piztueraren gertakaria paradoxazko marka batez markaturik dago, eta hortxe datza, hain zuzen, gakoa. Alde batetik, gertakari hau da “id quo majus cogitari nequit” (= berau baino gauza handiagorik asma ezin daitekeena); eta, bestetik, “rationabiliter comprehendit incomprehensibile esse” (= arrazoiaren bidez ikusten du ez dela konprenitzen ahal).

San Anselmoren formula hauek, hark bestetarako erabili bazituen ere, bete-betean balio dute kasu honetan, hots, Jainkoak gizadiari bere burua agertu dion gertakari nagusi honetan. Agerkundera gertatu den puntutik —Kristorengan Jainkoak agertu digun obra, alegia—, gizona bada nor gertakari horretan “id quo majus cogitari nequit” begiztatzeko, hots, jainkozko amodio atsolutuaren agerpena hor antz emateko. Gertakari honekin alderaturik, ergelkeriak dira erlijio jentiletako misterio, apokalipsi eta gnosiak.

Binbitartean, zutik gelditzen da, bai Jainkoaren eta bai Haren kreaturen libertatea ere. Jainkoak bekatu egiten uzten dio —zeren gizonak bere eskuko baitu bere burua—, baina beraren bila doa amodioz, bortxa egin gabe eta bere indarraz gizona zapaldu gabe. Hor dugu goragorik ez duen zerbait. Ez, ezin asma daiteke deus handiagorik.

Eta, beste aldetik, ulergarri da. Adimenduaren argiaz eta arrazoi bidez ulertzeko modukoa, alegia. Hemen ezin gaindituzko den zerbaitekin topo egiten dugu. Gogora daitekeen baino handiago den zerbaitekin.

Eta behin puntu honetara helduz gero, elementu berria azaltzen zaigu, berariaz eta propioki *kristaua* den elementua, hots, Jainkoa amodio dela (1 Jo 4,8); horra filosofoek sekulan jakin ez duten zerbait. Zoriontasunean murgildurik den Jainkoa, bere Jainko-*tasunak* utzirik, nigatik ilunbearen gauean hiltzeraino jetxiko zela! Ez ote da hau munstrokeria bat? Nahi dut. Baina, hain zuzen, hemen azaltzen zaigun Jainkoaren irudi horrek inguratu eta astindu egiten nau, aztoratu, ezin jarki dakiokkeen eran. Bortizki erasana gelditzen naiz.

Oraino posible izango litzateke paradoxa desagitea, sineskaitz-alderdiari soilki begiratzuz. Baina hor dago txanponaren beste aurpegia: arrazoiarentzat ulergarri izatea, hots, "rationabiliter comprehendit". Bada misterio honetan barneko egokitasun, sinpletasun eta jatortasun miragarri bat.

Testamentu Zaharrean barreiatutik ageri diren itxura eta irudiak elgarretaratu, eta oraindik Kristo zati guzti horien bilduma baino askotaz handiagoa agertzen zaigu. Eta hau da notatzekoa: Kristok bere bizitzea xaloki bizi izan du eta ez zaio inondik ere Testamentu Zaharreko puska desberdin horiek Berarengan biltzeko kezka somatzen. Gurutze eta Piztueraren gertakaria, ez Hark eta ez Haren dizipuluek asmatu ez dutena, izan da zati horiek guztiak batasun handiago batean ager arazi dituen.

Hemen ezin ingura daitekeenaren presentzia nabari da argi eta garbi, guk ezein kontzeptuz neur ez dezakegunarena, alegia; eta hala ere, bere sotilean eta jatorrean ageri zaigu. "Rationabiliter comprehendit incomprehensibile esse". Egiaren atzemate honek, ordea, ez du fedearen tokia hartzen; aitzitik, nolazpait fedea suposatzen du.

Bestalde, Kristok ez du bere burua jarri amodioaren azken helburu bezala. Aitarene amodioaren ispilu da Bera. Horra beste zerbait, paradoxa hau ezin asmatuzkoa eta era berean konpreni erraza bihurtzen duena. Obeditzen duen pertsona Jainkoarengan hartua da, Jainkoaren hitza da, Semea da; baina, beste aldetik, ondorioak ateratzea gure esku gelditzen da, horretarako bidea erakusten bazaigu ere.

Jainkoa eta gizona denbora berean bereiziak eta bat eginak. Horra guztiak gainditzen dituen konplimendua.

Begiak beti gertakarira itzuliak

Hortik segitzen da zer-nolako arauak gorde beharko dituen fedearen hots egiteak. Entzuleen begirada gertakariaren zentrura zuzen arazi beharko du, handik sortzen den distiadura bihotzetara hel dadin. Hori da,

hain zuzen, Paulok honako hitz hauekin esan nahi duena: *Jesukristoren aurpegiari darion Jainkoaren loria ezagutzea* (Ikus 2 Cor 4,6).

Izan ere, zer da Jainkoaren loria edo aintza hau, bere Semearen gurutze eta piztueran distiratu duen amodioa ez bada?

Deuteronomioko agindu handia (Dt 6,4-7) gertakari honen argitan bestelako premia eta balioaz inguraturik agertzen zaigu. Dogma guztiek eta agindu guztiek zentru honetatik hartzen dute beren esanahia.

Bada arrisku bat sinetsi behar diren gauzak berex eta zentru honetatik urrunduak aztertzen direnean. Ilun eta ulerkaitz bihurtzen dira, neurri batean behintzat. Ez dezagun behin ere begia zentrutik aparta.

Orobatasunetik dator argia, eta atomizaziotik —fedea zatitan xehakatzetik—, fede hori ulerkaitz eta jasangaitz bihurtzea.

Jesukristoren aurpegiari darion argidura horretatik heldu da, baita ere, fededunarengan somatzen den usna eta hauta-lana egiteko sen hori. Fededun xaloak, bere aukeren arrazoiak zehazki emateko gai ez izanik ere, usna horrek gidaturik, huts egin gabe asmatuko dizu. Hautapen egiteko dohain hau Izpiritu Sainduak fede bizia duen edozein kristauri eman ohi dio.

Kristau ez diren sistema eta erlijioetako elementu baliotsuek ere sarrrera dute Kristoren gertakariaren barnean. Horra zergatik kristaua, alde batetik, hertsia ez den, eta, bestetik, erlatibismoan erortzen ez den.

Adibidez, “apatheia” edo beste izen batzuekin deitzen den bertute hori, Kristok Aitaganako duen obedientzian ageri da, eta halako ahaidetasun bat du Asian anitz moldeaz azaltzen diren jokaeretan. Izan ere, grazia nonahi lanean ari dela jakinik, ez da harritzekoa Atsolutuaren aitzinean erlijiozko planta hau kristau mugetarik kanpo ere azaltzen bada.

Haur eta guti landuen fedeez

Azken mendeotako teologoez ez dute buruhauste makala hartu haurren eta jende xalo eta guti landuen fedea legeztatzen; eta legeztaturik ere, bigarren mailan edo azken mailan jarri ohi zuten halakoen fedea. Guztiz logikoki, bestalde; ezen fedea, oroz gain, formula multzo batzuei atxikimendu ematea baldin bazen, eta horien frogak jakiteko, Eskritura Sainduan, Tradizioan etab. eskolatua egotea beharrezko baldin bazen, orduan, bistan da, gizon ikasien monopolioa bilakatzen zen fedea.

Ezaguna da harako *ikazkin* haren istorioa. Teologi irakasle batek fedezko artikuluei buruz galdetu omen zion. Artikulu batzuen gainean erantzun ahal izan zuen gure ikazkinak, elizan ikasia zuenetik; baina aurki aurkitu zen irtenbiderik gabe. Orduan zera esan zuen, hots: Elizak sinesten duen oro sinesten zuela berak. Hori zer zen galdetu zitzaionean, ate-

raldi hau asmatu zuen: Elizak sinesten du nik sinesten dudana eta nik sinesten dut Elizak sinesten duena...

Baina ikazkin haren fedea maiz uste den baino errespetagarriagoa eta oinarrituagoa zen. Segur aski, galdeak egiten zizkion irakaslearena baino gehiago. Beharbada akats bat zuen, elizan entzundako predikueta-rik zetorkiona: Gurutze eta Piztueraren gertakariari buruz aski ohartua ez izatea. Edo agian lotsakorra zen gure gizona, bere bihotzeko intuizio ezkutua kontzeptuen arakatzaile hari fidatzeko (1).

Eta hemen nola ahantzi Jesusen hitzok? "Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu eta jende xumeari agertu dizkiezulako?" (Mt 11,25). Adinekoiei, aldiz, esaten zaie: Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena, ez da inolaz ere han sartuko (Ikus Lc 18,17). Min ematekoa da mintzamolde hau azkar eta landuentzat, baina kondizio bat jartzen zaigu hor, erreinuan sartzeko noraeze-koa dena. Erlijioa ez da aginduen zerrenda huts-soila. Azken finean, gizonaren bihotzetik heldu da gaiztakeria (Ikus Mc 7,23).

Jesusen bakuntasuna —eta Jesusen hitzena— jende xaloei aise jasotzen dute, hots, azpildurarik ez dutenek; Testamentu Zaharrak *pobre* ("anawim") deitzen dituen horiek. Horientzat dira promesak. Horieta mintzo da Mendiko hitzaldiko lehen zoriontasuna. Ez daude okertuak, eta ez kutsatuak ere, eta Kristoren gertakariaren sinpletasunak sarbide erraza du horiengan. Barneko bista ez dute lausoz joa (Ikus Mt 6,22-23).

Barne-bistaren bakuntasun hori da baldintzarik onena, lehenik, Kristoren gertakariaren bakuntasunaz ohartzeko; eta gero, Kristok Aitaren aitzinean duen jarrerari —haur gisako obedientziari— jarraitzeko.

Jesusen bakuntasunak eta haur eta landugabeen bakuntasunak kidetasuna dute elkarren artean. Hor datza, hain zuzen, Hitzarmenaren punturik preziatuena, baina baita afrontuari jarkitzeko ezein babeskirik gabetuena ere.

Jesusen mehatxuak haurren sinesmena galbidean jartzen dutenen aurka (Mt 18,6), segur aski fedearen sinpletasuna funditzen dutenen aurka esanak dira. Eta zinez, arazo honetan sinesmen heldukoa izatea eta haurtasun-izpiritua izatea, guztia da orobat.

Jesusen alde guzizko obedientziak —zeinen partaide baita fededuna— berekin dakar behartsu izatea eta baita norbere buruari uko egitea ere (Ikus 2 Cor 8,9). Esan nahi baita, Aitaren eskuan egon eta behartsuen lagunkide izatea. Hortik dator ezkongegelditzea ere (Mt 19,10-12).

Ebanjelioko kontseiluak deitzen direnak zentru bakar batetik ilkitako puskak besterik ez dira. Bizimolde horrek, bestalde, fedea penitentzia, gurutze eta erospen misteriotik ezin berezizkoa dela aitortzen du.

(1) Ikus H. URS VON BALTHASAR, *La foi du Christ*, 116 orr.

Kristauak munduarekin loturak izanarren, fededun den aldetik begiak beti josiak behar ditu gertakarian, gurutzeko gertakarian, amodio jainkotiar eta gizatiar horretan. Gertakari horri zor dio bera den guttia, hortik heldu zaio etengabe berriztatzeko ahalmena. Fedea egunoroko hiltze eta bir-jaiotzea da. Era horretara behin gertatu zen gertakariari betiko gaurkotasuna bihurtzen zaio bizimolde asko eta desberdinetan. Gizonaren zentrua beti Zentruari begira, hots, Jainko-Gizonari abiatua.

Urruneko ondorioak ez ikustetik sortzen den istilua

Gerta daiteke —eta gertatzen da— behartsu edo xumea gai ez izatea bere fedearen ondorio guztiak behar bezala eta banan-banan kontutan hartzeko. Normala da. Berak zentruari begiratzen dio; gurutze eta piztueraren gertakariak Jainkoaren amodioa distirarazten duen lekura, alegia. Eta neke du handik sortzen diren errainu guztietara begiratzen. Azken finean, agertu zaigun amodioaren misterioak beren luze-zabalean neurtzea ez dago denen eskuetan; hori sainduen bildumari dagokio (Eph 3,18).

Elizaren kontzientzia mendeetan barna, gizaldi askoren otoitz, hausnartze eta fede biziak sortarazitako argiaren ondorioz moldatu da. Eta ohar honi: Badira une batzuk, zeinetan fedearen ikuskera formula batean mamitzen baita. Bestela esan: formula hura fedearen esplikazio jator eta legezkotzat orduan hartzen da. Eta orduan gerta daiteke begiak gertakarian ipinirik dauzkan batek formula horrek fedearen zentruarekin duen lotura ez ikustea. Bazterreko gauza iruditzen zaio. Ez du ikusten zergatik sinetsi behar duen hori. Adibidez, Ama Birjina gorputz-ari-maz zeruraturua izan zela.

Hori gertatzen zaionak beharko du jakin, ordea, bera ez dagoela aski hornitua puntu berezi honek fedearen multzoarekin duen lotura ikusteko. Eta integraturik ez daukan egia hori ez du Elizaren aurpegira erdeinuz botako. Ikazkin argituak bezala, berak ez dakiena Elizaren bizkar utziko du.

Baina jarrera hau ezin daiteke betirakoa izan; zeren Paulok fededunari misterioaren ezagupenean etengabe aitzinatzeke agintzen baitio (Eph 3,16-19). Eta batez ere gaur laikoari adin heldukoaren fedea eskatzen zaiolarik, ahaleginak egin beharko ditu fedearen elementu guztiak fede horren oinarritzko egituran txertatzeko.

Aintzin honetan aipatu dugun adibideari buruz egin dezagun oraino gogoeta hau: Eliza baldin bada Kristoren ezkontide distiranta, orbanik eta zimurrik gabea (Eph 5,26), nolatan Andre Maria ez zen, bere Se-mearen amoreagatik, besteak baino lehen zeruan hartua izango?

Etxe-barnea goitik behera aldatua

Elizaren irakaskuntzak mendeetan barna txerto eta aldaska berrien hazkundera ezagutu du. Gogoetak zuzenbide jakin bati buruz abiatu direnean eta urrunago joaterik ez zegoela zirudienean, zer gertatu da, ordea? Denbora pixka batean egon eta, supituki horra etxe-barneren egitura guztia goitik behera aldatua.

Lehen irtenbiderik gabeko gela zirudiena, horra karreju bihurtua, beste gela batzuetarako igarobide gertatua; dena gero eta gehiago argitua; leku denetatik duzu denetara sarbide; lehen axaleko edo kanpoaldeko ziruditen elementuek orain barneneko aretoan dute tokia, halako gisaz, non, eraikuntza guztiari itxura berria ematen baitzaio, eta guzti hori gertatzen da behiala definitua izan zenetik ezer kendu edo aldatu gabe.

Malgutasun hau, bestalde, noraezekoa da, ezin inguratuzkoa dena inguratu nahi delarik. Baina bati baino gehiagori eskandalurako bide gertatzen zaio. Nahiago lukete sistema zurrun bat, hariitsu-itsuan estekaturik egoteko. Pentsatzen dute erlatibismoan erortzea dela, baina ez da horrelakorik.

Kristau fedean bada ondasunik eta bai pobreziarik ere

Jesusek esana da: “Zoriontsuak izpirituz pobre direnak” (Mt 5,3). Gezurrezko ondasunei lotzeko ez dago eskubiderik. Beraz, fedean bada aberastasuna, baina bai pobrezia ere. Pobrezia hori dela eta, etengabe guduari lotu beharra du fededunak, bai barnetik eta bai kanpotik. Ez dago jabetza bat atsedenean gozatzerik, baina beti guduan, beti burrukan ibili beharra, horrek eskandaluaren itxura zerbait baldin badu ere.

Eta hala beharko, muina Jainkoaren amodioa denaz geroz, hots, Jainkoak gureganako duen ezin konprenituzko amodioa. Berak berriztatzen du, ez jakin noiz arte, joko hau zorion eta beldurraren artean, dena utzi eta Bera soilki eskura dezaguntzat.

Hogeitazazpigarren Kapitula

JAINKOAREN HITZAK, GUGANATZEKO, GIZAKUNDE-BIDEA HARTU DU ⁽¹⁾

Ez dugu bat ere beldurrik izan behar erlijio goi-agertuaren xehetasunak Antropologi-zientzien auzipean jartzeko. Jainkoak ez ditu egin gauzak erlijio-psikologiaren legeak hautsiz, bestela baizik. Hori hala izanik, Israelgo erlijio eta garai hartako beste erlijio batzuen artean kide-tasun eta antzik aski badela jakiteak, ez gaitu gehiegi artegatu behar. Azken finean, hori da zinezko *Gizakunde* baten seinalea.

Biblia da Israelgo erlijioaren liburu sakratua, baina beste erlijioek ere badituzte bakoitzak berea. Eta Israelgo erlijioan bezala, besteetan ere ikusten dugu liturgi-aginduak Jainkoak espresuki emanak agertzen direla. Jerusalemgo tenploko zeremoni guztiak Moisesek Jainkoaren partez ezarriak bezala aurkezten dira (Ikus Ex 25); eta inguruko beste erlijioetan gauza bera gertatzen da. Max Weber izan da erlijio-soziologia aztertzeari bidea ideki diona.

Izan ere, Jainkoa gizon egiten baldin bada, gizona gizon denez izango da Jainko-misterioaren adierazle. Eta, dirudienez, gizonak fede supernaturalaren jabe beharko du izan, Jainkoak ezagutarazi nahi dionaz jabetzeko.

Jainkoa karitatea da, noski, baina gizon den aldetik erakustera eman digu hori. Horregatik, amodioaren bi aginduak Kristogan soilki bat bihurtu ahal izan dira, agindu bakarra giteraino.

Horrek esan nahi du, baita ere, Jainkoak bere aurpegia gizonari ager-terakoan, gizonari gizonaren aurpegia ere agertu izan diola. Ez zen beharrezko, noski, Jainkoa gizonaz baliatzea bere burua gizonari agertze-ko; baina gizakunde-bidea hartzen baldin bazuen, orduan gizonaren neu-rrri guztiak hartu eta erabili beharko zituen horretarako.

(1) H. URS VON BALTHASAR, *La foi du Christ*, Chapitre III "Existence humaine comme parole divine", p. 129ss.

Hala, kristau erlijioak soziologikoki erlijio bat gehiago izanik bes-teen artean, beharko du humanismo jatorraz ados egon; eta orduan, eta orduan bakarrik, izango da osoki katolikoa.

Humanismoa kristautasunean: horra gure aroko auzi nagusia. Berau da gu guztiok kezkatzen gaituena, kristauek kristau ez direnekin erabili behar duten elkarrietzeta-gaia.

Eta horra non, gutien uste denean, Bibliari buruzko aurkikuneak ho-ri bera erakustera datozkigun. Egin dezagun geldione bat azken puntu hau aztertzeke.

Aurkikundeak Bibliari buruz

Alde batetik, zer ikusten dugu? Gure mendeak ahaidetasun eta ana-logia gero eta handiagoak aurkitzen ditu erlijio goi-agertuaren eta ingu-runeko kulturen artean. Alderdi asko eta asko, gure aurrekoentzat super-natural huts-soilak ziruditenak, guretzat gizadiaren altxorrekoak dira.

Beste aldetik, berriz, aurkikunde berriek, ustegabeen eta supituki, Agerkundearen misteriora hurbildu gaituzte. Beharbada guk, gaur, au-rreko gizaldiek baino hobekiago atzematen dugu Israelgo herriaren mis-terioa, hobeki ezagutzen eta ulertzen dugu Apostoluen garaia, etab.

Zenbat eta zehazkiago azpimarratzen den gizatiar alderdia, orduan eta sakonkiago eta argiago agertzen zaigu goitik etorri den egia. Hauxe da, hain zuzen, Gizakundearen lege bat. Zenbat eta gehiago agertzen den Kristo giza hitz, ekintza eta pentsakeraren partaide, orduan eta gehiago azaltzen zaigu goitik datorren Bakarra bezala. Hark bakarrik esan deza-ke: "Ene hitzak ez dira igaroko".

Beraz, Kristo da, era berean eta denbora berean, gurekin elkarkidea eta Bakarra.

Jainkoak Agerkundean nola erabili duen guri dagokigun mintzamol-dea ulertzeko, hiru puntu aztertuko ditugu. Lehenik, zer den giza espe-rientzia. Bigarrenik, giza hizkera zer-nolakoa den. Eta azkenik, nola Jain-koaren Hitza gizonagan eta gizonaren hizkeran haragitu den, guzti hau Jainkoaren hizkera bihurtuz.

I

GIZA-ESPERIENTZIAZ

Historitasuna: horra gizonaren izaerari dagokion *tasun* edo dohain bat, beti kontutan hartu behar dena. Gizonaren izpiritua, denbora dela bide, heltzen da umotasunera.

Giza bizitzean badira aroak. Axularrek honela sailkatzen eta izendatzen ditu: haurtasuna, morrintasuna, gaztetasuna, zahartasuna, sentontasuna (Ax 41). Aro horietarik batek ere ez digu hurrengoaren segurantzia ematen.

Giza bizitzeak badu bere baitako logika bat

Aroen jarraitasun honetan bada logika bat, bizitzeari dagokiona. Baina bada logikarik ez duen azken bat ere, hots: heriotzea. Logikarik eza, ordea, goreneko logika batek —graziaren logikak— nolazpait konpontzen du, Jainkoa bera leize honetaraino jaisten delarik (ez da aherentzi behar, bestalde, leizea kreaturak, eta ez Jainkoak, egina dela).

Giza bizitzearen aro bakoitza etorkizunera buruz abiatua da. Bakoi-tzak hurrengoa galdegiten du, hurrengoari deika ari da, oraingoaren uztea eskatzen du. Eta hau da kontua: aro bakoitza da, guretzat, bueltatzerik ez duen bihurtune bat, berreskuratzetik izango ez duen emaitza da, atsolutuaren eta betiereko iraupenaren isplu bat.

Adin helduak ezin gorde edo iraunaraz dezake haurraren begietan azaltzen den munduaren bista liluragarria, mundu berri eta errugabe baten bista, mirariz beterikako parabisu baten ikuspena. Haurtzaro galduaren mina ez da ez erromantizismo hutsa. Egia da honetan ere kristautasunak haurtzaroa berreskuratzeko eta parabisuan sartzeko aukera eskaintzen digula, Elizan bataio bidez sartzeko garelarik. Zernahi gisaz, eta hori gorabehera, ez dago lehengora itzultzerik.

Badator gero gazte-denbora. Hautapen handiak egiteko ordua. Istant bat, zeinetan gizonak bere bizi guztiko ogibide, zortea etab. aukeratzen baititu. Horra beste une bat, behin pasatuz gero, itzulerarik izango ez duena. Horrelako paradarik ez zaigu berriz emango.

Gero gizon helduaren garaia. Zeregin bati lotzekoa, erantzukizunak norbere gain hartzekoa.

Eta beti etorkizuneruntz abiatuturik egotea, beti aurrera begira, baina ihes egiten digun iragana ere gorde nahirik.

Presenteko denbora edo unea denbora osoaren sintesia bezala da, badu zer-ikus, alde batetik, iraganaz, eta, bestetik, etorkizunaz.

Denbora ez da, bada, inolaz ere ur-joate bat beti berdina. Baditu gailur batzuk, puntu nagusi batzuk, zeinetan gizonak bere irudia aurkitzen baitu, eta bai bere bokazioa eta berari eskaintzen zaion grazia ere. Gizonak orduan baietz esaten badu, esanahiz beterikako presentziaz betekoa du bizia; eskaintzen zaionari uko egiten badio, berriz, ondoko urteak denbora galdua izango dira.

Fede, Esperantza, Karitatea: gure lurreko bizitzearen funtsa ere hirukote horrek osatzen du. Berak ematen digu geure bizitzea konprenitzeko gakoa.

Logika bertsua nabari da Herrien Kondairan

Herrien Kondairan ere logika igualtsua aurkitzen dugu. Herri batek ez du bere burua ezagutzen eta ulertzen iraganera begiratzuz baizik, oroitzapenaren ispilua horretarako lagun harturik. Historiak —orain arteko bizi-zatiak— ematen dio euskarria itxaropenari. Historia horretan mugarri antzo azaltzen dira puntu batzuk, promes batzuk, ez osoki, baina zatika edo erdizka burutuak, zertuak. Izakiaren zati honek halako ulerpideren bat eskaintzen digunaz geroz, pentsa daiteke ez dela txorakeria be-launaldi guztiek ere, halako batasun izkutu bat osatzen dutela uste izatea.

Eta gizabanakoari edo herri bati buruz hemen esan dugunak berdin balio du gizadi osoarentzat. Eta balio du, noski, Historia sainduarentzat ere, Jainko eta Haren herri hautatuaren arteko har-emanak kontatzen dizkigun horrentzat.

Lege hori Biblian nola betetzen den

“Haurra zen Israel, eta maithatu izan dut; eta Egiptotik deithu dut ene semea” (Os 11,1; Duvoisinek itzuli bezala). Hitz hauetan oroitzapen baten mingostasuna nabari da. Garai bat aipatzen da, zeinetan dena gazte, arrai eta errugabe baitzen Israel eta Jainkoaren artean.

Behar du gizadiak bere jatorri galdu hori gogoratu, historiaren ezbehar eta istripuen artean Jainkoa bilatzen segi dezan. Israeldarrek, Egipto jori-aberats hartan zeudelarik, izango ote zuten Jainkoaren deiari jarraitzeko kemenik, basamortura joanez etab., han Kanaango lurrean beren asaba Abrahamen hilobia zegoela jakin ez balute?

Biblia sainduan ere jatorrizko esperientzia, alde batetik, eta beran-duko teologia, bestetik, bereizten jakin behar da. Tartean, berriz, zer dago? Bekatuaren esperientzia.

Sion birjinak bekatu egin du. Gehiago oraindik: bekatzuko egoeran datza, ezin gaindituzko egoeran. Legea bera, lehen gogo onez onartu zue-na, gero jasan ezina iruditzen zaio. Mendez-mende elkarren gain pilatzen dira esperientziak: errege eta profeten aroa, erbeste aldia, Jakinduria eta Apokalipsi-liburuaren garaia. Liburuok ongi ulertzeko, egoerak bana-banaka analizatu behar dira.

Horrek zer esan nahi du? Gizatiar lege bat dugula hemen, eta lege hori Biblian ere betetzen dela, hots: presenteko esperientzia ez dela egiazkoa, iraganaren eta geroaren ikuskera bati loturik denean baizik. Oroitzapenak ematen digu hari gidaria.

Iraganari buruzko gain-begiratuak maiz ageri dira Biblian. Iraganaren interpretazio horiek ez dira beti guztiz berdinak izaten. Segitzen ote da hortik, juduek, geroagoko esperientzien ondorioz, aintzinako his-

toria asmatu edo aldatu egin dutela, eta, beraz, oraingo ikertzaileek egia zer den eta asmazio zer den aurkitu behar dutela? Ez. Aitzitik, areago esan behar da geroagoko interpretatzaileak gai zirela historia hura behar bezala interpretatzeko, aintzinako gertaeren egiazko esanahia jatorri adierazteko, eta maiz sarri, ulergarriago direla gertaerok ondorengotzat, materialki bizitu zituztenentzat baino.

Iragana, oroitzapen eta irudien bidez, herri bat etorkizunera buruz gizardzeko gai izatea, guztiz da egoki eta ados giza egiaren egiturakin. Ez dira, ez, mitoak, zinezko gertaera batzuen oihartzunak baizik. Israelgo herriak inongo beste herrik izan ez duen bezalako topaketa izan du Jainko biziarekin, eta hortik heldu zaion intuizioa izango du bere geroaren moldatzaile.

Bibliaren egia ez da, bada, atzematen testuinguru osoa kontutan hartuz baizik. Hitz bakoitza orobatasunaren oihartzun eta errepika duzu. Pasarte bakar batean etengabeko esperientzia ugari eta desberdinen garraioak soma daitezke. Adibidez, patriarken denborako gertakizun batzuk gero beren jatorrizko testuingurutik atereak izan dira eta testuinguru berri batean kokatuak.

Hor da, esate baterako, 21. Salmoa. Agian, eta itxuren arabera, Jeremiasen denborako *Yahvehren pobre* batek egina izan daiteke. Gero Liturgian erabilia izan da. Hasieran gizaki bakar baten adierazpena zena, gero herri osoarena bihurtzen da, eta, azkenik, Kristo, On-beharretan On-beharrena, Salmo hau ahotan duela hiltzen da (Mc 15,34).

Bilakaera guzti hauek denborazko ibilera horretatik sortu dira, eta ez diote, den gutiena ere, Bibliaren egiari ezer kentzen.

Aitzitik, Jainkoaren hitzak moldadura guzti hauek hartu ditu, eta moldadurok, azken finean, hitz hori egia delako frogatzen dira.

Izaki bizi baten egia orotasunean kokatzen da. Hauta-lana egin behar duen gizona galde honi erantzun beharrean gertatzen da: Zeure jorkaera horrekin lehengo zeure ikuspenari eta azken esperantzari leialtasuna gordetzen ote diozu, gero? Zeure buruari zor diozun neurria gordetzen duzu?

Israeli zuzendutako Jainkoaren hitzak zer-ikusia du beti ere, bai iraganaz eta bai etorkizunaz. Gerorako agintzen direnek aintzina bete zirenetan dute beren sinestamendua. Goitik behera —zerutik lurrera— jeixten den Hitza, bere jatorritasuna frogatzeko, herriaren bizitzean txertatzen da.

Hor dago bi Testamentuek elkarren artean duten zer-ikusiarren auzia (1). Azken finean, Jainko-hitza egiak hor du oinarritzko eta ezin agortuzko bere frogantza. Elkarkidetasun orokor hori, ordea, ez da bakarra; kasurik nagusia izango da, nahi baduzu, baina badira beste anitz hur-

(1) Auzi honi buruz ikus HENRI DE LUBAC, *L'Ecriture dans la Tradition*, Aubier-Montaigne, Paris.

bilketa, topaketa eta argi-printza. Hitzarmen Zaharra oso-osorik Berriari buruz abiatu dago. Kristo eta Apostoluek etengabe Testamentu Zaharrera jotzen dute Jainko gizon eginak egin duen ustegabeko hedakuntza edo zabalpena handik frogatzeko.

Bibliako testuetan askotan nabaitzen dira desegokitasun batzuk, us-tez logikarik ez duten segidak, etab. Testuaren egoera honek hango gertaerak oso urrundik heldu zaizkigula abisu eman nahi digutelako itxura dute. Estratuak estratuen gain ezarriak dira. Gertaera bat testuinguru batetik beste batera aldatu izan da. Orduan esanahi bat baino gehiago han aurkitzea, neurri batean normala da. Esanahiaren kontua ez da her-tsia. Historiatik kanpora legokeen egia bat bezala hartzea: hori da soilki galera izatea.

Ez dago munduan testurik, ikuspegi ugarien aldetik, Bibliarekin al-dera daitekeenik. Entzuten duzu hitz bat, huts-soila dela uste duzu, baina beronen durundia ehun aldiz errepikan aritu da. Mendeetako erlijio-espe-rientziak pilatu dira hitz hura guregana heldu aurretik. Meditazio luze eta amaigabeak —Jainko-hitzaren neurrigabetasunari zor zaizkion beza-lakoak— hartako neurrigabetasuna erantsi dio bere gizatiar tresnari. Tra-dizioa, zati handi batean, Eskritura baino lehenagokoa da. Eskriturak fin-katu eta osatu egiten du Agerkundearen historia bizi hori.

Lege Zaharra, San Paulok esan zigunez, Berrirako prestakuntza zen (Gal 3,24). Beraz, osagabe den zerbait, eskas dena, etorkizun zegoen Agerkundeak gaintitu behar zuena. Judu herriaren fedezko esperientzia Jesusek konplitu eta osatu behar zuen. Jesusek bere herriaren erlijioa konplimendura eramanez. Abraham, Amos, Isaias, Jeremias eta Joben fedea Jesusena ere izango da, baina betetasunera eramanez. Horregatik deitzen zaio Kristori “archegos kai teleiotes tes pisteos” (Hebr 12,2): fe-dearen aitzindari eta osatzaile, alegia. Jainkoaren ikusle izatea ez da era-goizkarri Yahvehren Zerbitzariak izan behar duen jarrera horrentzat.

Bibliako fedea

Bibliako fedea Jainkoa baitako fedea da. Abraham, Isaak eta Jakoben Jainko hura bera gero bere Semearen Jainkoa eta Aita bezala agertzerak eman zaigu. Horrekin esa nahi dugu batasun bat eta segida bat dagoela bi Testamentuen artean. Hori ez dugu behin ere alde batera utzi behar. Kristauek ez dugu ahortu behar Israelgo herriari zor dioguna. Azken fi-nean, enbor sakratuan txertatuak izan gara (Ikus Rom 9-11).

Gizonak bere burua osoki Jainkoagan uzten duenean, orduan dugu zuzen egiten gaituen fede justifikatzailea (Ikus Rom 4), eta soiltasun ho-nek gurutzeari izango du bere beteak.

Kristo dugu, bada, urrutitik datorren fede baten konplimendu eta gailurra, konplimendu horretan lehenago ere mailak izan direla ukatu gabe: basamortua igaroz gero Lur Sainduko sarrera, erbeste aldia, etab. Baina Semea ere lur honetan bidazti izana da, eta Eliza, era berean, mendeetako basamortuan barna erromes dabila (Ap 12,14), eta orobat fededun bakoitza.

Biblia osoa bere batasunean bidetan da beti ere, abiatze bat da, alegia, iruditik egiara, agintzaritik konplimendura, haragizko heriotzetik izpirituzko bizitzera, haragizko presentziatik eskatologi-presentziara. Egia hori tentsioz betea da. Jainkozko egia giza-esperientzia horretan txertatzen da. Erlazio iragankorren sare hauskor honek badu trinkotasunik aski Egia atsolutua atxikitzeko.

Agerkundera ez ohi da zerutik erori gizonei kanpotik eta goitik misterioak jakin arazteko; Jainkoa gizonari munduaren barnetik eta gizonari beraren esperientziatarik mintzo zaio ardurenean. Kenosi hori Lege Zaharreko hitzean gaztiatu eta Gizakundean burutu da.

II

GIZA-HIZKERAZ

Hizkera da giza-esperientziari dagokion komunika-moldea. Hizkera diogunean hitz egitea esan nahi dugu, noski. Eta zer da hitz egitea? Hitz egitea da norberak bere barrenalde pertsonala soinu edo hotsen bidez besteri adieraztea.

Hiru gauza ditugu hemen. Lehena: bere eskuko den pertsona izpirituala, bere-berea duen egia ezagutzen duena. Hori dela eta, hitz egite hori ez da nolanahiko hotsa, sistema zehatz bat baizik. Eta halakoxea da Yahvehren hitza ere (Is 45,19). Bigarrena: askatasun osoa. Gizonak hautatzen duen esana ezin izan daiteke bortxaz edo ezin bestean esana. Giza-hizkerak esatekoen hautapen librea suposatzen du. Hirugarrena: egia eta libertatea dela medio, gizonak sujetibitatea gainditzten du eta *zu* bati buruz abiatzen da. Beraz, bada hemen elkarganatze bat; hartu-eman bat, alegia.

Hizkera zergatik den hain bereizgarri

Hitz egitea ez da, bada, gizonarentzat zerbait gainetiko, axaleko, edo bazterreko gauza. Gizonak bere izatearen zati bat du hizkera. Azken aldiko filosofoek, hizkeraren fenomenoari abiaburutzat hartu dutenek, biderik laburrena hartu dutela, aitortu behar. Izan ere, izpirituaren hondotik

heldu den “Verbum mentis” delakoak, sortzetik beretik amodioa lagun duelarik, ez du pertsona bere bakartasunean uzten; aitzitik, izakiaren elgarretaratze-legea adierazten du. Bestela esan, gizonaren hitzak, egia denean, izakia zer-nolakoa den agertzera ematen du.

Hiru dohainen jabe da, bada, hizkera: egia, libertatea, amodioa. Eta oraindik beharrezko da bere burua gaindi dezan ere. Gizonaren hizkera barneneko ganbara edo azken hondotik irteten da. Hizkerak egiten du gizona izadiaren gailur eta Jainkoaren aurrean boz eramaille.

Gizonak izaki-mota guztietarik du zerbait: badu gorputz materiala, badu izpiritua. Eta hizkeran ere bada orotarik: izadiaren imitatzea, seinale, keinu, irudi; bada letra, bada logika, bada gramatika. Joritasun honek gizona noraino den orotara zabaldua susma arazten digu.

Animaliek ere badute beren gisako hizkera; eta gizonarenak badu antzik aski horienarekin, bera ere naturalezaren zati bat denez gero. Izadiaren jokabideetarik oso hurbil daude animaliak, eta bai gizona bera ere.

Beste gaididura jomugatik heldu zaio hizkerari. Hitz egitea ez da bere baitan bukatzen: zerbaitetara da abiatura; ekintzaren hasiera da. Bada une bat, zeinetan hitza ez baita aski; pertsona osoa behar da, dela amodioan, dela ekintza politikoan, dela apostolutzan, etab.

Eta, azkenik, egiak egitasuna galdegiten du. Ezen egitasunak frogatzen du hitzak izakia jo duela, ez duela huts egin.

Jainkoak ere bere burua konprometatzen du hitz egitean, eta ez gizonak baino gutiago. Jainko biziaren hitza ez da sasi jainko mutuena bezalakoa.

Jesusen hizkera

Jainkoaren Hitz-gizon-eginak bere bizitze agerian hitzik aski egin ondoan, azken aldian Eukaristia eta Pasioarekin hitz egin zigun. Joanek *azkeneraino joatea* deitzen dio honi (Jo 13,1). Hitz egite hutsak ezin dezakeena —gero eta kontrakarra handiagoa sortarazten duelako— hitz-oparitan emanak lortuko du. Gurutzean tantoka akitzen den bizitzeak, alegia. Azken hitza sofrikarioa eta heriotzea da. Hauxe da bizitzearen zibilua.

III

AGERKUNDEAREN HIZKERA

Gizona mintzatzaile da, bada. Izpiritu librea da, egia ezagutzen duena, bide batez bai izadia eta bai bere burua ere adierazten duena. Orain bada, hizkera-modu hau hautatu du Jainkoak ere bere Agerkundera egi-

teko. Horrek esan nahi du Agerkundeak “analogia entis” delakoa suposatzen duela.

Analogia

Analogia diogunean, zer esan nahi dugu, preseski? Antzeko, eta halere, desberdin.

Jainkoagandik mundura ez dago baitezpadako den lokarririk. Kreetzea, Agerkundera, Erospena, denak dira Jainkoak libreki disposatuak. Hala ere, bada zinezko analogia bat. Agerkunderaren hizkerak Kreazioko hizkera suposatzen du. Bestela esan, Jainkoaren ezagupen naturala suposatzen du. Izaki sortuak bere Sortzailearekin duen har-emanak ezagutzea suposatzen du, alegia.

Animalitik izpiritu librera pasatzean, maila berri bat azaltzen zaigu. Era berean, Jainkoak bere Agerkundera giza historian barna egiten duenean, jaun eta jabe azaltzen da. Berak bakarrik dakizkien lege eta bideez baliatzen da. Bide horiek historiaren barne-legeetarik ezin atera daitezke.

Hemendik hiru ondorio segitzen dira:

§II

1) Jainkoa, gizona dela medio, mintzo da. Ez bakarrik gizonak dioena, baina bera den guztia ere Jainkoarentzat tresna bihurtzen da. Baina hori, jakina, Jainkoak bere tresnatzat hartzen baldin badu.

2) Jainkoak, Berak hala nahirik, inoiz erabaki baldin bazuen gizon egitea eta gure adierazte-moduak —guri bere asmoak agertzeko— har-tzea (eta erabaki hori mundua sortu baino lehen hartu behar, zeren kreetzea bera horretarako lehen urratsa baita), orduan beharrezko zen gizonaren bizitze eta esperientzia bera adierazpide bezala har zitzan.

3) Gizonak, bada (ezta Agerkundera ere) ez du Jainkoa atzematen gizona baitan baizik. *Bigarren kausen* estalkia ez da urratzen, kontrara baizik: zenbat eta barnetikago agertzen den Jainkoa, orduan eta estaltzenago zaigu gizatasunean; behialako Jainkoaren hitza, gero Jesukristoren haragian bildua, edo Sakramentuetan, Elizan etab. estalia, emango zaigu. Eta hori gero eta gehiago. Gizona Jainkoarekin topo egitera da deitua, eta fede bizian aurkituko du.

Guk ezin hurbil dezakegu Aita, Honen Semearen gizatasunean ez bada; ezin egin gaitezke Haren Izpirituaren partaide, Kristoren gorputzean baizik. Jainkoa maitatzeko, lagun hurkoa behar dugu maitatu.

Baina gizona Jainkoaren hizkera bihurtuagatik, gizona ez da Jainkoa bilakatzen.

Agerkunde eta Historiaren arteko lokarriak

Bibliako Agerkundera deitzen dugun hori era askotako lokarriz erlazonatua dago bai Kreazioaz, eta bai Historiaz. Patriarken erlijioak, adibidez, badu zer-ikusirik Kanaango erlijioarekin. Bibliak Abrahamen aurretik bizi izandako sainduen berri ematen digu. Israelgo Jainkoa izango denak Yahveh du izena, noski, baina Biblian agertzen dira beste izen batzuk ere, hala nola Elohim. Itxuren arabera, Kanaango jainkoen izenak dira.

Israelgo erlijioak dakarren salbamena mundu guztirako dela konprenitzen dutenean, Kreazioko kontraera eta Noeren hitzarmena pentsakera horri egokituak azalduko zaizkigu. Eta Hitzarmen honen ezaugarritzat —Jainko eta munduaren artean bakezkoak egin direlako sinestamendutzat— ostadarra ematen zaigu (Gn 9,16).

Itxuren arabera, Israelgo apaizen hausnartzeak esku sartze izan du hemen. Haiek konprenitu zuten Jainkoak, bere errukiagatik, gizonaren bekatu eta desbiderapenak gora-behera, nahi zuela mundua bere babespean hartu.

Gizakunde-legea aintzakotzat hartua

Jainkoaren hitzari gizatiar den gauzarik ez zaio arrotz. Gizonaren bizitzean gertatzen diren egoera guztiek dute han sarrera: *Ni* eta *hi*, gizona eta emakumea, aita eta haurra, ama eta semea, errege eta herria, apaiza eta laikoa, erlijioa eta politika, amodioa, gorrotoa, jelsia, justizia eta errukia, norbere buruaren emaitza, martirioa, etab.

Gehiago oraindik: Jainkoaren hitzak Israelgo herria bere egoera historikoan hartzen du, hots, munduko eboluzioaren une jakin batean. Baita egoera politiko jakin batean ere: Eguzkialde Hurbileko erresuma handien tartean, feniziar kulturaren eraginpean. Munduaren irudia eta ikuskera, bizitzaren interpretazioa, jakituria, filosofia, metafisika eta erlijioa: guzta guzti hauetan Israelek inguruneke herrien eragina jasan du.

Gizonaren neurri eta izari guztiak bere eskuan ditu Jainkoaren hitzak. Eboluzio-maila bakoitzak balio du —Jainkoak hala nahi baldin badi, behintzat— Agerkunderaren hazkundera gaia eskaintzeko.

Jainkoak berak, Kreatzailea den aldetik, hornitu ditu lehendanik Agerkundera egiteko erabiliko dituen gai horiek.

Israelgo erlijio eta inguruneke herrien erlijioaren artean lokarriak daude, hori ezin ukatua da; era berean, erlijio naturalaren eta erlijio supernaturalaren artean —erlijio natural hori bekatuaren ondorioz askotan kutsatua edo desitxuratua agertzen dela aherentzi gabe—.

Guzti honek ez gaitu erlijio-liberalismo batera lerratu behar, baina bai gizakunde-legea aintzakotzat hartzera.

Jainkoak nahi izan du giza hizkeraz hitz egin. Hori dela eta, esperoan egon da monoteismo-suerte bat Egipto eta Babiloniaren erdian jar zedin arte. Jainko-herriaren-buruzagi: ideia horrek indarra hartuko du eta gero gaitutua izango da. Errege gantzutua Jainkoaren irudi dena, profeta, arartekoa, Mesias...gai guzti horiek ez dira Israelgoak soilki. Jainkoa bere Agerkundera gai guzti horietaz baliatuko da. Agerkunde hori esperientzia berri bakoitzarekin uztartzen dela esan genezake.

“Género literario” delako hori baino zerbait gehiago dago hemen.

Aintzina, Elizako lehen idazleek Ebanjelioaren aurre-prestakuntza bat egon zela aitortzen zuten, hots, “praeparatio evangelica” (Zesareako Eusebio), eta gaur ideia hau argi berritan azaltzen zaigu.

Hitz bat bera euskaraz eta erdaraz azaltzen zenean, gure Aita Larra mendik esango zizun hitz hura erdaraz euskaratik hartua zuela, eta ez alderantziz. Elizako Guraso batzuek ere sostengatu zuten Platonek Moisesengandik ikasi zuela, eta ez alderantziz. Baina gaur badakigu gauzak beste aldera izan direla. Apostoluen Eginetan beretan ez ote zaigu hori espresuki aitortzen? (Ikus Act 7,22).

Hazkunde edo garapen bat gertatu da, eta hazkunde hori Agerkundera kontutan hartuko du. Analogia batzuk egizta daitezke, beraz; analogiak, ordea, ez du berdintasuna esan nahi. Bada analogia bat aurrerapen naturalaren eta aurrerapen supernaturalaren artean. Testamentu Zaharrean barna aurrerapen bat gertatu dela begien bistan dago: tribu-kontzientziatik erresuma-kontzientziara, eta, azkenik, erbesteari esker, kontzientzia orokorra, hots, unibertsala.

Testamentu Berrian, gisa berean, halako hazkunde bat nabari da Sinoptikoetarik San Paulora eta Donianera, eta gero, noski, Dogmaren aurrerapenean. Guzti hori barnatze bat besterik ez da. Barnatze-lan honek galera batzuk ere berekin dakartza, baina egiazko aurrerapena gertatzen dela ere ezin uka.

Eta Elizako Gurasoek adierazi zutenari jarraikiz, honako hau ere esan daitekeela dirudi, hots, greziarren artean pentsakerak jo zuen gailurra baldintza bat bezala izan zela Jainko-Semearen gizakunderako.

Izan ere, baldintza hori gabe, Ebanjelioa zabaltzeko behar zen giza oinarriak berak huts egingo zuen. Ez bakarrik komunikabide egokiak, baita pentsakeraren zenbait egiturek ere huts egingo zuten; Kristoren nondik-norakoa eta esanahia ulertzeko beharrezko ziren egiturak, alegia.

Lehenago, Judaismo eta Helenismoaren arteko sintesia gertatu zen, eta sintesi horrek kristau misterioaren ulerkuntzarako behar ziren lanabesak eskaini zituen.

Beti Jaun eta Jabe, halarik ere

Baina honako hau ere esan behar da: giza jakinduriak beharko du hil, Jainkoak bere Agerkunderaren zerbitzutan erabil dezan. Mundu ho-

netako jakinduriak erokeria dela beharko du jakin, Jainkoaren jakinduria izatera helduko bada.

Biblian agertzen zaigun Jainkoaren hitza askotan Egipto eta Akadia-ko jakinduriaren ereduaren arabera jantzia ageri zaigu (adibidez, Job, Qohélet eta Esan Zuhurren liburuak). Baina, bestalde, zer-nolako alde batetik bestera! Zenbat zuzenketa, aldatze, zenbat gauza bidetan utziak! Eskritura Saindu izatera heltzeko, giza jakinduriak aldakuntza harrigarriak jasan behar izan ditu.

Jainkoaren Hitza, Hark hala nahi baldin badu, giza kultur maila batetara egoki daiteke, eta gero maila hori gainditu egiten du. Baina inongo kulturarekin konpromezurik ez du hartzen. Jainkoa beti da Jaun eta Jabe. Jainkoa aurkitu nahi badu, gizonak beharko du bere burua konbertitu. Jainkoa ez dago giza desiren eta ahaleginen helmugan.

Jainkoaren Hitza boteretsu da. Berak irten arazi du populua, basamortuan barna gidatu eta zenbait menderen buruan tribu-multzo hura Ebanjelioaren atariraino helarazi du. Testamentu Zaharraren erdi-erdian Yahvehren Morroiaren kantuak, zer miraria! (Ikus Is 49ss).

Obra handi hau Hitzaren ondorioa da. Hitza barnetik ari da lanean, legamia antzo. Baina azkenean misterio atsolutua da. Guk adoratu beste zer eginik ez dugun misterioa.

Gailurra

Jainko-Hitza hipostatikoki gizonakin bat egitea Jesusengan bakarrik gertatu da —eta Berau dela bide, ororentzat—. Jesusengan giza esperientzia eta betiereko egia elkartu egin dira. Kristoren giza-izakera eta Jainko-izakera batuak daude —nahiz eta ez nahasiak—. Horrek esan nahi du Jainkoak bere buruaz esan nahi diguna, zehazki eta osoki giza-modura esan ohi duela. “Consummatum est” (Jo 19,30). Orintxe bai heldu direla gauzak bere azken helburura!

Giza-hizkerak Jesusekin Aitaren Hitz eternoa bereganatu du. Idealik gorena erreal bihurtu da. Gailurra erdietsia izan da. Eta gailur hori jo du giza bizitze apal batek, apartekorik ia ez duen batek, salbu Aitaganako eta gizonenganako amodio suharra; langile eta predikari baten bizitzeak, lotsarian eta pobretasunean bukatu nahi izan duen bizitzeak. Horra Giza Semea!

Gizon haxe da Jainkoaren Hitza

Jesusgan Jainkoak gizona atzeman du. Jainkoaren Hitza ez da jadanik lege bat, baina da *gizon hau*. Jainkoak munduari esan edo eman behar zion guztia, horra gizon honen barrutian kokatua. Elijioaren eta Legearen izpiritu guztia, horra gu bezalako gizon horren izpirituakin bate-

ratua. Horra askatasunaren erlijioa. Gizon honek Jainkoari dena ematen dionean, odola isurtzeraino obeditzen dio, eta haatik ez dio bere buruari baizik obeditzen. Bai heteronomia eta bai autonomia, bi-biak gainditu dira. Semeari sinesten diona bere eskuko da, zeren eta humanismo oso eta erabatekoa lortu baitu.

Elizaren Liturgiak Seme honi omenaldi amultsua errendatzen dio, munduak bere Jaun eta Jabea zapuztu eta berriz gurutziltzatu egiten duen unean berean. Liturgia behar da, ordea, bizitzera aldatu, hots, han adierazten dena behar da praktikaz egiztatu.

GAI ETA IZEN BATZUEN AURKIBIDEA

(Orrialdea xoilki aipatzen da)

	<i>Orrialdea</i>
Agerkunde eta Fedearen azken esanahia	79
Agerkundearen definizioari buruz	196
Agerkundearen iturriei buruzko eskema Kontzilioan	197
Agerkundearen supernaturaltasunaz	69
Agerkundearen zertarakoa	208
Akordagoitia	24
Altizer	256
Analogia	327
Analogiak askatzen ditu Agerkundeko korapiloak	208
“Anawim” (pobre)	316
Apatia	310
Apologetika	21
Apostasia	157
Aquasparta	304
Askatasuna fedean	82
Askatasuna eta ziurtasuna nola elkarlotzen fedean	89
Aurkikundeak Bibliari buruz	320
Aurrerazale eta atzerazaleen tirabira	266
Bautain	34
Behin egindako Agerkundeak nola balio lezake betiko?	206
Bertute teologalak	28,172
Bideazkoen egoera eta fedea	41
Billot	118
Bonhoefer	257
Bortizkeria (indarkeria)	253
Buber (Martin)	299,306
Bultmann	54,300
Cardedal (O. Gz. de)	8
“Credere Deo, Deum, in Deum” esanmoldeak	66,146
Danneels	259
Deabruen fedea	48
“Dei Verbum” konstituzioa	222
Deismann	302

Descartes	23
"Dignitatis humanae", Kontzilioko gutuna	234
Dionisio Areopagita	306
Dogma	147
Dogmatismoa delakoaz	247
Doniane Gurutzekoa eta fedea	134,306
Durkheim	261
Ea Agerkunde aktiboa fedearen motibo formalean sartzen den	68
Ebanjelioaren ber-irakurpenak	248
Ebanjelioko kontseiluak	316
Ebanjelizapena	240
Ebanjelizapena eta giza askapena	250
Ebanjelizapenaren funtsa zertan den	247
Eliza eta Kristo, federako seinale	105
Elizalde etxalartarra	17
Elizaren esparru agiritik kanpo direnen egoera	106
Elizaren hutsezintasuna fedean	182
Elizaren egitekoak Agerkundeari buruz	214
Erdi Pelagiotarrak	30
Erljioa eta idolatria	267
Erljio-askatasuna	227
Erljio-heziera	235
Erljio-mundua eta fedearen mundua	245
Eskritura Saindua eta Agerkundera	216
Etxe-barnea goitik behera aldatua	318
"Evangelii Nuntiandi"	252
Ezagupena eta Fidantzia fedean	50
Fede-aitormena	181
Fede-batasuna Elizan	103,183
Fede doktrinala delakoaren aurka erasoak gaur	63
Fede, Esperantza eta Karitatearen arteko bereizketaz	174
Fede hitzaren bi adiera nagusi	178
Fede naturalaren auzia	29
Fede pertsonala eta fede doktrinala	145
Fedea azken Kontzilioan	199
Fedea bere muinean	193
Fedea Biblian	163
Fedea errurik gabe gal ote daiteke?	131
Fedea esapide-bidez adierazi beharra	180
Fedea, salbaziorako beharra	124
Fedea San Joanen idazkietan	169
Fedea San Pauloren teologian	167
Fedea zabalki hartua ("fides late dicta")	125
Fedeak zaindu beharra du	158
Fedean bi memento bereizi-beharra	56
Fedearen birjintasun eta pobretasuna	112
Fedearen gordairua	149
Fedearen karikatura	40
Fedearen motibo formala	64
Fedearen urtea	273
Fedean gertatzen den libertate-mota	192

Fedezko dudak	157
Fideismoa	277
Formula dogmatikoen balioaz	130
Fedearen zentrua	76
Gaurkotu, baina leial egonez	281
Gertakaria bera bere buruz mintzo	312
Giza arrazoiaren lekua fedean	95
Gizakunde-bidez obratu du Jainkoak Agerkundera	207
Gizakunde-legea Agerkunderan	328
Gizakundera	258,267
Gizakundezko edo Enkarnaziozko kristautasuna	112
Gizonen arteko fedea eta jainkozko fedea	120
Gnostikoak	55
Gnostizismoa	52
Harvey Cox	256
Hebertarren epistola	168
Herejia	156
Hermes (G.)	33,83,131,157
Historia eta hitzen konbinaketa Agerkunderan	205
Historitasuna, giza izaerari dagokion legea	320
Hizkera, gizonaren bereizgarri	325
Humanismoa kristau fedean	113
"Id quo majus cogitari nequit"	313
Ikazkinaren fedea	315
Ikusi gabe sinesten dutenak, dohatsu	100
Iluna eta argia nola elkarlotzen fedean	99
Iluntasuna fedean	92
Ilustrazioko garaia	258
Indibiduo eta pertsona	230
Indiferentzia	310
Jainko-herriaren Kredo	273
Jainkozko fedea eta Elizazko fedea	147
Jesus eta politika-arazoak	249
Jesus, iraultzaile politikoa?	251
Jondon Jakue eta fedea	168
Kant	202
Kartesianismoa	117
Katekesia	143,278
Konbertsioa eta fedea	42
Konpromezu pertsonala	266
Kredo gabeko fedea	143
Kristau anonimoak	132
Kristau bakoitzaren fedea eta Elizaren fedea	183
Kristau fedea aztertzeke on ez diren bideak	24
Kristau fedearen sorreraz	179
Kristau mezua ez da soilki dotrina bat	191
Kristau populua	263
Kristoren tokia fedean	72,189
Lafitte (P.)	267
Lapeyre (Et.)	142
Liburuaren erlijioa	218

Loisy	202
Lurreko arazoak eta fedezko bizitzea nola elkarlotu	114
Lurreko gauzak fedean	110
Lutero	31,285
Marzion	285
Max Weber	261,319
Meslier	23
Mircea Eliade	246
Misterioak Agerkundean	210
Modernismoa	201
Moltmann	269
Newman	215
"Nostra aetate" azken Kontzilioaren gutuna	242
Obedientzia eta fedea	311
Obligazio morala eta bortxa	233
Ortodoxia eta Ortopraxia	270
Parusia	109
"Potentia oboedientialis"	199
"Praeparatio evangelica"	329
"Rationabiliter comprehendit incomprehensibile esse"	313
Robinson	267
Rousselot (P.)	122
Sabatier	202
Sakramentuak eta fedea	105
Salbamena	209
San Agustin	203
San Tomas	39,303
San Tomasen dotrina fedez	141
San Tomasen esplikabidea fedeari buruz	122
Schleiermacher	32,53,202
Seinaleen zeregina federako bidean	100
Sekularismoa	154,259
Semirrazionalistak	33
Semitarren kategoriak	270
Sinesgarritasun-epala	21,43
Sineskeria (superstizioa)	158
Sinesteza	155
"Sola Scriptura"	217
Sortaldeko kristauak eta eskatologi-oldarra fedean	108
Supernaturala	38
Teologia	175
Teologi Fundamentalak	119
Teologi katolikoa eta protestantea fedeari buruz	185
Testamentu Zahar eta Berriaren arteko erlazioak	220
Testigantza	204
Topaketa	204
Tradizioa	219
Transzendentzia eta Inmanentzia Agerkundean	210
Trentoko Kontzilioaren Dekretua Eskritura eta tradizioei buruz	219
Zesareako Eusebio	329
Ziurtasuna fedean	86
Ziurtasunen beldurra gaur	241